1. SARRERA

Azken hiru hamarkadotan lan franko egin da toponimia arloan Euskal Herrian. Ikerketa horiek helburu, eremu, sakontasun eta argitaratze-modu ezberdinak dituzte alderik alde, bazterrik bazter. Ondorioz, tankera askotako liburu, aldizkari eta mapetan, Probintzia osoa nahiz udalerri bakarrak aztergai dituzten ahozko bilketa, dokumentazio hustuketa eta arautze proposamenak aurki ditzakegu. Egile eta babesleak ere ez dira alde eta aldi oro berak; izan ere, kultura elkarte, enpresa eta herri-administrazioentzat, hainbat filologo, historialari, zale zein ikasle aritu dira lanean.

Ikerketa toponimikoen ugaritzea eragin duten arrazoiak ere askotarikoak dira. Batetik, mendi-liburu eta mapen eskaria hazi egin da. Bestetik, udalerrietan toponimia bertako kultur ondarearen parte garrantzitsu dela konturatzen hasi dira. Horrez gainera, herri-administrazioetan abian jarritako euskararen normalizazio prozesua edota toponimiak hizkuntzalaritzatik at (historian adibidez) irabazitako entzutea aipa daitezke, besteak beste.

Tamalez, toponimia arloan lanean ari garenok sarritan ez dugu izaten bestek egiten duenaren behar adinako ezagutzarik. Usuenik, batak ez du izaten besteak erabilitako metodologiaren nahiz lortutako emaitzen berri, informazioa plazaratzea jakintza ororen aitzinamenduaren oinarrietako bat bada ere.

Gipuzkoako ahozko toponimia txikia (mikrotoponimia) osoa jasotzeko lehen ahalegina Foru Aldundiarentzat Donostiako Aranzadi Elkarteak 1982. urtean hasirikoa izan zen. Estreinakoz, bilketa 1:5.000 eskalako mapak baliatuz egin zen. Bide beretik, 1988. urtean OBIE elkarteak[1] Oiartzunen landuriko ahozko bilketan nahiz Leibar, Núñez eta Sanzberrok buruturikoan ere eskala horretako kartografia erabili zen. Hirurak erreferentzia garrantzitsuak dira corpus toponimikoan. Bilketa egiteko eta izenak emateko erabilitako irizpideak sarritan bereziak izatean datza akatsik nabarmenena, elkarte horiek beren kabuz erabakitakoak direlako. Zenbait auzitan irizpide horiek ez

[1] Oiartzun Bailarako Izadi Elkartea.

dira batere zentzuzkoak ez eta onartuak ere; beste batzuetan, haatik, bateratuagoak eta arautuagoak daude. Edozein modutan, esan bezala, corpus toponimikoan duten itzala garrantzitsua da. 1991an, azkenik, Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutua, Nerea Mujikaren zuzendaritzapean, Gipuzkoako toponimia txikia (eta Arabakoa) batzen hasi zen Eusko Jaurlaritzarentzat; galdeketak berriemaile jakitunenak bide zirenei baino ez zitzaizkien egin[2]. Gipuzkoan egin diren ikerketez ari garelarik, ezin ahantz genitzake Pasaia (Elortegi, 1992), Andoain (Usabiaga, 1993), Eibar (ZZ. AA. 1995; San Martin, 2000), Elgeta (op. cit.), Arrasate (Ormaetxea, 1996), Urretxu (Ugarte, 1998), Zumarraga (op. cit.), Hondarribia (Furundarena, 2002), Antzuola (Pavo, 2005), Tolosa (Elosegi & Goikoetxea, 2006), Oiartzun (Goikoetxea & Lekuona, 2007) nahiz Zumaiako (Azkue, 2008) toponimiari buruz argitaraturiko lanak, horietariko asko Euskaltzaindiaren "Onomasticon vasconiae" bilduman.

Neurri batean behintzat, gure kartografia izateko aukera dagoen honetan, Euskal Herrian, administrazio, elkarte edo norbanakoek egindako mapetan, oraindik ere, toponimia arautugabea irakurtzen da askotan. Sarritan borondatea gehiago ikusten da, ezagutza baino[3]. Hain justu, arautze-irizpide bateraturik ez izatea eta izenen kokapen kartografiko zuzena dira gaurko argitaralpen askoren ezaugarri nagusiak. Aranzadi Zientzia Elkarteak 1994an plazaraturiko Imanol Goikoetxearen mapa (*Mandoegi Leitzaran. E. 1: 25.000*) eta Hernaniko Udalak 2010ean hango toponimiarekin karrikaraturikoa (*Hernaniko toponimoen mapa. 1: 15.000*) dira diogunaren bi erakusgarri garbi.

Bada beste arazo bat, aski axolazkoa hau ere: toponimia arloko lanetarako kartografia ia ezinbesteko baliabidea izan arren, hura kartografiarako lagungarri soila baizik ez da. Hori dela eta, izendatzen diren elementuak eta horretarako baliaturiko moduak asko aldatzen dira karten helburuen arabera, ez baita gauza bera mapa bat apaingarritarako, gudaroste atzerritar batentzat edota jabego bat zehazteko egina izatea. Esan bezala, kartografian toponimia ez da nahitaezkoa, borondatezkoa baizik eta,

[2] Gaur egun berrikusten ari dira.
[3] Ikus Galé (2007: 167).

ondorioz, toponimoen kokapen eta errotulazioa hautazkoak izaten dira gehienetan, hitz batean, zehaztasun gutxikoak.

Horretaz landa, euskaldunok oraintsu arte geuk eginiko kartografiarik ez dugu izan eta horrek esan nahi du Euskal Herriko mapak espainiar, frantses, ingeles edo estatubatuarrek egin dituztela usuenik. Gainera, toponimiaren borondatezko izaera dela eta, mapa bat egiterakoan aurrekoetan erabilitako izenak kopiatzea jokabide arrunta izan denez gero, kartografian dakusagun euskal toponimia okerrekoa da sarri askotan. Honatx adibide bat: gure esparrua irudikatzen duten mapa ofizial batzuetan **Basategui* (BASOATEGI?), **Mulisco* (MUNISKUE) eta **Anchista* (ANTXISTA) jarri beharrean *Basaqueit*, *Muliseo* eta *Aucisco* idatzi dira, eta oraindik ere horrela egiten da.

Testuinguru horretan, tesiaren helburu nagusiak hauek dira:

- Toponimia arloan lanean ari behar dutenei baliagarri gerta dakizkiekeen argibideak ematea, onomastikari ekarpena egitea, alegia.

- Urumeako zilegimendietan izandako erabilpen, adiera eta bilakaera argituz, euskal toponimian kausitzen diren elementuen izaera finkatzen laguntzea, bide batez, euskararen arlo fonikoa, morfologia edota lexikoa ikertzeko erabilgarriak izan litezkeen datuak plazaratuz.

- Zilegimendietako hizkera itxuratzen duten ezaugarriak, edota haren bilakaera, toponimiaren bidez zenbateraino ezagut daitezkeen ikustea.

- Gipuzkoako toponimiaren arautze eta normalizazioan aurrera egitea.

Helburu horiek lortze aldera, lan-eremu edo esparrua aukeratu behar izan dugu, eta hori egiterakoan honako bi iritziok hartu ditugu aintzat batez ere:

○ Zenbat eta eremu handiagoa izan, orduan eta sakontasun gutxiago izango du ikerlanak. Konparazio batera, Gipuzkoa osoa esparrutzat hartuz gero toponimo bakoitzari eskain dakiokeen tartea asko murrizten da.

○ Gipuzkoako alderdi guztiek ez dituzte toponimia alorreko ikerketak egiteko erraztasun berak ematen, ahozko bilketak burutu eta dokumentazio hustuketak egiteko aukerak nabarmen aldatzen baitira alderdi batetik bestera, biztanleria, hizkuntzaren egoera zein bertan gordetako artxiboen arabera.

Hori horrela delarik, lanerako hautatu dugun barrutia[4] Gipuzkoako ipar-sortaldean —Nafarroako mugan— dago, Donostia, Hernani eta Urnietako zenbait aurkintzak osatzen dute eta 38 km^2 ditu (ikus 1 eta 2 mapak). Neurri handi batean euskaldun dirauen eremu horrek 12. mendetik honako idatzizko informazioa baliatzeko aukera ematen du, eta hori, Gipuzkoan bederen, ez da ohiko gauza.

Esan beharrean gara, nolanahi ere, Urumeako zilegimendien mugaz haraindi, hau da, izenburuan jakitera ematen den esparruaz gainera, beste lurralde zabala ere kontuan hartu dugula lanerako (70 km^2). Kanpo aldeko eremu horri buruzko datuak ere berariaz eta zehatz-mehatz bildu ditugu, Urumeako zilegimendiak inguratzen dituen inguru hurbilarekin halako informazio gerrikoa eratuz (ikus 3 mapa), betiere tesiaren berezko esparrua den lurraldean dagoena hobeki ikertzeko asmoz. Inguramendu lurralde horrek kilometro batetik lau kilometro bitarteko hedadura du tokian-tokian Urumeako zilegimendietako mugatik abiatuz. Beraz, aurrerantzean, ez bedi ahantz *gure esparrua*-z ari garenean Urumeako zilegimendiez eta inguru hurbileko lurraldeaz ari garela.

Tesiaren iturri nagusiak ahozko bilketa eta dokumentazio historikoa dira, baina aitortu beharra da kartografia modernoaren ekarpena ere joria dela, zilegimendietako inguru hurbileko toponimoen aipamen kopuruaren aldetik batez ere.

[4] Ikus 2.§.

Xehetasunetan sartuz gero, derragun lehen toponimia-galdeketa 1989. urteko abuztuan hasi genuela; azkena, berriz, 1994ko urrian izan zen[5]. Aurreneko bilketa hartan Donostiako Aranzadi Zientzia Elkarteko hiru lagun Urnietako toponimia jasotzen aritu ginen Udalaren babesean sei hilabetetan zehar[6]. Urumeako zilegimendien zati bat Urnietan zegoenez, hura izan zen egindako lehen bilketa. Hilabete batzuk geroago talde berak Hernaniko ahozko toponimia batzeari ekin genion eta —Urnietan gertatu antzera— gure esparruko Hernaniko zatiaren informazioa jasotzeko ahalbidea izan genuen[7].

1992an, tesia egiten hastearekin batera, ordu arte eskuratutako datuak ikuskatzeari heldu genion. Hasi bezain azkar ohartu ginen 1989an lortutako hainbat toponimoren fitxan informatzailearen erreferentzia falta zela[8]. Halabeharrez, izen askoren kokapena ere ez zen behar bezain zehatza[9]. Zenbait izenen aldaerek, azkenik, zalantza sortzen ziguten.

1989. urteko galdeketetan —ez beti— egindako grabaketa magnetofonikoak berriro entzutea izan zen hurrengo urratsa. Lantegi hori burutu ahala hiru urte lehenago egindako transkripzioak batzuetan oker zeudela jabetu ginen. Arrazoi horrengatik, gure esparrua soilik jorratuko zuen bilketa berria egitea erabaki genuen[10]. Aldez aurretik berriemaileen emankortasuna ezagutzeak hautaketaren aukera eskaintzen zuenez, bigarren bilketa berriemaile jakitunenekin baizik ez genuen egin. Bigarren bilketa bi urtetan burutu genuen eta emaitzak onak izan ziren. Batetik, toponimo berriak jaso genituelako eta, bestetik, bigarren alorreko lan hari esker, aurretik bildutako hainbat aldaera hobeki finkatu ahal izan ditugulako.

---

[5] Azken galdeketa (1994/10/13) Alkatxuraingo aitona-amonekin izan zen, Dolores Santa Kruzekin (Alkatx.) eta Juan Mari Artolarekin (Larreg.). Dolores handik gutxira hil zen.

[6] Luis del Barrio eta Josu Tellabide ziren gure lankideak. Emaitzak 1989ko urrian eman zitzaizkion Urnietako Udalari Aranzadi Zientzia Elkartearen izenean; Barrio & Tellabide & Zaldua (1989).

[7] Hernaniko Udalari lan osoa 1989ko abenduan aurkeztu zitzaion; Barrio & Tellabide & Zaldua (1989b).

[8] Aranzadi Zientzia Elkartearen izenpean egindako bilketa hauetan ez da adierazten forma bakoitza zein berriemailek eman duen.

[9] Gehienetan berriemailea mendira joateko gai ez zelako.

[10] Ikus 4.1.§.

Dokumentazio historikoari dagokionez[11], esan dezagun egoitza publiko eta partikularretan gordetako iturri inprimatugabe eta inprimatuak aztertu ditugula eta, aberatsenak ez ezik, lehorrenak eta nekagarrienak ere jorratzen saiatu garela[12].

Donostia Urumeako zilegiko partaide nagusia izanik —bederatzi zatitatik lau zegozkion—, abian hiriburuan datu gehiago ziratekeela pentsatu arren, Hernaniko Udal Artxiboa bihurtu da bilketaren oinarrizko iturri. Donostiako artxiboan, gerra, txikizio eta suteak direla medio, gehienbatean 19. eta 20. mendeetakoa den dokumentazioa baizik ez da gordetzen. Hirugarren partaidearen artxiboa ere, Urnietakoa alegia, arrazoi bertsuengatik, urria da benetan. Hernanikoa joriena dela egia da, baina gainerako artxiboetako dokumentazioa ez dugu gutxietsi nahi izan, gure esparruaz mintzo diren idazki zaharrenak, esaterako, Nafarroan daudelako.

Dokumentazio historikoaren hustuketari esker corpuserako aipamen franko lortu ditugu, maiz aski ahoz jasotako toponimoak arautzerakoan lagungarri izan direnak eta, menturaz, euskararen arlo fonikoa, morfologia edota lexikoa aztertu nahi duten beste ikertzaile batzuentzat aztergai nahiz errferentzia bihur daitezkeenak. Aurrekoaz gain, idazkietan gordetako toponimiaren ikerketak badu berez bestelako erabilgarritasunik, hizkuntzaren historian sakontzeko aukera ematen baitu esaterako, eta horrek garrantzia nabarmena du, are gehiago —euskarak bezala— tradizio idatzi eskasa daukaten hizkuntzez ari garenean.

[11] Ikus 4.2.§.
[12] Cf. Terrado (1999: 47).

2. GURE ESPARRUA

Stricto sensu gure ikerketaren esparrua diren *Urumeako zilegimendiak*[13] Gipuzkoako Ipar-sortaldean daude, Bizkaiko itsasotik nahiko hurbil eta Nafarroako muga-mugan.

Probintzia osoaren % 1,9 harrapatzen duen lurralde horrek luzez izaera berezia izan du, baina egun ez du administrazio aldetik inongo entitaterik, bestela esan, ez da ezer, ez da gaurko kartografian adierazten[14]. Alabaina, mapei arretaz erreparatuz gero, Donostiak, oraindik, Kontxatik urruti samar dagoen Aranorekin muga egiten duen jabetza duela ikusiko da.

Jarraian doazen lerroen xedea ez da horrelako bitxikerien nondik norakoa argitzea, toponimia zuzenago barneratzen lagun dezaketen datu gutxi —eta agian bitxi— batzuk ematea baizik, jakina baita gertakizun linguistikoak ulertu ahal izateko beste jakintza-eremu batzuetako informazioa behar izaten dela behin baino gehiagotan, eta toponimia ez da salbuespena horretan.

---

13 Horrela esaten zitzaien gaztelaniaz *Montes Francos* deitutako mendiei. *Zilegia*, berriz, instituzioa zen, *Comunidad de Montes Francos* izena zuen erakundea alegia. Ikus, adibidez, Alkain eta Zabala (1970).

14 Bat gatoz Caminorekin (1997: 85-86) administrazio barrutien oinarrian interes eta jardun bereko gizarte edo erkidegoa irudikatzen duten ekonomia arrazoiak egoten direla esaten duenean, *Valle de la Urumea* delakoa, geografia errealitatea ez ezik, bazkalekuak eta beste zenbait ondasun kudeatzen zituen administrazioa ere bazelako.

2.1. Lurraldea

Montes Francos del Urumea (Urumeako zilegimendiak) delako lurraldea 1º 43' - 1º 49' meridianoek eta 43º 17' - 43º 10' paraleloek osatzen duten laukiaren barruan dago. Urumea ibaia bizkarrezur duen hogeita hemezortzi kilometro koadroko esparrua[15] OINDI-ABALLARRI-ADARRAMENDI-ZABURU-AZKETA, LEUNETA-GARAGARTZA-EUNTZIN, IGORIN-AKOLA eta URDABURU-GOROSTEGI mendilerroek biltzen dute (ikus 4 mapa). Gaurko egunean, Donostia, Hernani eta Urnietako udalerrienak diren lau zatitan banatua dago eta mugakideak Andoain, Arano, Astigarraga, Berastegi, Elduain eta Errenteria dira. *Gure esparrua* esamoldearekin izendatu dugun lurraldeak, berriz, ehun eta zortzi kilometro koadroko hedadura du guztira, inguramendu eremuak hirurogeita hamar kilometro koadro baititu.

Urumeako zilegimendiez mintzo bagara, bidezkoa dirudi, barruti bihurtu zen une beretik, lurralde horrek muga jakin batzuk izatea. Nahiz eta lehen erreferentzia 1379koa izan, lurraldearen norainoko zehatza nahiko berandu arte ezin daiteke jakin, 1671. urtean Donostia, Hernani eta Urnietak zilegimendiak bederatzi zatitan zatitu zituzten arte hain justu. Barrutiaren norainokoa dela eta, deigarria da inguruan ugari diren *judumahai* (dolmen) eta jentilbaratz (cromlech) asko esparruaren muga-mugan egotea (ikus 5 mapa).

Aztergai dugun lurraldearen norainoko zehatza ezagutzeko goian aipatutako 17. mendeko zatiketaren mugarriztatze-agiria erabiliko dugu[16]. Orduko, EPELA izeneko barrutia (3,6 km^2) Urumeako zilegimendietatik kanpo zegoen, hasiera batean esparruaren barruan zegoela ematen badu ere. Ziur dakiguna da EPELA, 1467. urtean, EPELSAIETSA eta LANDERBASO izeneko bi pusketan zatitu zutela; lehenengoa Hernaniko kontzejuarentzat eta bigarrena Donostiakoarentzat izan ziren.

---

15 Norainoko hori *azalera gutxitua* da, hau da, mapetan neur daitekeen hedadura. 1671. urtean egindako neurketaren arabera, Urumeako zilegimendiek 851.847 *postura de pie de manzano*-ko lurrazala zuten. HUA, zeinadura: C atala, 5 negoziatua, I saila, 3 liburua, 8 espedientea.

16 HUA, C ata., 5 neg., I sai., 3 lib., 8 esp.

1671. urtean, epaiketara deituriko hiru adituek haranaren bi aldeak *hegoaldeko alderdia* eta *iparraldeko alderdia* izeneko bi zatitan banatu zituzten:

"*... los términos, y confines del dicho valle de la* ***Urumea*** *empiezan a la parte de medio dia, desde el Rio* ***Urumea****, y el arroio llamado* ***Muga****, que es termino de la jurisdicion del lugár de* ***Arano****, del Reyno de* ***Navarra****, hasta el cerro de* ***Euncin****, y desde alli, por la loma, y aguas vertientes a lo alto de* ***Garagarza****, y desde alli â otro alto llamado* ***Carramichola****, y desde alli a lo alto de* ***Zaimola****, y desde alli â* ***Unamuño****, y desde alli a lo alto de* ***Ezela****, donde se define el termino que corresponde a la jurisdicion del dicho lugar de* ***Arano****,* (...) *desde este mojon de lo alto de* ***Ezela*** *siguiendo por la loma de la montaña, y vertientes de agua acia el occidente, sigue el termino de la* ***Hurumea*** *a la loma de* ***Urzeguil****, y desde alli a la cima de* ***Acazola****, y desde alli a* ***Guilicharmeaca****, y de alli a la cima, y alto de* ***Anchista****, y de alli â dar* ***Erreteneta****, y de alli â encima de* ***Oindi***[17] *donde esta un mojon de cal, y canto, y de alli a dar â* ***Ypenarrieta****, y de alli a dar* ***Lecaio****, y de alli a dar* ***Lecaiopera****, y de alli al cerro de* ***Mantele****, y de alli al sel de* ***Arrondo****, y de alli a la fuente de* ***Larrazar****, donde, y en el sitio antecedente estan dos mojones de cal, y canto, y de alli a la cima de* ***Usategui*** *donde tambien se halla otro mojon de cal y canto, y de alli a la cima de* ***Zulueta****, donde tambien se halla otro mojon de cal, y canto, y de alli por el arroio abajo ha* ***Uaran****, y de alli â* ***Uncela****, y de alli a la encrucijada de* ***Urteaga*** *donde se hallo una piedra que sirve de mojon con señal de la Cruz y desde alli baja en derechura al dicho rio de la* ***Urumea*** *por los confines de la jurisdicion de* ***Hernani****, y desde alli siguiendo por el dicho rio* ***Urumea*** *hasta el dicho arroio de* ***Muga*** *de donde empezo esta delineacion,* (...)"

...

"*Asi bien los terminos, y limites del dicho valle, que caen a la parte septentrional, desde el dicho Rio* ***Urumea****, empiezan azial oriente por los terminos, y confines de la villa de* ***Renteria****, empezando desde la punta de* ***Illarrasuain****, desde donde se corre azia* ***Oberaun****, hasta lo alto, ô, cima del termino de* ***Oberaun****, y desde alli a lo alto de* ***Gorostegui****, y de alli al sel de* ***Unzue****, y de alli al cerro de* ***Urdaburumayor****, y de alli â* ***Urdaburumenor****, y de alli â* ***Zuelquezu*** *que llaman, donde esta un mojon, y de alli al sitio de* ***Ygoringo gaña****, donde esta otro mojon, y de alli a* ***Alcazuricogaña****, y de alli al mojon de* ***Ygorin****, y de alli por un arroio abajo hasta* ***Barracocoba****, y de alli a lo alto de* ***Acola*** *y de alli abajo de* ***Alcola****, al sitio que vulgarmente llaman* ***Arretiaq****, y de alli hasta el Rio* ***Urumea*** *por los confines, y terminos de la dicha villa de* ***Hernani****, cerca del qual dicho rio, se puso un mojon de piedra arenisca labrada mas abajo en alguna distancia de la casa, y herreria de* ***Hereñozu*** *entre unos roble jobenes, y mas abajo del camino que ba desde la dicha herreria a la de* ***Fagollaga*** *en un sitio que mira a un arroiuelo casi seco, y desde el dicho Rio* ***Urumea*** *corriendo por el hasta los dichos terminos de la dicha villa de* ***Renteria*** *y, punta de* ***Illarrasuain*** *se cierra todo el dicho termino del dicho valle de la* ***Hurumea*** (...)"

---

17 Ez da ADARRAMENDIren iparraldean dagoen OINDI mendiaz ari, hegoaldean —Andoain aldean— dagoen OINDO mendiaz baizik. Ikus 6 mapa.

2.2. Klima

Gipuzkoako klima epela eta hezea da[18]. Neguak hotz-epelak eta udarak fresko samarrak izaten dira, haize heze eta hodei ugarirekin. Euria sarritan egiten du lau urtaroetan[19]. Ildo horretan, *Sortaldeko Erliebeetan* sumatzen da klima atlantiarraren eraginik garbiena Probintzia osoan, urteko batez besteko prezipitazioak 2.000 mm-koak baino handiagoak izaten direlako, eta hain zuzen ere, inguru hartantxe kokatzen dira Urumeako zilegimendiak. Ingurune morfodinamiko horretako mendiak, itsasoaren eragin klimatikotik babesten dituen erlieberik ez dutenez, egiazko prezipitazio-hartzaile bihurtzen dira eta, hodei-pilaketaren ondorioz, euriteak noiznahi izaten dira.

2.3. Geologia

Sortaldeko Erliebeak multzo bateratu eta berezia dira Gipuzkoan. Mendi hauen geologia berezia da: Gipuzkoa osoa Aro Sekundario edo Mesozoikoko materialez osatuta badago, *Sortaldeko Erliebeek* duten hondoa Primario edo Paleozoikokoa da gehienbatean. Probintziako harri zaharrenak dira, nolabait esan, eta *Bortzirietako Mendigunea* izenaz ezagutzen dira geologian.

Urumea inguruko mendiak Orogenia Hertziniarrean (duela 290 milioi urte inguru) eraldaturako Paleozoikoko arbel eta harearriz osatuta daude, harri igneoak (granitoak edo granodioritak) dituztenak. Esan bezala, material horiek *Bortzirietako Mendigune Paleozoikoa* osatzen dute. Honen inguruan material detritikozko gerrikoa edo orla dago, Triasiko eta Behekretazikoko konglomeratu eta harearrizkoa.

URUMEA inguruko mendiak mendigune zaharraren (paleozoikoaren) eta bere sedimentu-estalduraren (mesozoikoaren) arteko ukipenaren erakusgarri dira[20]. Konglomeratu eta harearriek egitura-erliebe garrantzitsuak sortu dituzte, OINDI, ADARRAMENDI eta ABALLARRI mendiak lekuko. Egitura-erliebe horien higaduragatiko

---

18 Urteko batez besteko tenperatura 13º Ckoa da, eta batez besteko prezipitazioak, berriz, 1.500 mm.-koak.

19 Gipuzkoako Foru Aldundia (1991: 31).

20 *Op. cit.*, 55 or.

eraispenak askotariko zabalerak dituzten hegal-deposituak (kolubioiak) sortarazi ditu. Arbel paleozoikoen gaineko haran estuen garapena da beste ezaugarri morfologikoa, bihurritasun handiko makur edo meandro txertatuak eratu dituena.

Mendien garaiera ez da handia, baina erliebeak malkartsuak dira, ur-ibilgu sarea oso txertatuta dagoelako eta itsasaldea nahiko hurbil. Mendi handienen gailurrak itsas mailatik gora 500 eta 850 metro bitartean daude eta, horren erakusgarri, gure esparruko toki garaiena AZKETA mendiaren gailurra da (836 m itsasoaren maila gainetik); erreferentzia baxuena, berriz, URUMEA da (EPELA parean 15 m itsasoaren maila gainetik).

2.4. Ur-ibilguak

URUMEA da gure esparrua zeharkatzen duen ur-ibilgu nagusia. Nolanahi ere, Gipuzkoako gainerako errekak bezala, nahiko txikia da. Ezkurra inguruan jaiotzen den erreka Paleozoikoko material iragazkaitzetako isurketez sortzen da eta bere ibilguaren zati handia material horietan txertatuta egiten du (ikus 7 mapa). Hernani ingurutik hasita, alubioi metaketa garrantzitsua duen haran zabala eratzen du URUMEAk Donostian itsasoratu arte.

Ibaiaren emaria aldakorra da. Neguan ur asko ekarri ohi du, baina udaran eta udazkenaren hasieran agorraldiak izaten ditu. Urte-sasoi horietan, lantegi eta indarretxeek egindako ur-bilketak direla medio, lehortea areagotu egiten da eta errekaren zati askotan ez da urik egoten. Halere, Oiartzun errekarekin batera, Probintziako erreka urtsuena da.

Hauek dira URUMEAren ezaugarriak[21]: guztira berrehun eta hirurogeita bederatzi kilometro koadroko azalera du (279 km^2), luzera berrogeita hamabost kilometrokoa da (55 km), ehuneko hamaseiko malda jaisten du (% 16) eta urtean, batez beste, segundoko hamaika metro kubikoko isurketa egiten du orotara (11m^3/s).

21 *Op. cit.*, 42 or.

2.5. Landaretza eta fauna

URUMEA inguruko mendietan dauden landaretza eta fauna aspaldidanik gizakiak eragindako aldaketen emaitza dira. Azken glaziazioaren ostean, duela 10.000 urte gutxi gorabehera, izotza atzeratzearekin eta klima gozatzearekin batera, baso hostogalkorra eremu handiagoa irabazten joan zen. Denboraren buruan, espezie hostozabalak hedatu ziren eta baso hostogalkorra (haritza, haltza, etab.) paisaiaz jabetu zen pixkanaka-pixkanaka. Neolitikoan, zenbaiten ustez, lehen baso-soiltzeak hasi ziren, orduko artzainek, suaz baliatuta, baso hostotsuak suntsitzeari ekin baitzioten, aziendarentzat larre bila.

Aurrerago, beste zenbait jarduera eta gertakari bilakatu ziren paisaiaren eraldaketan erabakigarri. Hiru aipatuko ditugu diogunaren lekuko: 15. menderako jadanik hasia zen burdinolak elikatzeko ikazkintza, 16. mendetik aurrera bereziki garrantzitsua izandako ontzigintza eta 19. mendearen bukaeran azaldutako gaztainondoaren tinta eta haritzaren oidioa gaixotasunak.

Espainiako Gerra Zibilaren ostean, paper-fabriken ugalketaren ondorioz, Urumeako zilegimendien zati handia hazkunde azkarreko zuhaitzez birlandatu zuten eta Euskal Herriko isurialde atlantiko osoan paisaiaren elementu adierazgarrienetakoa bihurtu den *Insignis* edo *Monterrey* pinuak erdietsi zituen mendi gehienak.

Azken hamarkadetan, aldiz, ustiapena ibitzen ari da. Hernani eta Urnietako mendi askoren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu du bere gain eta, horren ondorioz, Urumeako zilegimendiak izan zirenetan birlandaketa eta baso-hobekuntza ugari egin dira azkenaldian.

Eraldaketa horiek guztiak eragin zuzena izan dute bertako faunarengan eta, ondorioz, ingurune jakin batzuetan bizitzera hertsiki egokitutako espezie batzuk ia erabat galdu dira, ingurune horiek jasandako aldaketen aurrean ahulak baitira.

Askotariko inguruneetara moldatzeko gai diren animaliek, berriz, jasankortasun maila hobea erakutsi dute. Giza-jarduerek otsoa, katamotz iberiarra eta hartz arrea bezalako haragijaleen desagerpena ekarri dute URUMEA inguruetan[22], baina beste harrapari batzuk, azeriak adibidez, asko ugaldu dira azken urteetan.

Esan moduan, gure esparruko gaur egungo paisaia osatzen duten landareak eta animaliak eragin askoren ondorio dira. Oro har, honako ezaugarriak dituzte[23]:

- Baso landatuak, bestela esan, pinudiak, landaredi eremu nagusia dira ezbairik gabe, lautatik hiru bai gutxienez.

- Harizti azidofilo eta harizti-baso misto atlantikoak, beren hazkunde-garai gazte edo "anderatuekin", URUMEA eta gainerako ur-ibilguen alboetan daude[24].

- URUMEAren uhertz gehienetan haltzadia ikus daiteke, eta pagadi azidofiloa AÑARBEKO URTEGItik gertu dagoen ALTZABASOAn hazten da batez ere.

---

22 Badirudi otsoek 19. mendearen amaiera arte iraun zutela gurean. Hara garai hartako egunkari batean argitaratutako berria:

> "Aquellos primeros días de 1882 se vieron manadas de lobos por los montes de Goizueta, Urnieta, Arano y Berástegui. Estaban hambrientos y atacaron a las ovejas llegando su voracidad a atacar animales mayores. Y así el 3 de Enero le comieron a una mula uno de los cuartos traseros. Varios cazadores de San Sebastián, Hernani y Urnieta dieron batidas para cazarlos, sin mayores resultados".

El Urumea egunkaria, 1882ko urtarrila. 1992-I-5eko *El Diario Vasco*-n berrargitaratua.

Bidenabar, diogun KATAMOTZARRI izeneko harkaitza dagoela Urumeako zilegimendietan, OINDI mendiaren sortaldean; cf. *Katamotzuloeta* izeneko ur-gurutzea Abaltzisketan (1997, ABM). Ildo beretik, 16. mendean bazen hartzik oraindik han, 1591ko dokumentu batean honakoa irakur baitaiteke "*... se reparen los puercos que andan en la montaña de hosos y lobos, ...*". HUA, C ata., 5 neg., I sai., 1 lib., 9 esp.

23 Eusko Jaurlaritza (1990: 64-II eta 64-IV). Ikus, baita ere, Aranzadi Zientzi Elkartea (1989: 26-27) eta (1990: 35-52).

24 Esanguratsuena haritza den arren, ez du gainerako espezieen gaineko presentzia nabarmenik, badaudelako gaztainondoak, lizarrak, eta zumar hostozabalak. Beste zenbait zuhaitz ere arruntak dira, urkia eta ametza esaterako. Gizakiak sartutako zenbait espezie aurreko horiekin nahasten dira, sasiarkazia, haritz amerikarra eta platano arrunta kasu. Zuhaixken artean, berriz, elorri zuria, erratzak eta apo-mahatsa ditugu. Azkenik, gutxiago izan arren, badaude gorostiak eta oilakaranak ere. Ikus Aranzadi Zientzi Elkartea (1990: 40-41).

○ Belaze eta soroak, berriz, EREÑOTZU inguruan kausitzen dira.

○ Txillardi-otadi-iratzedia IGORIN-AKOLA mendilerroaren eta OINDI mendiaren iparraldeko isurialdean ikus daiteke.

○ Harkaiztegi silizeoetako landaredi gune bakarra ZABURU mendian dago.

○ Bertako espezieen birlandaketak, azkenik, OINDI mendiaren hegoaldeko isurialdean egin dira batez ere.

Zilegimendietako egungo fauna, jatorriz, atlantikoa eta Europa-erdikoa da[25]. Baso ugari daudenez gero, espezie menditar eta basotarrak nagusitzen dira. Bestalde, URUMEA errekaren kalitate ekologikoa ona da, ubide, ibai-hertz eta uraren garbitasunagatik batez ere. Ondorioz, ornodunen taldea ongi garatua dago eta aberatsa da. Anfibioen ugalketarako oso garrantzitsuak diren mendi-erreka ugari ere badago.

Hosto erorkorreko berezko basoetan bertako espezieak daude, hau da, basokoak. Pinudiek, aldiz, fauna urriagoa dute, nahiz eta eremu handieneko espeziea izan. Ugaztun handientzat duten babesleku eginkizuna da onura aipagarriena. Landaketa horiek, ustiapen ziklo motzak eta ingurunearen homogeneotasunak faunaren izaera eta egoera erabat baldintzatzen dute eta, honenbestez, espezie lur orotakoak eta basokoak bizi dira ia erabat.

Baserri inguruetako belaze eta soroetan talde berezia eratzen da, gizakiaren ekimena jasateko gaitasuna duena. Txilardi-otadi-iratzedietan bizi diren ornodunek, amaitzeko, leku irekiak hobesten dituzte. Guztiarekin, Urumeako zilegimendietan honako espezieak ditugu egun:

---

25 Maria Jesus Arraiago biologoari atal hau osatzeko emandako laguntza eskertzen diogu.

○ Anfibio ohikoenak apo arrunta, arrabioa, baso-igel gorria, txantxiku arrunta, uhandre palmatua eta ur-igela dira.

○ Narrastiak: eskulapio-sugea, horma-sugandila, iparraldeko suge leuna, musker berdea, seoanei-sugegorria, sugandila bizi-errulea, suge berde-horia, suge gorbataduna eta zirauna.

○ Hegaztiak: amilotx urdina, antzandobi kaskagorria, antzandobi arrunta, arrano sugezalea, belatz gorria, birigarro arrunta, buztanikara, buztanikara zuria, errekatxindorra, eskinosoa, garrapoa, garraztarroa, gerri-txori arrunta, hontza zuria, karnaba, kukua, lepitzulia, martin arrantzalea, mirotz zuria, mokolodia, okil berdea, okil handia, okil txikia, txantxangorria, txepetxa, txinbo kaskabeltza, txonta, urubia, ur-zozoa, txirriskila, zapelatza eta zozoa.

○ Ugaztunak: arratoia, azeria[26], azkonarra, basakatua, basasagua, basurdea, bisoia, erbinudea, etxe-sagua, ipurtatsa, katagorria, kata-jineta, lepahoria, lepazuria, lursagua, lursagu gorria, millet-satitsua, muxar grisa, orkatza, saguzarra, sataina, satitsu arrunta, sator arrunta, triku arrunta, ur-arratoia eta ur-satitsu hankazuria.

URUMEA errekari doakionez, kolektorea martxan jarri zenez geroztik ur-ibilgu horrek erdi eta beheko aldeetan zuen egoera txarra nabarmen hobetu da. Horri, ur-emari gutxieneko batzuk etengabe gordetzeari eta arrainentzako arrapalak egiteari esker, desagertzear zegoen izokina errekan barrena dabil berriz[27]. Arrain horrez gainera, aingira, amuarraina, ezkailua, mazkarra eta txabolaia arruntak dira. Gainerako erreketan ere badira aingira, amuarrain eta ezkailuak.

---

26 Ugaria da egun, gizakiak eraldatutako ekosistemara moldatzea lortu baitu. Urnietan, konparazio batera, ehunetik gora azeri harrapatu ziren 1975-1991 bitartean.

27 Dakigula, izokinak arrantzatu dira URUMEAn 16. mendetik gaurdaino. 20. mendearen berrogeigarren hamarkadan arrain ugaria zegoen artean, 19. mendearen bukaera arte arrantzarako nasak erabili arren. Gizaldi horren amaieran indarretxeekin batera ibaian uharkak eraiki ziren (LASTAOLAkoa 1896. urtean eta ARRANBIDE zein SANTIAGOkoak 1898an), baina, hala eta guztiz ere, 20. mendearen hasieran, onak ziren urteetan (1930-1936 bitartean esaterako), urteko berrehun izokin baino gehiago arrantzatzen ziren. Dionisio Usarragak emandako informazioa. Cf. Aranzadi Zientzi Elkartea (1986).

2.6. Biztanleria

Urumeako zilegimendietako egungo biztanleria ez da mila lagunera iristen. Hernaniko partean daude gehienak, Urnietako zatian dozena bat eta LANDERBASOn beste dozena bat biztanle egongo baitira[28]. Batez besteko dentsitatea, hortaz, ez da kilometro koadroko hogei pertsonara iristen[29]. Biztanleria hori, LANDERBASO alde batera utziz gero, URUMEA errekatik nahiko hurbil dauden hirurogei bat bizilekutan banatzen da[30], gainerako lurraldean ez baita ia inor bizi. Esan gabe doa eroritako baserri eta borda asko dagoela (ikus 8 mapa).

Azken hamarkadotan mendialdean dauden baserriak husten (AKOLA, LANDERBASO, LEGARRALDE, LIZARREGI, MUGATZ, SARATSAIN, ZULOETA) eta kasu batzuetan galtzen (AMUNOLA, AUZOKALTE, BENTATXURI eta IZENEDERGOIKOA) joan dira. Etxolekin ere antzeko zerbait gertatu da, egon, abeltzainak badauden arren, ez baita artzain bakar bat ere gelditzen. Duela lauzpabost hamarkada, ostera, hogeita hamarretik gora izaten omen ziren udaberritik udazkenera beren aziendekin mendian ibiltzen ziren artzainak[31].

Errekaren inguru hurbilarekin alderantziz gertatu da, batez ere EREÑOTZU aldean, hirurogeiko hamarkadan lau alturako etxe multzoa eraikitzearekin batera auzune hori gehienbat Goizueta eta Aranotik etorritako jendez bete baitzen. Gainera, txalet tankerako etxeak eta baserrien zaharberritzeak gero eta gehiago dira.

Gaurko egoera argiturik, Urumeako zilegimendietako biztanleriaren bilakaera zein izan den azaltzen saia gaitezen. Hernaniko biztanleriari buruzko lehen datua 1490. urtekoa da. Hain justu, Valladolideko Errege-Kantzilerian Hernaniko Kontzejuak aurkeztutako idazkian "*... el pueblo hera tan grande que abía trezientos vezinos casados, a lo menos ochoçientos e aun mill confesantes....*" aditzera ematen da, hau da

---

28 Hernaniko biztanleriaren %4, Urnietakoaren %0,2 eta Donostiakoaren %0,005.

29 Donostiakoa hiru mila ingurukoa da, Hernanikoa laurehun eta berrogeita hamarrekoa eta Urnietakoa berrehunekoa. Gipuzkoan, bestalde, hirurehun eta berrogeita hamar bat biztanle daude kilometro koadroko.

30 Horietatik hiru dozena inguru baserriak dira.

31 Bartolome Urangak (Amu.) emandako informazioa.

1.500 bat biztanle zeudela[32]. Alabaina, (izkribu berean) beste berriemaile batek 150 auzo (*vezino*) jotzen zituen, hau da, gehienez ere 750 bat bizilagun.

Isastik (1972: 525), 1.625 aldera, 200 auzo zerga-ordaintzaile (*vezinos pecheros*) ematen zituen Hernanirako, alegia, 1.000 biztanle inguru. Gorabeherak gorabehera, 16.-17. mendeetan 800-1.000 biztanle zeudekeen Hernanin[33], baina oso zaila da haietatik Urumeako zilegimendietan zenbat bizi ziren jakitea. 1.610. urteko harresiz-landako etxeen zerrendan[34], Hernanin, hirigunetik kanpo, dorretxe bat, jauregi bat, errota bat, hamaika burdinola eta hirurogeita hamazazpi etxe edo etxetxo zeudela esaten da eta, gainera, zerrenda horri esker badakigu hamar burdinola Urumeako zilegimendien barruan zeudela, hots, ERROTARANgoaz gainerako guztiak. Burdinola bakoitzean lau edo sei olagizonek lan egiten bazuten, lantegi bakoitzarentzat, meatzari, basomutil, ikazkin, itzain, edota mandazain lanetan, beste hogeita bost bat langile aritzen ziren gutxienez[35]. Kopuru horri artzain eta baserritarrak gehitu behar zaizkio. Bestetik, Murugarreni (1974: 158) esker badakigu Urnietak 700 biztanle inguru zituela 1.698. urtean[36].

Ez da aise, hortaz, 16-17. mendeetan Urumeako zilegimendietako Hernaniko zatian zegoen biztanle kopurua zehatz asmatzea, baina litekeena da 400 biztanletik gora izatea, hau da, arauka, gaurko egunean bizi diren biztanleak baino zortzi-hamar aldiz gehiago.

Hernanin 1.773an 1.685 biztanle zeuden eta bost hamarkada geroago (1.826an) 2.555 ziren orduko[37]. Zorionez, 19. mendearen erdialdera Urumeako zilegimendietako

---

32 H. U. A., E ata., 4 neg., II sai., 1 lib., 1 esp., 13 fol. au.

33 Soria (1982: 119-120).

34 HUA, E ata., 4 neg., II sai., 4 lib.

35"Por nuestra parte creemos como más aproximativo a la realidad el índice medio de 40/50 personas por ferrería, lo que daría trabajo directa o indirectamente a un porcentaje de población que oscilaría entre el 30 y el 38%"; Díez (1983b: 122). "*... se ocupan hasta 30 personas en cada ferrería* [...]"; Isasti (1972 [1625]: 159).

36"*Con lo que tendríamos para aquella zona urnietarra presente en las juntas* [de Azpeitia], *no dependiente de Hernani ni de San Sebastián, unos 698 habitantes en 1683".*
Berak egindako kalkulua da, egiazko zenbakia *25 fuegos* delako.

37"En 1.773 Hernani tenia 167 casas y 94 caseríos ocupados por 337 familias que hacían un total de 1.685 habitantes. En 1826 había 482 familias con 2.555 habitantes. En 1.886 tenía 3.325 habitantes ..."; Zuleta (1985: 88).

biztanleriari buruzko datu zehatzak ditugu lehenengoz. 1.855. urtean Urnietako alderdian zeuden hiru baserrietan (AMUNOLA, LEGARRALDE eta ZULOETA) 39 lagun bizi ziren[38] eta 1857 inguruan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Izendegiaren arabera, aldian behin erabilitako hamaika artzain etxola zeuden Hernanin; Urnietan, berriz, hemeretzi[39]. Handik gutxira, 1.863. urtean hain zuzen, URUMEA haranean 20 baserri, 36 familia eta 247 arima zeudela jasotzen da EREÑOTZUKO ERMITA eraikitzearren Hernaniko erretoreak egin zuen txostenean[40].

Datu horiek kontuan hartuz, eta LANDERBASOri 50 bat biztanle (bost-sei baserri) egotziz, ez dugu behar baino gehiago esan uste 19. mendearen erdialdera Urumeako zilegimendietan gutxienez 350 biztanle finko zeudela esatearekin. Sasoi hartan, aipatu dugun Izendegiaren arabera, Hernanin (Lasarteko partea eta LANDERBASO barne) 3.558 biztanle zeuden eta Urnietan (Lasarteko partea barne) 2.037.

20. mendean biztanleen beherakada nabarmena izan zen. Konparazio batera, 1910. urtean zilegimendien Urnieta aldeko hiru baserrietan 24 lagun bizi ziren[41] (egun hutsik daude). 1970. urtean LANDERBASOn hogeita hamar biztanle (euskaldun) gelditzen ziren Irizarren (1984: 19) arabera, baina gaur ez dira erdia izango. Beraz bada, garai batean jendetsuak ziren Urumeako zilegimendiak husten joan dira pixkanaka-pixkanaka 19. mendeko bigarren erditik honantz[42], EREÑOTZU izan ezik.

---

38 UEA, zeinadura: *Documentos Históricos*, 1 leg., *Informe del Arreglo parroquial*. 1.879an Urnietako AMUNOLA baserrian hiru etxebizitza zeuden. Bidenabar, diogun bertakoak zenbait elizkizunetara EREÑOTZUKO ERMITAra joaten zirela, Urnietako eliza urruti zegoelako. HUA, E ata., 4 neg., III sai., 1 lib., 8 esp.

39 Gipuzkoako baserri izendegia (*Nomenclator de la Provincia de Guipúzcoa*), 1857 urtea (45-47 eta 70-72 orr).

40 Murugarren (1970: 57).

41 Herri osoan 2.192 biztanle zeuden, Lasarteko zatia barne; *Censo de la Población del año 1910, Urnieta*, Dirección General del Instituto Geográfico y Estadístico, (UUA).

42 1857. urtean, FAGOLLAGAko burdinola (Hernaniko azkenekoa) ixtearekin batera, hainbat lagunen ogibide izandako langintza garrantzitsua galdu zen. Gertaera horrek, noski, eragin zuzena izan zuen zilegimendietako populazioan. Hernaniko 20. mendeko biztanleriari buruzko datu gehiago eskuratzeko ikus Gómez Muñoz (1993: 85-89).

2.7. Historiaurrea

Errenteriako AIZPITARTE III kobazuloan aurkitutako giza hondakinen azterketek diote duela 24.000 urte bazeudela gizakiak gure esparruan[43]. Goi Paleolitikoan —*Würm* azken glaziazioak eraginda— klima hotza eta lehorra zen *V Perigordiarra* izenaz ezagutzen den aroan. Paisaia, oro har, estepa antzekoa zen, haranetan basoak ere egon zitezkeen arren. Gizakia *Homo Sapiens* taldeko *Cro-Magnon* azpitaldekoa zen eta kobazuloetan bizi zen arrunki. Bisontea eta uroa bezalako bobido handiak, oreinak, leize-artzak eta hegaztiak ehizatuz ateratzen zuen aurrera bizimodua[44].

Une epelak izan zituen denboraldiaren ondoren, Solutriarrarekin (duela 18.000 bat urte), *Würm glaziazioaren* garai hotzena hasi zen. Gure esparruko AIZPITARTE III eta AIZPITARTE IV kobazuloetan aro horretako aztarnak idoro dira. Sasoi hartan itsasoa handik hamazazpi kilometro ingurura zegoen eta gizakiek, oreinak, sarrioak, bisonteak, zaldiak eta ahuntz piriniarrak ehizatzeaz landa, oskoldunak ere biltzen zituzten[45]. Azken hotzaldi horren une larriena duela 15.000-10.000 urte gertatu zen; ez da harritzeko, beraz, tenperatura baxuetatik babes bila, Magdaleniarrean gizakiak kobazuloetan bizitzen jarraitzea (AIZPITARTE IV [*AITZPITARTE IV*]). Giza talde horiek orein eta sarrioak ehizatzen trebatzen joan ziren denboraren buruan, baina oskoldunak biltzen ere jarraitu zuten[46].

Paleolito osteko Mesolitikoan, Holozenoarekin batera, Ipar hemisferioko izotz-tapakia urtzen hasi zenean, gizakiak oraindik AIZPITARTEn bizitzen segitzen zuen, hotzak eraginda edo[47]. Klima hobetzen joan ahala, paisaia ere aldatzen joan zen eta baso hosto erorkorra pixkanaka-pixkanaka nagusitu zen. Ondorioz, klima epeletara egokitutako fauna ugaltzen joan zen eta aro hotzeko espeziak galdu ziren. Aldaketa horiek direla medio, Aziliarrean, gizakiak AIZPITARTEtik alde egin zuela ematen du[48].

---

43 Altuna (1992: 31).
44 *Ibidem*.
45 Guy Straus (1990: 36).
46 Utrilla (1990: 51-52).
47 Aranzadi Zientzi Elkartea (1990: 56-57).
48 Arribas (1990: 60).

Neolitikoarekin Urnietako MARIZULO kobazuloan aurkitutako aztarna zaharrenak datoz. Orain dela 5.200 bat urte hil zen mediterranear arrazako gizaki baten hezurrez ari gara. Artean, gizakiek kobazuloetan bizitzen jarraitzen zuten toki askotan[49]. Zakurra alde batera utzita, abere otzantzea nahiko ahula zen artean (ahuntza eta ardia batez ere) bizimodu nagusia ehiza baitzen, oskoldunak biltzen ere jarduten ziren arren.

Eneolitikoan zehar —kobazuloetan ehorzteko ohitura uzten joatearekin batera— gizakiak ingurunearen aldaketari ekin zion. Brontze Aroaren amaierarako (duela 3.000 bat urte) mendialdeen okupazioa, abeltzaintza eta megalitismoa hedatuta zeuden. Horren guztiaren lekuko, garai hartako hamazazpi *judumahai* edo trikuharri daude URUMEA biltzen duten IGORIN-AKOLA eta OINDI-MANDOEGI megalitotegietan[50].

Aurrekoa baino hezeagoa eta hotzagoa zenez, Metalen Aroan zehar klima azpiborealak harizti mixtoaren (haritza, zumarra, ezkia eta lizarraren) atzerakada eragin zuen. Aitzitik, pagoa eta hurritza ugaritu egin ziren. Otzantzeak eta nekazaritzaren garapenak aldaketa garrantzitsuak eragin zituzten garai hartako biztanlerian. Populazioak gora egin zuen eta, gizakiak, abereentzat larreak eta belarkariak ereiteko lurrak behar zituenez, basoak egokitzen jarraitu zuen.

Burdin Aroan, Kristo jaio aurreko lehen milurtean, *indoeuropartzea* iritsi zen. Europa erdialdeko giza-taldeen etorrerarekin, biztanleriaren berrikuntza, teknologia berriak, mendi gainen okupazioa, kastroen eraikuntza, errausketa erritoa eta jentilbaratz (cromlech) eta mugarriluzeen (menhiren) ugaritzea ezaugarritzat dituen aldia hasi zen. Gure esparruan, IGORIN-AKOLA megalitotegian ale bakar bat egon ez arren, errekaz sortaldera dagoen OINDI-MANDOEGI estazioan berrogeita hamar jentilbaratz (cromlech) baino gehiago idoro dira gaurdaino[51]. Garai berekoak diren MUNISKUEGAÑA (*MULISKO GAINA*) gune megalitikoan eta Andoaingo Buruntza mendian dagoen kastroan agertu diren materialen azterketak iradokitzen du Europa erdialdeko giza-taldeen etorrera haiek

---

49 Cava (1990: 99).

50 Cf. Altuna et al. (1990). Gure esparruan *dolmen* euskaraz esateko *judumahaia* ([júrumáyà], [júrumayà]) erabili da (Bartolome Uranga, Urnieta). *Jentilarriak* (Juan Maria Artola, Hernani), *jentilen kanposantuak* (Pedro Maria Txapartegi, Urnieta) eta *soldaduak gordetzeko harriak* (Nikolas Susperregi, Errenteria) ere esan zaie trikuharriei. Ikus 6.3.6.§.

51 Cf. *Op. cit*.

inguruan zebilen jendearengan eragina izan zutela. MUNISKUEGAÑA aztarnategiaren kokapenak eta hango materialen analisi polinikoek erakusten dute megalitoen eraikitzaileen jarduera nagusia abeltzaintza zela, baina, aldiz, haraneko gotorlekuan (Buruntzako kastroan) nekazaritza, metalurgia eta zeramika bezalako aurrerapen garrantzitsuen aztarnak aurkitu dira.

2.8. Protohistoria

Kristo jaio eta aro berriarekin batera, Pomponio Mela eta Caio Plinio II.rekin, zalantzazko kokapena duten *Magrada* eta *Menosca* toponimoen aipamenak hasten dira[52]. Geroago, 2. gizaldian, *Menosca* lurraldea eta *Menlasci* ibaia ahotan hartzen ditu Ptolomeok barduloez jardukitzean. Zenbait autorek, oinarri sendorik gabe, *Magrada* eta *Menlasci* hidronimoak URUMEA ibaiarekin lotu dituzte eta, halaber, *Menosca* Donostia nahiz Hernanin kokatu dute[53].

Gipuzkoako ipar-sortaldeko gune erromatar garrantzitsuena *Oiasso* hiri-portua zen gure aroko lehen gizaldi haietan[54]. Irun inguruan zegoen eta Estrabon, Plinio eta Ptolomeok behin baino gehiagotan hartzen dute ahotan. Alabaina, Agudek dioen moduan (1962 [1973]: 52), Errenteria-Donostia ingurua eta Urumea harana Erromaren eraginpean egonagatik, eta Donostiako kontxa nahiz URUMEA bera antzinatik itsasontzientzat babesleku egokiak izanagatik, erromatar garaiko aztarna gutxi batzuk baizik ez dira idoro oraindaino[55].

2.9. Historia

Urumeako zilegimendien historiaren arrastoa idazkirik gabeko garaietan galtzen da. Lehen berria 14. mendekoa bada ere, Hernani eta Donostia mintzagai dituzten agiriak aintzat hartuz gero, pentsa daiteke 12. menderako bazirela zilegimendiak.

---

52 Lehenengoa ibaia zatekeen eta bigarrena *oppidum*-a.

53 Esteban (1990: 31-40).

54 Cf. Schulten (1927: 232).

55 Urteagak (1989: 153-160) deritzo OLABERRIAGAn (Hernani-Urnieta mugan) dauden *Etxola-errekako* (sic.) zubi eta meategia ordukoak direla.

Hernaniren hastapena ez dago argi, aurreneko aipamenak Donostiari buruzko berriekin nahasten baitira. Ezin da jakin, hortaz, bietatik zaharrena zein den, hasiera batean, antzinakoena lehenengoa (Hernani) dela badirudi ere[56]. *Ernani* toponimoa Aragoi eta Iruñeko Pedro I. erregeak Leireri emandako ondasunak berresten dituen idatzian irakur daiteke estreinakoz, 1101. urtean[57]; izen horren atzean herri-barrutia ala lurraldea zegoen ere ez dakigu[58], ordea. Idazkian —*Oroztegui* izeneko *pardina*-ren barruan— *Urhumea* hidronimoa irakur liteke lehenengoz.

Urte batzuk geroago, 1141ean, Nafarroako Gartzia Errestauratzaileak *Hurumea*-n zeuzkan jabetza guztiak Iruñeko elizari eman zizkion[59] eta handik gutxira, 1178 inguruan, Gartzia Ramiretzek Iruñeko elizari emandakoa berretsi zuen Antso Jakitunak[60]. Sasioriginal horretan jabetzak banan-banan izendatzen dira eta, horri esker, Urumeako zilegimendietako hamabost saroiren berri dugu: *Arainiuar*, *Lastaola*, *Legarralde*, *Zuloeta*, *Ammunola*, *Mentauio*, *Anziz*, *Gierala*, *Muez*, *Macurssola*, *Guaragarze*, *Urtarzando*, *Izarrlegui*, *Apparren* eta *Eualibia* (ikus 9 mapa).

12. mendeko izkribu sortarekin amaitzeko, diogun 1186-1193 artean Iruñeko gotzainak Baionakoari eginiko *enkomienda*-n[61] *Hernani* irakur daitekeela, eta, 1197 aldera, Antso Nagusiak Leireri eginiko emaitzaren faltsifikazioan, ostera, *Ernani*[62]. Aldi hartan, 1180 urte aldera, Nafarroako erregeak Donostiari forua eman zion, eta horrekin batera eskualdeko eta zilegimendietako bizimoduan aparteko garrantzia izan duen hiriaren etorkizuna bermatu zuten oinarriak ezarri zituen[63].

---

56 Cf. Soria (1982: 72).

57 Ikus Zierbide (1976: 238).

58 "... *illam ecclesiam Sancti Sebastiani que est in litore maris in finibus Ernani,* ..."; Martínez Díez (1975: 89-92).

59 Lakarra de Migel (1949: 423).

60 *Op. cit.*, 424-425 orr. Dohaintza hori dela eta Izagirrek (1951: 353) hau dio:

> "... estoy persuadido de que los términos que integran esta segunda zona son, por lo menos en su mayoría, seles, como hasta ahora hemos visto. En general los seles adoptaban, naturalmente, para su designación la toponimia del lugar en que se hallaban emplazados, y como muchos de ellos se convirtieron posteriormente en caseríos, al desaparecer aquellos ante la expansión agrícola, conviene buscar su radicación en los nombres de los caseríos próximos o en topónimos de la zona".

61 Lakarra de Migel (1949: 425).

62 Martínez Díez (1975: 28-32).

63 Ikus Eusko Ikaskuntza (1982).

Laburbilduz, 12. menderako bitariko abeltzaintza-eremuak (saroiak eta zilegimendiak) garatuta zeudekeen Urumeako mendietan, egon, saroiak zilegimendietan egoten zirelako arrunki[64]. Halere, aipamen zuzenik ez dagoenez, ezin da ziurtatu saroi ez ziren lurrak zilegimendi zirela. Ildo beretik, hipotesi hori frogatzen duen testurik ez badago ere, Hernaniko hiribilduaren sorrera 13. mendearen erdialde-amaieran gertatu zela irudi du.

14. mendean Urumeako zilegimendien jabeak Donostia eta Hernani hiribilduak zirela badakigu[65] eta, horren lekuko, mendi horien erabilpena arautzeko adostasunera iritsi ziren 1379. urtean. Harrezkero bi partaideon arteko liskarrak ugariak dira, zilegimendiak diru iturri garrantzitsu baitziren. Ez dezagun ahaztu burdinoletako energia iturrietako bat, egur-ikatza, handik ateratzen zela. Geroago, gainera, Urnieta ere tartean sartu zen.

15. mendean bigarren hitzarmena sinatu zuten Hernanik eta Donostiak[66] (1467). Burdinolak nabarmenki ugaritu zirenez, egur-ikatz gehiagoren beharra sortu zen eta, hori zela medio, olajaunen eta kontzejuen nahiak berezi zebiltzan. Hiribilduenak baizik izango ez ziren bost *exido* edo itxitu finkatu zituzten, baina gainerako mendietatik egur-ikatza ateratzea zilegi zen, burdinolek lanean jarraitu behar zuten eta. Urte berean EPELA barrutia bitan zatitu zuten: *Landerbasoa* (LANDERBASO) Donostiarentzat eta *Epelsayesa* (EPELSAIETSA) Hernanirentzat[67].

1538 eta 1547an emandako epai biri esker urnietarrak ere zilegimendiez baliatzen hasi ziren, nahiz eta jabegoak Donostia eta Hernanirena izaten jarraitzen zuen[68]. Hitzak hizpidea ekarrita, esan dezagun Urumean zituen hogeita bi saroiak Donostia eta Hernaniri saldu zizkiela Iruñeko katedralak 1411-1565 bitartean[69].

---

64 Hara nola definitu zituen saroiak Iztuetak: "... terreno de un particular rodeado de monte comunal..."; Azkue (1984 [1905]: 210). Saroiei buruz ikus Zaldua (1996 eta 2006).

65 HUA, C ata., 5 neg., I sai., 1 lib., 1 esp.

66 Ibid.

67 HUA, C ata., 5 neg., I sai., 1 lib., 2 esp.

68 HUA, C ata., 5 neg., I sai., 1 lib., 4 esp. Urnieta *unibertsitatea* izan zen 1614. urte arte, administrazio aldetik nortasun berezirik ez zuen herria alegia.

69 HUA, C ata., 5 neg., I sai., 1 lib., 3 esp.

1541eko txosten batek Urumeako zilegimendien barruan 16. gizaldian zeuden aurkintza mota ezberdinen berri ematen digu[70]:

○ Batetik, berez zilegimendiak zirenak daude, idazkietan *Montes Francos* eta *Montes del Hurumea y Esteiça* deituak. Lurralde gehiena harrapatzen zuen mendi mota horretan herritarrentzat egurra moztu eta ikatza egitea zilegi zen.

○ Bestetik, hiribilduen *exido* edo itxituak zeuden. Bost ziren (AMUNOLA, SARATSAIN, IGORIN, AKOLA eta APARRAIN [ERKATZA]) eta bertan herritarrek ez zuten inolako eskubiderik. Hiribilduek, hala komeni izanez gero, alokatu egiten zituzten.

○ Hirugarren jabetza mota dagoeneko behin baino gehiagotan aipatutako saroiak dira. Bitarikoak ziren:

- Donostia eta Hernani hiribilduenak, hau da, garai batean Iruñeko katedralarenak izandako hogeita biak. Alokatu egiten ziren, *exido* edo itxituekin gertatzen zen bezala.

- Norbanakoenak, bestela esan, ALTZEGA, EPELA eta AIERDI familienak. Bertan hiribildu eta herritarrek ez zeukaten inolako eskubiderik.

○ Azkenik, *aguas yerbas* edo larretokiak zeuden. Herritar guztiek beren aziendak bazka zitzaketen han eta kanpotarrei ere aloka ziezazkieketen bi udalek.

Halaber, 1591ko gutun batek itxitu edo *exido*, *aguas yerbas* eta saroietan zeuden eraikuntzen nolakotasuna jakitera ematen digu[71]:

---

70 HUA, C ata., 5 neg., I sai., 1 lib., 7 esp. Cf. Aierbe (1986-87: 311-320).

71 HUA, C ata., 5 neg., I sai., 1 lib., 9 esp.

- *Chabola* edo *chozas* direlakoak, etxolak alegia abeltzainek eraikitzen zituzten eta ezin zuten izan teilarik estalkian.

- Ikazkinek eraikitako etxolei ere *choza* esaten zitzaien gaztelaniaz. Alokatzen ez ziren mendietan ere egin zitezkeen, hori bai, garai jakin batzuetan.

- Beste aterpe mota *hurdandeguia*k (urdandegiak) ziren. Adarrekin egiten ziren, txerriak hartz eta otsoetatik babesteko.

- Azkenik *ferrería* edo burdinolak zeuden. *Casas de vivienda* izeneko eraikuntzak zituzten ondoan, olajaun zein olagizonen bizileku zirenak.

Zilegimendietan burdinolek garrantzi aparta izan zuten, 15.-16. mendeetan batez ere. Bi gizaldi horietan zehar hamasei burdinola aritu ziren lanean gutxienean, ez denak batera, noski. Hona hemen estreinako aipamenak: *Abillas de Abajo* (1450), *Abillas de Arriba* (1475), *Aparrain* (1536), *Bazterrola* (1534), *Epela de Suso* (1467), *Epela de Yuso* (1467), *Ereñozu la del medio* (1578), *Fagollaga* (1478), *Hereñozu* (1465), *Mezquite* (1540), *Olaberriaga* (1583), *Pagoaga* (1475), *Picoaga* (1597), *Uerratua* (1548), *Urruzuno de Suso* (1467) eta *Urruzuno de Yuso* (1465)[72].

16. mendearen bukaeran zilegimendietan hamahiru burdinola lanean ari ziren[73], baina 17. mendean beherakada nabarmena izan zen, 1624. urtean bostek baizik ez zutelako jarraitzen burdingintzan. Handik gutxira, 1671. urtean, Urumeako zilegimendiak bederatzitan zatitu zituzten[74]. Urumeako zilegimendietan bost itxitu edo *exido* eta berrogei bat saroi zeuden[75].

---

72 Díez (1983: 366-391).

73 *Op. cit.*, 382 or. Hamalau burdinola zeuden guztira. Haietako bat besterik ez zegoen zilegimendietatik kanpo, Hernaniko zaharrena datekeen ERROTARAN hain zuzen.

74 Donostiak lau zati bereganatu zituen, Hernanik hiru eta Urnietak bi. HUA, C ata., 5 neg., I sai., 3 lib., 8 esp.

75 Hauek dira 1671. urtean Donostia eta Hernani hiribilduenak ziren saroiak: ALTZUSTA, AMUNOLA(AZPIKOA), AMUNOLA(GARAIKOA), ANTXISTA(AZPIKOA), ANTXISTA(GARAIKOA), APARRAIN, EGURROLA, GOROSTARBE, ILLARRASUAIN, LEGARRALDE, LIZARREGI, MENDABIO, MUGATZ, OLABERRIAGA, SAGARMINAGA, SARATSAIN, UNTZUE(AZPIKOA), UNTZUE(GARAIKOA), URRUZUNO(GARAIKOA), UZKALKUE,

1750. urtean FAGOLLAGA, PIKOAGA eta EREÑOTZUko burdinolek bat egin zuten eta *Hernaniko Errege Aingura Fabrika* sortu zen. Lorpen horretan Manuel Larramendi jesulagunak hiriaren alde egindako lanak zerikusi handia izan zuen[76]. 18. gizaldiarekin jarraituz, 1780an Donostiak eta Hernanik Urumean zeuzkaten bost itxitu edo *exido* eta hogeita bi saroiak banatu zituzten[77]. Zilegimendien barruan hogeita hemezortzi saroi zeuden guztira[78] eta Donostia eta Hernanirenak ez zirenak ere jabez aldatzen joan ziren: EPELA etxearenak ziren lau saroi nagusi edo bikoitzak *Rocaverde*-ko markesak erosi zituen, ALTZEGArrenak ziren bederatziak *Granada*-ko dukearen eskuetara pasatu ziren, Atorrasagastirenak ziren biak *Estrada*-ko dukeak bereganatu zituen eta, azkenik, URRUZUNOAZPIKOA etxeko saroia zuaznabartarrek erosi zuten.

Indenpendentzia-gerran egindako zorren eraginez, Donostiak zilegimendiak saltzeko errege baimena eskatu zuen 1814. urtean, baina, dena dela, hiribildua lantegi horretan hasia zen orduko[79]. Baimena lortu eta, 1822 urtetik aurrera, zilegimendi guztien salmentari ekin zion Donostiak, artean gelditzen ziren baserri eskubidedunei OARAIN mendia zein UNTZUE eta ILLARRASUAINgo saroiak eman ondoren[80]. Era berean, 1868. urtean Urnietako zilegimendiak Jabego Erregistroan inskribatu zituzten urnietar eskumendun edo *derechohabiente* batzuek. Gainerakoek, *frantsesak* izena dutenek, inongo eskubiderik ez dute izan ordutik[81]. Azkenik, 1888an —zilegia desegin eta gero— Hernaniko zilegimendiak berrehun eta berrogei puskatan zatitu zituzten, salmentari begira, noski[82].

ZAMIOLA eta ZULOETA. Gainerako hemezortziak norbanakoenak ziren: AGINAGA, AKOLA, AKOLAGARAIKOA, AKOLAITURRIETA, ALKATXURAIN, AMILIBIA (URRUZUNOAZPIKOA), ARLOTEGI, ASOLAMAKIO, AKURRIKA, ERKATZA, IEROLABEKOA, IEROLAGOIKOA, IZENEDER, LARRATS, LARRAGAIN, LISTORRETA, MUNISKUE eta PAGOETA.

76 Murugarren (1970: 77).

77 Hamarretik sei zati izan ziren lehenarentzat eta bigarrenarentzat hamarretik lau.

78 HUA, C ata., 5 neg., I sai., 1 lib., 9 esp.

79 LANDERBASOko zatia eta SARATSAINgo *exido* edo itxitua salduta zeuden, adibidez.

80 DUA, C ata., 5 neg., II sai., 1715 kutxa, 11 esp. 1831. urtea.

81 Cf. Otaegi (1981).

82 HUA, C ata., 5 neg., II sai., 10 lib. Jesús Mari Gómez Muñoz artxibozainaren irudiko, herritarren artean banatu zituzten (ahozko adierazpena).

19. mendeari doakionez, gizaldi hasieran FAGOLLAGA eta PIKOAGAko burdinolek artean lanean jarraitzen zuten, baina mende bukaerarako Hernanin bat bera ez zen ari burdingintzan.

1959. urtean Urnietako *eskubidedunek* zilegia desegin eta zilegimendiak saldu zituzten. Gehientsuenak paper-fabrika batek erosi zituen. Urumeako zilegimendien azken lekukoak Donostiako bi zati dira, udalbarrutiaren gainerako lurraldetik berezirik dauden LANDERBASO eta GOROSTEGI (OARAIN) hain zuzen.

2.10. Ekonomia

Urumeako zilegimendietan bizi direnak lanean zertan aritzen diren jakitea zaila da. Halere, askotariko datuak erabiliz, egungo ekonomiaren iruzkina ematen ahaleginduko gara.

Lehen sektorean, oro har, beherakada nabarmena izan da azken hamarkadetan. Abeltzaintzatik soilik ez da inor bizi eta mendietan dabilen aziendak ematen dituen mozkinak familien ekonomietan lagungarri apala besterik ez dira. Baserriko jarduera gehienek jasan duten gainbehera nabarmena izan da eta, ondorioz, baserri franko bizileku huts bihurtu dira. Basolanarekin antzeko zerbait gertatzen da, erauzketen kostua, kanpoko konpetentzia eta paper-fabriken krisia direla medio, pinudien ustiapena ez baita oso errentagarria.

Gure esparruan fabrikarik ez dago ia. Lantegi nagusia EPELAn (zilegimendien muga-mugan) dagoen enpresa kimikoa da, baina hango langileria gure esparrutik kanpo bizi da gehienbat. Horrez gainera, zerratoki bat eta martxan segitzen duten lau indarretxe daude; haietatik datorren enplegua oso eskasa da, ordea. Horrela bada, industrian jarduten diren urumear gehienak kanpoko lantokietara joaten dira lanera.

Hobekien dabilen sektorea hirugarrena da, zerbitzuena alegia. Gehiago da: URUMEA inguruak Hernaniko eskualdeko aisia-leku bihurtu dira eta, ondorioz, jatetxe eta taberna ugari daude. Badira lau landetxe ere.

Iraganari erreparatuz gero, 19. mendearen hirurogeita hamarreko hamarkadan (lehen industrializazioan) *Hijos de Jaime Puig - Destileria de Leñas y Fábrica de Productos Químicos* lantegia martxan jarri zen LATXA parean, gizaldi hartan izan zen fabrika garrantzitsuena. Nolanahi ere den, autokontsumorako ekoizten zenaz gain, bi dira Urumeako zilegimendietan izan diren jarduera ekonomiko nagusiak: abeltzaintza eta burdingintza[83]. Lehenengoa historiaurretik dator eta duela hamarkada gutxi batzuk arte bizirik iraun du. Bigarrenak, aurretik ere garrantzia zuen arren, 15.-16. mendeetan erdietsi zuen bere arorik oparoena, 17. eta 18. gizaldietan gainbehera nabarmena izan eta 19. mendean erabat galdu zen arte.

Abeltzaintzari bagagozkio, Marizuloko kobazuloan aurkitutako materialei esker badakigu Neolitikoan, duela 5.000 bat urte, artzaintzan hasiak zirela gure esparruan, artean jarduera nagusia ehiza bazen ere[84]. Aurrerago, megalitoen kokapenak erakusten du gure esparruan Brontze Aroko eta Burdin Aroko ogibide nagusia abeltzaintza zela[85].

Erdi Aroan, idatzizko berriak hasten diren garaian, URUMEAko mendietako ekonomian aziendak zuen garrantzia begi-bistakoa da, saroiak eta larreak direlako Donostiako monasterioari ematen zaizkion aurkintzak[86].

16. mendean abeltzaintza hernaniarren ogibide garrantzitsuenetakoa zen[87], Karlos I.ak berretsitako Hiriko ordenantzetan ikusten den bezala. Zerrendarik ez dago, baina badakigu 18. mendean ere Urumeako zilegimendietan Donostia, Hernani eta Urnietako jabeak zituzten behi, ardi, ahuntz eta zerri ugari elikatzen zirela[88].

19. mendean datu gehiago daude. Lehen aipatu moduan, 1857. urteko izendegiaren arabera, Hernanin (LANDERBASO barne) aldian behin erabilitako hamaika etxola

---

83 Burdingintza esatean, lanbide horrekin lotutako jarduera guztiak hartzen ditugu kontuan (meatzaritza, ikazkintza, etab.).

84 Cava (1990: 104).

85 Peñalver (1987: 119).

86 Abeltzaintza ibilbide motzekoa zatekeen. Aierbe (1986-87: 319).

87 Aierbe (1982: 275).

88 Cf. VEK, Auzi zibilak, *Varela*, bukatuak (*fenecidos*), 3.846, º1 zenb. eta 3.847, 1 zenb. kutxak. *Probanzas*, 1773. urtea.

zeuden; Urnietan, berriz, hemeretzi. Datu hori osatuz, 1843an abeltzainek Hernaniko elizari ordaindu zioten zerga-zerrendan, urte hartan, Urumeako zilegimendien Hernaniko partean 1.480 ardi baino gehiago zeudela jakinarazten da, normalean berrogei-hirurogei burukoak ziren artaldetan banatuta[89]. Hala berean, Urnieta partean, 1879. urtean, AMUNOLA eta ZULOETA baserrien artean 150 bat ardi zeuzkaten[90]. Ardi, artalde eta etxolei dagozkien datuak bat datoz: 19. mendearen bigarren erdian hogeita hamar bat artzain zeuden gutxi gorabehera Urumeako zilegimendietan, berrogeita hamar bat buruko artaldeak zituztenak[91].

20. mendearen erdialde arte gauzek berdintsu iraun zuten eta, esaterako, ilea mozten zitzaien 957 ardi zeuden artean 1945. urtean Urnieta aldean[92]. Hortik aurrera, haatik, saldoak eta artzainak galtzen joan dira pixkanaka-pixkanaka. 1979. urtean Urnietan 450 ardi besterik ez zeuden[93] eta gaurko egunean nekez ikusten da artalderik mendian.

2.11. Bide-sarea

Gure esparrua zeharkatzen duen komunikabide garrantzitsuena Hernanitik Nafarroako Goizuetara doan errepidea da. Gipuzkoako zatian Gi-515 (lehen SS-415) izena duen errepide estua errekaren pare-paretik igarotzen da eta berrogeita hirugarren kilometroan Aranora igotzen den adarra du. Esan dezagun Urumea ibaiari jarraituz Hernani Nafarroarekin lotzen zuen bidea 16. menderako bazela. Egungo bidea 1882. urtean egin zen EREÑOTZUraino eta hortik Nafarroarainoko zatia 1888an bukatu zuten[94].

Aurreko horrez landa, erreka ondotik abiatuz, barreiatuta dauden baserrietara iristen diren bide asko daude, gehienak asfaltoz estaliak. Dena dela, bide eta errepide guztiak ez dira errekaren paretik doan adar nagusitik sortzen, konparazio batera, Donostiako

89 HUA, C ata., 7 neg., III sai., 1 lib. Urnietako OLAZAR eta OLABERRI baserriak kontuan hartzen ditu.

90 H.U.A, E ata., 4 neg., III sai., 1 lib., 8 esp.

91 1843. urteko zerrendan laurogei buruko hiru artalde eta ehun ardiko artalde bat zenbatzen dira.

92 UUA, *Riqueza pecuaria 1945* izeneko idazkia.

93 UUA, *Riqueza pecuaria 1979* delako izkribua.

94 Zuleta (1936: 4).

LANDERBASOra iristeko SS-419 errepidea hartu behar delako Hernanin. Asfaltozko estalkirik ez duten bideak, mendiko bide eta pistak alegia, ugariak dira (ikus 8 mapa).

Egun ez da erabiltzen, baina garai batean bazen berebiziko garrantzia zuen beste komunikabide bat[95], erreka hain zuzen. Joan den mendearen amaiera arte, indarretxeen uharkak eraikitzen hasi ziren arte, erreka EREÑOTZUraino nabigatzeko modukoa zen, eta URUMEAko industrialdea Hernani eta Donostiarekin lotzen zuen. Hona Isastik 1625. urtean (1972 [1625]: 526) idatzitakoa:

> "Hay en jurisdicción de esta villa (*Hernani*) á cuarto de legua una casa llamada Portua, que está cerca del río Urumea, á donde viene á parar todo el maderamen que vá á la villa de San Sebastián y sus astilleros para fábricas de naos, fierro, remos de galeras, botas abatidas, sillares de piedra marmol y otras muchas cosas, que van por el río abajo en tres alas, que tiene el arrendador de aquella casa, y paga cierta renta á la villa de dos á dos años".

Larramendik (1985 [1754]: 32-33), berriz, honela dio:

> "El *Urumea* es río que nace en las montañas de Navarra, y entrando en Guipúzcoa, es un río de las aguas más claras, cristalinas y delicadas del mundo; que aun por eso le darían el nombre hermoso de *Ur mea*, agua delicada, delgada y sutil. (...) Es río navegable más de dos leguas, desde el puerto de Santa Catalina hasta algo mas arriba de Ereñozu, y en alas o gabarras chatas y anchas suben la vena para las herrerías del Urumea y bajan el hierro labrado a San Sebastián. (...) Baja también de tierra adentro el maderamen necesario para los bajeles al puerto de Hernani, y de aquí por el río hasta más abajo de Astigarraga, y de allí por tierra hasta la Herrería del Pasaje".

2.12. Mitoak

Labur bada ere, garai bateko urumearren munduaren ikuspegiari lotuko gatzaizkio atal honetan, mitologia, Hartsuagak (1987) dioen bezala, errealitatea esplikatzen duten argibideen multzotzat ulertuz, eta ez kontu edo ipuin fantastiko sortatzat. Bizimodua

95 Komunikabide gehiago baziren, noski. Abeltzaintzarekin lotutako bideek, konparaziora, garrantzi handia izan zuten jarduera horrek iraun zuen artean.

arautzeko balio ez duenean baizik ez da bilakatzen mitologia kontu edo ipuin fantastiko bilduma, baina, orduan ere, ematen duen informazioa aintzat hartzeko modukoa da.

Kontakizunak ez dira *ex professo* bilduak; ahozko toponimia biltzerakoan topatu ditugu eta, zalantzarik gabe, gehiago ere izango ziren. Gainera, ez ditugu mito, kondaira eta ipuinak sailkatu, gure esparruko zerbaiti men egitea izan delako hemen sartzeko kontuan hartu dugun irizpidea. Bestetik, ez dira erabat originalak, noski; ez dira gure esparruan bakarrik bildu, esan nahi baita beste toki askotan ere jaso direla. Alde horretatik, euskal mitologiaren lagin xumea baino ez dira[96]. Jatorrizkoak ala ez, gertatzen diren inguruari buruzko informazioa dakarten heinean dira interesgarri guretzat, hau da, gure esparruko toponimia ulertzeko balio duten neurrian. Ukaezina da, ildo horretan, URUMEA inguruko lurrek bertakoentzat izan duten sakoneko antolaketaren berri ematen dutela. ABALLARRI harritzarraren jatorriari buruzko kontakizunak, esaterako, toponimoaren etimoa azaltzeaz gainera, orain geologiak argituriko gertakari orografiko bitxiaren jatorria jakitera ematen du, bidenabar sartalde-sortalde oposaketaren berri emanez, eta hori, gure ustez, kontuan hartzeko moduko zerbait da aztertzen ari garen esparruan.

Munduaren sorrerari buruz ezer gutxi bildu dugu, goroldioari hitz egiten erakusten saiatzean, —abere nahiz landare— bizidun guztiek hizketan zekiten garaia joan zela baizik ez[97]. Hobeto ezagutu ahal izan duguna gure esparruan barreiatuta dauden hainbat harritzarren jatorria izan da[98]. Bost dira guztira jentilek, basajaunek edo Santsonek jaurtikitako harritzarrak: ABALLARRI[99] eta ARRIZABAL[100] Urnietan eta ARRIUZTUNA[101],

96 Barandiaranen (1972) ikerlan oparoan kontakizun horien beste aldaera batzuk aurki daitezke.

97 Bartolome Uranga (Amu.).

98 "Las tendencias animistas del pueblo, excitadas quizá por algún fenomeno extraño, crean con el tiempo fantásticas leyendas alrededor de ciertas rocas y peñascos. De esta ley no se ha eximido el vasco. Numerosas peñas de nuestro país son objeto de creencias y leyendas de antigüedad remota, reliquias de su pasado, ruinas de arcaica religión, desfiguradas tal vez por influencias de culturas posteriores". Barandiaran (1973: 85).

99 Cf. Irungo *Aballarrietaerreka* (1998, IRM).

100 Bartolome Urangari (Amu.) aditua.

101 Barandiaran (1973: 265). Berriemaileek ez dute harritzarrarekin loturiko kontakizunen berririk. Nikolas Agirre (Id.) errenteriarraren eta Juan Lasa (Larra.) donostiarraren irudiko, ARRIUZTUNA izena huntza edukitzegatik datorkioke harritzarrari.

TXERRITOKI[102] eta MANDARRI[103] Hernanin (ikus 10 mapa). Egun sinkretismoz bostak Santsonen harrritzat jotzen dira, baina badaude zaharragoak diren jentilak eta basajaunak aitzindari dituzten aldaerak[104]. Bost kontakizunetatik lautan jaurtiketaren helburua Nafarroako Arano herrixka da, ekialdea alegia. Erabilitako tresna sahats azalez egindako habaila da, eta jaurtiketan kale egitearen arrazoia jaurtitzailea abere gorotzetan irristatzea. ARRIUZTUNAri doakionez, ez dakigu harria nora zihoan, baina, hori bai, "habaila" bi zuhaitz okertuta egina omen zen.

Ezagunena ABALLARRIren jatorria argitzen duen kontakizuna da, batez ere gure esparruaren sartaldean. Hona hemen hiru aldaera, lehenengo biak Barandiaranek (1973: 93; 1972: 211) bilduak eta hirugarrena Bartolome Urangari (Amu.) entzuna (1989-X-1).

> "Existe en Urnieta una peña llamada *Aballarri* (piedra de honda). Cuéntase que en cierta ocasión en que una muchedumbre de hombres y mujeres se divertían bailando en la plaza de Arano, Sansón se propuso matarlos arrojándoles una peña desde el monte *Buruntza* (sic.). Para lo cual hizo una honda con corteza de sauce. En el momento de despedir la peña, resbaló en boñiga de vaca y no pudo imprimirle fuerza bastante para su intento, así la tiró solo hasta el sitio en que actualmente se halla: es la peña de *Aballarri*. (Contado en 1923 por un colaborador de Urnieta)".
>
> ...
>
> "**Aballarri** es el nombre de una peña situada en el monte **Mantale**, de Urnieta. Su nombre significa "piedra de honda" y es creencia que la peña fue lanzada a honda por Sansón desde el monte ***Burutza*** pretendiendo matar con ella a la gente que bailaba en la plaza de Arano. En el momento de lanzarla resbaló en una boñiga de vaca y por eso no llegó la piedra hasta la mitad del camino".
>
> ...
>
> [ésanà, ésanà, sánsonèk bótaementzùn oi̯ áanò púskatù bíartzulatà, ázkortetìk saátsazalakìn/ saátsazalà étèn da, bi áldetakò ésaerà a/ bátzùk, ankái̯ estú, bei̯ goótziàn írristatù zálakò/ béstеatzùk berrìz saátsazalà eténzitzayolakó bírìan geátù, ésaerà].

---

102 Kontakizun hau gure esparruko sortaldean bizi direnen artean nahiko ezaguna da.

103 Nikolas Agirreri (Id.) aditua.

104 Ikus Induban (1973: 33) eta Amuategi (1976: 155).

Kontakizun horren haritik, jentilen munduan murgiltzen gara[105]. Urumearren ustez jentilak gaurko euskaldunon aurrekoak dira[106] eta bi motakoak omen ziren, jentil petoak eta juduak. Jentilak hiltzera kobazuloetara joaten ziren eta hildakoak *jentilen kanposantuetan* (cromlech edo jentilbaratzetan) ehorzten zituzten[107]; juduek, berriz, hildakoak sartzeko *judumahaiak* (trikuharriak) eraikitzen zituzten[108]. Sekulako indarra zuten biek[109], eraiki zituzten megalito eta babeslekuetan ikus daitekeenez[110]. Eguzkitara ateratzen ziren[111], eta *Filistiarra* [pílistriyà] (Kristo) jaio zenean desagertu omen ziren[112].

Gizaki itxurako izakiei buruzko kontakizunekin amaitzeko, *Tartalo* edo Polifemo begibakarraren berri ere izan dugu[113]. Mari jainkosaren lekukotasunik ez dugu jaso, ordea[114].

Animaliak aitzindari dituzten kontakizun eredu-emaileak ugariak dira, gehientsuenetan gizakion jokaera koldarra edo harroa salatzen duen halako *mezu* antzekoa dutenak[115]. Tigre eta basurde ardi-jaleen berri ematen dute informatzaileek[116], baina ezagunenak otsoekin lotutakoak dira ezbairik gabe.

---

105 "Jentilak 'erraldoiak' dira, germaniarren 'huehnen' eta 'riesen'-en eta eskandinabiarren 'joeturn'-en baliokideak, alegia, zenbait mendi, hibai (sic), harpe eta haitzen formak eta egoerak esplikatzeko herriak aipatzen dituen indar itzelezko erraldoiak"; Hartsuaga (1987b: 50). 'Aitoren semea, erregezkoa' adiera ere izan du. Ikus Fénié & Fénié (1992: 87).

106 Bartolome Uranga (Amu.) eta Pedro Santa Kruzek kontatua (Ak.).

107 Aranon *jentilbaratza* esaten zaie. Jose Maria Legarreta (Maer.) eta Manuel Huizi (En.).

108 ILINTXARBEko jentilbaratzaren harriak otsoak ehizatzeko erabiltzen omen ziren, piztiak —hango harriak hazka egiteko gustukoak zituztenez— maiz joaten baitziren hara. Bartolome Uranga (Amu.).

109 ABALLARRI mendiaren ondoan *jentilen babesa* eraiki zuten, agidanez.

110 Bartolome Uranga (Amu.).

111 AKOLAn jaio eta ALKATXURAINen bizi zen Dolores Santa Kruz zenak esandakoa (Alkatx.).

112 Juan Maria Artola eta Nikolas Agirreri aditua. ARGURUTZ izeneko aurkintzan dauden harriekin lotutako kontakizunetan ere Jentilak agertzen dira; beste bertsio batzuetan Jakue apostoluaren zaldia da protagonista. Ikus Zaldua (1996b: 20-28). AIERDI dorretxearen eraikuntza ere Jentilekin dago lotua. Aingeru Lertxundi (Po.).

113 Bartolome Uranga (Amu.).

114 Cf. Barandiaran (1972: 287). Jose Maria Legarreta (Maer.) eta Manuel Huiziren (En.) ahotik ekaitzen sorrerari buruzko kontaerak entzun ditugu Aranon. Ildo beretik, Urnietan bada MARIZULO izeneko kobazuloa, baina inork ez du euskal jainkosarekin zuzenean lotzen duen kontakizunik bildu. Azkenik, HAURRA GALDU ZAN HARRIA izenekoan *Arrano gorria* Mari dateke, guztiok baitakigu jainkosak abere itxura eta kolore gorria maiz hartzen zuela.

115 Bartolome Uranga (Amu.) eta Juan Arregi (Ek.).

116 Bartolome Uranga (Amu).

Sorginen berririk ez da falta. Gauekoak ziren, esaera jakin batzuen bitartez itxura alda zezaketen eta bolbora edo eskopetak asmatu zirenean desagertu ziren. Nolanahi ere, ez omen zuten kalterik egiten[117].

Mitologiari eskainitako atal hau bukatzeko gizakiak protagonista dituzten bi kontakizun dakartzagu. Lehenengoa Urumeako zilegimendien mugen zergatiaz mintzo da, eta, bide batez, bi oronimoren etorkia azaltzen du. Bigarrenak toki-izen baten jatorria argitzen du zuzenean.

Aurreneko kontaerak dioenez, *Elduainerreka* eta URUMEA bitartean dauden mendiak berezi samar banatuak daude[118]. Mendiak zatitu behar zirenean zera erabaki omen zuten: gauerdian amona bat Berastegitik eta beste bat Aranotik irten eta topo egiten zuten lekuan mugarria jartzea. Unea iritsi zenean Berastegikoa irten zen, bai, baina Aranokoa, erabat ahaztuta, lotan gelditu zen. Berastegiko amona ibili eta ibili, baina Aranokoarekin ez topo egiten. Berastegiko amona harrituta zegoen eta, ETZELAra iritsi zenean, amonarik *ez zela* esan zuen. Aurrera jarraitu eta UNAMUNOn, Aranoko amona ikusi zuenean, *hona amona* bota zuen. Hain zuzen, horregatik omen dituzte izen horiek bi tokiek. Aranoko amona, Berastegikoa aurkitzeko itxaropenik gabe, estu eta larri zetorren, gosaltzeko denbora hartu ezinik, eskuan gaztaina batzuk zekartzala. Bi amonek elkar topo egin zutenean, Berastegik mendi askotxo izango zituela eta, ETZELAraino itzuli ziren, Aranokoaren gaztainen truke; horregatik omen dago gaur muga toki hartan[119].

Bigarren kontakizunak HAURRA GALDU ZAN HARRIA *Satzname*-aren etorkia jakitera ematen du bertsotan[120]. Esaten denez, bertsoak Txirritak jarriak dira. Hona bi berriemailek abestutako aldaerak:

---

117 Pedro Maria Txapartegi (Mari.2).

118 Hiriguneak urruti egon arren, Elduain eta Berastegiko mendiak ia Aranoraino iristen dira.

119 Barandiaran (1972: 174).

120 Esan dugunez, *Mari* jainkosa hegazti gorri moduan ere azal zitekeen. Ikus Barandiaran (1972: 159) eta Induban (1973: 11).

Andre gazte bat auntzkontun zaallen[121]
landrabasotik aurrera,
aurra txikiya xestuan zeukan
xarpa tartian jarriya.
Arrano gorri gaizto aundi bat
sartu zitzayon aurrera,
aurra txikiya artu ziyon da
ua andre gaxuan larriya,
uañ orregatik deitzen diyote
aurra galdu zan arriya.

Andre gazte bat mixerablia[122]
auntzkontura etorriya
bere semia sestuan zeukan
zarpa tartian jarriya.
Urdaburutik sartu zitzayon
tranpan arrano gorriya,
arrapatuta eraman diyo
ura uaren larriya,
oraiñ argatik deitzen diyogu
aurra galdu zan arriya[123].

2.13. Ohiturak[124]

Lanerako aukeratutako esparruaren aurkezpena amaitzeko, bizitzaren une jakin batzuetan urumearrek izandako jokabideari helduko diogu; hori bai, asko desagertuta edo desagertzear dauden ohiturak dira. Esate baterako, Urumeako zilegimendietako artzainentzat artaldeen zaindari garrantzitsuena San Roke izan da, haren ermita Nafarroako Aranon badago ere. Sainduaren babesa lortu ahal izateko nahitaezkoa da San Roke egunean Aranoko ermitara joan, meza entzun eta meza-dirua ematea. Nahiz ardirik ez eduki, artzain batzuek oraindik ohitura horri eusten diote, fede handia izan baitzaio sainduari. *Sandroke*-k garitxak sendatzeko ahalmena ere ba omen du gainera. Horretarako txanpon batekin garitxa igurtzi eta beste norbaiti eman behar zaio, ermitan bota dezan.

---

121 Frantzisko Pagola (Txab2).

122 Juan Marko (Etxol.).

123 Cf. Zabala (1992: 168-169). Hona hark biltzen duen bertsioa:

"Ezkonberri bat mixerablia zaio arrano gorriya,
auntzkontura etorriya, oartu gabe eraman dio,
aur txikitxo bat xexto batian ura amaren larriya!,
xatar tartian jarriya; orain argatik deitzen diogu
Urdaburu'tik tranpiyan sartu *aurra galdu zan arriya*".

124 Ikus Barandiaran (1982: 169-226).

Etxe, zelai, soro eta sagastietan erramuz eta elorri zuriz egindako gurutzetxoak jarri ohi dira tximistatik eta harritik babesteko[125]. Horretarako, erramu-egunean erramua bedeinkatzen da eta Gurutze Santu egunean, ostera, elorri zuria, gero Aszentsio egunean behar diren tokian ipintzeko[126]. San Joan goizean lizar-adarrak ateetan jartzeko ohiturak bizirik dirau. Lehen, urte sasoi horretan, apaizak baserriak eta jabetzak bedeinkatzen zituen banan-banan, eta lantegi horren ordaina oilasko bat izaten zen.

Joan den mendearen amaiera arte artzainen etsai porrokatua otsoa zen. Artaldeak piztia hartatik babesteko *artzanorak* [artzáronàk] erabiltzen zituzten. Horrez gainera, artzainak, txandaka, sua eginda otso-guardian ere egoten ziren gauez[127]. Piztiekin jarraituz, Urumeako mendietan aspaldidanik azeriak izan badira, azken hamarkadotan asko ugaldu dira, pinuaren nagusitzea dela medio. Ohar bedi, gure esparruan azeria ehizatzea saritu egiten zela duela gutxi arte. Bi sari izaten ziren gainera, Urnietan behinik behin. Alde batetik *azeri-junta* [ázaĵuntà] ospatzen zen udazken oro, eta bileran ehiztariei diru kopuru bat ordaintzen zieten artzainek harrapatutako azeri bakoitzeko. Udalak ere diru saria ematen zien azeriak hiltzeagatik[128].

Denbora-pasa edo jolasei bagagozkie, bi ziren artzainek gustukoen zituzten kirolak: pilota eta *palenka* [pálenkà]. Esaten dutenez, garai batean pilotan aritzen omen ziren toki jakin batzuetan, *luzean* [lúxiàn]. Gipuzkoarrak nafarren kontra lehiatzen ziren sarritan eta pilotan aritzeko tokiei *pelotasoroak* [pélotasoruàk] esaten zitzaien[129]. Bigarren jokoan palanka batekin edo harri-txikitzeko mailu batekin ari zitekeen eta, ahal zen urrutien iristeaz gain, *palenkak* tente erori behar zuen, bestela *talo* baitzen. Zorionez, *palankaleku*-en arrastoa ez da betiko galdu[130].

125 Garai batean etxola eta borden ateetan ere jartzen ziren. Bartolome Uranga (Amu.).
126 Lehen berrogei kredo errezatzen ziren gurutzea ezarri aurretik. Pedro Santa Kruz (Ak.).
127 Jose Maria Legarreta (Maer.) eta Bartolome Uranga (Amu.).
128 Behinola haurrak eskean ibiltzen ziren etxez etxe azeria harrapatutakoan.
129 Manuel Huizi (En.).
130 Pedro Maria Txapartegi (Mari. 1). Cf. *Balenkaleku*; Ravier (1991: 284).

Gure esparruko dantzaleku nagusiak Urnietako TXUSAKA eta Hernaniko EREÑOTZU ziren. Eskusoinuz alaitutako dantzaz beste[131], bola jokoa eta zinta-lasterketak ospatzen ziren (cf. BOLALEKU).

Heriotzaren esparruari dagokionez, doluari Urnietan *probu* eta Aranon *progu* esaten zitzaion[132]. Zilegimendien Urnietako partean badira elizatik erabat aparte —sei-zortzi kilometrotara— dauden baserri batzuk (AMUNOLA, BEZKITA, OLAZAR eta ZULOETA). URUMEAtik gertu zeudenek (OLAZAR eta BEZKITA) hildakoak Hernanira garraiatzen zituzten, bidea luzeagoa izan arren (9 km), erosoagoa zelako. AMUNOLA eta ZULOETAkoek, berriz, hildakoak Urnietaraino eramaten zituzten mendiz-mendi, bizkarraren gainean[133].

Araldiarekin lotua zegoen *harrapazka* [árrapazkà] oroitarazi nahi dugu bukatzeko. Irailaren hamarrean izaten zen Hernanin eta Urnietan doan nahi hainbat iraztor ebaki zitekeen eguna. Familia osoak garo hoberenak zeuden tokietara hurbiltzen ziren gauez, egunsentian —zilegimendietako basozainak suziri edo tiro bat botatzen zuen une beretik— ganaduaren azpitako erabiltzen zen iraztorraren harrapaketari ekiteko. Arratsaldean, jadanik *jornadak* [jornak] eginda, erromeria izaten zen BESADEGIn[134].

131 Urnietako AÑAGAINen bazen *bilerak* [bílleràk] ospatzeko tokia.

132 *DVEF*, II, 181 or. Cf. hego-nafarrerako *progu* ‘prueba’; Camino (2003: 457).

133 AMUNOLA baserriak Urnietako elizan bere *sepulturak* zituen. UEA, Doc. Hist., Leg. I.

134 Aingeru Lertxundi (Po.) eta Santiago Lasarte (Ai.). Hitz hauekin erantzun zion (1989ko irailaren 14an) Aingeruk AIERDI baserriko sukaldean behinolako egun berezi hartaz egindako galderari: [ákabò/ zílleiyarè sáldu zan dà, béstioirè búkatu zàn / órdùn pósontarriáko ta / zúlotako tà / méndiyóin étxietakò zán údazkenà].

3. EUSKARA GURE ESPARRUAN

3.1. Sarrera

Urumeako zilegimendietako biztanleriaren ehuneko laurogeita hamar euskalduna da. Donostiako LANDERBASOn gelditzen diren guztiak euskaldunak bide dira, eta Urnieta partean bizi direnak ere bai. Hernaniri dagokionez, auzo populatuena den EREÑOTZUn dozena bat familia izango dira kanpotarrak, eta EPELA inguruan, berriz, dozena-erdi familia erdaldun daudeke. Azkenik, PAGOAGAn beste familia ez euskaldun parea biziko da. Guztiarekin, gehienez jota ere, ehun bat *kastillano* [kastíllanuàk] egongo dira Urumeako zilegimendietan.

Hurbileko ingurua ere euskalduna da neurri handi batean. Zahar eta helduen artean euskaraz egin ohi da; gazteak, ordea, maizago egiten du espainieraz. Aipatzekoa da EREÑOTZUn hamar bat familia nafar egotea, gehienak goizuetarrak, eta gainerakoak Arano, Arantza eta Ezkurratik etorritakoak. Hitz bitan, gure esparrua euskalduna da. Partea duten hiru udalerrietan, ostera, euskaldun kopurua ez da erdira iristen orotara[135].

3.2. Historiaurrea

Arkeologiari esker badakigu duela 5.300 bat urte hainbat jatorritako gizakiak zebiltzala gure esparruan, alegia, bertan nagusi zen gizataldearen arraza berekoak ez ziren gizasemeak bazirela aldi hartan (ikus 2.7. atala). Orduko euskal arraza eta euskal hizkuntza bazirela aldarrikatu dute askok, mintzagai dugun gizakiaren hezurrak industu zituen Barandiaranen oinatzetan. Hipotesi hori egiaztatuko balitz, duela 5.300 urte gure esparruko biztanleek beste hizkuntza batzuek zekizkiten gizakiekin harremana zutela uste izateko arrazoiak leudeke. Zernahi gisaz, ohar bedi sasoi hartan euskara hitz egiten zelako frogarik ez dagoela.

[135] Urnietan eta Hernanin erdia dira, baina Donostian ez, hiriburuan euskaldunak herena izango direlako (Euskararen Udal Patronatua, 2007). Besterik da, noski, erabilpenaren auzia. Urnietan, adibidez, euskararen erabilpena %23koa zen 2007an (Soziolinguistika Klusterrak udalarentzat egindako ikerketa).

Erromatarren aurretik URUMEA aldeko biztanleek hizkuntza ezberdinekin izan zituzketen harremanez dihardugula, Kristo jaio aitzineko milurtean Buruntza mendian *kastro* edo gotorlekua zegoen, aurrez aurre, oso kilometro gutxira. Aztarnategia industu duen Karlos Olaetxearen (1991: 180) irudiko, sasoi hartan Pirinioen sartaldea kontinentetik zetozen eraginen igarobide izan zela iradokitzen dute Oria inguruan idoro diren hondakinek. Tolosako historialaria baino ausartago, baina ez fidagarriago, zelten etorreraz hitz egiten duenik ere bada, hori bai, ezer frogatu gabe. Horren guztiaren atzetik Europatik etorritako gizataldeen egiazko presentzia balego, aldi hartan ere gure esparruan hizkuntza ezberdinak zerabiltzaten hiztunen arteko hartu-emanak egon zirelako hipotesiak indarra hartuko luke. Zentzu horretan, ez bedi ahantz Buruntzakoak teknologiaren aldetik URUMEA aldekoak baino aurreratuagoak zeudela[136].

3.3. Protohistoria

Gure esparrua Gipuzkoako gune erromatarrik garrantzitsuena zen *Oiasso*-tik gertu zegoen, are eta hurbilago toponimoa gizaldi haietan zuen zabaltasunean hartuz gero. Hiri erromatarra Irunen zegoen eta Estrabon, Plinio eta Ptolomeok behin baino gehiagotan hartzen dute ahotan[137]; azkenarentzat gune baskoia zen. Gainera, aztarna gutxi batzuk besterik aurkitu ez badira ere, URUMEA nabigatzeko egokia zen orduan. Laburzki mintzatzeko, URUMEA inguruaren erromatartzearen hastapenak lehen milakoaren hasieraraino aurrera litezke.

Gorrotxategi Txurruka (2002: 92-93), kultura materialean oinarri harturik, Pirinioen eremu sartaldekoenean euskara hango hizkuntza izan delakoan dago, baina, Gipuzkoan eta Bizkaian ez dago bertako onomastikarik Imperioaren garaiko epigrafian. Egile batzuek diote Bisigodoen Aroan euskaldundu zirela lurralde horiek, eremu baskoietatik (Akitania eta Erdiko Pirinioetatik) etorritako jendearekin, baina, nolanahi ere den, Gorrotxagi Txurrukaren ustez Araba, Bizkai eta Gipuzkoan antzinatean euskaraz hitz egiten zelako aukera ezin da baztertu, nahiz eta hegoaldean eta sartaldean indoeuropartze bortzitza izan zuten bigarren Burdin Aroan. Gurera etorriz, Gorrotxategi Txurrukak (2006: 117) onartzen du iturri klasikoek ahotan hartzen dutena eta egungo

[136] Cf. Gorrotxategi Txurruka (2006: 127).
[137] Hiru idazleek aldaera bana darabilte (*Oiasso*, *Oidasun*, *Olarso*...)

Oiartzun (*Oihan*, *Oihar-* + *-tsu*, *-zu* + *-un* lokatiboa) izen bera direla[138]. *Oiasso* toponimoa dateke, hain zuzen, euskararen lehen lekukotasuna Gipuzkoako ipar-sortaldean.

Inperioaren azken urteak, Bisigodoen Aroa eta Erdi Aro Goiztiarra euskararen biziraupenerako eta beste hizkuntza batzuen galerarako garai garrantzitsuak izan ziren[139]. Garbi dago, gurean, euskarak Erdi Aro Berantiarrean lehen aipamen idatziak hasten diren arte iraun zuela.

3.4. Historia

Urumeako zilegimendietako lehen euskal lekukotasunak toponimoak dira. Antso Jakitunak Gartzia Erramirezek Iruñeko elizari emandako guztia berresten duen 1178ko sasioriginala da lekukotasunik oparoena[140], inguru guztiari izen ematen dion hidronimoaz gainera, ezagunak diren hamabost saroiren berri ematen dituelako.

Hernaniko Udal Artxiboan gordetzen den idazkun zaharrena 15. mendekoa da, 1427. urtekoa hain zuzen. 1388ko erreferentziak ematen ditu, baina euskal aipamenei bagagozkie ez da batere aberatsa, *Errotaran* oikonimoaz beste ezer gutxi baitakar. Hortik aurrera leku-izenen agerraldiak ugariak dira, baina ez gatzaizkie oraingoz horiei lotuko, toponimoak ez diren euskal aipamenei baizik. Horrelakoak, Luis Murugarrenek (1972: 378) eta Serapio Mujikak dioten bezala, aski arraroak dira Hernaniko Artxiboan.

Herri horretako 1545. urteko Ordenantzetan euskarazko hitz gutxi batzuk erabiltzen dira mendien babes eta nekazaritzaz dihardutenean. Itzulpen zehaztapenak dira eta, adibidez, hirurogeita hamazazpigarren ordenantzak esaten du itxiturak egiteko *espino* eta *sangino*-ek *çumaliçarr*-ak izan behar zutela[141]. Hala berean, laurogeita batgarrenak dio *mijo* euskaraz *cartaberarra* izenaz ezagutzen zen landarea zela[142]. Testamentu bati

[138] Gorrotxategi Txurrukak *Oihar-* (< *Oihan*) eta *-zu* ugaritasunezkoa dakuski, baina ez dakigu honen arabera *-n* nola azaldu behar den. Cf. Salaberri (2005: 112).

[139] Cf. Mitxelena (1977: 30) eta Gorrotxategi Txurruka (2006: 128).

[140] Lakarra de Migel (1949: 421-425).

[141] Aierbe (1982: 272).

[142] Op. cit., 275 or.

esker ere badakigu, 1548. urtean, *Inbutodi*-ko (ENBUTODIko) *Juan* urnietarraren izengoitia *Urdin* zela[143]. 1607. urtean egindako saroi-mugarriztatze batean, azkenik, gaztelaniazko *mojón centrical* eta *mojón periferico* terminoak *arta mugarria* eta *vazter muga arria* euskal izenekin itzultzen dira[144].

Toki-izenetan sartu-atera eginez, eskribauen zehaztapen ugari daude izkribuetan, erabiltzen duten toponimiaren sorburu, ibilbide eta esanahiari buruz egindakoak. Zenbait aipatuko ditugu, adibidetako. *Frias* saroiari *Mugaz* esaten zioten 1671. urtean. Orobat 1773. urtean, orduko, saroi baten antzinako izena *Camiola* baitzen, eta ez *Samiola*. *Errekandia* toponimoak *arroyo grande* esan nahi zuela da beste zehaztapena[145]. Leku-izenak argitzeko joera hau idatzizko aipamenak hasten diren une beretik dator, latinez idatzitako testuetan erabilitako *que uocatur* eta *que dicitur* esamoldeetatik hain zuzen.

Toponimiaz landako euskal lekukotasunen aldetik epe oparoena 18. mendea da, hala kalitatez nola kopuruz. Burdinolen alokatze kontratuetan, esaterako, euskal hitz mordoa dago. Bat aipatzearren, 1722. urtean, FAGOLLAGAko burdinolan lan egiten zuten *Pedro* eta *Juan Baptista Olloquiegui* olagizon eta anaia hernaniarrek hitz hauek zerabiltzaten: *vetarria*, *aldarrias*, *ziguillo*, *aguerrias*, *cavillas*, *chinelas*, *aguapalenca*, *urzaipalencas*, *palenca*, *berogorricas*, *aguagorricas*, *borra*, *coruas*, *corueta*, *zuzenarria*, *zumargorricas*, *comportas*, *aldabarras*, *catanarte* eta *gorricas*[146]. Idazki berean, Hernaniko *Franzisco Bereterechea* eta Andoaingo *Franzisco Belaunzaran* arotzek *pisondegui*, *aldavardegui*, *ondasca*, *guesur asca* eta *tormentateguia* izenak ahotan hartzen dituzte konpondu beharreko gauzez jardukitzean.

Gracian de Fagalde arotzak 1726. urtean euskaraz eginiko balioztatzea Carriónek (1985: 372-374) argitaratuta egon arren[147], 18. mendeko —eta ziur aski artxibo

[143] HUA, E ata., 7 neg., V sai., 2 lib. Cf. *Urdina*, 'el cano', Artaxoako izengoitia 15. mendean. Jimeno Jurio & Salaberri (1998: 26).

[144] HUA, C ata., 5 neg., I sai., 1 lib., 3 lib.

[145] VEK, Auzi zibilak, *Varela*, Amaiturikoak, 3.846, 1 zenb. eta 3.847, 1 zenb. kutxak. *Visita ocular del Escribano Antonio Fraguas*, 1773. urtea.

[146] HUA, C ata., 5 neg., III sai., 2 lib., 1 esp.

[147] HUA, C ata., 5 neg., III sai., 2 lib., 1 esp., (1469-1806).

guztiko— testu aipagarriena *Josepha Antonia Belloqui* andereak 1777. urtean utzitako hogei bat lerroko lekukotasuna da, Murugarrenek (1972: 378-380) ezagutzera eman zuena hain zuzen[148]. Badirudi aurrenekoan berriemailea nafarra edo iparraldekoa zela, erabiltzen dituen hitz eta esamoldeengatik, baita izenarengatik ere. Esaldi oso eta biribilak baino gehiago, hitz solteak daude idazkian. Bigarrenean (1777koan), berriz, testuak hizketaldi kutsua du, eskribauak, esandakoa, *por identicas palabras* jaso baitzuen. Lekukoa Hernani bertakoa zen. Gainerako etsenpluak hitz solteak dira gehienak: *suegurra*[149], *curpidea*[150], *epaipide*[151], *yrumugarria*[152] eta *Oindiarria*[153].

Valladolideko Errege-Kantzilerian gordetzen den auzi batean esaten da[154], Donostiak eta Hernanik URUMEAn zeuzkaten saroi eta mintegien zatiketa zela eta, 1770-1772 bitartean bi hiriotan egindako frogaketa eta galdeketetan parte hartu zuten lekuko gehienek espainieraz ez zekitela: "... *por ser como son bascongados y no entender romanze* [...]". Jakina, itzultzaileak erabili behar izan zituzten. Auzi horrek 18. gizaldiaren bukaerako hizkuntza-egoeraren ezagutzan sakontzen lagunduko digu. Bostehun eta laurogeita hamalau orri betetzen dituzten lekukotasunetan Donostia (16), Altza (14), Hernani (6), Urnieta (6), Oiartzun (3), Errenteria (3), Pasaia (2), Astigarraga (2), Igeldo (1) eta Arrasateko (1) berrogeita hamalau testiguk parte hartu zuten guztira.

Lekukoen % 83k itzultzaileak behar izan zituen eta % 72k gaztelaniaz deus ere ez zuen ulertzen; hizkuntza horretan egin zuten aitorpena bederatzik. *Joseph Armendariz* bikario hernaniarraren, *Agustin de Carril* eta *Joseph Zaloña* eskribau donostiarren nahiz *Pedro Vicuña* eskribau urnietarraren zerbitzuak behar izan zituztenen artean, bostek espainieraz pixka bat ulertzen zuten eta batek hitz batzuk bazekizken. Ogibideen arabera[155], gaztelaniaz gutxien zekitenak ikazkin, artzain, arotz eta mandazainak ziren

---

148 Zeinadura, artikulu horren arabera, (HUA) E ata., 7 neg., III sai., 13 lib., 1 esp. da, baina argibide hori gaizki dago, *Autos contra los culpables de las heridas causadas a Francisco de Oyarzábal* (1751) dokumentuarena delako.

149 "... *leña para propias cozinas* [...]", HUA, C ata., 5 neg., III sai., 2 lib., 1708.

150 "... *camino nombrado* [...]", HUA, D ata., 5 neg., 1 lib., 1 esp., 1715.

151 "... *Epaipides de Olloquiegui* [...]". VEK, auzi zibilak, *Masas*, ahantziriko auziak, C. 2058-2, 1739. urtea.

152 "... *trimojon llamado vulgarmente* [...].", HUA, C ata., 1 neg., II sai., 7 esp., 1797.

153 "... *piedra del propio monte llamada* [...]" Ibidem.

154 VEK, auzi zibilak, Varela, bukatuak (*Fenecidos*), 3.846 eta 3.847 kutxak. *Probanzas*, 1773.

155 Ez da hiru lekukoren ogibidearen berri ematen.

(% 100). Nekazari gehienak ere euskaldunak ziren (% 87) eta horietatik, erdaraz zekiten hirurak Donostiakoak edo Altzakoak ziren. Gainerakoak, alegia, kargu publiko, itsasontzigile, nagusi eta eskribauak elebidunak edo erdaldunak ziren (%17). Ondorioa hauxe da: hirietan lan egiten zutenak, edo haietatik gertu bizi zirenak, erdara gehiago zekitela, bestela esan, zenbat eta hiritik urrutiago orduan eta gutxiago zekitela gaztelaniaz.

19. mendea ez da aurrekoa bezain naroa euskal materialetan. Honatx adibide bat: SAROBE baserriko bideari *estrata* esaten zitzaiola aditzera ematen da 1833. urtean gaztelaniaz idatziriko testu batean[156]. Gizaldi horretan idazki interesgarrienak udal-agintza edo bando pare bat dira, ur-hornitze eta garbitasun arazoez euskaraz hitz egiten dutenak[157] (kolera izurritea zegoen).

Orobat gertatzen da 20. mendean, lehenengo bost hamarkadetan Hernaniko Udal Artxiboan dauden euskal aipamenak urriak baitira[158], eta Urnietako Udal Artxiboan bandoen itzulpenak direlako lekukotasun aipagarrienak. Guztira bi dozena udal-agintza gordetzen dira; zaharrena 1924. urtekoa da.

3.5. Hizkera

Urumeako zilegimendiek gizaldi frankotan batasuna izan dute, hau da, administrazio izaki bakarra osatu dute, baina, haatik, ez da erkidegorik egon han, bertakoak donostiarrak, hernaniarrak eta geroago urnietarrak izan baitira hasieratik eta ez, nolabait esan, "zilegimendiarrak". Noizbait hizkera berezia egon dela pentsatzeko arrazoirik ez dago alde horretatik. Gainera, Caminok (1997: 13-14) dioen moduan, ibar edo erkidego batek aparteko nortasuna izateak ez dakar nahitaez berekin hango hizkera berezia edo bestetatik oso desberdina izatea. Ildo horretan, aspaldi esan zuen Mitxelenak (1964b: 124) hizkuntza, herria eta kulturaren arteko loturek uste den baino egonkortasun gutxiago izaten dutela.

---

156 HUA, D ata., 5 neg., 1 sai., 1 lib., 1883.
157 HUA, A sai., 6 neg., 1 sai., 6 lib.
158 Aurrerantzean horrelako idazkiek gero eta bertako kutsu gutxiago dute.

Gurera etorriz, Zuazok (1998: 8) dio ez dela biltzen isoglosa askorik Gipuzkoa eta Nafarroa artean. Hain zuzen, geroaldiko *-go* / *-en* morfemena da administrazioaren muga horrekin nolabait bat datorren banaketa bakarretakoa. Egon, Aranoko hizkeran *-go* ere badago, baina berri samarra da.

Gure esparruko hizkeraren ezaugarriez arduratu zen aurrenetakoa Larramendi da[159]. Jesulagunak dioenez (1985 [1754]: 314), gutxi eta ezagunak izan arren, euskalkien barnean aldeak zeuden. Konparazio batera, Beterrikoak *barrena*, *barrenen* erabiltzeagatik ezagunak zirela esaten du, Goierrin baliaturiko *barrua*, *barrura*, *barruna*-ren ordez[160]. Gipuzkeraren barruan ikusten zituen zenbait berezitasun aipatuko ditugu. Beterrin (Irundik Errenteriaraino, azkena barne) *dut*, *duzu* amaiera nagusi zen[161], baina Donostiatik Tolosara, berriz, *det*, *dezu*, *du.* Oiartzungoak, *esain*, *emain* nahiz *esanen*, *emanen*, *eguinen* eta *n*-z bukaturiko beste forma batzuk erabiltzeagatik ziren ezagunak, *esango*, *emango* nahiz *eguingo*-ren ordez. Orobat gertatzen omen zen auzoko herrietan, hala Gipuzkoan nola Nafarroan[162].

Jakina da duela gutxi arte euskalkien eta hizkeren arloan egindako sailkapenen oinarria Bonaparteren 1863. urteko mapa izan dela. Caminoren (1998: 7) irudiko euskalaritza atzeratua zegoen aldi hartan eta, euskararen ezagutzaren aldetik, Bonaparte izan zen ordu arteko euskalaririk jakintsuena. Printzearen sailkapenak gure esparruaz dio bi euskalki ditugula, nafarrera eta gipuzkera. Xehetasunetan sartuz gero, Aranon iparraldeko goi-nafarreraren Gipuzkoako azpieuskalkia eta gainerakoan iparraldeko gipuzkera genituzke.

Bonaparteri jarraikiz, hainbat ikertzaile Gipuzkoako iparraldeko eta hegoaldeko azpieuskalkien ezaugarriak finkatzen saiatu dira ordutik. Bat aipatuko dugu, adibidetako, Plazido Muxikak (1907: 56-58) bokalen antzekotasun legearen inguruan egindako ikerketa hain zuzen. Hauek dira, urnietarraren iritziz, Gipuzkeraren

---

159 Cf. Zuazo (2003: 15).

160 Larramendi (1985 [1754]: 321).

161 Probintziaren ipar-sortaldeko hizkera gipuzkoartzat jotzen zuen Larramendik; Zuazo (2003: 121).

162 Larramendi (1985 [1754]: 321).

Iparraldeko azpieuskalkiaren —eta, beraz, zilegimendietako euskararen— berezitasun batzuk:

○ *-a* bukaera dago beti, eta ez *-a* / *-e* hegoaldekoan bezala.

○ i eta *-a* bokalen artean *y* kontsonantea jartzen da. Jatorrizkoa denean, gauza bera gertatzen da *-u* bukaerarekin, *b* tartekatzen baita artikulua eranstean.

○ *e* bokala *a* ondoan *i* bihurtzen da.

Guztiok dakigu euskal dialektologiaren aro modernoko ikertzaile garrantzitsuena Mitxelena dela. Zenbait ingurutako hizkerak aztertzeaz landa, Errenteriakoa lekuko[163], euskalkien erro zatekeen jatorrizko euskarari arreta opa zion. Maisuaren iritziz, euskara batua (euskalkien iturburua) eta egungo euskalkiak ez ziratekeen oso desberdinak[164].

Dialektalizazioaren harira, Mitxelena (1981: 309-313) 5. eta 6. mendeetan gertatu bide zen batasun joera batez mintzo da, eta arrazoi historikoak darabiltza hori oinarritzeko. Gizaldi haietan zehar kanpoko aginteekiko askatasuna areagotzeak eragina izan zukeen hizkuntzan: truke eta hartu-emanen hazkundeak, baita batasunaren eta zentralizazioaren indartzeak ere, dialektoen zatiketaren eta isolamenduaren aurkako ondorioak ekarri bide zituzten. Hizkuntza-arau orokorrak ezarri ziratekeen, eskualde eta herrialdeen arteko mugak gainditzeko gai izan zirenak. Errenteriako hizkuntzalariaren aburuz (1977: 30) azken muturreraino gutxitua zegoen hizkuntzak, neurri batean, bisigodoei aurre egiteari zor lioke irautea eta gero, Erdi Aroko gizaldi ilunetan, alderik alde zabaltzea.

Caminok (1998: 114) dioen moduan, usu gertatzen da informazio historiografikoa eta linguistikoa bat ez etortzea, eta ematen du Mitxelenak 5. eta 6. mendeetako euskararen batasunerako eman zituen azalpen historikoak ez daudela erabat garbi oraindik; gaia ez da behin betiko argitu behintzat[165]. Zernahi ere den, garai hartako

[163] Mitxelena (1950).
[164] *FHV*, 19.
[165] Ikus, adibidez, Lopez-Mugartzak (2007: 225-226) egindako iruzkina.

euskaratik egungora bitarteko mendeetan dialektalizazio prozesu nabarmena gertatu dela azpiamarratzen du.

Baina, gatozen mamira. Gauza ezaguna da azentua dela hizkeren arteko bereizgarririk adierazgarrienetakoa, esanguratsuak diren gertakari fonetiko zenbait harekin lotuta daudelako[166]. Mitxelenak *Fonética Histórica Vascan*-n egiten duen euskal azentuaren sailkapenaren argitan, gure esparrua *I motaren* sailekoa litzateke, hau da, erdialdekoa-sartaldekoa[167]. *IV motakoa* da Urumeako zilegimendietatik gertu legokeen beste azentua, Bidasoa itsasoratzen den eremukoa alegia (Irun, Hondarribia eta Nafarroako Bortziriak); *I motarekin* antzik handiena duena litzateke Mitxelenaren ustez[168]. Errenterian berak entzundako azentu-eredua eta Oiartzungoa ezberdinak lirateke, bigarrenak *IV motako* (Bidasoako) ezaugarri asko baitzituen[169]. Errenteriako eta Lezoko hizkeren artean ez legoke ezberdintasunik[170], baina alde handia ikusten zuen, ordea, Oiartzun eta Irun-Hondarribien artean azentuaren aldetik.

Gure esparruko sortaldeari doakionez, Gipuzkoako herrietatik aski bereiz azaltzen da Arano eta Goizuetako euskara gaur egun Zuazoren (1997: 420-421 eta 2003: 102-103) ustez. Haietatik ez ezik, bata bestetik ere bereiz ditugu Arano eta Goizueta; Hernanitik dago gertuago Arano. Jakina, hizkeran ere nabari da gertutasun hori eta, horrenbestez, Bonaparteren hizkuntza eremuen zatiketa zorrotza eta erabatekoa desegokia gertatu da hemen. Izan ere, continuum dialektalaren adibide ona dukegu bi hizkera horietan; 'zubi-hizkerak' deitzen die Zuazok. Gaurko egoera kontuan izanda, Goizueta nafarreraren eremuan sartuko luke, baina ez, erabat behintzat, Arano. Bi herri horietan datuak biltzen aritu diren aditu guztiek ere (Intza, Irizar, Bozas-Urrutia, Perurena, Zubiri) antzeko iritzia jaso izan dute, alegia, Aranoko hizkerak gehiago jotzen duela Gipuzkoako hizkeren tankerara, eta Goizuetakoak Nafarroakoetara[171].

---

166 Cf. Camino, 1998: 9-10 eta 2003: 110-111.

167 *FHV*, 382, 566.

168 *Op. Cit.*, 587.

169 Esaterako, Errenterian ez bezala, Oiartzunen azentua izenaren oinarrizko formaren barnean gorde bide zen, atzizkira pasa gabe.

170 *FHV*, 576. Muga Pasai Donibanen legoke. Bestalde, Donostia, azentuari dagokionez, Errenteria eta Lezoren sailekoa litzateke.

171 Cf. Zubiri (1998: 165).

Horrenbestez, Zuazok (1998: 22) proposatutako mapa berrian gauzak aldatu egiten dira nabarmen. Sailkapen horren argitan, erdialdeko euskara besterik ez genuke gure esparruan, Aranoko hizkera ere erdialdekotzat ematen baitu (1998b: 228; 2003: 103). Errenteria-Irun bitarteko hizkerak direla eta, Gasteizko irakasleak (1997: 418) esaten du Gipuzkoarekin batzen dituzten ezaugarriek eta oraintsuagoko hartu-emanen lekuko direnek egin dutela aurrera. Larramendik 18. mendearen erdialdera Oiartzunen jaso zuen geroaldiko *-anen* (> *-ain*) morfemaren ordez, mende bat beranduago, Bonapartek *-go* jaso izatea horren adibide litzateke[172].

Bortziriak eta Goizueta bera 'nafarrera' deitzen duen eremuan sartzen ditu, baina, esan bezala, ez Errenteria-Irun bitartekoak eta Arano. Zuazok (1997: 421) horretarako ematen dituen arrazoien artean aferesiaren (Bortziriak, Goizueta, Arano) eta sinkoparen (Bortziriak, Goizueta) maiztasuna daude. Haren ustez, euskara nafarrean ohikoak eta oso bertakoak diren aferesiak eta sinkopak azentuarekin dute zerikusia. Aranoko hizkera (eta Errenteria-Irun bitartekoa) 'nafarrera' deitzen duen eremuan ez sartzeko fonetika-fonologia mailako arrazoi gehiago dakartza Zuazok (1998: 11):

○ Erdal *-on* amaieraren ordezkari *-oi* zein Nafarroako *-on* ditugu Bortzirietan; *-oi* baizik ez beste haietan (Bizkai-Gipuzkoetakoa).

○ *-rtz-* kontsonante multzoa dago Bortzirietan. Mendebalean eta erdialdean *-st-* kontsonante multzoa nagusitu da eta *-r(t)z-* atxiki da, berriz, euskara nafarrean; adibideak ez dira asko, nolanahi ere.

○ Bizkaiko ekialdean, Gipuzkoa osoan eta Nafarroako mendebalean hedatu da hasierako **j-*ren [x] ebakera (Arano barne[173]). Euskara nafar gehienean, aldiz, [j] ebakera dago.

Perurena eta Zubiri (1998: 165-166) ere nafarreraren eta erdialdeko euskararen muga Arano eta Goizueta artean ezartzearen alde daude, eta ez Hernani eta Arano

[172] Dena dela, *-go* agertzen da 18. menderako Hondarribian.

[173] Areson ere [x] biltzen du (*jan*) Olanok (1998: 26), baina Leitzan, aldiz, [j] soinu ahostuna (*yan*); Ibidem, 97.

artean. Hauen aburuz Aranoko hizkerak gehiago jotzen du Gipuzkoako hizkeren tankerara, eta Goizuetakoak Nafarroakoetara[174]. Gainera, eremu batetik besterako urratsa ez da aldi oro bat-batekoa izaten, ez da beti berehala ematen; mailakatua izaten da eta bataren eta bestearen zubi-papera betetzen duten hizkerak ohi daude[175]. Hitzez hitz azalduko ditugu horretarako oinarri hartzen dituzten zenbait arrazoi:

○ Bokal-hersketen alorrean, Aranon *e*-z eta *o*-z amaitzen diren hitzak itxi egiten dira artikulua hartzen dutenean, *i* eta *u* bihurtuz, azken batean, hiatoa gehiago markatzeko[176] (*bidea* > *bidia*, *artoa* > *artua*). Goizuetan, aldiz, artikulua inolako aldaketarik gabe eransten zaio hitzari (*bidea*, *artoa*).

○ Sinkopa, ostera, askozaz ere modu nabarmenagoan eta indartsuagoan gertazen da Goizuetan Aranon baino[177]. Hizkera nafarraren ezaugarrien artean sinkopa bereizgarritzat jotzen du Zubirik (1998: 164) ere; maiztasun handiagoa du Goizuetan eta Bortzerrietan, baina ez hainbestekoa Aranon.

○ Aferesiak indar handia du Goizuetan nahiz Bortzirietan, eta ezaugarri horretan Arano bat dator nafarrerarekin, hizkera nafarraren bereizgarria baita hau ere[178].

○ Goizuetako eta Aranoko hizkerek jokabide desberdina dute hiatoei eusteko[179]: lehenengoan bere hartan irauten duten bitartean, Aranon hiatoa hobeki ziurtatzeko kontsonante bat (‘*y*’ sabaikaria) sartzen zaie tartean -*i*-z bukatzen diren hitzei -*a* mugatzailea eransterakoan (*mendi* + *a* > *mendiya*).

---

174 Besteak beste, Bozas-Urrutiak (1963-64) —aditz jokoa aztertzean— taxututako hiztegitxoaren sarrera hartzen du aintzat, baita Damaso Intzak (1922) eta Irizarrek (1992) herriotako euskarari buruz egindako ikerlanak ere. Cf. Zuazo (2003: 104, 132).

175 Caminorentzat (2005: 267) polimorfismoa izan ohi da trantsizioko mintzoen ezaugarri nagusietariko bat.

176 Zubiri (1998: 30).

177 *Op. cit*., 33 or.

178 *Op. cit.*, 164 or. Cf. Olano (1998: 19).

179 *Op. cit*., 40 eta 160 or.

○ Kontsonanteei bagagozkie, batik-bat herskari ahoskabeak ebakitzen dira hitz hasieran Goizuetan eta Aranon, ahostunarekin batera batzuetan[180]: *korbata* / *gorbata*, *gutizi* / *kutizi*.

○ Aditz morfologia mailan, geroaldia osatzeko *-in* bukaera erabiltzen da gaur egun Goizuetan (*yain*, *emain*, *esain*), baita Aranon ere (*jain*, *emain*, *esain*). Nolanahi ere den, Goizuetan *-ko* duten formak entzuten dira (*yango*, *emango*, *esango*) eta Zubirirentzat (1998: 123) zaila da zein zeini gailentzen zaion esatea. Aranon, ostera, askozaz gehiago erabiltzen dira gaur egun *-ko*-z bukatzen diren adizkiak *-in*-ez bukatzen direnak baino.

Perurenak eta Zubirik (1998: 166), azkenik, Aranoko eta Goizuetako hizkeren arteko desberdintasunak hasiera batean uste baino handiagoak eta nabarmenagoak direla onartzen dute, bai bokalismoan, bai kontsonantismoan, bai izen morfologian eta bai aditz morfologian ere. Hori dela eta, iruditzen zaie aski arrazoi badirela Aranoko eta Goizuetako hizkerak eremu banatan sailkatzeko[181].

Guztiaz ere, gure esparruko gainerako lurraldearekin batera erdialdeko euskararen eremuan sailkatuagatik, Aranokoa zubi-hizkeratzat jotzen dute hala Zuazok (1997: 421) nola Perurenak eta Zubirik (1998: 166), bi hizkuntza eremu (erdialdekoa eta nafarrerarena) bereizten dituen tarteko hizkeratzat, alegia (ikus 11 mapa).

[180] *Op. cit.*, 44 or. Cf. Olano (1998: 91).
[181] Gauza bera gertatu bide da Areso eta Leitzako hizkerekin; ikus Olano (1998: 8, 11).

4. ITURRIAK

4.1. Ahozko bilketa

4.1.1. Ahozko toponimia

Toki edota inguru bateko ahozko toponimia, gizatalde batek erabiltzen duen izen multzo aldakorra den heinean, ezin daiteke zehatz-mehatz eta erabat zenbatu. Gizakion mugek (oroimenak) baldintzatutako zerbait denez gero, informatzaileek euren jakinduria osoaren berri ezin digute eman, bestela esan, inongo toponimia ezin da bere osotasunean bildu, zati bat besterik ezin baita jaso. Bestetik, ahozko toponimiaren bilketa gizaki arteko zuzeneko komunikazio ekintza den neurrian, hizkuntzaz landako faktoreek ere eragina dute (berriemaile eta biltzaileen egoerak, testuinguruak eta abarrek).

4.1.2. Biltzailea

Ezinbestekoa da biltzaileak belarri ona izatea, entzuten edo grabatzen dituen toponimoak diren moduan jasotzeko gai izatea, alegia. Fonetika alorreko gutxieneko ezagutza ere ezinbestekoa da, hots, aditutakoa zeinu bitartez interpretatzeko eta irudikatzeko gaitasuna izan behar du. Dena dela, egungo aurrerapen teknikoei esker (grabaketa eta sonograma bitartez) gero eta aiseago gaindi daiteke arazo hori.

Berriemaileek izendatutako elementuak mapetan kokatzeko gauza izan behar du biltzaileak. Gainera, komenigarria da galdeketaren gai den eremua aldez aurretik ahalik eta hobekien ezagutzea, geografia eta hizkuntzaren ikuspegitik batez ere, ezagutza horrek izendatzen diren elementuen kokapena eta izaera finkatzerakoan asko laguntzen duelako[182]. Biltzaileak eremua menderatzeak erantzun zuzenak eta zehatzak ematera behartzen ditu informatzaileak, galderen maila eta erantzunen kalitatea hertsiki loturik egon ohi direlako[183].

[182] Cf., esaterako, Terrado (1999: 31-32) eta Jimeno Jurio (2004: 55).
[183] Jimeno Jurio (1987: 441).

Galdeketaren unean biltzaile bakarra edota bat baino gehiago egon daitezke. Biltzaile bakarra egotea hobe da askotan[184], bestela berriemailea erraz asalda daitekeelako. Biltzaile anitzek informazioa azkarrago atera diezaiokete berriemaileari, baina galdeketari erritmo biziegia ezartzeko arriskua areagotu egiten da egoera horietan, informazio iturria den informatzailea nekatuz edo aztoratuz. Horrez beste, inkestatzaileen artean interferentziak eta kontraesanak gertatzeko aukera gehiago egoten da. Hori dela eta, berriemailearen gogoa aise ahul daiteke eta, hortaz, biltzaile bat baino gehiago egotekotan komenigarria da galderak batek bakarrik egitea eta gainerakoek galdeketan laguntzailetzat jokatzea, konparazio batera, toponimoak mapan kokatzeaz arduratuz.

4.1.3. Berriemaileak

Informatzaile bakar batek gainerako guztiek baino informazio gehiago eman badezake ere, zenbat eta elkarrizketa gehiago egin orduan eta hobe, alde horretatik ez baita konformaerraza izan behar. Nahi adina galdeketa ezin badira egin, irizpide geografikoaren arabera hauta daitezke berriemaileak, hots, ikerketaren esparru den lurralde osoa ukitzen saiatzea da gomendagarriena. Toponimia bilketa sakona egiteko ez dago gutxieneko informatzaile kopururik, esan bezala, ahalik eta informatzaile gehien elkarrizketatzen saiatu behar delako. Galdeketa-saioan berriemaile bakarra egoteak informazioaren ugaritasuna eta aniztasuna laguntzen du; informatzaile anitzekin elipsiak, mimesiak eta interferentziak gertatzeko aukera areagotu egiten da, jokabide horrek alde onak baditu ere[185].

Nahiz eta adineko pertsonek normalean gazteek baino toponimia gehiago dakiten, interesgarria da helduak ez diren berriemaileak ere itauntzea, informazioa erkatzeko eta epaitzeko gazteen testigantza baliagarri gerta litekeelako[186]. Era berean, lekua urrutiagotik eta azalagotik ezagutzen dutenekin solastea ere ona da, informazio iturrien aniztasuna lagungarri izaten da eta beti, lanbide jakin batzuetan (gure esparruan,

[184] Hudon (1986: 47-48).

[185] "Aipatu behar da hirugarren pertsonen presentzia ez dela beti kaltegarri, batzuetan honek berriemaleak gogoan ez duten zerbait argitzen ahal baitu, edo bere iritzia erantsi"; Camino (1997: 63-64).

[186] Cf. Ormaetxea (2006: 540).

konparazio batera, artzaintzan, basolangintzan eta nekazaritzan) ikergai den tokian bertan lanean aritu izan diren informatzaileek arrunki gehiago jakiten duten arren.

Azkenik, andreak berriemaileen %12 dira gure bilketan. Bistan da, emakumeak kulturaren transmisioan izandako garrantzia apartekoa izan dela[187] (besteak beste haurrei hizkuntza erakusteaz arduratu dira), baina toponimiaren alorrean ez da horrenbestekoa izan, hainbat arrazoi direla medio, leku-izenen transmisioa gizonezkoaren esku egon delako neurri handi batean[188].

4.1.4. Galdeketa

Galdeketa toponimikoak egiteko baliabide eta metodologia egokiaren beharra ez da deus gutxiko arazo eta, horren lekuko, euskal toponimiaren bilketa helburu duten aurreneko ahaleginetan ikusten da dagoeneko[189]. Izan ere, hasi orduko, galdeketa egiterakoan emandako urrats guztiek izango dute garrantzia. Adibidez, aldez aurretik informatzaileari abisu emateak bere alde onak eta txarrak ditu. Kasu eginez gero berriemaileak denbora errazago hartuko du eta oroimena pixka bat esna dezake; eman ditzakeen erantzunak, ordea, ez dira hain bat-batekoak izango agian, aurretik prestatuak eta biribilduak baizik.

Galdeketak grabatzea ia nahitaezkoa da, berriemaileengandik jasotako informazioa nahi adina aldiz entzun eta datuak zehatzak izateko aukerak nabarmenki areagotuko direlako[190]. Dena dela, grabatzeko baimena emanagatik, ez da komenigarria izaten (arrunki behintzat) berriemaileak grabagailua ikustea, —urduri jartzeaz gain— naturaltasuna erraz gal baitezake, hasieran batez ere.

Ahal izanez gero, ikergai diren izaki geografikoak banan-banan eta zuzenean, ikusiz, seinalatuz eta kokatuz egin behar da galdeketa[191]. Saio bakoitza ibilbidetzat hartu

---

[187] Camino (1997: 71).

[188] Jimeno Jurio (2004: 56) ez zen uste berekoa nonbait.

[189] Eleizalde (1916: 1).

[190] Terradok (1999: 40) dio, berriemailea nekatua dagoenean, galdeketa arintzeko baliabide ona dela grabaketa.

[191] Etxe-izenetatik abiatzea gomendatzen du Terradok (1999: 41), soro, borda, baso eta beste hainbat elementuren izena jabeen etxearen izenarekin lotua egon ohi delako.

behar da, edota, gainerakoan, izendatu nahi diren gauza guztiak ikus daitezkeen talaiaren bat aukeratzea besterik ez dago[192]. Hori ezinezkoa balitz argazkiak edota planoak erabil daitezke, baina horrek —informatzaileak baliabaide horiek ulertzeaz gain— biltzaileak aldez aurretik eremua oso ongi ezagutzea eskatzen du. Ibilbiderik ezin bada egin, galdeketa egiteko lekurik egokiena berriemailearen etxea bera da.

Esan gabe doa biltzaileak errespetu osoa zor diola informatzaileari. Horrela merezi izateaz gainera, desadostasunek informazio iturria erraz asalda, asper edota zaputz dezakete[193]. Ez bedi ahantz berak esandakoari arrotz batek ematen dion garrantziagatik harrituta dagoela berriemailea. Iñaki Caminok (1997: 59) ongi asko adierazten duen moduan, inkestatzailea eta elkarrizketatua biak adin, izaera, estatus, lanbide, janzkera, jatorri edo hizkera irudikoak direnean, errazago bereganatuko dute batak bestea, errazago sortuko dira intimoak diren hizkuntza aldaerak edo hizkerak. Ahal izanez gero, informatzaileak adi egon behar du galdeketa egiterakoan, beste lanik egin gabe, eta patxadan, presarik gabe, bestela informazioa urria eta fidagarritasun gutxikoa bihur liteke eta.

Aurrez aurre dauden une beretik, galdeketaren partaideak elkarri eragiten ari direnez, mimesi eta interferentziak berehala has daitezke. Esate baterako, informazioa zehazte aldera, berriemaileak erantzuna errepika dezan nahi izanez gero, horretarako erabili behar den erreferentziak eliptikoa edo informatzaileak lehentxeago eman duenaren ahalik eta antzekoena izan beharko du; horrela ez bada, mimesia berehalakoa izan daiteke. Hala berean, ez da komenigarria izaten berriemaile batek beste informatzaileek galdera jakin bati buruz emandako erantzunak ezagutzea, horrek ere mimesi eta interferentziak laguntzen dituelako.

Berriemaileak, eskuarki, ikergai den esparruaren alderdi bat baino ez du ezagutzen, arrazoi baten edo besterengatik ibiltzea suertatu zaiona hain justu. Ezagutza-eremu hori

---

[192] Hitzez hitz azalduko dugu Corominesek (1972: 167) horretaz dioena: “Por experiencia sé que la encuesta en lugar cerrado da resultados menos completos y se presta más a repeticiones y malas inteligencias, no siempre fáciles de advertir; en mis viajes lo he practicado casi siempre en una cumbre que me permitiera abarcar con la mirada la mayor parte del término y, cuando ésta no existía, en un recorrido circular”.

[193] Cf. Jimeno Jurio (1987: 441).

berak aitortzen du normalki eta ez da komenigarria izaten oso ongi ezagutzen ez dituen alderdien galdeketan gehiegi saiatzea, gogoa gal dezake eta.

Informatzaile bakoitzaren datuekin fitxa bete ahal izateko, izena, deiturak, adina, ogibidea, jaioterria, jaiotetxea eta familiaren jatorria galdetu behar zaizkio gutxienez. Bakoitzaren egoera fisiko eta intelektuala jasotzea ere ez dago soberan.

4.1.5. Informazioaren prozesaketa

Toponimoak berriemaileak zehaztu eta izendatu ahala kokatu behar dira mapetan[194]. Geografia alorreko informazioa zinta magnetofonikoetan jasotzea zaila da eta zehaztasuna galtzea erraza. Alde horretatik, bi biltzaile egoteak abantailak ditu.

Bakoitzari dagokion hedaduraren arabera, toponimoak mapetan behin bakarrik idaztea da hoberena, nahi izanez gero letra tamaina ezberdinak, marrazki edota ikurrak erabiliz; zalantzak eta nahasketak nekezago gertatuko dira horrela. Galdeketa bakoitzaren ondoren, informatzaile bakoitzak emandako toponimoak kolore edo ikur bitartez identifikatzea ere aberasgarria da, informazioa alderatu eta baloratu ahal izateko bidea errazten du eta.

Elkarrizketatu ondoren, grabaketak entzun eta alorreko lanean jasotakoa toponimo bakoitzaren fitxan idatzi eta zehaztu beharra dago, galdeketaren unean datuak, mapa eta kuadernoetan presaka ezartzen direlako. Esan bezala, berriemailearen egoera fisiko eta intelektualak erantzunetan eragin zuzena du eta, horrenbestez, informazioa prozesatzerakoan datu horiek, nahitaez, kontuan hartu behar dira. Informatzaileak emandako datu guztiek ez dute balio bera izaten. Jatorrenak bat-batean, hizketaldi informal eta arruntean jasotako toponimoak dira. Ondoren, galdera baten lehenengo erantzunak izaten dira fidagarrienak, hau da, hitzetik hortzerakoak; bigarren erantzunak ausnartuago eta (gehienetan) osatuagoak izaten dira. Biltzaileak proposaturiko eta berriemaileak errepikaturiko edota onetsiriko erantzunak daude azkenik, gauza jakina baita horien balioa zalantzazkoa izaten dela.

[194] Gure irudiko 1:5.000 eskalako mapak dira egokienak toponimia bilketak egiteko, baina 1:10.000 eskalakoak ere erabil litezke. Ikus Jimeno Juriok (2004: 40) horretaz dioena.

4.1.6. Ahozko bilketaren laburpen koadroa

Berriemaileak	73
Emandako formak	3.120
Berriem. bakoitz. b.b. eman. formak[195]	42,7



[195] Berriemaile bakoitzak batez beste emandako formak.

4.2. Iturri idatziak

4.2.1. Dokumentazio historikoa

Nafarroako Artxibo Orokorra

Iruñeko artxibo honetan daude *Leireko bezerroak* izeneko agiriak, gure esparruko toponimiaren aipamenik zaharrenak dakartzatenak[196]. Idazkuna osorik Serapio Muxikak argitaratu zuen lehenengoz, eta Aragoi eta Nafarroako errege zen Petri I.ak 1101. urtean *Ernani*-ko mugapean (itsasotik hurbil) zeuden *Sancti Sebastiani*-ko hiria eta eliza, *Oroztegui* saroia (*pardina*) eta *Urhumea* izeneko erreka Leireko monasterioari eman zizkiola jakitera ematen du.

Bada artxibo honetan nahiko ezaguna den 12. mendeko beste agiria, Antso Nagusia erregeari 1014. urtean *Sancti Sebastiani* monasterioa eta *Izurun* hiria (bi eliza eta zazpi saroirekin) Leireko monasterioari eman izana egozten diona hain zuzen. 1197 inguruko faltsifikazioa da[197].

Iruñeko Katedraleko Artxiboa[198]

Egoitza honetan gure esparruari buruzko 12. mendeko dokumentazio garrantzitsua dago. Inguru berean gertatu eta antzeko arrazoiek eragindako ekintza sorta biltzen dute, berreste eta errepikapenez egindako soka ehunez. Urbano II aita santuak 1105. urtean Baionako elizaren sartaldeko muga ezartzen duenean hasten da errenkada. Ondoren, 1141ean, Nafarroako errege zen Gartzia Erramirez Errestauratzaileak *Iheldo Bizchaya*, *Hurumea* eta beste toki batzuetan zeuzkan jabetza guztiak Iruñeko elizari eman zizkion.

Handik urte batzuetara, 1178 aldera hain zuzen, Antso Jakitunak Gartzia Errestauratzaileak Iruñeko elizari emandakoa berresten du. Aurreneko emaitza hartan (1141an) izendatzen diren ondasunak zehazten ditu aizuna dirudien idazkiak. Hamabost

---

196 Zeinadura eta beste xehetasun batzuk jakiteko ikus Goñi Gaztanbide (1963: 158 zenb).

197 Behin baino gehiagotan transkribatu eta aztertuak izan direnez gero, ez dugu ezinbestekotzat jo bi idazkiak zuzenean aztertzea. Ikus Muxika (1935: 393), Izagirre (1951: 343-345) eta Goñi Gaztanbide (1997: 24-26).

198 Gaztelaniaz *Archivo de la Catedral de Pamplona* izena du. Honekin aurrekoarekin bezala jokatu dugu, alegia, ez dugu derrigorrezkotzat jo dokumentuak zuzenean hustea.

toponimo dakartza, saroi izenak guztiak, gehienbatean bizirik dirautenak. Baina iturria ez da hor agortzen, 1186-1189 bitartean egindako faltsifikazio batean, Antso Nagusiak Iruñeko elizari bere jabetza guztiak itzultzen baitizkio. Handik gutxira, azkenik, Iruñeko *Pedro* apezpikuak *Sancti Sebastiani*, *Hernani* zein Gipuzkoa-Nafarroetako beste aurkintza batzuen kargua Baionako *Bernardo* (*de Lacarra*) apezpikuari eman zion, 1186-1193 artean idatzitako izkribu batean jakinarazten denez.

Dokumentuen antzinakotasuna eta nolakoa ikusita, garbi dago gure esparruko tradizio idatziaren hastapena aski aberatsa dela. Gainera, Iruñeko katedralean gordetzen den idazkun kopurua gogoan hartuta gure esparruari buruzko aipamenak gutxi izan arren, Gipuzkoari buruz Erdi Aroan dagoen dokumentazioari erreparatuta, ordea, hainbateko horrek gora egiten du.

Hernaniko Udal Artxiboa

Esan bezala, Hernaniko Udal Artxiboa izan da iturburu nagusia dokumentazio bilketan. Egun *Viteri Kultur Etxean* gordetzen da Hernanik historian zehar jasan dituen txikizio eta sarraskietatik ia osorik atera den altxorra. Dokumentu zaharrena 1427koa da eta 1388ko erreferentziak ematen ditu gainera. Idazkiak ongi kontserbatua daude, Gipuzkoako Udal Artxibo bikainenetakoa den honetan. Serapio Muxikak egindako lan eskergaren jarraitzaile izan zen Fausto Arotzenak sailkatze lanak 1940an bukatu zituen, eta aurkibidea 1976an argitaratu zen. Izkribuak atal, negoziatu, sail, liburu eta espedienteka banatuta daude.

Hasiera 1539. urtean duen A Sailetik (Udal Administrazioa) Udalaren aktak dituen 1 Negoziatua hustu dugu. Lehen liburua ikuskatu dugu batez ere, 2, 3, 4, 5, 6. eta 7. koadernoei bereziki erreparatuz (1545-1583 urteak). Negoziatu horren 2, 4, 5, 6, 9, 11, 14. eta 15. liburuak ere ikertu ditugu. Azterturiko azken agiria, berriena alegia, 1854. urtekoa da.

Atal honetan gure esparruko toponimiaren aipamen gutxi dago, nahiko lurralde zabalak harrapatzen dituzten itxitu edo *exido* eta *parte* edo eremuen aipamenak baitira

usuenik. Saroi eta burdinolei buruzko berriak ez dira falta, hots, ezagunena den toponimia da batez ere hemen aurki daitekeena.

Arotzenaren aurkibidean *Fomento* izenburua duen B Sailean (Fomentua), 4 negoziatuaren 2. liburuan 1863ko Gipuzkoako izendegiaren ale bat dago[199]. Hori da aipagarriena.

Hacienda-ri eskainitako C Saila (Ogasuna) izan da Hernaniko Udal Artxiboan idoro dugun agiri-bilduma emankorrena, udal ogasunei buruzko informazioa biltzen duen V Negoziatua batez ere. Negoziatu hori bost sailetan banatzen da eta lehenak *montes* izenburua du (1379-1908 epea). Sail honetako liburuek *Montes Francos del Urumea* delako lurraldeak denboraren buruan izandako ibilbidearen berri ematen dute, eta toponimia ugari dakarte. Bat aipatuko dugu, adibidetako, gaia erabil dezagun: 1671. urtean Donostia, Hernani eta Urnieta artean egindako zilegimendien zatiketari buruzko dokumentazioa biltzen duen 5. liburuko 8 espedienteaz ari gara, garai hartako Urumeako zilegimendien deskribapen zehatza eta —zatiketa zela medio— egindako mugarriztatzea dituena. Hirurogeita hamasei toponimoren ehundik gora agerraldi daude hamar orritan, eta eskribauaren letra garbiari eta gauzak zehazteko egindako errepikapenei esker, formak arazorik gabe finka daitezke (ikus 14 or.).

Bigarren sailean, 1796-1886 bitarteko Zilegiaren kontzejuak eta akordioak mintzagai dituen 7. liburua da aberatsena. Burdinola eta errotei eskainitako hirugarren sailak 1427-1867 epeko idazkiak ditu eta. 15. mendeko agiriak egotea da aipagarriena. Gehienak burdinola eta errota multzo bati buruzkoak direnez gero, toponimia aski errepikatzen da. Badira saroi eta *exido* edo itxituei buruzko berriak ere.

Azkenik, espero izatekoa zenez, jabetzei dagokien laugarren saila ez da joria izan, 16. mendean hasi arren. Udal-jabetzei buruzko informazioa ematen du gehienbatean eta Urumeako zilegimendiek ez zuten *estatus* hori. Negoziatuaren azkena den V sailak udal-barrutiaren mugei buruzko izkribuek osatzen dute. Guztiarekin, 19. gizaldiko dokumentazioa da esanguratsuena, mendearen amaierako mugarriztatzeak bereziki.

---

[199] Ez du datarik. Arotzenak 1863. urteaz ondorengoa dela esaten du ohar batean.

Obras izenburua duen D Sailean (Obrak) toponimo berantiar gutxi batzuk besterik ez daude, joan den mendearen bukaerakoak gehienak.

Udalak eta alkatetzak gainerako agintari, erakunde eta norbanakoekin zituzten harremanei dagokien E Atalari buruz (Kanpoko harremanak), aurreko atalaz hitz egiterakoan esandakoa errepikatzea baizik ez[200].

Artxiboaren aurkibidean *Apéndice* izenburua duen multzotik (Eranskina), azkenik, C Atalaren 7. Negoziatuko I Sailean dauden katastro edo amilaramenduak dira naroenak, 20. mende hasierako toponimo mordoa baitute.

Errenteriako Udal Artxiboa

Ezaguna da Errenteriako Udal Artxiboa Gipuzkoako udal artxibo aberatsen artean dagoela, besteak beste, idazki zaharrenak 13. mendekoak direlako. Guztien artetik, gure esparruko hainbat toponimoren aipamenak dakartzaten 15. mendeko bi mugarriztatze-agiriren transkribapenak erabili ditugu[201]. Lehenengoa 1409. urtekoa da eta Murgia (Astigarraga) eta Errenteriako dermioak banatzen zituzten mugarrien kokapena zehazten du[202]. Bigarren dokumentua, berriz, 1495. urtekoa da eta Errenteria eta Oiartzungo lurren arteko banaketaz jardukitzen da[203].

Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa

Donostiako apaizgaitegian dagoen egoitzan Gipuzkoako herri gehienetako bataio eta hileta liburuak daude jasota. Donostia, Hernani eta Urnietako bataio liburuak begiratu ondoren, Hernaniko (1584-1639) eta Urnietako (1681-1760) zenbait oikonimoren lekukotasunak lortu ditugu. Ez bedi ahantz 16.-17. mendeetan deitura baserriaren izenak ematen zuela askotan, eta hortik bere garrantzia.

---

200 1610. urtean egindako harresilandako etxeen zerrenda da salbuespena.
201 Ez ditugu zuzenean begiratu, argitaratuak eta egoki transkribatuak daudelako.
202 Crespo & Cruz & Gómez (1991: 138-145).
203 *Ibid*., 117-135.

Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa

Oñatiko jauregian gordetzen den dokumentazio kopurua itzela da eta bi atal nagusitan banatua dago. Lehenengo sailean, notarioen protokoloetan alegia, Urnietako idazkaritza edo eskribanietan hirurogeita hemezortzi paper sorta edo *legajo* daude esate baterako (1679-1869 bitartean), eta, jakina, sorta bakoitzak ehundaka orri ditu. Zorionez, Antxon Agirre ikertzaileak alde horretatik egindako lana eskura izan dugu eta, Urnietako kasuan bederen[204], Urumeako zilegimendiak gai dituzten protokoloetara (artxiboaren mamira) zuzenean iritsi ahal izan gara. Hamaika legajo edo paper sortetan idoro dugu gure esparruari buruzko informazioa, Urnieta (1693-1822) eta Astigarragako (1598) idazkaritzetan.

Jabego Erregistroaren aurreko zuzena den *Contaduria de Hipotecas* saila da Oñatiko artxiboaren bigarren atal nagusia. Sail hori 1768-1862 bitartean burututako ogasun higiezinen salmenta, zor, hipoteka eta zerga-agirien erregistro eta aurkibideez osatua dago eta partidu judizialetan banatzen da[205]. Notarioen protokoloekin lotura estua du, *Contaduria* erregistroetako izenetatik, hau da, toponimiatik abiatuz iristen baita jatorrizko idazki edo eskrituretara. Donostiako partidu judizialari dagozkion aurkibide liburuak hustu ditugu, erregistro liburuak alde batera utziz. Hernani eta Urnietakoak 1768an hasten dira eta Donostiako liburu zaharrenak, berriz, 1814. urtekoak dira.

Valladolideko Errege-Kantzileriako Artxiboa

Bi auzi erabili ditugu, baina, halaz ere, artxibo honen ekarpena garrantzitsua da. Lanerako Valladolidera joan beharrik ez dugu izan gainera, aurrenekoa husteko Bergaran dagoen *Irargi* egoitzako (Eusko Jaurlaritzaren Dokumentazio Zerbitzuko) mikrofilma baliatu genuelako, eta bigarrena aztertzeko, ostera, agiriaren kopia Valladolideko artxibora zuzenean eskatu genuelako. Bi dokumentuek eskainitako informazioaren nolakoa eta zenbatekoa bikaina da.

---

[204] Agirre, A. (1999): *Documentación relativa a Urnieta*, lan argitaragabea. Hernani eta Astigarragari buruz plazaratu dituen liburuetan ez du zilegimendien aipamenik egiten.

[205] Ikus González & Aparicio (1989: 99).

Auzi zibilen saileko *Varela* eskribanian dagoen bi mila orriko auziak Donostia eta Hernani artean 1773. urtean egin zen Urumeako saroien zatiketaren gorabeherak biltzen ditu. Toponimia asko dakarten bi mapa bikainez hornitua dago gainera[206]. *Juan Antonio Mendiburu* eta *Jose Antonio Guesalaga* adituak 1671. urtean egin zen zilegimendien zatiketa eta mugarriztatze-agirian oinarritu zirela uste dugu, toponimia ehun urte lehenagoko zatiketan erabilitako bera delako. Alde horreratik, auzia ordu arteko zilegimendien historiaren bilduma da. Aurreko auzietako kopia ugari batzeaz gain, ekarpen berriak baditu, 1773. urtean Valladolideko *Antonio Fraguas* adituak Urumeako zilegimendietan egin zuen ikuskatzea lekuko. Tesian erabili dugun idazkun garrantzitsunetarikoa da hau, Hernaniko udaleko 1683ko zatiketa-agiriarekin batera.

Valladolideko artxibotik hartu dugun bigarren izkribuak ere saroiak hartzen ditu ahotan, Leitzarangoak oraingoan (Elduain eta Andoaingoak). Saroi horiek zirela eta Inturiko burdinolaren jabe zen *Micaela Oquendoren* (San Millango markesaren) eta Elduain eta Berastegiko udalaren arteko 1739. urteko auziaz ari gara. Zenbait toponimoren etorkia argitzen edota finkatzen lagundu digu.

Donostiako Udal Artxiboa

Atal honen hasieran esan bezala, Zilegiko partaide nagusiaren artxiboan dagoen bilduma berandukoa da. *Simancas*eko artxibotik ekarritako kopia batzuez landa, gainerako informazio guztia 19. eta 20. mendeetakoa da. 1892. urtean Serapio Muxikak argitaratutako aurkibideak ez du balio egun, geroztik dokumentazioa berriro antolatu baita; beste aurkibide batek korritzen du. Bigarren aurkibide hori, eskuz idatzia egoteaz gain, ez zegoen bateratua erabili genuenean, eta artxiboan egon zitekeenaz jabetzeko bost karpeta begiratu behar ziren.

Idazki aipagarriena *Fomento*-ari eskainitako B Sailaren 1. Negoziatuan dago (aurrekari historikoak). 1628. urtean egindako Urumeako zilegimendien ikuskatzearen eta mugarriztatze baten kopia da[207]. Gainerakoan, Urumeako zilegimendiei buruzko

206 Mapak bi izatearen arrazoia alderdi bakoitzak —Donostiak eta Hernanik alegia— berea aurkeztu izana da.

207 DUA, B at., 1 neg., 2211 kutxa, 1 esp., 158 au.-160 bin.

informazioa *Hacienda*-ri eskainitako C Atalaren 5 Negoziatuan (udal jabetzak) dago gehienbatean. 19. mendearen hasierako izkribuak dira batez ere.

Donostiako Jabego Erregistroa

Donostiako egoitzan Oñatiko *Contaduría de hipotecas* sailaren segidako dokumentazioa jasotzen da. Idazki bakarra hustu dugu han, Oñatiko artxiboa itxi ondoren gertatu zen izen-emate garrantzitsua jasotzen duena, hau da, 1868. urtean egin zen Urnietako zilegimendien erregistroa. Historia eta legegintzaren ikuspegitik garrantzizkoa da baina, ez du aparteko baliorik toponimiaren aldetik.

Urnietako Udal Artxiboa

Nahiz eta gaur egun gauzak aldatu diren, artxiboa antolatu gabe zegoen han lan egin genuenean. Esan gabe doa ikerketa franko neketsua gertatu zela. Urnietako udaletxeak —eta herriak oro har— karlistadetan jasandako txikizioa dela medio, liburu zaharrena 1878. urtekoa da. Ikusteko gutxi dagoenez, goitik behera begiratu ahal izan genuen. Baliagarriak zaizkigun idatzi bakarrak baso eta abere ustiapenei buruzko txostenak dira, baita joan den mendearen erdialdean egindako amilaramenduak ere, toponimia ugari baitaukate.

Urnietako Eliz Artxiboa

Izen horrekin ezagutzen den paper sorta Urnietako apaizetxean dago. *Documentos históricos* sailean 19. mendearen erdialdetik honanzkoak diren zenbait izkribu daude, *Legajo I* eta *Legajo II* izenburua duten bi karpetatan. Esanguratsuenak erretoreak 1855. urtean egindako errolda eta herriko maisuak 20. mendearen hasieran idatzitako elizako hilobien zerrendak dira[208].

Urnietako Zilegiaren Artxiboa

1959an Zilegia desegin eta zilegimendiak saldu ziren arte, armairua eta liburuak Urnietako udaletxean zeuden. Ondoren, Belauntzaran familiak eduki zuen; izan ere, Urnietako zilegiaren batzordeko azken presidentea Azkonobietako J. M. Belauntzaran

[208] Data zehatza ezezaguna da. Cf. Murugarren (1974: 128).

izan zen. Geroago, familia hartako azkena zen P. Belauntzaran andereak Arizmendi familiari utzi zizkion idazkiak eta egun M. Arizmendi zenaren familiak zaintzen ditu. Bost liburuetatik zaharrena 1868. urtean zilegimendiak jabego erregistroan inskribatu zireneko agiria da; zilegiaren bina erabaki-bilduma eta kontu-liburu dira besteak (1891-1959). Bada eskubidedunei buruzko txostena, eta askotariko paperak biltzen dituen karpeta ere bai. Espero genuenaz bestera, toponimia gutxi dute.

Agirreberriko Artxiboa

Hernaniko zilegiak zatitzean egin ziren sailen erostunen zerrenda daukate Urumea ibaiaren ondoan dagoen baserrian, GOIKOIEROLA baserriko Nikolas Agirrek 1937. urtean idatzitakoa[209]. Jabe edo eskubidedun ziren baserrien izenak baizik ez ditu adierazten, sailak zenbaki bitartez zerrendatzen dira eta.

4.2.2. Kartografia

Inprimatu gabeko eta inprimatutako mapak begiratu ostean, guztien artetik hogeita bost sartu ditugu corpusean, askotariko garai, eskala eta jatorritakoak[210].

Mapa zaharrena 1773. urtekoa da eta berriena, ordea, 1996koa. Eskalak 1: 2.000 eta 1: 200.000 bitartean daude, eta metroaz gainera, legoa, oin eta makilak erabiltzen dira, azken neurri horiek karta zaharrenetan. Teknikari erreparatuz gero, eskuz marraztutakoen ondoan, badaude hegaldi fotogrametriko bidez eginikoak. Egileek hainbat ogibide eta jatorri dituzte (soldadu, administrazio-gizon, arkitekto nahiz adituak) eta, horien artean, Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako adituak daude.

Erabilitako mapak, oro har, bitan bana daitezke. Batetik Gipuzkoa probintzia edo Iberiar Penintsulako iparraldea harrapatzen dutenak daude, hau da, gure esparrua lurralde zabalago baten barruan txertatuta dutenak. Bestetik, saroi, jabetza edo aurkintzaren bati adierazteko marrazturikoak daude, alegia, Urumeako zilegimendietako zatiren bat besterik harrapatzen ez dutenak. Salbuespen bakarra Urumeako

[209] Hernaniri zegozkion bi zatiei ZILLEGITTIKIA eta ZILLEGIAUNDIA deitzen zitzaien.
[210] Gehienetan originalak erabili ditugu lanerako, eta bestela xerokopiak.

zilegimendiak *ex professo* irudikatzeko 1773. urtean egindako bi mapak dira (ikus I.2.3.1.§).

Hitz bitan, kartografia historikoan[211] buruturiko bilketaren emaitza ez da oparoa izan, kalitate aldetik batez ere. Bi arrazoi daude; lehena, toponimia-kartografia bikotearen harreman berezia da, jakina denez, kartografia egiterakoan toponimiari ez baitzaio arretarik eskaini, eta ez zaio eskaintzen oraindik ere sarritan. Bigarren arrazoia euskaldunok, hein batean, oraintsu arte geuk egindako kartografia ez izatea da.

4.2.3. Bibliografia

Urumeako zilegimendiak bere osotasunean aztertzen dituen iturri gutxi dagoenez, lan orokor nahiz zatikakoen hustuketara bideratu dugu bibliografiaren alorrean egindako bilketa, bestela esan, Gipuzkoa osoa edota, aitzitik, gure esparruaren zatiren bat eremutzat duten lanak ikuskatzea beste biderik ez dugu izan eskuarki, kartografiaren alorrean bezala.

Ikertutako lanek hainbat gai eta zabaltasun dituzte. Aurreko mendeetako historia liburu mardulak, artikulu zientifiko laburrak, doktorego tesiak, herriei buruzko monografiak, Erdi Aroko iturrien bildumak, denetatik dago. Begiratutako liburu zaharrena Garibairen *Compendio*-a da (1988 [1628]) eta berriena, berriz, Goikoetxea eta Lekuonaren *Oiartzungo toponimia* (2007).

Berariaz eginak ez diren toponimia bilketen sailean, Isastik (1625 aldera) idatziriko *Compendio Historial de Guipúzcoa*, Larramendiren *Corografía o descripción general de la provincia de Guipúzcoa* (1754), Iztuetaren[212] *Guipuzcoaco provinciaren condaira*

---

[211] *Kartografia historikoa* terminoarekin 1982 arte egindako mapak biltzen ditugu. Urte hartan, kartografia lanetarako Gipuzkoako Foru Aldundiak toponimia izan zezan, leku-izenak biltzen hasi zen Aranzadi Zientzi Elkartea. Ondorioz, neurri batean bederen, Gipuzkoako kartografian gaur dagoen toponimia sasoi hartan jaso zen. Badira bestelako iritziak, dena dela. Esaterako, Gómez Piñeiro eta beste historialari batzuek egindako bilduman 1901 arteko mapak hartzen dira "hiskorikotzat". Ikus *Documentos Cartográficos Históricos de Gipuzkoa*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia. 1994. Hitzak hizpidea ekarrita, diogun *Kartografia*, gaurko zenbaiten ustez, 19. mendearen erdialdean hasi zela, Francisco Coellok 1/50.000 eskalan egindako mapak argitaratzearekin batera (Goikoetxea & Lekuona (2007: 47).

[212] Ikus Elosegik (1974) paraturiko toponimo-zerrenda.

(1847) eta Muxikaren *Geografía* (1916) hustu ditugu, besteak beste. Askotariko gaiak jorratzen dituzten liburuak dira, eta, batzuetan, atal jakinen barruan biltzen dituzte izenak (mendiak, iturriak, burdinolak...). Bazterrik bazter, herririk herri, toponimo kopurua ez da bera, Isastiren lanarekin gertaturikoa lekuko[213]. Iztuetak, nolanahi ere, gure esparruko toponimo sorta ederra biltzen du (berrogei izen), nahiz eta asko eta asko oikonimoak diren. Besterik da idazleon berriemaileak zein ziren edota idatzizko iturrietatik zenbateraino edan zuten jakitea.

Foru Aldundiak 1857-1864. urteen artean burututakoa da Gipuzkoan egin zen berariazko lehen toponimia bilketa[214]. Izendegia dela adierazi arren (*Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa*), geografia alorreko datuak ere ematen ditu. Tradizio idatziko formak hautatzeko joera ikusten da eta, hori dela medio, ahozkotasunaren ezaugarriak ezabaturik daude. Gure esparruko baserri guztien izenak zerrendatzen ditu.

1915ean Campionek "A los vascos de buena voluntad" izeneko artikulua plazaratu zuen toponimiaren bilketa sustatze aldera eta handik urte batzuetara, 1922an, Luis Eleizalde "Lista alfabética de voces toponomásticas vascas" delakoa argitaratzen hasi zen RIEVen. Bilketa 1919an egin zen, udaletxeetara gutuna igorri eta landa eremuko dermioak adierazteko eskatuz. Jakina, erantzuna askotarikoa izan zen, kalitatez eta kopuruz[215]. Eleizaldek “euskal” toponimoak aukeratu ondoren, ortografia-moldaketak egin zituen, hori bai, ahozkotasunaren kalterako, jatorrizko formetara jotzen saiatu baitzen. Ez zuen maparik erabili datuak aurkezteko.

Gure esparruko ingururen bat lantzen duten ikerketen saila Barandiaranek hasi zuen 1926. urtean, Elduain-Hernanietako mugan dauden Burdin Aroko hilobiei Aranokoek *Jentilbâtza de Altxista* nahiz *Etzelako-artxurik* deitzen zietela jaso zuenean[216]. Ataungo ikertzaileak krokis batean kokatu zituen toponimo horiek, beste batzuekin batera.

---

213 Urnieta eta Andoiaini buruzko testuak galdu egin zituzten argitaratu aurretik.

214 1933 eta 1950an jarraipena izan zuen, antza denez. Hala berean, Linazasorok Gipuzkoako baserrien ahozko izenak biltzen dituen *Caseríos de Guipúzcoa* liburua plazaratu zuen 1974an, gure esparrukoak barne.

215 Bilketa haren gorabeherak hobe ezagutzeko ikus Jimeno Jurio (2004: 24-25).

216 Barandiaran (1976 [1926]: 120-121).

Peña Basurtoren 1960ko *Reconstitución y catalogación de los "cromlechs" existentes en Guipúzcoa y sus zonas fronterizas con Navarra* lanean ere gure esparruko zenbait oronimo daude bilduta. Megalitoen izenak mapetan kokatzen ditu egileak, nahiz eta batzuetan okerreko formak izan.

Herriei buruzko monografiak iturri emankorrak dira, kalitatez, aniztasunez eta kopuruz. Aberatsenak, Donostiako Aurrezki Kutxak[217] karrikaraturiko "Pueblos de Guipúzcoa" bilduman Hernani eta Urnietari buruz Murugarren eta Amuategik idatzitakoak dira. Lehenengoak Hernani (1970) eta Urnieta (1974) aztertuz idatzitako bi liburuetan toponimoak aurkitu bezala adierazten dira maizenik, hau da, artxibo erreferentzia eta guzti. Amuategik (1976) egindako lanean, berriz, toponimia ahoz bildutakoa da usaian, tarteka idatzizko erreferentziak ematen baditu ere. Camino Orella (1963) doktoreak Donostiari buruz idatzitako monografian ere gure esparruko zenbait toponimo kausi daitezke, baina, hori bai, aurreko bi lanetan baino gutxiago dira.

Beste ekarpen aipagarria Donostiako Aranzadi Zientziak estreinakoz 1982an plazaraturiko "Carta arqueológica de Guipúzcoa" da. Megalitoak dauden lekuen izenak eta ondoan dauden mendienak adierazten dira, horretarako mapak baliatuz.

Doktorego tesiak ere nahiko iturri oparoak dira. Soria (1982) historialariak egindakoa baliagarri gertatu zaigu esaterako, toponimia den-denean adierazten baitu, artxibo erreferentzia eta guzti. Gehiago badira sail honetan, Díaz de Salazarrek (1983b eta 1997) Gipuzkoako burdinolei buruz egindako ikerlanak kasu[218]. Aintzat hartu beharreko argitalpenak dira, artxiboetan lorturiko aipamen ugariz hornituta daudelako, toponimia den-denean adierazten delako eta artxibo erreferentziak ematen dituztelako. Eragozpen bakarra kronologiaren (16. mendea) eta gaiaren aldetik mugatuak izatean datza.

José María Jimeno Jurio zenak zuzenduta, 1992az geroztik berrogeita hemeretzi liburukitan argia ikusi zuen *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* izan zen Euskal

[217] Orduan *Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián* izena zuen.
[218] Azkenekoa haren alargun M. R. Aierbek karrikaratu zuen.

Herrian toponimia-alorrean eginiko lehen lan sistematiko eta osoa. Berrogeita zazpigarren alea Arano eta Goizuetari dagokie eta, jakina, toponimia ugari dakarte, ahozkoa batez ere, egoki arauturik eta jabetza-mapetan jarrita.

Zazpi urte lehenago Artaxoako ikertzaileak hasi zuen "Onomasticon Vasconiae" bildumaren barruan, Amaia Usabiagak *Andoaingo Toponimia* lana plazaratu zuen 1993an. Ahozko eta idatzizko iturriak hustu eta euskarri kartografikoak erabili ez ezen, Euskaltzaindiaren arautze irizpideak ere aintzat hartzen ditu aldi oro[219]. Horrelako argitalpenak, zoritxarrez, gutxi dira oraindik Gipuzkoan.

1995. urtean Tellabidek argitaratutako *Donostiako Toponimi Errejistroa*[220] eta Goikoetxea eta Lekuonaren 2007ko *Oiartzungo toponimia* ere ikuskatutako liburu jorienen artean daude; jakina, toponimiari eskainitako bakarretakoak dira horiek ere.

Erdi Aroko iturri idatzien bildumek ere leku berezia merezi dute, halako transkribapen-bildumak ikertzaileentzat laguntza bikaina izan ohi direlako. Crespo, Cruz eta Gómezek (1991 eta 1997) Errenteria Udal Artxiboko dokumentazioarekin nahiz Donostiako San Bartolome komentuko agiriekin Larrañaga eta Lemak (1995) osaturikoak dira bi etsenplu on.

Laburbilduz, toponimia gai duten argitalpenak alde batera utzita, bilketa bibliografikoa ez da joria izan iturri bezala, are gehiago ikuskatutako lan kopurua kontuan hartuz gero[221]. Alabaina, lanaren osagarri gisa (gure esparrua hobeki ezagutzeko) bibliografiaren laguntza garrantzitsua izan dela aitortu beharrean gara.

---

219 *Onomasticon Vasconiae* bilduman Eibarko Udalak eta Hego Ibarra Batzordeak (1995) nahiz San Martinek (2000) Eibarko eta Elgetako leku-izenez egindako ikerketak daude, baita Ormaetxeak (1996) Arrasatekoaz, Aranberri Odriozolak (2002) Ermukoaz eta Errazti Igartuak (2005) Zaldibarko toponimiaz idatzirikoak ere.

220 1989. urtean Aranzadi Zientzia Elkarteko Luis del Barriok berarekin egindako *Donostia Udalerriko Toponimia Bilketa* lanaren argitaraldi hobetua da.

221 Gainera, Salaberrik (1999c: 106) azpimarratu moduan, kontuz ibili behar dira euskarazko literatura eta testuak, euskal idazleek erdara izan baitute gehienbat kultur hizkuntza.

4.2.4. Idatzizko iturrien laburpen koadroak

Aipamenen ehunekoa gizaldika



Aipamenen ehunekoa iturriaren arabera[222]



[222] Ar. G. Ik. Lan.: argitaratu gabeko ikerketa lanak.

4.3. Iturrien laburpen koadro orokorra

Oinarrizko formak (izenburu nagusiak[223]) guztira: 1.464

Oinarrizko formak (izenburu nagusiak) guztira Urumeako zilegimendietan[224]: 676 (%46,2)

Oinarrizko formak kilometro koadroko Urumeako zilegimendietan: 17,8

Oinarrizko forma bakoitzeko aipamenak batez beste: 8,7

Toponimoak (izenburuak) guztira: 3.666

Toponimoak (izenburuak) guztira Urumeako zilegimendietan[225]: 1.855 (%50,6)

Toponimoak kilometro koadroko Urumeako zilegimendietan: 48,8

Toponimo bakoitzeko aipamenak batez beste: 3,8

Aipamenen ehunekoa iturriaren arabera



[223] Ikus I.1. atala eranskinean.
[224] *Inguru hurbila* lurraldean (ikus 2.1.) ehunekoa 53,7koa da.
[225] *Inguru hurbila* eremuan ehunekoa 49,3koa da.

5. ARAUTZEA

Gauza jakina da toponimia corpusa osatu, egituratu eta erabilgarri bihurtzeko nahitaezkoa dela artxiboetatik eta berriemaileengandik lortutako informazioa izenburu bakarraren azpian gorde eta ematea. Izenburu hori irizpide batzuk aintzat hartuz erabakitzen da eta eginkizunari *arautzea* izena ematen zaio usuenik[226].

Irizpideak, arau orokorrak edo salbuespenak izan daitezke. Esate baterako, izen generikoak ematerakoan euskaraz orokorrak diren zenbait arau aintzat hartzen diren arren (<h> grafema bai; bustidura ez), izen espezifikoei dagokienean ez dute arau horiek balio, salbuespenak egiten direlako (ebakitzen ez denean <h> grafema ez; bustidura bai). Bitariko jokabideak egotearen arrazoietariko bat toponimoak, berez, izen arrunten eta berezien artean egotean datza, salbuespenak, azken batean, zalantzak konpontzeko bidea baizik ez direlako.

Ondoko lerroetan agerian ipiniko ditugun irizpideek sarritan arautze-arazoak ez dituzte beren zabaltasun guztian argitzen, sakonagoak eta larriagoak diren galdekizunen zati edo alderdi bati emandako erantzun zehatza besterik ez baitira. Gainera, arautzerakoan zalantzak sortu dizkiguten toki-izen guztiak ez ditugu hona ekarri, galdera jakin batzuen erakusgarri direnak baizik[227]. Bestalde, aitortu beharrean gara zenbait toponimo bi edo hiru aldiz hartuko ditugula ahotan. Zergatik? Arautze arazo bat baino gehiago dituztelako eta atal hau auzien arabera antolatu dugulako, eta ez izenen arabera.

---

[226] *Arautzea* eta *normalizatzea* sinonimotzat hartu dira frankotan, nahiz eta beste arlo batzuetan egiten den bereizketa hemen ere egin daitekeen: arauak ematea (arautzea) / arautu toponimoen erabilpen gizartezko egokia (normalizatzea). Auzi horri buruz, ikus Salaberri & Gorrotxategi (1999b: 102) nahiz Gorrotxategi Nieto (2003: 627).

[227] Euskal toponimia txikiaren arautzeari buruzko bi lan hauek bereziki interesgarriak dira: Nafarroako Gobernuaren Argitarapen Fondoak plazaratutako *Nafarroa: Toponimia eta Mapagintza* liburua (Jimeno Jurio [Zuzend.], 1991) eta Gorrotxategi eta Salaberrik *Euskera* aldizkariaren 45. alean (273-314 orr.) karrikaratutako "Toponimia txikia arautzeko irizpideak" artikulua. Beste argitalpen batzuetan ere badatoz arautze-irizpideak, "Onomasticon vasconiae" bildumako liburuetan adibidez.

5.1. Berreskuratzeak

Berreskuratzeak, idazkietan oinarri hartuz, leku-izenaren etorkia garbi izanez gero egin dira, ez bestela. Zenbait etsenplu ekarriko ditugu hona.

Iturburu beretik eratorritako aldaerek, generikoa erantsiz sortutakoek konparaziora, sarritan aldaketa garrantzitsuak dituzte jatorrizko leku-izenaren aldean. Adibidea jar genezake: sorburua KAROBIETA izanagatik (*Carovieta*, 1794-1831, UGR3, 13 au.) eta beste eratorri zaharragoetan *-eta* azalduagatik (*Carovieta burua,* 1831-1845, UGR4, 26 au.), *erreka* generikoa erantsiz, KAROBIETA oronimotik eratorritako zenbait hidrotoponimotan ez dago atzizkiaren arrastorik (*Carobi-erreca*, 1942, UUA10D; *Karobi-erreka* 1969, UUA10N). Ziurtasunik ez dagoenez, alegia, jatorrizko forma, **Karobietaerreka* izan beharrean, *Karobierreka* bera izan daitekeenez, gauzak bere horretan utzi dira eta KAROBIERREKA aukeratu da aldaera araututzat.

Etorkia zein den dokumentazioa bagiratuz baizik ezin daiteke ziur jakin, baina, batzuetan, ahozko tradizioa aztertuz etimoari antzematea badago. Hori horrela delarik, ihartutako toponimo batek ahozko tradizioan automatikoa den aldaketaren bat erakutsiz gero, jatorrizko formara hurbiltzen saiatu gara, itxuraldaketa horiek zuzenduz. *Mushiqueiya* (1932, HUA57, 107 or.) dendronimoaren kasuan, idazkia berria dela eta gure esparruko ahozko tradizioan *-a* + *-di* > **-ai* > *-ei* arrunta dela jakinik, MUXIKADIA hobetsi dugu izenburutako.

Ihartutako izenen grafiak nola irakurri izaten da beste arazoa, egokitzapenak egin behar direnean, irakurketa ezberdinen arabera, gauzak franko alda daitezkeelako. Zenbait aldiz, beste lekukotasunek garbitu digute auzia, baina horrelakorik ez dagoenean idazkunen antzinakotasuna hartu dugu aintzat. Esaterako, *Arquiturri* (1920, HUA57, 888 or.) hidrotoponimoaren *-qui-* multzoa *-ki-* ala *-kui-* irakur daiteke, baina aipamena 20. mendekoa denez, *-qui-* hori egiazki **-kui-* izatea zaila dirudi. Horrela bada, ARKITURRI hautetsi dugu, argitasun gehiagoren faltan. Ildo beretik, *-gui-* multzoa *-gi-* interpretatu dugu, eta URTZEGIL arautu[228] (*Urzeguil*, 1683, HUA28). Berandukoa

[228] Hemen beste arazo bat dago: *Urzegil* ala *Urtzegil*? Gure esparruko euskaran egiten diren neutralizazio eta sandhiak gogoan hartu eta, oraingo honetan, URTZEGIL aukeratu dugu. 5.17.§

den *-gue-* multzoa ere *-ge-* irakurri dugu eta *Iguerdi*-ren (1863, HRU8, 48 bin.) aldaera araututzat IGERDI hobetsi.

Izen espezifikoari generikoa erantsiz sortutako ahozko formek ere, maiz, alde nabarmena izaten dute elkarren artean, esaterako, atzizkiren batekin hornituta egotea edo ez. Jakina dez bezala, horrelako gertakariek *-aga* / *-eta* / *-∅* txandaketarekin izaten dute zerikusia batzuetan (ikus 8.3.2.2.§). Hona adibide bat: SAGARRAKO PARADA aukeratu dugu *Saarrako paraa* ([saárrakò páraà], Amu.) arautzeko, ondoko errekaren izena SAGARRETAKO ERREKA dela ikusita, oinarrian *SAGARRAGAKO PARADA egotea litekeena bada ere.

Idatzizko bermerik ez badago, etimo gardena izanda ere, ez da berreraikuntzarik egin, ahozko tradizioaren ereduak horretarako bide eman arren. Esate baterako, *-saroi* > *-soro* itxuraldatzea ([négusorò], Lor. b.) herri etimologiaren ondorioa da, gure esparruan *saroi* hitzaren esanahia galdua, edo oso ahuldua dagoelako. Alabaina, *negusaroi* izena ezaguna bada ere[229], gurean dokumentatu ez denez, NEGUSORO utzi da. Horrelako lehengoratzeek sortzen duten beste arazoa hitzen aldaera arautuak erabili behar diren ala ez erabakitzea da. URUMEA aldean *sarobe* esaten denez eta espezifikoetan tokian tokiko aldaerak begiratu eta errespetatu behar direla uste dugunez, suertatuko balitz, *NEGUSAROBE hobetsiko genuke.

Era berean, SOOLEXKO HARRIAK aldaera aukeratu dugu *Soolexko arrik* ([soólexkò árrìk], Ezk. b.) arautzeko, aipamen bakarra dagoenez, *SOROLUZEKO HARRIAK edota *SOROLEXKO HARRIAK aldaera bera hautatzea arriskutsuegia delako. Ohar bedi bokalarteko dardarkari ahularen erorketa gure esparruan arrunta dela, eta *Soo-*> SORO- lehengoratzeak funtsik balukeela, azken batean toponimoaren bigarren zatian ezaguna zaigun *-luze* > *-luxe* > *-lux*/ *-lex* itxuraldatzea gertatu dela pentsatzeko arrazoiak badaudela[230].

---

[229] *Udasaroi urgurutzea* (1999, IDM) eta *Negusaroi bazterra* (1999, IDM) ditugu, konparazio batera, Idiazabalen. Bidenabar, *Negusaroi* izenak Asturias aldeko *braña*-ren antonimoa dirudi (< lat. *veranea* 'udako larrea'). Ikus Concepción (1992: 318-324).

[230] Hona hemen MUGARRILUZE oronimoaren txartela: *Mugarriluce* (1797, HUA41), *Mugarri-Luce* (1936, HUA57, 480 or.), *Muarrillure* (1942, IGC1 eta 1981, SGE2), *Muulux* (1989, UUTB); AHOZ. TRAD.: *Muarriluxe* ([muárriluxé], Pard. g. 2 / [muárriluxè], Txil.), *Muelax* ([múeláx], Mik.), *Muelex*

Arestian esan dugunez, etimoaren berri jakiteko bide ematen duen iturri garrantzitsuena dokumentazioa da, baina, halere, antzinakotasun eta kopuruaren arabera, idatzizko lekukotasunek berreskuratze bati begira duten pisua ez da beti orobatekoa izaten[231]. Aipamen osoenak gutxi eta berri samarrak direnean, etorkia argitzeko aski izanagatik, berreskuratzearen bidea hartu ala ez hartu erabakitzea ez da erraza. Zenbait aipatuko ditugu, adibidetako.

Idatziz (1854, LMZ, 165 or.) eta ahoz *Posentarri* / *Pozontarri* / *Posontarri* aldaerak erabili direla kontuan hartuz, gure uste apalean, *Posente-berri-azpia* (1949, UUA17) testigantza ez da aski aldaera araututzat, POSENTARRIren ordez *POSENTEBERRI proposatzeko, 1949ko aldaera herri etimologiaren ondorena izan daitekeelako. Iritzi berari jarraiki gatzaizkio ihartutako LIZARRATXOPEren kasuan, *Lizarrazupe* (1762, GPAH 2662, 218 au.) behin baino ez baitugu aurkitu (*Lizarra Chope-erreca*, 1848, AT, 195 or. / *Lizarrachope*,1848-1850, UTR4, 38 au.; 1860, UINGR2, 7912 zenb.).

Inguruko eta urrutiko erreferentziei esker, batzuetan, sorburuari antzeman lekioke eta, hori gertatu denean, lehengoratzea burutu da. TXERTUDI da diogunaren adibide bat. 18. gizaldian *Chortocua* (1739, VEK2) ageri da, baina gure esparruan bokal arteko *-d-* erortzea (-d-> -∅-) arrunta da, eta Hernaniko *Chertadi*-k (1797-1833, HGR2, 37 au.) ere **Txertudi*-ren aldaera dirudi[232]. Bestalde, uste dugu *Txertogi* ([txértogì], En.) eta *Txerritoki* ([txérritokì], Ollok.) herri etimologiak direla, ez, ordea, *Txertui* ([txértwì], Amu.) eta *Txertudi* ([txérturì], En.). Nolanahi ere dela, urrutiko etsenpluekin tentuz ibiltzen saiatu gara eta, adibidez, Oiartzungo *Ugaldetxo* etxe eta auzoaren iturburua *Ugaldetxe* dela badirudi ere[233], Hernaniko *Ugaldetxo* ([úgaldetxò], K.) oikonimoa UGALDETXO idatzi dugu.

[múelèx], Pard. g. 2). Itxuraldaketa hori ezaguna da gure esparrutik at ere, esaterako, Uritzen (Artzibar) *Alorlux* izeneko tokia dagoelako (1892, *Alorlucea*) eta Espotzen, berriz, *Alorluxe*. Ikus *NTEM-XXXII,* 132 eta 67.

[231] Oiartzunen, Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 45), irizpidetako, aldaera araututzat aukeratu behar dena 19. gizaldia arte idatzizko tradizioan azaltzen den ala ez hartzen dute kontuan.

[232] Mitxelenak (*AV*, 185) *Chaurtudi* eta *Chertudi* formak biltzen ditu. Cf. Debako *Txertudibekoa*, *Txertudierdikoa* eta *Txertudigoikoa* baserriak (1999, DBM).

[233] *Ugaldeche* jasotzen dute 15. eta 18. gizaldiko idatzietan Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 303).

5.2. Tokian tokiko hizkeren ezaugarriak

Hizkera ezaugarriak gordetzen saiatu gara, baina automatikoak diren aldaketak ez ditugu errespetatu. Zernahi gisaz, eta asko ez badira ere, ihartutako toponimoekin salbuespenak egin ditugu.

Lehenik eta behin, idatziz baizik ageri ez den toponimo batek *-o* > *-a* irekitzea lekuko diren eta ez diren aldaerak baditu, lekukotasunen antzinakotasuna eta maiztasuna hartu dira kontuan zein hautatu erabakitzerakoan[234]. OLLAKINDEGI toponimoarekin hasiko gara. *Ollaquindegui* (1847-1848, HTR3, 8 au.) eta *Olloquindegui*-ren (1926, HUA57, 107 or.) artean lehenengoa aukeratu dugu, hots, *-o* > *-a* irekitzea erakusten duena, 19. mendearen erdialdekoa delako, bigarrena 20. mendekoa den bitartean.

Aldez aurretik jakina daukagu izen espezifikoaren lehen osagaia *-o* bokalaz amaitzean (*hosto-*, *pago-*), eratorpen eta elkarketan, *-o* > *-a* irekitzearen lekuko diren aldaerak kausitzen direla. Aipamenen antzinakotasunak eta ugaritasunak hala gomendatuz gero, bokal irekia duen aldaera hobetsi da (OSTAZURIETA, PAGALUZE), baina gure iturrietan aurkitutakoa aho batekoa ez denean, zein aldaera hautatu erabakitzea ez dago hain garbi.

Loturazko bokalari doakionez, testigantza zaharrenetan haren arrastorik egon ez arren, gerta daiteke idatzizko tradizioan bokala duten aldaerak nagusi izatea. Hori agitzen denean, izenaren historia bere osoan hartzen da kontuan. Hor dugu, estaerako, EPELA. Deklinatutako formetan (eta konposatuetan) *e* bokala nagusitzen da 19. mendetik honantz[235], baina, halere, iharturiko *Epelaco Saroecayçavera* (1467, HUA5) EPELAKO SAROEKAITZABERA izenburupean eman dugu, garai hartako beste idatzizko testigantzarik ez dago eta.

Besterik da *Epele* (eta *Epelea*) bezalako aldaeraren auzia. Izenburu nagusitzat EPELA hautetsi dugun arren, deklinatutako formen kasuan egin moduan, EPELEALDE hobetsi da *Epelealde* [epélealdè] arautzeko, besteak beste, postposizioak eranstean

[234] Cf. Gorrotxategi & Salaberri (2000) 1.3.9.§
[235] 18. menderako azaltzen da (*Epeleco sarnecaizabera* [sic], HUA6).

loturazko bokala nagusitzen delako ahozko tradizioan. Berdin izenondoak eranstean (EPELEBERRI eta EPELETXIKI).

EPELA toponimoa utzi gabe, lehen osagaiaren azken bokala (artikulua) erori egiten da usu postposizioak erantsitakoan, baina ez beti: *Hepelsayesa* (1569, HUA18, 4 bin.) > *Epelzaies*, *Epelsaeza* / *Epelzaeza* (1773, VEK1B). Horrelakoak errespetatu egin ditugu, EPELA + SAI(H)ETS + (A): EPELSAIETSA eta antzekoak onartuz.

Azken bokala ez ezen, postposizioa hartzean, silaba osoa ere gal daiteke. Horren aurrean, sorburuaren silabak ez dira berreskuratu, baina, dena dela, ez dago oso argi auzi honetan nola jokatu behar den. Zalantzak direla eta, *Urtechabal* (1797-1833, HGR2, 47 au.) emateko URTETXABAL hobetsi dugu badaezpada, URTEAGA-rekin lotua dagoela dirudien arren. Izan ere, oso arrunta ez izanagatik, gerta liteke izenondoa edo izena eranstean *-aga* atzizkia galtzea, baita bokal arteko igurzkaria erori eta gero **Urtea*-ren *-a* hori artikulutzat hartu izatea ere.

Ildo horretatik, lehen osagaiak *-a* itsatsia duenean, elkarketan, bokal hori duten eta ez duten aldaerak entzun dizkiogu informatzaile berari. Adibidez, nahiz eta *-a* itsatsia izan, *Gaztañamunttua* / *Gaztainmunttua* ([gáztañamúnttuá] / [gáztaɲmunttuà], Aparr.) bikotea arautzeko ahoz errotzat *Gaztain-* erabiltzen dela izan dugu gogoan (GAZTAINXARKO HARKAITZA). Hori ere zalantzazkoa da, ezaguna baita euskaraz bi silabaz goitiko izenek azken bokala galtzen dutela, bokal hori zein ere baita. Hortaz, *Gaztainmunttoa* hautatu badugu ere, *Gaztañamunttoa* ere ontzat har liteke[236].

Bizirik dirauten zenbait toponimori begiratuz gero, berriemaileek, elkargunean, kasu markaren aurrean, bokal ezberdinak dituzten aldaerak darabiltzate. Hautua egiterakoan bakoitzaren hedadura, maiztasuna eta gure esparruko beste toki-izen batzuetan gertatutakoa kontuan izan dugu[237]. ATXURRO oronimoari dagokionez,

[236] Bustidura ez zen automatikoa eta, ikusten den bezala, errespetatu egin dugu hemen.

[237] Hauxe da Astigarraga eta Hernaniren arteko mugan dagoen ATXURROren fitxa: *Alchurru* (1797-1833, HGR2, 72 au.), *Alchurru* (1831, DUA2), *Achurre* (1920, HUA57, 633 or.); AHOZ. TRAD.: *Atxurro* ([átxurrò], K.).

erabakia ez da samurra, *Atxurro* asimilazioz sortu bide delako (**Atxurruko* > *Atxurroko*) eta *Atxurreko*, ostera, analogiaz. Hori horrela delarik, ATXURRO aukeratu da.

Achurruerreca (1780, HUA39); *Alchurru* (1847, JII, 34 or.); AHOZ. TRAD.: *Atxurro* ([átxurrò], Aparr.); *Atxurmalda* ([átxurmaldá], Aparr.) / *Atxurrumalda* ([átxúrrumaldà], Aparr.); *Atxurroko bizkarra* ([átxúrrokò bízkarrà], Aparr.); *Atxurreko egiya* ([atxúrrekò égiyá], Aparr.).

Bokalez amaitzen den izen espezifikoari leku genitiboa eranstean *-n-* sudurkaria txertatu da elkargunean gure esparruko bi toponimotan (*-bokala-* + *-go* > *-bokala-* + *-n-* + *-go*). Gertakizun hori, damurik, ezin izan dugu berretsi dokumentazioan; *Markesango egiya* [márkesangò égiyà] (K.) / *Markesan egiya* (1989, HUTB) eta *Larratxuingo borda* / *Larratxuin borda* (1989, HUTB) dira lekukotasun bakarrak. Gurean, sudurkari horrek jabego genitiboarekin du zerikusia, hondarkia oinarri eta kokapen bereko izenetan eransten da eta. Hori horrela delarik, MARKESANGO HEGIA, LARRATXURINGO BORDA eta antzeko aldaerak hobetsi dira eta *MARKESAKO HEGIA, *LARRATXURIKO BORDA bezalakoak baztertu.

Bestetik, albokari ondoren leku genitiboaren hondarkitzat *-ko* erabiltzen denean, *Paotxalko borda* ([paótxalkò bórdà], Mari. 2) lekuko aldaera hori gorde egin da. Beraz, PAGOTXABALKO BORDA eta PAGOTXABALKO ERREKA onartu dira[238].

Ahozko tradizioarekin jarraituz, *-legi* aldaera bere horretan utzi dugu[239]. Hain zuzen, kontsonante erorketak arruntak direla aintzat hartu dugu (*-legi* > *-lei*), eta PATXIKULEGI zein ARTZEALEGI hobetsi dira, *Patxikulai* / *Patxikulai* (1989, HUTB) eta antzekoen ordez.

Oinarri berezi samarrak dituzten leku-izenak ere kausitu ditugu. Gardenak direnean tokiko ezaugarriak gordetzen saiatu gara, espezifikoetan behinik behin, baina, aldiz,

[238] Cf. *Baratzailko ataka*; Gorrotxategi & Salaberri (2000: 285).

[239] Ahozko tradizioan *-a* / *-o* / *-u* bokalen ondoren garatu dela dirudi (cf. *AV*, 194). Edonola ere, ikus PAGALEGI leku-izenaren harira egindako iruzkina.

forma asimilatu berriak ez ditugu errespetatu eta, esate baterako, *Mizpereta* ([mízperetà], Txab. 1) ahozkoa MIZPIRETA arautu da, gure esparruan *mizpira* esaten delako. Gainera, Hernanin *Mizpiracocelay* (1797-1833, HGR2, 43 au.) irakurtzen da 18. mendearen amaieran, eta gure esparruan badira *Mizpirako kaskua* (1989, UUTB), *Mizpiradi* (1989, HUTB) toponimoak ere[240].

Lorbiregiya (1989, OM) bezalako izen espezifikoetan *-d- > -r-* aldaketa ez dugu errespetatu, automatikoa delako. Hortaz, inolako idazkirik ez dagoen arren, inguruko toponimian gertaturikoa ikusita[241], LORBIREGIAren ordez, LORBIDEGIA arautu dugu.

Leku genitiboa dutenen artean *-rko* eta *-rreko* bukaerak aurkitzen ditugu, *Olazarko zubiya* [ólazarkò zúbiyà] (K.) / *Olazarreko portillua* [ólazarrekò pórtilluà] (Bezk. eta Pag.) kasu. Horrelakoetan, loturazko bokala dutenen alde egin da, eta OLAZARREKO ZUBIA, OLAZARREKO ERRIBERA, OLAZARREKO PORTILUA hobetsi dira.

Bestalde, jakina da jatorriz arruntak ziren izen asko berezi bihurtu direla toponimian eta, ondorioz, haiek deklinatzeko modua ere aldatu dela. Esaterako, absolutiboan *Arana* dena gero *Aranean*, *Araneko*, *Aranetik* deklinatu izan da, nahiz geroago izen horiek zeharo bereizi eta deklinabidea aldatu ahal izan duten, *Aranan*, *Aranako* eta *Aranatik* bilakatuz. Alabaina, bada oraindik bide zaharrari jarraikitzen zaizkion izen batzuk eta, aukeran, horiek hautatu dira.

Batzuetan, ordea, gauzak ez dira hain garbi egoten, *-e* loturazkoa absolutiboan ere ager daitekeelako: *Ostakutse* ([óstakutsè], Altz. eta Lor. b.), *Ostakutz* ([ostákutz], Ezk. b.) / [óstakùtz], Lor. b.), *Ostakus* ([ostákus], Lor. b.). Batetik, leku genitiboaren hondarkia hartu dutenean ez dugu *-e* loturazkoa izan daitekeenaren aztarnarik aurkitu: *Ostakusko borda* ([ostákuskò bórdà] / *Ostakuzko borda* [ostákuzkò bórdà], Ezk. b.). Bestetik, litekeena da lekukotasun batzuetan dagoen hitz amaierako bokal erdiko hori jatorrizko *-e* organiko baten aztarna izatea, alegia, iturburua *OSTAKURUTZE edo

[240] Nafarroan ere jaso dira bi izen horiek: *Mizpirako kaskoa* dugu Beartzunen (*NTEM-LII1*, 236) eta *Mizpiradi* nahiz *Mizperegi* Donezteben (Iñigo, 1996: 135-136).

[241] Oiartzunen ere badago *Lorbidegi* odonimoa, 'lorrak, enborrak garraiatzeko bidea' alegia. Goikoetxea & Lekuona (2007: 221).

antzekoren bat izatea. Ez da aise erabakitzea. Aurren-aurrena garbi egon behar luke izenak *-tz* behar duen ala *-ts*. Lekukoei erreparatuz gero badirudi *-ts*-ren alde egin beharra dagoela, berez, gure esparruan errazagoa baita *-ts* > *-tz* gertatzea alderantzizkoa baino. Haatik, Urumeako zilegimendietan MUGATZ + *koa* > [múaskuà] (Amu.) aldaketa ezaguna da. Bukaerako *-ts* hori asimilazio aurrerakoia ere izan liteke (OSTAKU-). Etorkizkoa *-tz* balitz, *kurutze*-rekin lot liteke *gurutze*, baina hala ere ez dago garbi *-e* hori zaharra den ala ez, etimologikoki jatorrizkoa izan arren erori eta gero berreskura baitzitekeen. Guztiaz ere, deklinatzerakoan *-e* azaltzen ez denez eta nominatiboan bokal horrekin amaitutako aldaerak gutxiago direnez, OSTAKUTZ eta OSTAKUZKO BORDA hautetsi ditugu.

Saatse ([saátsè], Arg.) leku-izenaren kasuan, ordea, *-e* hori loturazko bokalaren eraginez garatu dela garbi dago, *Saatseko lepo* ([saátsekò lépó], Arg.) esaten da eta. Horregatik, *-a* duen aldaera aukeratu da, SARATSA alegia, nahiz gero SARATSEKO LEPOA arautu.

Izen espezifikoa + izenondoa + leku genitiboaren hondarkia egitura dutenetara etorriz, *Pardaqui-goicaldicoa* (1951, UUA18) oronimoak ahozko tradizioan ezaguna den aldaketa erakusten du bigarren osagaian, eta, horregatik, ez da gorde. PARDAKIGOIKALDEKOA hobetsi da beraz, gure esparruan *Goiko aldea* > *Goikaldia* (*-ea* > *-ia*) automatikoa delako, behin eredu hori aukeratuta gero beste arazo bat dagoen arren, hain zuzen ere idazterakoan PARDAKI GOIKO ALDEKOA edo PARDAKI GOIKALDEKOA aldaera erabiltzearena[242].

Esan beharrean gara, azkenik, generikoetan, oro har, tokian tokiko hizkeren ezaugarriak ez direla errespetatu. Hala eta guztiz ere, batzuetan (hainbat arrazoirengatik) gorde egin ditugu (Ikus 5.10.§), Adibidez, UNAMUNOKO GALBARIOA sartu dugu, euskararen arau fonologiko zaharrei hobeki egokitzen zaielako eta *galbario* aldaera

[242] Cf. *Araneko xiloaldea*, Gorrotxategi & Salaberri (2000: 288).

Nafarroan oso zabaldua dagoelako[243]. Hitzak hizpidea ekarrita, diogun UNAMUNOKO GALBARIOA eta antzekoak aranoarrek besterik ez dituztela erabiltzen gurean[244].

5.3. Izenondoak

Izenondoak espezifikoari lotuta eta —hizkuntza estandarrean ez bezala— *h*-rik gabe idatzi dira. Guztiak hona ekartzeak luze joko lukeenez, hauek aipa daitezke etsenplutzat: OTSOANEAAUNDI / OTSOANEAAZPIKOA eta ZILLEGIAUNDIA / ZILLEGITTIKIA[245]. Bi izenondo dituzten ihartutako oikonimoak ere, *Barcaízteguibengóa-berri* (1857, HUA48, 71 or.) eta antzekoak alegia, hiru zatiak elkartuta dituztela arautu ditugu (BARKAIZTEGIBENGOABERRI).

Izen espezifikoa + *-ko* + *izen generikoa* + *izenondoa* osaera duten toponimoek arazoak sortzen dituzte, eta *Bezkitako presa zarra* (1989, UUTB) da horren erakusgarri bat. Batetik, *presazarra* generikotzat har daiteke eta, orduan, *presa zaharra* idatzi beharra dagoela irudi duke. Baina, bestetik, **Bezquitaco presazarrondoa*-ren modukoak kausituz gero nola jokatu? **Bezkitako presa zaharrondoa* eman behar ote? Orduan trakets gelditzen da eta ez hori bakarrik, tartean deklinabide atzizkirik ez badago lotuta eman behar baita (BARINGARATEERMITA oikonimoa, baina SAN SEBASTIAN ERMITA hagiotoponimoa). Horregatik BEZKITAKO PRESA ZAHARRA eta URDANTXULOKO BORDA ZAHARRA arautu dira, hau ere, alabaina, zeharo arazogabea ez dela jakinik.

5.4. Izenlagunak

Guztiok dakigunez, oikonimian, izenlagunak izen espezifikoari erantsita idatzi behar dira (BEKOBARKAIZTEGI) eta horretan ez da arazorik egon, baina *izenlaguna* + *izen generikoa* motako toponimo frankok ere bi osagaiak elkartuta dituzte (*Becoborda*,

---

[243] Gipuzkoan ere jaso da, Zaldibian adibidez, *Galbayo* izeneko etxea aipatzen du Elosegik (1972: 155).

[244] Gure esparruan badira EUNTZINGO GALBARIOA, EUNTZINARRIKO GALBARIOA, GARAGARTZAKO GALBARIOA eta UNAMUNOKO GALBARIOA ere. Salbuespena Hernaniko berriemaile bat da, *Aranoko kalbayua* ([aránokò kálbayuà], Txim.) ematen baitu. Zentzu horretan, diogun Gurutzeak Aranon daudela eta, toponimoak ez duela "zentzurik" aranoarrentzat. Nolanahi ere den, azken kasu horretan ARANOKO KALBARIOA arautu dugu.

[245] Hemen, eta egungo *Zillei ttikiya* ([zíllèi̯ ttíkiyà], Txil.) ikusirik, ZILLEGITTIKIA aukeratu dugu. Idatziz beti *ch*- aurkitzea ulertzekoa da, erdal sistema ortografikoan *tt* emateko grafemarik ez baitago (*Cillegui chiquia*, 1743, HUA30, 568 au.).

(1898, EGZ; [békobordà], K.), hala dokumentazioan nola ahozko tradizioan. Gehiago da, bi osagaiek izen espezifikoa sortu dutela baitirudi usu.

GOIKOEGIA arautu den moduan, BEKOBORDA, ez *BEKO BORDA, hautatu dugu[246]. Gauza bera egin dugu gure esparruko beste BEKOBORDArekin, bizilekua ez dena, eta ahozko tradiziotik bi osagaiak bereiz dituela jaso duguna (*Beko borda* [békò bórdà]). Lehenengo BEKOBORDA oikonimo ezaguna da eta izen horrekin zer eraikuntza izendatzen den badakike edonork gurean. Bigarren BEKOBORDA, aitzitik, ez da ez hain zehatza, BEZKITA baserriaren *Beheko borda* da eta. Baserrikoek bakarrik erabilitako izena da[247].

Atzizkia agertuz gero ere, izan dadin *-eta*, izan dadin *-aga* edo beste zeinahi, lotuta eman dira izenlagunak (GOIKOARKAITZETA). Bukatzeko, *izenlaguna* + *izen espezifikoa* + *-ko* + *izen generikoa* + *izenondoa* osaera duten toponimoak, azken bi osagaiak bereiziz sartu direla esatea baizik ez[248] (GOIKOURRUZUNOKO OLA ZAHARRA eta GOIKOURRUZUNOKO PRESA ZAHARRA).

5.5. Izen errepikatuak

Eskuartean balia ditzakegun datuen arabera, izen errepikatu bakarra dago gurean. **Otsozulo* izeneko tokirik ez dagoenez, eta bildurikoa *Otzozulongo zuloa* (1989, HUTB) baizik ez delako, OTSOZULOKO ZULOA utzi dugu[249], OTSOZULO ere egokia dela jakinaren gainean egon arren.

5.6. <h> grafema

Izen espezifikoetan ez dugu <h> grafema erabili, nahiz eta hizkuntza estandarrean *h*-z idazten diren *haitz*, *haran* eta antzeko terminoez osatuak egon. Arazoa ihartutako formetan dago batik bat, zenbait toponimo, batzuetan *h*-z eta beste batzuetan *h*-rik gabe azaltzen direlako: *Oreerriaga* (1583, HUA21, 2 bin.) / *Horeherriaga* (1583, HUA21, 20

[246] GOIKOETXEA baserrien kasu bera litzateke. Ikus Gorrotxategi & Salaberri (2000: 310).
[247] Hango etxekoandreari entzundako izena.
[248] Ikus 5.3.3.§.
[249] Cf. *Iturrizarreko iturria*, Gorrotxategi & Salaberri (2000: 306).

au.). *H*-a gure esparruko inguru hauetan aspaldian galdu zenez eta grafema hutsa baizik ez zatekeenez gero, ez dugu aldaera arautua sartu: OREERRIAGA. *H*-a ebakitzen den tokietan *h*- hori nahitaez sartu beharra dago, noski, baina ez gurean[250]. Testigantza bakarra duen toponimoa *h*-z hornituta dagoenean ere, *Urhuerrama* (1467, HUA5) kasu, *h* gabe arautu dugu (URUERRAMA), -*h*- horrekin hurrengo *u* hori [*u*] (eta ez [*b*]) irakurri behar zela adierazi nahi baitzen.

5.7. Bokal-elkarketa

Disimilazioarekin zerikusia duten aldaketak, garbi daudenean behinik behin, alde batera utzi ditugu eta, elkartearen lehenengo bokalaren hersketa gertatzean (-*e* + -*eta* > -*ieta*-), ez dugu errespetatu, etorki garbia izanez gero behintzat. Zenbait aipatuko ditugu, etsenplu bezala, gaia azter dezagun.

Lekukotasun bakarra duen *Erlietaco-malda* (1951, UUA18) zootoponimoak bigarren bokalaren hersketa erakusten du, baina ERLEETAKO MALDA hautatu dugu *ERLIETAKO MALDAren ordez, berria izateaz gainera, erroan *erle* dagoela garbia delako. Berdin jokatu da gardena den *Irubidieta* (1942, IGC1) oikonimoarekin ere (IRUBIDEETA).

Erlietako lepua ([érljetakò lépuà], Larr. b.) aurrekoaren kasu bera da eta, ondorioz, idatzizko eraskusgarririk ez badago ere, ERLEETAKO LEPOA sartu dugu. Halaber, MOTZARENERLEETA hautetsi dugu[251] *Motzanerlieta* ([mótzanérljetà]) / *Motzan erlieta* ([mótzàn erliéta], Amu.) formen aldaera araututzat. Bidenabar, informatzailearen arabera, lekuak, *Motza* deitzen zioten artzainak erlategia han zeukalako du izen hori.

Batzuetan, idatzizko iturrietan -*e*- +-*e*- bakuntzaren bilakaera datekeen -*ie*- hiatoa aurkitu arren (*Tolarieta*, 1857, HUA48, 47 or. eta 1937, AB), bokal bakarra ebakitzen da ahozko tradizioan (*Tolareta*, [tólaretà], K.). Horrelakoetan, *TOLARIETA gaitzetsirik, auzia da TOLAREETA (*Tolarieta* ongi dokumentatutik jarrai litekeena) eta TOLARETAren (biziaren) artean zein aukeratu, biak baitira legezko. Arrunki,

[250] HERNANI toponimo nagusia eta haren eratorriak dira salbuespena.
[251] Ikus Gorrotxategi & Salaberri (2000) 1.6.1.11.§.

—artikulua jarri edo ez jarri erabakitzeko garaian bezalatsu— aldaera biziari ematen zaio lehentasuna, baina, halere, aldaera bizi hori tradizio luze beti-bateko baten aurka badoa, gogoeta egitekoa da zein erabaki hartu. Hortaz, TOLAREETA sartzea ere zilegi da. Darabilgun etsenpluan, izenaren historia bere osotasunean errespetatzeko asmoz, TOLAREETA hobetsi da. Gainera, identifikagarritasunaren aldetik ez da eragozpen handirik sortzen.

5.8. Hiatoak

Hitz hasieran hiatoak dituzten formei erreparatzen badiegu garbi ikusten da bi bokalen artean igurzkari ahostuna (*-g-*, *-b-*) garatu dutenak sarritan herskaririk gabeko aldaerak baino zaharragoak direla. Gainera, lehenengo bokala *Y-* grafemaz idatzirik egoten denez, bokal arrunta ala yod dagoen ezin daiteke jakin. Ez bedi ahantz, ahozko tradizioan arrunki yod kausitzen dela hiatoan dauden bi bokalen artean.

Hori horrela delarik, adibidez, 1569rako aurkitu dugun IARTZA hautetsi da. Etimologiari begia eduki behar zaio, baina bestelako faktoreak ere badira, aldaera bakoitzaren antzinatasuna eta maiztasuna, besteak beste:

> *Yarçasasi* (1569, HUA18, 30 au.), *Igarza* (1740, HUA30, 541 au.), *Yarzagaña* (1860-1862, HTR10, 33 au.), *Igarza* (1932, HUA57, 1 or.), *Iyarza* (1933, HUA57, 11 or.); AHOZ. TRAD.: [íyartzagañà] (K.).

Ez dugu berdin jokatu UBARRATU leku-izenarekin, *Uerratua* jatorrizkoa sobera urruti dagoelako (1550, HUA14) eta *-b-*duen aldaera 1610erako erabiltzen delako (HUA25)[252].

Yerdi gaztainadi (1794-1831, UGR3, 17 au.) dendronimoari dagokionez, testigantza bakarra dagoenez gero, gauzak bere horretan utzi dira (IERDIGAZTAINADI).

Jakina, erabaki zuzena hartzeko garrantzizkoa da bertako euskara ezagutzea. IEROLA arautzeko, konparazione, honako gertakariak gogoan izan ditugu:

---

[252] Etorki iluna du; hitz hasiera *U-* (*Ur*) dela bistan dago, baina ez ondoan duena.

○ Gure esparruan *ikatza* > *iketza* moduko asimilazio zenbait gertatzen dira, automatikoak ez badira ere.

○ Era berean, *Igo* > *iyo*-ren moduko bustitzeak ezagunak dira.

Eihera, *eihara*, *igera*-ren eratorria ote den jakiteko izenaren kokapena ikusi ondoren[253], uste dugu egungo aldaera 1797az geroztik irakurtzen den *Iguerola*-ren ondorengoa dela. *Iguerola*, *Ierola* zaharragoaren kume da (1683) eta, egun tarteko *-g-* ebakitzen ez denez gero, jatorrizko irudi duen bigarren hori hautatu dugu. Alabaina, IGORIN toponimoaren fitxa aztertu ondoren, idatzizko eta ahozko tradizioak (oro har) horretan bat datozenez, bokal arteko igurzkari ahostuna duen aldaera hobetsi dugu, zaharrena (1467) eta ugariena izateaz gain, bizirik dirauelako (*Igoain* [igoái̯n] / *Iguain* [iguái̯n], Larra.).

MUGATZ-ren egungo ebakerek, ordea, ez dute igurzkaririk bokal artean: *Muas* ([múaskuà], Amu., *l.g.*), *Muatz* ([múàtz], Ek.), ([múatzà], Pag., *adl.s.*). *Mugatz* formatik atera direteke (*Mugaz*, 1516, 1683, 1773, 1780), eta hau, apika, *Muatz* edo *Muetz* zaharrago batetik (*Muez*, 1178, IKA3). Aldiz, —IEROLA-ren kasuan ikusi dugunaz bestera— igurzkaririk gabeko lekukotasunak salbuespena dira. Guztiarekin, MUGATZ sartu dugu[254].

5.9. Izen espezifikoak eta izen generikoak [255]

5.9.1. Izen espezifikoak deklinabide marka hartu badu toponimoaren osagaiak bereiz idatzi dira.

Izen espezifikoa + *ko* + *izen generikoa* saileko leku-izenei bagagozkie, osagaiak elkartuta dituztela idatzirik daudenean (*Barracocoba*, 1683, HUA28), lehen osagaia espezifikoa dela segurua izanez gero (1554, *cueva de Barra*, EUA2, 122 or.) bereiz eman ditugu, baina bestela lotuta idatzi beharko genituzke.

---

253 IEROLA mendi-mendian dago.

254 Cf. Nafarroako *Muetz* eta *Mues* herri izenak, bigarren hori alderdi erdaldunduan (Berrotzan).

255 Ikus 6.1.§ eta Gorrotxategi & Salaberri (2000) 1.3.§

Zenbait aldiz, lekuzko genitiboaren hondarkiaz gain, marratxoa (eta artikulua bera ere) ikus litezke elkargunean. Horrenbestez, *Portualdecoa-erribera* (1927, HUA57, 156 or.) hidrotoponimoaren *Portualdekoa* eta *erribera* toponimo bana izan daitezke, edo ez. Oraingo honetan, beste lekukotasunik ez dagoenez gero, bere horretan utzi dugu, hau da, PORTUALDEKOA-ERRIBERA sartu dugu, gidoiaren erabileran arazoak izan daitezkeela jakinaren gainean egon arren.

Suelcazucomuga-ri (1773, VEK1A) dagokionez, espezifikoa eta generikoa bereizi egin ditugu, ZUELKEZU oronimoa gure esparruan ezaguna baita (ZUELKEZUKO MUGA). Berdin egin dugu *Oerangopagoac* (1833-1853, DUA2), *Tolarietacoburu* (1924, HUA57, 116 or.) eta *Aguerrico-iturri* (1951, UUA18) izenekin (OARAINGO PAGOAK, TOLAREETAKO BURU eta ADARREKO ITURRI), oinarri diren OARAIN, TOLAREETA eta ADARRA oraindik ere erabiltzen direlako.

Oikonimoen kasuan, ordea, lotuta idazten dira osagaiak, BEKOBORDA eta antzeko besteetan bezala. Dena dela, bada aski berezia den forma bat, *Zumistico-echea* hain zuzen. Lur batzuen izena besterik ez da (1951, *maizal*, *manzanal*... , UUA18), baina jatorria oikonimoan du. Agidanean, GOIKOBARKAIZTEGI baserriari *Zumistiko etxia* deitu izan zaio (1989, UUTB), baina, idazkiei erreparatuz gero, ahotan hartu duguna, baserria edo eraikuntza ez ezik, aurkintza-izena ere bada. Gehiago da: 1951ko lekukotasun guztien artetik batek baizik ez du baserria izendatzen eta gainera, ondotik ZUMIZTIKO ERREKA igarotzen da. Erabakia hartzerakoan oikonimiaren alorrean egindakoa izan dugu gogoan eta, hortaz, balizko ZUMIZTIKOETXEA[256] (baserria) eta ZUMIZTIKO ETXEA (oronimoa) bereizi ditugu, betiere biak ZUMIZTI izeneko eremuaren barruan daudela ahantzi gabe.

Hala idatziz nola ahoz bi osagaiak elkartuta aurkitzen ditugunean, oinarria identifika daitekeenean baizik ez dira bereizi. Ondorioz, *Añoko* zer den ziur ez dakigun arren[257], *Añoco-pagadi* (1925, UUA3 eta 1951, UUA18) bereiz arautu da, hots, AÑOKO

256 Cf. *Errekakoetxea*, Gorrotxategi & Salaberri (2000: 310).

257 Berriemaileari (Oiarbi.) *Añoko pai* ([áñokò pái̯]) *Añango pai* ([áñai̯ngò pái̯]) eta *Añeiko pai* ([áñei̯kò pái̯]) formak jaso genizkion.

PAGADI sartu da, *AÑO / AÑAGAIN toponimoa + *ko* izan daitekeelako zantzua badago eta.

Orobat edutezko genitiboz hornituta azaltzen direnekin, etimoa, hemen bezala, gardena izanez gero, *Txoriyenbasoa* (1989, OM) bezalako leku-izenak bi osagaiak banaturik dituztela eman ditugulako (TXORIEN BASOA), elkartuta idatzirik aurkitu arren.

Bestetik, *izen espezifikoa* + *-ko* + *izen generikoa* + *postposizioa* sailekoak daude, hau da, *Ormazarretaco-borda-aldea* (1925, *helechal*, UUA3) eta antzekoak. Hondarkiaren ondorengo osagaiak espezifikotik aparte eta biak batera idatzirik eman ditugu (ORMAZARRETAKO BORDAALDEA).

Leku genitiboaren bi hondarki dituztenak ere, *Aranoco-Etzelaco-gaña* (1889, HUA53) kasu, hiru osagaiak bereiz dituela izkiriatu dira (ARANOKO ETZELAKO GAINA), nahiz eta letra arruntez —ez letra larriz— idazterakoan arazoren bat egon. Hala berean, *Urdauko goiko tontorra* [úrdaukò góikò tóntorrà], Larra.) eta kidekoak, hiru osagaiak bereiz dituztela arautu ditugu (URDABURUKO GOIKO TONTORRA).

Hiru osagai dituztenekin jarraituz, *izen espezifikoa* + *izenlaguna* + *izen generikoa* egitura duen toponimo bakarra azaldu zaigu, *Besadegui beco-soroa* (1951, UUA18) hain zuzen. BESADEGI baserriaren *beheko partean dagoen soroa* ulertu dugu eta hirugarren osagaia (hondarkiaren ondoren doana) bereiz idatzi dugu, hau da, BESADEGIBEKO SOROA.

Bestetik, ahozko tradizioan oinarritutako bilketetan (Aranzadi, OBIE, etab.) *Malda azpiko erreka* (1989, UUTB) bezalako hainbat forma daude. Bi *-a*-k gordetzeaz landa, jokabidea bakarra bada edo nagusitasuna badu, leku genitiboaren hondarkiaren ezkerretara dauden osagaiak elkartuta eman ditugu (MALDAAZPIKO ERREKA).

Jainkuan egiko erreka (1989 HUTB) toponimoen taldekoak, hots, *izen berezia* + *-ren* + *izen generikoa* + *-ko* + *izen generikoa* egitura dutenak, hiru osagai nagusiak bereiz dituztela sartu dira (JAINKOAREN HEGIKO ERREKA). Hidrotoponimo horren

harian, ohar bedi ezizenak ere egokitu egin ditugula (forma estandarra aukeratu da). Orobat *izen espezifikoa* + *-ko* + *izen generikoa* + *-ko* + *izen generikoa* sailekoekin (ADARREKO ZABALEKO MINTEGIA eta IGORINGO LEPOKO BIDEA) nahiz bi genitibo motak dituztenekin, hots, lekuarena eta jabegoarena (AGINAGAKO ETXOLAREN HARKAITZAK).

Lehen esan dugun bezala, kasu markaren bat egonagatik, ez da beti garbi izaten toponimo baten osagaiak lotuta ala bereiz idatzi behar diren. Bat ekarriko dugu adibidetako, lehen ahotan harturiko *Motzan erlieta* / *Motzanerlieta* ([mótzàn erliéta] / [mótzanérljetà], Amu.) hain zuzen. Horrelakoetan, generikoak *-eta* atzizkia badu, osagai nagusiak lotuta idazten ditugu[258]: MOTZARENERLEETA.

5.9.2. Tartean deklinabide atzizkirik ez dagoenean toponimoaren osagaiak lotuta eman dira.

Jakina den bezala, idazkietan oikonimoei bigarren izen bat eransten zaie maiz aski. *Alcibar Bordaberri* (1900, UEA3) formari doakionez, ALTZIBAR da sorburua eta *Bordaberri* gehikuntza, baina berriemaileek nekez ematen dute erantsitako izen horien berri, administrazioaren beharrek eragindako izendapen eredua dela baitirudi, nahiz eta ahozko tradizioan aleren bat baden. Tartean deklinabide atzizkirik ez badago lotuta eman dira, alegia, ALTZIBARBORDABERRI eta antzekoak hobetsi dira. Horrelakoen aurrean, tokiaren garrantzia eta historia kontuan hartu beharra dago, neurri batean hizkuntzatik kanpo atereaz. Easate baterako, egun BARINGARATEERMITA baserria da (*Baringarateermita*, 1989, OM), baina ermita balitz *BARINGARATE ERMITA aukeratu beharko genuke.

Deitura izan beharrean, oinarrizko sorburuaren ondoren eransten dena beste oikonimo bat izan daiteke: *Egurrola lacha* (1664, L.M., 163 or.); *Egurrola-lacha* (1863, URU, 144 bin.); *Egurola lache* (1900, UEA3). Oraingo honetan, LATXA ez dago EGURROLA aurkintzan, Urumea inguruan dagoen beste etxe (jauregi) bat delako. Gidoia (marra) erabiltzea besterik ez dago: EGURROLA-LATXA, EGURROLA-ESTRADA eta

[258] Cf. *Apezarensoroburueta*, Gorrotxategi & Salaberri (2000: 281).

EGURROLA-LAZKANO. Ildo beretik, EPELA eta AIERDI gure esparruko bi dorretxe ezagun direnez (*Epela ayerdi*, 1863, HRU, 46 bin.), EPELA-AIERDI hobetsi dugu[259].

Bi izen espezifikoz osatutako forma gehiago badaude idazkietan, marratxoz elkartuta (*Polibaso-Pardiola*, 1863, HRU, 47 bin.) nahiz elkartu gabe. Biak oikonimoak badira, marratxoaren alde egin da (POLIBASO-PARDIOLA), baina, *Zubiaro Ercaiztegui*-ren (1833-1845, HGR3, 75 au.) kasuan gertatzen den bezala, bi oronimo badira lotuta eman ditugu beti, marra erabiltzeko aparteko arrazoirik ez dago eta (ZUBIAROERKAIZTEGI[260]).

Jakina, bigarren izena ere generikoa izan daiteke, *Fagollaga fabrica* (1864, *caserio*, HUA47) adibidez. Lantegia zela argi balitz —*erreka*, *zoko* eta bestelako izen erantsiekin egin den bezala— **Fagollaga lantegia* edo sartu beharko litzateke. Baina ez dirudi lantegia zenik, baserri izendegian datorrelako. Besteak beste, bi aukera daude: baserria **Fagollaga lantegia*-ren jabetza izatea edota, bestela, **Fagollaga lantegia* bera baserri bihurtu izatea. Hori guztia batere argi ez dagoenez gero (BARINGARATEERMITA eta antzekoekin egin bezala) lotutako aldaera hautetsi dugu eta, ondorioz, generiko itxura duen bigarren osagaia bere horretan eman dugu (FAGOLLAGAFABRIKA), hots, euskara estandarrera itzuli gabe utzi dugu.

Postposizioak ez ditugu izen generikoak balira bezala arautu, hizkuntza estandarreko hitz arruntzat badauzkagu ere. Ia beti lotuta joaten dira (badira salbuespen batzuk, guztiz ere sortalde-iparraldean) eta horregatik ezin dira jarri generikoen maila berean. Gainera, horien tankera eta mailakotzat hartuz gero hamaika arazo eskuetaratuko litzaizkiguke, <h> grafemak eta bustidurak sortzen dituztenak batik bat. Hurrengo kasuak bereizi ditugu.

Batetik, izen espezifiko bati (EGURROLABORDA, ERROTARAN, IARTZA, IDOIA, TARTATZU, OTSARRAMENDI, URTEAGA) postposizio bat (ALDE, AZPI, ONDO) erantsiz sortzen diren toponimoak daude. Egokitzapenik gabeko aldaera (*-ondoa*, *-azpia*)

[259] Cf. Salaberri (1999b: 118).
[260] Irunen *Erkastegi* baserria dago (1998, IRM).

zaharragoa bada, *-ondua*, *-azpiya* eta abar arautzeko arrazoirik ez dago, are gehiago aldatugabeak antzinakoenak direnean. Adibide bat jar genezake: **Zubaltzeta-azpiya* (1951, UUA18) forma balego, aldaera araututzat ZUATZETAAZPIA beharko genuke hartu eta ez *ZUATZETAAZPIYA, *Zuaceta-azpia* eta antzekoak zaharragoak direlako (1794-1831, 1846-1847). Halaber, *Zubaltzeta-aldia* (1951, UUA18) formaren aldaera arautua ZUATZETAALDEA izatea da egokiena, etorkia garbia delako, nahiz eta hori bermatzen duen izkriburik ez egon.

Behea postposizioari doakionez, itxuraldatuta dagoenean (*-bea*, *-pea*, *-pia*), ez da jatorrizko *-behea* berreskuratu. <H> garfemaren arazoa saihesteaz gain, hori egiteko bide ematen duen oinarririk ez dago idatzizko tradizioan. Ondorioz, goiko etsenpluan ez bezala, egokitzapenik gabeko aldaeraren alde jokatu dugu (*-pea*, *-bea*) eta ARTAMUGARRIBEA sartu.

Izen espezifiko bati GAINA erantsiz sortutakoekin ere antzeko zerbait gertatzen da, *-gaña* erabiltzen baita tradizio idatzian, *Egurrola gaña* (1951, UUA18), *Yarzagaña* (1860-1862, HTR10, 33 au.) eta *Urteagagaña* (1730, HUA35) esaterako. Horrelakoetan *-gaña* errespetatu da (EGURROLAGAÑA, IARTZAGAÑA eta URTEAGAGAÑA), baita *Basagaña* (1776-1794, UGR2, 4 au.) bezalakoetan ere (*izen generikoa* + *gain* + *artikulua*), bustidura bere horretan gordez eta bigarren elementua bere horretan utziz (BASAGAÑA).

-Atze, *-aurre* eta antzeko postposizioak hartu dituzten toponimoen sailean, izen espezifikoaren azken bokala eta postposizioaren aurrenekoa bera direnean, *Aguinagaaspia* (1797-1833, HGR2, 69 au.) edota *Akurrika azpiya* ([ákurrikà ázpiyà], Larr.) konparaziorako, biak idatzi dira (AGINAGAAZPIA eta AKURRIKAAZPIA).

Ildo beretik, sorburua ORMAZARRETA dela ziur dakigunez, eta idatzizko nahiz ahozko tradizioan *Ormazar* azaltzen denez gero, *Ormazar-azpia* eta antzekoak arautzeko bi bide daude, *-eta* atzizkia berreskuratzea eta gauzak bere horretan uztea. Ondoren postposizioa dagoenean (*Ormazar-azpia*, 1951, UUA18), beste galdera sortzen da gainera, bokalak mantendu ala *a* bakarra idatzi, alegia, *ORAMAZARRETAAZPIA eta

*ORAMAZARRETAZPIA artean zein hautatu. Guztiaz ere, *-eta* atzizkia ez berreskuratzea erabaki dugu, eta ORAMAZARRAZPIA hobetsi, horretarako bide ematen duen idatzizko testigantzarik ez baitago.

Loturazko bokalaren eraginez, espezifikoaren azken bokala eta generikoaren lehenengoa bera izan litezke, hau da, bi lekuneetan *e* egon liteke, adibidez. Ahozko tradizioan biek bat egiten dutenean horren alde egin dugu, tradizio idatzian joera bi bokalak gordetzea dela jakinda. Aitortu beharrean gara, dena dela, eskuarki ahozkoaren alde jokatuagatik tradizioak baduela pisua, eta horrelakoak kasuz kasu aztertu ditugula. Zernahi gisaz, eta esan bezala, ahozkoak nagusi izan behar du, nahiz salbuespenak izan daitezkeen. Hona beste lekukorik ez aipatzeko, *Epelerreka* hidrotoponimoaren kasua; dokumentazioa aski berria da, eta ez erabat argia: *Epelerreca* (1797-1833, HGR2, 50 au.), *Epele-erreca* (1842, HUA45) eta *Epele-erreka* (1928, HUA45). Hortaz, ahozko tradizioan bezala, uste dugu EPELERREKA behar duela[261] ([epélerrekà], K.). Bide batez, azal dezagun izen espezifikoa dardarkariz amaitu eta izen generikoa bokalez hasten denean, aldaera arautuak dardarkari azkarrarekin eman ditugula, esan, horrela esaten baitira (EGIEDERRERREKA. Cf. ORMAZARRAZPIA).

5.10. Izen generikoak

Generikoak izen arruntzat hartu dira eta ortografia estandarrez idatzi. Zenbaitetan, halere, tokian tokiko aldaerak errespetatu ditugu[262]. Lehenago jarritako adibidea ipiniko dugu berriz hemen: *galbario* generikoan, hasierako igurzkaria ez da fonetismo huts eta berria, latinetiko maileguetan ikusten den arau fonologiko zaharra baizik, hitz hasierako herskariak ahostuntzeko agintzen duena[263]. Hortaz, EUNTZINARRIKO GALBARIOA aukeratu dugu *Euntzin arriko galbayua* (1989, HUTB) / *Euntzingo arriko galbayua* ([éntzingò árrikò gálbayuà], Ezk. b.) idazteko.

[261] Cf. Arrasateko *Epele* eta *Epelerreka* (1998, ASM) nahiz Irungo *Epeleko erreka* (1998, IRM).

[262] Gai honetaz ikus Gorrotxategi & Salaberri (2000) 1.3.2. §.

[263] Bada oraindik ere bizi zerbait baduelako seinale izan litekeen forma bat gurean, nahiz eta araua hilik dagoela esaten den: *Entzingo galbarioa* ([éntzingò gálbayuà], Ezk. b.); *Unamunoko galbarioa* ([únamunekò gálbayuà] (Ezk. b.) / [únamenekò gálbayuà], Lor. b.).

Gaztelaniatik hartu berriak diren hainbat mailegu baztertu egin ditugu ordea, hizkuntza estandarreko aldaeren mesedetan[264] eta, esaterako, argindarra sortzeko eraikuntzak izendatzeko ahozko tradizioan *zentrala* erabiliagatik[265], *Agoñoko zentrala* ([agóñokò zéntralà], Aparr.) / *Abañoko zentrala* ([abáñokò zéntralà], Aska.) lekuko, *indarretxea* sartu da corpusean (ABAÑOKO INDARRETXEA).

Mañuelen jirabuelta ([máñuelèn jírabueltá], Aparr.) odonimoari bagagozkio gauzak ez dira hain garbiak. Lehenik eta behin, *bihurgune* sar liteke, baina *jirabuelta* ere egokia da, bi osagaiak maileguak badira ere, elkarketa euskarazkoa delako, eta gaztelaniaz ibiltzen ez delako[266]. Azkenean, *jirabuelta* generikoa duen aldaera hobetsi dugu (MAÑUELEN JIRABUELTA), egun jaso duguna hori delako.

Beste arazoa *txabola* ala *etxola* erabiltzearena da. Gure esparruan informatzaile zaharrenek *etxola* ezagutu eta —neurri batean— erabili ere badarabilte, baina *txabola* gailentzen da. Jakina da azalpen etimologiko ugari eman direla *txabola*-ren inguruan eta *etxola* zahar eta euskaldunagoa ordezkatu duela hainbat tokitan, euskara pobretze prozesu batean barrena abiatua baita, aspalditik. Hortaz, *etxola* bizirik dagoenez, nahiz atzenekoetan egon, biziberritu egin dugu, eta *txabola* sasi-euskaldunaren ordainetan *etxola* sartu[267].

Martindeiko iñostorlurra ([mártindei̯kò iñóstolurrá], Arg.) eta antzekoak, ahozko tradizioan arruntak ez diren generikoak alegia, hizkuntza estandarrean eman ditugu. Hemen, hasteko, gure esparruko izena hautatu beharra dago, *garamena*, *garalekua* eta antzekoak alde batera utzirik[268], baina kontua da *iñostorlekua* bere horretan ezin dela arautu. Azkuek (1984 [1905]: 567) *iñestor* ematen du Urnietarako, baina gure esparruan

---

264 Ikus Gorrotxategi & Salaberri (2000) 1.3.7.§.

265 Gure esparrutik landa ere *zentral* franko daude. *Zentrala* biltzen du Iñigok (1996: 155, 330 eta 421) Doneztebe, Ituren nahiz Zubietan (Malerreka) eta Elosegik (1972: 211, 194) ere jasotzen du Arribe eta Betelun (Araiz). Barandiaranek (1928: 11) *Turbiñia* izeneko indarretxea aipatzen du Sasiola eta Astigarribia auzoetako (Mendaro) ikerketa etnografikoan.

266 Cf. Gure esparruko *Altzutako buelta*, *Irakurriko buelta* eta *Lizarrako buelta* (1989, HUTB) nahiz Orioko *Erreruen buelta*, azken hori Usurbilgo mugan (1998, ORM).

267 Ikus Gorrotxategi & Salaberri (2000): 1.3.7.§. Batzuetan, berriemaile berak bi terminoak darabiltza: *Onyoko txabola* ([ónyokò txábolá]) / *Onyoko etxola* ([ónyokò étxolà], Amu.).

268 Badira Nafarroan *iralekua* eta *iralarrea* ere.

iñostor erabiltzen da egun[269] eta ez **iñestor*. Hori ikusita, *iñostor* forma asimilatutzat jo beharko da. Zernahi gisaz, argi dago iturburua *Ira* dela, *-a* -dun aldaera, beraz. Izan ere, *iñestor*-en hastapeneko *i*-k ondoko alegiazko *-a* itxi zezakeen, eta *e* bihurtu. Hori guztiori kontuan edukirik, MARTINDEGIKO INESTORLEKUA hobetsi da.

Minetako portillua (1989, HUTB) odonimoaren aldaera arautuak zein izan behar duen erabakitzea ere ez da aise. *Portillu*-ren aipamen zaharrik ez dago eta zer gertatu den ezin daiteke esan. Nafarroako alderdi zabal batean *portillu* mailegu zahar samarra da (16. menderako ibiltzen zen), generikotzat azaldu ohi dena, nahiz espezifikoetan *atea*, *ataka* eta beste ere agertzen diren. Esan nahi da, *atea*, *ataka* ere ibil daitezkeela, baita Sakana aldean azaltzen den *harratea* ere, baina Nafarroan oro har gertatutakoari begiratuta bederen, estandartzat *portilua* (ez **portilloa* edo **portiloa*) onargarria da. Hortaz MINETAKO PORTILUA hautatu da.

Azkenik, ihartutako toponimo batek erdarakada den generikoa duenean, *Larranchuri-aldaco-garagia* (1951, *helechal*, UUA18) esaterako, eta horren zentzua zein den ziur ez badakigu, ez dugu hizkuntza estandarreko beste batengatik ordezkatu. Ahal izanez gero, hori bai, bokalismo automatikoak ezabatu eta grafia egokitzapenak burutu ditugu, LARRAINTXURIALDEKO GARAJEA sartuz.

5.11. Esaldi toponimoak

Esaldietan iturri duten *Satznamen*-ekin[270] hizkuntza estandarreko beste edozein multzorekin bezala jokatu da, alegia, bereiz eta ortografia arauak errespetatuz eman ditugu. Alabaina, tokiko hizkeraren ezaugarriak gordetzen ere saiatu gara[271] eta, konparazio batera, *Aurra galduzan arriya* ([áu̯rrà galdúzan árriyà] K.) esaldia HAURRA GALDU ZAN HARRIA arautu dugu. Kartografian erabiltzeko aldaera bakarra eman beharra dagoenez, hautua egitea nahitaezkoa da, baina sarrera bana eman zaie corpusean, garbi utziz betiere biek eremu bera izendatzen dutela. Ohar bedi toki bera adierazten duten beste bi testigantzak morfologikoki diferenteak direla (*Aurra*

[269] *Iñostorlekua* ematen duen berriemailea Errenteriakoa da; Nafarroako mugakoa, beraz.
[270] Ikus Salaberrik (2007b) gai horretaz idatziriko artikulua.
[271] Cf. Gorrotxategi & Salaberri (2000: 304-306).

galdutako arriya [áu̯rrà gáldutakò árriyà] Txab. 1; *Aurra jandako arriya* [áu̯rrà jándakò árriyà] Amu.), jakina, guztiak erlatibozko perpausak badira ere.

5.12. Hondarkiak

Instrumentalez eta adlatiboz deklinatutako osagaia dutenak bereiz arautu dira (ITXITUZ KANPOA eta LUBAKIZ KANPO[272]), hau da, leku genitiboaren hondarkia hartu dutenak bezala. Era berean, ITXITUZ BARRENA eta LUBAKIZ BARRENA hautetsi dira, gure esparruan *barru* adlatiboan deklinatzerakoan *barrena* erabiltzen dela kontuan hartu baitugu.

Toponimoa inesiboan edota leku genitiboan dokumentatzen denean, hondarkirik gabeko aldaera hobetsi da. Beraz, hondarkia duen leku-izena azaltzean marka hori gabe idatzi da eta bi osagai nagusiak bereiz eman dira (TOLAREETAKO BURU). Inesiboan dagoenean (*Tolaritacoburun*, 1920, HUA57, 219 or.) egokiena marka kentzea da, baina leku genitiboaren kasuan kontuz ibili behar. Hain zuzen, **Mendikoa* edo **Iturtakoa* tankerakoa denean leku genitiboaren hondarkia ezin da kendu, edutezko zentzua izan baitezake. Gureari doakionez, uste dugu *Tolaritacoburun* bezalakoen hondarkia itzulpenik ezaren edo itzulpen kaskarraren ondorio dela (cf. *Tolarietacoburu*, 1924, HUA57, 116 or.).

Izen espezifikoa leku genitiboaren hondarkiarekin deklinaturik baina segidan generikorik gabe idatzirik ageri denean, *Gorosteguicoa* (1847, JII, 66 or.) konparaziorako, kasu marka gorde egin da (batzuetan aurrerago azaltzen da). Horrela bada, *leku genitiboa* + *mugatzailea* egitura gorde egin da (GOROSTEGIKOA), horren azpian izen ezabatua baitago. Haatik, *Lecaiopera* (1683, HUA28) leku-izena LEKAIOPE idatzi dugu, aurretik "... *y de alli a* ..." duelako ondoan eta, bestetik, hondarkia adlatiboarena delako.

[272] Mailegu berria da. Ikus *FHV*, 360.

5.13. Bustidura

Ezaguna da euskaraz asimilaziozko bustidura eta bustidura adierazkorra ditugula, betiere hots mota berei ezartzen zaizkienak, bata edo bestea gertatzeko baldintzak baitira aldatzen direnak. Ondorioz, bustidura automatikoa denean adierazgarria ezin da izan, eta alderantziz. Datu zehatzik ez dago, baina Mitxelenaren iritziz (1985 [1961]: 200-201) euskarazko asimilazio bustidura bilakabide zaharra dateke.

Asimilazio bustidura agitzen denean osagai bokalikoaren palataltasunak ondorengo kontsonantean irauten du. Hotsa ingurunearen eraginagatik aldatzen da, hau da, katea fonikoaren aurretik edo ondoren daukanagatik. Horrek ez du esan nahi, halere, asimilazioa azaltzeko baldintza fonetikoak aski direnik, beharrezkoak badira ere[273].

Oñederraren (1990: 18) hitzetan, aldakuntza sintagmatikoak automatikotasuna galtzea semantiko bihurtzeko lehen urratsa izan daiteke. Adibidez, *IsC* hots bilkuran bustidura ez da beti gertatzen, hain zuzen ere, nahitaezkoa ez den neurri horretantxe izan daitekeelako adierazkorra. Garbi dago palataltasunaren eta txikitasunaren artean zerikusia badagoela, baina inork ez du lotura egiazkorik aurkitu esanahia eta hori jakitera emateko erabiltzen diren ezaugarri fonetikoen artean.

Hori horrela delarik, testuinguruak eragindako sabaiko afrikatua ez dugu gorde eta, esate baterako, *Purgatoyoko erreka* / *Burgatoyoko erreka* ([púrgátoyokò erreká], Amu. / [burgátoyokò érrekà], Bezk.) nahiz *Tantaizelaya* (1989, OM) emateko PURGATORIOKO ERREKA eta TANTAIZELAIA hobetsi ditugu. Alabaina, idatzizko eta ahozko tradizioetan sabaikaria duen aldaera nagusitu denean (*Ereñoçu*, 1595, HUA10 eta 1833-1845, HGR3, 78 bin.), bustidura errespetatu egin da (EREÑOTZU), estreinako agerraldian busti gabeko forma kausitu arren (*Ereynoçu* / *Ereñoçu* 1467, HUA5). *Marichulo*-ren (1951, *helechal*, UUA18) harira, idatzizko eta ahozko tradizioetan toponimoa betiere busti gabe ageri denean aldaketa hori ez da gorde[274] (MARIZULO).

[273] Mitxelena (1985 [1961]: 195-201).
[274] Cf. Gorrotxategi & Salaberri 1.6.2.2.5. §

Bustidura adierazkorra, esanahi edo ñabardura berezia aditzera ematen duena, errespetatu egin da: GOIKO TXABALA, IDOIAXABALA edota LAZUETAKO TXABAL[275] idatziz. Hitzak hizpidea ekarrita, badirudi gure esparruan *zabala* / *txabala* / *xabala* mailaketa badela, neurri batean bederik. Zoritxarrez, ez dira zuzenean jasotako testigantzak, ahozko tradizioan oinarritutako kartografia modernotik hartutakoak baizik (*Goiko txabala*, 1989, HUTB; *Idoiaxabala*, 1989, OM; *Lazuetako txabal*, 1989, HUTB).

Munttegi-ren kasuan, berriz, ez diogu bustidurari eutsi. Bide batez, zilegi bekigu esatea beste behin zaila dela *-u-* hori gorde behar den erabakitzea. Gurean generiko horren erakusgarriok daude: *Aerreko zabaleko muntteiya* [áerrekò zábalekò múntteị̀yà] (Mari. 2), *Untzoko munttei* [úntzokomúnttèị] / [úntzokò múnttéị] (Arg.) eta *Arloteiko munttei* / *Arlotegiko muntteiya* (1989, HUTB). Nafarroan ere badira horrelakoak, baina ez da garbi ikusten *mintegi*-ra ekarri behar diren. Horretan oinarri harturik, eta *muntegi* aldaera gurean idatziz aurkitu ez dugunez, *mintegi* bere horretan uztea erabaki dugu, ADARREKO ZABALEKO MINTEGIA, ARLOTEGIKO MINTEGIA eta UNTZUEKO MINTEGI hobetsiz.

Azkenik, *Lexo* (1989, HUTB) oikonimoaren bustidura bere horretan utzi dugu (LEXO), zentzu adierazkorra duelako eta, bestetik, lekuko gehiago ez dagoelako.

5.14. Herskariak

Espezifikoetan, tokian tokiko herskariak hobetsi ditugu. Hona hemen adibide bat: ahozko tradizioan ahoskabe jaso bada (*Aizpitarte*, [áị̀zpitartè], K.; 1989, UUTB), irizpide moduan, lehentasuna bizirik dagoen aldaerari eman zaio, nahiz eta inoiz txistukari ondoko herskaria <b> grafemarekin adierazia egon (*Aitzbitarte*, 1847, JII, 35 or.). Zernahi gisa, tradizioa ere (aspaldikotasuna, maiztasuna...) aintzat hartu beharrekoa da eta aurrekoan herskari ahoskabearen alde egin badugu ere, *Larrazburu* (1870, HUA49; 1898, EGZ) oikonimoa arautzeko ahoskabea duen LARRASBURU[276] hobetsi dugu, *Larrazpuru* (1995, DTE, 133 or.) ahozkoaren kalterako.

[275] Gurean *zabala* generikoa duen leku-izen franko dago; ADARREKO ZABALA da horietako bat.
[276] Ikus LARRATS.

Generikoetan, berriz, hizkuntza estandarreko herskariak dituzten aldaerak aukeratu ditugu, baina, oro har hizkuntza batuko arauei lotu arren, tarteka salbuespena egin da, azpimarratzea merezi duen euskal fonologiaren edo halako hizkeraren ezaugarri interesgarriren bat dagoenean batez ere. Ikus *galbario* generikoaz esandakoa (5.2., 5.10. eta 6.3.4.§)

5.15. Itxuratxarturiko toponimoak

Kartografian itxurarik gabeko izen mordoa topatu dugu, lan modernoetan bereziki. Forma horiek iturri bereko argitalpen guztietan errepikatu egiten dira gainera, militarren mapetan kasu.

Batzuetan, toki-izenon etorkiari antzeman dakioke, baina beste batzuetan ez da ikusten izena nondik sortua den. Bestelako euskarririk ez badago, bere horretantxe utzi dira horrelakoak corpusean; argibideren bat egonez gero, ordea, grafia interpretazioak eta egokitzapenak egin dira. Etsenplu bat jar genezake diogunaren lekuko. Ziurrenik *Mugari**l**acogaña* (1942, IGC1 eta 1953, IGC2) desitxuratua **Mugarri(e)**t**akogaña* jatorrizkoaren transkripzio okerra baizik ez da izango, gisa horretakoak Estatuko kartografian maiz aski ikusten baitira, baina, beste daturik aurkitu ez denez gero, dagoen-dagoenean utzi dugu (MUGARRILAKOGAÑA).

Geografiari esker ere, aldian behin, forma desitxuratuak zein toponimoren oinordekoak diren asma daiteke. Horrelakoetan zuzenketa egin da, kasuak banaka-banaka aztertuz. Aintzat hartu diren hipotesiek beti kartografian dute oinarria, alegia, okerra kausituriko tokian (*Mugaritaco-Chavola*, 1942, IGC1 eta 1953, IGC2), edo inguruan, zein toponimo dauden ikusi eta, horren arabera, bien arteko antzekotasuna aztertzean (MUGARRIETAKO ETXOLA).

5.16. Forma hibridoak

Zenbait oikonimo izen espezifiko euskaldun batez eta segidan doan gaztelaniazko izenondo batez daude osatuta, *Otzoanea-mayor* (1863, HRU, 40 bin.) adibidez. Batzuetan idazkietan bertan edo, bestela, ahozko tradizioan, pareko euskal aldaerak idoro badaitezke ere, ihartutako izenak direnean gauzak ez dira hain argiak,

gaztelaniazko izenondoek euskaraz kideko bat baino gehiago dituztelako (*garaiko* / *goiko*; *beheko* / *azpiko*). Sarrera bana eman zaie, batetik bestera bidaliz, nahiz eta izaki edo eraikuntza bera izendatu. Hortaz, *Otsoanea-mayor* eta **Otsoaneandia* topatuz gero, bakoitzari sarrera bana emango litzaieke, etxe bera izendatzen dutela adieraziz.

Badago beste toponimo hibrido mota bat, gaztelaniazko preposizio batek lotutako bi euskal izen dituena hain zuzen: *Zilegi en Egui-aundi* (1936, HUA57, 98 or.). Oraingo honetan *EGIAUNDIKO ZILEGIA ez da zuzena, berez, EGIAUNDI baitago ZILLEGIAn eta ez alderantziz. ZILLEGI-EGIAUNDI izan da irtenbidea kasu honetan.

Gaztelaniazko generikoek eta euskal espezifikoek osatutako forma hibridoak daude azkenik, *Cantina Mugaz* (1989, HUTB; [kantína múatz] / [kantína muáz], Etxol.) eta antzekoak, alegia. Hona ekarri dugun testigantza taberna baten izena zenez horrela utz daiteke (CANTINA MUGATZ), edo gehienez ere, bigarren osagaia (izen espezifiko euskalduna) araututako formaz onartu. Esan bezala, MUGATZ, CANTINA ere sar daiteke, *Mugatz* leku-izena baita.

5.17. Txistukariak

Hitz bukaeran

Oro har, egungo aldaera hautatu da. Hori horrela delarik, ihartutako toponimo batek hitz amaieran *-z* duenean eta grafia horrek afrikari bizkar-hobietako adieraz dezakeela pentsatzeko arrazoia badagoenean (*-aitz*, *-motz*) *-tz*-rekin arautu dugu. BURRUNDALAITZ (*Burrundalaiz*, 1794-1831, UGR3, 19 au.), EZTEIZAKAITZ (*Esteizacaiz* / *Ezteizacaiz*, 1683, HUA28; *Estizacaiz*, 1797, HUA41 eta 1848, HINGR2, 1213 zenb.), eta PAGADIMOTZ (*Pagadimoz*, 1794-1831, UGR3, 10 au.) dira horren adibide. Izena bizirik badago, afrikariz amaitzen diren izenak leku genitiboaren hondarkiaz deklinatzean, baldintza beretan, igurzkariaren alde egin da, hori delako hizkuntza estandarreko arau nagusia.

Ahozko tradizioan igurzkari bihurtzeko joera nagusitzen da argi eta garbi (*Abillasko zentrala* [abíllaskò zéntralà], K.), baina bada afrikariaz ebakitzen duen berriemaile bat

gurean[277] (*Abillatxko zentrala* [abíllatxkò zéntralà], Txil.). Guztiok dakigunez, leku genitiboa hartzean txistukaria afrikaria ala igurzkaria den jakitea aski zaila da batzuetan, neutralizazioa gertatu delako zantzua dagoenean batez ere. Bi aldaera daudenez gero, igurzkaridunaren alde egin dugu eta, esan bezala, hori baita arau nagusia, ABILLASKO INDARRETXEA sartu dugu[278].

Hitz barruan

Izenak gardenak ez badira, edo behar adinako idazkirik ez badago, gaurko ahoskera gorde da. Arazoa, ordea, ihartutakoetan dago, hitz barruko txistukari bizkar-hobietakoek *-z-*, *-tz-* *-ç-* eta *-c-* grafiak izaten dituztelako tradizio idatzian. Afrikariak igurzkarietatik bereiztea ezinezkoa denez, ihartutako leku-izenak afrikariz nahiz igurzkari bizkar-hobietakoz arautu dira kasuan kasuan, eta hori erabakitzerako gure esparruan eta oro har euskaraz gertatutakoa izan dugu gogoan.

Yraçurdi (1427, HUA1 eta 1551, HUA15) / *Iracurdi* (1611, HUA24, 113 au.) fitotoponimoarekin has gaitezke. *Iratze* edo *ira* + *-tz(e)* daudela pentsa daiteke, baina IRAZURDI hautetsi dugu, gure esparruan eta euskaraz oro har antzeko kasuetan gertatzen denari erreparatuta, ez dugulako afrikariaren alde egiteko arrazoi berezirik ikusi. Izan ere, bistan da igurzkaria duen aldaera seguruagoa dela[279].

Grafia arazoez dihardugula, ihartutako toponimoen sailean *-s-* grafema kausitzean, *Guisasuri* (1739, HUA36) edota *Illarrain-soco* (1920, HUA57, 651 or.) / *Illarrainsocoa* (1935, HUA57, 138 or.) esaterako, kasuan kasuan, *s* (GISASURI) nahiz *z* irakurri dugu grafema hori (ILLARRAINZOKO). Aurretik jakina daukagu: ez da aise txistukari hori mihi-punta hobietakoa ala bizkar-hobietakoa den asmatzea. Hori bai, informazio gehiago ez dagoenean (*Uncela*, 1683, HUA28) / *Uncola*, 1773, VEK1A) bere horretan eman dugu, bizkar-hobietakoarekin alegia (UNTZELA).

---

[277] Afrikaridun hauek Nafarroan ere ez dira ezezagunak. Cf. *Okarraitzko kaskoa*, Gorrotxategi & Salaberri (2000: 285).

[278] Bizirik afrikaria bakarrik balego (eta gure esparruan ez da horrelakorik gertatzen) haren alde egin beharko genuke, forma arautua *-ts* grafiaz emanez. Ikus ZELTZURRIZKO eta ZELTZURRIZKO ERREKA.

[279] Cf. OTZAMENDILARRE (*Otzamendilarre*, 1857-1860, HTR9, 26 au.).

Bokal ondoren *-zu* grafia badago (*Errazu*, 1831-1845, U.L.4., 23 au.), arrunki *-tzu* sartu dugu (ERRATZU[280]), baina badira salbuespenak, halere (ILLARRAZU[281]). Sudurkari ondoren bizkar-hobietakoa ikusitakoan ere (*Anzola*, 1797, HUA41) afrikariz arautu dugu (ANTZOLA), gure esparruko euskara kontuan hartu baitugu, hots, normalki neutralizazioa egiten dela. *L-* eta *r-* aldamenean ere hori egitea erabaki dugu, eta dokumentazioko *Urzeguil* (1683, HUA28) afrikariz eman dugu (URTZEGIL), sandhietan gure esparruan afrikariaren aldeko joera dagoelako (*bear zian* > *biartzin* [biártzìn]; *ar ezak* > *artzak* [artzák]).

Hortz-hobietako apikariarekin ere hitz barruan gauza bera gertatzen da ihartutakoetan. Eskuarki, *-s-*, *-ss-*, *-ts-* eta *-c-* grafemak izaten dituzte eta, ondorioz, afrikariak igurzkarietatik bereiztea nekeza izaten da, *Osarrain* (1561, HUA17, 11 au.) bera lekuko (OSARRAIN). Gauzak horrela, sudurkari ondoren *s* dagoenean (*Ynsustizaval*, 1732, HUA30, 420 bin.) *ts*-z arautu dugu (INTSUSTIZABAL).

Informatzaileek toponimoa mihi-punta hobietakoaz besterik ebakitzen ez dutenean (*Saratsetako lepua*, 1989, HUTB), ahozko tradizioa hobetsi dugu, SARATSETA alegia, toponimoa txistukari bizkar-hobietakoaz idatzita etorriagatik edo, behintzat, grafia dela eta hori irudituagatik (*Saraceta*, 1769, HUA37). Ildo beretik, ahozko tradizioan *-ts-* eta *-tz-* arteko txandaketa dagoenean, beste behin, gure esparruan —eta oro har euskaraz— gertatutakoa hartu da kontuan. Konparaziora, *Saratze* / *Saratze lepo* (1995, DTE, 173 or.) eta *Saatse* / *Saatseko lepo* ([saátsè] / [saátsekò lépó], Arg.) aldaeren artean, *ts*-ren alde egin dugu, oinarria *sarats-* (sahatsa) delako eta gurean SARATSETAKO LEPOA izeneko lekua badagoelako.

Iturri idatzietan *-s-* zein *-z-* ageri direnean, eta berriemaileek bizkar-hobietakoarekin baizik ebakitzen ez dutenean, bestela esan, idatzizko eta ahozko tradizioak bat ez datozenean, ez erabat behintzat, ahozkoa hartu da aintzakotzat. Horrelakoetan, gainera,

---

[280] Urnietan ere *Erratzu* izeneko ibarra dago.

[281] Hemen, aurrekoan ez bezala, *-tz-* segurua den ez dago argi, *Yllarrazu* (1797-1833, HGR2, 43 au.) baita aztarna bakarra. Horren harira, Ihabarren (Arakilen) *Illarrazu* (1702) eta *Ilarrazuko* borda leku-izenak daude; *NTEM-XIII*, 88. Cf. Gorrotxategi & Salaberri (2000) 1.6.2.2.6. §.

grafia ezberdinen azpian igurzkariak ala afrikariak dauden jakitearen zailtasuna dago. Honatx etsenplu bat:

ALTZUETA

Alsueta (1668, HUA27, 125 au. eta 1728, HUA34), *Alzueta* (1797-1833, HGR2, 39 au. eta 44 au.), *Alsueta* (1843, HUA44), *Alzueta* (1852-1854, H.L.P.6, 16 au. eta 1920, HUA57, 432 or.), *Altzueta* (1962, UTC), *Altzueta* / *Altzuta* (1989, HUTB). AHOZ. TRAD.: [áltzwetà] (K.).

Beste honetan, berriz, *ts* duen aldaera hobetsi dugu, hots, OTSARRAMENDI, zaharrena —ez maizkoena— izateaz gainera, informatzaileek hori baino ematen ez dutelako.

OTSARRAMENDI

Ossarramendi (1611, HUA24, 113 au.), *Ozalamendi* (1739, HUA36), *Ozarramendi* (1797-1833, HGR2, 63 au.), *Otsarramendi* (1845-1846, HTR1, 1 au.), *Otzarramendi* (1797-1833, HGR2, 57 au.;1848-1850, HTR4, 9 au. ; 1936, HUA57, 805 or.). AHOZ. TRAD.: [otsárramendì] (Ek.), [otxárramendì] (Txab. 2).

Hurrengoan, eta bere eratorrietan ere bai, *ts*-dunen alde egin dugu, ahozko tradizioan erabat nagusitzen delako eta tradizio idatzian topatu dugulako.

OTSOANEA / OTSOANEAAUNDI

Ozoanea (1702, HUA29), *Otzuanea* (1797-1833, HGR2, 44 au.; 1911, IM), *Otsoania* (1863, HRU, 42 bin.), *Ochuanea* (1942, IGC1), *Otzuenea* (1983, GFA2); AHOZ. TRAD.: [otsúanià] (K.).

Otsuania-aundi (1843, HUA44), *Otzuania-aundia* (1857, HUA48, 46 or.), *Otzuanea-aundi* (1920, HUA57, 472 or.).

Tradizio idatzian herskari aurrean *-s-* eta *-z-* grafiak daudenean eta berriemaileek, demagun, *z*-rekin ebaki dutenean, orduan ere ahozko tradizioa hartu dugu aintzakotzat.

EZTEIZA

Esteiça (1538, HUA9), *Ezteyça* (1546, HUA11, 35 au.), *Ezteiza* (1797-1833, HGR2, 72 au.), *Estiza* (1797, HUA41; 1920, HUA57, 887 or.), *Esteiza* (1831, DUA2 eta 1911, IM), *Eztiza* (1920, HUA57, 392 or.), *Eztiza* / *Ezteiza* / *Esteiza* (1989, HUTB); AHOZ. TRAD.: [éztizà] (Amu.), [éztizà] (Ek.), [éztei̯zà] (En.), [éztei̯zà] (Larr.).

Zernahi gisa, tradizio idatzian *tz* eta *ts* ikustean (*Otsazulueta*, 1928, JMB3, 268 or. / *Otzazulueta* 1944, GHO1; 1980, IGN1) eta informatzaileei bietara jasotzean (*Otsozulota* [otsózulotà], Berr. z. / *Otzazuluta* [otzázulutà], Id.) etimoa ere kontuan hartu dugu, gardena badu behintzat (OTSAZULOETA).

Tradizio idatzian herskari aurrekoa -*s*- denean eta ahozko tradizioan -*z*- edo -*s*-rekin jaso dugunean, kasuz-kasuz hartu da erabakia. Garbia bada, errestituzioaren alde egin dugu. Hurrengoak erakusgarri batzuk baizik ez dira, sail luzeagoa ere ekar bailiteke. Aurreneko adibidean, bi aldaerak erabiltzen dira ahozko tradizioan, baina -*s*- duenaren alde egin dugu, nahiko idazki zaharretan erabiltzen delako. Bigarrenean, berriz, -*z*- duen aldaera hobetsi dugu, idazkietan azaldu ez arren etimoa argia delako (*zumi(t)z*- + -*ti*). Ikus 5.9.1.§.

OZISPE

Ozispe (1574, LMM, 182 or.; 1989, OM), *Ozizpe* (1995, DTE, 219 or.); *Ozispe erreka* (1989, OM).

ZUMIZTI

Zumisti (1794-1831, UGR3, 17 au. eta 1863, URU, 152 au.).

AHOZ. TRAD.: [zúmistikò érreká] (Ai.); [zúmiztikò érreká] (Ai., Larr. eta Mik.).

5.18. Antzinako eta egungo formen arteko aldea

Zalantzak egonez gero, aspaldikotasuna eta maiztasuna izan dira irizpide nagusiak tradizio idatziko eta oraingo aldaeren artean aukeratzeko orduan. Horrela bada, behin bakarrik kausitu forma batek maiz dokumentatzen denak adinako pisurik ez du izan

erabakiak hartzerakoan: 16. mendean *Barcardaztegui* birritan aurkituagatik, hortik aurrerako izkribuetan *Barcaiztegui* aldaera besterik azaltzen ez denez eta ahozko tradizioan *Barkixtei* ([bárkixtèi̯], K.) eta *Barkaztei* ([bárkaztèi̯], Ai. eta Po.) aldaerak jaso ditugunez, BARKAIZTEGI hobetsi da. Gainera, ziurrenik jatorrizkoa BARKARDAZTEGI bada ere, forma honek, egungo erabiltzaileei begira, leku-izenaren identifikagarritasuna oztopatuko luke.

Idazkietan bertan aldaketa garrantzitsuak ikusten dira testigantza zaharrenen eta berriagoen artean, *Oceriagoca* (1797, HUA41) eta *Orzaica* (1920, HUA57,104 or.) lekuko. Jakina, berrienak dira, gehienetan, egungo ahozko tradiziotik hurbilen daudenak: *Ortzabika* ([ortzabíka], Amu.), *Ortzeika* ([órtzei̯kà], Iz., Txab. 1 eta Txim.), *Ortzaika* [órtzai̯kà] Txim.). Erabakia hartzea ez da erraza, baina hemen identifikagarritasunari eman diogu lehentasuna, eta ORTZAIKA idatzi.

Estreinako agerraldietan hitz hasieran bokal itxia dagoenean, baina gainerako idatzizko aipamenetan (eta ahozko tradizioan) toponimoa betiere bokal erdikoz edo irekiz ageri denean bokal itxia ez da gorde. Hori erabakita, hurrengo galdera da txistukari ondoren bokal etimologikoari eutsi behar zaion ala forma berriari toki egin, hau da, bokal erdikoa mantendu behar den edo bokal irekia duen aldaera erabili[282]. Aurrenekoa hobetsi da, zaharrena izateaz gainera, bizirik dagoelako.

ETZELA

Yçela / *Hiçela* (1597, LMZ, 43 or.), *Ezela* (1683, HUA28), *Ecela* (1773, VEK1A), *Etzala* (1889, HUA54).; AHOZ. TRAD.: [étzalà] (Amu., Ek. eta En.), [étzelà] (En. eta Ezk. b.).

Oraingo honetan, ordea, hitz barruko *e* baten bilakaeraren ondorio datekeen *i* bokala gorde egin dugu, idatzizko eta ahozko tradizioetan ia erabat nagusitzen da eta. Berria dirudi, halere.

[282] Bokal erdikoa dutenak berriemaile nafarrek baizik ez darabiltzate.

ETZIAGO

Eceago (1797, HUA41), *Etzio* (1942, IGC1; 1983, IGN2), *Ezio* / *Etzio* (1989, HUTB). AHOZ. TRAD.: [étzíò] (Amu.).

Kontsonanteen arloan, lekukotasun zaharrenetan hitz hasieran ezpain-horzkaria ikusten denean eta gainerako idatzizko agerraldietan eta ahozko tradizioan kontsonante horren ordez herskari ahoskabea dagoenean (*F- >P-*), bigarrenaren alde egin dugu.

PAGOAGA

Fagoaga (1550, HUA14; 1584, EHA1; 1773, VEK1).

Bagoaga (1773, VEK1B), *Pagoaga* (1773, VEK1; 1843, HUA44; 1911, IM; 1942, IGC1; 1983, IGN2); *Pagua* / *Pabua* (1989, HUTB); AHOZ. TRAD.: [páguà] (K.).

Goikoaren harian, gure esparruko FAGOLLAGA nabarmendu nahi genuke, *Paolla* [páóllà] (K.) usu erabili arren, *Fagollaga* [fagóllagà] aldaerak bizirik dirauelako.

Hainbat lekukotasun ikusita, idatzizko aipamen batzuk (egungo forma bera barne) desitxuratuta daudela pentsatzeko arrazoiak egoten dira sarritan, baina, zoritxarrez, arrunki ez da garbi ikusten jatorrizkoa zein izan daitekeen. Horrelakoetan, idatzizko aldaera horien artean maizenik topaturikoa onartu dugu, edo horrelakorik ez balego, lehenik dokumentatzen dena.

Atzizki eta bukaera ezberdinekin behin baino gehiagotan agitzen dira horrelako arazoak. Adibidez, OLLOKI aukeratu dugu, estreinako idatzizko agerraldian (*Olloqui*, 1625, *herreria*, LMI, 234 or.) eta ahozko tradizioan *-(t)egi* atzizkia gabe azaltzen delako (*Olloki* [óllokiá], Amu., *adl.*; [óllokì], En.; [óllokitxikì], Ollok.), 19. mendeko bibliografian atzizkiarekin etorri arren (*Olloquiegui*, 1847, JII, 67 or.)

Lekuko zaharrenak desitxuratuta daudela pentsatzeko arrazoia dagoenean ere (*Unsacue*, 1554, EUA2, 122 or.), gainerako idatzizko aldaeren artean (*Usascua*, 1898, EGZ; *Usascue*, 1944, GHO2; 1962, UTC) gehien erabiltzen dena hartu dugu

izenburutako (USASKUE[283]) edo, horrelakorik balego, ahozko tradizioko forma (*Usaskue* [usáskwe], Asta.).

Hitz amaierari berriro helduz, gerta liteke leku-izen berak bi aldaera izatea. Idazkien antzinakotasuna, ugaritasuna eta ahozko tradizioan bildurikoa hartu dira aintzat horrelakoetan.

ERROTARAN

Errotaran (1427, HUA1), *Herrotarayn* (1467, HUA5), *Errotaran*[284] (1740, HUA30, 541 au.). AHOZ. TRAD.: [érrotàn békuà] / [érrotàn gói̯kuà] (K.).

Idatzizko aztarnak gutxi direnean zailtasunak areagotu egiten dira, haien eta ahozko lekukotasunen artean alde handia dagoenean bereziki.

MAKUTSOLO

Macurssolaavia (1141-1142, GG, 209 or.), *Macurssola* (1178, IKA3).

AHOZ. TRAD.: [makútsulò] (Ezk. b. eta Lor. b.), [makútsolò] (Lor. b.).

Idaztzizko iturriekin izandako gorabeherekin jarraituz, iharturiko izen batean egun erabiltzen ez den osagaia aurkitzen dugunean, *Aischipiondo* (1628, DUA1) oronimoaren *txipi* konparazio batera, mantendu egiten dugu arautzerakoan, alegia, AIZTXIPIONDO sartzen dugu (ez AIZTXIKIONDO). Haatik, idatzizko testigantza batean ahozko tradizioan (eta idazkietan) ezohiko zerbait bat topatuz gero egungoaren alde jokatu dugu, zaharragoa izan daitekeela pentsatzeko arrazoiak egonagatik. Esaterako, EGIAUNDI aukeratu da *Eguiandia* (1797, HUA41) eta antzekoen izenburutako, hori delako testu gehienetan (*Eguiaundi*, 1920, HUA57, 392 or., *Egui-aundi*, 1936, HUA57, 98 or.) eta ahozko tradizioan erabilitakoa (*Egiaundi* [égiáu̯ndi], Amu. / [égiau̯ndìn], Amu., *in*. / [égiau̯ndì], Txim.), nahiz eta *(h)andi* > *(h)aundi* urratsa ezaguna izan eta hizkera arruntean lehena hobetsi dugun.

---

[283] Segur aski *isats*, *itsas*, *itsats* fitonimo arruntaren aldaera ezpainkaritua izango da hau, gehi *-kue* (ikus MUNISKUE, MERKUE, ...). Cf., esaterako, Zareko *Utsaskieta* eta *Utsaskietarana* (*EAEATB*, 88).

[284] Hona ekarri ez diren arren, 1467. urtekoaz beste guztietan *Errotaran* kausitu dugu.

5.19. Aldaera ezberdinen aukeraketa

Tradizio idatzian izen beraren bi aldaera aurkitu ditugu batzuetan, *Arambegui-azpicoa* (1951, UU5) eta *Aramberri* (1951, *arbolado*; *erial*, *jaral*, UUA18) adibidez, aurrenekoa egun ibiltzen dena edo haren oso antzekoa (*Aranbei* [áranbèi̯], Amu. eta Mari. 2). Dardarkari azkarrak bokal artean, eskuarki, ez direla erortzen aintzakotzat hartu dugu eta, horregatik, bidezkoena ARANBEGI hautatzea iruditu zaigu. Idatziz gehienik erabili den aldaera hobestea da beste aukera.

Batzuetan, damurik, euskal tradizioari begiratzea ez da aski izaten bi aldagaietatik zein aukeratu behar den erabakitzeko, batez ere ihartutako leku-izenak direnean, *Urdanzulocoeta* (1855-1857, UTR8, 46 au.) / *Urdanzalecueta* (1863, *tierra*, URU, 152 au.) kasu. Gerta liteke, toponimo beraren bi aldaera izan beharrean bi izen ezberdin izatea ere, baina zein idazki motatan azaltzen diren kontuan hartuz gero, oraingoan behintzat, ez dirudi hori gertatzen denik. Hala, beste toki batzuetan URDANTZULO bezalako toponimoak badiren arren[285], gure esparruko toponimiaren logika normalari jarraituz, badirudi URDANTZALEKUETA forma URDANTZULOKOETA baino itxurazkoagoa dela. Edonola ere, bigarren hori ematea ere zilegi litzateke (cf. URRUNTZALEKUETA).

Bestalde, 1615, 1763 eta 1857-64 urteetan *Urriolondo* erabiltzen da idazkietan, 1818, 1897 eta 1937an *Urrillondo* eta, azkenik, 1848, 1960 eta 1983an *Urbillondo*; ahozko tradizioan *Urbillondo* [úrbillondò] jaso dugu. Zaharrena lehena dateke (*Urriolondo*) eta hemendik (bustidura eta guzti) hirugarrena atera izango da, hots, *Urbillondo*. Beraz, berandu arte bizirik iraun duela, ongi dokumentatuta dagoela eta *Urrillondo* biziaren antzekoena dela gogoan harturik, URRIOLONDO da hobestekoa.

Beste honetan, tradizio idatzian OLABERRIAGA (1516, 1538, 1550, 1607, 1683) eta OLABERRI (1632, 1683, 1773, 1780, 1831) nagusitzen dira, baina 19 eta 20. mendeetako idazkietan *Olaberrieta* aldaera azaltzen da (1899, UUA2 eta 1920, HUA57, 520 or.), baita, aldian behin, ahozkoan ere ([ólaberritakò érrekà], Ek.). Aldaera hori berria eta

[285] Asiainen (Oltza zendean) *Urdançulo* (1598) biltzen du Jimeno Juriok (1989b: 112) eta Elosegik (1972: 152), berriz, *Urdanzulo* izeneko saroia aipatzen du Aralarren. Halaber, *Urdantzuloeta* jasotzen du Zubietan (Malerrekan) Iñigok (1996: 416).

indar gutxikoa dela dirudi, ahozko tradizioan *Olaberri* [ólaberrì] gailentzen delako. Morfologikoki ezberdinak direnez gero, sarrera bana eman diegu, bakoitzean garbi utziz beste biek toki bera izendatzen dutela.

Aipatu bezala, toponimo beraren idatzizko eta ahozko erakusgarrien artean alde handia egoten da askotan, etimoa gardena izanda ere. Hori horrela delarik, jatorrizko forma izan daitekeena nabarmen itxuraldatu denean hura aukeratzen bada leku-izenaren identifikagarritasuna zalantzan jar daiteke. Gainera, ondare kulturala zaindu eta gordetzea garrantzizkoa da. Zenbait adibide jar genezake.

Hainbat idazkitan (1920, HUA57, 52 or. eta 1936, HUA57, 713 or.) eta ahozko tradizioan *Irubide* forma ageri da, baina noizbait *Irubidieta* erabili dela pentsatzeko arrazoia badago (1942, IGC1; 1953, IGC2; 1981, SGE2); gehiago da: azken hori izango da segur asko sorburua. Azkenean, sarrera bana eman diegu, corpusean batetik bestera igorriz (IRUBIDE / IRUBIDEETA).

Batzuetan, damurik, idatzizko eta ahozko tradizioetako lekukotasunen antzinakotasun eta maiztasunak ez dute izaten bi aldaeren artetik bat aukeratzeko adinako indarrik. Ondoko hau arautzeko, tradizio idatziari erreparatuta ere (*Trinchalecu*, 1951, UUA18; *Trintxalekuta*, 1976, TA, 14 or.), ez da aise erabakia hartzea. *Trintxaleku* ([tríntxalekù], Larr.) nahiz *Trintxalekueta* ([tríntxalekutà], Amu. eta Mari. 2; [tríntxalekúta], Amu.; [trintxálekutá], Mik.) bizirik daudela kontuan hartuta, TRINTXALEKU eta TRINTXALEKUETA aldaerak aukeratu ditugu, *Trenchalecueta* 1794rako azaltzen den arren. Hain zuzen ere, hirurek toki bera izendatuko balute —ez dirudi— komenigarria litzateke *-Ø* / *-eta* aldizkatzea dagoela jakitera ematea hizkuntza ezaugarriak nabarmentzeko tenorean.

Gure esparruko izen ezagunena datekeen *Adarra* / *Adarramendi* aztertzeari lotuko gatzaizkio orain. Lehenik eta behin, diogun berriemaile guztiek *Adarramendi* darabiltela, *-mendi* generikoa erantsita alegia[286], nahiz eta tradizio idatzian *Adarra* kausitzen den (1625, LMI, 230 or.; 1628, DUA1 eta 1833-1835, DUA3). Mendia

[286] *Adarra* ematen dutenek ere *Adarramendi* darabilte.

izanda, ez da harritzeko agirietan usu aurretik gaztelaniazko *monte* duela ikustea (*Monte Adarra* 1881, JOA eta 1898, EGZ). Ildo horretatik, egun, erdaldunek *Adarra* esan ohi dute. Badu beste oinordekoa, *Agerre* hain zuzen ere, aurreneko aldiz 20. mendean aurkitu duguna. Ahozko tradizioan, bestalde, *Aerreko zabala* eta antzeko formak nagusitzen dira.

Corpusean ADARRA sartu dugu, *Aerreko zabala* eratorriak garbi adierazten baitu jatorriz ADARRA eta ADARRAMENDI ezberdinak ziratekeela, hots, dermioa ADARRA zela, eta ADARRAMENDI eta ADARREKO ZABALA izenek aurkintza zabal hori zatitzeko balio zutela, gehiago zehazte aldera. Hala berean, *Aerreko zabala* ADARREKO ZABALA arautu dugu eta *Agerre* berria ez dugu sartu, *Aerreko zabala* interpretazio ustelaren fruitu dela argi dagoelako.

Idatzizko erakuskari bakarra egonda ahozko tradizioan aldaera bat baino gehiago bildu ditugunean, hau da, toponimoak egun forma finkorik ez duenean, kasuz kasu hartu dira erabakiak. Hurrengo honetan, esate batera, sorburua **Sasiko iturri(a)* izan daiteke ([sásikoi̯tturrì], Bezk.), baina forma horren idatzizko lekukotasunik ez dugu topatu (*Zazi´ko-erreka*, 1976, TA, 17 or.). **Sasiko iturri*-k, leku genitiboa galduz, *Sasiturri* emango luke eta, ondoren —iturria dagoen ingurua izendatzeko agian— litekeena da *-eta* atzizkia hartu izatea ([sásitturrità] / [sasítturritakò érrekà], Mari. 2) eta, nolabait esan, hidrotoponimo izatetik oronimo izatera igarotzea. *Sasi*-ren eratorri horiei sarrera bana eman diegu (SASIKO ERREKA, SASIKO ITURRI / SASITURRIETA, SASITURRIETAKO ERREKA), beharra denean alderdi ezberdinak izendatzen dituztela adieraziz.

Aldez aurretik jakina daukagu ahozko tradizioaren erreferentzia baizik ez badago aldaera arautua hautatzerakoan erabakiak kasuan-kasuan hartu behar direla. Esaterako, *Apaizarri* ([ápai̯zarrì], Txab. 1) oronimoaren *Apaizetako erreka* [ápai̯zetako erreka], Txab. 1) aldaera **Apaizarrietako erreka* batetik atera dateke beharbada, disimilazioz, baina sarrera bana eman zaie (APAIZARRI eta APAIZETAKO ERREKA), balekibale. Besterik da eremu bera izendatuko balute kartografian zein sartu behar den ikustea, baina ez da hori agitzen oraingoan.

Hondarkia eta izen generikoa aldakorrak direnean ere, nolabait esan, forma finkorik ez dagoenean (*Asteasuko Kaskoa* / *Asteasuko Lepoa*, 1983, GFA2; / *Astiasun txabala* ([ástiasùn txábalà], Ek., Ezk. b. eta Txim.), bakoitzari sarrera bana eman zaie corpusean (ASTEASUKO KASKOA / ASTEASUKO LEPOA / ASTEASUREN ZABALA). *Asteasu* (gurean) bizirik balego, edo dokumentatua, sartu egingo genuke corpusean, bestela ez (cf. AIAREN BORDA). Nolanahi ere, *Asteasu* hori da guztien oinarria.

Iturria hori bakarrik izanda, ahozko tradizioan toponimo batek aski antzekoak diren bi aldaera dituenean etorki zaharrekoa aukeratu dugu izenburutako. Hori bai, badaezpada ere, aldaera ezberdinei sarrera bana eman zaie. *Gazteluko tontorra* ([gáztelukò tóntorrà], Bentatx.) eta *Gazteleku tontorra* [gáztelekù tóntorrà], Larra.) aldaerek adibidez, gure esparruko toponimiaren logika “arrunta” ez dute urratzen, badirelako DANTZALEKU eta GAZTELULURRA izeneko aurkintzak, baina, toki berari dagozkionez, eta aipamen zaharrik aurkitu ez denez, GAZTELUKO TONTORRA hobetsi dugu izenburutako, bakoitzari sarrera bana emanaz.

Hurrengo honetan, informatzaile berak bi forma ezberdin eman zituen toki bera izendatzeko. Lehenengoa, —nahiz eta tartean leku genitiboa egon— bi osagaiak elkartuta zituela ahoskatu zuen, hots, *Pellakotxoko* ([péllakotxokó], Aparr.), baina bigarrena ez, bi osagaiak bereiz zituela ebaki baitzuen: *Pellango txokua* ([péllangò txókuà], Aparr.). Argitu beharrean gara, berriemailearen aburuz, *pella* gaztelaniaz *perilla* izenarekin ezagutzen den zuhaixka dela. Bestetik, azpimarra dezagun *bokala-* + *-n-* + *-go* batura gure esparruan gehiagotan ere jaso dugula (ikus 5.2.§). Hemen, beste kasuak ere azterturik, jatorrizkoa zein den erabaki behar izan dugu eta aldaera araututzat bakarra eman, PELLAKO TXOKOA alegia.

5.20. Plural-marken eransketa

Euskarazko pluralaren morfema duten formak —marka hori egoki erabilia izanez gero— beren horretan arautu ditugu, bizirik iraun ala ez. Bi adibide: MURRUETAKO ZULOAK ([múrrutakò zúluàk], Arg.) nahiz OARAINGO PAGOAK (*Oerangopagoac*, 1833-1835, DUA3) hobetsi ditugu.

Ildo beretik, tradizio idatzian, gaztelaniazko plural morfema duten aldaerak kausitu ditugu sorburu bereko bi leku-izen edo gehiago adierazteko, *Ozoaneas* (1740, HUA30, 541 au.) eta *Ubarratuas* (1780, HUA39 konparazione. Mapetan, jatorrizko toponimo euskalduna (inolako numero markarik gabe) berreskuratu dugu (OTSOANEAK, UBARRATUAK).

Badira gaztelaniazko pluralaren morfema hartu duten toponimo gehiago. Izan ere, euskal izen askok *-s* hartzen dute idazkietan, euskara galdu eta erdara hedatzearekin batera, berez pluralak ez izanagatik. Plurala dela pentsatzeko arrazoirik ez badago, erdarazko pluralgilea ezabatu egin da. Honatx adibide bat:

ZILLEGI[287]

Cilleguis (1889, HUA56), *Cillegui* (1927, HUA57, 14 or.), *Cilleguis* (1933, HUA57, 34 or.); *Zileguis* (1935, HUA57, 34 or.), *Zillegis* (1936, HUA57, 190 or.), *Zilegis* (1936, HUA57, 811 or.), *Silleris* (1983, IGN2).

5.21. Artikulua[288]

Ahozko tradizioan mugatzailez hornitutako eta mugatzailerik gabeko aldaeren arteko txandaketa dagoenean aurrenekoa hobetsi dugu, baina ahozkoa artikulurik gabe bildu bada azken horren alde egin dugu, nahiz eta idatzizko aldaerek behin bahino gehiagotan artikulua izan.

PARDAKI

Pardaquia (1794-1831, UGR3, 15 au. eta 1831-1845, UGR4, 24 au.), *Pardaqui* (1855, UEA1; 1857, HUA48, 72 or. eta 1944, UUA14), *Pardaki* (1979, UUA20)

AHOZ. TRAD.: [párdakì] (Ai., Mik., Oiarbi.), [pardáki] / [párdakí] (Amu.).

---

[287] Cf. Lezoko *Zillegi* eta *Zillegigoena* (1995, LRM).

[288] Artikuluaren auziaz, ikus Gorrotxategi & Salaberri (2000) 1.3.4. eta 1.5.§.

ELORRIBI

Elorrivia (1740, HUA30, 541 bin.), *Elorribia* (1797-1833, HGR2, 37 au. eta 1843, HUA44), *Elorrábia* (1857, HUA48, 45 or.), *Elorrabi* (1911, IM eta 1937, AB), *Elorrabia* (1920, HUA57, 198 or.). AHOZ. TRAD.: [elórrrabì] (K.).

Idazkietan marka hori inoiz aurkitu ez eta ahozko tradizioan artikulua duten eta ez duten aldaerak badaude artikulurik gabekoa hobetsi dugu. Oraingo etsenplu honetan, artikuluaren erabilpena herri etimologia baten ondorioa izan daiteke, informatzaileek azken zatia (-*suain*) *osin* terminoarekin nahasi dutela irudi baitu.

ILLARRASUAIN

Yllarrasuayn (1516, HUA7), *Ylarrasoyn* (1554, EUA2, 122 or.), *Yllarrasuain* (1607, HUA23; 1683, HUA28; 1773, VEK1), *Yllarrazuain* (1769, HUA37), *Yllarrosain* (1773, VEK1; 1838, DUA5), *Yllarrasen* (1773, VEK1A), *Illarrazuain* (1833-1835, DUA3). AHOZ. TRAD.: [íllaaụsìn] / [íllaụsìñ] / [íllaàn úsiñà] (Aparr.), [illáaụsín] / [íllaụsiñà] (Arg.); [ílláụsingò záalá] / [ílláaụsingò zábalà] (Arg.).

Ihartutako izenen kasuan, joera nagusia edo bakarra denean, artikulua bere horretan mantendu dugu, argibidez GAZTAÑADIA sartuz (*Gastañadia*, 1932, HUA57, 818 or.). Era berean, bakuna dela segurua ez denez, hots, konposatua izatea litekeena denez, *Portualdecoa-erribera* (1927, HUA57, 156 or.) hidrotoponimoan gauzak bere horretan utzi dira eta artikulua gorde da (PORTUALDEKOA-ERRIBERA[289]). *Pardaqui-azpia-ondoa* (1951, *herbal*, *helechal*, *argomal*, UUA18) oronimoari dagokionez, hiru osagai nagusiak elkartuta dituela arautzeaz landa, artikulua mantendu egin dugu, hala hitz barruan nola amaieran (PARDAKIAZPIAONDOA). Badirudi *Pardakiazpia* dela oinarria.

5.22. Hagiotoponimoak[290]

Eranskinik ez dutenean (*Santodomingo* [sántodomingò], Amu.), oro har, euskal grafiaz eta osagaiak bereiz dituztela idatzi dira hagiotoponimoak (SANTO DOMINGO). Erabilerak horretarako bide emanez gero (*Santaengrazi* [santáengrazì] / *Santa Engracia*

[289] Ikus 5.9. § eta 5.27. §

[290] Gai honetaz ikus Salaberri (1999).

[sántà éngracià], Id.), aldian behin, salbuespenak egin dira, eta ez dugu euskarazko aldaera estandarra eman (SANTA ENGRAZIA), gaztelaniazkoa oinarritzat hartu baita[291] (*Santa Engrácia*, 1857, HUA48, 62 or. / *Santa Gracia*, 1898, EGZ; 1928, JMB3, 268 or.; 1942, IGC1; 1944, GHO1).

Halaber, ondoan *ermita* generikoa dutenean, izena eta izana bat datozenean, hagiotoponimoak euskal grafiaz eta osagaiak bereiz idatzi dira (SAN SEBASTIAN ERMITA[292]); ez, ordea, izen geografiko batez lagunduta daudenean (SANTODOMINGOKO ERREKA / SANTODOMINGOKO PAGADIA).

5.23. Ezizenak eta patronimoak

Jakina den bezala, leku-izen franko pertsona izen eta ezizenetan oinarritzen dira, *Joxinixion txabola* ([joxínixiòn txábolà], Amu. eta Mari. 2) eta *Jainkuan egiya* ([jái̯nkuàn égiyà], Amu. eta Txim.) lekuko. Sorburu den izena euskarazko beste edozein pertsona izen bezala arautu da, baina, hori bai, hipokoristikoak eta ezizenak errespetatu egin dira (JOSE INAXIOREN ETXOLA eta JAINKOAREN HEGIA[293]). *Jentillen babesa* [jéntillèn bábesà] (Amu.) toponimoari bagagozkio, *jentil* izen arrunta da eta horregatik ez dugu bustidura gorde (JENTILEN BABESA).

Azkenik, idazkietan *izen berezia* + *izen generikoa* dituzten formak aurkitzean, *Maria Lopez erreca* (1776-1794, UGR2, 3 au.) kasu, aurrekoetan aipatutako irizpide berak ezarri ditugu (MARIALOPEZERREKA[294]). *Monte de Tomas* (1573, HUA19, 7 bin.) bezalakoak, ordea, gaztelaniaren arauez eman ditugu[295] (MONTE DE TOMÁS).

---

[291] Cf. Altsasuko *Santaengrazizulo*, *NTEM-IX*, 56.

[292] JAUN DONOSTI izenaz ere ezagutzen da. Cf. BARINGARATEERMITA.

[293] Cf. Iruritako (Baztango) *Jinko erreka*; *NTEM-LII2*, 160.

[294] Cf. Abaltzisketako *Joxemariarizti* (1997, ABM) edota Hondarribiko *Juanrramoniturria* (Furundarena, 2002: 450). Sánchez González de Herrerok (1985:298), bide batez, *Marilópez* izena biltzen du Trebiñun.

[295] Cf. *Etxarriren partzela*, Gorrotxategi & Salaberri (2000: 281).

5.24. Oikonimoak

Zalantzazko etorkia duten oinarriak bokalez amaitzen direnean, nahi baino gehiagotan *-enea* ala *-nea* dugun ezin daiteke ziur jakin. Horren aurrean, garrantzitsuena oinarria osorik ematea da, hots, gure kultura ondarea gordetzea. Horrez gain, bukaera egokiro emateko, gure esparruko oikonimia bere osotasunean ikusi eta kontuan hartzen saiatu gara[296], kasu askotan, *-enea* bukaeraren ordez, *-nea* nahikoa izan bailiteke.

OTSOANEA

Ozoanea (1702, HUA29), *Otzuanea* (1797-1833, HGR2, 44 au.; 1911, IM), *Otzoanea* (1797-1833, HGR2, 54 au.), *Otsuania* (1843, HUA44), *Otsoania* (1863, HRU, 42 bin.), *Otsuanea* (1864, HUA57). AHOZ. TRAD.: [otsúanià] (K.).

KANPANDUJANEA

Campandugania (1831-1845, UGR4, 26 au.), *Campandojanea* (1941, UUA1OC), *Campandojania* (1951, UUA18).

Ondoko oikonimo honetan arazorik handiena *-oa* / *-ua*-n dago. Tradizio idatzian azaltzen den *-uania* bukaera *-oanea* arautu behar dela irudi duen arren, *-a-* dun aldaerarik ez da azaltzen, baina bai *Bortolu*. Izan ere, *Bertol(o)*, *Bartolo*-rekin zerikusia ba ote duen ez dakigu ziur eta, ondorioz, zuhurrena BORTTOLUANEA[297] sartzea da segur aski (Cf. TXONKOANEA).

BORTTOLUANEA

Bortoluania (1843, HUA44), *Bortolunia* (1863, HRU, 40 au.), *Bortoluanea* (1937, AB), *Bartolonea* (1960, GS). AHOZ. TRAD.: [borttóluanià] (K.), [borttúlanià] (Larr.).

Ahozko tradizioan *-enea* duten etxe-izenek bukaerako *-a* hori, artikulua alegia, galdu egiten dute sarritan (*Txokolatene* [txókolatenè], K.). Desagertutakoa berreskuratu egin da horrelakoetan (TXOKOLATENEA); hori bai, kasuak bakarka ikusi dira eta

[296] Euskal Herriko beste alderdi batzuetan gertaturikoa ere kontuan izan dugu. Ikus, esaterako, Salaberrik (2006) Nafarroako euskal oikonimiaz idatziriko artikulua.

[297] Ikusten den bezala, bizirik dagoen sabaikaria errespetatu da, *-tt-* sartuz.

bakoitzaren historia kontuan hartu da (*Chocolatenia*, 1931, HUA57, 215 or.; *Txokolatenea*, 1983, GFA2). Esan gabe doa, oikonimoak leku edota jabego genitiboan deklinatzerakoan, ahozko tradizioan gertatu bezala (*Txokolateneko malda* [txókolatenekò máldà], Etxol.), bukaerako *-a* hori ezabatu egin dela (TXOKOLATENEKO MALDA).

Hala berean, ezizen eitea duten izen berezietan oinarritutako oikonimoei genitiboa eranstean ([bízkaı̯nekò bórdà], En.), zenbait aldiz, osagai hori desagertu egiten da (*Bizkain borda* [bízkàı̯n bórdà], En.) eta, ondorioz, oinarrizko formak *-enea* zukeen ala ez jakitea zaila bihurtzen da. Gauzak dauden-daudenean utzi dira, alegia, ez da horietan *-(e)nea* berreskuratu. Jakina, bakoitzari sarrera bana eman zaio (BIZKAINEKO BORDA eta BIZKAIREN BORDA).

Duela gutxi asmatutako oikonimoei dagokienez, azkenik, gainerakoekin ez bezala jokatu dugu. Izendatzaileek hautatutako forma bere horretan uzten saiatu gara, askatasuna errespetatzeko asmoz[298].

5.25. Odonimoak

Odonimoak izen generikoa eta espezifikoa bereiz dituztela idatzi dira. Oinarria izen arrunta balitz (*Goenkale*, *Barrenkalea* ...) bi osagarriak lotuta idatz litezke, baina KARDABERAZ KALEA Hernanikoaren kasuan, esan bezala, ez.

5.26. Grafia

Generikoaren hasiera letra xehez zein larriz eman liteke, hau da, *Tximistako Elurzuloa* edo *Tximistako elurzuloa* idaz liteke. Gure ustez, hobe da generikoaren hasiera letra xehez idaztea, hau da, izen arruntak bezala[299], mapetan eta nahasketak egotea zailagoa baita horrela.

---

[298] Cf. *Goizargi*, Gorrotxategi & Salaberri (2000: 310). Gaur egungo etxe eraiki berrien izendabideaz ikus Salaberri (2006: 887-888).

[299] Horrelakotzat hartzen dira, *h*-ak eta sartzeko orduan.

5.27. Erdal jatorriko toponimoak[300]

Erdal jatorriko toponimoen sorburuak exonimoak edo izen mitologikoak izan litezke zenbaitetan, beste herrialde batzuetako lekuen eta izakien izenak, alegia. Sail honetan, izen espezifiko batez (*Jibraltar* 1989 HUTB; *Ercules*, 1797, *cima*, HUA41) edota espezifikoaz eta generikoaz osatutakoak daude (*Mesadeuropa* [mésadeu̯ropà], Ek.). Aurrenekoak euskal grafiara egokitu dira (GIBRALTAR[301], HERKULES), baina espezifikoa eta generikoa dutenak, berriz, gaztelaniazko ortografiaz idatzi dira (MESA DE EUROPA), jatorrizko hizkuntzaren arauak jarraituz alegia.

Oronimo moduan erabiliz gero (*Buenosaires* [bwenósai̯rès], Larr. eta Mik.), exonimoak elkartuta arautu dira (BUENOSAIRES). Ohar bedi, honelakorik balego, postposiziodun edota izenondodun formak arautzea errazten duela estetikoki lotuta idazteak, baina hagiotoponimoetan bezalako prozedura ere onar liteke (*San Pedro* baina *Sanpedrondoa*). Besterik litzateke Argentinako hiriburuaz aritzea, orduan *Buenos Aires* idatzi beharko bailitzateke segur aski. Urnieta, Hernani eta Donostia aldean exonimoak baserri izenetan ikusten dira gehien-gehienetan, baina gure esparruko *Buenos Aires* ez da oikonimoa, oronimoa baizik.

Azkenik, erdaraz eta euskaraz erabilitako leku-izenak daude, erdal jatorria izanda, euskal hiztunek beren hizkuntzara egokitu dituztenak alegia. Ondorioa da aldaera bikoiztasuna dagoela, bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz erabili direla. Izen generiko batean oinarrituak egoten dira maiz horrelakoak. Hemen, euskal aldaeraren alde egin dugu, bi erakusgarri dituztenak (*Puerto*, 1920, HUA57, 54 or. / *Portu*, 1920, HUA57, 812 or.) euskal formaz bakarrik emanez (PORTU), baldin eta jokabide horrek izenaren identifikagarritasuna kinkan jartzen ez badu. Hain zuzen, gaztelaniaz izen arruntak balira ere itzuli egin beharko lirateke, *Puerto*-ren tokian, *Portua* emanez.

[300] Ikus 9.4.§

[301] Iglesias (2000: 237-244).

5.28. Megalitoen izenen arautzea eta normalizazioa[302]

Toponimia eta arkeologia harreman estuak dituzten jakiteak dira. Elkarren arteko eragina, gainera, ez da gaurkoa, ez eta azalekoa ere[303]. Hasieran, arkeologoen toponimiarekiko jakin-mina mitologiarekin lotutako izenen alorrean gauzatu zen batez ere, ezaguna baita leku-izen batzuek aztarnategi arkeologikoak izendatzen dituztela[304]. Geroago, aurkitutako megalitoei "izen zientifikoak" emateko, toponimoak erabiltzea arkeologoen artean hedatzen joan den jokabidea izan da[305]. Zoritxarrez, maiz aski —lan hori beharrezkoak diren irizpideak erabiliz egin ez denez— tokiz kanpokoak diren izenak zabaldu dira arkeologiaren eskutik. Horrelakoetan, damurik, beharrezkoak diren neurriak lehenbailehen hartzen ez badira, arkeologian sorburua duten oker horiek nekez zuzendu ahal izango dira etorkizunean[306].

Gure esparruko etsenplua berrituko dugu ondoren. 1951an ADARREKO ZABALEAN Burdin Aroko hiru hilobi idoro ziren eta, beste askotan bezala, zeuden tokiari ez zegokion toponimo batekin izendatu zituzten, hain zuzen ere *Eteneta* oronimoarekin. Arautzea alde batera utziz, *Eteneta* izeneko leposka megalitoak dauden zabaletik urruti samar dago, baina, ordutik, arkeologia-aldizkari eta mendi-liburuetan *Eteneta* izena erabili da. Arazoa ez da hor bukatzen, okerreko izendapen horren ondorioz, laurogeiko hamarkadaren hasieran burututako megalitoen seinaleztapenean *Eteneta* idatzirik duen mugarri antzekoa ezarri baitzen Burdin Aroko hilobiak dauden tokian bertan. Harrezkero izen bera mantendu da, 1991. eta 2001. urteetan egindako mugarri berriztapenak lekuko. ERRETENETA (*Eteneta*) bere izenaz ezagutzen duen jende gutxi dagoenez eta ADARREKO ZABALEKO JENTILEN KANPOSANTUA izeneko megalitoa dagoen tokia oso entzutetsua denez, orain *Eteneta* gailendu da lepoa izendatzeko eta, hori dela medio, izen jatorra dakitenek okerreko izena erabiltzen dute askotan. Hortaz,

---

302 Monumentu megalitikoez eta toponimiaz gehiago nahi duenak ikus beza, esate baterako, Ugartek (2004) argitaraturiko artikulua.

303 Cf. Trapero (1995:11).

304 Cf. Barandiaran (1975 [1921]: 35) eta (1975b [1924]: 391), baita Terrado (1999: 26) ere.

305 "La mayor parte de los dólmenes carecen de nombre propio. Por eso al realizar en ellos las exploraciones, los hemos designado con nombres de los lugares que ocupan. Hay, sin embargo, algunos conocidos de antiguo con apelativos particulares, los cuales unas veces aluden a creencias y leyendas que andan repartidas por los pueblos, y otras al verdadero destino de estos monumentos", Barandiaran (1973: 145).

306 Seinaleztapenetan oker idatziriko edo ordezkaturiko izenen lasterreko betikotasunaz ikus Galé (2007: 161).

adibide honetan, garbi ikusten da arkeologiaren inguruko ekimenek gure esparruko toponimian izan duten eragina.

Besterik da arkeologiaren laguntzaz onartu eta hedatutako izen generikoen erabilpena, *trikuharri* eta antzekoena hain zuzen[307]. Megalitoak izendatzeko bertako izen generikoak gorde dituen alderdi batean beste inguru edo eskualde batekoak diren izenak erabiltzeak aurrenekoen iraupenean izan dezakeen eraginaz ari gara. Gure iritziz zilegimendietako megalitoen izendapenerako, bertakoa den eta desagertzear dagoen *judumahai* generikoa erabili beharrean, *trikuharri* arrotza hautatzeak aurrenekoaren iraupen eta ezagupenari eragin diezazkiokeen oztopo eta eragozpenak ez dira deus gutxiko arazoa, bistan baita ADARREKO ZABALAren kasuan bezala, arkeologiak jarraitutako bideak eragin zuzena eta kaltegarria izan dezakeela toponimian, azken buruan Kultur Ondarean.

Barandiaranek 20. mendearen bigarren hamarkadaren hasieran Aralarko Neolitiko-Brontze Aroko hilobien euskarazko izen generiko zaharra *trikuharri* izan zitekeela plazaratu zuenetik, termino horren erabilpena jatorrizko esparrutik kanpo hedatzen joan da. *Jentil-harri*[308] eta *jentiletxe* zergatik ez diren hainbeste erabiltzen ez dugu aztertuko hemen. Garbi dagoena da, mendian, megalitoen alboan idatzitakoa *trikuharri* dela[309] eta, haren izatea ziur ezagutu ez arren, Neolitiko-Brontze Aroko hilobiak izendatzeko euskaraz *trikuharri* generikoa erabat nagusitu dela, gardenagoak diren beste izen batzuen kaltetan.

Burdin Aroko hilobiak izendatzeko proposatu diren generikoen erabilera nahasiagoa da oraindik. Bost izen daude gutxienez sail honetan, guztiak esanahi aldetik ezagunak: *baratz*[310], *espil*[311], *jentil baratze*[312], *mairu baratze*[313] eta *harrespil*[314].

---

[307] Ikus 5.28.§.

[308] Sarasola (2005).

[309] Donostiako Aranzadi Zientzi elkarteak megalito bakoitzaren alboan jarritako seinaleetan honakoa irakur daiteke: (Izen zientifikoa)
Trikuharria-Dolmen
Historiaurreko Hilobia-Sepultura Prehistórica
(2000-900 a. C.)

[310] Barandiaran (1978 [1949]: 212) eta (1978b [1952] : 92). *Baratz*-en esanahi eta erabilpenaz ikus autore beraren 1972 lana (55-56) eta *Ortu-santua* terminoarekin duen antzekotasunaz, berriz, 1976 (122) nahiz Etxebarria (1995: 338).

Entzutetsuenak *mairubaratz* eta *harrespil* dira, baina ez dira *trikuharri*-ren hedadurara iritsi. Polimorfismoaz gain, bada aipatzeko besterik *harrespil*-i buruz, *(h)espil* izenaren eratorri hori oso tradizio laburrekoa baita.

Hain ezagunak ez izanagatik, badaude euskaraz megalitoak izendatzeko erabiliriko beste bi termino, *tumulu*[315] eta *zista*[316] hain zuzen. Biak izen teknikoak dira, ahozko tradizioan ezezagunak.

Azkenik, lurrean sartutako harri luzeak izendatzeko *iruinarri*[317], *monolito*[318] eta *zutarri*[319] gailentzen dira. Deigarria da *iruinarri* estandartzat hartu izatea, argitu gabeko esanahia eta, Ezkurra aldean baizik jaso ez denez, hedadura murritza duelako. Zernahi gisaz, ez da gehiegi zabaldu, oraindik *monolito* eta *zutarri* ezagunagoak dira eta. *Jentilarri*, aurrekoak baino zentzu orokorragoa duena, *santsonarri* eta *erroldanarri*-ak izendatzeko ere aukeratu izan da[320].

Hori guztia horrela delarik, gure esparruko megalitoak izendatzeko hautatu beharreko hiztegiaren zuzentasun, jatortasun eta aberastasuna laguntze aldera bi irizpideok jarraitu ditugu:

○ “Izen zientifikoak” arautu egin ditugu, sortu eta zabaldu dituztenek hori ez egiteko aldarrikatzen duten arren. Euren esanetan, egokituko balira sekulako nahastea sortuko litzateke, aldizkari eta argitalpen zientifikoetan horrela ezagutzen direlako, hots, arautu gabe. Leizeak, megalitoak eta megalitotegiak izendatzeko idazten dira eta marratxoarekin elkartutako bi osagai izaten dituzte batzuetan (*Igoin-Akola*, 1982,

---

311 "ESPIL (coto redondo) o CROMLECHS". Barandiaran (1978c [1953]).

312 Sarasola (2005). Cf. *Euskal Hiztegi Modernoa*, (v. *Mairu*) Elhuyar (1994: 753).

313 *Op. cit*. Aranzadi eta Gorosti elkarteek jarritako txartelan “Mairubaratzak-Cromlechs” irakurtzen da.

314 *Op. cit*. Cf. *Gipuzkoako Karta Arkeologikoa*, Altuna et al. (1990: 2).

315 1990ko *Gipuzkoako Karta Arkeologikoa*, Altuna et al. (1990: 2). *Euskal Hiztegi Modernoa*-n ere biltzen da; Elhuyar (1994: 1046). Sarasolak (2005) *hil-muino* ere jasotzen du.

316 *Gipuzkoako Karta Arkeologikoa*, Altuna et al. (1990: 2).

317 *Euskal Hiztegi Modernoa*, Elhuyar (1994: 574).

318 *Gipuzkoako Karta Arkeologikoa*, Altuna et al. (1990: 2). Baita ere Elhuyar (1994: 802).

319 *Ibidem*. Orobat *Euskal Hiztegi Modernoa*-n ere, *iruinarri* terminoarekin batera hemen (*Zutarri*). Elhuyar (1994: 1142). Cf. Goikoetxea eta Leibar (1989).

320 Elhuyar (1994: 604).

estación, CAG191 or.). Horren harira, diogun izena bi toponimoren (bi espezifikoren) batuketaren ondorena denean marra jar dakiokeela, baina ez bestela.

○ Hiztegietan azaltzen direnez gain, ahozko tradizioetan erabilitako izen generikoak ere aintzat hartu behar dira, aurrekoak bezain egokiak izan litezkeelako[321]. Gehiago da: megalitoei izenak jartzerakoan tokian tokiko eta inguruan inguruko generikoak erabiltzea komeni da, gal ez daitezen. Bertako generikorik ez balego, eraikina dagoen lekuaren izena (eranskinik gabe) erabiltzea litzateke garbiena. Horrelakoetan, megalito mota ezberdinen izaera eta ezaugarriak, izen bakarraren ordez, termino konplexuago eta zehatzagoen bitartez jakitera ematea da egokiena (*Burdin Aroko hilobia*). Irizpide horiek gogoan, honako txartela iradokitzen dugu, gure esparrurako bederik:

Toponimoa +(**bertako izen generikoa**)	Antxista[322](ko jentilbaratzak)
Megalito mota	Burdin Aroko hilobiak
(**Kronologia**)	800-300 K.a.

Azken buruan, izen hauek hobetsi ditugu gure esparruko megalitoentzat[323]:

OINDI-MANDOEGI (*Onyi-Mandoegi*) estazio megalitikoa edo megalitotegia: ABALLARRIKO JUDUMAHAIA (*Aballari*), ADARREKO ZABALEKO JENTILEN KANPOSANTUA (*Eteneta I*), ADARREKO ZABALA II (*Eteneta II*), AMUNOLA, ARLEGORKO ZABALA (*Arleorko Zabala*), BISASABEKO JUDUMAHAIA (*Pozontarriko Lepua*), ERRETENETA (*Eteneta II*), ETZELAKO HARTXURIAK (*Etzelako Arritxuriak*), ETZELA (*Etzela Oeste*), ETZELAKO TXOKOA (*Etzelako Txokoa*), ETZIAGOKO SOROA (*Eziko Soroa*), ETZIAGOKO TONTORRA (*Ezioko Tontorra*), ILINTXARBEKO JENTILBARATZA (*Altxista*), ILINTXARBEKO JUDUMAHAIA (*Altxista*), MANTELEKO JENTILEN KANPOSANTUA (*Elurzulo*), MUNISKUEKO JENTILEN KANPOSANTUA (*Mulisko Gaina*), OINDI (*Onyi*), OTSOLEPOKO JUDUMAHAIA (*Otsolepo*), TXIMISTAKO JENTILEN

---

321 Ikus 6.3.6.§.

322 Honatx beste bi etsenplu:

Aballarriko judumahaia		Usabelartza
Neolitiko-Brontze Aroko hilobia		Megalitoa
2000-900 K.a.		800-300 K.a.

323 Letrakera etzanez idatzita dagoena orain arte erabilitako *izen zientifikoa* da.

KANPOSANTUA (*Tximistako Egia*), UNAMUNOKO JENTILBARATZA (*Unamene*), USABELARTZA (*Usobelartza*), ZAMIOLA (*San Miguel Soro*).

IGORIN-AKOLA (*Igoin-Akola*) estazio megalitikoa edo megalitotegia: AKOLAKO LEPOA I (*Akolako lepua I*), AKOLAKO LEPOA II (*Akolako lepua II*), AKOLAKO LEPOA III (*Akolako lepua IIII*), ARRITXIETA (*Arritxieta*), IGORINGO JENTILZULOA I (*Igoingo lepua I*), IGORINGO JENTILZULOA II (*Igoingo lepua II*), LANDERBASO I (*Landarbaso I*), LANDERBASO II (*Landarbaso II*), LANDERBASO III (*Landarbaso III*), LANDERBASO IV (*Landarbaso IV*), LANDERBASO V (*Landarbaso V*), LANDERBASO VI (*Landarbaso VI*), LANDERBASO VII (*Landarbaso VII*), LANGAGORRI (*Langagorri*), SARATSETAKO LEPOA II (*Sagastietako lepua II*), SOLDADUAK GORDETZEKO HARRIA (*Sagastietako lepua I*).

6. IZEN GENERIKOAK

6.1.1. Gauza jakina da toponimiak gizakiaren eta inguruaren arteko harremanaren berri ematen duela[324]. Esate baterako, izen generikoek, hau da, lurralde bateko entitate geografikoak izendatzeko erabilitako izenek (*mendi*, *saroi*, *lats*...), ezaugarri berak dituzten izaki geografikoek osaturiko taldeak definitzen eta finkatzen dituzte. Izen generiko bakoitzak, horrenbestez, kokapen ezberdineko elementuak edo izakiak biltzen eta ordezkatzen ditu.

Izen generikoak, nolanahi ere, ez dira toponimoak bere horretan, besterik gabe, toki edo elementu ezberdinak identifikatu eta bereizteko ez dutelako balio. Batzuetan, haatik, espezifikotzat erabiltzen dira. Izen espezifikoekin alderantzizkoa gertatzen da, ezaugarri berak dituzten toki eta elementuei izen ezberdinak —gehienetan inguruan bakarrak direnak— ematen dizkietelako (*Akola*, *Amunola*, *Antxista*...). Hortaz, izen espezifikoak toponimoak dira beren horretan, toki edo elementu ezberdinak identifikatu eta bereizteko gai direnak, beste ezer erantsi gabe. Hori horrela delarik, bi osagaiak dituzten toponimoetan, espezifikoa den zatiak izaki geografikoa zehazten du eta zati generikoak, berriz, izaki geografikoaren izatea orokortasunez janzten du.

Banaketa horren argitan izen espezifikoak eta generikoak oso desberdinak lirateke, baina, gero, banaketa ez da beti erabatekoa. Konparaziora, Traperok (1995: 50-51) dio bereizketa ez dagokiola bi izen mota izateari, bien artean finkatzen den erlazio semantikoari baizik. Gorrotxategi eta Salaberriren irudiko (2000: 280), ordea, Traperok esaten duenak ez du erabat balio euskararentzat, besteak beste, bakarrik dauden izenak ez dituelako espezifikotzat jotzen eta, era berean, hark ez bezala, *Beheko basoa* eta antzekoen bigarren osagaia, *basoa* alegia, generikotzat har dezakegula uste dutelako.

Zernahi gisaz, Traperok (1995: 51) esaten du generiko eta espezifikoen arteko bereizketak ez dituela izen berezi eta arruntak banatzen, ezta substantiboak eta

[324] Auzi horretan sakontzeko ikus, adibidez, Álvarezek (2005: 320) idatzitakoa.

adjektiboak ere. Kanariarraren ustez, generikoak ezaugarri substantiboa adierazten du aldi oro, espezifikoaren tasuna beti adjektiboa den bitartean[325]. Guztiarekin, Gorrotxategi eta Salaberriren (2000: 279) aburuz, *espezifiko* / *generiko* banaketa funtzionala da eta, funtsa baduela sumatzen baldin bada ere, zaila da zertan oinarritzen den xeheki azaltzea.

6.1.2. Gure esparruko toponimia idatzia erdarazko testuetan dago gordea, latinez edo gaztelaniaz izkiriaturiko agirietan. Izen geografikoek hizkuntza horietako joskera-arauak gordez gero, alegia, erdarazko izen generikoak euskal izen espezifikoen aurrean kausituz gero, ez da arazo handirik izaten izen espezifikoak generikoak diren termino geografikoetatik bereizteko. Zailtasuna, bi osagaiek gorpuzten duten formaren estratifikazio maila edo "toponimotasuna" antzematean datza, hau da, *erdarazko izen geografikoa + de + euskal izen espezifikoa* egitura duten izenetan, lehenbiziko osagaia bigarrenarekin zenbateraino lotua dagoen jakitean, azken batean, bi hizkuntzetako osagaiak dituzten toponimo horiek izen bakar eta bateratu gisa zein neurritan finkatuta dauden ikustean. Adibidez, "*... jaral de Acola ...*" (1852, HUA46, 166 au. eta 166 bin.) aztertzerakoan, toki hori izendatzeko gure esparruan AKOLATXARA fitotoponimoa erabili dela ikusten badugu, orduan, *jaral* osagaiaren generiko kutsua garbi dago, baina ez bestela. Damurik, horrelako informazioa gutxitan aurkitu dugu, eta, arrunki, ezin da jakin segurantzia osoz euskal espezifikoen aurretik dauden gaztelaniazko izenak toponimoen berezko osagaiak ala izen geografiko hutsak diren. Behin baino gehiagotan, gainera, *erdarazko izen geografikoa + de + euskal izen espezifikoa* izan beharrean, *gaztelaniazko izen geografikoa + que llaman / que dicen + de + euskal izen espezifikoa* motako egiturak opatu ditugu idazkietan, "*... cerro que dizen que se llama de Culoeta* [...]", adibidez (1538, HUA9). Hain zuzen, aurreneko tokian dagoen gaztelaniazko izena

[325] Haren iritziz (1995: 17, 34-35), eginkizunaren arabera, termino 'jatorrizkoak' eta 'bigarrenkariak' bereiz litezke toponimian erabilitako lexikoan (Cf. Bright, 2003: 675). 'Jatorrizkoak' toponimian baizik erabiltzen ez diren izenak lirateke, izaki geografikoei men egitea bide baita euren lehenbiziko eginkizuna. 'Bereziak' (*Urumea*) edota 'arruntak' (*saroi*) izan daitezke. Termino 'bigarrenkariak', berriz, apelatiboak dira, hizkuntza arrunteko (toponimiatik landako) izenak direlako, toponimian erabiltzen diren arren. Hortaz, hizkuntza arruntekoak izan eta beren aurreneko egitekoa hor betetzeaz gainera, toponimian erabil daitezkeen hitzak dira termino 'bigarrenkariak'. Xehetasunetan sartuz, 'bakunak' (*lats*) edo 'eratorriak' —beti toponimoak direnak— (*harkadi*, …) izan litezke. Hala berean, Traperok (1995: 38) gogoratzen digu izen geografiko askoren jatorria metafora dela (*buru*, *bizkar*, …) eta, haren irudiko, erlazio metaforikotik datorren hiztegiak aparteko garrantziza duela, besteak beste, tokiko hizkeren esamoldeek toponimia asko aberats dezaketelako. Cf. Concepción (1992: 163-328).

aldi oro toponimoaren berezko zatia ez denez gero (*Loma de Aparrayn*, 1467, HUA5), bi elementu nagusien artean (*de* preposizioaren ordez) *que llaman de*, *que dicen de* edo antzeko esamoldeak daudenean, lehenbizikoaren toponimo zantzua ilunagoa da oraindik. Ildo beretik, ez dago batere garbi administrazioak egindako banaketa geografikoarekin zerikusia duten agirietan euskal espezifikoen ondoan irakurtzen diren termino geografiko franko toponimiarekin zenbateraino lotuak dauden, *partido de Larraz* (1889, HUA55) eta haren sailekoak lekuko.

Euskarazko osagaiak baizik ez daudenean ere bi izenen arteko banaketa egitea ez da aise izaten askotan. Toponimo batzuk zati espezifikoa besterik ez dute (**ANTXISTA**), hau da, izaki geografikoaren izena inguruko beste inon agertzen ez den forma berezia da, baina, arestian esan bezala, toponimoek bi zati dituzte askotan, eta beste izaki batzuen izenetan ere ikusten diren osagaiak (izen generikoak) hartzen dituzte (ANTXISTAKO **ERREKA**). Bien artean hondarkirik ez dagoenean, hots, zati espezifikoa eta zati generikoa zuzenean itsasten direnean, bien arteko bereizketa ez da hondarkia dagoenean bezain gardena, besteak beste, batzuetan forma berri eta desberdina sortzen delako, hots, izen espezifiko berria gauzatzen delako (**ANTXISTAERREKA**). Sarritan, nahikoa izaten da bigarren osagaia ezabatzea (EGURROLA**GAÑA**) bestela ere (generikoa gabe) erabilitako izen espezifikoa finkatzeko (**EGURROLA**), baina jatorriz espezifikoa zen izena ahuldu edo galdu eta, behin baino gehiagotan gertatu moduan, harengandik eratorritako espezifiko berrian gorde bada, zailtasunak izaten dira bi osagaiak bereizteko (**LANDARTE**GAÑA / ***LANDARTE**).

Atal honetan zehar corpus toponimikoa osatzeko hustu ditugun iturrietan (ahozko tradizioan, tradizio idatzian, kartografian...) generikotzat erabilitako izen geografikoen berri emango dugu[326]. Banaketa egiterakoan zati espezifikoaren eta generikoaren artean deklinabide hondarkia dagoen kontuan hartu dugu (ANTXISTA**KO** ERREKA), beti erabakigarria izan ez bada ere. Beste bidea, baina hau ere erabatekoa ez dena, gardenak diren espezifikoak murriztea izan da (ANTXISTA**ERREKA**), hau da, aurrena doan osagaia toponimo ezaguna bada (ANTXISTA), bigarren tokian dagoena bereizi eta izen generikotzat hartzea (**ERREKA**). Jokabide horrek espezifiko bakar eta berezi moduan

[326] Izen espezifikotzat baliaturiko izen geografikoak 8.1. azpiatalean aztertzen dira.

finkaturiko toponimoak bidegabe zatitzera eraman gaitzake, ez delako bistakoa toponimoa espezifikoaz soilik (EPELERREKA, EPELETORRE) ala espezifikoz eta generikoz (EPELA + ERREKA, EPELA + TORRE) osatua dagoen. Forma eratorria hondarkiz horniturik erabili den ikustea esanguratsua gertatzen da horrelakoetan (*EPELERREKAKO / EPELETORREKO ZUBIA), baita bereizgarriren bat hartzen duen begiratzea ere (EPELETORRETXIKI), postposizio edota izenondoren bat adibidez. Espezifikoei antzemateko dagoen hirugarren modua toponimoak atzizkiren bat duen ikustea da, hala izanez gero, atzetik aurrera, izen espezifikoa non hasten den garbi ikusten delako gehienetan (AZK**ETA** / GAÑA).

Goikoaren harira, izen geografikoa (bera bakarrik) espezifikotzat azaltzen den jakiteak izen geografikoaren ibilbidea ezagutzen laguntzen du (URSALTOETAKO ERREKA), baina, dena dela, izen geografikoa bere horretan espezifiko bihurtzea ez da tasun erabakigarria toponimia arloko erabilpenaren antzinakotasunari begira.

6.1.3. Generikotasunaren ikuspegitik zalantzakoak direnez gero, alegia, izen generikoak izan beharrean, izen espezifiko zatiezinen osagai direnez gero[327], izenlagun baten ondoren edota jabego genitiboaren hondarkiaren segidan dauden izen geografikoak (BEKO**ETXEA**, AITONAREN **BEGIRALEKUA**...) ez ditugu, hemen, besteekin batera aztertuko, zortzigarren atalean baizik. Hori argiturik, honatx izen espezifikoari jabego genitiboaren hondarkiaz lotuta baizik kausitu ez ditugun terminoak, guztiak ahozko tradiziotik bilduak: *begiralekua* (AITONAREN BEGIRALEKUA[328]), *begiratokia* (EUGENIOREN BEGIRATOKIA), *babesa* (JENTILEN BABESA), *zuhaitza* (KARRETEROAREN ZUHAITZA), *bidegurutzea* (EGILUZETARREN BIDEGURUTZEA), *jirabuelta* (MAÑUELEN JIRABUELTA) eta *plaza* (SORGINEN PLAZA).

Iharturik dagoen bakarra *monja* da (*Aranoagen-monja* [sic], 1920, *montazgos*, HUA57, 887 or.) eta ez da harritzeko, hortaz, termino horren etorkia iluna izatea.

[327] Cf. Gorrotxategi eta Salaberri (2000: 279).

[328] Iñigok (1996:361) *Begiraleku* toponimoa biltzen du Zubietan (Malerrekan) eta, Iturenen, *Aitonalurra* (1996: 210). Goizuetan, Etxeberriak (1988: 103) *Bixtalekuko bixkarra*, *Bixtalekuko egia* eta *Bixtalekuko iturria* jasotzen ditu.

Gipuzkoako beste herri batzuetako toponimian ere jaso dute[329], baina gurean ez da toponimoaren lehen osagaia, bigarrena baizik. Pentsa liteke gaztelaniazko apelatiboarekin duela zerikusia toponimiako *mo(n)ja*-k, baina besterik da hemen duen esanahi zehatza. Aukera bat metonimia prozesua agitu izatea da, behinola lekaimeek ezkonsaria eman behar baitzioten komentuari, *moja-saria* esaten zitzaiona. Horrela bada, ez da ezinezkoa ARANOARREN MONJA toponimoaren bigarren osagaia "ondorioa" izendatzeko erabili izatea eta, horrela, jatorriz 'sari' zentzua izatea[330]. Metaforikoa izatea da beste hipotesia, hots, *Izurdiaga* (< *Gizairudiaga*) edota *Gizaburuaga* herri-izen ezagunen sailekoa izatea.

6.2. Gure esparruko izen generikoak

Generikotzat erabilitako euskarazko eta erdarazko izenak atal nagusi eta azpiataletan sailkatu ditugu. Bost dira atal nagusiak (*oronimia*, *hidrotoponimia*, *fitotoponimia*, *paisaia gizakitua* eta *geografia zein administrazio alorreko banaketa*[331]) eta horien azpian aintzat hartu ditugun kategoriak egungo geografian usaian erabilitakoak dira (*lurraren gorapenak*, *ur-ibilguak*...). Lehenbiziko atalean —idatzizko eta ahozko tradizioan— erliebea deskribatzeko erabilitako terminoak ikusiko ditugu eta, ondoren, bigarrenean, ur-korronteen eta haiekin lotutako elementu eta gertaera geografikoen izenak. Hirugarrenean, landaretzaz aritzerakoan baliaturiko terminoei erreparatuko diegu eta, laugarrenean, giza-ekimenak paisaian eragindako aldaketen izendapena ikusiko dugu. Azkenik, bosgarrenean, geografia eta administrazio arloko antolaketan topaturiko izendegia hartuko dugu ahotan.

Izenen sailkapen edo banaketa hautazkoa denez gero, argi dago guk hemen egin duguna beste modu batzuetara ere burutu zitekeela[332]. Gure aldetik, lanean ahalik eta erosotasun handienaz aritzea izan da azken erabakia hartzerakoan kontuan eduki dugun

---

329 Ibarran *Monja tontor* (IM, 1993) dugu, Zegaman *Mojabaso bizkarra* (1995, ZM), Seguran *Mojaarizti* (1997, SM) eta Olaberrian, *Mojabaso* (1997, OM). Halaber, *Mojategi* oikonimoa zein *Mojategiko iturria* hidrotoponimoa daude Arrasaten (1998, ASM). Azkeneko herri horretan *Monjategui / Mojategui* deitura 1475. urtean dokumentatzen da; Ormaetxea (1996: 280).

330 Cf. Terrado (1999: 75).

331 Geografia eta administrazio alorreko banaketekin zerikusia duten izenen multzoa. Cf. Gendron (2006: 169).

332 Ikus, esaterako, Terradok proposatzen duen eredua (1999: 80-81), termino geografikoak, dituzten tasunen arabera sailkatzen dituena, eta ez ohiko definizioen arabera.

irizpide nagusia. Izan ere, garbi dago, esate baterako, *uharka*-k giza-ekimenak sortutako izaki hidrografikoa dela eta, ondorioz, hidrotoponimian ez ezik, hirugarren atalaren barruan (*paisaia gizakitua*-n) sailkatzeko arrazoiak badaudela. Hala berean, toki jakin batean basoa egoteak —orografiarekin duen loturaz gainera— giza-ekimenarekin zerikusia du askotan (ez beti). Horrela bada, *presa* eta *baso* generikoen iruzkinak hidrografiari eta fitotoponimiari eskainitako ataletan sartu ditugu, arestian aitortu bezala, sailkapena hautazkoa dela jakinik eta gizakiaren urratsari eskainiriko arloan egon zitezkeela onarturik.

Gure esparruan aurkitutako izen generikoen bilakabidearen ikuspegia ematen duten diagrama edo *kantilei* doakienez, lanean hustutako iturriek ekarritako baldintzapenak aintzat hartu behar dira[333]. Adibidez, zenbat eta atzerago joan orduan eta toponimia gutxiago dago tradizio idatzian, eta generikoak ez dira salbuespena. Zenbat eta lehenago orduan eta bakanago ikusten dira generikoak, baina, horrek, noski, gutxiago erabiltzen zirenik edota berriagoak direnik ez du esan nahi ezinbestean.

6.2.1. Oronimia[334]

Lurraren gorapenak

Lehenik eta behin, diogun gaztelaniazko *monte* terminoak 15. mendean hasten den idatzizko tradizio naroa duela gurean[335]. Neurri batean ez da harritzeko, hemengo orografiari begiratuta batez ere. Aurreneko aipamenak 1427. urtekoak dira[336]: "... *montes de Yraçurdi e de Bidaberriaga e de Fago çurrieta* [...]" eta "... *tierra e monte de Urnieta* [...]", (HUA1). Estreinako agerraldiez ari garenez, jabetza zentzua duten 16. mendeko bi toponimotan azaltzen da ("... *monte de Alçega* [...]", 1569, HUA18, 4 bin.;

---

[333] Arkeologia arloko hitza da *kantila*, indusketaren unitate estratigrafikoak erakusten dituen lubakia izendatzeko erabiltzen dena. Hain zuzen, bat gatoz Terradorekin (1999: 42, 46) inguru bateko corpus toponimikoak egoera linguistiko ezberdinak adierazten dituzten *estrato* edo geruza kronologikoak biltzen dituela dioenean, eta zilegi dela geruza toponimikoen multzoan hiruzpalau ebaketa sinkroniko egitea. Grosclaudek (1991: 28) ere, konparaziora, diagramak darabiltza. Hemen baliatu ditugunetan maila bakoitzaren hasiera aldaketa bakoitzaren estreinako agerraldiari dagokio. Cf., adibidez, Muxika (1996: 235).

[334] "Es frecuente utilizar el término oronimia para referirse al conjunto de topónimos referidos a accidentes del terreno. Nosotros preferimos utilizar el témino geonimia", Terrado (1999: 79). Traperok, ordea, (1995: 76) "morfotoponimia" darabil.

[335] *Monte bajo*, *monte franco* nahiz *zilegimendi* bezalakoak ez ditugu kontuan hartu hemen.

[336] *Monte*-ren bigarren lekukotasuna 1467. urtekoa da: "... *terminos e montes de Urumea* [...]", (HUA5).

"... *el monte de Tomas comoba el camino* [...]", 1573, HUA19, 7 bin.). *Monte* eta *montaña* generikoen pareko euskarazkoa, *mendi* alegia, Iztuetak darabil aurrenekoz gure esparruko izaki geografiko bati erreferentzia egiteko, bere 1847. urteko *Condaira*-n. Bigarren testigantza, eta azkena, berandukoa da, 20. gizaldikoa hain zuzen, eta agerraldi horretan, literatur testu batean txertatutako izen geografikoa izan beharrean, zati espezifikoaren segidan dagoen osagaia da (*Añaingo mendia*, 1969, *monte alto*, UUA10N). Esan gabe doa ahozko tradizioan ere kausitu dugula[337].

Aski erabilia den beste generikoa metaforan jatorri duen *bizkar* da (gazt. *loma*, *espalda*), zazpi toponimoren osagaitzat opatu duguna[338]. Bigarren elementutzat duten toponimoen artean ez dago bustitako formarik (*bixkar*-ik), espezifiko baten barnean dagoenean ez bezala[339]. *Espalda* maileguari doakionez, ez dugu idatzizko erakusgarririk kausitu, eta ahozko tradizioari erreparatzen badiogu, informatzaile batek baizik ez du ebakitzen (*Aerreko espalda* [áerrekò éspaldá] / *Arleorko espalda* ([árleorkò éspaldà], Mari. 2). Azken hau, zalantzakoa da, horrenbestez.

Lurraren gorapenekin amaitzeko, garbi dezagun *munto* generikoa[340] (gazt. *cerro*) hiru berriemailek ebakitako bost toponimotan jaso dugula[341], eta guztietan bustiriko forma baliatzen dutela, *muntto* / *munttua* alegia.

---

337 Hauek dira mugatzailerik ez duten formak: *Atxurromendi* ([átxurromendì], Goi.), *Agiñamendi* ([ágiñamendì], Txab. 1) eta *Santiyomendi* ([sántiyomendì], Berr. z. / [sántiyomendìn], Po., *in*.). Badira, nolanahi ere, forma artikuludunak: *Borrotolamendiya* ([borrótolamendiyà], Txab. 2 / [borrótolaméndiyà], Txil.) eta *Sanmielmendiya* ([sánmielméndiyà], Ezk. b.). Beste bilketa batzuetan ere azaltzen da (*Jibraltar mendiya* / *Jibaltar mendiya*, 1989, HUTB).

338 Honako toponimo hauetan hain justu: *Atxurroko bizkarra* ([atxúrrokò bízkarrà], Aparr.), *Antzusabeko bizkarra* ([ántzusabekò bízkarrà], Mari. 2), *Argorriko bizkarra* ([árgorrikò bízkarrà], Aska.), *Dantzalekuko goiko bizkarra* ([dántzalekukò gói̱kò bízkarrà], Txim.), *Etzubiko bizkarra* ([étzubikò bízkarrá], Mari. 2) eta *Martingorriko bizkarra* ([mártingorrikò bízkarrà], En.).

339 Besteak beste *Astabixkar* / *Astobixkar* ([ástabixkar] / [ástabixkár] / [ástabixkàr] / [ástobixkàr], Amu.; [astabíxkar], Larra.) espezifikoan.

340 Goizuetan, esaterako, *Monttoa* eta *Munttu* toponimoak daude; ikus Etxeberria (1988).

341 Hauexek dira lekukotasunak: *Aixtitako munttua* ([á□xtitakò múnttuà], Ezk. b. eta Lor. b.), *Alkitzeneko munttua* ([álkitzenekò múnttuà], Txim.), *Errepilleneko munttua* ([errépillenekò múnttùa], Txim.), *Errotako munttua* ([érrotakò múnttuà], Ezk. b. / [errótakò múnttuà], Lor. b.) eta *Loentxon bordako munttua* ([lóentxòn bórdakò múnttuà], Ezk. b.).

Mendi baten goialdeak

Gaztelaniazko *cima*, *cumbre*, *alto*, *cabeza* nahiz *altura*-ren sinonimoa den *tontor*-ekin has dezakegu azpiatal hau. Bederatzi informatzailek emandako beste hainbeste oronimotan topatu dugu[342], eta sabaikarituriko formaren etsenplu bakarra dago, testuinguruak baldintzatu ez duen bustidurarena alegia[343] (*Karapitako ttonttorra* [kárapitakò ttónttorrà], Ezk. b.). Aurrekoaren kidekoa den *punta* mailegua (ikus 6.2.2.1.§) zazpi berriemailek jakinarazitako sei toponimotan azaltzen da[344] eta, esan bezala, *tontor*-ekin duen gertutasuna nabarmena da, izaki geografiko berei erreferentzia egiten dieten bina biko daudelako multzo horretan[345]. Esan beharrean aurkitzen gara ez dugula bustitako aldaerarik jaso (*puntta*) eta ez batak ez besteak idatzizko erakuskaririk ez dutela. Hala berean, argi dezagun mendi baten goieneko tokia izendatzeko hitz berezia darabilela informatzaile batek, hots, *altuena* superlatiboa, hori bai, behin bakarrik (*Arbittarteko altuna* [árbittartekò áltuná], Arg.). Hortaz, azken horren generikotasuna ere zalantzazkoa da.

Casco gaztelaniazkoaren lekukotasunak 20. mendeko kartografian baizik ez ditugu topatu, eta guztiek hiru toki izendatzen dituzte. Xehetasunetan sartuz gero, honatx estreinako agerraldiak (mapa berean daudenak): *Casco de Amuela*, *Casco de Anchista* eta *Casco de Añua* (1942, IGC1). Ondorioz, tradizio idatzi eskasa du metaforan iturburu duen generiko honek. *Kasko* maileguari doakionez, zazpi berriemailek aipatzen dute[346],

---

342 Hona hemen guztiak, banan-banan: *Ezioko tontorra* (1982, CAG, 188-190 or.), *Aitzolako tontorra* / *Aitzolako tontorra* (1989, HUTB), *Muarriko ttonttorra* (1989, UUTB), *Agiñako goiko tontorra* ([ágiñakò gói̯kò tóntorrà], Txab. 1), *Arrigurutzeko tontorra* ([árrigurutzekò tóntorrà], En.), *Etzubiko tontorra* ([etzúbikò tóntorrá], Amu.) / *Etxuiko tontorra* ([étxwikò tóntorrà], Txim.), *Gazteleku tontorra* ([gáztelekù tóntorrà], Larra.) / *Gazteluko tontorra* ([gáztelukò tóntorrà], Bentatx.), *Goosteiko tontorra* ([góostei̯kò tóntorrà], Arg.), *Intziarriko tontorra* ([íntziarrikò tóntorrà], Txim.), *Larreiko tontorra* ([lárrei̯kò tóntorrà], Txim.), *Oraingo tontorra* ([óra□ngò tóntorrá], Arg.), *Paaleiko tontorra* ([páalei̯kò tóntorrà], Txim.) eta *Urdauko goiko tontorra* ([úrdaukò gói̯kò tóntorrà], Larra.).

343 Horren etsenplutzat jartzen du, hain zuzen, Mitxelenak (*FHV*, 185).

344 Ondoko oronimo hauek dira: *Aitzolako punta* ([á i̯tzolakò púntà], Ek. eta En.), *Antsokotxolako punta* ([antsókotxolakò púntàn], Ai., *in.*) / ([ántsokotxolakò púntà], Po.), *Arnabaletako punta* ([arnábaletakò púntà], Larr.), *Arrigurutzeko punta* ([árrigurutzekò púntà], En.), *Asketako punta* ([ásketakò puntá], Amu. / [ásketakò púntà], Ek. eta En.), *Eztizako punta* ([éztizakò púntà], Larr. eta Ek.) / *Esteizako punta* ([ésteizakò púntà], Larr.).

345 Gainera, berriemailea pertsona bera da bietako batean: *Aitzolako tontorra* ([á i̯tzolakò tóntorrà], Ezk. b.) / *Aitzolako punta* ([á i̯tzolakò púntà], Ek. eta En.); *Arrigurutzeko tontorra* ([árrigurutzekò tóntorrà], En.) / *Arrigurutzeko punta* ([árrigurutzekò púntà], En.).

346 Hauek dira informatzaileei zuzenean bildutako formak: *Bordaldeko kaskua* ([bórdaldekò káskuà], Larr.), *Itturiaundietako kaskua* ([ítturriau̯ndjetakò káskuà], Etxol.), *Joxeanetxolako kaskua* ([joxeánetxolakò káskuà], Amu.), *Muarriko kaskua* ([múarrikò káskuá], Larra.), *Pertxilko kaskua*

zortzi oronimotan aipatu ere. Bustidura (*kaxko*) ez da araua[347], hainbatekoa, gutxi-gehiago, hirutik batekoa delako.

Peña / Peñasco / Peñon hirukoari bagagozkio, aurrenekoaren idatzizko lehen agerraldiak 1467. urtekoak dira eta, artean, hala *peyña* nola *peña* erabiltzen zituzten eskribauek: "... *fasta en una peyña grande qesta* [...] *la qual peña debe* [...]" (HUA5). Izen espezifikoaren aurretik doan aurreneko erreferentzia, berriz, 1538. urtekoa da[348]: "... *desde el dicho sel ala peña nombrada Mantele* [...]", (HUA9). 20. mendetik aurrera pluraleko morfemarekin agertzen da maizenik (*peñas*), hain zuzen hamalautik hamar adibidetan[349]. Eratorriei erreparatuz gero, *peñasco* behin baizik ez dugu aurkitu (1797, HUA41) eta *peñón* 1889. urteko izkribu batean erabiltzen da (HUA55), bi aldiz. Azken horren harira, 1683. urteko agirian *peña* eta *cerro* terminoak batera idatzi zituzten (*cerro y peña de Mercue*, HUA28) eta ematen du parekotasun hori ez dela halabeharrekoa, aurrerago berriz irakur baitaitezke biak[350]: "... *a otro mojon que se puso debajo de un cerro ó peñasco el mas bajo de Anchista* [...]".

Azter dezagun astiroago auzi hori. Gure esparruko zenbait izaki geografikoren izenek bi hizkuntzetan dituzten generikoei erreparatzen badiegu, gaztelaniazko *peña* eta haren eratorriek euskaraz hiru pareko dituztela ikusiko dugu, *haitz*, *harkaitz* eta *harri*. *Haitz*-en erreferentzia zaharrena 1833-1835eko hau da[351]: "... *hasta la llanura que se llama Ioringoaiza* [...]", (DUA3)[352]. *Harkaitz*-en estreinakoa, berriz, 1898. urteko mapa

---

([pertxílkò káskuà], Id.) eta *Telleiko kaskua* ([télleịkò káskuà], Aska.). Hara beste ikertzaile batzuek jasotako hiru erakusgarri: *Etzalako kaskua* (1989, HUTB), *Ezkerraneko kaskua* (1989, HUTB) eta *Mizpirako kaskua* (1989, UUTB).

347 Hara sabaiko txistukariarekin aurkitu ditugunak: *Akolitturritako kaxkua* ([ákolitturritakò káxkuà], Id.), *Muuluxko kaxkua* ([muúluxkò káxkuà], Larr.), *Posontarriko kaxkua* ([pósontarrikò káxkua], Ai.), *Larraingo kaxkua* eta *Paaluxeko kaxkua* (1989, UUTB).

348 Aurrerago, hauxe dago izkiriaturik agiri berean: "... *e llegados a unos montes mas abaxo unas peñas que dezian que se llamaban Manteles* [...]".

349 Hona singularrean azaltzen direnak: "... *peña llamada Aballarri* [...]", (1923, JMB1, 93 or.); "... *peña llamada Arriuztuna* [...]", (1928, JMB3, 263 or.); *Peña de Aya* (1936, HUA58, 17 or.); *Aballarri* (1972, *peña*, JMB4, 211 or.). Pluralez agertutakoak, berriz, hemengo hauek dira: *Peñas de Aballarri* (1983, GFA2), *Peñas Aguerre* (1944, GHO1), *Peñas de Argarate* (1958, PPG, 77 zenb.; 1960, L.P.B., 60 or.; 1982, CAG, 185 or.; 1983, GFA2; 1989, HUTB) eta *Peñas Benetzi* (1944, GHO1).

350 Idazki bereko hirugarren aipamenean *peña* bakarrik azaltzen da: "... *peña de Oindi* [...]", (HUA28).

351 Cf. *Pardaquico-aitz-ondoa* (1794-1831, UGR3, 19 au.).

352 Halere, izen espezifiko baten osagaitzat *haitz* lehenagotik ageri da (*Burrundalaiz,* 1794-1831, UGR3, 19 au.).

batean ageri da (*Cueva de Goico-arraitza*, EGZ), eta gainerako hirurak 20. mendeko izkribuetan daude[353]; *harri*-ren idatzizko lehen erakusgarriak ere 19. gizaldikoak dira[354] (*Zabuco-arriya*, 1889, HUA56; *Monte Etziogarriya*, 1898, EGZ; *Monte Eusquigarriya*, 1898, EGZ). Hitzak hizpidea ekarrita, gaztelaniazko *piedra* hitzaren 1797. urteko erreferentzia besterik ez dugu topatu, eta ez dirudi toponimo zentzua duenik: "*Esta partida se divide desde el dicho arroyo de Purgatorio*, *y piedra de Esteguichar a la cima de Ercules* [...]", (HUA41). Izan ere, pixka bat atzerago "..., *en derechura hasta dàr en Esteguichar*, *donde pusimos una piedra* [...]" ipintzen duelako da zalantzazkoa.

Haitz, *harri* eta *harkaitz* generikoek *peña* eta haren eratorriekin duten antzekotasunenekin jarraituz, *peña* eta *harri*-ren artekoa garbi ikusten da, 19. mendeko dokumentuan horrela idatzia baitago: "... *peña denominada Zabuco-arriya* [...]", (1889, HUA56). Gure ustez, aurretik gaztelaniazko *peña* duten izen espezifikoek ahozko tradizioan zein generiko jasotzen dituzten ikustea esanguratsua da batzuetan, nahiz eta, jakin, generikoen parekatzea bide arriskutsua dela badakigun. Hona zenbait adibide:

Adarra (1833-1835, DUA3): *Aerreko arkaitz faltsua* ([áerrekò árkái̯tz fáltsuà], Mari. 2). Cf. *Lekayoko arkaitzbarrena* ([lékayokò arkài̯tzbarrenà], Mari. 2).

Eusquigarriya (1898, EGZ), ***Euncin*** (1889, HUA52): *Euntzingo arriya* ([éu̯ntzingò árriyà], Txim.), *Entzingo arriko galbayua* ([éntzingò árrikò gálbayuà], Ezk. b.) / *Euntzingo arkaitza* (1989, HUTB)[355].

Eceago (1797, HUA41), ***Etziogarriya*** (1898, EGZ): *Etzioko arriya* ([etzíokò árriyà], Amu.) eta *Eziokoarri* ([ezíokoárrì], Txim.).

Mantele (1538, HUA9): *Mantaleko arkaitza* ([mántalekò árkai̯tzà], Amu. eta Mari. 2).

Mercue (1683, HUA28): *Merkuko arriya* ([mérkukò árriyà], Txim.) / *Merkuko aitza* ([mérkukò ái̯tzà], Amu.) / *Merkuko arkaitza* ([mérkukò árkai̯tzetìk], Etxol., *abl.*)

---

353 Hauek dira: *Aballarri'ko-Arkaitzak* (1976, TA, 14 or.), *Pardaki'ko-arkaitzak* (1976, TA, 14 or.) eta *Euntxingo Narkaitza* (sic.) (1983, GFA2).

354 Izen espezifikoaren osagaitzat *harri* lehenagotik ere kausitzen da tradizio idatzian, honako lekukotasun hauetan esaterako: *Oarainarribitarte* (1575, L.M.M., 181 or.), *Ypenarrieta* (1683, HUA28), *Ybalarietta* (1773, VEK1A), *Vezquitarrieta* (1857-1860, UTR9, 48 au.), *Posentarri* (1855, UEA1) eta *Catamozarri* (1889, HUA56).

355 *Intziarri* ([intzíarrì], Ezk. b. / [íntzjarrì], Lor. b.) izenaz ere ezagutzen da.

Urdauburu (1833-1835, DUA3): *Urdaburuko arkaitza* ([úrdaburukò árkaı̯tzà], Iz. eta Txab. 1).

Urdaburu maior (1833-1835, DUA3): *Urdaburu aundiko arkaitza* ([úrdaburù áu̯ndikò árkaı̯tzà], Iz.)[356].

Garbi dago, beraz, *haitz*, *harkaitz* eta *harri*, hirurak, gaztelaniazko *peña* izen geografikoaren adierakideak direla, goiko toponimo multzoaren argitan bederen. *Harkaitz* eta *harri* dira erabilienak ahozko tradizioan, eta bi horien etsenplu ugari daude, baina, aitzitik, *haitz*-en testigantza bakarra dago, eta galtzear dagoela irudi du. Badira *harri* gaztelaniazko *piedra*-ren parekoa dela erakusten duten lekukotasunak ere, *Antxista atzeko arrizabala* (1989, HUTB) kasu. *Harripe* dateke *harri*-rekin lotutako beste generikoa, baina behin baizik ez dugu aurkitu, estreinakoz 1799. urtean[357]: *Ercatzarripea* (HUA42, 171 bin.). Egun ez da baliatzen.

Mendien goialdeekin bukatzeko, bi hitz *balkoi* maileguari buruz. Bigarren osagaitzat duen geonimo bakarra ezagutzen dugu Zilegimendietan[358] eta, horrenbestez, ez da zeharo garbi egiazko generikoa ote den: *Azketako balkoya* / *Asketako balkoya* (1989, HUTB). Bide batez, ez dirudi halabeharrekoa *Kurpitto* eta *Azketako balkoia* izenek izaki geografiko berari erreferentzia egitea[359]. Damurik, ez dago metaforan jatorria duen izen horren idatzizko testigantzarik ere.

Lurraren sakonak

Ataka-ri lotuko gatzaizkio lehen-lehenik. Tradizio idatzian behin baizik ez da azaltzen, 19. mendearen erdi aldeko *Esteguietaco atacaco chabala* (1831-1845, UGR4, 23 au.) oronimoan azaldu ere. Ahozko tradizioan toki handiagoa du, lau informatzailek baitarabilte, bost toponimotan[360].

---

356 Cf. *Urdaburutxikiko arriya* ([úrdaburutxíkikò árriyà], Iz.).

357 Hara beste aldaera batzuk: *Ercatz-arripia* (1840, HUA43, 117 bin.), *Ercaitz-arripia* (1857, HINGR2, 5097 zenb.) eta *Ercaiz-arripi* (1863, HRU, 50 bin.). Beraz, ez dugu **Erkaitzarri* kausitu eta badirudi etimoa *Erkaitz + harripe(a)* dela, eta ez **Erkaitzarri + pe(a)*.

358 Hernanin bada *Balkoi* (1989, HUTB) izengoitia duen baserria (jatorrizko izena IPARAGIRRE da).

359 Biek AZKETA mendiaren goieneko aldea izendatzen dute.

360 Hauek dira: *Egiluxeko ataka* ([égiluxekò átakà], Etxol.), *Exteixarko ataka* ([éxteı̯xarkò átakà], Ig. g., Txim.), *Etzalako ataka* ([étzalakò átakà], Txim.) eta *Unamuneko ataka* ([únamunekò átakà], Ezk. b.). Bada gure esparruan *Merkuko ataka* (1989, HUTB) izeneko tokia ere.

Gaztelaniazko *portillo*-ren lekukotasun bakarra kausitu dugu[361] eta, gainera, ez dago izen espezifiko baten aurretik ("... *en quanto ala presa y lo aderente del portillo para la navegacion* [...]", 1722, HUA32). Alabaina, *portilu* maileguaren ahozko bi adibide daude[362], *Minetako portillua* (1989, HUTB) eta *Olazarreko portillua* ([ólazarrekò pórtilluà], Bezk. eta Pag.). Aurrenekoan, berriemailearen esanetan, *konporta* bati (erreten edo ubide baten ateari) ematen zitzaion izena da eta, hortaz, 1722. urtean bezalatsu, ez da naturak sortutako izaki geografiko baten izena. Orobat bigarrenean, erabiltzaileen arabera, URUMEERREKAren ondo-ondoan (Hernanik eta Urnietak muga egiten duten tokian) dagoen puntu baten izena baita *Portilu*, garai bateko zubia hasten zen gunearena[363].

Collado, *collar*, *colladura* eta *puesto* gaztelaniazkoen adierakidea den *lepo*-ren estreinako testigantza 1780. urtekoa da, generikoen sailean zaharrenetarikoa: "... *paraje llamado Arteguieta Colepoa* [...]", (HUA39). Corominesek (1973: 255) fisiotoponimotzat joko lukeen izen honen gainerako erakuskariak 20. mendekoak dira[364] eta, izan, asko dira. Ahozko tradizioan ere usu erabili den hitza da, informatzaile frankok hainbat aldiz aipatzen baitute, *Antxutako lepua* ([ántxutakò lépuà], Etxol.) edota *Irungo lepo* ([irúngo lépò], Id.) kasu. Gainerako lekukotasunei buruz, ohar bedi hiru oronimotan *lepo* eta *ataka* sinonimoak direla, hots, biek izaki geografiko berak izendatzen dituztela. Hauek dira: *Itxeixarko lepua* ([ítxei̯xarkò lépuà], Etxol.) / *Etxexarko lepua* ([étxexarkò lépuà], Txim.), *Etzalako lepua* ([étzalako lépuá], Amu.) eta *Merkuko lepua* ([mérkukò lépuà], Txim.). Hitz bitan, gurean usu erabili den generikoa da metaforan jatorri duen *lepo*.

Lurraren sakonen sailean, beste multzoa *mehaka*, *har(ri)bitarte* eta, agian, *sarde*-k osaturikoa da. *Mehaka*-ren lehenbiziko erakusgarria 1683. urtekoa da, hau ere generikoen artean zaharrenetakoa, beraz (*Guilicharmeaca*, HUA28) eta, hurrengo

---

361 *Artzaiportilloa* (*Arzaiportilloa*, 1740) oronimoa biltzen dute Artaxoan Jimeno Jurio eta Salaberrik (1998: 216). Nafarroako beste alderdi batzuetan, Eslaba aldean esaterako, portilu dago jasota (Salaberri, 1994: 699).

362 Ikus 8.1.1.§

363 Errepidearen ondotik ubide edo *kanala* igarotzen da. Berriemaileek diotenez, behinola han zegoen haitza txikitu zuten, aldaparoa eta errepidea sar zitezen.

364 Hona hemen lehenbiziko hirurak: *Irueingo-lepo* (1928, JMB3, 263 or.), *Igoingo-lepua* (1942, IGC1) eta *Lizarrategui-lepua* (1942, IGC1).

agerraldian (*Guillicharue*, 1739, VEK2) *-ue* forma aurkituagatik, hirugarren agerraldian berriro *-meaca* irakurtzen da argi eta garbi[365] (*Guillincharmeaca*, 1773, VEK1A). Hortik aurrera ez da forma hori gehiago azaltzen, gaur egun ILINTXARBE nagusitzen baita, hala idatziz nola ahoz; bestela esateko, amaieran (*-meaka*-ren tokian) *-be* duen aldaera gailentzen da: *Guilicharve* (1833-1835, DUA3), *Ylincharbe* (1889, HUA53), *Ylincharbe* (1889, HUA54), *Ilintxarbe* ([ílintxarbèn], Amu., *in.*; [ílintxárbetik], Amu., *abl.*; [ilíntxarbè] Ek.; [ílintxarbè], Mari. 1; [ilíntxarbé], Mari. 2).

Modu berean, bada *har(ri)bitarte*-ren lekukotasuna. Estreinakoz 1575. urtean dokumentatzen da (*Oarainarribitarte*, LMM, 181 or.) eta aipamen hori da, hain zuzen ere, generiko zentzua garbien erakusten duena, bestela gaurko moduan baliatzen baita, espezifiko gisa alegia (*Arbitarte*, 1833-1835, DUA3; *Arbitarte* [árbitartè], Arg. / *Arbittarte* [árbittartè], Aska.). Ahozko tradizioan badago *sarde* toponimian erabili delako testigantza[366] (*Aerreko sardia*, 1989, UUTB), aurreko bi terminoen adierakidetzat erabili ere, baina generiko moduan duen balioa ez dugu garbi ikusten.

Zulo-rekin jarraituko dugu orain. Lehenbiziko aipamenak 20. mendeko *Egurrolaco-chulua* (1931, HUA57, 563 or.) eta *Castañal-zuloa* (1951, UUA18) dira eta ahozko tradizioan, bestalde, behin baino gehiagotan bildu dugu, besteak beste, *Besabiko zulua* ([bésabikò zúluà], Ai.), *Saabeko zulua* ([sáabekò zúluá]) / *Saobeko zulua* ([sáobekò zúluà], Ai.) toponimoetan. Errepikatuta edo bikoiztuta ere agertzen da (*Otzozulongo zuloa*, 1989, HUTB).

Zoko maileguari dagokionez, aurreneko agerraldien artean bi aldeetakoak daude, bustiak eta bustigabeak, guztiak espezifikoari *-ko* kasu markaz lotuak: *Losetaco zocoa* (1794-1831, UGR3, 12 au.), *Pagaluceco-chocoa* (1794-1831, UGR3, 19 au.), *Errolla buruco-chocoa* (1797-1833, HGR2, 73 au.). Berriemaileek, tradizio idatzian ez bezala, bietara erabiltzen dute, mugatzaileaz horniturik eta gabe[367]; aski izan bitez horren lekuko bi etsenpluok: *Tronkotako txokua* ([trónkotakò txókuà], Txim.) eta *Pellakotxoko* ([péllakotxokó], Aparr.). Azken bi testigantzen harira, busti gabeko bi salbuespenak

[365] Jimeno Juriorentzat (2004: 60) 'desfiladero' adiera du.
[366] Bada, agian, *sarde* duen beste toponimoa gure esparruan (ikus PAGOSARDE).
[367] Informatzaile berak *Pellango txokua* ([péllangò txókuà], Aparr.) aldaera ere badarabil.

gure esparruko hego-sortaldean azaltzen dira (*Uztartzako zokua* [uztártzakò zókuà], Ezk. b.; *Mozpelango zokua* [mózpelangò zókuà], Etxol.)[368].

Lurraren sakonekin bukatze aldera, diogun galzorian dagoen *eluts* hitza generikotzat erabili izan dela gurean[369] (*Alduraelutsa*, 1989, OM), 'zoko iluna' esanahiarekin[370].

Lur laua

Zabal izenaren[371] lehenbiziko erakuskariak 18. mendekoak dira (gazt. 'llanura', 'explanada'), generikoen arloan nahiko zaharrak, beraz. Aurrenekoa 1732. urtekoa da (*Ynsustizaval*, HUA30, 420 bin.) eta hurrengoa 1797-1833koa[372] (*Buztindeguizabala*, HGR2, 48 au.), baina badaude idatzizko aipamen gehiago[373]. Hortaz, aintzat hartzeko moduko idatzizko ibilbidea du. Ahozko tradizioari doakionez, hiru aldaera ditu *zabal* generikoak: *Aerreko* ***zabala*** ([áerrekò zábalá], Mari. 2), *Idoia****xabala*** (1989, OM) eta *Urtoki****txabal*** ([úrtokitxábàl], Aran.). Esku artean ditugun datuen arabera, bustiak edo bustigabeak nagusitzen diren ezin dugu esan, bi aldaeren hainbatekoen artean alde nabarmenik ez delako ikusten, ez kopuruari erreparatuz gero, ez eta izen espezifikoari erantsita dagoen ala ez begiratuz gero. Orobat igurzkari eta afrikarien zenbatekoari buruz aldea ez delako nabarmena, afrikarien aldekoa izan arren. Bide batez, informatzaile batek **zabaledi* / *zabalegi* (<*zabaldegi*?) ematen du behin[374] (*Akolako zabaleya* [ákolakò zábaleyà], Txab. 1), baina egiazki generikoa den ez dago garbi.

---

[368] Dena dela isoglosa, edo nahiago bada topoglosa, ez da gardena, eta Aranon jaiotako berriemaile batek, esaterako, *Tabako baratzetako txokua* ([tábakò barátzetakò txókuà], Ezk. b.) forma ematen du.

[369] Gure esparrutik kanpo (Urnietan) bada *Elutseta* izeneko baserria, besteak beste, 1857. urteko izendegian aipatzen dena. Halaber, Elduainen *Elutsaeneako borda* izeneko eraikina dago (*Elutsango borda* ere esaten zaio).

[370] Caminok (1997: 603) dio, Aezkoan, *zelaia* 'leku ordeka' zentzua duen izenondoa dela. Hemengo *elutsa*-ri *oihezkia* esaten zaio han.

[371] Azkue (1928: 215): "… así como *zabal* en toponimia más bien que adjetivo ≪ancho≫ es sustantivo ≪planicie≫…".

[372] Beste erakuskaria *Urtechabal* (1797-1833, HGR2, 47 au.) da.

[373] Hara beste batzuk: *Esteguietaco atacaco chabala* (1831-1845, UGR4, 23 au.), *Adarraco Zabala* (1831-1845, UGR4, 26 au.) eta *Acola zabal* (1855-1857, HTR8, 22 au.).

[374] Idazkietan ez da ageri.

Lur lauari eskainitako lerro hauekin bukatzeko, *rekta* mailegua ere jasota dago gure esparruan (*Errollaburuko rekta* / *Illarraburuko rekta* / *Illorraburuko rekta*, 1989, HUTB), baina leku bakarrari dagokio eta berria ematen du.

Eremu aldapatsuak

Kayondoco-eguiya (1898, EGZ) da *hegi* generikoaren lehen testigantza[375] eta, gutxi ez izan arren, idatzizko gainerako lekukotasunak ere berandukoak dira, guztiak izen espezifikoari leku genitiboaren hondarkiaz lotuak eta artikuluz markatuak: *Celay zaretaco eguiya* (1920, HUA57, 633 or.), *Unzueco-eguiya* (1942, IGC1), *Ezurrico-Eguia* (1960, GS) eta *Tximistako eguia* (1982, CAG, 183-184 or.). Berriemaileek frakotan baliatzen dute, baina hau ere galtzen ari da pixkanaka.

Malda, *malkar*, *aldapa* hirukoari lotuko gatzaizkio orain. Idazkietan lehenbizi irakurtzen dena *malda* da eta haren estreinako lekukotasunak 19. mendekoak dira (*Ezquerra malda*, 1860-1862, HTR10, 33 au.; *Anso-sarobeco-malda* (1868, DJE). 20. mendean aipamen ugari daude, gehien dokumentatzen diren generikoen multzoan baitago hau. Hona zenbait adibide: *Ezquerra-malda* (1920, HUA57, 812 or.), *Lizarraga-malda* (1935, HUA57, 838 or.), *Ereñozu-malda*[376] (1936, HUA57, 796 or.), *Larregain malda* (1936, HUA57, 796 or.), *Eliztaco-malda* (1951, UUA18), *Erlietaco-malda* (1951, UUA18) eta *Allegui-malda* (1964, UUA10J, 8 au.). Ahozko tradizioan ere generiko honen berri ematen duen etsenplu mordoa dago[377]: *Añuamalda* ([añúamaldá], Atx.), *Atxurmalda* ([átxurmaldá], Aparr.) / *Atxurrumalda* [atxúrrumaldà], Aparr.), *Justoneko malda* ([jústonekò máldà], Last. b.), *Losetako malda* ([lósetakò máldà], Txab. 2 eta Txil.), *Osiñaundiko malda* ([ósíñaụndikò maldá], Amu.), *Plazakobordako malda* ([plázakobórdakò máldà], Larr. b.), *Soñeiko malda* ([sóñeịkò máldà], Aparr.), *Txokolateneko malda* ([txókolatenekò máldà], Etxol.) eta *Urkitako malda* ([úrkitakò máldà], En.).

---

375 Osagai hori duen toponimo baten lehenbiziko aipamena 1683. urtekoa (*Larregui*, HUA28), baina kasu horretan *-egi* atzizkiarekin duke zerikusia. Beranduago ere jaso dugu (1833-1835, DUA3 eta 1911, IM).

376 *Ereñozumalda* (1936, HUA57, 800 or.) formaz ere aipatua.

377 Badira zuzenean bildu ez ditugun formak: *Elurzuloko malda* (1988, OBIE), *Erbizingo malda* (OBIE) eta *Paaleiko malda* (1989, HUTB).

Badaude gurean *malkar*-en testigantza idatziak[378] (*Guerataco malcarra*, 1920, HUA57, 392 or.), nahiz eta aurrekoarenak bezain ugariak ez izan. Informatzaileei bagagozkie bi oronimoren bost aipamenetan darabilte (*Bordaldeko malkarra* [bórdaldekò málkarrà], Larr.); *Geeziyan malkorra* [géeziyàn málkorrà], Amu. / *Geeziyako malkorra* [géeziyakò málkorrá], Amu. / *Geeziyan malkorra* [geéziyàn málkorrà] Ek. / *Geezitako malkorra* [géezitakò málkorrà], Etxol.) eta bistakoa da hala *malkar* nola *malkor* formak ditugula Zilegimendietan. Horren harira, Oiartzungo *Malkorra*-z jardukitzean, bereizkutza hau biltzen dute esanahiaren aldetik Goikoetxea eta Lekuonak (2007: 227): *malkar* 'aldapa latza' vs. *malkor* 'harrizko mendia, amildegia'. Ildo beretik, Pirinio-eremuan *malh* ugari azaltzen dela azpimarratzen dute Féniék eta Féniék (1992: 50) 'aldapa harritsua' adiera duena, baina Mitxelenak (*FHV*, 272) dio Gipuzkoako *malkor*-en esanahia 'tierra esteril' dela, eta ez besterik (ikus *OEH*).

Hirugarrenik, garbi dezagun *aldapa*-ren idatzizko agerraldi bakarra berandukoa dela, 1933. urtekoa hain zuzen (*Guardico-aldapa*, HUA57, 314 or.), eta ahozko tradizioan ere erakusgarri bat dagoela (*Ezioko aldapa* [ezíokò áldapà], Altz.). Hortaz, ez du pisu handirik generikotako gure esparruko toponimian.

Murru maileguaren aipamen guztiak ahozko tradiziotik jasotakoak dira, eta ikusiko den bezala, mugatzailea hartzean sorturiko hiatoan ezpainbikoa txertatzen da usuenik: *Akurrikako murrua* ([ákurrikakò múrruà], Mari. 2), *Antsokotxolako murruba* (1989, UUTB), *Besabiko murruba* ([bésabikò múrrubá] / [bésabikò múrrubà] Ai.) eta *Intxustiko murruba* ([íntxustiko múrrubà], Amu.).

Eremu aldapatsuekin amaitze aldera, *zehar* terminoaren adibide bakarra dago[379], berriemaileak espezifikoari hondarkirik gabe erantsitakoa (*Elurzuloziarra* [elúrzulozíarrà], Mari. 2).

[378] Salaberriren (1990: 68) irudiko *malkorra* ('amildegia') Baztango *erroitza*-ren sail berekoa da.
[379] Astigarragan bada *Santiagozearra* izeneko bidea, SANTIAGOMENDI aldean, hain zuzen.

Hutsarteak

Gaztelaniazko *sima* ez dugu idatzizko iturrietan opatu eta, halaber, *leize* generikoaren lekuko guztiak ahozko tradiziotik bilduak dira. Aski bitez diogunaren lagintzat ondoko bost ale hauek: *Añaingo leizia* ([áñaiŋgò léi̯zià], Larr.), *Armuntoko leizia* (1989, UUTB), *Arrobiko leizia* ([árróbikò léi̯zià], Ai.), *Onyiko leizia* ([ónyikò léi̯zià], Pard. g. 2) eta *Pardakiko leizia* ([párdakikò léi̯ziá], Amu.). Behinola bazen, halere, hutsarteak izendatzeko erabilitako beste hitza; *koba* maileguaz ari gara. Aurreneko erakuskaria 1683. urtekoa da, "...*y de alli por un arroio abajo hasta Barracocoba* [...] ", (HUA28) eta gizaldi bat geroago, 1773ko mapa batean, *Coba* (VEK1A) soilik dugu toki bera izendatzeko[380]. Hortik aurrera ez daude aipamen askoz gehiago (*Koba*, 1826, LMM, 174 or.; *Landarbasoko Koba*, 1986, GFA3) eta ahozko tradizioan *koba* duen toponimorik ez dugu bildu, egun normalki erabilitako generikoak *kobazulo* eta *zulo* direlako. Honenbestez, ibilbide aski luzea egin ondoren ahozko toponimian galduta dagoen generikoa da *koba*.

Beste batzuk

Gurean bildu dugun beste izen geografikoa *harkadi* da[381], nahiz eta toponimian ez aurkitu eta eman zigun informatzaile bakarra duela urte batzuk zendu. Hitz barruan, horzkariaren ordez, dardarkariaz ahoskatzen zuen hark (*-d- > -r-*) eta, bukaeran, berriz, sabaiko afrikatuaz[382] (*Arkiriya* [arkíriyà], Amu.).

Ospel-Egutera bikoa dela eta, lehenik eta behin, azpimarra dezagun gutxi samar ageri dela gure esparruko toponimian. *Ospel*-en idatzizko lehen aipamena 1942. urteko mapa batean dago[383] (*Argateospel*, 1942, IGC1), baina ARGARATE(KO) OSPELA oronimoa artikuluduna da, ahozko tradizioan bederik (*Argarateko ospela* ([árgaratekò óspelá]; *Argaatekoospela* [árgaatekoóspelá] / *Argaateospela* [árgaateospelá], Amu.).

---

380 Cf. Urbasako *Kobako haitzak*; *NTEM-XVIII*, 127.

381 Doneztebeko *Arquidia* (1566) toponimoaren harira, Iñigok (1996: 97) dio etorki iluna duela, *Urkidi*-ren bikia edo izan bailiteke, hots, berak Zubietan bilduriko *Aurquidi*-rekin izan bailezake zerikusia. Cf. Nafarroan erabilitako *harridi* (Irigoien, 1988: 652; Jimeno Jurio, 2004: 61) eta *harduia* (Salaberri, 1990: 67).

382 1989-IX-1ean emandako datua.

383 *Argateospel* (1944, GHO1eta 1953, IGC2) da berandukoa den beste erreferentzia.

Bigarrena, *egutera* alegia, bi toponimoren osagai generikoa da, *Onyiko eutera* ([ónyikò éu̯terá] Amu.) eta *Osiñaundiko eutera*-rena (1993, AT, 229-230 or.).

Silleguico Loya (1773, VEK1A) da *lohi* generikoaren idatzizko aurreneko lekukotasuna eta badira beste bi aipamen[384], 1833-1835. urtekoak biak: "*... por el paraje llamado Cilleguicoloia* [...]", eta "*... en el paraje que se á dicho y nominado Cilleguicoloia* [...]" (DUA3). Ondorioz, ez da idatzizko ibilbide laburra duen generikoa. Berriemaile batek ere ematen zigun toponimo horren berri (*Zillegiko loya* [zíllegikò lóyà] / *Zirikoloi* [zírikolòi̯], Larra.) eta Zilegimendietan *lohi* duen bigarren oronimoa dago, bitara jaso duguna: *Barrako*[385] *loya* ([bárrakò lóyá], Larra.) / *Barrengo loya* ([bárrengò lóyà], Asta.). Damurik, informatzaileek ez dute toponimia alorreko *lohi*-ren esanahia ezagutzen, eta ihartutzat daukagu. **Lohidi* terminoarekin loturik egotea da aukera sinesgarriena, *lokazti*-ren sailekoa izatea[386], alegia. (Ikus LOIDI, 8.1.1.§). Oronimian eskainiriko sailarekin bukatze aldera, gurean *santsonarri* zati generikotzat duen geotoponimoa dagoela esatea besterik ez[387] (*Zerritokitako sansonarriya*, 1989, HUTB; ikus 2.12 §).

6.2.2. Hidrotoponimia

Ur-ibilguak

Ur-korronte nagusiak gaztelaniaz izendatzeko gure esparruan gailentzen den terminoa *río* da[388]. Estreinakoz 1467. urtean agertzen da eta esan beharrean aurkitzen

---

[384] Badaude 20. mendeko bi testigantza: *Sigericoloya* (1942, IGC1) eta *Sigerico-Loya* (1983, IGN1).

[385] Hitzak hizpidea ekarrita, González de Viñasprek eta Uribarrenak (2005: 168) uste dute Trebiñuko *Barrarana* toponimoa esanahi nahasia duen *barra*-tik etor litekeela.

[386] 'Paraje embarrado' adiera du Jimeno Jurioren (2004: 61) aburuz. Cf. Salaberri (1994: 689).

[387] Cf. *Sansonarri* [sánsonarrì] (K.) eta *Sansonen arriya* [sánsonèn árriyà] (Mari. 2). Ikus 2.12.§ eta 8.1.1. §

[388] *Río*-rekin ur-korronte nagusia izendatzen dela azpimarratu nahi denean *mayor* izenlaguna eransten da (ikus URUERRAMA). Ildo beretik, Jimeno Juriok (2004: 114) biltzen duenez, Arga ibaiari *Río Mayor* deitzen zioten (1364an) eta, aitzitik, Aratzuri eta Ororbian dagoen haren adarrari *Urtxikia*. Gurera itzuliz, ohar bedi (zentzu berarekin) *madre* terminoa ere eransten dela aposizioan: "....*Y siguiendo desde dho pozo, ria madre, para arriva por el propio rio ... de donde se sigue por la misma ria madre, se termina con la ria Madre de Picoaga a Fagoaga con el rio mayor ...* ", (1797, HUA42). Alderantziz gertatzen denean, ezkerretara dagoenean alegia, *madre*-k *ubide* edo *cauce* zentzua du:" *... haviendosenos echo relación que en la madre que tenía el rio para el puerto publico ...*", (1707 , HUA30, 24 au.); "*... Sobre enderezar la madre del rio Urumea* [...]", (1729, HUA30, 362 bin.). Oiartzun ibaiari men egiteko ere *Río Madre* jasotzen dute 19. mendera arte Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 275).

gara espresuki *erreka* euskaldunarekin uztartzen duen idazkirik ez dugula kausitu. Alabaina, URUMEA potamonimoari dagokionez behinik behin, *rio*-k eta *erreka*-k izaki geografiko bera izendatzen dute[389]: *Urumerreka* ([úrumerrekà], Ek.) eta *Urmiaerreka* ([úrmiaérrekà], Txil.). Gertaera hori ez da gaurkoa, 19. mendeko erreferentziak baitaude (*Urume-erreca*, 1870, HUA6) eta, gainera, hemendik kanpo ere orobat agitu dela ematen du[390].

Ibai-ren berririk ez dugu jaso berriemaileen ahotik, eta ez da harritzeko, besteak beste, *errio* ere erabiltzen delako euskaraz *río* adierazteko, *erreka*-ren hedadurara ez iritsi arren. Hala berean, ur-korronte txikiak izendatzeko baliatu da *errio*, itxura denez[391] (*Otraizko irriyua*, 1988, OBIE). Izan ere, *ibai*, duela ez hainbeste denbora, euskara estandarraren eskutik iritsi da gurera. Idatziz, Iztuetak (JII, 117-118 or.) 1847. urteko *Condaira*-n darabil estreinakoz, Urumeari buruz ihardukitzean. Hitz bitan, azken urteotan argitaratutako mapa eta liburuen eskutik Zilegmendietan zabaldu den terminoa da *ibai*.

Arestian aurreratu moduan, *erreka* mailegua da Urumeako zilegimendietan ur-ibilgu nagusi eta txikiak izendatzeko. Idatzizko tradizio luzea du, askotariko agirietan eta begiratutako ia artxibo guztietan opatu baitugu. Aurrenekoz 15. mendean azaltzen da eta gaztelaniazko *arroyo* generikoaren ondoren paratzen du eskribauak[392]: "*... arroyo erreca llamado Ynçaederra* [...]" (1467, HUA5). Agiri berean "*... e dende siguiendo por la ribera reca e agoa fasta dar* [...]", (1467, HUA5) irakur liteke, hots, bokal protetikoa gabe. Noski, hainbat hidrotoponimoren osagaia da gurean eta horren lehen adibideak 17. mendekoak dira ("*... arroio de Cartolaerreca* [...]"; 1683, HUA28). Badira leku genitiboaren segidan doalako idatzizko testigantzak, 20. mendekoak guztiak

[389] Goizuetakoek berdin egin dute, *Errekandia*-z gainera, *Urumearreka* deitzen baitiote herria zeharkatzen duen ur-ibilguari: "*Gai honen harian, Goizuetako Santispiritu auzoa datorkit gogora, Urumea errekaz haruntz, bere Santakruz ermitarekin;*". Perurena (1995: 165).

[390] Cf. Salaberri (1994: 88).

[391] Hernanin bada *Errioguardanea* izeneko etxea, eta gure esparrutik nahiko hurbil bazen *urbitarteko erriyua* izeneko tokia ere, Lasarte-Usurbil mugan; Barrio, Tellabide, eta Zaldua (1989c). Hondarribian, bestalde, *Santa Engraziko errioa* biltzen du Furundarenak (2002: 766). Cf. Gorrotxategi eta Salaberri (2000: 287).

[392] Idazkeraren arabera 18. mendekoa dirudien kopia arruntean *"... arroio erreca llamado Ynzaederra* [...]" dago idatzirik (HUA6). Ondoan izen espezifikorik ez dagoenean ere biak batera ageri dira: "*... a un arroyo erreca questa devaxo de la dicha tierra* [...]".

(*Zuluetaco-erreca*, 1942, UUA10D), baina dokumentazioan hondarkirik gabeko lotura nagusitzen da, *Achurruerreca* (1780, HUA39) lekuko. Ahozko tradizioan ere maiz baliatu den generikoa da gurean.

Erreka-rekin bukatzeko, aldian behin hidrografiarekin zerikusirik ez duten izaki geografikoak (aurkintzak, inguruak) izendatzeko erabili bada ere (*Ubanaco erreca*, 1956, UUA10G), beste toki batzuetako *ubide* zentzua duen idatzizko edo ahozko erreferentziarik ez dugu jaso. Horrenbestez *erreka*-k 'ur-ibilgu' adiera besterik ez du Zilegimendietan[393].

Iturri-ri lotuko gatzaizkio orain. Toponimo askotan azaltzen da, baina bigarren osagaitzat duen forma baten lehenbiziko aipamen idatzia berandukoa da, 20. mendekoa hain zuzen[394] (*Aguerrico-iturri*, 1951, UUA18). Ahozko toponimo guztietan, eta ez dira gutxi, hasierako bokalaren segidako horzkaria busti egiten dute informatzaileek.

Osin-en aurreneko agerraldia, idatzizko bakarra dena, 20. mendekoa da (*Laspegui-osiña*, 1933, HUA57, 315 or.) eta, galzorian egonagatik, badira ahozko tradizioan *osin* zati generikotzat duten zenbait hidrotoponimo, FRAILEAREN OSINA, ZERRENDAKO OSINA eta SANTIAGOKO OSINA konparaziora[395]. Badago egitura berezia duen toponimoa ere: HONDORIK GABEKO OSINA[396]. Argi dezagun, azkenik, jatorrizko zentzuaren ahultzearen ondorioz, ahozko tradizioan, sarritan, *zulo* terminoa eransten zaiola aposizioan[397] (PORTILLUKO OSINZULOA).

Putzu toponimian egun erabiltzen delako lekukotasunik ez dugu jaso, baina bizirik egon zela badakigu, ihartutako bi hidrotoponimoren osagaia delako: *Erreñazu Puzuba*

---

393 Cf. *DVEF*, 419 eta *EAEATB*, 88.

394 Agiri berean *Aguerre-iturri* (1951, UUA18) aldaera darabil idazkariak.

395 Ahoz *Praillian osiña* ([prái̯llià̯n ósiñà]) / *Prallian osiña* ([prálliàn ósiñà], Pag.), *Xerrendako osiña* ([xérrendakò ósiñà], Bezk.) / *Txerrendako osiña* ([txérrendakò ósiñà], Ol.) eta *Santiyoko osiña* (1989, HUTB) ebakitzen dira. Azken hori 1797. urtean aipatzen da lehen aldiz (HUA42).: "... *pozo de Santiago, sobre la presa de Picoaga,* [...]".

396 Ahozko aldaerak *Ondorik gabeko osiña* eta *Ondoigabeko osiña* (1989, HUTB) dira. Cf. Mitxelenak (1985 [1961]) biltzen duen *Buçu Ondagauea* (1399) edota Altsasuko *Ura hondatzen denekoa* (*NTEM-IX*, 60).

397 *Portilloko osinzulua* ([pórtillokò osínzuluà]) eta *Portilluko osinzulua* ([pórtillukò osínzuluà], Bezk.) dira ahozko formak.

(1773, VEK1A) eta *Ezelacopuzua* (1833-1835, DUA3). Aurrenekoan, erreka batean zegoenez, *osin*-en parekoa dirudi, ez, ordea, bigarrenean, idoia edo iturri-putzua bide baitzen, hots, ur-tokia, mendi-mendian egoteaz gainera, ez baita errekarik bertan. Guztiaz ere, generikoa izateko, idatzizko aipamen zahar samarrak ditu *putzu* hidronimoak.

Euskarazko *pasadizo*[398], gaztelaniazko *vado*-ren sinonimoa alegia, ezaguna da berriemaileen artean (*Txerrendako pasaizua* [txérrendakò pásaị̇zuà], Ol.), hori bai, esanahi zabalagoarekin, ez 'ibia' zentzuan soilik. *Ursalto* hibridoa behin baino ez dugu bildu dugu gure esparruan[399] (ANTXISTAKO URSALTOA[400]) eta, bide batez, diogun ez dugula beste leku batzuetako *urzulo* aurkitu[401].

Makur, *buelta* eta *kurba* hidronimoek osaturiko multzoa hartuko dugu ahotan ondoren. Generikoa izateko, *makur* goiz samar dokumentatzen da gurean, 1730. urtean hain zuzen[402] ("... *rio de Gorrotola Macurra* [...]", HUA35), baina egun ihartua dago[403]. Badaude, bigarrenik, *buelta* maileguaren lekuko diren hiru hidrotoponimo[404] (*Altzutako buelta* [áltzutakò bwéltà], Andol. eta Elor.; *Irakurriko buelta*, 1989, HUTB; *Lizarrako buelta*, 1989, HUTB). *Kurba* ere baliatzen da bihurguneak izendatzeko, baina azken bien esanahien arteko lotura ez da *makur* eta *buelta* terminoen artekoa bezain garbia, *kurba* maileguak bertatik igarotzen den errepidearen bihurgunearekin zerikusia baituke;

---

398 Ikus 8.1.1.§. Cf. *Pausua*, Nafarroan 'erreka bat zeharkatzeko toki aproposa, sakontasun gutxikoa' adiera duena; Salaberri (1990: 69).

399 Ikus URSALTO 8.1.1.§. *Ursalto* izeneko tokiak daude, besteak beste, Seguran (1997, SM), Idiazabalen (*Ursaltoa*, *Ursalto erreka*; 1999, IDM), Irunen (*Ursaltoko erreka*; 1998, IRM), Urretxun, (Ugarte, 1998: 179-441), Arrasaten (Ormaetxea, 1996: 291), Pasai San Pedron (Elortegi, 1992: 179) eta Aralarren (Elosegi, 1972: 164). Irungo *Ursaltoko erreka*-ren harira, *Urjauzi* izeneko aurkintza dago Behobian (1998, IRM). Nafarroan ere azaltzen da *ursalto*, izen hori duen tokia aipatzen baitu Iturmendin (Burundan) Arbizu Gabirondok (1990: 272). Arruazun ere (Aranatzen) badago *Ursalto* bat (*NTEM-XII*, 117). Cf. Elizondoko (Baztango) *Urjauziak*, *NTEM-LII1*, 222.

400 Informatzaileei *Antxistako ursaltua* ([ántxistakò úrsaltuà], Amu. eta Ek.) jaso diegu.

401 Cf. Zegamako *Urzulo* bizkarra (1997, ZGM) edota Ataungo *Urzuloa* iturria (1999, ATM). Azken hidrotoponimo horri buruz gehiago nahi duenak ikus beza Arin Dorronsoro (1928: 70).

402 "... *én la zercania de las dichas herrerias de Fagollaga,* [...]". Cf. ARIZMAKURRETA.

403 Berastegin (LEITZARANen) *makur* terminoarekin lotua dagokeen *mako* formatik eratorritako *Makoaundi* (89-15-5 orria), *Makoluze* (89-6-7 orria) eta *Makoeta* (64-62-8 orria) daude. Goizuetan ere bada *Makoa* izeneko tokia; Etxeberria (1988: 88).

404 Gure esparrutik kanpo, baina nahiko hurbil, *buelta* zati generikotzat duen toponimoa dago, Hernaniko *Martindegi* auzoan hain justu: *Martindeiko buelta* ([mártindeị̇kò bwéltà] (64-30-2 orria. 1901. urtean, han jaiotako Jose Tolosak emana.). Cf. *Martindegierreka*.

aipamen bakarra dago, gainera (*Latxeko kurba*, 1989, HUTB). Ondorioz, honen toponimia arloko generikotasuna zalantzazkoa da; *buelta*, ordea, errepiderik ez den tokietan ere azaltzen da, ALTZUETA eta IRAKURRI parean, esate baterako.

Ribera gaztelaniazkoa nahiko goiz agertzen da, baina *erribera*-ren lekukotasun berriak eta urriak baizik ez daude tradizio idatzian; aurrenekoaren lehen aipamena 15. mendekoa den bitartean[405], euskarazkoaren idatzizko lekukotasun bakarra 20. mendearen hirugarren hamarkadakoa delako (*Portualdecoa-erribera*, 1927, HUA57, 156 or.). Egun aski termino erabilia da, osagaitzat duten hidrotoponimo bat baino gehiago daude eta gure esparruan[406].

Urbitarte generikoa ahozko bi toponimotan azaltzen da[407] (*Otxakillen urbittartia* eta *Patxikuleiko urbitartia*, 1989, HUTB). Halaz ere, duen hedadura jakitea zaila da, zuzenean elkarrizketaturiko informatzaileek ez baitzuten ezagutzen. Ur gezaz inguratutako lur-zatiei (erreketako uharteei) men egiteko erabili bide den izena galzorian dagoela irudi du, hortaz. Bidenabar, *isla*-ren lekukotasunik ez dugu jaso[408].

Ur-tokiak

Behin besterik ez bada ere, *idoi* nahiko goiz dokumentatzen da gurean, 1467. urtean dokumentatu ere[409]: "*... lugar do dizen Las ydoyas dentre Acola e Ygorin* [...]", (HUA5.). Aspaldi samar ihartu zela irudi du, ordea.

---

405 "*... dende siguiendo por la ribera, reca e agoa fasta dar ...* ", (1467, HUA5). Badago 16. mendeko erreferentzia: "*... termino e ribera de la Urumea* [...]" , (1536, HUA8).

406 ALTZUETAKO ERRIBERA, BEZKITAKO ERRIBERA, ELORRIBIKO ERRIBERA, EPELEKO ERRIBERA, EZIAGOKO ERRIBERA, IBARLUZEKO ERRIBERA, INTSUSADIKO ERRIBERA, IPARRAGIRREKO ERIBERA, LIZARRAGAKO ERRIBERA, OLAZARREKO ERRIBERA eta PAGOAGAKO ERRIBERA.

407 Cf. OTSAKILLEN ETXEA. Gure esparrutik kanpo, Lasarte-Usurbil mugan, bazen *Urbitarteko erriyua* izeneko tokia (*LOUTB*); haren hegoaldeko muturraren izena *Utumiako punta* zen. Jimeno Juriok (1987: 435) *Urbitarte* izenari buruz hauxe dio: "… significado de espacio interfluvial, como el "Entrambasaguas" de Sangüesa y otras partes". Cf. Ameskoako *Urbitartea* (1590); Lapuente (1975: 400-401).

408 Lasarten bazen *Zumauko isla* izeneko urbitarte edo lur-zatia (*LOUTB*). Desagertua.

409 18. mendeko kopia arruntean "*... lugar do dicen Las idoias de entre Acola e, Ygorin* [...]", (HUA6) ipintzen du (ikus IDOIA).

Lintzura-ren testigantza bat jaso dugu berriemaile batengandik[410] (*Antxista atzeko lintzura* [ántxistà átzekò líntzurà], Ek.) eta *zingira*-rekin ere gauza bera agintzen da, behin baizik ez baitugu jaso[411] (*Usaelartzako zingira* [úsaelartzakò zíngirá], Amu.). Ondorioz, ikusteke dago toponimia alorreko generikotzat biek izandako hedadura.

Obra hidraulikoak

Kanal mailegua da gizakiak eraikitako ubide txikiak euskaraz izendatzeko kausitu dugun hitza eta sail berean sar daitezke gaztelaniazko *azequia*, *encañada*, *canal* eta *conducción*. Behin baino gehiagotan ematen informatzaileek dute eta aski bedi horren lekuko *Minetako kanala* [mínetakò kánalà] (Etxol.) honera ekartzea[412]. *Andapa*-ren testigantzarik ez dugu bildu gurean[413], tradizio idatzian gaztelaniazko *antepara* kausitu arren ("*... y se sennalo el lugar donde abia de azer la presa calçes y azequias y anteparas* [...]", 1536, HUA8).

Gaztelaniazko *presa* askotan azaltzen da tradizio idatzian 15. gizalditik egun arte. Aipamen zaharrena 1467. urtekoa da[414] ("... en la *presa de la ferreria de Ereinoçu* [...]", 1467, HUA5) eta ildo horretan ez bedi ahantz URUMEA aldean horrelako eraikin ugari egon dela Erdi Arotik. Euskarazko mailegua ere jaso dugu[415]. Azkenik, *uharka*-ren

---

[410] Caminok (1997: 609) *lintsa* izena aipatzen du Aezkoan, 'zingira' esanahia duena.

[411] *Usolartzako zingirak* (*AT*, 233 or.). Irigoienek (1988: 654) *aintzira* eta *zingira* ('laguna') sinonimotzat jotzen ditu.

[412] Honatx *kanal* generikoa duten bi hidrotoponimo: *Paollako kanala* ([paóllakò kánalà], K.) eta *Ezioko kanala* (1989, HUTB).

[413] *Presa, Andapara*, 'cauce del molino, saetín'; Irigoien (1988: 654). Lasarten bazen *Zumauko andapa* izeneko ubidea (*LOUTB*) eta Usurbilen ere *andapa* terminoa erabili izan da (Aginagako J. J. Furundarenak ahoz emandako datua).

[414] Bigarren aipamena *presa de Olaberriaga* (1538, HUA9) da. Bide batez, diogun uharka mota ezberdinak egon direla gure esparruan, harrizkoez gain, egurrezko presa mugikorrak ere bazeudelako: "*... en la presa movible de las de Fagollaga* [...]"; "*...y que en suma la Villa de Hernani y ferron de Fagollaga han de hacer poner y conservar la presa movible sobre la firme con langas y segun lo literal de la transacion* [...]"; "*... La villa amo y dueño de Fagollaga responde y alega que despues del otorgamiento de la transacción en conocimiento de mejor forma y plata se havia formado con tablas la presa movible con tablas sobre la firme* [...]"; "*...En cuanto a haver quitado el ferron de las Herrerias de Hereñozu el dia lunes diez de este presente mes de septiembre algunas de las tablas que tenia la presa de las Herrerias de Fagollaga* [...]", (1708, HUA30, 24 bin.). Irudi du badagoela uharka eta osinen arteko lotura: "*... hasta dar con el citado rio sobre la presa de las Herrerias de Picoaga que tambien se llama Santiago, o pozo de Santiago, divide los mencionados terrenos de Arano, y los de la Comunidad de Hernani.*", (1797, HUA42).

[415] Hona guk bildutako testigantzak: *Goiko presa* ([gói̯kò présà], Etxol.), *Kartolako presa* ([kártolakò présatìk], Amu., *abl.*), *Askatsuko presa* ([askátsukò présà], K.), *Elorrabiko presa* ([elórrrabikò présà], K.), *Epeleko presa* ([epélekò présà], K.), *Paollako presa* ([paóllakò présà], K.), *Pikuako presa* ([píkuakò présà], K.). Honakoek ere gure esparruko uharkak izendatzen dituzte: *Bezkitako presa zarra*

agerraldi bakarra dago, baina aski eta sobera da bere laburrean hemen adierazi nahi genukeena adierazteko, hau da, euskara estandarraren eskutik iritsi dela honera (*Añarbeko Uharka*, 1986, GFA3).

6.2.3. Fitotoponimia

Basoak

Tradizio idatzian nahiko goiz aurkitu dugun izena da *baso*[416] (gazt. *bosque*, *monte*, *monte alto*, *plantado* eta *arbolado*), toponimo baten bigarren zatia dela aintzat hartuz gero batez ere. HERNANIBASO fitotoponimoaren estreinako aipamenak, esate baterako, 1712. urtekoak dira eta artean artikuluz idazten zuten (*Hernanibasoa*, *monte concejil*, HUA30, 87 au. eta bin.), baina 19. eta 20. mendeetako lekukotasun gehienak mugatzailerik gabe izkiriatuta daude[417]. Xehetasunetan sartuz gero, ahozko tradizioan honako bikote hauek daude: *Altzabasua* ([áltzabasuà], Arg.) / *Altzabaso* ([áltzabáso], Larra.); *Donostibasua* ([dónostibásuá], Arg.) / *Donosti-baso* (1920, HUA57, 529 or.); *Ernanibasua* ([érnanibásuà], Atx.) / *Ernanibaso* ([érnanibasò], Txab. 1). Espezifikoari leku genitiboaren hondarkiaz lotuta ere jaso dugu, *Ormaxarko basua* ([órmaxarkò básuà], Ai.). Oraingo honetan leku genitiboak jabetza adierazten du, basoa ORMAZARRETA baserritik urrun samar baitago.

Badira bigarren zatian *mintegi* osagaia duten hiru fitotoponimo, eta hara haien zenbait lekukotasun: *Aerreko zabaleko muntteiya* ([áerrekò zábalekò múntteiyà], Mari. 2), *Untzoko munttei* ([úntzokomúnttèi] / [úntzokò múnttéi], Arg.) eta *Arloteiko munttei* / *Arlotegiko muntteiya* (1989, HUTB). Badira gure esparruan *txara* zati generikotzat duten toki-izenak ere eta zaharrena den lekukotasunari erreparatuz gero atentzioa

---

(1989, UUTB), *Goiko Urruzunako Presazarra* (1989, HUTB), *Iturriotzeko presa* (1989, HUTB), *Mendarazko presa* (1995, DTE) eta *Minako presa* (1989, HUTB).

[416] Erakusgarri zaharrena (zati espezifikoa dena) 1583. urtekoa da eta artikuluz hornituta dago: "... *y pegante a Landerbasoa* [...]", (HUA21, 2 bin.). 19. mende arte forma markatuak nagusitzen dira, *Landerbasoa* (1730, HUA35) kasu, baina ordutik joera aldatu egiten da pixkanaka, eta forma mugatzailedunen presentzia nabarmen gutxitzen da aurrerantzean tradizio idatzian. Izan ere, etsenplutzat darabilgun LANDERBASO toponimoaren kasuan artikulugabeak 18. mendearen bukaeran azaltzen dira eta, horrela, 1773. urtean *Landerbasoa* (VEK1) irakurtzen bada, 1780an *Landerbaso* (HUA39) dugu dagoeneko. Ildo beretik, berriemaileek deklinatu gabe ematen dute beti. Cf. MARKESBASO edota Abaltzisketako *Kondebasoak* (1997, ABM).

[417] *Lizarrei basua* (1920, HUA57, 531 or.eta 532 or.) eta antzekoak ikusirik, bibliografiatik hartu

ematen du bokal artean (dardarkari ahularen tokian) 19. menderako igurzkari belarra agertzeak[418] (*Andolachaga*, 1857, HUA48, 39 or.). Horren harira, lau aldaera darabiltzate berriemaileek: *Akolatxaa* ([ákolatxaà], Id.), *Barkixteiko txaga* ([bárkixte□kò txágà] Bent.), *Akolatxara* ([ákolatxarà], Etxol.) eta *Akolatxarra*[419] ([ákolatxarrá], Sants.).

Arbola maileguaren testigantza bakarra dago ahozko tradizioan[420] (*Gernikako arbola* [gérnikakò árbolà], Beltza. eta Sants.), nahiz eta egun nagusitzen den hitza horixe izan. Toponimian duen generikotasuna zalantzazkoa da, beraz. Nolanahi ere, dendronimoen saila luzea dela gurean eta, hasteko, diogun *haltzadi*-ren mostra bat badela Zilegimendietan (*Agoñoko altzudiya* [agóñokò áltzudiyà], Aparr.). Badaude *gaztainadi*-ren lekukoak, baina laburzki mintzatuko gara hemen ere: antzinakoena 18. mendearen bukaera aldekoa da eta sudurkari bustigabea du (*Yerdi gaztainadi*, 1794-1831, UGR3, 17 au.).

Sagasti-ren aipu bakarra Urnietako informatzaile batek egin du (*Presako sagastiya* [présakò ságastiyà], Bezk.) eta urritasun horrek gure esparrua sagar-langintzarako aski toki eskasa izatearekin eta 20. mendean zehar sagarrondo gehienak galdu izanarekin duke zerikusia, besteak beste.

Pagoac pluralekoaren etsenplu bakarra 19. mendeko agiri batean aurkitu dugu (*Oerangopagoac*, 1833-1835, DUA3); alabaina, ez dirudi oso erabilia izan denik, ahozko tradizioan lekukoak badaude ere. Singularrean *pago* AITZOLA aldean dagoen dendronimoan opatu dugu: *Aitzolako pago aundiya* [ái̯tzolakò pago áu̯ndiyà] (Amu.) / [ái̯tzolakò págo áu̯ndiyà] (Ek.), *Aitzolako pagua* [ái̯tzolakò páguà] (En.). Hona pluralean deklinaturik dagoen ahozko testigantza bakarra: *Martinbeltzeneko pauk* ([mártinbéltzenekò páùk] (Aparr.). *Pagadi* multzokariaren lehenbiziko agerraldia ere 19. mendearen erdialdekoa da (*Arismonte o Añoco Pagadi*, 1831-1845, UGR4, 425 au.) eta,

---

dugun *Landarbasoa* (1893, C.E., 93 or.) salbuespenak arkaismoa dirudi.

[418] ANDOLA oikonimo ezaguna da.

[419] Cf. *Martintxarra* ([martíntxarrà], Aska.) eta *Txaraborda* ([txarábordà], Lor. b.).

[420] Ikus *arbola* eta *zuhaitz*-en arteko aldeaz Perurenak (2007: 101-103) idatzirikoa.

azkenekoa, berriz, 1951. urtekoa[421] (*Añoco-pagadi*, 1951, UUA23). Ahozko tradizioan ugari azaltzen da, eta aski izan bitez horren adibidetzat *Añoko pai* ([áñokò páị]) / *Añaingo pai* ([ánaị̃ngò páị]) / *Añeiko pai* ([áñeị̃kò páị], Oiarbi.)[422] eta *Sauxarko paariya* (1989, HUTB)[423] fitotoponimoak. Nahiko generiko ezaguna da oraindik, gurean horrelako basoak gutxi samar diren arren[424].

Harizti terminoa, azkenik, behin baizik ez da jaso ahozko tradizioan (*Angeluitturriko aiztiya* / *Angilitturriko aiztia* (1989, HUTB) eta, hala berean, *urki* singularraren lekukotasun bakarra dago (*Antxistako mugako urkiya*, 1989, HUTB).

Sasiak

Sasi-ren aipamen zaharrenak 16. mendekoak dira[425] (gazt. *monte bajo*, *matorral*) eta ezaguna den espezifiko bati (IARTZAri) erantsirik daude ("... *parte llamada Yarçasasi* [...]", 1569, HUA18, 30 au. eta "... *montes de Yarçasasia* [...]", 1594, HUA17, 194 bin.). Ez dago idatzizko etsenplu gehiago eta, ahozko tradizioari so eginez gero, berriemaileek bi fitotoponimotan aipatzen dute (*Iruisasi* [írwisasì], Txab. 1 eta *Ipiñarsasi* [ipíñarsasì], Ezk. b. eta Txim.)[426]. Ihartzear dagoen generiko zahar samarra da, hortaz.

Beste batzuk

Gaztelaniako *helechal*-en bi sinonimo jaso ditugu ahozko tradizioan, *inostorleku* / *inestorlur* (*Martindeiko iñostorlekua* [mártindeị̃kò iñóstorlekuà] / *Martindeiko iñostorlurra* [mártindeị̃kò iñóstolurrá], Arg.) eta *inostordia*[427], hedadura aski txikia

---

421 Tartean bada bestea: *Añoco-pagadi* (1925, UUA3).

422 Hona leku genitiboaren hondarkiz hornitutako zenbait etsenplu: *Aitzolako pagariya* ([áị̃tzolakò págariyá], Amu.), *Errekalkoko pagadiya* ([érrekalkokò págadiyá], Amu.), *Santodomingoko pagariya* ([sántodomingokò págadiyà], Ezk. b.); *Exteixarko pagadiya* (1989, HUTB) eta *Ixteixarko pagadiya* (1989, HUTB). Hortaz, *Santodomingon pagadiya* ([sántodomingòn págadiyà], En.) salbuespentzat jo daiteke.

423 Informatzaileek *paari* ahoskatzen dute normalki: [óị̃ páariya zan dána] (Amu.) 1992-II-17.

424 Gure esparruko pago gehienak OARAIN-AÑARBE inguruan (ipar-sortaldean) daude.

425 Aragonek dio 16. gizaldian *dehesa* eta *ejido*-ei "ysasis" esaten zitzaiela Hernanin, baina guk ez dugu horren testigantzarik jaso azterturiko dokumentazio guztian.

426 Beste aldaera *Epiñar-sasi* (1989, HUTB) da.

427 Honatx, hitzez hitz, berriemaileak esandakoa: [zúk íñostordiyà balímakazù] (Ai.), 89-IX-14.

dutenak biak. Informatzaileek *iradi*[428], *iraleku*[429], *garamen*[430] (< *garo* + *eban*) eta antzeko izenik ez darabilte, beraz, baina begira diezaiogun astiroago auzi horri. Azkuek (1984 [1905]: 566) Urnietan eta Hernanin *iñestor* bildu zuen eta Bozas-Urrutiak (1964: 217) esaten du Aranon *Iextor* terminoa ezagutzen zutela, *iratze* erabili arren; Zubirik eta Perurenak (1988: 30) Aranon *iraleku* biltzen dute[431], ordea. Leitzan *iñestorra* esaten zela ere jasotzen du Bozas-Urrutiak (Cf. Olano, 1998: 16). Aranzadik (1905: 24), azkenik, *iñaztorra* biltzen du, eta Mitxelenak (1957: 140) ere Gipuzkoa-Nafarroetako *iñastor* aipatzen du[432]. Nafarroan *iralarre* ere badago.

Larreak

Badira *larre* generikoa duten toponimoak gurean (gazt. *hierba*, *herbal*, *pasto*). Aipamen zaharrenak 19. mendearen erdialdekoak dira, *Vaso-aundi-larrea* (1850-1852, HTR5, 14 au.) eta *Otzamendilarre* (1857-1860, HTR9, 26 au.) konparaziora. Ahozko tradizioan ere jaso dugu (*Iñatzularre*, 1989, HUTB; ikus EREÑOTZULARRE).

Zelai-ri lotuko gatzaizkio jarraian. Aurreneko testigantzetan (18. mendean) bitara kausitu dugu, espezifikoari leku genitiboaren hondarkiaz loturik eta zuzenean erantsita[433] (*Acelacelaia*, 1739, HUA36; *Miquelacelaia*, 1739, HUA36; *Mizpiracocelay*, 1797-1833, HGR2, 43 au.). Ahozko tradizioan sarritan darabilte berriemaileek, *Olaberriko zelaya* [ólaberrikò zélayà] (Amu.) lekuko, eta *zelaipea* formaren adibidea ere azaldu zaigu (*Amuelako zelaipia* [ámuelakò zélaɟpiá], Amu.), azken honek generiko moduan duen balioa argi ez badago ere.

---

428 Orexan izen hori duen tokia dago (1998, OXM).

429 **Ira* + *leku* da iturburua. Besteak beste, Goizuetan (Etxeberria, 1988: 101) eta Malerrekako Zubietan (Iñigo, 1996: 385) jaso dute eta Mitxelenak ere aitatzen du (*FHV*, 351).

430 J. J. Furundarenari zor diogun informazioa. Hala berean, Abaltzisketan *Aerretxogaradi* dago *Ataburu* ondoan (1997, ABM), Gaztelun *Garalekuaundi* (1998, GZM) dugu eta Ikaztegietan, azkenik, *Garolekua* (1999, IKM).

431 Olano (1998: 16) eta Zuazo (2003: 122, 124).

432 Barandiaranek (1961: 115) honakoa dio Sarako etxeez jardukitzean: "Y la [casa] de labranza tiene, además, delante de la fachada principal un espacio llamado *Iastorra*, al lado generalmente, [...], donde es costumbre esparcir durante el otoño gran cantidad de paja, helecho, árgoma, hojarasca y otras materias [...]".

433 Hor daude *Celaiondo* (1739, HUA36) eta *Zelai-azpia* (1794-1831, UGR3, 8 au.) aipamenak ere, baina ez dira zati generikoak. Orobat *Pagocelay*-ri (1932, HUA57, 875 or.) dagokionez.

Lur landuak

Lanberri-rekin has gaitezke lur landuez hitz egiten. Erakuskari gutxi daude (*Sarrecholamberri*, 1797-1833, HGR2, 51 au.; *Sarecho lanberri*, 1863, HRU10, 54 bin.) eta esan beharrean aurkitzen gara, era berean, *soro* mailegua ere, idatziz, berandukoa den aipamen batean baizik ez dugula aurkitu (*Ezioko soroa*, 1982, CAG, 190 or.). Ahozko tradizioan, aldiz, behin baino gehiagotan jaso diegu informatzaileei eta honatx bi erakusgarri: *Argorriko sorua* ([árgorrikò sóruà] eta *Errenteisorua* [érrenteị̈soruà], Txab. 1 eta Asta.). Ezaguna eta erabilia da egun, generiko moduan fitotoponimo askotan idoro ez arren.

Azpiatal honekin amaitzeko, badago *tabako-baratza*-ren oinordekoa[434] (*Tabako baratzetako txokua* [tábakò barátzetakò txókuà], Ezk. b.) eta ez da harritzeko, behinola, erregai gutxi zegoenean (ezkutuan) *tabako-baratzak* ereiten zirelako mendian. Ohar bedi, hizketa arruntean usu erabiltzen den arren, *baratza* ez dela gehiago azaltzen gure esparruko toponimian.

6.2.4. Gizakiaren arrastoa

Bizilekuak

Gure esparruko bizilekuak gaztelaniaz izendatzeko generiko mordoa topatu ditugu eta buru horretan sar daitezke, besteak beste, *casa*, *casa armera*, *casa de labor*, *casa de parientes mayores, casa de habitación*, *casería*, *caserío*, *casilla*, *chalet*, *casa nueva*, *solar* eta *vivienda*. *Casería* terminoarekin hasiko gara. Aipamen zaharrenak 18. mendekoak dira ("... *termino de su caseria de Alzega*, 1716, HUA30, 153 bin.; "... *caseria de Latza* [...]", 1780, HUA39), nahiz eta gainerako gehienak 19. eta 20. mendeetakoak izan[435]. *Caserío* izenaren lehen erakuskariak ere 18. mendekoak dira, *caserio Sarobe* (1797-1833, HGR2, 47 au.) konparaziora; hurrengoak 1843. urtekoak dira (HUA44) eta hortik aurrera sarritan aurkitu dugu tradizio idatzian. Euskarazko parekoari dagokionez, ez dugu *baserri* bigarren osagaitzat duen oikonimorik bildu[436].

---

[434] Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 291) *Tabakoerreka* eta *Tabakolurra* biltzen dituzte Oiartzunen.

[435] Cf. Perurena (1996).

[436] Bazen Urnietan (gure esparrutik kanpo) *Basarri* oikonimoa, lehen aldiz 1907. urtean

Esan gabe doa badaudela *etxe* generikoaren idatzizko erreferentziak, baina berandukoak dira, 1951. urtekoak hain justu[437] (*Zumistico-echea* eta *Zumistico-echia*, UUA18). Ahozko tradizioan genitiboaren hondarkiaren ondoren baizik ez dugu kausitu (*Akolako etxia* [ákolakò étxiàn], Ak., *in.*), eta izenondoarekin hornituta ere ageri da (*Montefrioko etxezarra* [móntefriokò étxezárrà], Mari. 2). Guztiarekin, *borda* edo *etxola* baino bakanago azaltzen da *etxe*.

Etxeberri-ren aurreneko lekukotasunak 18. mendearen amaierakoak dira (*Alchurru-echeverri*, 1797-1833, HGR2, 72 au.), baita *casa nueva* terminoaren aipamen bakarra ere[438] (1730, "... *en frente de la casa nueba de Epela* [...]", HUA35). 19. mendean agerraldi gehiago daude, eta hona haietariko batzuk: *Elorribia-echeverri* (1843, HUA44), *Beloqui Echeberri* (1863, HRU8, bin.), *Pardaqui echeverria* (1831-1845, UGR4, 26 au.) eta *Portuco Echeverriya* (1848-1850, HTR4. 10 au.). 20. mendeko testigantzak ez dira falta, *Epeleco Echeverri* (1937, AB) eta *Picoagaecheverria* (1937, *domicilio*, AB) kasu, idatzizko lekukotasun ugari dituen generikoa delako. Berriemaileek hala espezifikoari hondarkiz loturik (*Zilleiko etxeberri* [zílleiko étxeberrì], Ai. eta Bezk.) nola hondarkia gabe erantsita ebakitzen dute (*Pikuetxeberri* [píkwetxebérri], Aparr.).

Bukatzeko, *chalet* terminoaren etsenplu bakarra 1983. urteko jabetza-mapa batean topatu dugu (*Chalet Latxe*, IGN2). Ohar bedi ez dela ahozko toponimian gehiago azaltzen, euskaraz [txáletà] eta gaztelaniaz erabilia izan arren.

---

dokumentatzen dena; Murugarren (1974: 162). Hain zuzen, toponimo horrekin ezagutzen da oraindik hondakinak dauden tokia. Egiazki *Urruzenea* izena zuela pentsatzeko arrazoiak baditugu, 1857. urteko izendegiari begiratuz gero batez ere.

437 Ez bedi ahantz 1595. urtean *Ereñoçu echabi* eta *Ereñoçuchavi* (HUA10) azaltzen direla eta, Hernanin (gure esparrutik kanpo), 19. mendearen erdialdean, bazela *Cantoyacoechea* (1848-1850, HTR4, 9 au.) izeneko eraikuntza.

438 EPELEKO ETXEBERRI izenaz ezagutzen den eraikuntzaz ari da seguruenera, lehen aldiz 1843. urtean kausitu duguna: "... *caserio Epele-echeverri* [...]", (HUA43).

Abeltzaintza eta nekazaritza

Borda maileguaren estreinako aipamena 18. mendearen amaierako izkribu batean dago[439] (*Borda de Arizola*, 1797-1833, HGR2, 67 au.) eta espezifikoaren segidan ageri den lehena ere garai berekoa da (*Epeleborda* (1797-1833, HGR2, 48 au.). Idatzizko adibide gehien dituen generikoetarikoa da, eta beste izen baten aurretik nahiz ondoren dokumentatzen da; hona horren zenbait adibide: *borda de Arizola* (1863, HRU, 53 au.), *Arizola e su Borda* (1863, URU, 145 au.), *Arizolaborda* (1855, *caserío*, UEA1) eta *Arizola-borda* (1857, *casa de labor*, HUA48, 71 or.). Hortaz, hasieran generikoa zena, zenbait kasutan zati espezifikoaren osagai bihurtu da denboraren buruan. Loturez ari garenez, leku genitiboaren hondarkiaren ondoren ere jaso dugu (*Urruzuna garaico borda*, 1857, HUA47; *Bezkitako Borda*, 1983, GFA2). Ahozko tradizioan, idatzizkoan bezala, bietarikoak daude (*Mulixkoko borda* [múlixkokò bordá], Amu.; *Larratxuriborda* [lárratxuribórdà], Ek.).

Badira gurean *etxola* bigarren osagaitzat duten toponimo franko, baina, haatik, idatzizko aipamen bakarra 1951. urtekoa da[440] (*Anchoco-echola*, 1951, UUA18). Areago dena, nahiz eta ahozko tradizioan ugari azaldu[441], informatzaile gutxik erabiltzen dute, eta ezagutzen dutenek, gainera, *txabola* berriarekin nahasten dute (*Aritzako etxola* [áritzakò étxolà] / *Aitzako borda* [ái̯tzakò txábolá], Amu.; *Munttoko etxola* [múnttokò étxolà], Amu.). Hori argiturik, diogun, generiko moduan, *txabola*-ren aurreneko idatzizko agerraldia 1951. urtekoa dela[442] (*Anchoco-chabola*, 1951, UUA23). Hona hemen beste ale bat: *Malsazar-chavola* (1962, UTC). Berriemaileek espezifikoari leku genitiboaren hondarkiarekin lotuta darabilte beti[443] (*Akurrikako txabola* [ákurrikakò txábolà], Mari. 2).

---

439 Azken buruan frankoen hizkuntzarekin du zerikusia. Ikus, adibidez, Coromines (1976 [1954] I: 489).

440 Mitxelenak dio *etxola*-k izen konposatua dirudiela (< *etxe* + *xola*) eta, hortaz, *etxe* eta *txa(b)ola*-ren arteko gurutzaketa albora utz daitekeela iturburutako (*FHV*, 476).

441 Jabego genitiboaren hondarkiz lotuta ere ematen dute informatzaileek (*Postan etxola* [póstàn étxolá], Amu.). Kasu horretan *Posta* izengoitia dateke, Urnietan bazirelako, konparaziora, *Mielpoxta* eta *Poxta* ezizena zuten herritarrak.

442 *Anchoco-chabilo* (1951, UUA23) formaz ere azaltzen da, baina erratua irudi du, ANTSOKO ETXOLA deitu baitzaio usuenik. Ikus 8.1.1. §. Bide batez, diogun Tolosan *Txaboleta* (1753) oikonimoa biltzen dutela Elosegi Aldasoro eta Goikoetxea Gazpiok (2006: 179).

443 Badaude jabego genitiboaren hondarkiarekin lotutakoak, ELIOREN ETXOLA esaterako. Cf. Etxarri Aranazko (1821) *Elionbasoa* (*NTEM-XII*, 41). Hitzak hizpidea ekarrita, argi dezagun kasu marka hori, toponimian, 1870. urtean aurkitu dugula aurrenekoz (*Atabalarien-chabola*, 1870, HUA49).

Abeltzaintza eta nekazaritzarako eraikinen multzoarekin amaitze aldera, *garaje* osagaia duen toponimoa dago 1951. urteko Urnietako amilaramenduan (*Larranchuri-aldaco-garagia*, 1951, UUA18). Ageri denez gero, mailegu berria da, baserriko lanabesak gordetzeko lekua izendatzen duena.

Industria

Meatze-ren hiru aipamenak 1847. urtekoak dira eta Iztuetak egiten ditu hirurak, bere liburuan egin ere: *Arbitarte* (*meatzeac*, JII, 66 or.), *Gorosteguicoa* (*meatzeac*, JII, 66 or.) eta *Oberan* (*meatzeac*, JII, 66 or.). Laburzki mintzatuko gara: gainerakoan ezezaguna da gure esparruan. Gaztelaniazko *mina*-ren bi testigantza idatziak, berriz, 20. mendekoak dira (*Minas*, 1911, IM; *Mugas-erreka*, 1970, *mina*, L.M., 74 or.). Ahozko tradizioan ere badago *mina* mailegua duen toponimoa, zati generikoa izen espezifikoari leku genitiboaren hondarkiaren bidez lotuta duena (*Txolaberriko minak* [txólaberrikò mínàk], Amu.). Badira *harrobi*-ren ahozko adibideak ere (*Ayardiko arrobiya* [áyardikò árrobiyà], Larr.; *Zuluetako arrobiya* [zúluetakò árrobiyà], Mari. 2).

Arragua terminoaren estreinako agerraldia 1467. urteko idazki batean dago, baina espezifikorik ez da zehazten ondoren: "... *devia cortar leyña de los dichos terminados de Epela pa las rraguas e quemar de venas de las ferrerias* [...]", (1467, HUA5). Hortik aurrera badira adibide gehiago 18. mende erdi alde arte, betiere espezifikorik zehaztu gabe. Hona hemen azkenetako bat, 1722. urtekoa: "... *hauerse echo á costa de los dichos Caminos y su mujer, un nuevo oio de quemar arraguas* [...]", (HUA32). Informatzaileek ez dute *arragua* hitza ezagutzen, eta ez da harritzeko, horrelako eraikinak aspaldi samar galdu zirelako[444].

Badago *labe* generikoa duen toponimoa ahozko tradizioan[445] (*Telleiko labia* (1989, HUTB), horrelako azpiegiturak egun ez erabiliagatik. Badira *karobi* erabili delako aditzera ematen dutenak ere[446] (*Maizuloko karobiya* [mái̯zulokò károbiyà], K.).

---

444 APARRAIN burdinolarenak baizik ez dirau zutik.

445 1983. urteko jabetza-mapa batean *Caserio Labezar* (IGN2) irakurtzen da.

446 Bazen Urnietan *Karobieta* izeneko tokia, idatziz aurreneko aldiz 18. mendearen amaieran ageri dena (*Carovieta*, 1794-1831, UGR3, 13 au.). Egun, ordea, ez dago haren aztarnarik Urnietan.

Ola-ren idatzizko aipamen bakarra Iztuetaren 1847ko *Condaira*-n irakur daiteke (*Plazaola*, *ola*, JII, 67 or.) eta ahozko tradizioan *zahar* izenondoa hartu duten bi erakusgarri besterik ez daude, *Goiko Urruzunako Olazarra* (1989, HUTB) eta *Ereñotzuko olazarra* (1989, HUTB). Olak aspaldi samar desagertu ziren gurean.

Errota maileguari doakionez, osagaitzat duen toponimo bat baino gehiago daude gure esparruan. Aurreneko erakuskaria 1843. urtekoa da[447] (*Epele-errota*, HUA44) eta hurrengoa, berriz, 1857. urteko baserri-izendegikoa. Generikoa izateko, nahiko tradizio idatzi aberatsa du, beraz. Ahozko tradizioan leku genitiboaren hondarkiaren ondoren erantsitakoak (*Ezioko errota* [ezíokò érrotà], Altz.) eta zuzenenean itsatsitakoak (*Epelerrota* [epélerrotà], K.) daude. Espezifiko ere bihurtu da, *Errota* ([érrotà], Ezk. b., Lor. b.) Aranoko oikonimoa lekuko.

Elurzulo espezifikoaren jarraian dagoen idatzizko aipamen bakarra 1960. urtekoa da ("... *nevero conocido por 'Leiako elurzuloa'* [...]", (LPB, 53 or.). Bestalde, badira ahozko adibideak, *Altzibarko elurzulua* ([áltzibarkò elúrzuluà], Mari. 2) kasu. Elkarguneko txistukariaren ahoskerari erreparatzen bazaio, igurzkariak edo afrikariak gailentzen diren jakitea zaila da, berriemaile batengandik bestearengana gauzak aldatu egiten baitira, eta zenbait kasutan, gainera, informatzaile berak bietakoak ematen baititu; aski izan bedi horren estenplutzat *Mantaleko elurzulua* ([mántalekò elúrzuluà], Mari. 2) / *Onyoko elurtzulua* ([ónyokò elúrtzuluà], Mari. 2) parea.

Fábrica terminoaren estreinako aipamena 18. mendearen amaierakoa da[448] (*Fabrica de anclas*, 1794-1831, UGR3, 16 au.), baina izen espezifiko baten ondoren 1864. urteko agirian aurkitu dugu aurreneko aldiz[449] (*Fagollaga fabrica*, 1864, HUA47). Badago *fabrika* mailegua bigarren osagaitzat duen beste toponimoa[450].

---

[447] Eleizaldek (1927: 629) bere zerrenda alfabetikoetan aipatzen du *Epele-errota*.

[448] Adibide gehiago jar genitzake: *Fábrica de Fagollaga* (1870, HUA49), *Fabrica de Cementos* (1911, IM), *Fabrica de Latze* (1911, IM), *Fábrica de Productos Químicos* (1942, IGC1) eta *Fábrica Latxe* (1983, IGN2). Batzuetan *fábrica* eta *ferrería* hitzak uztartzen dituzte eskribauek, konparaziora, 1857. urteko izendegian *fábrica de ferrería Fagollaga-barrena* (HUA54, 46 or.) irakurtzen delako.

[449] 1843. urtean *Fabrica* (HUA43) formaz agertzen da, hots, *Fagollaga* osagaia gabe.

[450] Hizkera arruntean, hasierako *F*- igurzkaria *P*- bihurtzen da (*pabrika*) batzuetan, baina ez beti.

Nolanahi ere, ahozko tradiziotik bildua eta berria denez gero (*Leongo fabrika*, 1989, HUTB), toponimia arloko generikotzat duen garrantzia ikusteke dago.

19. mendearen amaieran argindarra ekoizteko azpiegiturak garatzen hasi zirenetik, toki askotan indarretxeak, ubideak eta presak eraiki dira gure esparruan. Gertakari horrek izan du eragina hemengo toponimian eta, esate baterako, *zentral* maileguaren (*casa de máquinas*, *central hidroeléctrica*, *central eléctrica*, *electra eta central*) berri ematen duten toponimo franko daude[451]. Aurretik dauden izen espezifikoek eraikuntza dagoen tokia adierazten dute (*Agoñoko zentrala* [agóñokò zéntralà], Aparr.; *Abañoko zentrala* [abáñokò zéntralà], Aska.) edo, bestela, jabea (*Errenteiko zentrala* / *Errenteriko zentrala*, 1989, HUTB).

Industrialde-ri lotuko gatzaizkio azkenik. Erreferentzia guztiak 1989. urtean Aranzadi Zientzi Elkarteak egindako bilketetan irakurtzen dira, *Ibarluzeko industrialdea* (1989, HUTB) konparaziorako, eta aski izan bedi bere laburrean agertu nahi genukeena agertzeko: berria da gure esparruan, hona euskara estandarrarekin iritsia.

Ostalaritza

Behinola *cantina* erabiltzen zela erakusten duen toponimoa dago ahozko tradizioan (*Kantina Muatz* [kantína múatz] / *Kantina Muaz* [kantína muáz], Etxol.) eta *taberna* mailegua bigarren osagaitzat duen bat ere bada (*Besabiko taberna*, 1989, UUTB). Hedadura murritzekoak dira biak ere.

Kirolak

Frontón gaztelaniazkoaren testigantza bakarra 1983. urteko mapa batean aurkitu dugu (*Fronton*, 1983, GFA2), baina badaude *frontoi* mailegua gurean hedatu dela erakusten duten toponimoak, *Pikuako frontoya* ([píkuakò fróntoyà], K.) adibidez[452]. Aski toki ezaguna izendatzen du.

---

[451] Cf. Orexako errotaren ondoan dagoen Lizartzako *Zentrala* (1999, LIM), edota Irungo *Zentraleko erreka* (1998, IRM).

[452] Pilotaleku berari dagozkio.

Toki publikoak

Gaztelaniazko *Escuelas públicas* terminoarekin has gaitezke. Lehen testigantza 1911. urteko mapa batean kausitu dugu (IM) eta, izenondorik gabe, *escuela*-ren aurreneko lekukotasuna 1983. urtekoa da (*Escuela*, GFA2). Bietan segidan espezifikorik ez agertzea azpimarratu beharra dago, toponimia alorrekoak izan beharrean kartografia alorrekoak direlako. Euskarari dagokionean, *eskola* maileguaren erakusgarri bat besterik ez dago (*Paollako eskola* [paóllakò éskolà], Txil.).

Ereñozu-lonja (1937, HUA57, 460 or.) oikonimoa da gurean *lonja* erabili delako aztarna bakarra[453]. Bestalde, *katea* generikoari dagokionez, osagai hori duten bi toponimo daude ahozko tradizioan (*Aranoko katea* / *Aanoko katia*, 1989, HUTB; *Paguako katia*, 1989, HUTB). Argi dezagun *kateak* 18.-19. mendeetan —alderdi honetako bideen mantentzea ordaintzeko— Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundiek bideetan jarritako postu edo aduanak zirela[454]. Galduxe dagoen generikoa da, hortaz.

Administrazio-elementuak

Espero izatekoa denez, *mugarri* bigarren osagaitzat duen ahozko toponimo bat baino gehiago daude Zilegimendietan[455] eta aski izan bedi adibidetzat *Unamunoko mugarriya* [únamunokò múgarriyà] (Ezk. b.). *Hirumugarri* eratorriaren estreinako aipamenak (gazt. *mojón triangular* eta *trimojón*), 19. mendekoak dira ("... *mojon triangular que vulgarmente llaman Irumaria* [...]" (sic.), 1833-1835, DUA3; "... *trimojon, llamado vulgarmente Yrumugarria* [...]", 1797, HUA41), baina, ahozko tradizioan, ez da azaltzen generikotako[456]. Ildo horretan, argi dezagun gure esparruan hirukoei *mugarri* deitzen zaiela egun, gainerakoei bezala alegia.

---

[453] Bada Hernaniko *Portu* auzoan (gure esparrutik kanpo) *Lonja* izeneko antigualeko etxea. Isastik (1972 [1625]: 526) aipatzen duen *Portua* oikonimoa dateke.

[454] *Kateak* direla eta, honela mintzatzen da Letona (1979: 13) Garagartzako (Mendaroko) azterketa etnogafikoan: “La posición fronteriza está señalada por los toponímicos de “Cataia” (donde se cerraba la carretera con una cadena para el control de entradas y salidas), […]”. Cf., konparaziora, Lekunberriko *Kate-ko borda*; Elosegi (1972: 213).

[455] Oinarritzat *mugarri* duen toponimo baten lehen aipamena 1628. urtekoa da (*calzada de Mugarrieta*, DUA1) eta hurrengoa 1797koa ("*Otro muy visible, llamado Mugarriluce, que es de piedra del propio Monte llamada Oindiarria*", HUA42).

[456] Badaude *(H)irumugarri* errotzat duten zenbait izen espezifiko, "... *montazgo denominado Yrumugarrieta* […]", (1868, DJE1) eta "... *punto de Yrumugarrieta* […]", (1899, HUA52), esate baterako.

Artamugarri-ren lehen tetsigantzak 1607. urtekoak dira[457] ("... *mojón del medio que llaman artamugarria* [...]", HUA23) eta ohar bedi hitz hori gure esparruan baizik ez dela kausitu orain artean, *haustarri*, *hausterratza* / *hausterritza* delako saroien erdiko harriak izendatzeko Gipuzkoan gailentzen den terminoa. Toponimia alorreko generikotzat ez dugu kausitu, ordea (cf. ARTAMUGARRI). Aurrekoaren antonimoa den *baztermugarri* hitzaren agerraldi bakarra dago begiratu dugun dokumentazioan, hau ere 1607. urtekoa: "... *un mojon viejo que llaman Vazter muga arria* [...]", (HUA23). Ez dugu toponimian idoro eta egun *baztermugarri* ez da erabiltzen gurean, saroien kanpoko muga adierazten duten harriei *mugarri* esaten baitzaie.

Erlijioa

Ahozko tradizioan badira *galbario* / *kalbario* mailegua zati generikotzat duten zenbait toponimo, guztiak gurutze-bide berari dagozkionak: *Aranoko kalbayua* [aránokò kálbayuà] (Txim.), *Entzingo galbayua* [éntzingò gálbayuà] (Ezk. b.), *Entzingo arriko galbayua* [éntzingò árrikò gálbayuà] (Ezk. b.), *Gaartzako galbayua* [gaártzakò gálbayuà] (Ezk. b.), *Unamuneko galbayua* [únamunekò gálbayuà] (Ezk. b.) / *Unameneko galbayua* [únamenekò gálbayuà] (Lor. b.). Bost etsenplutan hitz hasierako herskaria ahostuna izatea da aipagarriena[458].

Gaztelaniazko *ermita*-ren lehen aipamenak 16. mendekoak dira, 1529. urtekoak hain zuen[459], baina lekukotasunak ez dira hor ahitzen. Bi adibide ekarriko ditugu honera diogunaren lekuko: "*Nuestra Señora de Zucuñaga* [...]", (1625, *ermita*, LMI, 216 or.) eta "... *ermitas llamadas Sta. Bárbara y Ciuñaga* [...]", (1850, *ermita*, PM, 107 or.). Badago, gainera, ERMITA izeneko baserria[460] (BARINGARATEERMITA eta ERMITAETXE ere esaten zaio) eta hori ez da adibide bakarra, ezta gaurkoa, badirelako bizileku bihurtu diren ermita gehiago Zilegimendietan; URRUZUNOkoaz ari gara[461]: *Casa Hermita de Urruzuno* (1764, GPAH 2664, 41 au.), "*Hermita de Urruzuno*, *oy casa donde hay*

[457] 18. mendeko aipamen hau ere badago: "... *conformes dixeron era el mojon llamado arttamugarria, ó centrical* […]", (1773, VEK1).

[458] Ikus 8.1.1.§.

[459] Agirre (1992: 14).

[460] Ikus 8.1.1. §.

[461] Gauza bera agitu da Goizuetako *Berdabioko* ermita hagiotoponimoarekin.

habitación", (1774, GPAH 2669, 122 au.). Espero izatekoa zenez, ahozko tradizioan jaso dugu *ermita* mailegua eta, xehetasunetan sartuz, honatx hiru lekukotasun: *Eeñazuko ermita* ([eéñazukò érmitàn], Larra., *in.*), *Santiyoko ermita* [sántiyokò érmità] (K.) eta *Zikuñako ermita* [zíkuñakò érmità] (K.).

Erlijioari eskainitako lerrookin bukatzeko, bi hitz s*eroretxe*-ri buruz. Lekukotasun bakarra ahozko tradiziotik bildua da[462] (*Zikuñako seroretxia*, 1989, HUTB) eta esan gabe doa ermitako sakristau andrea bizi zela han (Cf. APAIZETXE).

Gotorlekuak

(*Casa*) *Torre*-ren lehen aipamena 1610. urteko idazki batean aurkitu dugu, baina espezifikoaren aurrean baizik ez da azaltzen ("*La torre de Epela que es* [...]", HUA25). Hortik aurrera *torre* mailegutzat azaltzen da, beti eskuinean: *Epele-torre* (1843, HUA44) eta *Epele-torreá* (1857, HUA48, 45 or.). Azkenik, diogun *Epeletorre* ([epéletorrè], K.) formak bizirik dirauela ahozko tradizioan.

Komunikabideak

Bide-ren aipamen guztiak ahozko tradiziotik bilduak dira (*Ernanibasoko biria*, 1989, HUTB; *Borrotola biria*, 1989, HUTB) eta bada eratorri berezia, **karlistabide* hain justu[463], gurean hiru erakuskari dituena. Forma bana dute: *Karlixtabiria* ([kárlixtà bírià] / [karlíxtabirià], Ol.), *Karlixtabidia* ([kárlixtabidià], Aran.) eta *Karlixtabide* [karlíxtabidè], Goi.). Dakigula ez du Donejakue bidearekin zerikusirik[464] eta, bestalde, esan beharrean aurkitzen gara ez dugula **Hernanibidea* bezalakorik kausitu[465].

[462] Jakina, gure esparrutik kanpo ere ezaguna da. Ataunen, esaterako, *Segore Etxe* ('casa seroral') jasotzen du Arin Dorronsorok (1929: 28).

[463] C. Whynne-Hammondek (1992: 39-41) *kontrabandorako bideak* eta *armadentzako bideak* azpimarratzen ditu Ingalaterrako toponimia aztertzean. Euskal Herrian ere badaude *Lapurbide* eta antzekoak, Ataungoa kasu. Ikus (1999, ATM) eta Arin Dorronsoro (1928: 148).

[464] Cf. Arnegiko *Napoleonen bidea*; Gorrotxategi Nieto (2007: 145).

[465] Ikus *op. cit.*, 147.

Estrata mailegua bakan azaltzen den izena da. Ezagutzen dugun mostra bakarra espezifikoari leku genitiboaren hondarkiaren bidez dago lotuta[466] (*Pardiolako estrata*, 1989, HUTB). Ohar bat, bidenabar: ez dugu *kamio* (*kamiyua*) terminoaren berririk jaso toponimia alorrean bide eta errepide nagusiak izendatzeko[467]. Azkenik, *zubi* osagaia duten toponimoak daude ahozko tradizioan (*Alimoiko zubiya* [álimoi̯kò zúbiyà], Bent. Eta Larr. / *Alumeiko zubik* [álume□kò zúbìk], Eg. 1); *Antxuntxarreko zubiya* [antxúntxarrekò zúbiyà], Amu.), asko ez badira ere.

Elementu bakartuak

Gizakiaren arrastoarekin lotura duten generikoekin bukatzeko, ahozko tradizioan *parada* ('ehizan zelatan egoteko tokia') mailegua bigarren osagaitzat duten hiru toponimo daudela esatea besterik ez zaigu gelditzen (*Erlian para*, 1989, HUTB; *Gorrin para*, 1989, HUTB; *Mandillen paa* [mándillèn paá], Arg.).

6.2.5. Geografia eta administrazio alorreko banaketa

Banaketa orokorrak

Paraje-ren berri ematen duen toponimorik ez dugu opatu, berriemaileek erabilitako hitza izan arren, toki-izenez ihardukitzean bereziki. Ildo horretan, bokalarteko dardarkari ahularen erorketa burutzen da normalki eta, artikulua erabiliz gero, amaierako bokalaren ixtea ere bai (*páajià*).

Cuarto maileguaren lekukotasunak jabegoarekin lotutako idazkietan daude batez ere eta toponimo berari dagozkio beti. Lehenbizikoa 18. mendearen bukaera aldekoa da (*Usoco cuarto*, 1797-1833, HGR2, 72 au.) eta azkena, berriz, 1836. urtekoa (*Usoco cuarto*, 1936, HUA57, 154 or.). Azpimarratzekoa da izen espezifikoaren (USOKOren) ondoren azaltzea (eta ez aurretik), euskal generikoaren eitea baitu horrela[468].

---

[466] Salaberrik (1990: 66) aditzera ematen duenez, bi pareta arteko bideari *estarta* esaten zaio Goizuetan (Uxueko irakasleari J. J. Zubirik ahoz esana). Sarasolaren (1996) aburuz, badu 'errekarriz lauzatutako bide edo kalea, bereziki meharra edo aldapan dagoena' adiera ere.

[467] Cf. Salaberri (1990: 66) eta Jimeno Jurio (1987: 220).

[468] Ikus *EAEATB*, 796-797.

Lote[469] gaztelaniazkoari lotuko gatzaizkio orain. Erakuskari guztiak 20. mendeko idazkietan kausitu ditugu, "... *lote llamado Azqueta* [...]", (1920, HUA57, 392 or.) konparaziora eta, irudi du 19. mendearen bukaeran burututako Hernaniko zilegimendien zatiketarekin duela zerikusia, erreferentzia guztiak hango jabetzenak direlako. Hori horrela delarik ez da ulergaitza "*1/4 lote del Zillegui nº 147* ", (1934, HUA57, 22 or.) eta antzeko esamoldeak egotea. *Lote* maileguari dagokionez, badaude ahozko tradiziotik bildutako testigantzak (*Antonetxolan lotia* [ántonetxolàn lótiá], Amu.; *Etxerreako lotia* [etxérreakò lótià], Txab. 1), eta toponimian, nahiz toponimiaz kanpo, informatzaileek ezagutu eta baliaturiko hitza da (ikus MUTILZARRAREN LOTEA). Bada, agian, *puska* generikoaren erbilpena adierazten duen toponimoa ere, *Zamielapusko* ([zámielapuskò], Ezk. b.) hain zuzen, eta *puska*-rekin zerikusia balu, orduan, hitz amaierako bokala erdikoa izatea azpimarratu beharko litzateke, eta (balizko) gertaera hori leku genitiboaren hondarkiaren erabilpenarekin lotua legokeela ere bai.

Muga (gazt. *confín*) terminoaz bi hitz baizik ez. Aurreneko adibidea 1773. urteko *Suelcazucomuga* (VEK1) da[470], generikotzat tradizio idatzi luze samarra duela erakusten duena, Ahoz ere espezifikoari genitiboaren hondarkiarekin lotuta jaso dugu beti (*Antxistako mugako urkiya*, 1989, HUTB; *Zilleiko muga*, 1989, HUTB).

Gaztelaniazko *parte*-ren lehen aipamena 1536. urteko idazki batean dago ("...*en la parte que llaman e dizen Aparraynondoa* [...]", 1536, HUA8). Orduz geroztik hainbat testigantza daude 20. mende arte, baina, halere, gehienak 16. mendeko dokumentazioan kausitu ditugu, aurrenekoa bezala. Bada *parte* maileguaren erakuskari den ihartutako toponimoa, 19. mendearen erdialdeko idazki batean opatu duguna (*Ibarluce partea*, 1854-1855, HTR7, 18 au.). Berriemaileek, ordea, *parte* bigarren osagaitzat duen izenik ez dute ematen, gure esparruan toponimiatik landa ezaguna eta erabilia izan arren.

---

[469] "En la explotación y aprovechamiento del comunal jugó un papel importante la distribución o reparto periódico de lotes (de tierra o leña) ente los vecinos, hecho generalmente mediante "sorteo" (de donde *sors, sorte(m), suerte*). Las "suertes" de tierra recibieron distintos nombres: […] 'lote'."; Jimeno Jurio (1987: 435). Nafarroan *zorte* ere bada, honen adierazteko.

[470] Ikus 8.1.1. §.

Termino zehatzak

Concejo-ren aztarna bakarra 1467. urteko izkribu baten 18. mendeko kopian kausitu dugu ("... *concejos de San Seuastian y Hernani* […]", HUA6) eta 16. mendean ere dokumentatzen da[471]. Egun gaztelaniazkoa ihartuta dago, eta euskarazko *kontzeju* (Gipuzkoan 'udaletxea' adiera duena) ere seguruenera bai, Urnietan, esaterako, udaletxe azpiko pilotalekuari oraindik *kontsejupe* esaten zaion arren. Xehetasunetan sartuz gero, bokalarteko txistukaria —igurzkari nahiz afrikari— mihi-punta hobietako ahoskatzeaz gain[472], mugatzailea eranstean herskari ezpainbikoaren epentesia dugu hiatoan (*kontseju*+ *b* + *a*).

Ahozko tradizioan *bailara* mailegua bigarren osagaitzat duen toponimorik ez dugu topatu eta ezagutzen dugun erreferentzia bakarra 1976. urte aldera Urnietako udalak herriko baserrien atalburuetan ezarritako txartela da[473]. Baserria dagoen auzoa jakitera ematen da bertan, esate baterako:

Goiburu baillera
Ayerdi baserria

Barrio gaztelaniazkoaren estreinako agerraldia, berriz, 1870. urtekoa da ("*Comprenderá Ereñozu, el barrio de este nombre y los de Fagollaga y Aparrain que componen el territorio denominado Urume-erreca* [...]", 1870, HUA49). Gainerakoan, 20. mendean azaltzen da batez ere eta honatx bi testigantza: *Barrio Picoaga* (1920, HUA57, 89 or.) eta "... *barrio Urumea* [...]", (1993, D.V.). Euskaraz ere *barrio* (*bárriyo / -yua*) erabiltzen da gure esparruan eta ematen du mailegu hori ez dela gaurkoa, LATXAn jaiotako *Txirrita* bertsolariak 1930. urteko bertso batzuetan honela baitzioen[474]:

Ernanin bertan bataiatuak,
***barriyu** ortan aziyak:*

---

471 "*... los uienes del dicho concejo para hazer la dicha obra* […] ", (1519, HUA, D-4-1-1).

472 Urnietako plazan dagoen *Kontsejuzar* etxea *Conseju zarra* formaz dokumentatzen da 1925. urtean (Murugarren, 1974: 162); *Consejo viejo* itzulpena ere ageri da (UEA1), 1855ean.

473 Ikus Salaberri (1999b: 118).

474 Zabala (1992: 442).

Etxabi noizbait erabili delako lekuko datekeen ihartutako toponimoa dago 1595. urteko idazki batean. Bi aldiz irakurtzen da eta bigarren aipamenean, lehenbizikoan ez bezala ("... *dos herrerias llamadas Ereñoçu echabi* […]") espezifikoari elkartuta idatzi zuten ("... *herrerias de Ereñoçuchavi* […]", 1595, HUA10). Ohar bedi bigarren horretan hitz hasierako bokala erori egin dela. *Etxondo* (gazt. antepuertas) generikoaz ere laburzki mintzatuko gara: erakuskari bakarra dago (*Anso echaondo***,** 1951, UUA18) eta, informatzaileek ez digute aipatu.

Horrelako eremu mugatuek garrantzi handia zuten behinola, baina esan beharrean aurkitzen gara gaztelaniazko *ejido*-ren euskal ahaide garbirik ez dugula aurkitu gure esparruko toponimian[475] (cf. ITXITUZ BARRENA). *Ejido*-ren aurreneko erreferentziak 1467. urtekoak dira ("... *dieron por apartado e senalado por exido de la ferreria de Epela de suso* [...]", HUA5) eta azkenekoak, berriz, 18. mendekoak. *J*-z idatzirik ere topatu dugu ("... *ejido de Sarasain* [...]", 1784, HUA40), gehienetan *x* grafema erabiltzen bada ere. *Zilegi* zentzua egotzi izan zaio, baina, gure esparruan behintzat, *exido*-ak erabilpen mugatuko esparruak ziren, zilegimendiak ez bezala[476], Donostia eta Hernaniko kontzejuek baizik ustia ez zitzaketenak, eta ez herritar orok (ikus 2.9. §). Ildo horretan, Aierbek (1995: 120) Legazpin *exido* eta *goiburu* adierakideak zirelako lekukotasuna argitaratu zuen ("... terminos e exidos comunes llamados goyburus [...]").

Geografia eta administrazio alorreko banaketa zehatzerako baliatutako generikoekin bukatzeko, *saroi* (gazt. *pardina*, *cubilar*, *sel*) toponimoari lotuko gatzaizkio. Adibide bat baino gehiago daude gurean eta aurrenekoak, zati generikoak izateko, nahiko zaharrak dira, 1683. urtekoak hain zuzen ("... *arroio de Anzisarobe* [...]", / "... *arroio de Anzusarobe* [...]", HUA28). Ahozko tradizioari dagokionez, genitiboaren hondarki bidez

---

[475] Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 103 eta 154) *Beorrisidua* (*Bigor-ichua*, 1901) eta *Idiso* (18.) (*Isirubitarte*, 1818) izenak zerrendatzen dituzte Oiartzunen eta Satrustegik (1996: 299) *dixidu* jasotzen du Goizuetako udal ordenantzez jardukitzean. Guk ere, Artikutzan (Goizuetatik atera gabe), *Urdallucodisidua* (499 au.) / *Urdalluecodisidua* (517 au.) kausitu dugu Nafarroako Artxibo Orokorreko 1780ko agiri batean. "*Traslado del amojonamiento de los seles sitos en el término general de Anizlarrea, pribatibo* (sic) *de la Real Casa de Roncesvalles, hecho precedente nombramiento de Maestro de Obras y personas versadas en sus montes y noticia de la villa de Goizueta*", errege-Auzitegiak, 156970 (I) zenb. Hala berean, *Ijuru* dugu Araman, *Agerre* baserritik gertu (1999, AAM), eta Eleizaldek (1930: 185), bestetik, Barrundiako *Igidua* (*Iguidua*) deitura aipatzen du. Azkenik, hara zer dioen Sánchez González de Herrerok (1985: 264) Trebiñuko toponimiaz diharduelarik: "En escrituras del siglo XIX en Albaina, Arrieta y Pangua es frecuentísima la forma *Ijidos*". Ikus *sasi* generikoaz egindako iruzkina.

[476] Cf. Moliner (1994: 1061).

lotutako formak eta hondarkirik gabe itsatsitakoak daude (*Agerreko sarobia* [ágerrekò sárobià], Txab. 1; *Mendaiyosarobia* [méndaiyosárobià] / *Mendabiyoko sarobia* [méndabiyokò sárobià], Amu.). Berriemaile batzuen ahotan *o* bokal erdikoa ireki egiten da, hau da, asimilazioa agitzen da (*Saabia* [sáabià], Bezk.). Ildo beretik, Azkuek (1984 [1905]: 939) *sarabe* bildu zuen Andoainen (cf. Aralarko *Tonto-saabe*, Elosegi, 1972: 177). Metatesia burutu duen aldaera ere jaso dugu (*Zuluetako saboya* [zúlwetakò sáboyà], Ek.). Zernahi gisaz, azken hori iformatzaile batek baino ez darabil (cf. Urbasako *Manosaboia* [Manusaroia], *NTEM-XVIII*: 41).

Sarobe forma *saroe* zaharraren erdi aldeko oinordea da, Gipuzkoako lurralde zabala eta Nafarroako ipar-sartaldeko zatia harrapatzen dituena. Hain zuzen, Gipuzkoan, Debatik Itsasondoraino eta Abaltzisketatik Oiartzuneraino doan eremua erdietsi du, baina isoglosa ez da erabat garbia, sartaldean batez ere eta, konparaziora, Zestoan eta Deban *korta* ere azaltzen da. Nafarroari dagokionez, Aranon, Goizuetan, Leitzan, Areson eta Malerrekan kausitu dugu, baita Lesakan ere, baina Bortzirietan *saroi* nagusitzen da. Arbizun ere badaude *sarobe* formaren testigantzak[477]. Etimoari erreparatuz gero, Mitxelenak (*FHV*, 413) dio *sara-* (‘red’) eta *ohe* ‘cama, lecho’ daudela *saroi*-ren oinarrian. Xehetasunetan sartuz, egungo forma *sare* izan arren, badira *sara* erabili delako lekukotasunak, sartaldeko euskara zuen Garibairen *Sara-ac* (‘las redes’) pluraleko nominatiboa adibidez[478]. Azkuek ere biltzen du. *Ohe*-ri bagagozkio, Errenteriako maisuak (*FHV*, 147) dio antzinako **-one* dela iturburua, ezaguna baita euskaraz sudurkari arteko bokala erori egin zela behinola. Gehiago da: antzinako *-on-* + *e* baturaren etsenplu asko daudela esaten du, **-one* sortu edo eman dutenak, eta neurri handi batean maileguetan gertatu direnak. Izan ere, *ohe* mailegua izan litekeela iradokitzen du[479].

[477] *Saroi*-ren hedaduraz gehiago nahi duenak, ikus beza Salaberri (1998: 72).
[478] *FHV*, 112.
[479] *Op. cit*., 148.

6.2.6. Megalitoen izenak[480]

Gure esparruko megalito baten idatzizko lehen erreferentzia Oiartzungo Udal Artxiboan dago, Barandiaranek biltzen duenez[481], 1495. urteko agiri batean hauxe irakur baitatiteke hitzez hitz: "... *un señalamiento de sepultura antigua e un grande morcuero de piedras* [...]", eta "... *otro mojón grande e ancho de manera de sepultura que llaman mojón de piedra de Santa Bárbara* [...]".

Urumeako zilegimendietako megalitoak izendatzeko bertakoek erabilitako generiko baten testigantza ere Barandiaranek karrikaratu zuen estreinakoz, 1926. urtean, ILINTXARBEn (Elduain eta Hernaniko mugan) dagoen Burdin Aroko hilobi bati Aranokoek *Jentilbâtza* (*Jentilbâtza de Altxista*) deitzen ziotela eta ETZELAn zeuden mota bereko beste lau egiturei *Etzelako-artxurik* esaten zitzaiela jakitera eman zuenean[482]. Handik urte batzuetara, 1951an, Hernaniko *Igoin-Akola* (IGORIN-AKOLA) megalitotegian egindako indusketen txostenean, TXOKOLATENEko Jose Maria Urdanpilletari EREÑOTZUko andre batzuk MALMAZARKO LEPOan zeuden *sepulturen* berri eman ziotela bildu zuten Atauri, Elosegi eta Labordek[483]. 1979. urtean, Del Barriok, Urnieta-Hernani bitartean dagoen MUNISKUEGAÑEKO nekropoli edo megalito multzoa *Kampu Santu Zarra* (sic) izenaz ezagutzen zela argitaratu zuen[484] eta, 1989. urtean, Del Barriok berak eta Tellabidek *Jentil-zulua* jaso zuten Neolitiko-Brontze Aroko hilobientzat, Donostian egindako ahozko toponimia bilketan[485]. Azkenik, Del Barrio, Tellabide eta Zalduak Neolitiko-Brontze Aroko hilobientzat *jurumaya* eta Burdin Arokoentzat *jentillen kanposantuba* generikoak zerrendatu zituzten urte berean Urnietan egindako ahozko toponimiaren azterketan[486].

---

480 *Harrespil*, *monolito*, *trikuharri*, *tumulu* eta *zista* izenaz sailkatzen diren megalitoetara bideratu dugu azterketa, batez ere lehenengo hiruren nondik norakoan sakonduz. Cf. Altuna et al. (1990: 2). Aurrerantzean, nahasketarik gerta ez dadin, *Neolitiko-Brontze aroko hilobi*, *Burdin Aroko hilobi* eta *harri luze tente* terminoak erabiliko ditugu lehen hirurak izendatzeko, arkeologiaren aldetik terminologia hori oso zehatza ez dela jakinaren gainean.

481 "... probablemente se trata de túmulos dolménicos que debieron estar situados en el punto llamado *Zarkumindegi* y *Urreizaga* respectivamente", Barandiaran (1975c [1920]: 395-396).

482 Barandiaran (1976 [1926]: 120-121).

483 Atauri et al. (1951: 28).

484 Barrio del (1979: 260).

485 "Zientifikoki" *Igoingo lepua I* (IGORINGO LEPOA I) izena duen Neolitiko-Brontze Aroko hilobiari dagokio. Ikus Tellabide (1995: 206).

486 *UUTB*.

Bestetik, OINDI-MANDOEGI mendikatean (Urumeako Zilegimendien hegoaldean) *jurumaya*[487], *maya*[488] eta *mesa de europa*[489] jaso ditugu guk Neolitiko-Brontze Aroko hilobientzat eta IGORIN-AKOLAn (Iparraldean), berriz, *patxikuarrik*[490], *pikuarriyak*[491] eta *soldau(k) gordetzeko arriya*[492]. Halaber, Aranon *jentillan baatzak*[493] kausitu dugu Brontze Aroko hilobientzat eta Urnietan *jentillen kanposantuk*[494]. Tente dauden harri luzeentzat *mojona* eta *muarri*[495] eman dizkigute berriemaileek eta *kanposantu* generikoa ere bildu dugu[496], megalito guztientzat erabiltzen dena. Azkenik, *Mugarriluze*[497] eta, agian, *Zorroztarri*[498] dituzkegu, baina gurean ez dira zati generikoak, espezifikoak baizik.

Aitortu beharrean gara, bidenabar, bibliografia alorreko bilketa egitean, ezpezifikoak eta generikoak bereiztea neke izan dela, gauza jakina baita megalito batek baino gehiagok dagoen tokiaren izena hartu duela, eta alderantziz ere bai. Nahasketa

---

487 [mayák / júrumáyak / júrukíñak zían / júrubà / jéntillà / júrubà ... áleorrèn béstià / arriléor / júrumayà], Bartolome Uranga (Amu.), 1989-IX-1. [júrumayá / árek néi̯ / itzái̯k gráziyà íntzianá / emántzianá. len dénboatekò júrunà], Bartolome Uranga (Amu.), 1992-II-17.

488 Bartolome Uranga (Amu.), 1989-IX-1.

489 ANTXISTAko Neolitiko-Bronze Aroko hilobia da *Mesadeuropa* [mesádeu̯ropá]. Juan Arregi (Ek.), 1994-IX-23.

490 Nikolas Agirre (Id.), 94-IX-10. Informazioa ez da erabat fidagarria.

491 Juan Lasa, (Larra.), 1994-X-12. Dena dela, datua ustela izan liteke, berriemaileak, bakarra izan zen aipamena egiterakoan adierazitako zalantzaz gain, gertuan dauden AIZPITARTEKO KOBAK induskatzean ezagutu zuen J. M. Barandiaran behin eta berriro gogoratzen baitzuen.

492 [oi̯ gwi ésate zjutekèn órdun sóldau̯k górdetzekò zéà / sóldau̯k górdetzekò árriyà / ésategíñun guk órrí], Pedro Santa Kruz (Ak.), 1993-IX-1. Nikolas Agirrek ere aipatzen du (Id.): [sóldau̯górdetzekò árriyà nik ua áttui̯zandunùn bétì], 1994-IX-10.

493 [guk jéntillàn báatzàk áttu izándu díu̯ / ála esáten géniyón], Jose Maria Legarreta (Maer.), 90-IV-16. Manuel Huizik ere erabiltzen du [jéntillèn báatzàk] (En.) 1992-II-6.

494 [lei̯tzá bítartiortàn núnai̯ diá / kánposantúk], Bartolome Uranga (Amu.), 1989-IX-1.

495 [ínterratù oi̯tán / da ola áu̯ndizki o ói̯takùk díanàk / áu̯ndikiyàn díanàk érdierdí mojónakìn / dípentiàk / múarrì áu̯ndiatekìn érdi erdìñ zián], Bartolome Uranga (Amu.), 89-IX-1.

496 Judumahaiak? [kánposantúk oi̯k]. Aurerrago honakoa jakitera eman zigun: [o□k dénbutekò jántillèn kánposantúk], Bartolome Uranga (Amu.), 1989-IX-1. Aingeru Lertxundik ere ahotan hartzen du *kanposantu* terminoa: [ántxistàn bai̯ kánposantù áu̯ndiyà] (Po.), 1989-IX-4.

497 MUGARRILUZE Hernani-Urnieta mugan dagoen mugarri baten izena da, harria dagoen hegia izendatzeko ere erabiltzen da. Hala berean, badago MUNISKUEGAÑEKO aztarnategi arkeologikoari *Mugarriluxe* deitzen dion informatzaile bat ere, Pio Arrieta (Txim.) hain zuzen (89-II-9). *Mugarriluze* ez da, noski, gurean bakarrik azaltzen, Iruñean, esaterako, izen hori duen parajea aipatzen baitute Jimeno Jurio eta Salaberrik (1992: 324-325). Cf. Barbaringo (Iguzkitza-Doneztebe ibarreko) *Mojonlargo* (1815); *NTEM-XXV*, 130. Ildo beretik, Legazpi-Antzuola mugan oraingoan, *Arriluçe* toponimoa megalito izentzat jotzen du Bähr-ek (1931: 143).

498 Euskal Herriko beste megalito batzuetan ere errepikatzen da, baina ez da batere ziurra horien izendapenarekin zerikusia duela, guztiok dakigunez, *zorroztarria* harri mota ere badelako. Gehiago da: gure esparruko megalitoa kokatzen den tokian harri mota hori dago. Cf. Urdiaingo *Deztera* parajea; *NTEM-X*, 91.

susmoren bat izanez gero artikulu edo liburuaren egileak jakitera emandako adierazpenak hartu ditugu aintzakotzat eta informazioa aurkezterakoan toponimiatik zuzenean hartutakoa espresuki adierazi. Informazioa antolatu eta emateko, berriz, Barandiaranek 1951. urtean "Raports entre la toponymie et l'archéologie au Pays Basque" komunikazioan erabilitako eskeman hartu dugu oinarri, megalitoen izenenetan gauzakiak (*-baratz* , *-etxe* , *-arri*) eta haiekin lotutako pertsonaiak (*jentil-*, *mairu-*, *judu-*) bereiziz[499].

Barandiaranen azterketa-ereduaren argitan *-baratz*, *harri*(-), *kanposantu*, *-mahai*, *mesa*, *mojon*, *mugarri-*, **piku-*, *sepultura* eta *-zulo* elementu edo gauzakiak eta haiekin lotutako *jentil-*[500], *judu-*[501], *Patxiku-* eta *soldadu* pertsonaia edo izakiak daude gure esparruko megalitoen izenenetan. *De europa* gaztelaniazkoa alde batera utziz gero, bi izenondo ikusten dira, *-luze* eta *-txuri*, baita aditz bat ere, *gorde*. Osagai horiekin Neolitiko-Brontze Aroko hilobientzat, *jentilzulo*, *(judu)mahai*, *mesa de europa*, *patxikuarri*, *pikuarri* eta *soldaduak gordetzeko harri* izenak sortzen dira, eta Burdin Arokoentzat, berriz, *harritxuri*, *jentilbaratz* eta *(jentilen) kanposantu*. Tente sartutako harri luzeentzat *mojón*, *mugarri* eta *mugarriluze* ditugu, eta azkenik, hor daude megalito guztientzat erabilitako *kanposantu* eta *sepultura* ere.

Gaztelaniaz idazten duten ikertzaileek askotariko terminoak darabiltzate gure esparruko egitura megalitikoei men egiteko, besteak beste, *cercos de piedra*[502], *dolmen*[503], *cromlech(s) pirenaico(s)*[504], *menhir*[505], *monolito*[506] *monumento*[507] eta *monumento megalítico*[508]. Megalito bat baino gehiago dauden gune edo tokientzat

---

499 Barandiaran (1978d [1951]: 139-143). Geuk ekarririko *adjektibo* (*-aundi*, *-luze* , ...) eta *aditz* (*gorde[tzeko]*) kategoriak ere hartu ditugu kontuan.

500 *Jentil* ('gentil, no cristiano') apelatiboaren harira, ez bedi ahantz herskari ahostunen eta ahoskabeen arteko oposizioa sudurkari ondoren indargabetu egiten dela eta, espero izatekoa zenez, mailegu berrienetan ez dagoela ahostuntzerik (*FHV*, 230). Bide batez, Fénié eta Féniék (1992: 87) diote *gentile* gaskoiak 'aitoren semea, erregezkoa' adiera duela.

501 Ohar bedi *judu* hitzean *-eu* diptongoa *-u*-ra murriztu bide dela (*FHV*, 100).

502 Barandiaran (1976 [1926]: 120-121).

503 *Op. cit.*, 120 or.

504 *Op. cit.*, 121 or. Barandiaran (1978 [1949]: 345-360).

505 Del Barrio (1979: 259).

506 Ibidem.

507 Peña Basurto (1960: 71-74).

508 Del Barrio (1979: 257).

conjunto hitza jaso dugu[509] eta megalito taldeak izendatzeko, azkenik, *estación prehistórica*[510], *estación dolménica*[511] eta *estación megalítica*[512].

Euskal generiko jakin bati lotuko gatzaizkio atal honekin amaitze aldera, aurreko gizalditik hona eremu arras zabala erdietsi duena, baina gurean, ahozko tradizioan bederen, ezezaguna dena. *Trikuharri* hitzaz ari gara. Barandiaranek *Triku-arri* formaz jardukitzean, *Trego-arri*-ren aldaera izan zitekeela iradoki zuen, eta alderantziz ere bai (*tregoarri* < *trikuarri*), baina, damurik, ez zuen argibide gehiago eman[513]. Mitxelenak, bestalde, 'higidura eza, gelditasuna' jo zuen *treku* oinarriaren esanahitzat *Apellidos Vascos* liburuan[514]. Gure uste apalean, aurreko bi ikertzaile horiek ekarritakoa gutxietsi gabe, ezinbestekoa da honako informazioa gogoan hartzea:

○ *Triku* animalia-izenaz jardukitzean, Jimeno Juriok eta Salaberrik (1992: 400) Iruñeko *Trikueta* toponimoa aipatzen dute, 16. gizaldian *Trigueta* (1571) eta *Triqueta* (1589) aldaerak zituena. Itxuraz, *triku* animalia-izenaren eratorria dirudi, baina ikertzaile nafarrok uste dute etorki hori zaila dela, Elkanoko Leizarragak, esaterako, *sagarroi* baitarabil, eta ez *triku*.

○ Beizaman dagoen *Trikumuttegi* toponimoan, *Triku*- osagaia *mintegi* (-*muttegi*) terminoaren ondoan dago eta bigarrena landareekin lotua dagoen izena da. Halaber,

---

509 Op. cit., 259 or.

510 Barandiaran (1976b [1928]: 263).

511 Atauri et al. (1951: 1).

512 Barandiaran (1976b [1928]: 263). *Megalitotegia* ere erabili da. Ikus Altuna et al. (1990: 2).

513 Hitzaren jatorri eta esanahiaz ez behinik behin. Xehetasunetan sartuz gero, argibideak 1972an eman zituen, hiztegi mitologikoan eman ere, iradokizun edo proposamena 1924. urtean egin arren. Lehenik eta behin, aitortzen du *treguarri*, Neolitiko-Brontze Aroko hilobiak izendatzeko Aralarren erabilitako hitza, Iturralde Suit jaunaren "aurkikuntza" dela eta, aurrerago, trikuharrirekin loturik egon litezkeen toponimo batzuek dakartza: "Hay un **Trikuarrieta** (hoy *Txikurriita*) 'lugar de **trikuarri**' en San Gregorio de Atáun, **Trikuegi** (Atáun), **Trikalepo** 'collado de trikuarri?' en el confín de Banca y Valcarlos, al S. del pico de **Laminaga**, donde existe un montículo artificial de piedras semejante a un túmulo dolménico. **Trikamuñoota** es un altozano de Cegama donde existe un dolmen". Barandiaran (1972: 226-227). Horiez landa, bada, konparaziorako, *Trekua* izeneko lekua Goñin (hilobia dago bertan); *NTEM-XII*, 166 eta Salaberri (2007b: 12).

514 Hona, hitzez hitz, auzi horri buruz dioena: "*Treku*, cf. para el sentido *triku-arri*, *trego-arri* 'dolmen', *trikatu* 'detenido', como *tregoatu*, y top. *Pausua* (lit. 'estación, parada') nombre popular de *Béhobie*: *Trecu*, *Aldabaldetrecu*. Cf. *piedra clamada Tricuarria*, en 1733 *Tricu (a)rrieta* , en Ataun (J. de Arin, *BRSVAP* 26 (1970) 164)". *AV*, 560b.

Urnieta partean *Trikulantegi*[515] fitotoponimoa dugu, eta bistakoa da *-lantegi* terminoa lur-langintzarekin lotua dagoela hor[516]. Gainera, adierei erreparatuz gero, Mitxelenak proposatutako *higidura eza* eta *gelditasuna* kontzeptuak erabiliz gero, *Trikalepo*, *Trikamuñoota*, *Trikulantegi* eta *Trikumuttegi* bezalako toponimoen esanahiek itxura gabekoak dirudite[517]: 'lepo geldia / geldien lepoa / gelditasunaren lepoa', 'muino geldia / geldien muinoa / gelditasunaren muinoa', 'lantegi geldia / geldien lantegia / gelditasunaren lantegia' eta 'mintegi geldia / geldien mintegia / gelditasunaren mintegia'.

○ Ahozko tradizioan gariaren jatorria eta hura ereiteko teknika —beste hainbat aurrerapen bezala— jentil, basajaun eta antzeko pertsonaia mitologikoekin lotzen da. Haiei jakintza sekretua ostu ziena *Samartin txiki* izan zen[518], baina, esan bezala, garrantzizkoena da megalitoekin lotutako kontakizunetan aipatzen diren pertsonaiak (jentil, basajaun eta antzekoak) izan zirela gariaren iturburua, hemengo mitologiaren arabera.

○ *Muta cum liquida* kontsonante multzoak gehienetan maileguetan azaltzen dira euskaraz eta, bestalde, latinezko *Triticum*, *-i* izenak ('garia') gaztelanian *trigo* oinordekoa utzi du.

Hori guztia horrela delarik, uste dugu *trikuharri*-ren sailekoak, Uharte Arakilgo *Urdenats deneko triguarrie* (1991, *NTEM- XII*: 166) adibidez, erromantzeko *trigo*-ren moldaketa edo euskalduntzeak izan litezkeela (< **trigu*) eta, azken buruan, hitz barruan herskari ahoskabea duen *Triku-* ere, zuzenean edo zeharka, latinezko *tríticum*-en ahaidea izan litekeela (cf. AKURRIAGA).

---

515 *Trikulantei* ([tríkulantè□], Amu.).

516 Gure esparruan badago BASOLANTEGI izeneko tokia ere (*Basolantegui*, 1951, UUA18). Cf. Muxika (1981: 1267).

517 Cf. Idiazabalgo *Triku erreka* (1999, IDM) eta *Trikuarriaga* (1999, IDM).

518 Barandiaran (1972: 93), s. v. *Gari* eta *Samartin*.

6.3. Gure esparruko izen generikoen aldaketak

6.3.1. Bokalak

Bokalak hitz amaieran

Astiroago aztertzen hasi baino lehen, bihoa aurretik datu bat: mugatzailea eranstearen ondorioz agitzen den herskari ezpainbikoaren epentesia (*-u* + *-a* > *-uba*) eta bokalerdiaren sabaikaritzea (*-i* + *-a* > *-ya*), bokalen hersketak (*-e* + *-a* > *-ia*; *-o* + *-a* > *-ua*) edota sabaiko afrikatuaren epentesia (*-i* + *-a* > *-iya*; *-i* + *-o* > *-iyo*) baino lehentxeago azaltzen dira idatzizko iturrietan. Hain zuzen, bokalen hersketa 19. mende arte ez da ageri idazkietan; ezpainbikoaren epentesia, berriz, 17. mendean dokumentatzen da eta bokal itxiaren sabaikaritzea 18. mendean. Hala berean, sabaiko afrikatuaren epentesiaren aurreneko lekukotasuna 19. mendekoa da. Izan ere, oro har, hersketak edo epentesiak erakusten dituzten aldaerak 19. mendearen erditik aurrera gailentzen dira, *-u* + *-a* > *-uba* izan ezik[519], ahozko tradizioan aldaketa guztiak automatikoak izatera iritsi arte. Zilegi bekigu gure esparruko tradizio idatzian irakurtzen den aldaketa zaharrena herskariaren epentesia dela azpimarratzea, automatikoa ez den bakarra ere badelako, eta gero eta indar gutxiago duelako.

Hersketei doakienez, *-o-* + *-a* > *-ua* gertatu delako[520] idatzizko aztarnak berandukoak eta urriak dira, eta 20. mendearen lehen hamarkadetako idazkietan kausitu ditugu betiere: *Lizarrei basua* (1920, HUA57, 531, 532 eta 633 orr.), *Egurrolaco-chulua* (1931, HUA57, 563 or.), *Igoingo-lepua* (1942, IGC1) eta *Lizarrategui-lepua* (1942, IGC1). Atzera so eginez gero, ordea, *-oa* hiatoa duten toponimoetan ez dago hersketaren zantzurik: *Hernanibasoa* (1712, HUA30, 87 au. eta bin.), *Ursaltoa* (1768, AT, 196 or.), *Arteguieta Colepoa* (1780, HUA39), *Losetaco zocoa* (1794-1831, UGR3, 12 au.), *Pagaluceco-chocoa* (1794-1831, UGR3, 19 au.), *Errolla buruco-chocoa* (1797-1833, HGR2, 73 au.), *Chocoa* (1794-1831, UGR3, 9 au.) eta *Oerangopagoac* (1833-1835, DUA3). Antzeko zerbait agitzen da aurrera begiratzen bada, *-ua* bukaera duen formarik ez baitugu aurkitu iturri idatzietan (*Castañal-zuloa*, 1951, UUA18; *Ezioko soroa*, 1982, CAG, 190 or. eta *Leiako elurzuloa*, 1960, LPB, 53 or.). Haatik, ahozko

519 Herskariaren epentesia erakusten duten formak nagusitzen dira, halere.

520 Mitxelenak ederki asko nabarmentzen duen moduan, erdi aldeko euskalkian *-o*-z eta *-u*-z amaitzen diren oinarrien deklinazio mugatua nahasi egiten da: *basua, lepua* (< baso, lepo) / *putzua*, *lekua* (< putzu, leku) (*FHV*, 130).

tradizioan *-o* + *-a* > *-ua* automatikoa da, eta, esate baterako, *kasko*, *munto*, *lepo*, *zulo*, *zoko*, *ursalto*, *baso*, *pago(ak)*, *soro*, *elurzulo* eta *kalbario* generikoei mugatzailea gehitzean beti gertatzen da.

Hiatoko *-e* bokalaren hersketa 1840. urtean dokumentatzen da lehenbizikoz (*Ercatz-arripia*, 1840, HUA43, 117 bin.), baina hortik aurrera, hersketa erakusten duen forma ugari egonagatik (*Ercaitz-arripia* (1857, HINGR2, 5097 zenb.; *Ercaiz-arripi* (1863, HRU, 50 bin.; *Larranchuri-aldaco-garagia*, 1951, UUA18), aldaketa automatikoa dela ezin liteke esan, hor ditugulako, esate baterako, *Vaso-aundi-larrea* (1850-1852, HTR5, 14 au.) eta *Ibarluce partea* (1854-1855, HTR7, 18 au.). Esan gabe doa *-ea* bukaera daukatenak *-ia* amaiera dutenak baino zaharragoak direla (*Ercatzarripea*, 1799, HUA42, 171 bin.). Ahozko tradizioan aldaketa automatikoa da, besteak beste, *leize*, *urgurutze*, *urbitarte*, *etxe*, *labe*, *seroretxe*, *bide* eta *sarobe* generikoen deklinaturiko lekuko guztietan gertatzen baita hersketa, egon salbuespenen bat badagoen arren[521]. Halaber, badaude hitz barruko *-e-* + *-a-* > *-ia-* inflexioaren lekukotasunak (*Elurzuloziarra* [elúrzulozíarrà], Mari. 2).

Kontsonanteen eransketei erreparatzen badiegu, gure esparruan, herskari ezpainbiko ahostuna garatzen da *-u* bokalaz amaitzen diren generikoei artikulua eranstearen ondorioz sortutako hiatoan, baina gero eta gutxiago. Epentesi horren estreinako erakusgarria 18. mendeko mapa batean dago (*Erreñazu Puzuba*[522], 1773, VEK1A); hurrengo mendean, ordea, toponimo horixe bera kontsonante epentetikoa gabe idatzi zuten, kasu horretan generikoaren eta espezifikoaren arteko lotura leku genitiboaren hondarkiaren bidez burutuz (*Ezelacopuzua*, 1833-1835, DUA3).

Ahozko tradizioan epentesiak badu indarra oraindik eta zenbait adibide ekarriko ditugu hona diogunaren lekuko: *Besabiko murruba* [bésabikò múrrubá] / [bésabikò múrrubà] (Ai.), *Intxustiko murruba* [íntxustiko múrrubà] (Amu.) eta *Antsokotxolako murruba* (1989, UUTB). Alabaina, araua ez da erabatekoa, aurrekoekin batera

[521] *Kate* generikoa dateke horietako bat (*Aranoko katea* / *Aanoko katia*, 1989, HUTB).

[522] Hasierako batzuren ahostunen ahoskabetzea bigarrenkaria datekeela deritzo Mitxelenak; *putzu* hidronimoarena sail horretako adibidetzat jotzen du (*FHV*, 217).

Akurrikako murrua [ákurrikakò múrruà] (Mari. 2) eta *Martindeiko iñostorlekua* [mártindei̯kò iñóstorlekuà] (Arg.) formak ahoskatzen baitituzte berriemaileek.

-*Obe* segidaren aurreneko erakuskariak 1683. urtekoak dira (*Anzisarobe* eta *Anzusarobe*, HUA28) eta, bi gizaldi geroago, toponimo beraren beste agerraldi batzuetan ere opatu dugu (*Anchisarobe* / *Anchistasarove*, 1833-1835, DUA3; *Aparrainsarobe*, 1840, HUA43, 117 bin.). Atzerago begiratuz ez da azaltzen, *saroe* forma duten 1467. urteko izenak lekuko (*Epelaco Saroecayçavera* eta *Saroecayz*, HUA5). Ildo horretan, *sarobe* terminoan baizik aurkitu ez dugun -*obe* segidaren benetako etorkia zein den ziur ez dakigu, bilakabidea -*o*- + -*e*- > -*obe* edota -*ohe* > *-*oge* > -*obe* izan baliteke[523]; alabaina, idatzizko lekukotasunik ez dagoenez gero, bigarren aukera horrek zailagoa dirudi. Ahozko tradizioan, *Agerreko sarobia* ([ágerrekò sárobià] (Txab. 1) bezala, espezifikoari leku genitiboaren hondarkiaz lotutakoetan beti egiten da epentesia, baita, *Antsusarobe* ([ántsusaròbe] / [ántsusarobè], Amu.) / *Antsosarobe* ([ántsosarobè], Amu.) / *Antzusarobe* ([ántzusaróbe], Mari. 2) eta *Mendaiyosarobia* ([méndaiyosárobià] (Amu.) toponimoen moduan, hondarkirik gabe zuzenean itsatsitakoetan ere. Mugatzailez hornituta erabiltzen denean -*e* + -*a*- > -*ia* hersketa automatikoa da. Azkenik, saroi izateari utzi ondoren *sarobe* osagaia gorde duten toponimoen formak saroi gisa iraun dutenek baino aldaketa handiagoak erakusten dituzte. Hona iritzi horren sostengutzat dakartzagun zenbait etsenplu: *Aparrainsoro* ([apárrai̯nsorò], K.), *Ansusabe* ([ánsusabè], Amu.), *Antsuzabal* ([ántsuzabàl], Amu. eta Mari. 2), *Antsosaabe* ([ántsosaabè], Ek.), *Antsusabe* ([ántsusabè], Mari. 1), *Antzusabe* ([ántzusabè], Amu. / [ántzusabé], Mari. 2), *Antzuzabal* ([ántzuzabàl], Mari. 2).

Bestalde, -*i* bokalaz amaitutako generikoei dagozkienetan, mugatu singularrean deklinatzen direnean sabaiko afrikatua garatzen da (-*i* + -*a* > -*iya*). Epentesi horren lehen erakusgarriak 19. mendearen erdialdekoak dira gure esparruan (*Portuco Echeverriya*, 1848-1850, HTR4. 10 au.) eta hortik aurrera ezin da esan tradizio idatzian amaieran -*i* + -*a* segida duten generikoen artean aldaketa automatikoa denik (*Picoagaecheverria*, 1937, A.B.; *Ezurrico-Eguia*, 1960, GS; *Añaingo mendia*, 1969,

[523] Cf. UBARAN. Ohar bedi, hitz amaieran, -*o(h)e*-k -*oi* eman duela erdiko eremuko euskalkiaren alderdi batean eta Nafarroako hizkera batzuetan, baina ez, ordea, gure esparruan. (ikus *FHV*, 120-121). Cf., adibidez, Leitzako *arratobe* ('arratoia'); Olano, 2005.

UUA10N; *Tximistako eguia*, 1982, CAG, 183-184 or.), sarritan azaltzen bada ere (*Zabuco-arriya*, 1889, HUA56; *Monte Etziogarriya*, 1898, EGZ; *Monte Eusquigarriya*, 1898, EGZ; *Kayondoco-eguiya*, 1898, EGZ; *Celay zaretaco eguiya*, 1920, HUA57, 633 or.; *Mushiqueiya*, 1932, HUA57, 107 or.; *Unzueco-eguiya*, 1942, IGC1). Argitu beharrean gara, bestalde, 16. gizaldira joanez gero, *-ia* hiatoarekin bukatzen diren formen artean ez dagoela sabaiko afrikatuaren garapenaren zantzurik ikusten (*Yarçasasia*, 1594, HUA17, 194 bin.). Toponimiaz kanpo ere berdin gertatzen da: "... *mojón del medio que llaman artamugarria* [...]", (1607, HUA23); "... *un mojon viejo que llaman Vazter muga arria* [...]", (1607, HUA23); "... *trimojon, llamado vulgarmente Yrumugarria* [...]", (1797, HUA41).

Ahozko tradiziotik jasotako formetan *-i + -a > -iya* eransketa automatikoa da[524]. Honatx jaso ditugun testigantzak, hori agertzeko aski eta sobera direnak: *Alimoiko zubiya* ([álimoi̯kò zúbiyà], Bent. eta Larr.), *Aerreko zabaleko muntteiya* ([áerrekò zábalekò múntte̯iyà], Mari. 2), *Agoñoko altzudiya* ([agóñokò áltzudiyà], Aparr.), *Ayardiko arrobiya* ([áyardikò árrobiyà], Larr.), *Borrotolamendiya* ([borrótolamendiyà], Txab. 2 / [borrótolaméndiyà], Txil.), *Entzingo arriya* ([é̯ntzingò árriyà], Txim.), *Etzioko arriya* ([etzíokò árriyà], Amu.), *Kontraskaitturriya* ([kóntraskai̯ttúrriyà], Latxe.), *Merkuko arriya* ([mérkukò árriyà], Txim.), *Presako sagastiya* ([présakò ságastiyà], Bezk.), *Unamunoko mugarriya* ([únamunokò múgarriyà], Ezk. b.), *Sanmielmendiya* ([sánmielméndiyà], Ezk. b.), *Zuluetako arrobiya* ([zúluetakò árrobiyà], Mari. 2), *Maizuloko karobiya* ([mái̯zulokò károbiyà], K.), *Zilleiya* ([zílleiyà], Ai. eta Po.), *Altamugarriegiya* (1989, OM), *Angeluittirriko aiztiya* (1989, HUTB), *Antxistako mugako urkiya* (1989, HUTB), *Antxuntxarreko zubiya* ([antxúntxarrekò zúbiyà], Amu.), *Arloteiko munttei* / *Arlotegiko muntteiya* (1989, HUTB), *Ayerdiko etxe berriya* (1989, UUTB), *Paaleiko mugarriya* (1989, HUTB), *Sauxarko paariya* (1989, HUTB) eta *Zerritokitako sansonarriya* (1989, HUTB). Salbuespentzat transkripzio erratua datekeen *Angilitturriko aiztia* (1989, HUTB) erakuts daiteke.

[524] Toponimiatik landa ere erabateko araua da gurean. Bartolome Urangak, esate baterako, *Arkiriya* ([arkíriyà], (Amu.) eta *Artamuarriya* ([artámuarriyà], Amu.) ebakitzen ditu.

Ildo beretik, *-i- + o > -iyo* epentesiaren lekukotasuna kausitu dugu. *Txirrita* bertsolariak 1930. urtean argitaratutako bertso batzuetan idatzirik dago: "*barriyu ortan*[525] *aziyak*". Ohar bedi *-iyo + a > -iyua* hersketa, ahozko tradizioan automatikoa dena (*Otraizko irriyua*, 1988, OBIE).

Hitz bi murriztapenez. Gure esparruko toponimian *-u + -ak > -uk* murriztapenaren erakuskari bakarra dago, *pago* generikoaren harira jaso duguna eta ahozko tradizioan baizik gertatzen ez dena (*Martinbeltzeneko pauk*, [mártinbéltzenekò páùk], Aparr.). Zernahi gisaz, generiko beraren aipamena dago 19. mendeko dokumentazioan eta ez da bokal erdikoaren hersketarik ikusten, ezta hiatoaren murriztapena ere (*Oerangopagoac*, 1833-1835, DUA3).

-a̱i̱-, *-o̱i̱-* + *-a* > *-aya*, *-oya* sabaikaritzeei lotuko gatzaizkie jarraian. *-Oya* segidaren lehenbiziko erakusgarria 18. mendekoa da gure eremuan[526] (*Silleguico Loya*, 1773, VEK1A) eta hainbat aldiz agertzen da dokumentazioan 20. gizaldia arte (*Sigericoloya*, 1942, IGC1; *Sigerico-Loya*, 1983, IGN1). *-Oia* segidaren aurreneko lekukotasuna, berriz, 1833-1835ekoa da (*Cilleguicoloia*, DUA3). Nolanahi ere, *-oya* idazkera erdarak berea duenez, *loya* eta *loia*-ren artean egiazko alderik baden ezin da jakin. Ahozko tradizioan sabaikaritzea automatikoa da eta, adibidez, *balkoi* zein *frontoi* maileguetan beti gertatzen da.

-Aya bukaeraren estreinako testigantza 20. mendekoa da (*Epeleko-celaya*, 1936, HUA57, 523 or.) eta, ohar bedi, sabaikaritzea ez dela idazki zaharretan lehenago azaltzen (*Acelacelaia*, 1739, HUA36; *Miquelacelaia*, 1739, HUA36). Ahozkoan, ordea, beti egiten da sabaikaritzea[527]. Modu berean, badaude *ai- + -o > -ayo* eta *-ayo + -a > -ayua* urratsen lekukoak gurean, hala nola, *Aranoko kalbayua* ([aránokò kálbayuà], (Txim.), *Entzingo galbayua* ([éntzingò gálbayuà], Ezk. b.), *Entzingo arriko galbayua* ([éntzingò árrikò gálbayuà], Ezk. b.), *Gaartzako galbayua* ([gaártzakò gálbayuà], Ezk.

525 Hemen erakuslea da, ez mugatzailea.

526 Mitxelenak dio gaurko diptongo asko bigarrenkariak diratekeela, baita *h* duten euskalkietan ere (*FHV*, 371). Ez du espresuki pasarte horretan argitzen, baina ez dugu behar baino gehiago esan uste *loi / loya* ere multzo horretan sar daitekeela esatean.

527 Salbuespena den *Antxistako zelaia* (1989, HUTB) transkripzio-erratua da, gure esparruan *zelaya* esaten baita (*ai- + -a > -aya*), eta ez *zelaia*.

b.), *Unamuneko galbayua* ([únamunekò gálbayuà], Ezk. b.) / *Unameneko galbayua*[528] ([únamenekò gálbayuà], Lor. b.) eta *Zuluetako saboya* ([zúlwetakò sáboyà], Ek.).

Hitz amaierako aldaketekin bukatzeko, *e* paragogikoaren bi erakuskari garbi besterik ez daude, *Santa Grazia arkaitze* (1988, OBIE) eta *Urteko txabale* ([úrtekò txábalè], Ek.) oronimoak.

Bokalak hitz barruan

Hitz amaieran gertatzen direnez gainera, gure esparruko generikoetan dauden bokalek aldaketa gehiago erakusten dituzte, baina hauek ez dute orain arte ikusitakoek bezainbat indar, eta ez dira tradizio idatzian haiek adina azaltzen.

Zenbait adibide ekar genitzake diogunaren lekuko. *-E* > *-a* irekitzearen aurreneko erakusgarria, adibidez, 16. mendearen amaierako idazki batean dago, ihartutako forma batean hain zuzen. Generikoaren oinarria (*etxe*) bokal irekiaz azaltzen da (*etxa-*) eta bi aipamen daude 1595. urteko agirian (*Ereñoçu echabi* eta *herrerias de Ereñoçuchavi*, 1595, HUA10). Ohar bedi bigarrenean (elkartuta idatzitakoan) bigarren osagaiaren hasierako bokal erdikoa erori egin dela. Irekitzearen hurrengo testigantza 20. mendekoa da (*Anso echaondo*, 1951, UUA18).

Hersketen alorrean, bada bokal irekiaren hersketa erakusten duen ahozko toponimoa. Espezifikoari leku genitiboaren hondarkiaren bidez lotuta dagoen *haltzadi* generikoaz ari gara, txistukariaren ondoren, bokal irekiaren tokian, *-u-* duena (*Agoñoko altzudiya* [agóñokò áltzudiyà], Aparr.). Bestalde, *mintegi* generikoaren hiru lekukoetan sudurkari arteko bokal itxia atzeratu egin da[529], baina ez dago argi aurreneko sudurkariagatik edo arrazoi etimologikoengatik den (*muin* + *-tegi*)[530]. Xehetasunetan sartuz, generiko hau espezifikoari leku genitiboaren hondarkiarekin lotuta ageri da aldi oro: *Aerreko zabaleko muntteiya* ([áerrekò zábalekò múntteiyà], Mari. 2), *Untzoko*

[528] Nafarroako bi berriemaileek hasierako herskari belarra ahostun ebakitzen dute.

[529] Tolosan bada *Mutteitxikiko iturrie* (*Muintegitxikiko iturria*) hidrotoponimoa; Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio (2006: 111)

[530] Ikus *FHV*, 142.

munttei ([úntzokomúnttèi̯] / [úntzokò múnttéi̯], Arg.) eta *Arloteiko munttei* / *Arlotegiko muntteiya* (1989, HUTB).

Bokalak hitz hasieran

Hitz hasierako bokala itxi dela jakitera ematen duten bi etsenplu daude gurean. Aurrenekoan, hurrengoaren irekiduraren alderako asimilazioagatik, *r-* aurreko bokal protetikoa itxi egin da[531] (*Otraizko irriyua*, 1988, OBIE). Bigarren adibidean hersketa eragin duena ondoko kontsonante sabaikaria da[532]; baina begira diezaiogun astiroago kasu horri. Zilegimendietan badira *etxola* bigarren osagaitzat duten zenbait toponimo, eta haietarik bat idatziz kausitu dugu gainera (*Anchoco-echola*, 1951, UUA18). Gehien-gehienetan espezifikoari leku genitiboaren hondarkiaren bitartez lotuta daude horrelakoak, *Munttoko etxola* ([múnttokò étxolà], Amu.) lekuko, baina, haatik, *etxola* generikoa duten guztien artean txistukariaren aurreko bokalaren hersketa erakusten duen ale bakarra dago, Aranoko bi informatzailek ahoskaturikoa[533]: *Beltsoko itxola* ([béltsokò ítxolà], En. eta Lor. b.). Nolanahi ere, ez dirudi erabateko araua denik han, beste aranoar batek itxi gabe ebakitzen baitu, (*Beltxoko etxola* [béltxokò étxólà], Ezk. b.).

Generikoetan dauden bokalen aldaketei eskainiriko iruzkinekin amaitzeko, berriemaile batek *etxola*-ren hitz hasierako bokalaren aferesia erakusten duten formak darabiltzala esatea besterik ez zaigu gelditzen[534], *Aarreko txola* ([áarrekò txolá], Amu.) konparaziorako (< *Adarreko etxola*).

---

[531] *Op. cit.*, 66.
[532] *Op. cit.*, 67.
[533] Iñigok (1996: 521) *itxola* aldaera biltzen du Iturenen (Malerrekan). Cf. Olano (1998: 63).
[534] Cf. *Txolaberrikua* ([txólaberrikuá], Amu.) *l.g.*).

Bokalen aldaketen lehen agerraldien diagramak

Hitz hasierako eta hitz barruko aldaketak[535]

21.			
1960	**E- + -tx > Itx-**	**-tz- + -a- > -tzu-**	**m- -(u)i- + -n- > mun-**
		-e + V- > -a- + -V-	
1900		-e + V- > -e- + -V -	
1800			
1700			
1600			
16.		**-e + C-> -a- + -C-**	

Hitz amaierako aldaketak[536]

21			
	-E- + -A > -IA	**-I- + -A- > -IYA**	**-AI- + -A > -AYA**
	-O- + -A > -UA	**-u- + -a > -uba**/-ua	**-AI- + -O > -AYO**
	-o- + -ak > -uk	**-O- + -E- >-OBE**	**-OI- + -A > -OYA**
	-e- + -a > -ia	-i- + -a- >-ia	**-oi- + -a > -oya**
1950	-o- + -a > -oa		
	-e- + -a > -ia/-ea	**-i- + -a- >-iya**/-ia	**-oi- + -a > -oya**
1900	**-o- + -a > -ua**		**-ai- + -a > -aya**
1850	**-e- + -a > -ia**/-ea	**-i- + -a- >-iya**	**-ai- + -a > -aya**
	-e- + -a > -ia	**-i- + -a- >-iya**	-oi- + -a > -oia
	-o- + -a > -oa	-u- + -a > -ua	
	-o- + -ak > -oak		
18.-19.	-o- + -a > -oa	-i- + -a- >-ia	
	-e- + -a > -ea		**-oi- + -a > -oya**
1750	-o- + -a > -oa	**-u- + -a > -uba**	
1700	-o- + -a > -oa		-ai- + -a > -aia
1600			
15		-i- + -a- >-ia	

[535] V: bokala; C: kontsonantea.

[536] Hizki larriz adierazitako aldaketak automatikoak dira.

6.3.2. Kontsonanteak

Aurrera jarraitu baino lehen, hauxe azpimarratu nahi dugu: kontsonanteen arloan, horzkari ahostuna dardarkari bilakatzea eta dardarkari ahula igurzkari belar bihurtzea idazkietan ikus daitezkeen aldaketak dira, ez, ordea, bokal arteko dardarkariaren erorketa (berriki azaltzen da). Ildo beretik, igurzkari belarraren galera ahozko tradiziotik bildutako toponimoetan baizik ez dugu kausitu.

Herskariak

Arestian aurreratu legez, hitz hasierako herskarien aldaketaren testigantzarik ez dago tradizio idatzian, eta ahozkoan lekukotasun gehien dituena herskari belarraren ahostuntzea da. Erakusgarri gutxi daudenez gero, ezer gutxi dakigu aldaketa horien hedaduraz. Argi dagoen gauza bakarretakoa da *kalbario* generikoa hitz hasieran herskari ahostunez (*Entzingo galbayua* [éntzingò gálbayuà], Ezk. b.) ebakitzen duten informatzaileak nafarrak direla.

Igurzkariak

Has gaitezen belarrekin. Bokalarteko igurzkarien erorketa behin bakarrik eta berandu azaltzen da tradizio idatzian, 20. mendean hain zuzen (*Etziagomua*[537], 1944, GHO1), baina galeraren berri eman lezaketen generikoaren aurreneko aipamenak 17. mendekoak dira, toponimian zein toponimiaz kanpo nahiko ugari dokumentatzen den *mugarri* terminoari dagozkionak. Aurreneko testigantza *artamugarri* eratorriarena da eta, esan moduan, ez dago bokal arteko igurzkari belarra erori delako arrastorik ("... *mojón del medio que llaman artamugarria* [...]", 1607, HUA23). Badago 18. mendeko aipamena eta, aurrekoan bezala, ez dago bokalarteko kontsonantearen galeraren lekukotasunik ("... *conformes dixeron era el mojon llamado arttamugarria, ó centrical* [...]", 1773, VEK1). Osagarria den *baztermugarri* terminoaren agerraldia ere aurkitu dugu, 1607. urtekoa dena, baina igurzkari belarrarekin dago idatzita ("... *un mojon viejo que llaman Vazter muga arria* [...]", , HUA23) eta 19. mendekoa den *hirumugarri* generikoaren aurreneko agerraldian, aitzineko beste horretan bezala, forma osoa erabiltzen da ("... *trimojon, llamado vulgarmente Yrumugarria* [...]", 1797, HUA41).

---

[537] **Etziagomuga*.

Bigarren lekukoa garai berekoa da, eta oraingoan, aldiz, aurreko bokal itxia eta herskaria falta dira ("... *mojon triangular que vulgarmente llaman Irumaria* [...]", 1833-1835, DUA3); alabaina, arreta pixka bat opa diona jabetuko da erratua dela, erdararen eraginez seguruenera.

Begira diezaiogun astiroago bokal arteko erorketen auziari. Aurreko hiruren iturburua den *muga* generikoaren testigantza bat baino gehiago daude tradizio idatzian. Aurrenekoa 1773. urteko mapa batean irakur daiteke eta espezifikoari leku genitiboaren hondarkiaren laguntzaz dago lotuta; betiere bokal arteko belarrari eutsi dio (*Suelcazucomuga*, VEK1). Hizkera arruntean usaian bokalarteko igurzkari belarra erori arren (*muarriya* [múarriyà]), gurean jaso diren toponimoen artean gertaera horren etsenplu bakarra dago, *Jibaltarko muarriya* (1989 HUTB) / *Jibraltarko muarriya* (1989 HUTB) hain justu, gainerakoan, *Paaleiko mugarriya* (1989, HUTB) eta *Unamunoko mugarriya* [únamunokò múgarriyà] (Ezk. b.) lekuko, forma oso ahoskatzen dutelako berriemaileek. *Muga* bera ere jatorrizko formarekin agertzen da ahozko tradizioan (*Antxistako mugako urkiya* eta *Zilleiko muga*, 1989, HUTB), baina, konparazio batera, *egutera* terminoari erreparatzen badiogu, bi testigantzetan igurzkari belarra erori egin da (*Onyiko eutera*, [ónyikò éu̯terá], Amu.; *Osiñaundiko eutera*, 1993, AT, 229-230 or.).

Horzkariei dagokienez, *pagadi* multzokariaren berri ematen duten aurreneko aipamen idatziak aski berandukoak dira eta ez da bokal arteko kontsonantea erori. Bi adibide jar genitzake, lehenbizikoa 1831-1845 urteetakoa (*Arismonte o Añoco Pagadi*, UGR4, 425 au.) eta bigarrena, berriz, 1951koa[538] (*Añoco-pagadi*, UUA23). Egungo aipamenetan, aitzitik, bi igurzkari ahostunak galdu dira: *Añoko pai* ([áñokò pái̯], Oiarbi.), *Añaingo pai* ([ánai̯ngò pái̯], Oiarbi.), *Añeiko pai* ([áñei̯kò pái̯], Oiarbi.). Gainerakoan, maizenik *g*-z hornituriko forma darabilte informatzaileek, *Aitzolako pagariya* ([ái̯tzolakò págariyá], Amu.), *Errekalkoko pagadiya* ([érrekalkokò págadiyá], Amu.), *Santodomingoko pagadiya* ([sántodomingokò págadiyà], Ezk. b.), *Exteixarko pagadiya* (1989, HUTB) eta *Ixteixarko pagadiya* (1989, HUTB) lekuko, noizean behin bokalarteko igurzkari belarra erortzen bada ere (*Sauxarko paariya*, 1989, HUTB). Era

[538] Bada tartean beste bat: *Añoco-pagadi* (1925, UUA3).

berean, tarteka galduagatik[539], bokal arteko igurzkari horzkaria mantendu egiten da gehienetan.

Euskarazko *parada* osagai generikotzat duten bi toponimo daude ahozko tradizioan eta, bokalarteko hozkariaren erorketaz gainera, elkarren ondoan geldítutako bi bokal irekien bateratzea ikusten da bietan (*Erlian para*, 1989, HUTB; *Gorrin para*, 1989, HUTB). Bokal arteko igurzkari belarrez ari garenez, *bide* osagaia duten toponimo bat baino gehiago daude. Aipamen guztiak ahozko tradiziotik bilduak dira eta bietarikoak daude: *Ernanibasoko biria* (1989, HUTB) kasu, leku genitiboaren hondarkia hartu dutenak eta *Borrotola biria* (1989, HUTB) toponimoaren moduan kasu markarik ez dutenak. Hori bai, guztiek dardarkari ahula dute herskariaren tokian[540] eta, ildo beretik, *Karlistabidea* ere dardarkariaz ahoskatzen dute berriemaileek (*Karlixtabiria* [kárlixtà bírià] / [karlíxtabirià], Ol.).

Igurzkariekin amaitzeko, bokalarteko ezpainbikoaren erorketaren bi lekukotasun daudela esango dugu, *zabal* generikoari dagozkionak biak: *Pardakiko zaala* ([párdakikò záalá], Amu).; *Zulotako zaala* ([zúlotakò záalá], Ai.).

Dardarkariak

Bokalarteko dardarkarien erorketak eta *-d-* > *-r-* aldaketak ez dute tradizio idatzian aztarnarik utzi eta, bestalde, ahozko tradizioan ez dira automatikoak, biak agertu arren. *Soro* generikoa aztertuko dugu, adibidetako. Idatziz, oso berandukoa den aipamen batean baizik ez dugu opatu eta bertan forma osoa dago idatzita (*Ezioko soroa*, 1982, GKA, 190 or.). Ahozko tradizioan, bestetik, *soro* generikoa duten bi toponimo daude, *Argorriko sorua* ([árgorrikò sóruà], Txab. 1 eta Asta.) eta *Errenteisorua* ([érrenteɪ̯soruà], Txab. 1 eta Asta.) hain zuzen, eta, ikusten den bezala, dardarkaria mantendu egiten da, zenbait espezifikorekin gertatu ez bezala (ikus SOROTXOETA). *Harizti* generikoaren ahozko bi lekukotasunak, ordea, dardarkaria gabe ageri dira (*Angeluitturriko aiztiya* / *Angilitturriko aiztia*,1989, HUTB).

---

[539] *Xauxarko pagaya* ([xáu̯xarkò págayà], Mari. 2) eta *Xauxarko pagaiya* (1989, HUTB).
[540] Ikus IDOIA (cf. *FHV*, 228).

Bokal arteko dardarkari ahularekin jarraituz, badira *txara* terminoaren zenbait mostra, idatzizkoak batzuk. Estreinakoan, orduko, belarra dago bokal artean dardarkariaren ordez (*Andolachaga*, 1857, HUA48, 39 or.). Ahozko tradizioan *txara* generikoa duten hiru toponimoetan lau forma ezberdin ikusten dira, igurzkari belarrik gabe (*Akolatxaa*, [ákolatxaà], Id.), igurzkari belarrarekin, (*Barkixteiko txaga*, [bárkixte□kò txágà], Bent.), dardarkari ahularekin (*Akolatxara* [ákolatxarà], Etxol.) eta dardarkari anizkunarekin ebakitzen baitute informatzaileek (*Akolatxarra* [ákolatxarrá], Sants.), azken hori herri-etimologiaz seguruenera. Hitz barruko dardarkarien auziekin bukatzeko, *Artamugarri* terminoa (generikotzat) darabilten berriemaileek emandako formetan ez dago *-r-* > *-l-* aldaketaren zantzurik[541]: *Artamugarriya* ([artámugarriyà], Ak.) / *Artamuarriya* ([artámuarriyà], Amu.).

Hitz hasierako dardarkarien alorrean, *erribera* generikoaren idatzizko erreferentzia bakarrak protesia erakusten du (*Portualdecoa-erribera*, 1927, HUA57, 156 or.), eta informatzaileek emandako guztiek ere bai. Atzerago joanez gero, eta *erreka* generikoari begiratuz, 15. mendean aurrenekoz aipatzen denean *reca* protesigabea eta *erreca* protesiduna erabiltzen dira: "*... e dende siguiendo por la ribera reca e agoa fasta dar* [...]" eta "*... arroyo erreca llamado Ynçaederra* [...]" (1467, HUA5). Ohar bedi *erreka* mailegua dela (cf. *FHV*, 155), *regar* aditzarekin eta haren oinorde diren *riega* zein *riego*-rekin lotuta dagoena. Ildo horretan, Corominesek (1976 [1954] III: 1059-1060) dio erro hori latinaren aurrekoa dela[542]. Dena dela, gure alderdiko *reca* hori *erreka*-tik atera dela ezin da zalantzan jarri.

Ur-ibilguak utzi gabe, eta generikoen kontsonanteek izandako aldaketekin amaitzeko, diogun *errio* ezaguna dela gurean, eta badaudela honen hasierako bokala hertsi delako lekukotasunak (*Otraizko irriyua*, 1988, OBIE). *Errio* baino berriagoak direnetan, ordea, ez da epentesia egiteko joera garbirik ikusten eta, konparaziora, *rekta* protesirik gabe ahoskatzen da (*Errollaburuko rekta* / *Illarraburuko rekta / Illorraburuko rekta* (1989, HUTB).

---

[541] Ikus ARTAMUGARRI.

[542] Cf. Grosclaude (1991: 397) eta Fénié & Fénié (1992: 15)

Herskarien eta dardarkarien diagramak

Herskariak hitz barruan



Dardarkariak



Bustidura

Lehen-lehenik, esan dezagun *-i-* bokalaren ondoan dagoen *n*-ren bustidura adierazten duten lehenbiziko aipamen idatziak 20. mendekoak direla eta *osin* generikoari dagozkiola (*Laspegui-osiña*, 1933, HUA57, 315 or.). Ahozko tradizioan ere badira *osin* bigarren osagaitzat duten zenbait hidrotoponimo (FRAILEAREN OSINA, ZERRENDAKO OSINA eta SANTIAGOKO OSINA), baita egitura berezi samarra duen forma bat ere (HONDORIK GABEKO OSINA): kasu guztietan sudurkariaren bustidura automatikoa da. Bukatzeko, *gaztainadi*-ren aurreneneko aipamenean ez dago bustiduraren arrastorik (*Yerdi gaztainadi*, 1794-1831, UGR3, 17 au.), baina ahoz araua erabatekoa da (*gaztañadi*).

Hitz hasierako frikari ezpain-horzkaria

Hitz hasierako frikari ezpain-horzkariaren aldaketa ez da gauzatu atal honetan aztertu ditugun toponimoen artean eta, adibidez, *fabrika* generikoaren aurreneko lekukotasunean (baserri izena da), ez da *F- > P-* urratsa eman (*Fagollaga fabrica*, 1864, HUA47). Ahozko tradizioan ere badago *fabrika* generikoa duen toponimoa eta —idatzizko erreferentzian bezala— ez dago aldaketarik (*Leongo fabrika*, 1989, HUTB). Hortaz, *F- > P-* aldaketaren (**pabrika*) inolako lekukotasunik ez dago Zilegimendietan.

Beste batzuk

Badira pluralean deklinaturik dauden generiko gutxi batzuk gurean. Idatzizko lehen lekukotasuna 19. mendekoa da (*Oerangopagoac*, 1833-1835, DUA3) eta berriemaile batek ere *pago* generikoa pluralean deklinatzen du[543], oraingo honetan hiatoan *-u-* + *-ak* > *-uk* murriztapena gauzatzen delarik (*Martinbeltzeneko pauk* ([mártinbéltzenekò páùk], Aparr.). Aldaketa hori, halere, ez da erabateko legea (*Murrutako zuluak* [múrrutakò zúluàk], Arg.).

[543] Era berean, pluraleko bi forma daude *harkaitz* zati generikotzat duten toponimoen artean (*Bastolako arkaitzak*, [bástolakò árkaı̯tzàk], Mari. 2; *Lanberriko arkaitzak* (1989, HUTB). *Malda* ere pluralez eman digute informatzaileek (*Eztizamaldak* [éztizamaldàk], Pag.) eta badago, azkenik, *Tabako-baratzak* pluralaren lekukoa (*Tabako baratzetako txokua* [tábakò barátzetakò txókuà], Ezk. b.).

6.4. Gure esparruko toponimian generikotzat erabilitako izenak

Corpus toponimikoa osatze aldera hustutako iturrietan generikotzat erabilitako hirurehun eta hirurogeita hamar izen geografiko bildu ditugu. Bi heren gaztelaniazkoak dira, eta gainerako ia guztiak euskarazkoak; latinezko testuetan azaldutakoak dozena erdia besterik ez dira. Asko eta asko gutxitan baliatzen dira eta gehienak behin edo bi aldiz ezin dira irakurri idazkietan; ale batzuek baino ez dituzte hamar agerraldi edo gehiago.

Idazkietan usuenik azaltzen diren gaztelaniazko generikoen artean *monte*, *alto*, *collado*, *valle*, *río*, *arroyo*, *casa*, *casería*, *ferrería*, *molino*, *nevera*, *mojón*, *tierra*, *valle*, *villa*, *montes francos*, *ejido* eta *sel* daude. *Erreka* da, bestalde, agerraldi gehien dituen euskal generikoa, gutxienera jota ehun eta berrogeita hamar bat aldiz ematen baitute informatzaileek. *Lepo*, *hegi*, *iturri* eta *borda* dira —aurrekoaren ondoren— ugarien jaso ditugunak, ahozko tradizioan bereziki, eta horietatik gehien dokumentatzen dena *borda* da.

Guztira, gaztelaniazko generikoen ia zortziehun lekukotasun eta euskarazkoen idatzizko berrehun baino gehiago opatu ditugu iturri idatzietan. Berriemaileengandik, bestalde, euskarazko generikoen zazpiehun bat testigantza bildu ditugu. Zernahi gisaz, zenbateko horietatik ondorioren bat atera baino lehen zenbait gauza hartu behar dira kontuan. Hasteko, euskal generikoak dituzten toponimoak haien iturburu diren forma edo *izenburu nagusi* (ikus I.1.1.§) generikogabeak baino bakanago dokumentatzen dira erdarazko testuetan. Gainera, ez da ahantzi behar izen berarekin (AMUNOLA izenburu nagusipean esate baterako) askotariko izaki edo elementu geografikoak (*sel*, *caserío*, *terreno*, *casco*, *ejido*) izendatzen dituztela eskribau eta notarioek agirietan[544]. Ildo beretik, informatzaileek forma generikodun gutxi darabiltzate, horrrelakoak lautatik bat izatera ez dira iristen eta (% 22).

Idazkietan idoro ditugun euskal generikoen multzoan *idoi*, *makur*, *mehaka*, *baztermugarri* eta *sasi* ihartuta daude, baita, bete-beteko generikoak balira, *etxabi*,

[544] Testu guztiak erdaraz (latinez, erromantzez, …) izkiriatuak dira eta agerikoa da horri zor zaiola hainbeste generiko erdaraz (erdarara itzulirik) egotea.

harripe, eta *lohi* ere. Ildo beretik, *artamugarri*, *eluts*, *haitz*, *kate*, *koba*, *osin* eta *urbiarte* galzorian daude. Gure esparruan erabilitako generiko multzoaren murrizketa bistakoa da, hortaz.

Goian esan bezala, izen askok lekukotasun bat edo bi besterik ez dituzte eta, gainera, batzuen ibildeak ez dirudi oso luzea; ahozko tradizioan baizik erabiltzen ez diren mailegu berriez ari gara. Horrelakoen generikotasuna zalantzakoa da sarritan eta multzo horretan sar daitezke *altuena*, *arbola*, *balkoi*, *espalda*, *fabrika*, *frontoi*, *garaje*, *kurba*, *labe*, *puska*, *sarde* eta *taberna*. *Rekta*-rekin antzeko zerbait gertatzen da, aurrekoek baino lekukotasun gehiago baditu ere. Jatorragoak diruditen zenbait generiko ere gutxi azaltzen dira, *egutera* edota *estrata* konparaziorako.

Generikoa izen espezifikoarekin uztartzeko leku genitiboaren hondarkia nagusitzen da argi eta garbi, zuzeneko edo hondarkirik gabeko eransketaren gainetik: kasu marka hori dutenak morfemarik ez dutenen halako bi dira. Leku genitiboaren hondarkiaren ondoren doazen izen generiko gehienak artikuluz hornituta daude: gutxi dira markatu gabeak. Izen espezifikoari zuzenean erantsitako generikoen artean, azkenik, artikuludunen eta artikulugabeen hainbestekoa berdintsua da. Sail horretan, *etxeberri* eta *borda* azpimarratu nahi ditugu, testigantza gehienak eurei baitagozkie.

Idatziz lehenik opatu ditugunak *erreka* eta *idoi* dira, hamabosgarren mendean aurkitu ere, eta deigarri gertatzen da lehen agerraldi horietan biak gaztelaniazko generikotzat erabiltzea. Euskal joskera duten toponimoen multzoan zaharrenak 16.-18. mendeetako dokumentazioan aurkitutako *harribitarte*, *sasi*, *mehaka*, *koba*, *lohi*, *erreka*, *saroi*, *zabal*, *makur*, *baso*, *lepo*, *putzu* eta *muga* dira, baita, bete-beteko generikoa balitz, *etxabi* ere. Idatzizko iturrietan lehenbizi kausitu ditugun generikoen sailean egun ihartuta daudenen (edo bide hori daramatenen) kopurua garrantzizkoa da, hainbatekoa erdiaren bueltan baitabil. Beste muturrean, ahozko tradizioan besterik idoro ez ditugun generikoen zenbatekoa ere aipagarria da, dokumentatzen ez den generiko asko baitago. Bi multzoen gutxi gorabeherako hainbatekoa erdia eta erdia da. Ihartuta dauden *hirumugarri*, *baztermuagarri* eta *harkadi* zein bide bera daraman *artamugarri* ere

nabarmendu nahi ditugu, hirugarrenaz beste guztiak 17.-18. mendeetarako ageri direlako idazkietan.

Atentzioa ematen du maileguen kopuruak, guztira, generikotzat erabilitako ehun eta hogeita bat izen bildu baditugu, beste hizkuntza batzuek utzirikoak erdia direlako ia. Mailegu horiek garai batean baino gehiagotan hartu ditu euskarak. Batzuk Antzinatean iritsi bide ziren, eta beste batzuk Erdi Aroan, *erreka* hidronimoa kasu. Aro Modernokoak diruditenen sailean *borda* dago esate baterako, eta gaur egungoen multzotik bi aukeratzearren, *zentral* eta *kurba* aipatuko ditugu.

Azken bi paragrafoetan esandakoa zuhurtzia handiz ulertu beharra dago zernahi gisaz, hitz bat aldi jakin bateko idazkietan erabiltzeak ez baitu esan nahi, inolaz ere, aipamenaren garai berekoa dela[545]. Toponimo bat testu batean aipatzeak ez du ezinbestean adierazten data jakin hartan bazela. Izan ere, usaian, toponimo baten lehen agerraldia nekez etortzen da bat haren sorrerarekin. Hortaz, gehienera jota, azterketa linguistikoak toponimoak sorrera-aro jakinetan sailkatzea alhalbidetzen du. Bestalde, gauza jakina da tokien izenak aldatu egiten direla, zati generikoak barne. Ildo beretik, aztarna arkeologikoek ezin dute izen baten adina zehaztu, ezta haren sorrera-garaia ere. Adibide bat jarriko dugu, horren guztiaren lekuko. Saroiak elementu garrantzitsuak izan dira Zilegimendietan eta ematen du, gainera, antzinaterako bazirela[546]. Guztiaz ere ziur dakiguna da 12. gizaldirako saroi mordoa zegoela alderdi honetan. Alabaina, gure esparruko toponimian generikotzat gutxi azaltzen den terminoa da, idatziz batez ere. Etsenplu gehiago ekar genitzake, *mendi*, *iturri* edota *etxola* konparaziorako.

Atal honen hasieran esaten genuen toponimiak gizakiaren eta inguruaren arteko harremanaren berri ematen duela. Gure esparruan generikotzat erabilitako izen-sailei erreparatuz gero, orografia menditsua duen paisaia gizakitua irudikatzen dute. Landaretzari eta ubideei men egiteko generikoek duten pisua ezin da gutxietsi, baina orografiarekin eta gizakiaren jardunarekin zerikusia dutenak gehiago dira. Irudi hori, ordea, ez da erabat egiazkoa bere horretan, izen bakoitzak dituen aipamenak ere kontuan

[545] Gendronek (2006: 12-13) txukun biltzen ditu toponimia alorreko datuak erabiltzerakoan gogoan hartu beharreko baldintzapen zenbait, antzinako bideetako izenez idatziriko liburuan.

[546] Ikus Zaldua (2006).

izan behar direlako. Alde horretatik, hidrotoponimiaren arloko izen mordoa dago, hau da, errekek eta iturriek ere garrantzia dute Urumeako Zilegimendietako paisaia latz eta gizakitu horretan, generikoak asko ez izan arren. Orobat metaforan jatorri duten izenei dagokienez, *lepo*, *bizkar* eta *kasko* zati generikotzat dituzten toponimoek zenbateko polita erdiesten dutelako oronimoen sailean. Amaitzeko, honatx gure esparruan generikotzat erabiliriko izenen zerrenda:

A. aldapa (1933), *altuena*[547], *arbola*, artamugarri (1607), ataka (1831-1845). **B**. bailara (1976), balkoi (1989), *barrio* (1930), baso (1712), *baztermugarri* (1607), *begiraleku* (1989), bide, bizkar (1989), borda (1797-1833), buelta. **E**. egutera (1993), elurzulo (1960), eluts (1989), ermita, erreka (1467), erribera (1927), *errio* (1988), errota (1843), eskola, *espalda*, estrata (1989), *etxabi* (1595), etxondo (1951), etxe (1951), etxeberri (1797-1833), etxola (1951). **F**. *fabrika* (1989), frontoi. **G**. *garaje* (1951), gaztainadi (1794-1831). **H**. haitz (1833-1835), haltzadi, *harribitarte* (1575), harizti (1989), harkadi, harkaitz (1898), harri (1889), harripe (1799), harrobi, hegi (1898), hirumugarri (1833-1835). **I**. idoi (1467), *inestorlekua* / *inestorlurra*, iturri (1951). **J**. jentilbaratz (1926), jentilen kanposantu (1989), jentilzulo (1989), *judumahai* (1989). **K**. kalbario, kanal, kanposantu (1979), *karlistabide*, karobi, kasko, kate (1989), koba (1683), kurba (1989). **L**. labe (1989), lanberri (1797-1833), larre (1850-1852), leize (1989), lepo (1780), lintzura, lohi (1773), *lonja* (1937), *lote*, luberri (1848-1850). **M**. makur (1730), malda (1860-1862), malkar (1920), mehaka (1683), mendi (1969), *mina*, mintegi, *mo(n)ja* (1920), muga (1773), mugarri, *munto*, murru. **O**. ola, osin (1933), ospel (1942). **P**. pagadi (1831-1845), pago (1833-1835), parada (1989), parte (1854-1855), pasadizo, portilu, presa, punta, puska?, putzu (1773). **R**. *rekta* (1989). **S**. sagasti, santsonarri (1989), sarde (1989), saroi (1683), sasi (1594), seroretxe (1989), soro (1951). **T**. *tabako-baratza*, taberna (1989), tontor, torre (1843). **Tx**. txabola (1951), txara (1857). **U**. *urbitarte* (1989), urki (1989), *ursalto*. **Z**. zabal (1732), zabaldegi?, zehar, zelai (1739), *zentral*, zingira, zoko (1794-1831), zubi, zulo (1931).

[547] Hiztegi batutik kanpo dauden hitzak etzanez idatzi ditugu.

Generikotzat erabilitako izenen aurreneko agerraldien diagrama

21.

	bizkar	*espalda*	munto	tontor	*altuena*
	punta	kasko	portilu	zabaledi	murru
	leize	pasadizo	buelta	lintzura	zingira
	kanal	arbola	haltzadi	sagasti	mintegi
	inestorleku	mina	harrobi	karobi	zentral
	ursalto	frontoi	eskola	mugarri	kalbario
	zubi	lote	puska	presa	*tabako-baratza*
	balkoi	sarde?	eluts	*rekta*	egutera
	santsonarri	errio	kurba	*urbitarte*	parada
	harizti	urki	labe	ola	fabrika
	begiraleku	taberna	kate	seroretxe	estrata
1989	bide	ermita	zehar	*jentilzulo*	*judumahai*
	mendi	iturri	soro	etxe	etxola
1950	*garaje*	elurzulo	bailara	kanposantu	txabola
	zulo	aldapa	malkar	ospel	osin
mon(j)a	**1900** erribera	etxondo	barrio	jentilbaratz	lonja
	harkaitz	harri	malda	txara	larre
1850	hegi				
	haitz	ataka	pago	pagadi	errota parte
	zoko	*hirumugarri*	gaztainadi	torre	lanberri
18.-19.	etxeberri	borda	errota	luberri	
	harripe	lepo	lohi	putzu	baso
1700	muga	makur	zabal	zelai	
1600	mehaka	koba	saroi	artamugarri	baztermugarri
16.	*harribitarte*	sasi	*etxabi*		
	erreka	idoi			

7. BEREIZGARRIAK

Atal honetan arrunki *postposizio* terminoarekin ezagutzen diren izenak (*-alde*, *-ondo*), deiturak (*-Lazkano*, *-Lasarte*), izenondoak (*-aundi*, *-berri*) eta izenlagunak (*Beko-*, *-azpiko*) aztertuko ditugu. Forma berriak sortzeko, toponimoei aurretik edo atzetik eransten zaizkien osagaiak dira guztiak eta, neurri batean, heraldikan baliaturiko erdibitze, laurdentze eta antzeko eraldaketak dakarzkigute gogora. Osagarriak diren bikote edota hirukoteak sortzen dituzte bereizgarri horiek (*Pardiolaaundi* / *Pardiolatxiki*; *Goikobarkaiztegi* / *Erdikobarkaiztegi* / *Bekobarkaiztegi*) eta bizilekuen kasuan asko erabili dira, eraikin berriak egindakoan, jatorrizko etxeetan oinarri harturik, oikonimo berriak sortzeko. Osagarriak diren bi toponimoek izan dezakete eranskina, baina, askotan, bati baizik ez zaio gehitzen, **Aierdizar* / *Aierdiberri*-ren ordez, *Aierdi* / *Aierdiberri* bezalako pareak sortuz. Mendi-izenen alorrean ere badira jokabide horren etsenpluak (*Ezteiza* / *Ezteizatxiki*; *Urdaburu* / *Urdaburutxiki*).

Bereizgarriak izena erabiltzearen arrazoi nagusia —goian esan bezala— atal berean askotariko elementuak bildu nahi izatean datza[548]. *Postposizio* terminoa ez dugu egokitzat jotzen sail honen izenburutako, izenentzat baizik ez baita erabiltzen gehienetan termino hori, ez ordea izenondoentzat; izenlagunentzat eta deiturentzat ere ez du balio.

Bereizgarriek hiru argibide eman litzakete, *kokapena*, *izaera* eta *jabea*. Izenek eta izenlagunek kokapena adierazten dute, espazio-erreferentziak baizik ez direlako[549] (*Arlegorr**azpia***, ***Beko**barkaiztegi*). Izenondoek, berriz, *izaera* azaltzen dute (*Pardiola**txiki*** / *Errotaran**berri***) eta, hirugarrenik, jabeen berri ematen duten bereizgarriak daude, tradizio idatzian baizik aurkitu ez ditugunak (*Egurrola-**Lazkano***[550]).

---

548 'Zehaztaileak' erabiltzea zilegi litzateke zertzu horretan.

549 Cf. Gorrotxategi Txurruka (1995b: 754).

550 Baserriaren izen jatorra EGURROLA da.

Argi dezagun lehenbailehen eranskinik gabe ere aurkitu ditugun toki-izenek hartutako bereizgarriak besterik ez ditugula kontuan izango jarraian. Horretarako, halere, *Legarralde, Larburu* edota *Bekoborda* toponimoetan dauden izen eta izenlagunei erreparatuko diegu aldian behin, erreferentziak izateko[551], hau da, ezin banatuzko izenen osagai direnean izandako ibilbidea kontuan hartuko dugu, bereizgarritzat baliaturikoan duten jokaera hobeki ulertze aldera, betiere.

7.1. Izenak

7.1.1. Postposizoak

-*Alde*-rekin has gaitezke. Eranskin erabilienetarikoa den hau 18. mendeko agiri batean aurkitu dugu aurrenekoz bereizgarritzat[552], artikuluz hornituta (*Benecia aldea*, 1794-1831, UGR3, 19 au.). Badira 19. mendeko erakuskariak, *Eciago-aldea* (1863, HRU8, 47 au.) eta hitz amaieran *-ea* > *-ia* hersketa duen *Iturregui aldia* (1855-1857, HTR8, 22 au.) adibidez. Berdin 20. mendean, idazkietan bietarikoak daudelako (*Zubaltzeta-aldea*; *Zubaltzeta-aldia*, 1951, UUA18). Leku genitiboaren hondarkiarekin ere kausitu dugu (*Larranchuri-aldaco-garagia*, 1951, UUA18), baina bakan dira horrelakoak. Berriemaileek *-ea* > *-ia* hersketaren lekuko diren formak ebakitzen dituzte beti (*Mulisko aldia* [múliskò áldià], Amu.), eta leku genitiboaren markaz ere baliatzen dira (*Lekayo aldeko elurtzulua* [lékayoáldekò elúrtzulokò zeártanè] (Ai., *in.*) eta [lékayo áldekò elúrtzulotìk] (Po., *abl.*). Guztiaz ere, jabetza-idazkietan ahozko tradizioan baino gehiago baliatzen da *-alde*.

-*Aurre*[553] postposizioa ez da *alde* bezain erabilia gurean. Lehen erakusgarriak 20. mendekoak dira, 1920koak hain zuzen, eta *-ea* > *-ia* hersketa ikusten da (*Echespuru-aurria*, HUA57, 43 or.; *Eciago-aurria* (HUA57, 43 or.). Ahozko tradizioan ez dugu bereizgarritzat jaso[554] eta, antonimoari dagokionez, ez dugu *-atze* bereizgarriaren

---

551 Izen espezifiko elkartuen osagai direneko auzia (*-alde*, *-ondo*...) 8.2.2. azpiatalean aztertzen da.

552 Cf. 1178. urteko *Legarralde* (IKA3).

553 *Aurre* eta *atze* postposizioez jardukitzean, Mitxelenak (*FHV*, 133) dio amaierako *-e* hori paragokioa dela (< *aur-* + *-e-*; *(h)atz* + *-e-*).

554 Bai, ordea, banaezina den toponimo baten osagaitzat. Cf. *Zubiaurre* (1933, HUA57, 155 or.; [zúbjaurrè], K.).

erakuskaririk aurkitu idazkietan, baina bai ahozko tradizioan (*Antxista atzeko arrizabala*, 1989, HUTB; *Antxista atzeko lintzura*, 1989, HUTB).

-*Azpi* idatzizko ibilbide luzeenetarikoa duen bereizgarria da gurean, lehenbiziko lekukotasuna 1461. urtekoa delako (*Barinazpia*, LMM, 158 or.) eta, harrezkero, sarri azaltzen delako dokumentazioan, mugatu singularrean gehienetan (*Arlegor-azpia*, 1797, HUA41; *Besalaga azpia* (1794-1831, UGR3, 17 au.; *Barcaiztegui azpi* 1831-1845, UGR4, 25 au.); badira, halere, mugatzaile gabeko formak (*Unzue-azpi* (1838, DUA5; *Posentarri-azpi*, 1863, URU, 148 bin.). Badaude, hala berean, herskariaren aurretik, -*z*-ren ordez, -*s*- duten forma gutxi batzuk (*Aguinagaaspia*, 1797-1833, HGR2, 69 au.; *Andolaspia*, 1797-1833, HGR2, 59 au.). Sabaiko afrikatuaren epentesiaren aurreneko aztarnak 20. mendekoak dira (*Abillats-azpiya*, 1920, HUA57, 578 or.) eta, ildo horretan, behin baino gehiagotan, bi aldaerak erabiltzen dira idazki berean: *Alcega-azpia* (1920, HUA57, 352 or.) / *Alcega-azpiya* (1920, HUA57, 257 or.). Leku genitiboaren hondarkiaren ondoren opatu dugu (*Contraco-azpiya*, 1920, HUA57, 367 orr), baita segidan beste postposizio batez horniturta (*Pardaqui-azpia-ondoa*, 1951, UUA18) nahiz aurretik izenondoa duela ere (*Posente-berri-azpia*, 1949, UUA17).

Ahozko tradizioan, artikulua eransten denean, sabaiko afrikatuaren epentesia automatikoa da (*Akurrika azpiya* [ákurrikà ázpiyà], Larr.; *Antxistazpiya* [ántxistazpiyà], Larr. eta Ek.; *Onyi azpiya* [ónyì ázpiyà], Larr.). Zernahi gisaz, idazkietan bezalaxe, badaude deklinatu gabeko formak (*Posentarriazpi* [pósentarriázpì], Larr.), baita leku genitiboaren hondarkia hartu dutenak ere (*Antxista azpiko borda* [ántxistà ázpikò bórdà], Txim.). Gure esparruan Mitxelenak (1971: 247) *azpi* postposizioaz dioena ez da erabat betetzen, toponimian frankotan azaltzeaz gain, esku artean ditugun datuen argitan, ezin baita esan *be(h)e* baino berriagoa dela.

Hitzak hizpidea ekarrita, argi dezagun azken bereizgarri horren aldaera ahostunaren lekuko zaharrena 19. mendekoa dela; -*be*-z ari gara (*Icen-ederbea*, 1898, EGZ). 20. mendean *Lastolabea* (1928, JMB3, 268 or.), *Iroyabea* (1928, JMB3, 268 or.) eta *Altamo-bea* (1942, IGC1) bildu ditugu eta deigarri gertatzen da beti oikonimoei itsatsita azaltzea (ez haien jatorrizko osagaitzat). Ez dugu ahozko tradizioan lekukorik aurkitu

eta, bidenabar, diogun *-beti* (< *beheiti*) terminoaren aztarna bakarra azaldu zaigula idatzizko iturrietan, 1928. urtean hain zuzen (*Bainketabeti*, JMB2, 268 or.).

-Pe aldaeraren[555] ibilbidea luzexeagoa da. Lehenbiziko lekukotasuna nahiko zaharra da eta adlatibo singularraren hondarkia du (*Lecaiopera*, 1683, HUA28), baina hori ez da kasu markaz horniturik dagoen aldi bakarra, hor daudelako, esate baterako, *Beloqui-pean* (1920, HUA57, 859 or.) eta *Beloqui-pian* (1924, HUA57, 990 or.). Deklinabide atzizkiez ari garenez, diogun tradizio idatzian mugatzailea hartzen duela maizenik (*Andarlecaiopea*, 1773, VEK1A; *Andolapea*, 1932, HUA57, 923 or.; *Beloqui-pea*, 1920, HUA57, 761 or.; *Igorinpea*, 1799, HUA42, 171 bin.; *Larrainpea*, 1920, HUA57, 103 or.; *Osiñapea*, 1920, HUA57, 581 or.); gertaera horrek bokal erdikoaren hersketa (*-pea* > *-pia*) eragiten du batzuetan (*Arguruz-pia*, 1863, HRU, 42 au.; *Lamberripia*, 1797-1833, HGR2, 48 au.). Ahozko tradizioan *txara* (*Akolako Txarapia*, 1989, HUTB; *Txarapia*, 1989, HUTB) nahiz *zelai* bezalako izen geografikoei itsatsirik erabiltzen da (*Amuelako zelaipia* [ámuelakò zélaịpiá], Amu.) eta, ikusten den bezala, disimilazio joera indartsua da.

Bereizgarritzat, *-barren* izenaren lehen testigantzak 19. mendekoak dira[556] (*Fagollaga-barrena*, 1857, HUA48, 46 or.), baina ahozko tradizioan *harkaitz* generikoari erantsita baizik ez dugu aurkitu (*Lekayoko arkaitzbarrena* [lékayokò arkàịtzbarrenà], Mari. 2). Ez dirudi gure esparruko toponimian usu erabilia izan denik, are gutxiago, 1857an bezala, ‘beheko’ adierarekin[557].

Metaforan jatorri duen *-buru*, bereizgarri moduan, 18. mendean aurkitu dugu lehen aldiz[558] eta artikuluaren erabilpenaren eraginez garatutako ezpainbiko epentetikoa du

555 Mitxelenak (*FHV*, 254) dio morfema batzuen aldaerek erakusten dutela zenbait herskari behinola hitz hasieran ahoskabeak zirela. Atzizki gisa erabili direla ikusten da eta horren mostra litzateke, hain justu, *be(h)e* hitzaren *-pe* aldaera.

556 Cf. *Aitz-barren* (1845-1846, UTR1, 35 au.).

557 Usaian ‘barru’ adiera izan du gure esparruan, eta inesiboaren ondoren ‘zehar’ zentzua hartzen du.

558 Izen espezifikoaren osagaitako, *-buru* 16. mendean ageri da lehenbiziko aldiz: "... *a lo alto Urdaburu*[...]” (1538, HUA9) eta "... *que no de la casa Laarburu* [...]", (1548, HUA12). Orduz gero, hainbat idazkitan aurkitu dugu, artikulurik gabe (*Goyburu*, 1681, L.M., 163) nahiz artikuluarekin (*Echaburua*, 1799, HUA42, 171 bin.). Bide batez, esan dezagun gaztelaniaz *-buru*-ren parekoa den *cabeza de* terminoaren bi lekukotasun daudela 1773. urteko mapa batean (*Caueza de Caramichola* eta *Cabeza de Samiola*, VEK1A).

orduko (*Ereñozu buruba*, 1797-1833, HGR2, 72 au.). Badira horrelako gehiago, *Iturreguiburuba* (1847-1848, HTR3, 7 au.) konparaziora eta, ildo horretan, *Pagacelay-buruba* (1931, HUA57, 952 or.) / *Pagacelay-buru* (1935, HUA57, 954 or.) bezalako bikoak salbuespentzat jo daizteke. Leku genitiboaren hondarkiaren ondoren ere kausitu dugu (*Tolarietacoburu*, 1924, HUA57, 116 or.), eta inesiboaren hondarkia duela ere bai (*Tolaritacoburun*, 1920, HUA57, 219 or.). Informatzaileek ez darabilte bereizgarritzat, ahozko tradizioan izen espezifikoen osagaitzat ageri baita beti, URDABURU eta ZABURU oronimoetan esate baterako[559].

-*Erdi*-ren aurreneko aipamena 19. mendekoa da (*Baringárate-erdi*, 1857, HUA48, 61 or.), eta badira 20. mendeko erakusgarriak (*Altamo-erdi*, 1942, IGC1). Alabaina ahozko tradizioan gutxi azaltzen da, *Barkixtei erdi* (1989, UUTB) eta besteren batean baizik ez.

LARBURUGAIN (LABURU + gain + [a];'garaien dagoen LABURU baserria') oikonimoa 16. gizaldian lekukotzen da aurreneko aldiz eta, ordutik, maiz azaltzen da dokumentazioan (1597, *Larburugaina*, HUA22). Bigarren aipamena 1625koa da eta aldaketa nagusia sudurkariaren bustidura da (*Larburugaña*, 1625, L.M., 164 or.). Artikulurik gabeko lehenbiziko adibidea gizaldi berekoa da, 1674. urtekoa hain zuzen (*Larburugain*, 1674, L.M., 164 or.), baina 18. eta 19. mendeetan ere mugatzailea duten formak gailentzen dira tradizio idatzian (*Larburu gaña*, 1776-1794, UGR2., 3 au., 1794-1831, UGR3, 12 au.; *Larburugaña*, 1855, UEA1; 1857, HUA48, 72 or.). Haatik, 20. mendean -*gain* dutenak dira nagusi (*Larburgaña*, 1900, UEA3; *Larburu-gaiñ*, 1931, UUA8; 1939, UUA11; *Larburu-gain*, 1945, UUA15; 1979, UUA20; *Larburugain*, 1956, UUA10G; 1983, IGN2; *Caserío Laburugain*, 1983, IGN2), eta, aldian behin, -*gain* > -*ain* erakusten duten etsenpluak topatu ditugu, *Larboain* (1925, UUA3) kasurako. Berriemaile guztiengandik *Larbuain* ([lárbuàn̰], K.) jaso dugu, eta ez da harritzeko, bertako hizkeran bokal arteko igurzkari belarraren erorketa arrunta delako (cf. *Larburugain* [lárburugán̰], Ai.).

---

559 Bokal arteko dardarkaria erori egiten da maizenik horrelakoetan eta, aldian behin, ezpainbikoa ere bai: *Urdabuu* ([úrdabuù], Arg. / [úrdabuùn], Id., *in.*), *Urdao* ([úrdaò], Bentatx.), *Urdabu* ([úrdabù], Larra.), (*Urdau* [úrdaù], Larra. eta Txab. 1), *Zabu* ([zábu] / [zábù], Amu.), *Zabuu* ([zábuua], Amu., *adl.s.*), *Zagu* ([zágu]), *Zau* ([záu]) eta *Xagu* ([xágu], Ek.).

Ihartua dagoen *-garai* bereizgarriaren lehen testigantzak 18. gizaldikoak dira (*Echaondo-garay*, 1768-1797, HGR1, 30 au.; *Lastolagarai* 1797-1833, HGR2, 39 au.) eta azkenekoa, berriz, 19. mendekoa (*Unzue-garay*, 1838, DUA5). Leku genitiboaren hondarkiarekin ere opatu dugu (*Urruzuna garaico borda* (1864, HUA47). Ohar bedi postposizio hori hartu duten toponimoek ez dutela inoiz mugatzailerik hartzen gurean.

Goi-ren estreinako erakuskaria 17. mendekoa da (*Barcaztegoia*, 1625, LMI, 102 or.), baina gainerako agerraldi bakanak berandukoak dira. Aski bitez diogunaren lekukotzat *Bainketagoya* (1928, JMB2, 268 or.) eta *Altamo-goia* (1942, IGC1) testigantzak. Ahozko tradizioan ere ale bat besterik ez dago (*Barinketa goya*, 1988, OBIE).

Ondo-k, bereizgarria izateko, idatzizko tradizioa luze samarra du gurean. Honatx horren adibide zenbait[560]: "... *en el dicho valle de la Hurumea en la parte que llaman e dizen Aparraynondoa* [...]", (1536, HUA8); "... *en la parte llamada Picalondoa...*", (1569, HUA18, 4 bin.); "... *manteniendo al pie de Adarraondo* [...]", 1628, DUA1; "... *montazgo llamado Choco-ondo* [...]", 1868, DJE; *Beloki-ondua* (1935, HUA57, 848 or.). Badaude zati generikoz eta espezifikoz osatutako formei lotu zaielako testigantzak ("... *tierras en Cucutegui Yturriondo* [...]", 1863, URU, 149 au.; *Pardaquico-aitz-ondoa*, 1794-1831, UGR3, 19 au.), eta aurretik beste bereizgarria hartu duelako adibideak ere bai (*Pardaqui-azpia-ondoa*, 1951, UUA18). Ahozko tradizioan ez dugu bereizgarritzat jaso[561].

Bada idazkietan *-saiets* erabili dela jakitera ematen duen iharturiko lekukoa; EPELSAIETSA-z ari gara[562]. 1550. urterako kausitu dugu ("... *herreria de Epelsayesa* [...]", HUA13, 3 au.) eta hurrengo alea 17. gizaldikoa da ("... *termino de Epelsayessa* [...]", 1668, HUA27, 125 bin.) da. 18. mende arte forma artikuludunak gehiago dira eta, bestalde, hiatoan *y* / *i* duten aldaerak eta *e* dutenak garai berean azaltzen dira[563]. 16. eta

560 *-Ondo* izena oinarrizko osagaitzat duten adibide franko daude (*Belondo*, 1831-1845, UGR4, 23 au.; *Sorondo,* 1932, HUA57, 417 or.). *Erreca ondoa* formak, esaterako, artean toponimoa erabat finkatu gabe zegoela iradokitzen du (1794-1831, UGR3, 9 r.).

561 Bai, ordea, izen espezifikoaren oinarrizko osagai gisa (*Urbillondo* [úrbillondò], Amu.).

562 Cf. Hondarribiko *Jaizkibelsaetsa* (*Jasquibel saessa*, 1555); Furundarena (2002: 438).

563 Mitxelenak (*FHV*, 175-176) oroitarazten du *y* / *i* duten aldaerak direla zaharrenak.

17. mendeetan *-s-* eta *-ss-* grafemak gailentzen dira bigarren txistukaria adierazteko, hau da, *Epelsayesa* (1573, HUA19, 29 au.) eta *Epelsaessa* formen (1595, HUA10) modukoak dira nagusi, nahiz eta *Epelsaeça* (1625, HUA26, 52 r.) eta antzekoak badiren. Zentzu horretan, ez bedi ahantz, euskaraz, hitz batean bi txistukari daudenean artikulazio-puntu bera izaten dutela[564]. *Z* grafema 18. mendean nagusitzen da (*Epelsaeza*, 1702, HUA29; *Epelzaieza*, 1739, HUA36; *Epelzaeza*, 1773, VEK1A) eta bukaeran txistukaria soilik duen aldaera ere garai berekoa da (*Epelzaies*, 1773, VEK1B).

Gurean, *aieka*-ren testigantza bakarra dago[565] (*Akolayeka* ([ákolayeká], Larra.). Jimeno Jurio eta Salaberriren (1992: 415) ustez, *aieka* terminoa *aiher*-en eratorria dateke. Aurreneko biek Goizuetan ia *alde*-ren sinonimoa dela azpimarratzen dute eta, ildo horretan, ez bedi ahantz ‘saihetsa’, ‘alboa’ esanahia ere baduela (*OEH*).

7.1.2. Nagusi eta maizterren izenak

Gure esparruko zenbait toponimori erantsitako nagusi eta maizterren izenez jardungo dugu azpiatal honetan eta, hasteko, arreta pixka bat opa diezaiogun adierazkorra den kasu bati, ETXASPURU baserriaren izenari hain justu. Erratua den *Echapuru* (1797-1833, HGR2, 49 au.) alde batera utziz gero, 18. mendean *Echaspuru* forma irakurtzen da beti idazkietan (1739, HUA36; 1740, HUA30, 541 au.; 1797-1833, HGR2, 59 au.) eta 19. mendean ere hori da gehien aurkitu duguna (1843, HUA44; 1857, HUA48, 45 or.). 20. mendean *Echespuru* azaltzen da estreinakoz (1920, HUA57, 43 or.; 1937, AB) eta egun *Itxaspuru* ([itxáspurù], K.) da eskuarki erabiltzen dena (*E-* + *txistukaria* > *I-* + *txistukaria*), *Itxasburu* (1989, HUTB) forma bildua badago ere. Zernahi gisaz, bada aurreko guztiaren gakoa den aipamena: *Eche aizpuru* (1864, HUA47). Bakarra denez gero, ezin da erabakigarritzat jo, baina bigarren osagaia *Aizpuru* deitura izan liteke, hurrenkeraren aldetik ez dagoelako oztopo gaindiezinik[566].

---

564 *FHV*, 283.

565 Izen espezifikotzat ere erabili da. Iruñean, esate baterako, *Ayeca* (1602, 1603 eta 1625) izeneko lekua zegoen (Jimeno Jurio & Salaberri 1992: 60), baita Muskitzen (Imotzen) ere.

566 Zubietako *Aizpurua* jauretxeaz ari gara.

Hortaz, garbi dago hainbat toponimoren etimoa argitzeko jabe eta maizterren izenak kontuan hartzea lagungarri gerta litekeela.

Deituren artean, izen espezifikoari preposizio bidez lotutakoak ditugu lehenbizi, "*Verruzuno garaicoa del licenciado Echazarreta*", (1625, LMI, 234 or.), *Alchurro de Lucámbio* (1857, HUA48, 39 or.) edo *Alchurro de Ormazábal* (1857, HUA54, 39 or.) esate baterako. Preposiziorik ez dutenak 17. mendean opatu ditugu lehenbiziko aldiz idazkietan eta honako lekukotasunak daude ordutik: *Egurrola Lazcano* (1691, L.M., 162 or.), *Epela ayerdi* (1863, HRU, 46 bin.), *Egurrola Estrada* (1740, HUA30, 541 au.), *Alcibar Yguerategui* (1900, UEA3), *Alcibar-lasarte* (1900, UEA2). Bada aposizioan dagoen alea ("... *cerca de Lazcano Egurrola* [...]", 1863, URU, 148 bin.), leku genitiboaren hondarkiarekin izkiriaturik dagoen bat ere bai (*Eguiluze-Mendicoa*, 1962, UTC eta 1981, SGE2). Deituraren ordez estatusa espresuki adierazten duten bi forma topatu ditugu[567], *Amorola maizterra* (1900, UEA3) eta *Amorola nagusi* (1900, UEA3).

7.2. Izenondoak[568]

19. mendeko *Otsuania-aundi* (1843, HUA44) eta *Ubarroto aundi* (1864, HUA47) dira *-aundi* (gazt. *mayor*) izenondoaren erakusgarri zaharrenak gurean. 19. mendeko zenbait testigantzatan artikulua ikusten da, baina 20. mendean erabat desagertzen da marka hori. Ildo horretan, bada bi aldaera aldizkatzen dituen agiria, salbuespentzat jo litekeena: "... *montazgo llamado Mizpiradi-aundi* [...]", (1868, DJE) / "... *montazgo llamado Mizpiradi-aundia* [...]", (1868, DJE). Ahozko tradizioan erakuskari gutxi daude eta honatx horietako bi lagintzat: *Aitzolako pago aundiya* ([ái̯tzolakò pago áu̯ndiyà], Amu. / [ái̯tzolakò págo áu̯ndiyà], Ek.).

Txipi / txiki, gehienik erabili den zehazgarria izateaz gainera, idatzizko tradizio luze samarra duen izenondoa da. Aurreneko lekukotasuna 16. mendekoa da[569] eta *chipi*

[567] Cf. Satrustegik (1966: 27) Luzaiden bilduriko *Gorosgaray casero*.

[568] Izenondoek toponimian duten garrantziaz ikus Trapero (1995: 38), eta Terrado (1999: 82).

[569] Gaztelaniazko *menor* izenondoaren aipamen zaharrena 17. mendekoa da (1683, *cerro de Urdaburumenor*, HUA28). 18. mendean ere topatu dugu (*Urdaburo Menor*, 1773, VEK1A).

forma irakur liteke (*Urdalvinchipi*, 1554, EUA2, 122 or.). Orobat 17. gizaldian (*Urdaburu chipi*, 1628, DUA1; *Adarrachipia*, 1628, DUA1). Hurrengo testigantzak 18. mendekoak dira (*Cillegui chiquia*, 1743, HUA30, 568 au.), eta badaude 19. eta 20. mendeko erakusgarriak ere (*Otsuania-chiqui*, 1843, HUA44; *Casa Arbelaitz-enea chiqui*, 1932, HUA57, 604 or.), baina, ikusten den bezala, *chiqui* kausitu dugu beti aldi horretan. Horrenbestez, 19. eta 20. mendeetan idazkietatik erabat desagertu arte, *txipi* forma indarrean egon zen behinola gurean[570]. Artikuluaren erabilpenari erreparatzen bazaio, 18. mendean marka hori dutenak ikusten dira artean (*Silleguichiquia*, 1797, HUA41), baina 20. mendean ia erabat desagertzen dira mugatzailea dutenak (*Pardiola-Chiqui*, 1932, HUA57, 476 or.). Ahozko tradizioan ere sabaiko afrikaria duten forma markatu gabeak nagusitzen dira, *Eztiza txiki* ([éztizà txíkì], Amu.) adibidez. Badago hasieran horzkaria eta bukaeran sabaiko afrikatuaren epentesia erakusten duen alea (*Zillei ttikiya* [zíllèi̯ ttíkiyà], Txil.), baina berriemailea ez da nafarra[571].

-*Zar* izenondoa lehendik ere ezaguna den oikonimo bati erantsita dagoen aurreneko etsenplua *Idoiazarra* (1882, LMM, 170 or.) da[572]. Oro har artikulugabeak nagusitzen dira naroa den tradizio idatzian, eta ez dago loturazko bokalaren eraginaren aztarnarik[573]. Beste izenondo baten ondoren ere aurkitu dugu (*Lamberrizar*, 1797-1833, HGR2, 56 au.). Ahozko tradizioan mugatzailearekin eta mugatzailerik gabe ebakitzen dute informatzaileek (*Bastolazarra* [bástolazarrà], K.; *Frantzilla zar* [frántzillà zár], K.) eta generiko baten segidan ere jaso dugu (*Beltxoko bordazarra* [béltxokò bórdazarrà], Ezk. b.).

-*Berri* ere bereizgarri erabilienen artean dago. Aurreneko testigantza 18. mendearen amaierakoa da[574] (*Errotaran-berri*, 1797-1833, HGR2, 46 au.) eta, orduz gero, idatzizko lekukotasun franko daude (*Baringárate-berri*, 1857, HUA48, 61 or.; *Beloqui berri*,

---

570 Hernaniko Udal Artxiboan, 1739. urteko idazki batean, *Ynchaurchipieta* (HUA36) forma dago idatzirik.

571 Mitxelenak (*FHV*, 186) *ttipi*, *ttiki* eta *txipi* aldaeren banaketa euskalkiekin lotzen du.

572 Hona hemen toponimo baten osagai banaezintzat azaltzen den lehen aldia: *pozo de Zubizar* (1683, HUA28). Badaude gehiago, *Presazar* (1857, HINGR2, 5097 zenb.) eta *Sagastizarra* (1936, HUA57, 664 or.) konparaziorako.

573 Cf. *Olazarre* (1843, HUA44) eta *Kulpizarre* (1923, JMB1, 121 or.).

574 Bidenabar, ohar bat: gaztelaniaz parekoa den *la nueva* esapidearen erakuskari bakarra 1573. urtekoa da gurean (*Bastola la nueba,* 1573, HUA19, 7 bin.).

1920, HUA57, 864 or.). 17. eta 18. mendeetan mugatzailea dutenen hainbatekoa garrantzitsua da, 19. mendetik aurrera ia erabat desagertu zen arte. Beste izenondo baten ondoren ere egon liteke (*Barcaíztegui-bengóa-berri*, 1857, HUA48, 71 or.). Berriemaileek artikulurik gabe darabilte beti (*Eula berri* [éu̯là bérrì], K.).

Izenondoekin amaitzeko, bada *faltsu* osagaitzat duen toponimoa. Bi lekukotasun daude eta batek ezpainbikoaren epentesia erakusten du (*Aerreko arkaitz faltsuba*, 1989, UUTB), baina besteak ez (*Aerreko arkaitz faltsua* [áerrekò árkái̯tz fáltsuà], Mari. 2). Ez dugu gehiago aurkitu.

7.3. Izenlagunak

Azpiko[575] izenlagunari lotuko gatzaizkio hasteko. Lehen aipamena 1625. urtekoa da eta Isastiren liburuan irakur daitekeena (*Barcazte azpicoa*, LMI, 162 or.). Gaztelaniazko *de yuso* eta *de abajo* adina ez, baina sarritan kausitu dugu idazkietan, artikuluarekin beti, 20. mendearen erdialdean galtzen den arte. Txistukariaren grafia ez da orobatekoa aldi oro, 18. mendeko dokumentazioan *s* duen aldaera nagusituagatik (*Lastola Aspicoa*, 1739, HUA36; *Unzue aspicoa*, 1773, VEK1B), 19. eta 20. gizaldietan *z* duena gailentzen delako ("... *caserio Urruzuna-azpicoa* [...]", 1843, HUA44; *Arambegui-azpicoa*, 1951, U.U.5). Ahozko tradizioan ez dugu kausitu.

Ahozko tradizioan *beko* izenlagunaren agerraldi ugari daude (*Beko Barkixtei* [békò bárkixtèi̯], An. 1; *Beko elkita* [béko élkità], Aparr. eta Bentatx.), baina tradizio idatzian ez dugu kausitu[576]. *-Beko*, aldiz, 19. mendeko idazkietan opatu dugu lehenbizikoz eta, orduko, bi etsenplutan *-oa* > *-ua* hersketa ikusten da hitz amaieran (*Errotaran-becua*,

[575] Gaztelaniazko *de yuso*-ren lehenbiziko lekukoak 15. mendekoak dira Zilegimendietan ("... *sel de Alcaycuren de yuso...*", 1467, HUA5) eta 19. mende arte sarritan azaltzen da idazkietan. Zenbait adibide jar genezake diogunaren lekuko: "... *casa Barcardaztegui de yuso* [...]", (1548, HUA12), *Egurrola de Yuso* (1610, LMZ, 163 or.), "... *sel de Unssue de yuso* [...]", (1833-1835, DUA2) eta *Amon-ola de yuso* (1838, DUA5). *De (a)bajo* esamoldearen aurreneko agerraldiak 16. mendekoak dira (*Amunola de baxo* (1516, HUA7; "... *seles llamados* [...] *Unçue de abaxo* [...]", 1595, HUA10) eta badaude testigantza gehiago 19. mendea arte, *Unzue de avajo* (1780, HUA39), *Eguiluce de abajo* (1857, HUA 48, 61 or.) eta *Troya de abajo* (1898, EGZ) lekuko. Halaz ere, ez da *de yuso* adina azaltzen tradizio idatzian.

[576] Hauek dira *beko-* izenlagunaren idatzizko aurreneko erakusgarriak: *Becoborda* (1898, EGZ), *Beko-borda* (1931, *caseria*, UUA8), *Beco-borda* (1942, IGC1). Bide batez, diogun *beko* izen

1843, HUA44; *Lastola-becua*, 1843, HUA44; eta *Yorin-becoa*, 1870, HUA49). Izan ere, forma artikuludunak nagusitzen dira idazkietan, *Larragain beco* (1911, IM) oikonimoaren moduko salbuespenak egon arren. Ildo horretan, kasu marka hori erabiltzen denean hitz amaieran gertatutakoari erreparatzen badiogu, bietakoak daude 20. mendean, hots, hersketa erakusten dutenak eta bere horretan dirautenak (*Iguerola-becua* (1920, HUA57, 166 or. / *Yguerola becoa*, 1937, A.B.).

-*Beko* gutxitan aurkitu dugu ahozko tradizioan, beti oikonimoen ondoren. Artikulua hartu dutenak nagusitzen dira horrelakoetan (*Inbuteibekua* [ínbutèi̯békuá], Ai.) eta joera hitz amaieran hersketa burutzea da, egon, *Larrain bekoa* (1989, HUTB) bezalakoren bat badagoen arren. Informatzaileek, izen espezifikoaren ondoren, toponimia-galdeketari erantzuterakoan besterik ez darabilte. Gauza bera agitzen da *erdiko* eta *goiko* izenlagunekin, espezifikoaren aurretik azaltzen baitira maizenik ahozko tradizioan.

Iharturik dagoen -*bengo*-ren erakuskari zaharrenak 17. mendekoak dira[577], *Barcaiztegui bengoa* (1632, LMZ, 162 or.) eta disimilazioa (-*e*- + -*e*- > -*ei*-) erakusten duen *Larburu beingoa* (1689, LMZ, 164 or.) hain zuzen. Gainerakoak 19. mendekoak dira eta *Barkaiztegibengoa* toponimoari dagozkio guztiak. Bereziena 1857. urteko baserri-izendegian dagoen bat da, ondoren *berri* izenondoa duelako (*Barcaíztegui-bengóa-berri*, 1857, HUA48, 71 or.).

Egon, ahozko tradizioan *erdiko* izenlagunaren erakusgarriak badaude (*Erdiko egiya* [érdikò égiyà], Amu.; *Erdiko Barkixtei* [érdikò bárkixtèi̯], K.), baina, dena dela, gutxitan erabiltzen dute berriemaileek. -*Erdiko*-ren lehenbiziko agerraldia, berriz, 18. mendearen amaierakoa da[578] eta hitz bukaeran ez dago -*oa* > -*ua* hersketaren arrastorik (*Ercatz erdicoa*, 1799, HUA42, 171 bin.). Idatzizko beste hiru adibide daude hortik aurrera (*Ercaiz erdicoa*, 1863, HRU, 50 bin.; *Acola-erdicoa*, 1926, HUA57,123 or.; *Atamugarri-erdicoa* (1962, UTC). Informatzaileek bakan erabiltzen dute hau ere, eta

---

espezifikoaren eta generikoaren artean dagoela 20. mendeko idazki batean (*Besadegui beco-soroa*, 1951, *maizal*, UUA18).

577 Badago gaztelaniazko *baja* izenondoaren lekukotasuna (*Trinchera baja*, 1932, HUA57, 454 or.).

578 Gaztelaniazko *de en medio* terminoaren aipamen bakarra 18. mendeko mapa batean topatu dugu (*Acola de en medio*, 1773, *sel* , VEK1).

aski bedi *Inbutei erdikua* ([ínbutèi̯ érdikuà], Ai.) etsenplua diogunaren lekukotzat. Artikulua du beti eta *-oa* > *-ua* hersketa burutzen da usaian (*Errotan erdikua* [érrotàn érdikuà], Hern. 1).

-Garaiko, *goiko-/-goiko* sailari lotuko gatzaizkio jarraian[579]. Lehenik eta behin, esan dezagun *goiko-* izenlagunaren aurreneko lekukotasuna 19. mendearen amaierakoa dela (*Cueva de Goico-arraitza*, 1898, EGZ) eta gainerako idatzizko erakuskariak ere berandukoak direla (*Goiko Telleri*, 1983, GFA2). Ahozko tradizioan oikonimoen aurretik azaltzen da eskuarki (*Goiko Añua* [gói̯kò áñuà], Txab 2; *Goiko Iyola* [gói̯kò íyolà], Bezk. eta Pag.).

Ihartuta dagoen *-garaiko* izenlagunaren aipamen zaharrenak 17. mendekoak dira (*Verruzuno garaicoa del licenciado Echazarreta*, 1625, LMI, 234 or.; *Barcaiztegui garaicoa*, 1664, LMZ, 162 or.) eta esan beharra dago ugari azaltzen dela idazkietan (*Acola garaicoa*, 1769, HUA37; *Barcaiztegui-garaicoa*, 1855. UEA1; *Esteiza-garaicoa*, 1935, HUA57, 954 or.). Mugatzailearekin hornituta dago gehienetan, baina idatzizko iturrietan gutxitan ikusten den *-oa* > *-ua* hersketa ez da 19. mende arte agertzen (*Errotaran-garaicua*, 1843, HUA44). Badago ondoan beste izenondoa duen etsenplua (*Urruzuna-garaicóa-berri*, 1864, HUA48, 47 or.). Ahozko tradizioari dagokionez, *Urruzunaiko* ([úrruzunái̯ko], Bezk.) forma baizik ez dugu bildu, *garaiko* izenondoarekin zerikusia izan lezakeena, baina, era berean, *Urruzunagoiko* toponimoarekin lotua egon litekeena[580].

-Goiko-ren aurreneko lekukoak 19. mendekoak dira, laurak mugatzailea dutenak (*Pardiola goicoa*, 1864, HUA47; *Baringárate-goicóa*, 1857, HUA48, 61 or.; *Ycen-eder goicoa ó Yorin-goicoa*, 1870, HUA49). Gainerakoan ere testigantza gehienek kasu

---

579 Gaztelaniazko *de suso* esapidearen lehenbiziko agerraldiak 15. mendekoak dira gurean ("*... en el canto del sel de Alcayçuren de suso* [...]", 1467, HUA5) eta horrez gainera erakuskari franko daude 19. mende arte ("*... sel de Hurruçuno de suso* [...]", 1516, HUA7; "*... ferreria de Urruzuno de Suso* [...]", 1607, HUA23; *Anchistta de suso*, 1773, VEK1) eta *Amon-ola de suso* (1838, DUA5). Bada *de* preposizioa ez duen salbuespena (*Uncue-Suso*, 1773, VEK1A). Bestalde, *de arriba* zehaztailearen lehenbiziko erakusgarriak 16. mendekoak dira ("*... seles llamados Unçue de arriba* [...]", 1595, HUA10) eta badaude beste aipamen batzuk (*Unzue de arriba*, 1773, HUA38; *Eguiluce de arriba*, 1857, HUA 47, 61 or.) 19. mendean ezkutatu arte. Gutxi dira, halere.

580 Berriemaile berak *Urruzuna goiko* ([úrruzunà gó□kò], Bezk.) darabil.

marka hori dute, baina gutxi dira hitz amaieran *-oa* > *-ua* hersketa erakusten dutenak (*Lastola goicua* (1864, HUA47). Ahozko tradizioan, artikuluaren erabilpenak eragindako *-oa* > *-ua* hersketa ikusten da erakuskari gehienetan (*Izener goikua* [izénèr gói̯kuà], Larra. eta Txab. 1), eta, hortaz, etimologikoa dirudien *Urruzuna goikoa* ([úrruzunà gói̯kóa], Amu.) salbuespentzat jo daiteke[581]. *Agiñako goiko tontorra* ([ágiñakò gói̯kò tóntorrà], Txab. 1), *Dantzalekuko goiko bizkarra* ([dántzalekukò gói̯kò bízkarrà], Txim.) eta *Urdauko goiko tontorra* ([úrdaukò gói̯kò tóntorrà], Larra.) oronimoak ere jaso ditugu, eta diogun, ildo beretik, *goiko aldeko* bereizgarriaren erakusgarri bakarra 1951. urtekoa dela. Horzkariaren ondoren *i* bokal itxia duena hau (*Pardaqui-goicaldicoa*, UUA18).

Azpiatal honekin bukatzeko, ahozko tradizioan *lehenbiziko* eta *bigarren* izenlagunen erakuskari bana daudela esan dezagun (*Lenbiziko erreka* [lénbizikò érrekà], Iz.; *Bigarren erreka* [bígarren érrekà], Iz.) eta, esan gabe doa deixiaren lekuko diren bi hidrotoponimo horiek elkarren ondoan daudela, IZENEDER aldean egon ere[582].

[581] Informatzaileak *-ua* ahoskatzen du arrunki bukaeran.

[582] Cf. Iturengo (Malerrekako) *Lehenbiziko hegia* (Iñigo, 1996: 288), edota Aurizperriko (Erroibarko) eta Ibiltzietako (Zaraitzuko) *Lehenbiziko ziloa* (*NTEM-XXXV*, 75 eta *NTEM-XXX*, 268). Halaber, *Erdiko hegia* izeneko tokia dago, esaterako, Arrasaten (Ormaetxea, 1996: 380).

7.4. Gure esparruko bereizgarrien aldaketak

Mugatzailea eranstean izaten den herskari ezpainbikoaren epentesia (*-u + -a > -uba*), generikoekin gertatu bezala, bokalen hersketa (*-e + -a > -ia*; *-o + -a > -ua*) edota sabaiko afrikatuaren epentesia baino (*-i + -a > -iya*) zertxobait lehenago azaltzen da idatzizko iturrietan. Hain zuzen, bokalen hersketa 19.-20. mende arte ez da ageri eta, aitzitik, ezpainbikoaren epentesia 18.-19. menderako kausitu dugu idazkietan. Sabaiko afrikatua txertatu delako aurreneko lekukotasuna ere 20. mendekoa da.

Hiatoan izaten diren hersketekin jarraituz, *ea > -ia* inflexioa 19. gizaldian dokumentatzen da lehenbizikoz (*Lamberripia*, 1797-1833, HGR2, 48 au.; *Iturregui aldia*, 1855-1857, HTR8, 22 au.), berandu samar alegia. Berriemaileek, ordea, postposizioak dituzten toponimoak ematerakoan *-ea > -ia* hersketaren lekuko diren formak ebakitzen dituzte beti. *-O- + -a > -ua* gertatu delako idatzizko aztarnak 20. gizaldikoak dira (*Beloki-ondua*, 1935, HUA57, 848 or.), are berriagoak, hortaz.

Kontsonanteen eransketei dagokienez, *-u* bokalaz amaitzen diren generikoak mugatu singularrean deklinatzean sortutako hiatoan herskari ezpainbiko ahostuna txertatu delako estreinako erakusgarria 18. mendekoa da (*Ereñozu buruba*, 1797-1833, HGR2, 72 au.). Ahozko tradizioan ere epentesiak indarra du (*Aerreko arkaitz faltsuba*, 1989, UUTB), baina ez da erabateko araua (*Aerreko arkaitz faltsua* [áerrekò árkái̯tz fáltsuà], Mari. 2).

-I bokalaz amaitutako bereizgarriei erreparatzen badiegu, mugatu singularrean deklinatzen direnean sabaiko afrikatua garatzen da egun (*-i + -a > -iya*), baina epentesi horren aurreneko aztarnak berandukoak dira, 20. mendekoak hain justu (*Abillats-azpiya*, 1920, HUA57, 578 or.) eta, gainera, batzuetan bi aldaerak erabiltzen dira idazki berean (*Alcega-azpia* (1920, HUA57, 352 or.; *Alcega-azpiya* (1920, HUA57, 257 or.). Esan bezala, ahozko tradizioan epentesia automatikoa da (*Akurrika azpiya* [ákurrikà ázpiyà], Larr.).

-oi̯- + *-a* > *-oya* sabaikaritzearen estreinako etsenplua 20. mendekoa da gure esparruan eta aski bedi diogunaren lekukotzat *Bainketagoya* (1928, JMB2, 268 or.) oikonimoa. Ahozko tradizioan ale bat besterik ez dago (*Barinketa goya*, 1988, OBIE).

Sai(h)ets izenaren bilakaerari begiratzen badiogu, hiatoan *y* / *i* dutenak eta *e* dutenak garai berean azaltzen dira (*Epelsayesa*, 1550, HUA13, 3 au.; *Epelsaessa*, 1595, HUA10). Artikulua gabe 18. gizaldian aurkitu dugu lehenengoz (*Epelzaies*, 1773, VEK1B).

Kontsonanteei lotuko gatzaizkie azkenik, eta herskariekin hasiko gara. 16. eta 17. mendeetan *chipi* aldaera kausitu dugu (*Urdalvinchipi*, 1554, EUA2, 122 or.; *Urdaburu chipi*, 1628, DUA1; *Adarrachipia*, 1628, DUA1), baina 18. gizaldian *Cillegui chiquia* (1743, HUA30, 568 au.) dugu esate baterako, eta hortik aurrera gaurko aldaera baizik ez dugu topatu. Horzkaria duen ale bakarra dago (*Zillei ttikiya* [zíllèi̯ ttíkiyà], Txil.).

Amaitzeko, kontsonante ezpain-horzkaria duen bereizgarri bakarra dagoela eta *F-* > *P-* aldaketa ez dela gauzatu esatea besterik ez zaigu gelditzen (*Aerreko arkaitz faltsuba* (1989, UUTB; *Aerreko arkaitz faltsua* [áerrekò árkái̯tz fáltsuà], Mari. 2).

Bereizgarrien aldaketen diagramak

Postposizio edo izenak[583]

21.

	-aldia	***-azpi*/*-iya***	**-barrena**		
1989		***-atze-***	***-barrena ?***		
1950	***-aldea***/*-ia*				
1900	***-aurria***	***-azpia***/*-iya*		***-be***	***-buru****ba*
1800	***-aldea***/*-ia*	***-azpi***	***-barrena***	***-be***	***-buruba***
18.-19	***-aldea***	***-azpia***			***-buruba***
1700		***-azpia***			
1600					
16.					
1400		***-azpia***			

21.

1989		***-goya***			***-erdi***
1950					***-erdi***
1900		***-goia***/*-oya*	***-ondua***		
1800	***-garai***		***-ondo***		***-erdi***
18.-19.	***-garai***		***-ondo***		
1700				***-zaies*, *-zaes*, *-saeza***	
1600		***-goia***	***-ondo***	***-saeça*, *-sayesa***	
16.			***-ondoa***	***-saessa*, *-sayesa***	

[583] Hizki argiagoz idatzitakoa gutxien agertzen den aldaera da.

Izenondoak

21.

	-aundiya?	**-txiki, -**ttikiya	**-zar(ra)**	**-berri**
1989				
1950				
1900	***-aundi***	***-txiki***	***-zarra***	***-berri***
1800	***-aundi(a)***	***-txiki***	***-zarra***	***-berri***
18.-19.				***-berri***
1700		***-txiki(a)***		
1600		***-txipi***		
16.		***-txipi***		

Zati espezifikoaren jarraian ageri diren izenlagunak

21.

	bekua		**erdikua**
1989	***bekoa***		
1950	***azpikoa***		***erdikoa***
1900	***beko(a)****/-ua*		***erdikoa***
1800	***azpikoa***	***bekoa****/-ua* ***bengoa***	***erdikoa***
18.-19.			
1700	***azpikoa***		***erdikoa***
1600	***azpikoa***	***bengoa***	

21.

		goikoa/**-ua**	
1989			
1950		***goikoa***	***goikaldikoa***
1900	***garaikoa***	***goikoa***	
1800	***garaikoa****/-ua*	***goikoa/****-ua*	
1700	***garaikoa***		
17.	***garaikoa***		

7.5. Bereizgarritzat erabilitako izenak, izenondoak eta izenlagunak

Bereizgarritzat erabilitako berrogeita lau hitz bildu ditugu eta bereizgarriak hartu dituzten toponimoak (izenburuak) berrehun eta hirurogeita hamasei dira guztira gure esparruan[584] (% 8,0), zati generikoez hornituta dudenak baino askoz gutxiago, hortaz. Batzuk ihartuta daude, nagusi eta maizterren izen gehienak konparaziora, baita *-aurre*, *-be / -pe* (behe), *-buru*, *-garai*, *-ondo* eta *-saiets* (saihets) izenak. Orobat *-bengo* (behengo) eta *-garaiko* izenlagunei dagokienez. *-Goi* izena da galzorian dagoen bestea. Gure esparruan erabilitako zehaztaile multzoaren murrizketa nabarmena da beraz, postposizioen arloan bereziki. Bizirik dirautenen sailean, *txiki* da agerraldi gehien dituen zehaztailea, eta ondoren *-alde* eta *-azpi* izenak nahiz *-berri* izenondoa dira naroenak.

Idatziz aurrena opatu ditugunak *azpi*, *gain*, *ondo*, *saihets* eta *txipi* dira, aurrenekoa hamabostgarren mendean eta gainerako laurak hamaseigarrenean. *Azpiko*, *-pe*, *behengo*, *garaiko* eta *goi* 17. gizaldian azaltzen dira. Hemen ere, ordea, generikoekin bezain zuhur ibili behar da datu horietan oinarri harturik ondorioren bat atera nahi bada. Garbi dagoena da bereizgarriek izen generikoek baino idatzizko tradizio luzeagoa dutela, haiek baino gutxiago erabili badira ere. Gehiago da: idatzizko erakuskariak dituzte bereizgarri gehienek, generikoek ez bezala. Ahozko tradizioan soilik idoro ditugunak *aieka*, *bigarren* eta *lehenbiziko* dira, baita, egiazki zehaztailea balitz, *faltsu* ere.

Azpimarratzekoa da, generikoen sailean ez bezala, bereizgarrien artean mailegu gutxi egotea, bi baizik ez. Era berean, diogun gutxi direla metaforan jatorri duten zehaztaileak, *buru* eta, agian, *saihets* besterik ez. Zehaztaileekin bukatzeko, hona hemen gure esparruan kausitu ditugunen zerrenda:

A. *aieka*, Aizpuru (1739), alde (1794-1831), atze (1989), aurre (1920), azpi (1461), azpiko (1625). **B**. barren (1857), behe (*-be*, 1898 / *-pe* 1683), **beheiti* (1928), beheko (1843), *behengo* (1632), berri (1797), bigarren, buru (1797-1833). **E**. erdi (1857), erdiko (1799), Etxezarreta (1625). **F**. faltsu. **G**. gain (1597), garai (1768-1797), garaiko

[584] Besterik da toponimoen osagai banaezintzat duten emankortasuna (ikus 8.2. §).

(1625), goi (1625), goialdeko (1951), goien (1932), goiko (1855-1857). **H**. haundi (1843). **I**. Igerategi (1900). **L**. Lasarte (1900), Lazkano (1691), lehenbiziko, Lukanbio (1857),. **M**. maizter (1900). **N**. nagusi (1900). **O**. ondo (1536), Ormazabal (1857). **S**. saihets (1550). **Tx**. txipi / txiki (1554 / 1797). **Z**. zahar (1882).

Bereizgarrien aurreneko agerraldien diagrama

21.

1989	*aieka*	atze	bigarren	faltsu?	lehenbiziko
1950	goialdeko				
	Maizterra	Nagusi	Igerategi	Lasarte	
1900	aurre	*beti*	goien		
	Lukanbio	Ormazabal			
1850	barren	*-be*	erdi	goiko	zahar
	beheko	haundi			
18.-19.	alde	buru			
	Aizpuru				
1700	berri	erdiko	garai	txiki	
	Lazkano	Etxezarreta			
1600	azpiko	*-pe*	*behengo*	garaiko	goi
16.	gain	ondo	saihets	txipi	
	azpi				

8. IZEN ESPEZIFIKOAK

Espezifikoak, generikoak ez bezala, ezaugarri berak dituzten toki edo izaki geografikoei izen ezberdinak emateko baliatzen dira (*Azketa* [mendia], *Urdaburu* [mendia]). Hain zuzen, izen espezifikoak horregatik dira toponimoak beren horretan, askotariko leku edo elementuak identifika eta bereiz ditzaketelako, beste osagaien beharra izan gabe. Generikoak eta espezifikoak bi multzotan banatzerakoan, seigarren atalaren hasieran esan bezala, toponimoak deklinabide hondarkia duen hartu dugu kontuan (ANTXISTA**KO** ERREKA), baita bereizlerik dagoen (PARDIOLA**TXIKI**, ALTZEGA**AZPIA**). Alabaina, espezifikoei antzemateko modurik fidagarriena toponimoak atzizkirik duen begiratzea da, horrelako osagairen bat agertuz gero izen espezifikoa non hasten den garbi ikusten delako (**BARKAIZTEGI**BENGOABERRI).

Osaketaren aldetik, izen espezifikoak hiru motakoak izan daitezke[585]: bakunak (AÑOA, LARRATS), elkartuak (**APAIZ**ARRI, LANDER**BASO**) eta eratorriak (ZULO**ETA**, IGOR**IN**). Espezifiko bakunak izen arruntak (TALAIA) eta bereziak (HERKULES, ANTSO) dirateke, azken mota horretakoak aski urriak badira ere. Espezifiko bihurtutako izen arrunten sailean termino geografikoak dira nagusi (ERMITA) eta, hori horrela delarik, ez da harritzeko bat baino gehiago dagoeneko generikoen sailean aztertu izatea (ZIKUÑAGAKO **ERMITA**).

Izen espezifiko elkartuen osagaiak bitarikoak dira. Zati garrantzitsuenari, izen sintagmaren elementu nagusiari, *mugakizuna* deituko diogu[586] (ERREKA**MUNTTO,** ERRAMU**ERREKA**), beste zatiak zehaztu egiten baitu hura (‘errekako **muntoa**’, ‘erramuen **erreka**’). Mugakizuna bereizten duen osagaiari, izen sintagmaren elementu nagusia mugatzen duenari (**GURUTZE**LEPOA, **AR**GURUTZ), berriz, *mugatzailea* esango diogu (‘**gurutzea dagoen** lepoa’, ‘**harrizko** gurutzea [dagoen tokia]’). Mugakizunak

[585] Euskal toponimoak izen sintagmak dira arrunki, eta gure esparrua ez da salbuespena, aditza duen toponimo bakarra aurkitu baitugu (HAURRA GALDU ZAN HARRIA). Satznamen-en auziaz, ikus Salaberri (2008), baita (1998: 77-78). Melerok eta Muxikak (1994: 445) ere aipatzen dituzte erlatibozko perpausetan jatorri duten toponimoak.

[586] Cf. Euskaltzaindia (1993: 44).

izen geografikoak izaten dira maizenik eta, esan bezala, horietariko franko beste toponimo batzuen izen generikotzat ikusi ditugu jadanik (ALKITZENEKO **MUNTOA,** ANTXISTAKO **ERREKA)**. Mugatzaileak ere izen geografikoak izan daitezke (**AR**TONTOR: '**harrien** tontorra', '**harrizko** tontorra'), edota pertsona izenak (**AGUSTIN**SORO: '**Agustinen** soroa'). Gainera, itxarotekoa zenez, badaude izenondoak diren mugatzaileak (MUNA**GORRI**, ERREKAL**BELTZ**) eta, hala berean, *alde*, *ondo* eta antzeko izenak ere sail horretan sar daitezke (LEGARR**ALDE**, MUNTT**ONDO**).

Bakunez eta elkartuez landa, hirugarrenik, atzizkia edo bukaera[587] duten izen espezifikoak daude, eratorriak alegia (GARAGAR**TZA**, AMUN**OLA**).

8.1. Izen espezifiko bakunak

Azpiatal honetan espezifiko bakuntzat erabili diren terminoez arduratuko gara soilik, generikotzat baliaturikoak seigarren kapituluan aztertu baititugu. Gardenak dira gehienak, asko eta asko euskal termino geografiko ezagunak; beste batzuek pertsona izenak dituzte iturburu eta badira etorki ezezagunekoak ere.

8.1.1. Izen arruntetan oinarri dutenak

Oronimia alorreko terminoetan oinarri duten espezifiko bakunei lotuko gatzaizkie hasteko. Hor dugu, esaterako, lurraren gorapena izendatzen duen *Munuba* ([múnubá], Ai.), *muino*-tik datorrena eta berriemaileak zati generikoz hornituta ere bazerabilena (*Munuko gaña*, [múnukò gáñá], Ai.). Ikusten den bezala, *-ui-* > *-u-* murriztapena eta aurrerako asimilazioa (*-u-* — *-o-* > *-u-* — *-u-*) burutu dira[588]. Cf. UNAMUNO.

Orografiaz dihardugularik, aipatu behar dugu TALAIA izena duen tokia eta mailegu hori iturburu duen hidrotoponimoa daudela gure esparruan[589]. Errekaren izena 1889. urtean kausitu dugu estreinakoz ("*... regatas llamadas de Talaya y Usoco* [...]", HUA55) eta oronimoaren berri guztiak, ordea, ahozkoak dira (*Talaya* [tálayà], Bentatx., Id. eta

[587] Ikus 8.3.§

[588] *Muno* aldaera ere jasota dago (1989, HUTB).

[589] Gipuzkoan *Talai(a)* mordoa dago: *Talai* baserria zegoen Orion (1998, ORM), *Talai* kaskoa dugu Irunen (1998, IRM), *Talaia* gaina azaltzen da Getarian (1998. GM) eta *Talaimendi* aurkitu dugu, azkenik, Zarautzen (1995, ZM). Eleizaldek (1922: 439) dio hasierako bokala galdu duten izenen sailean ziurtzat jo daitekeen bakarretakoa dela, eta Oiartzungo *Talaya* (baserria) jartzen du adibide moduan.

Larra.). Ildo horretan, *erreka* generikoa dutenetan *-a* itsatsia ez da erortzen (*Talayaerreka*, 1995, DTE). Metaforan jatorri duen PULPITU mailegua ere bildu dugu, mendi baten goialdea izendatzeko[590]. Berriemaileak bokal itxiaren ondoko herskaria busti egiten du aldi oro eta azpimarratzekoa da, hala berean, hitz hasieran, ezpainbikoaren ordez, herskari belarra ebakitzea (*Kurpitto* [kúrpittó] / *Kurpittu* [kurpíttu], [kúrpittú], [kúrpittù], [kúrpittúba], Amu.).

Portilu, *zoko*, *arroila* hirukoari lotuko gatzaizkio jarraian. Ahozko tradizioan *portilu* mailegua hirutan aurkitu dugu espezifikotako (*Portillua* [pórtilluà], Etxol.; *Portillua*, [pórtilluà], Bezk.; *Portilloko osinzulua* [pórtillokò osínzuluà], Bezk. / *Portilluko osinzulua* [pórtillukò osínzuluà], Bezk.) eta gogora dezagun termino hori lurraren sakonen generikotzat ere erabili dela gurean. Maileguez ari garenez gero, *zoko*-ren bi lekukotasun ihartu aurkitu ditugu, aurrenekoa Urnietan eta bigarrena Hernanin, biak bustiriko txistukaria dutenak (*Chocoa*, 1794-1831, UGR3, 9 au.; *Chocoa*, 1797-1833, HGR2, 44 au.); hau ere, jakina, generikotzat erabilitako izena da. Azkenik, ERRELLADURA / ERROLLADURA toponimoaren 18. mendeko bi aipamen daude (*Errelladura*, 1739, HUA36; *Errolladura*, 1797-1833, HGR2, 45 au.) eta, gure iritziz, *Arroila* terminoarekin dute zerikusia[591].

Eremu aldapatsuei begiratzen badiegu, badaude *malkar*-en erakusgarriak. Generikoen sailean dagoeneko aztertua dugun termino horren aurreneko erreferentzia 18. mendekoa da (*Malcarra*, 1797-1833, HGR2, 72 au.) eta esan beharra dago idatzizko tradizioan hurbileko mugatzailearekin azaltzen dela behin (*Malcarro*, 1922, HUA57, 376 or.). Era berean, *malkar*-en eratorria den *malkarpe*-ren lau aipamen topatu ditugu (ikus 7.1.1.§), guztiak artikuluz hornituak: *Malcarpia* (1920, HUA57, 112 or.), *Iguerasoro o Malcarpea* (1932, HUA57, 212 or.), *Malcarpea* (1932, HUA57, 213 or.) eta *Malcarpia* (1935, HUA57, 490 or.). Ahozko tradizioan ere *Malkarpe* espezifikoaren

[590] Cf. Uharte Arakilgo *Pulpitu* (*NTEM-XII,* 160) edota Itzalleko (Zaraitzuko) *El Púlpito* (*NTEM-XXX*, 108). Buru berean sar litezke Zarauzko *Kurpitoarri* (1995, ZM) eta Luzaideko *Predikaarri* (Satrustegi, 1970b: 145) ere.

[591] Irudi du Gipuzkoako leku gehiagotan gertatu dela *Arroil-* > *Erroil-* aldaketa eta, adibidez, *Erroyondo* (1404) izeneko saroia aipatzen du Ataunen Arin Dorronsorok (1958: 111). Hitz hasierako bokalaren hersketa dela eta, *Erroilaundi* izeneko tokiak daude Arantzan eta Etxalarren (Bortzirietan) (*NTEM-IL*, 139).

lekukotasuna dago, singularreko adlatiboan deklinatuta (*Malakarpea* [málkarpeà], Al. *adl.s*.), baina apartekotzat hartu behar den ez dago argi, hots, idatziz azaltzen direnetako bat den ezin jakin.

Harriataka / *harpauso* bikoari doakionez, aurrenekoa ahozko bi toponimotan agertzen da[592]. Urnietan dagoena bi berriemailek aipatzen dute (*Arrataka* ([árratakà] / *Arratakak* [árratakàk], Amu.; *Arriatakak* [árriatakàk], Amu. / *Arritakak* [árritakàk], Mari. 2) eta informatzaile nagusiak *harriataka* zer den horrela adierazten du: "*Pasaizua izatekuak*" ([pasái̯zuà izátekuàk], Amu.). Beste *Arriataka* Errenterian dago, AIZPITARTE eta IDOIAGAÑA bitartean (1989, OM). ARPAUSO toponimoak[593], bestalde, Urnietako MONTEFRIO baserritik gertu dagoen igarobidea izendatzen du (*Arpausua* [arpáu̯̯suà], Mari. 2).

ZORROZTARRI izeneko muinoa ere badago gure esparruan. Idatzizko testigantzak berriak dira (*Zorrotz-arri*, 1976, TA, 14 or.; *Zorrostarri*, 1982, *cota*, CAG, 181 or.; *Zorrotzarri*, 1983, GFA2), baina ahozko lekukotasun ugari daude (*Zorroztarri*, [zórroztárri], Amu.; [zórroztarrì], Mari. 2; [zorróztarrí], Mik. / *Zorrotzarri* [zórrotzarrì], Bent.).

LOIDI oikonimoaren aurreneko testigutzak, ordea, 19. mendeko idazkietan aurkitu ditugu. Lehenbiziko biak 1857. eta 1864. urteetakoak dira (*Loidi*, HUA48, 46 or.; HUA47) eta aurrerantzean ere forma bera erabiltzen da aldi oro. Idatzizko testigantzez ari garenez gero, esan beharrean gara 19. mendearen erdialdean *Loidi* (1831-1845, UGR4, 22 au.) izeneko aurkintza aipatzen dela Urnietan jabetzak biltzen dituen liburuan, baina Hernanikoarekin lotua dagoen ezin jakin, ez delako kokapena zehazten. Ahozko tradizioan *Loidi* ([lói̯dì], K., Iz.) ahoskatzen dute berriemaileek. Gure iritzia da, baserri-izena denez gero, deitura izan litekeela.

---

[592] Euskal Herriko toki askotan azaltzen den izena da eta, konparaziora, *Arrataka*-k daude Longida ibarreko Olaberrin (Muxika Urdangarin, 1988: 125), Abaurregainean (*NTEM-XXXIV*, 35, 74), Erroibarko Aintzioan eta Mezkiritzen (*NTEM-XXXV*, 53, 124), Orontzen (*NTEM-XXX*, 246), Zubietan (Iñigo, 1996: 351-352) zein Luzaiden (Satrustegi, 1970b: 138 eta 139). Zubietan, disimilazioaren eraginez, *Arratika* esaten da.

[593] Cf. *Arripausu*, *DVEF*, 232.

Oronimiarekin zerikusia duten izen espezifiko bakunekin amaitzeko, orientazioarekin / tenperaturarekin lotuta dauden zenbait toponimo dakartzagu[594]. Aurreneko lauren iturburua *ospel* da, generikotzat ere kausitu duguna (ARGARATEKO OSPELA), eta bi sail bana litezke multzo horretan lehen begiratuan, hitz hasieran sudurkaria dutenak (*Ospeleko harrataka* [óspelekò árrataká], Amu.; *Ospeleko erreka* [óspelekò érrekà], Amu.; [óspelekò érreká], Iz. eta Txab. 1) eta ez dutenak (*Mozpelango zokua* [mózpelangò zókuà], Etxol.). Kontuan har bedi hitz hasieran *M* duen ale bakarra dagoela[595].

Mospel aldaeraren harira, Mitxelenak (*FHV*, 271-273) deritzo behinola *M(a)* izen-aurrizkia egon zela euskaraz, eta duela gutxi arte emankorra izan zela. Haren ustez, hori ezaugarri berezia litzateke hizkuntza elkartzaile edo "atzizkizale" batean eta *mak(h)ur* ('inclinado, arqueado, torcido') dakar erakuskaritzat, eta agian *(m)ospel* ('umbría') ere bai. Buru horretan sar liteke *malkor* ere ('tierra esteril', cf. gip. *elk(h)or*) . Zernahi gisaz, *M*-k sasi-aurrizki izaera du Errenteriako irakaslearen irudiko eta oro har prozedura adierazkor nahiko berriak lirateke horrelakoak, bokalez hasten diren hasierako hutsune horiek betetzeko aukera aprobetxatu dutenak, hasierako lekunearen ahultasunaren ondorioz. Hain zuzen, *M-* / *Ø* txandakatzea horren etsenplu gisa jartzen du eta azpimarratzen du formazio hauek bikoiztuekin (erreduplikatuekin) dutela antza. Izan ere, azken horiek adierazkorrak dira, eta gauza jakina da bigarren osagaiak *m*-z hasten direla horrelakoetan, hasierako kontsonanatea *m*-gatik aldatu dela alegia (*handi-mandiak*).

Tenperaturarekin zerikusia bide duen beste izen espezifikoa EPELA da. Urumea errekaren ondoan dago eta testigantza zaharrenak 15. mendekoak dira (*Epela*, 1467, HUA5). Xehetasunetan sartuz gero, 19. mende arte *Epela* aldaerak bizirik iraun zuen (*Epela ayerdi*, 1863, HRU, 46 bin.), baina 18. menderako *Epele* azaltzen da idatzizko iturrietan (1739, HUA36) eta, hain zuzen, hori da 19. eta 20. mendeetako agirietan nagusitzen den forma (1773, VEK1B; 1850-1852, HTR5, 12 au.; 1920, HUA57, 70 or.). Ematen du aldaera hori *Epele-erreca* (1842, HUA45) zein *Epeleco Echeverri* (1937,

[594] Horrelakoei *izen klimatikoak* deitzen die Whynne-Hammondek (1992: 48). Cf. *Eluts* (6.3.§).

[595] Goizuetan *Moxpela* aurkintza dago (Etxeberria, 1988: 92) eta Amaiurren (Baztanen) *Mospela* azaltzen da 1894. urteko idazki batean (*NTEM-LII3*, 29).

AB) bezalako formen eraginez sortu dela[596] eta esan gabe doa ahozko tradizioan ere *Epele* ([épelè], K.) jaso dugula. Pentsa liteke ***epel*** eta *(m)os**pel*** terminoen bigarren osagaiak, besteak beste, *goibel* eta *ubel* hitzenarekin duela zerikusia[597].

Gatozen orain hidronimia arloko espezifiko bakunen sailera. LATXA toponimoaren lehen agerraldia 15. mendekoa dela dirudi ('erreka'), 1467. urteko idazki batean *Larsa de Avillas* irakur bailiteke (HUA5). Hasteko, azpimarra dezagun euskal jatorriko bi osagaiek gaztelaniazko taxukera dutela. Bigarrenik, txistukariaren aurretik dagoen dardarkaria jatorrizkoa ote den ez da gauza ziurra, gurean lekukotasun hori bakarrik ezagutzen da eta[598] (*Lassa / Laza*, 1595, HUA10). Amaieran, loturazko bokalaren erabilpenaren ondorioz, *-a* ordez, *-e* duten formak 19. gizaldian lekukotzen dira aurreneko aldiz[599] (*Latze*, 1843, HUA44; *Latse*, 1864, HUA47), eta sabaiko txistukaria dutenak 20.ean (*Lache*, 1920, HUA57, 686 or.). Ahozko tradizioan *Latxe* baizik ez dugu jaso ([látxè], K.) eta, bide batez, diogun gure esparruan badagoela *Latxe erreka* (1986, GFA3) erredundantzia ere, Arano aldean oraingo honetan[600], 'erreka' esanahia galdu duen seinale. Esan bezala, lehengo forma **larts-a* (< **lartz-a*) zatekeen ala aldaera hori eskribauaren erratua den ez dago argi, baina aurreneko aukera aintzat hartu beharra dago zalantzarik gabe[601]. Ildo horretan, kontsonante multzoez ari delarik, Mitxelenak (*FHV*, 362-264) dio, nahasteko joera egon arren, antzinako bi talde bereiz litezkeela: **rz* eta **rtz*. Oro har, **rtz* gorde egin da edota *st* bihurtu eta **rz*, aldiz, ekialdeko euskalkietan iraun arren, gainerakoetan *s*-ra murriztu da, **rs*-tik igarota segur aski. Gure aldetik, *Larsa de Avillas* formaren argitan, **rtz* > *rts* > *ts* aldakia erantsiko genioke goikoari, baldin eta proposatu dugun etimoa onartzekoa balitz.

---

[596] Cf. *Epelaco Saroecayçavera* (1467, HUA5). *Epela* toponimoa Euskal Herriko hainbat tokitan azaltzen da. Arrasateko Musakola auzoan, esaterako, *Epela* (1339) errekazokoa dago, egun *Epele* formaz ezagutzen dena eta, espero izatekoa zenez, bertatik *Epelerreka* (1792) igarotzen da (Ormaetxea, 1996: 267-269). Halaber, *Epela* (1882) izeneko tokia dago Etxarri Aranatzen eta amaieran bokal erdikoa duen aldaera idatzizko erakuskariak dauden une beretik azaltzen da (*Epele*, 1882); ahoz ere *Epele* erabiltzen da (*NTEM-XII*, 42). Cf. Bakaikuko *Epel* (*Epéle*) eta *Epeltxiki* (*NTEM-X*, 39).

[597] Ikus Lakarra Andrinua (2006: 569, 578, 597).

[598] Cf. 13. mendeko *Domingo latça* (Ibiriku); Lakarra de Migel (1930: 248).

[599] Ikus Irigoien (1992: 188-192).

[600] Cf. Trebiñuko *Latsa, Latseko zubia*; González de Viñaspre & Uribarrena (2005b: 375-376). Bidenabar, *Latsaga* eremua dago (*Lassaga*, 1709) Dorraon (Ergoienan; *NTEM-VIII*, 38) eta Iturenen izen bereko auzoa dugu (Iñigo, 1996: 77-78). Cf. Izizeko (Zaraitzuko) *Latsea*, (*Lassea*, 1677; *Lachea* 1898), *NTEM-XXX*, 95.

[601] Cf. Corominesek (1972: 315-319), balizko *Larr-* ('arroyo') erroaren karietara, irudiz *Lar-s* segida dena gorde duten izenei buruz esandakoarekin.

Halaber, *urataka* aurkitu dugu ur-ibilguen izenen artean. Bi erreka elkartzen diren gunea izendatzen du[602] eta ahozko bi toponimotan azaltzen da, betiere Urumeako zilegimendietako hego-sortaldean (*Urataka* ([úratakà], Etxol.; *Uataka* [úatakà], Ezk. b., Lor. b., Pag.). Argi dezagun generikotzat ez dugula aurkitu, baina, bai, ordea, genitiboan deklinaturik eta ondoren *erreka* duela (*Uatakako erreka* ([úatakakò érrekà], Ezk. b.). Bestetik, *Ursalto* terminoa behin ageri da gure esparruan izen espezifikotako[603]; aipamen zaharrena 1768. urtekoa da (*Ursaltoa*) eta oroit bedi generikotzat ere jaso dugula.

Gaztelaniazko *vado*-ren parekoa ematen duen ZERRENDAKO PASADIZOA ([txérrendakò pásaị̇zuà] (Ol.) hidrotoponimoaz hauxe esango dugu: *zerrenda* izen ezaguna dela berriemaileen artean, baina ez 'ibi' edo 'igarobide' adierarekin soilik[604], zentzu zabalagoarekin baizik ('lur zati txiki eta estua'). Hitzak hizpidea ekarrita, nabarmendu nahi dugu *pasaia* terminoa iturburu duen ihartutako toponimoa dagoela gure esparruan (*Herbal de Pasaya*, 1920, HUA57, 7 or. eta 1927, HUA57, 14 or.).

Ikus dezagun orain ur-tokien azpisaila. IDOIA espezifikotzat baliatu den adibide bakarra dago[605] eta 19. mendearen bigarren hamarkada arte ez da idatziz agertzen[606]. Ahozko tradizioari dagokionez, informatzaile batek *Iroya* ([íroyà], Id.) forma eman zigun[607], nahiz eta, bestalde, *Idoiako borda* (1988, OBIE), *Idoiagaña* (1989, OM), *Idoiaxabala* (1989, OM) bilduta egon. Aintzat hartzekoa da amaieran beti -*a*-rekin jaso

602 Goizuetan *Uatakako zubia* dago (Etxeberria, 1988: 116) eta Orotz Betelun (Artzibarren) *Urataca* tokia aipatzen du Urtasunek (1971: 347). Bide batez, argi dezagun bi errekaren urek bat egiten duten tokia izendatzen duen *urgurutze* terminoa ez dugula bildu gure esparruan, besteak beste, Larraulen (1995, LRM) edota Goizuetan (*Urgurutza*; Etxeberria, 1988: 85, 90) azaltzen dena. Lesakan eta Iratxetan ere *Urgurutzeak* daude eta, xehetasunetan sartuz gero, Orbaibarran *Urgurutz* esaten da egun, baina aurreneko aipamenean (1555. urtean) *Urrguruçea* dago idatzirik; "«Encrucijada de aguas», según la documentación antigua", (*NTEM-XXXIX*, 98). Cf. Peillenek (1991: 99) Andozen (Zuberoan) biltzen duen *Hurjüntá*-rekin eta Salaberrik (2007) aztertutako *Urkullu*, *Urkulu* eta abarrekin.

603 Ikus ANTXISTAKO URSALTOA 6.3.§. *Urxalto* aldaera ere ezaguna da gurean (Usabiaga, 1993: 196).

604 Ikus 6.3.§.

605 Mitxelenak (*FHV*, 227-228) dio Gipuzkoa eta Nafarroako eremuetan bokal artean (ia erregularki) agituriko *d* > *r* aldaketa aparteko gertakaria dela, eta etsenpluen artean Errenteriako *Iroya* baserri-izenak dakartza (< *Idoya*).

606 *Idoia* (1826, LMM, 152 or.; 1826, LMM, 151 or.; 1826, LMM, 170 or.); *Idoya-becóa* (1864, HUA48, 62 or.); *Idoya-goicóa* (1864, HUA48, 62 or.).

607 Barandiaranek 1928. urtean *Iroyabea* (JMB3, 268 or.) jasotzen du.

dugula (< *-aga*?), baita leku genitiboaren hondarkia edota zuzenean generikoa hartu duenean ere. Egun toponimia alorreko generikotzat ez da erabiltzen, baina behinola bai (ikus 6.3.§). Lintzura eiteko ur-tokia izendatzen duen IXTINGA (1989, UUTB; Mari. 2) ere topatu dugu[608], segur aski mailegua dena (< lat. *stagnum*), baita, azkenik, generikotzat dagoeneko ikusi dugun *zingira* ere (*Zingira* [zíngirà], Goi.).

Fitotoponimia alorreko izen espezifiko bakunak hartuko ditugu ahotan jarraian, lurra eta ura, oraingoz, alde batera utziz. Hasteko, hainbat zuhaitz eta landareren multzokariak daude gure esparruko toponimian eta *Zuaizti* hiperonimoa da horietako bat. 1906. urtean lekukotzen da estreinakoz ("... *punto llamado Zuaizti o Astabibizcar*...", AT, 230 or.) eta bazen ezagutzen zuen informatzaile bat[609] (*Zuaizti* [zúaị̈ztí] / *Zuazti* [zúaztì], Amu.).

Gaztainadi-ri doakionez, aurreneko testigantza 1932. urtekoa da eta *s* grafemarekin idatzia dago (*Gastañadia*, *castañar*, HUA57, 818 or.). Bada *intsausti*-ren[610] erakuskari bat ere; 1951. urtean dokumentatzen da aurreneko aldiz (*Insausti*, UUA18) eta berriemaileek sudurkari ondoko txistukaria bustiz ebakitzen dute[611] (*Intxusti* [íntxustì], Txim.).

Intsusadi multzokariaren testigutza bakarra dago espezifiko bakunen sailean. Aurreneko aipamena 1588. urtekoa da ("*terminado de Ynsusadi*", HUA17, 141 bin.), mintzagai dugun multzoan zaharrenetariko bat, hortaz. Sudurkari ondoan txistukari bustia duten formak 20. mendean hasten dira azaltzen eta badaude *tz* grafemarekin idatzitako adibide bat (*Intzusadi*, 1857, HUA48, 46 or.) eta *ch* duen beste bat (*Inchuzadi*, 1797-1833, HGR2, 47 au.), baina sabuespenak dira. Ahozko tradizioari

---

608 Cf. Urretxuko *Istinga* (Ugarte, 1998: 326) edota Arantzako (Bortzirietako) *Istringa* (*NTEM-IL*, 48).

609 Toponimiaz landa ere bildu dugu: "*or zuaizti ikearriya ementzan / da aizpat oaiñe or do galanta / ortzan izuarrizko aiztiya*" [ór zúaị̈ztí íkearriyà eméntzàn / da aị̈zpàt óañè or dó galantá / ortzán ízuarrizkò áị̈ztiyà] (Ai.), 1989-IX-14.

610 Mitxelenak (*FHV*, 285-286) azpimarratzen du antzinako testuetan *(t)s* dokumentatzen dela (*ynsaur* 'nuez') eta *ts* duen aldaera asimilazioz sortu dela eransten du. Hain zuzen, aldaki hori *In(t)sausti* ('nogueral') eratorriaren eskutik garatu dela uste du. Etorkia honakoa litzateke: *in(t)zaur-tze-* + *di* > **in(t)zaur-s-ti* > *in(t)sausti*. Cf. *Sagasti* (< *sagar*).

611 Cf. Adoainen (Urraulgoitin) *Intxusta* izeneko leku bat baino gehiago daude; *NTEM-XXXI*, 66, 89.

erreparatuz gero bietara dago jasoa, mihi-punta hobietako afrikariarekin (*Intsusadi*, *Intsusai*, *Intsusabi*, 1989, HUTB) eta sabaikoarekin (*Intxusai* [íntxusàị], Atx.; *Intxusabi* [íntxusabì], Atx.). Deigarria da bi lekukotasunetan frikaria ezpainbikoa izatea, eta ez horzkaria.

Mizpiradi-ren lehen etsenpluak berriagoak dira, 19. mendekoak hain justu (*Mizpiradi*, 1833-1845, HGR3, 75 au.), eta badago ahozko lekukotasuna ere (*Mizpiradi*, 1989, HUTB). Ildo beretik, *Muxikadi*-ren iharturiko erakuskaria dago (*Mushiqueiya*, 1932, HUA57, 107 or.) eta *Urkidi*-rena ere bai[612], 18. mendeko idazki batean aurkitu baitugu aurrenekoz (*Urquidi*, 1799, HUA42, 171 bin.); hurrengo eta azken aipamena 1852koa da (*Urquidi*, HUA46, 166 bin.).

Badago ZUMARDI espezifikoa gure esparruan. Ahozko tradiziotik jaso dugu (*Zumardi* [zumárdì], Lor. b. eta Maer.; [zúmardì], Maer.); leku genitiboaren hondarkiz hornituta eta ondoren zati generikoa duela ere aurkitu dugu (*Zumardiko borda* [zumárdikò bórdà] (Lor. b.). Hala berean, ZUMADI toponimoaren testigantzak kausitu ditugu (< zume); baserri-izena da hemen eta 18. mendearen bukaeran dokumentatzen da aurreneko aldiz (*Zumadi*, 1797-1833, HGR2, 43 au., 51 au., 53 au. eta 58 au.). Ahozko tradizioan bietara ahoskatzen da[613], dardarkari ahularekin eta gabe (*Zumari*, 1989, HUTB / *Zumai*, 1989, HUTB) eta argi dago, horrenbestez, *-d-* > *-r-* aldaketa burutzen dela batzuetan. Hasieran *Zum-* duten izen espezifiko bakunez ari garenez[614], esan dezagun ZUMIZTIren aurreneko aipamena ere 18. gizaldikoa dela (*Zumisti*, 1794-1831, UGR3, 17 au.). Idatzizko gainerako testigantzak 19. mendekoak (*Zumisti* 1831-1845, UGR4. 23 au.; 1863, URU, 152 au.) dira eta egun ZUMISTIKO ETXEA eta ZUMISTIKO ERREKA oinordeetan dirau, izenburu nagusia ihartua baitago. Ahozko tradizioan informatzaile batek baino gehiagok hortz-hobietako bizkarkariaz ebakitzen dute[615]

612 *Urquidegui* (1728, *paraje*, HUA34) ere jaso dugu, dagoeneko 8.3. azpiatalean aztertu duguna.

613 Iberon (Oltza zendean) *Zumadia* izeneko aurkintza dago eta badakigu 19. mendeaz geroztik *Zumedia* esaten zaiola (Jimeno Jurio, 1989b: 149). *Zumadicoa* (1672) toponimoa biltzen du ikertzaile berak (1987b: 68) Arlegin (Galar zendean) eta Burlatan ere aipatzen du (1991: 98).

614 Sudurkarien nondik noranzkoaz ari delarik, Mitxelenak (*FHV*, 317) *zu(g)ar*, *zumar*, *zun(h)ar* (‘olmo’) formen iturburua < **zunar* izan litekeela jakitera ematen du, *zur-*(‘madera’) osagaitzat lukeen **zur-ar*-tik letorkeena.

615 Informatzaileak hortz-hobietako bizkarkariaz ere ebakitzen du (*Zumistiko erreka* [zúmistikò érreká], Ai.).

(*Zumiztiko erreka* [zúmiztikò érreká], Ai. / [zúmiztikò érrekà], Larr. eta Mik.), idazkietan ez bezala.

Txara maileguaren etsenplu bakarra dago[616] (*Txara*, 1988, OBIE) bokal arteko dardarkari ahulari eutsi diona (cf. ANDOLATXAGA). Ildo beretik, *txertadi* terminoaren ihartutako lekukoa aurkitu dugu, azkenik, 18. mendearen bukaera aldean (*Chertadi*, 1797-1833, HGR2, 37 au.). Ahozko tradizioari erreparatuz gero badago aurrekoarekin lotura izan dezakeen toponimo bat (TXERTUDI), hiru informatzailek lau modutara ahoskatzen dutena (*Txertui* [txértwì], Amu.; *Txertogi* [txértogì] / *Txerturi* [txérturì], En.; *Txerritoki* [txérritokì], Ollok.), baina, nolanahi den, idatzizko aipamen zehatzagorik ezean, lotura hori ezin ziurtatu[617], *Chortocua* (1739, VEK2) erreferentziak ezer gutxi argitzen duelako afera. Azken bi toponimoon harira, sabaikarituriko kontsonanteez jardukitzean, Mitxelenak (*FHV*, 194) esaten du hainbat etorkitako antzinako *[*x*]-sarritan *tx*-ek ordezkatzen duela egun, eta *txara* (‘jaral’) zein *txertatu* (‘injertado’) dakartza horren adibidetzat.

Bestalde, *txilardi* landare-izena espezifiko bakunen sailean baliatu dela adierazten duen adibidea ere badago; 18. mendearen bukaerakoa da[618] eta mugatuko kasu marka du (*Chillardia*, 1794-1831, UGR3, 14 au.). Hala berean, *Aino* fitonimoa oinarri duten bi toponimo daude gure esparruan[619]; bata Hernanin dago, oikonimoa da eta 1773. urtean aurkitu dugu aurreneko aldiz (*Añoa*, VEK1A). 1928. urte arte (JMB3, 268 or.) forma hori azaltzen da aldi oro idazkietan, baina hemendik aurrera *-oa* > *-ua* hersketaren adibide den *Añua* nagusitzen da[620] (1936, HUA57, 305 or.; 1937, AB; 1942, IGC1; 1953, IGC2); ahozko tradizioan ere *Añua* ([áñúà], K.) aurkitu dugu. *Aino*-ren bigarren

---

616 Ikus 6.3.§

617 Arantzan (Bortzirietan) *Txertadi* (*Chertari*, 1795; *Chertadi*, 1947) toponimoa dugu (*NTEM-IL*, 61), baita Osteritzen ere (“lugar de injertos”, *NTEM-XXXVI*, 153). Badira beste bi lekukotasun,(*Chertadia* forma dutenak), Zizur zendeakoak biak (Gazolatz eta Sagueskoak) eta haien egungo formak *Chartadi(a)* eta *Chartari* dira; Jimeno Jurio (1986b: 278).

618 Barandiaranek (1962: 96) *Xilardia* (*Cilhardia*, 1803) izeneko etxea zerrendatzen du Saran (Lapurdin).

619 Ikus Lakoizketa (1994 [1888]: 183) eta Belasko (1996: 60).

620 Orendainen *Añoa* izeneko erreka-zokoa dago (1998, ODM) eta Berroetan (Baztanen) *Añoa* aurkintza (*Añoa* / *Añua* egun; *NTEM-LIII*, 190). Hitzak hizpidea ekarrita, oroit dezagun Arabako *Añua* herri-izena *Aynua* / *Ainu(a)* formaz ageri dela 1066. urtean, eta *Annua* bezala 1135. urtean; Libano (1995: 289).

oinordekoa Urnietan dago eta honek ere bitariko erakuskariak ditu (*Añoco-pagadi*, 1925, UUA3; 1951, UUA18; *Añoko pai* [áñokò páị], Oiarbi.); alabaina, bokal erdikoa ez da itxi oraingoan (Cf. *Añuako txabola* [añúakò txábolà], K.; *Añuaerreka* [añúaérrekà], Atx.).

Badago gurean IPIÑABAR toponimoa (*Ipiñar* [ípíñàr], Ezk. b. Eta Txim.; [ipíñar], Lor. b. / *Ipiñabar* [ipiñábar], Lor. b.), ondoan *sasi* generikoa duela ere bildu duguna (*Ipiñarsasi*, [ipíñarsasì], Ezk. b. eta Txim.). Mitxelenak *Apellidos Vasco*s liburuan (*AV*, 3, 311) *Ipiñabar* ('goiko aldea kimatu zaion haritz gaztea') terminoaren aurreneko osagaia **iben* / **ipen* dela deritzo, eta **ibeni*-tik etorri delako aukera ez du baztertzen. Bigarren osagia *abar* (gazt. 'rama', 'ramaje') dela ere argitzen du. *Fonética Histórica Vasca*-n (*FHV*, 64) adierazten duenez, ordea, *i*-k eta *u*-k aurreko bokalean eragitea gertakari aski orokorra eta zaharra da. Izan ere, bi silaba baino gehiago dituzten hitzetan aurreneko silabako *e* eta *o* itxi egin dira hurrengo silabako bokala itxia denean (*i* eta *u* emanez). Areago: Errenteriako irakasleak erdialdeko euskalkiko *imia*, *ipiña* ('cuartal de fanega' < lat. *hemina*) dakar aldaketa horren etsenplutzat. Gure aldetik, esan beharrean gara Oiartzunen *Epentza* baserria dagoela eta, Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 125) biltzen dutenez, horixe dela aldaki arruntena idazkietan, nahiz eta, egon, 18. gizaldian *Ypenza* / *Ipenza*-ren hiru agerraldi badauden.

Mitxelenak aipatu *imia* terminoaren harira, bada gurean IMIA izeneko lekua ere[621]. Belarriz bildu dugu (*Imiya* [ímiyà], Berr. z.; *Ibiyako gaña* [íbiyakò gáñà], Berr. z.) eta, ikusten den bezala, *-m-* / *-b-* aldizkatzea dugu berriemaile beraren ahotan.

Lur landuen sailean badira *luberri* espezifikoaren erakuskariak. Aurreneko aipamena 19. mende erdialdekoa da (*Lurberriya*, 1848-1850, HTR4, 9 au.) eta 20. mendeko agerraldi bat ere badago (*Luberri*, 1920, HUA57, 52 or.). Ahozko tradizioan *Luberri* (1989, UUTB) baten testigutza bildu dugu, baina aurrekoekin zerikusia duen ez dakigu. Hain zuzen, *luberri* termino ezaguna da oraindik gurean[622], generikotako jaso ez dugun arren.

---

621 *Imigain* (1900) biltzen du Jimeno Juriok (1989b: 244) Oltza zendean.

622 Artikuluaren erabilpenak igurzkari sabaikoaren garapena eragiten du egun ere, hiatoari hobeki eusteko.

Lur landugabeei dagokienetan, LARRATS toponimoaren aipamen zaharrenak 17. mendekoak dira[623] ("... *y el* [mojón] *de Larras* [...]", 1628, DUA1; "... *el sel maior de Larras* [...]", 1683, HUA28). Xehetasunetan sartuz gero, tradizio idatzian aztertu ditugunen artean zaharrenetarikoa den izen espezifiko bakun hau sarritan azaltzen da eta ahozko tradizioan denetarik dago: batetik, hitz amaieran hortz hobietakoa dutenak kausitu ditugu (*Larratz*, [lárràtz], Larra. eta Txab 2) eta bestetik, igurzkari nahiz afrikari, hortz-hobietako bizkarkariarekin ebakitakoak daude (*Larras* [larrás], Id.) / [lárràs], Larr.; *Larrats* [lárráts], Larra. / [lárratsà], Id., *adl.s.*). Aintzat har bedi informatzaile berak saroi-izena bi modutara ahoskatzen duela eta, horrenbestez, dokumentazioa eta ahozko tradizioa gogoan hartuz gero, ahoskera zaharra igurzkariaz ala afrikariaz, edota hortz-hobietako ala hortz-hobietako bizkarkariarekin zen ezin dela jakin, jatorrizko forma *larrats* zela pentsa daitekeen arren[624].

Paisaia gizakituaren arloko izen espezifiko bakunez jardungo dugu orain. TXABOLAren erakusgarri zaharrena 19. mendearen erdialdeko agiri batean dago[625] (*Chabola*, 1833-1845, HGR3, 79 au.), baina esan beharra dago 18. mendearen amaierako dokumentu batean *Charola* (1797-1833, HGR2, 54 au.) forma irakurtzen dela[626] eta, gainera, 19. mendearen erdialde arte aldaera horren lekuko gehiago daudela, *Charola o Elurzulo* (1833-1845, HGR3, 80 au.) konparaziora. Bata eta bestearen kronologia kontuan hartuz gero elkarrekin zerikusia izatea ez da ezinezkoa, hots, egungo *Txabola* toponimoaren iturburua *Charola* izan liteke (aurrena ageri dena). Gogora bedi *txabola* usu baliaturiko izen generikoa dela gurean, baina, haatik, *txara* + *ola* ere egon liteke.

---

623 Muxika Urdangarinen (1987) "Errenteriako toponimoak" artikuluan *Larrax* / *Larraix* (1573, *lurtsaila*, 175 or.) toponimoaren berri ematen da, baina azterketan ez dugu aintzat hartu, *x* horren tokian dokumentuan zer dagoen ziur ezin delako jakin. Garbi dagoena da Nafarroako hainbat tokitan ere azaltzen dela, besteak beste, Aritzen (Itzan) *Larraçea* baitugu (1596. urtea; Jimeno Jurio, 1990: 93), Ororbian (Oltza zendean) *Larras basterra* (1592), Asiainen *Larraça* (1596. urtea; Jimeno Jurio, 1989b: 295, 103) eta Urritzolan (Arakilen) *Larratz* (*Larrazea*, 1714. urtean; *NTEM-XIII*, 118). Galarren ere ageri da, herriaren erdian dagoen plaza txikiak *Larraz* izena du eta (Jimeno Jurio, 1987b: 294). Artaxoan, azkenik, *Larratz* (*El Larraz* 1891) aurkintza biltzen dute Jimeno Juriok eta Salaberrik (1998: 222).

624 Mitxelenaren (*AV*, 395) arabera *larratz*-ek ‘terreno baldío’ adiera du eta, hain justu, ahotan hartzen ari garen etsenplua buru horretan sartzen du. **Larratze*-tik etor litekeela ere iradokizten du Errenteriako ikertzaileak.

625 Honekin zerikusia izan lezakeen *Chabola* (HUA44) oikonimoaren aurreneko aipamena 1843. urtekoa da. Ikus 6.3.§.

626 Dokumentuan *Chabolazar* (1797-1833, HGR2, 44 au.) forma ere erabiltzen da.

Abeltzaintza eta nekazaritzarekin lotutako hiru espezifiko bakun daude gure esparruan. TXERRITEGI da lehenbizikoa[627] (*Cherritegui*, 1860-1862, HTR10, 31 au.) eta bigarrena ahozko testigantza duen ITXITURA[628] (1989, HUTB). Azkenik, bada *langa* mailegua[629] espezifiko bihurtu den lekukotasuna bat[630] (*Langa*, 1989, HUTB); ezizena izan litekeelakoan gaude, jatorriz oikonimoa delako.

Aurrekoekin batean, LUBAKI izeneko leku bat dago gurean[631] (*Luakiya*, 1989, HUTB) eta LUBAKIZ KANPO / LUBAKIZ BARRENA izeneko beste bi ere bai. Aurreneko kasuan bezala, *Luakizkanpo* (1989, HUTB) eta *Luakiz barrena* (1989, HUTB) ahoskatzen dituzte berriemaileek, bokal arteko ezpainkaria gabe alegia. Toponimo bereziak dira, bi osagaien artean instrumentalaren hondarkia dutelako (cf ITXITUZ KANPOA eta ITXITUZ BARRENA); hain justu, oso gutxi dira horrelakoak gurean.

Industria alorrean, lehenik eta behin, IGARA[632] oronimoaren kasua salbuespentzat jotzen dugula esan beharrean gara (<*eihera*?), gainerakoan beti *errota* terminoa aurkitu baitugu. Bada iturburutzat *teileria* mailegua duen toponimoa ere, aurreneko aldiz 1628. urtean kausitu duguna ("... *reca de Tellería* [...]", 1628, DUA1). Beraz bada, zaharrenetarikoa da izen espezifiko bakunen sailean. Gainera, 18. mendeko bi lekukotasun daude (*Telleria*, 1773, VEK1B eta "*Casa inmediata llamada Telleria de Arano* [...]", 1797, HUA41), baita 19. gizaldiko bat (*Telleria*, 1898, EGZ). -*A* itsatsia gabeko formak, egungo ahoskeraren eite bera dutenak, 20. mendean azaltzen dira lehen aldiz (*Casería Telleri*, 1953, IGC2 eta *Teleri* 1983, GFA2). Izan ere, ahozko tradizioan -*a* itsatsiaren erabateko galera eta bokal arteko dardarkari ahularen erorketa azpimarratu beharra daude; azken hori segidan beste generiko bat dagoenean gertatzen da batik bat[633] (*Telleiko borda* ([télleɟkò bórdà], Txim.; *Telleiko kaskua* [télleɟkò káskuà], Aska.).

---

627 TXERRITEGIETA toponimoa 18. mendearen amaieran lekukotzen da estreinakoz (*Borda de Arizola o Cherritegieta*, 1797-1833, HGR2, 67 au.) eta 19. mendean bigarren agerraldia dago (*Cherriteguieta*, 1847-1848, HTR3, 5 au.). Cf. 1591ko *hurdandeguia*; ikus 2.9.§

628 Gurean badaude *Itxutus barrena* (1989, HUTB) eta *Itxutus kanpua* (1989, HUTB) toponimoak.

629 Latinezko *planca* ('pasabidetxoa, zubitxoa') da iturburua. Cf. Gendrons (2006: 73).

630 1857. urteko izendegian *Langaurreta* toponimoa azaltzen da (HUA48, 40 or.) eta 1942ko mapa batean *Langa-berri* (IGC1) dago idatzirik.

631 *Luakiatzia* (1989, HUTB), *Luakatzia* (1989, HUTB), *Luakiz barrena* (1989, HUTB) eta *Luakiz kanpo* (1989, HUTB) formak ere badaude gure esparruan.

632 *Igara* (1989, UUTB; [ígarà], Benta); *Igara erreka* (1989, UUTB).

633 Badira dardarkariz ahoskatzen duten berriemaileak (*Telleri* ([téllerì], Iz.; *Tellerierreka*

Teilak egiteko azpiegiturez ari garenez gero, gaztelaniazko *tejería* terminoaren aurreneko aipamena 1843. urteko agiri batean topatu dugula esan behar[634] (*Tejeria de Epele*, 1843, HUA44). Bukatzeko, **suterri* formaren nahiko lekukotasun zaharra dago tradizio idatzian ("... *devajo de Suterria* [...]", 1628, DUA1); honek *sutegi*-rekin duke zerikusia, baina eskribauaren erratua izatea ere litekeena da, toponimiaren aldetik kalitate eskaseko dokumentuan baitago.

ELURZULOren lehenbiziko erakusgarriak 18. mendearen amaieran aurkitu ditugu eta zenbait etsenplu jar genitzake horren lekuko: *Elurzulo* (1797-1833, HGR2, 45 au.; 1797-1833, HGR2, 58 au.; 1797-1833, HGR2, 66 au.), *Elurzuloa*, 1797-1833, HGR2, 47 au.). Badaude 19. mendeko aipamenak (*Charola o Elurzulo*, 1833-1845, HGR3, 80 au.) eta 20. mendekoak ere bai (*Cromlech Elurzulo*, 1983, GFA2).

Jarraian, begira diezaiegun etxeei. Ostalaritzaren sailean, *benta* mailegua iturburu duen baserria dago Urnietan[635] (*Benta* [béntà], K.) eta toki publikoen alorrean, berriz, *lonja* maileguaren testigutzak daude Hernanin. Idatzizko lekukotasun bat dago (*Lonja*, 1920, HUA57, 888 or.) eta informatzaileek ere aipatzen dute, EREÑOTZU aldekoek batez ere (*Lonja* [lónjà], K.).

Kirola egiteko tokiak izendatzen dituzten espezifikoei lotuko gatzaizkie orain. Hasteko, PALANKALEKU toponimoaren erakusgarria dago gurean[636] (*Palankaleku* [pálankalekú], Amu.) eta bada *Bolaleku* izeneko tokia ere[637]. Horrez gainera, *Pilotasoro* izena oinarri duten toponimo bat baino gehiago topatu ditugu. Aurreneko testigantzak 18. mendearen amaierakoak dira (*Pelotasoro*, 1797-1833, HGR2, 48 au.; *Pillotazoro*, 1797-1833, HGR2, 64 au.) eta 19. mendekoak ere badira (*Pillotasoro*, 1852-1854, HTR6, 15 au.; 1863, HRU8, 47 bin.). Era berean, 20. mendeko erakusgarriak ere

---

([téllerjerrekà], Aska.).

634 Iturri idatzian baserria dela jakinarazten da. Handik denbora gutxira, 1864. urtean, berriro *Tejeria de Epele* (HUA47) formaz dokumentatzen da.

635 *Setabenta* [sétabentà] (Bent.) ere esan izan zaio.

636 Cf. Ikaztegietako *Balenkaleku* (1999, IKM), Orendaingo *Balenkaleku* (1998, ODM) zein Zegamako (1997, ZGM) *Palankaleku* (trikuharria). Altsasun ere azaltzen da (*Balankaleku*, *NTEM-IX*, 37).

637 Cf. Arrasateko *Bolalekua* (Ormaetxea, 1996: 181) edota Aguraingo *Bolalecu* (Lopez de Gereñu, 1989: 125).

kausitu ditugu (*Pillotasoro*, 1920, HUA57, 39 or.; "*... pasando por Pilotasoro (= prado de jugar a la pelota)* [...]", 1923, JMB1, 121 or.; "*... prado conocido por 'Pelota-zoro'* [...]", 1976, TA, 16 or.). Berriemaileek aztergai dugun izena duten lau toki aipatzen dituzte eta lehenbiziko silaban (dokumentazioan ez bezala) bokal erdikoa eta sabaiko albokaria duten formak nagusitzen dira. Aurreneko tokia *Pelotasoro* ([pélotasorò], Amu., Mari. 1, Mari. 2) eta *Pellotasoro* ([péllotasorò], Ek.) formekin izendatzen dute informatzaileek; bigarrena *Pelotasoro* ([pélotasoró], Amu.eta Ek.) formaz jaso dugu, eta hirugarrena, berriz, aurreneko kasuan gertatu moduan, sabaiko albokariarekin ebakitzen du berriemaileak (*Pellotasoro* [pellótasorò], Txab 2); laugarrena, eta azkena, *Pillotasoro* ([pillótasorò], Asta.) da.

Saroien erdiko guneen berri ematen duen ale bakarra dago izen espezifikoen artean, ARTAMUGARRI baserri-izena hain zuzen. Errenteriako oikonimo honen aurreneko agerraldiak 19. mendekoak dira[638] (*Artamugarri-berri*, *Artamugarri-erdi*, *Artamugarri-goicóa*, 1857, HUA48, 61 or.) eta ahozko tradizioan askotariko aldaerak daude, gehienak informatzaile berak emandakoak: *Artamugarri* ([ártamugarrì], Arta.) eta *Altamurri* ([áltamurrì]) / *Altomurri* ([áltomurrì]) / *Artamuarri* ([ártamuarrì]) / *Altamuarri* ([altámuarrí]) / *Altomuarri* ([áltomuarrí], Id.).

Erlijioarekin zerikusia duten toponimoei doakienez, KALBARIO maileguaren aurreneko aipamena 1797. urteko idazki batean dago ("*... sitio denominado Calvario* [...]", HUA41) eta hortik aurrera frankotan azaltzen da (*Mojon de Kalvario*, 1863, CB; *Kalvario*, 1944, GHO1; 1953, IGC2; 1962, UTC; *Kalvario Mendilla*, 1980, IGN1). Gogora bedi generiko gisa ere agertzen dela gurean[639]. Ildo beretik, *Ermita* maileguaren estreinako aipamenak 18. mendeko bi mapatan aurkitu ditugu (*Hermita*, 1773, VEK1A eta VEK1B), baina esan beharra dago jatorriz erlijio-eraikuntza zena baserri bihurtu dela denboraren buruan[640] (*Ermita*, 1843, *caserio*, HUA44; 1864, *caserio*, HUA47; *Ermitá*, 1857, *casa de labor*, HUA48, 45 or.; *Ermita*, 1934, *pabellones*, UUA9).

---

638 Cf. Errenteriako *Artamugarri* (1818) zuhaiztia; Muxika Urdangarin (1987: 155). Ikus 6.3.§.

639 Ikus 6.3.§.

640 BARINGARATEn (Errenterian) orobat agitu da (*Ermita-eche,* 1864, *casa de labor*, HUA48, 61 or.; *Baringarateermita* (1989, OM).

Ihartzear dagoen toponimoa da, darabilen informatzale bakarra dagoelako[641], eraikinaren ondoko baserrikoa hain justu (*Ermita* [érmità], Ol.).

Trinchera-ren ihartutako zenbait lekukotasun kausitu ditugu, singularrean eta pluralean deklinaturik daudenak (*Trinchera*, 1833-1845, HGR3, 82 au.; *Trincheras*, 1845-1846, HTR1, 1 au.). Izenondoz hornitutakoak ere topatu ditugu (*Trinchera Alta* (1932, HUA57, 455 or.; *Trinchera baja* (1932, HUA57, 454 or.). Paisaia gizakituarekin amaitzeko, diogun *urkamendi* ([úrkamendì], Lor. b.) terminoaren erakusgarri bat ere badela gurean[642], baina gauza jakina da esanahiaren aldetik *Urataka*-ren sinonimoa izan litekeela batzuetan, hots, ez dagoela ezinbestean gizakiei emandako zigorrekin lotua[643].

Koronimiarekin zerikusia duten izen espezifiko bakunen arloan badaude MUGA toponimoaren lekukotasunak[644]. Aurreneko aipamena 1683. urteko testu batean aurkitu dugu ("... *arroio llamado Muga* [...]", HUA28), espezifiko bakuna izateko nahiko goiz, baina hortik aurrera 1773. urteko mapa batean baizik ez da azaltzen (*Muga* (1773, VEK1). Badago *Etxaondo* koronimian baliatu delako testigutza bat ere[645] (*Echeondua*, 1920, HUA57, 633 or.), aurrekoa bezala, hau ere ihartuta dagoena eta generikotzat aurkitu duguna.

ABAROLEKUren erakusgarri bakarra[646] 1732. urteko idatzi batean dago ("*En Epelsaeza hiendo del paraje que llaman Abarolecua* [...]", HUA30, 420 bin.) eta, hala berean, *su-egur* terminoa toponimotzat erabili dela jakitera ematen duen lekukotasuna idoro dugu, azken hau 1708. urteko idazki batean: "... *todo el terminado llamado Suegurra, estaua declarado por de naturaleza de Monte Franco*", (HUA31).

---

641 OLABERRI izenaz ere ezagutzen da.

642 Informatzaileak esanahia ez zekien. Gure esparrutik kanpo (baina nahiko hurbil) *Urcamendilarre* (1850-1852, HTR5, 12 au. eta 14 au.) irakurtzen da Hernanin 19. mendearen erdi aldean.

643 Hain zuzen, latinezko *furca* eta **furcu*-ren eratorrietatik atera da ('bifurcación'). Ikus Salaberri (2007) eta Gendrons (2006: 62). Xehetasunetan sartuz gero, Latinezko *furca* terminoak Asturiasen duen oinordekoez jardukitzean, honakoa dio Concepción Suárezek (1992: 209) hitzez hitz: "Una *forcá* es en *Güerna* 'un paso estrecho entre peñascos desde una ladera a otra de la montaña', semejante a la *foz*".

644 *Mugaco ariza* (1635, 1637) toponimoa biltzen du Iñigok (1996: 300-301) Iturenen (Malerrekan) eta *Mugako erreka* hidrotoponimoa Jimeno Jurio eta Salaberrik (1992: 323-324) Iruñean. Ikus 6.3.§.

645 Ikus 6.3.§.

646 'Azienda (zuhaizpean) eguzkitik babesten den tokia'.

ZILEGI toponimoa[647] ere 18. mendean irakur daiteke aurreneko aldiz tradizio idatzian, ondoan *txiki* izenondoa duela: "... *termino de Cillegui chiquia* [...]" (1743, HUA30, 568 au.), "... *loma entre Cilleguichiquia e Ernani* (1833-1835, DUA3), "... *terminos de Silleguichiquia* [...]", (1797, HUA41). Garbi dago 20. mendearen hasieran, zilegimendien zatiketak direla medio, gaztelaniazko terminotzat erabili zela, *Cillegui Arantza-zabal* (1921, HUA57, 653 or.) edota *Cillegui Sagarreta-erreka* (1921, HUA57, 653 or.) bezalako formak ikusten baitira agirietan. Ahozko tradizioan termino ezaguna da oraindik[648] (*Zilleiya* [zílleiyà], Ai. eta Po. / *Zillei* [zíilleìn], Ai., *in*.) eta *zilegimendi* ere bai (*Zilleri-mendi* (IA-AZ, 122; *Zilleimendik* / *Zillegimendik*, 1989, UUTB). Oroit bedi *Cilleguieta* toponimoa 10. gizaldirako ageri dela Ibargotin (Nafarroan). Ildo horretan, Muxika Franco de Medinacelik (1996: 233) uste du bilakabidea *Zeligeta* > *Zilegieta* izan dela, *e* tonikoaren diptongazio erromanikoaren ondorioz. Hortaz, egile horren aburuz —azaltzen zaila izan arren— *Zilegieta* > *Zeligeta* > *Celigüeta* bilakabidea ez litzateke egokia, *Zeligeta* > *Zilegieta* baizik. Alabaina, hala Mitxelenak (*AV*, 614b) nola Salaberrik (2005: 100) *Zilegi*-rekin lotua degoela erakusten dute.

Bi hitz azkenik ETZELA eta MANTELE toponimoez. Lehenik eta behin, garbi dezagun etorki iluna dutela eta ez dagoela argi izen generikoak ote diren. ETZELAren idatzizko lekukotasun zaharrenak 16. mendekoak dira, 1597. urtekoak hain zuzen, eta hasieran *i* bokala ikusten da bi testigantzetan (*Yçela*, 1597, *puesto*, LMZ, 43 or.; *Hiçela*, 1597, LMZ, 43 or.), baina 17. mendean erakusgarri bakarra dago eta hasieran *E-* du (*Ezela*, 1683, HUA28). Orobat 18. mendean, aipamen guztietan hasierako bokala erdikoa delako; horratik, ordu arte ez bezala, txistukari ondorengo bokala *-e-* edo *-a-* izan liteke (*Ecela*, 1773, VEK1A / *Etzala*, 1797-1833, HGR2, 60 au. eta 68 au.). 19. mendean gauza bera gertatzen da hitz barruan (*Etzela*, 1889, HUA53; *Aranoco-Etzelaco-gaña*, 1899, HUA53; *Etzala*, 1889, HUA54 eta 1899, HUA50) eta 20. mendean ere bi aldaerak erabiltzen dira (*Etzela*, 1923, JMB1, 144 or.; 1982, CAG, 186-187 or.; 1983, GFA2; *Etzelako-artxurik*, 1926, JMB2, 121 or.; 1923, JMB1, 144 or.; *Etzelako txokoa*, 1926, *término*, JMB2, 121 or.; 1926, *túmulo dolménico*, JMB2, 121 or.; 1982, CAG, 187 or.; *Cromlechs Etzela*, 1983, GFA2; *Etzelako lepoa*, 1960, LPB,

[647] Ikus 2.§

[648] "*Ordun meza ateatzezan zilleiyan alde*" [órdun méza áteatzezàn zílleiyàn áldè], Ai.).

61 or. / *Etzala*, 1911, IM; 1942, IGC1; 1960, LPB, 62 or.; 1983, IGN2). Ahozko tradizioan ere bitarikoak daude (*Etzala* [étzalà], Amu., Ek. eta En.; *Etzela* [étzelà], En. eta Ezk. b.). Laburbilduz, irudi du bilakabidea *Itzela* > *Etzela* > *Etzala* izan dela, baina hor gelditu behar, aurrera urratsik egin gabe.

MANTELE oronimoari datxikionez, ADARRA mendiaren iparraldeko magalaren izena da eta aurrenekoz 1538. urtean irakur daiteke dokumentazioan ("*... desde el dicho sel ala peña nombrada Mantele*", HUA9); orduz gero sarritan azaltzen da, *Mantele* formarekin beti. Ahozko tradizioan *Mantale* nagusitzen da ([mántalè], Ai.; Amu. eta Mari. 2), berriemaile batek bustitako aldaera ebakitzen duen arren ([mánttalekò], Ai., *l. g.*). Etimoaren harira, gauza jakina da erdiguneko euskalkiko eta nafarrerako *maindira/e* latinezko *mantele* edo *mantile*-tik datorrela, *n* + *kontsonantea* segidaren aurretik *i* garatu baita arrunki alderdi horietan[649]. Bestetik, esan beharrean gara Beran (Bortzirietan) *Manttale* izeneko tokia dagoela[650], 1856. urtean *Mandole* formarekin irakurtzen dena (*Mandoleco-arria*, *Mandoleco-beheco-soroa*; *NTEM-IL*, 102), baina ez dugu uste datu hori aski denik Urnietakoaren iturburua eite berekoa dela baieztatzeko.

649 Ikus Mitxelena (*FHV*, 160).

650 Cf. Sarasibarreko (Esteribarreko) *Manttelu* lekua (*NTEM-XXXVI*, 165).

8.1.2. Izen berezietan eta izen arrunt gizakizkoetan oinarri dutenak

Urnietan ANTSO izeneko baserria dago[651] eta haren aurreneko aipamena 18. mendearen amaierakoa da (*Anso*, 1794-1831, UGR3, 13 au.). Aurrerantzean idatzizko lekuko franko daude, guztiak estreinakoaren eite berekoak, salbuespen bakarra *Antso-baso* (1940, *monte alto*, UUA10B) delako. Ildo beretik, *Antso* ([ántsò], K.) da ahozko tradizioan baliatzen den aldaera. Jakite ziurra da *Sanso* erromanikoa (< lat. S*anctius*, *Sancti*) dela euskarazko *Anso*-ren iturburua, eta dismilazioa Erdi Arorako gertatu bide zela ere bai[652].

Bestalde, lehenbiziko aldiz 18. mendearen amaieran azaltzen den BAKERO mailegua dugu gure esparruan (*Baquero*, *Arizolachiqui o*, 1797-1833, HGR2, 38 au.). Astigarragako ERMAÑA oikonimoa ere, aurreko hori bezala, ezizena izan liteke (*Ermaña* [érmañà], K. eta Goi) / [ermáña], Erm.), baina ezin hori ziurtatu[653].

Bi hitz, bukatzeko, HERKULES toponimoari buruz[654]. Hernani aldean zegoen (*Urruzunaburuan*), Urumea errekatik ez oso urruti (*Ercules*, 1797, *partida*, *cima*, HUA41), baina Greziako mitologiako pertsonaiaren gure esparruan azaltzearen zergatia zein den ez dakigu. Aukera bat da *Santsonarri* izenaz ezagutzen diren harritzarrekin izatea zerikusia (ikus 2.12.§.).

---

651 1589. urteko agiri batek Artazkotzeko (Oltza zendeako) *Anso* etxearen berri ematen du eta hura ere aitonen-semeen bizilekua da, Urnietakoa bezala; Jimeno Jurio (1989b:87).

652 Cf. *FHV*, 291 eta Salaberri (2003: 237).

653 Mitxelenak (*FHV*, 507) zehazten du Txorierriko *ermain* izenak 'defecto físico' adiera duela (cf. Oñatiko *ermaiño*). Bestetik, badakigu Nafarroako alderdi batzuetan *Ermin* izeneko tokiak daudela, Naxurietan (*NTEM-XXXVIII,* 212) eta Ollokin (Esteribarren) konparaziora (*NTEM*- XXXVI, 147). Hala berean, Lakarren (Deierrin) *Ermiña* dugu (*NTEM*-XXVI, 153) eta Saratsaten (Itzan), ostera, *Ermiñaz*. Azken horren harira, ohar hau egiten dute biltzaileek: "*Ermin*, *Ermina* es un elemento muy repetido en la toponimia menor vasca de la Cuenca de Pamplona, Tierra Estella, Araquil y Barranca, lo cual hace sospechar que se trata de un antiguo genérico, aunque en ninguna parte lo hemos encontrado en uso en lengua vasca. Sin embargo, *ermina*, según J. M. Iribarren, vive en castellano de Tierra Estella significando una calleja estrecha entre casas por la que apenas cabe una persona. Tal vez sea éste su sentido en topónimos, ya que los parajes así llamados coinciden en general con pasos estrechos y desfiladeros. Este mismo tipo de terreno se llama a veces en castellano *calleja* (cf. *La Calleja de Arrunbide* en Urbasa), lo cual parece corroborar la hipótesis", *NTEM-XIII*, 228.

654 *Hercules* toponimoa azaltzen da 1894. urtean Azpilkuetan (Baztanen); *NTEM-LII3,* 35.

8.1.3. Izen ez konkretuetan oinarri dutenak

Izen espezifiko bakunei eskainitako azpiatalekin amaitzeko, izen ez konkretuetan oinarri duten bi mailegu hartuko ditugu ahotan. Lehenengoa PURGATORIO da[655], estreinakoz 1797. urteko idazki batean aurkitu duguna. Hain zuzen, testigantza hori da izenburu nagusi edo iturburua PURGATORIOERREKA dela iradokitzen duena, *arroyo* bat zela zehazten baita (*Purgatorio*, HUA41). Honatx idatzizko beste erakusgarri batzuk: *Purgatorio* (1848, *Monte*, HINGR2, 11 zenb.), *Purgatorio-burua* (1854-1855, UTR7, 45 au.) eta *Purgatorio-erreca* (1920, *monte*, HUA57, 320 or. eta 1924, *Monte*, HUA57, 747 or.). Berriemaileek ezpainbiko ahostunarekin zein ahoskabearekin ebakitzen dute hitz hasiera eta hori ez da arrunta gurean (*Purgotoyo* [purgótoyò], *Purgatorio* [púrgatór̥io] / *Burgatei* [búrgatè̥i], Amu.; *Purgatoyoerreka* [púrgatoyoérreká], *Purgatoyoko erreka* [púrgátoyokò erreká], Amu. / *Burgatoyoerreka* [burgátoyoérrekà], Etxol.; *Burgatoyoko erreka* [burgátoyokò érrekà], Bezk.). Gure esparrutik kanpo ezaguna den *Infernuko erreka*[656] hidrotoponimoaren ildokoa ematen du.

Aipatu nahi dugun beste toponimoa DESKARGA mailegua da, Gipuzkoa-Nafarroetako toki gehiagotan agertzen dena[657]. Gurean bi erakuskari ditu, bata Aranon (*Deskarga*, [déskargà], Ezk. b. / [deskárgà], Lor. b.). eta bestea Hernanin (*Deskarga*, 1982, CAG, 187 or.; *Deskarga* [déskargà], K.). Etorki zehatza zein den ezezaguna bada ere, gerrarekin zerikusia izan lezakeelakoan gaude, hots, inoiz militarren egoitzaren bat edota borrokaren bat egon dela adierazten duela deritzogu.

---

655 Cf. Alotzeko (Longidako) *El Purgatorio* aurkintza (*NTEM-XXXIII*, 41, 133).

656 Tolosan *Inpernuerreka* ur-ibilgua dago (Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio, 2006: 99), Iturenen eta Zubietan (Malerrekan) *Infernu Erreka* izeneko leku bana daude (Iñigo, 1996: 269, 385) eta Olazagutian (Burundan) ere *Infernuerreka* dugu (*NTEM-IX*, 74). Cf. Iturgoiengo (Gesalazko) *Barranco de Infierno* (*NTEM-XXVII*, 80) edota Trebiñuko *Camino del Infierno*; González de Viñaspre & Uribarrena (2005: 173).

657 Nafarroan ere kausitu da, Bortzirietako Lesakan esaterako (*NTEM*, IL, 210).

8.1.4. Izen espezifiko bakunen aldaketak

Bokalen sailean, asimilazio-disimilazio prozesuen ondorioz, bigarren silabako bokal erdikoa ireki egin da MANTELE eta ETZELA toponimoetan (*Mantele*, 1538, HUA9 > *Mantale* [mántalè], Ai., Amu., Mari. 2.; *Ezela*, 1683, HUA28 > *Etzala*, 1797-1833, HGR2, 60 au., 68 au; *Etzala* [étzalà], Amu., Ek., En. / *Etzela* [étzelà], En. , Ezk. b.). Azken toponimo horren harira, irudi du aurretik hitz hasierako bokala ireki dela (*Yçela*, 1597, *puesto*, LMZ, 43 or.; *Hiçela* (1597, LMZ, 43 or.).

Amaierako bokalei dagokienez, EPELA toponimoaren kasua adierazgarria da, aipamen zaharrenetako *Epela*-ren ordez (1467, HUA5; 1863, HRU, 46 bin.) 18. menderako *Epele* azaltzen delako (1739, HUA36) eta, hain zuzen, hori dugulako 19. eta 20. mendeetako agirietan nagusitzen den forma (1773, VEK1B; 1850-1852, HTR5, 12 au.; 1920, HUA57, 70 or.). Ahozko tradizioan ere *Epele* ([épelè], K.) bildu dugu. Amaieran bokal erdikoa duen aldaera *Epele-erreca* (1842, HUA45) edota *Epeleco Echeverri* (1937, AB) bezalakoen eraginaren ondorioa dela ematen du.

Diptongoen aldetik, ahozko tradizioan *-a□*-ren murriztapena izan da ZUAIZTI toponimoan (*Zuaizti* [zúaɨ̯ztí], Amu. / *Zuazti* [zúaztì], Amu.), baita, segur aski, AÑOAren kasuan ere (*Añoa*, 1773, VEK1A). Ildo beretik, *-aɨ̯-> -a-* agitu da INTXAUSTI toponimoan (*Insausti*, 1951, UUA18; *Intxusti* [íntxustì], Txim.).

Hiatoei begiratuz gero, *-oa > -ua* hersketaren idatzizko aztarnak berandukoak dira, 20. mendekoak hain justu (*Añoa*, 1773, VEK1A; JMB3, 268 or.; *Añua*[658], 1936, HUA57, 305 or.; 1953, IGC2) eta, espero izatekoa zenez, badaude aldaketa horren ahozko erakuskariak (*Txerrendako pasaizua* [txérrendakò pásaɨ̯zuà], Ol.). *-Ea > -ia* inflexioa ere 20. gizaldian azaltzen da estreinakoz (*Malcarpia*, 1920, HUA57, 112 or.; 1935, HUA57, 490 or.), baina aldi horretako idatzizko tradizioan ez da automatikoa (*Malcarpea*, 1932, HUA57, 212 or.; 1932, HUA57, 213 or.).

[658] Ahozko tradizioan ere *Añua* ([áñúà], K.) bildu dugu.

Bokalen inflexioak ikusi ondoren, gatozen hiatoetara. Hasteko, ezpainbikoaren epentesiak badu indarra ahozko tradizioan (*Kurpittuba* [kúrpittúba], Amu.; *Munuba* [múnubá], Ai.), nahiz eta, adibidez, 18. mendeko *Abarolecua*-n (1732, HUA30, 420 bin.) kontsonante horren zantzurik ez egon.

Hitz barruko *-ia-* segida murriztu egiten da batzuetan ahozko tradizioan, hau da, lehen osagaiak azken bokala galdu du (*Arrataka* [árratakà] / *Arratakak* [árratakàk], Amu.; *Arriatakak* [árriatakàk], Amu.; *Arritakak* [árritakàk], Mari. 2), baina hori baino garrantzitsuagoa da *-i* + *-a* > *-iya* eransketa automatikoa dela (*Luakiya*, 1989, HUTB), aldaketa horren idatzizko testigutzarik ez badago ere (*Chillardia*, 1794-1831, UGR3, 14 au.).

Hiatoekin bukatzeko, *-aia* > *-aya* sabakikaritzearen aurreneko lekukotasunak 19. gizaldikoak dira (*Talaya*, 1889., HUA55) eta, espero izatekoa zenez, badaude 20. gizaldiko etsenpluak ere (*Pasaya*, 1920, HUA57, 7 or. eta 1927, HUA57, 14 or.); ahozko tradizioan automatikoa da (*Talaya* [tálayà], Bentatx., Id. eta Larra.).

Kontsanteen aldaketen arloan, diogun hitz hasieran, ezpainbikoaren ordez, belarra ebakitzen delako lekukotasuna dagoela gure esparruan; metaforan jatorri duen *Pulpitu* maileguaz ari gara. Berriemaileak artikuluarekin eta artikulurik gabe darabil (*Kurpitto* [kúrpittó], *Kurpittu* [kurpíttu] / [kúrpittú] / [kúrpittù], *Kurpittuba* [kúrpittúba], Amu.). Era berean, ezpainbiko ahoskabea ahostundu egiten da (*P-* > *B-*) ahozko tradizioan kasu batean (*Purgotoyo* [purgótoyò], *Purgatorio* [púrgatór̥io] / *Burgatei* [búrgatèi̯], Amu.; *Purgatoyoerreka* [púrgatoyoérreká] / *Burgatoyoerreka* [burgátoyoérrekà], Etxol.; *Burgatoyoko erreka* [burgátoyokò érrekà], Bezk.).

Ezpainbikoez ari garela, hitz barruko igurzkaria erori egin da ahoz IPIÑABAR (*Ipiñar* ([ípíñàr], Ezk. b. Eta Txim.; [ipíñar], Lor. b. / *Ipiñabar* [ipiñábar], Lor. b.), LUBAKI (*Luakiya* eta *Luakiatzia*, 1989, HUTB) eta KANALZUBI toponimoetan (*Kanalzuiko erreka* [kanálzwikò érrekà], En.); ez da harritzeko, bertako hizkeran hola egiten delako.

Horzkarien sailean, lehenbiziko aldiz 1588. urtean kausitu dugun INTSUSADI toponimoaren aipamenen artean *-d-* > *-r-* aldaketa burutu dela erakusten duen 19. gizaldiko lekukotasuna dago (*Ynsusari*, 1843, HUA44). Horrez gainera, eta ahozko tradizoan oraingoan, hitz amaierako igurzkaria ezpainbiko (*-d-* > *-b-*) egiten dute informatzaileek batzuetan (*Intxusabi* [íntxusabì], Atx.; *Intxusai* [íntxusài̯], Atx). 18. mendearen bukaeran dokumentatzen den *Zumadi* (1797-1833, HGR2, 43 au., 51 au., 53 au. eta 58 au.) oikonimoa ere bietara ahoskatzen da egun, bokal arteko ezpainbikorik gabe (*Zumai*, 1989, HUTB) zein dardarkariarekin (*Zumari*, 1989, HUTB). INTSUSADI eta ZUMADIrekin gertatu moduan, TXERTUDI ebakitzerakoan *-d-* > *-r-* aldaketa agitzen da ahozko tradizioan (*Txertui* [txértwì], Amu.; *Txertogi* [txértogì] / *Txerturi* [txérturì], En.) eta orobat ikusten da IDOIA toponimoaren txartelari erreparatuz gero (*Iroya*, 1928, JMB3, 268 or., [íroyà], Id.; *Iroyabea*, 1928, JMB3, 268 or.).

Dardarkariei dagokienetan, bokal erdikoaren protesiaren lehen lekukotasunak 18. mendekoak dira[659] (*Errelladura*, 1739, HUA36; *Errolladura* (1797-1833, HGR2, 45 au.). Hitz barruan, *urataka* terminoaren testigantzak baditugu esaterako, eta batzuetan bokalarteko dardarkaria erori egiten da, baina beste batzuetan ez ([úratakà] / [úratakà] Etxol.); [úatakà] Ezk. b., Lor. b. eta Pag.; [úatakakò érrekà], Ezk. b.). TELLERI oikonimoaren kasuan, ordea, galera automatikoa da (*Telleiko borda* ([téllei̯kò bórdà], Txim.; *Telleiko kaskua* [téllei̯kò káskuà], Aska.).

ARTAMUGARRI toponimoaren kasua ere interesgarria da, horzkari aurreko dardarkaria albokari egiteko joera ikusten delako (dardarkari disimilazioa). Aldaketa horren lehen erreferentziak 20. mendearen erdialdekoak dira (*Altamo-bea*, 1942, IGC1) eta ahozko tradizioan bizirik dirauen zerbait da (*Altamurri* [áltamurrì], Id. / *Altomurri* [áltomurrì], Id. / *Altamuarri* [altámuarrí], [áltamuarrí], Id. / *Altomuarri* [áltomuarrí], Id.; *Altamugarribekoa*, 1989, OM; *Altamugarri erdikoa*, 1988, OBIE. Zernahi gisaz, ez du indar handirik, dardarkaria duen aldaerak bizirik baitirau[660] (*Artamugarri goikoa* [ártamugárri goi̯kóa], Arta., *adl.s.*; *Artamuarri* [ártamuarrì], Id.).

---

[659] *Arroil*-ekin lotuak badaude protesia (protesia bada) ez da berria izango.

[660] Cf. *Artamugarri* (1818, LMM, 155 or.), *Artamugarri-erdi* (1864, HUA48, 61 or.) eta *Artamugarri-becoa* (1962, UTC).

Txistukariei erreparatuz gero, hitz hasierako bizkar-hobietakoaren sabaikaritzea ikusten da, idatziz (*Chocoa*, 1794-1831, UGR3, 9 au.; *Chocoa*, 1797-1833, HGR2, 44 au.) eta ahoz (*Txerrendako pasaizua*, [txérrendakò pásaị̈zuà] (Ol.). Era berean, bada *Intsausti*-ren erakuskari bat, aurreneko aldiz 1951. urtean lekukotzen dena (*Insausti*, UUA18) eta berriemaileek sudurkari ondoko txistukaria busti egiten dute (*Intxusti* [íntxustì], Txim.). INTSUSADI toponimoaren kasuan estreinako agerraldia 1588. urtekoa da eta *-in-* segidaren ondoan *-s-* dago (*Ynsusadi*, HUA17, 141 bin.). Zentzu horretan, *-ch-* duten formak 20. mendean hasten dira azaltzen eta ahozko tradizioan mihi-punta hobietakoarekin (*Intsusadi*, *Intsusai*, *Intsusabi*, 1989, HUTB) zein sabaikoarekin (*Itxusai* [íntxusàị̈], Atx.; *Intxusabi* [íntxusabì], Atx.) jaso diegu berriemaileei.

Kontsonante multzoen arloan kasu interesgarria dago, azkenik. LATXA toponimoaz ari gara, honen bilakaera **rtz* > *rts* > *ts* izan dela ematen baitu (*Larsa de Avillas*, 1467, HUA5; *Lassa / Laza*, 1595, HUA10; *Latze*, 1843, HUA44; *Latse*, 1864, HUA47; *Latxe* [látxè], K.).

8.1.5. Izen espezifiko bakuntzat erabilitako izenak

Espeizifikotako erabilitako hirurogeitik gora termino kausitu ditugu guztira, gehien-genienak geografia arlokoak, eta gutxi batzuk, bost hain zuzen, persona izenetan (*Antso*, *Bakero*, *Herkules*) edota izen arrunt ez konkretuetan (*Purgatorio*, *Deskarga*) oinarri dutenak. Erdia baino gehiago idatzizko agirietan bilduta daude eta, alde horretatik, lehenbiziko lekukotasunak 16. gizaldikoak dira (*Ynsusadi*, 1588). Zehaztu beharra dago, nolanahi ere, EPELA 15. menderako dokumentatzen dela (1467). 18. gizaldiko aipamen multzoa garrantzizkoa da eta, bestalde, esan dezagun maileguak ez direla urri, herena harrapatzen baitute gutxi gora-behera. Izen espezifiko bakuntzat zein generikotzat kausitu ditugunak, bi sailetan baliaturikoak, ehuneko hogeira ez dira iristen (*artamugarri*, *ermita*, *etxaondo*, *lats*, *malkar*, *ospel*, *portilu*, *txabola*, *ursalto*, *zingira* eta *zoko*). Multzo horretako erdiak generikotzat azaltzen direnean baino lehentxeago aurkitu ditugu espezifiko gisa, generikotzat aurrena topatu dugun bakarra *artamugarri* baita (1857 / 1607). Sail ezberdinetako toponimoen hainbatekoei erreparatuz gero,

paisaia gizakituaren eta fitonimiaren arlokoak dira gehienak, baina oronimiaren alorrekoek ere badute pisua.

Honatx, espezifiko bakun gisa aurkitu ditugun terminoen zerrenda:

A. abaro-leku (1732), aino (1773), artamugarri (1857)**. B.** benta. **D.** deskarga. **E.** elurzulo (1797-1833), ermita (1733), *errelladura* (1739) / *errolladura* (1797-1833), etxaondo (1920). **G.** gaztainadi (1932). **L.** lonja (1920). **H.** harpausu, harriataka. **I.** idoi (1928), intsausti (1951), intsusadi (1588), ipinabar, istinga, itxitura. **K.** kalbario (1797). **L.** langa, larratz (1628), lats (1467), loidi (1857), lubaki, lurberri. **M.** malkar (1797-1833), *malkarpe* (1920), *mantal?* (1538), mizpiradi (1833-1845), muga (1773), muino, muxikadi (1932). **O.** ospel. **P.** palankaleku, pasaia (1920), pilotasoro (1797-1833), portilu, pulpitu, purgatorio (1797). **S.** santsonarri, su-egur (1708), **suterri* (1628). **T.** talaia (1889), teileri(a) (1628), trintxera (1833-1845). **Tx.** txabola (1833-1845), txara, txerritegi (1860-1862, HTR10), txertadi (1797-1833), txillardi (1794-1831). **U.** urataka, urkamendi, urkidi (1799), ursalto (1768). **Z.** zerrenda, zilegi (1743), zingira, zoko (1794-1831), zuhaizti (1906), zumadi (1797-1833), zumardi, zumizti (1794-1831).

Espezifiko bakunen aurreneko agerraldien diagrama

21.	muino	pulpitu	harriataka	harpausu	portilu
	santsonarri	zerrenda	urataka	zingira	zumardi
	sasi	ipinabar	benta	palankaleku	urkamendi
	ospel				
1989	itxitura	lubaki	istinga	txara	langa
1950	intsausti				
1900	zuhaizti	muxikadi	pasaia	gaztainadi	lonja
	artamugarri				
1850	talaia	txerritegi	trintxera	loidi	idoi
	mizpiradi	lurberri	txabola		
	malkar	*malkarpe*	elurzulo	*errelladura / errolladura*	
18.-19.	zumizti	zumadi	txertadi	txillardi	pilotasoro
	zoko	ursalto	kalbario	ermita	
1700	urkidi	su-egur	abaro-leku	aino	zilegi
1600	larratz	teileri(a)	**suterri*	muga	
16.	intsusadi	*mantel?*			
	lats				

8.2. Izen espezifiko elkartuak

8.2.1. *Mugatzailea + mugakizuna* egitura duten izen elkartuak

Izen berezia + bizigabe-izen arrunta egitura duten toponimoekin emango diogu hasiera azpiatal honi. Lehenbiziko tokian *izen berezi gizakizkoa* dutenak ikusiko ditugu.

AGUSTINSORO[661] (*Agustin* + *soro*; 'Agustinen soroa'). Informatzaile bakarrak eman zigun eta lehen zatiko izen bereziaren nondik norakoa argitu gabe utzi zuen (*Agustinsoro* [agústinsorò], Pard. g. 1). Atentzioa ematen du bokal arteko belarra ez erori izateak, hots, **Austinsoro* ez ebakitzeak.

ANTONKALE (*Anton* + *kale*). Ezizena da eta, hortaz, (ikus FAGOLLAGA) ahozko aipamena bakarrik egotea ez da harritzeko (*Antonkale* [ántonkalè], Fag., Txil.). Etorki ezezagunekoa da.

BENTURAITURRI (*Bentura* + *iturri*; 'Bentura deitura zuen norbaiten iturria'?; 'ur-berezia ematen duen iturria'?). Lehenbiziko aipamena 19. gizaldikoa da eta etimoa argitzen du irudiz (*Bentura-iturri*, 1831-1845, UGR4, 21 au.), beste biek, alde horretatik, argitasuna baino gehiago nahasketa eragiten baitute (*Venta-iturri*, 1951, UUA18; *Bentitturri* [béntitturrì], Mari. 2). Gure esparruan arrunta den bokal arteko dardarkari ahularen erorketak (*Benturaiturri* > **Bent(u)aiturri*), hiru bokaleko multzoaren sorrera eragin bide du lehenbizi eta, ondoren, *Bentaiturri* aldaeran, diptongoaren bat-egitea (*-ai-* > *-i-*). Guztiarekin, izatez, izen berezia izan beharrean *bentura* izen arrunta ere izan liteke (cf. MARIALOPEZERREKA eta PURGATORIOERREKA). Guztiarekin, eskribauak egindako etimologia kultoa izatearen aukera ezin da erabat baztertu.

JERONIMOSAGASTIA (*Jeronimo* + *sagasti* + *-a*; 'Jeronimoren sagastia'). *Jerolimo-sagastiya o Sagastizarra* (1936, HUA57, 664 or.) da testigutza bakarra eta ihartu

[661] Cf., konparaziora, Etxabarri-Urtupiñako (Barrundiko) *Bartolomesolo* (1712); Lopez de Gereñu (1989: 103).

patronimo honek garbi erakusten du gurean *Je(r)olimo* erabili dela, hots, *-n- > -l-* disimilazioa burutzen dela (cf. *FHV*, 340). Cf. AGUSTINSORO eta AMONASAGASTI.

MARIALOPEZERREKA (*Maria Lopez* + *erreka*). Iharturiko hidrotoponimo honen lekuko bat dago eta datu hori eskuan lehen zatiko izena zuen andrezkoa nor zen ezin jakin (*Maria Lopez erreca*, 1776-1794, UGR2, 3 au.).

MARTINTXULO (*Martin* + *zulo*; 'Martinen zuloa'?, 'martin arrantzalearen kabia dagoen zuloa'?). Lekukotasunak ahozkoak dira (*Martintxulo* [martíntxulò], Txab 2, Txil.) eta, itxura batean, lehen osagaia pertsona-izena izanen da segur aski, baina toponimoa erreka batetik gertu dagoenez eta gurean horrelako hegaztiak badirenez gero, beste aukera da aurreneko osagaia ornitonimoa izatea.

MIKELAZELAIA (*Mikela* + *zelai* +*-a*; 'Milekaren zelaia'). Iharturik dago eta ale bakarra kausitu dugu (*Miquelacelaia*, 1739, HUA36), baina garbi dago AGUSTINSORO eta JERONIMOSAGASTIA toponimoen sailekoa dela.

MARTINTXARRA (*Martin* + *txara*?; 'Martinen txara'?). Lehenik eta behin, dardarkari anizkunak ez du jatorra ematen, herri-etimologiaren emaitza baizik; gurean horrelako gehiago badaude (ikus *Akolatxarra* < AKOLATXARA, 6.2.3.1. §). Kasu honetan, nolanahi ere, bestelako daturik ez dugunez, ezin erabateko ziurtasunik izan. Cf. MARTINTXULO.

Izen berezia + *bizigabe-izen arrunta* egitura duten toponimoen multzoan beste azpisaila hasieran *mitologiako izena* dutenek osaturikoa da. Gurean bi erakuskari daude eta horietako bat MARIZULO[662] da (*Mari*[663] + *zulo*; 'Mari [izeneko izakia bizi den] zuloa'). Estreinako testigantza idatzia 17. gizaldikoa da, baina salbuespena ematen du, sabaiko txistukari afrikatua duelako eta amaierako bokala falta delako (*Marichul*, 1682, *Josepha de*, EA2). Izan ere, *Marizulo* erabiltzen da idatziz usaian (1855, UEA1; 1944, UUA44; 1945, UUA15), nahiz eta dardarkari ahula galdu duen *Maizulo*-ren beranduko

[662] *Mari zulo* toponimoa biltzen du Aralarren Elosegik (1972: 151).
[663] Ikus 2.12.§.

lekukotasunak badiren (1907, LMZ, 164 or.); areago, bokal arteko dardarkariaren erorketa tradizio idatzian azaltzen den aldi bakanetakoa baita hori. Itxarotekoa zenez, ahozko tradizioan bi formak jaso ditugu (*Marizulo* [marízulò], K. / [marízulòn], Amu., *in.*; *Maizulo* ([mái̯zulò], K., Amu.).

SANTSONARRI (*Santson* + *harri*; 'Santsonek jaurtikiriko harritzarra'). Badaude gure esparruan *Santsonarri*[664] terminoa espezifikotako baliatu dela adierazten duten ahozko testigantzak[665]. Arrunki txistukari frikariarekin ebakitzen dute berriemileek (*Sansonarri* [sánsonarrì], K.), afrikatuz ahoskatzen duen bat baden arren, eta ez nornahi gainera, informatzaile hoberenetakoa izandako Bartolome Uranga baizik (*Santsonarri* ([sántsonarrì], Amu.). Ikus 2.12.§.

Lehen osagai gisa izen bereziak dituzten leku-izenekin jarraituz, *bizigabe-izen berezia* + *bizigabe-izen arrunta* osaketa bide duten hiru ale daude. AZELAZELAIA (*Azelai(n)?* + *zelai* + *-a*; 'Azelain jauretxearen zelaia') da horietako bat, 18. gizaldiko agerraldia baizik ez duena (*Acelacelaia*, 1739, HUA36). Andoaingo *Azelain* jauretxearekin zerikusia izan lezakeelakoan gaude.

MALTALURRA da bigarrena (*malta?* + *lur* + *-a*; '*malta* izeneko landarea ateratzen den lurra'?; '*Malta* baserriaren lurra'?). Aipamen bakarra 1920. urtekoa da (*Maltalurra*, *ribera*, HUA57, 804 or.) eta lehen osagaiaren nondik norakoa zehatz-mehatz zein den ez dakigu.

TOLEDOLURRA aurrekoaren ildo berekoa da (*Toledo* + *lur* + *-a*; 'Toldedo[txiki] baserriko / Toldedo[txiki] familiaren lurra'?) eta hiru lekukotasunak agiri berean daude, hain zuzen Hernaniko 20. gizaldiko amilaramenduan (*Toledo-lurra* (1936, *terreno herbal*, *ribera*, HUA57, 93 or.; *Toledo-lurra* (1936, HUA57, 93 or.). Lehen osagaia nagusiaren deitura zein baserriaren izena dela dirudi.

---

664 *Sansonen arriya* ([sánsonèn árriyà], Mari. 2) forma ere jaso dugu.

665 Tolosan (Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio, 2006: 279) eta Oiartzunen (Goikoetxea & Lekuona, 2007: 279) *Sansonarri* geonimoa ez da ezezaguna.

Izen berezietan oinarri dutenak ez ezik, izen arrunt gizakizkoak lehen tokian dituzten toponimoak ere badaude gurean. Horietako bat AMONASAGASTI da (*amona* + *sagasti*; 'amonaren sagastia'). Ihartuta dago (*Amonasagasti*, 1833-1845, HGR3, 78 bin.), baina gardena da, halere. Cf. AMUNOLA eta JERONIMOSAGASTIA.

Mugakizuntzat *-etxe* duten bi toki-izen daude, AITONETXE eta APAIZETXE, biak ahozko tradiziotik bildurikoak (*Aitonetxe*, [ái̯tonetxè], Last. b.; *Apaizetxe*, [ápai̯zetxè], K.). Bide batez, diogun APAIZARRI oronimoa ere badagoela gurean (*apaiz* + *harri*; 'apaiza bizi zen harria[666]'). Berriemaile batek aipatzen du (*Apaizarri* [ápai̯zarrì], Txab. 1) eta badirudi jatorriz **Apaizarrietako erreka* forma lukeen *Apaizetako erreka* ([ápai̯zetako erreka], Txab. 1) hidrotoponimoaren iturburua izan daitekeela.

BUNANARRANBIDE (unai, *unan-* / muino, *muna-* [**buno-*, *bunan-*?] + *Arranbide*[667]). Honen lekukotasun bakarra kausitu dugu (*Bunan Arranbide*, 1554, EUA2, 122 or.) eta, hortaz, etimoa zein den jakitea zaila da. Besteak beste, bi aukera daude; lehena da aurreneko osagaia *unai* apelatiboaren elkarketarako aldaera izatea (*unan-* [668]) eta, ildo horretan, bada gurean UNAMUNO izeneko lekua. Lehenbiziko elementuan *mu(i)no* (*muna-*) izen geografikoaren *bunan-* (< **buno-*) aldaera egotea da beste hipotesia[669].

DONTZELLAITURRI[670]: (*dontzeila* + *iturri*; dontzeilaren iturria'). Ahozko toponimoa da (*Dontzella*[671], 1988, OBIE; *Dontzellaitturrita*, 1989, OM; *Dontzellaitturri* [dontzelai̯ttúrri] / [dóntzellai̯tturrì], Id.) eta etimoa argi lezakeen kontakizunik ez dugu jaso.

---

666 Informatzaileak emandako argibidea (Txab. 1).

667 Ikus ARRANBIDE.

668 Hor dago, adibidez, *Una maizter* (1167) apelatiboa (< **unan-maizter*; *AV*, 578); ikus, halaber, Mitxelena (1964: 49). Cf. Oibar aldeko *Hunamendico* (1076; Lakarra (1965: 75) edota Baztango *Unasaroia* (NAO, Errege-Auzitegiak, prozesuak [epaiketak] 085921 zenb.).

669 Ikus *AV*, 458.

670 *Donzellasoro* aurkintza dago Urretxun, aurreneko aldiz 1851. urtean aipatzen dena (Ugarte, 1998: 71-72). Ildo beretik, Arangurenen (Burundan) *Lamiturri* toponimoa dago, Urdiainen (Burundan) *Andramariturri* (*Andredonemariaiturria*, 1699; *NTEM-XXXVII*, 40) eta Unanun (Ergoienen) *Sorginiturri* (*NTEM-X*, 83).

671 Mapan iturriei dagokien gakoa du ondoan forma horrek.

ESKALANBERRI (*eska(le)*? / + *lanberri*?; ‘eskaleen lanberria’?). Bitariko lekukotasunak kausitu ditugu, idatzizkoak (*Escalamberri*, 1936, HUA57, 796 or.) eta ahozkoak (*Eskalanberri* [éskalanberrì] / *Eskallanberri* [éskallanberrì], Etxol.). Albokariaren bustiduraren nondik norakoa ezezaguna da, baina herri-etimologiarekin duke zerikusia. Hain zuzen, bi bide daude, gutxienez, etorkia argitze aldera: bata, ‘eskale + lanberri’ osaketa da (haplologiaz *Eskalanberri*), hau da, LANDERBASOren eredukoa izatea; bestea oinarrian gaztelaniazko *escala* terminoa egotea da. Ildo horretan, Corominesek *escalante* terminoa latineko *scala*-rekin (‘eskailera’) lotzen du, Pasai Antxoko *Eskalante* / *Eskalantegi* etxe-izenak aztertzen dituenean Elortegik (1992: 101) biltzen duenez.

FRAILEOSIÑA[672] (*fraile [fraide*] + *osin* + *-a*; ‘fraidea ito zen osina’?). Testigutza guztiak ahozkoak dira eta gehienak kasu markaz hornituta daude (*Praillian osiña* [prái̯lliàn ósiñà] / *Prallian osiña* [prálliàn ósiñà], Pag.; *Pralle osiña*, 1989, HUTB). Honenbestez, *F-* > *P-* aldaketak gure esparruko ahozko tradizioan izandako indarraren etsenplu baten aurrean gaude, baina, damurik, toponimoaren jatorria azaltzen duen testigantzarik ez dago. Cf. APAIZARRI.

LANDERBASO[673] (*lander* + *baso*; ‘behartsuen basoa’). 16. menderako kausitu dugu estreinakoz dokumentazioan (*Landerbasoa*, 1583, HUA21, 2 bin.) eta 19. gizaldia arte artikuluarekin azaltzen da usaian (*Landerbaso*, 1802, RAH 93 or.; 1831, *trozo*, DUA2). Badaude dardakari aurreko bokala ireki den idatzizko lekukotasunak (*Landarbasoa*, 1802, RAH 131 or.), baita metatesia izandako testigutzak ere (*Landrebaso* (1889, HUA55). Hain zuzen, *Landarbaso* aldaeraz gainera ([lándarbasò], K., Larra., Txab. 2), metatesia duen *Landrabaso* jaso dugu ahozko tradizioan ([lándrabasò], Asta., Id., Larra.). Litekeena da *-a-* > *-e-* irekitzearen arrazoia herri-etimologia izatea, *lander* izenaren adiera galtzearen ondorioz gertaturikoa; bestalde, dardarkari anizkunaren ondoan *e* > *a* urratsa ezaguna da gurean. Nolanahi ere den, hiru informatzailek emandako forma metatesiduna azpimarratu nahi dugu, gurean horren etsenplu gutxi

672 Cf. Urbasako *Frailezuloa* (*NTEM-XVIII*, 121-122) edota Bakaikuko (1713) *Abadealsasuaerorizanecozuloa* (Salaberri, 1992: 640).

673 *Landerrenea* biltzen du Iñigok (1996: 531) Iturenen (Malerrekan) eta Luzaiden *Landerr erreca beerecoa* eta *Landerr erreca garaycoa* saroiak ditugu 1284. urtean (Lakarra, 1957: 45).

daudelako. Mitxelenari (*AV*, 390) jarraikiz, oraingo honetan *Lander* donostiarren ezizena denik ez dugu uste. Ildo horretan, gauza jakina da *Landerra* apelatiboa ('el pobre') 12. gizaldirako azaltzen dela Artaxoan (627, c. 1104; cf. *Landerridoia*), baita ere Lakarrak (1930: 250) 13. gizaldiko *Trigo de lander gari* terminoa biltzen duela. Cf. ESKALANBERRI.

LAPURRARRI[674] (*lapur* + *harri*; 'lapurrak gordetzen diren harria'?). Ahozko toponimoa da (*Lapurrarri* [lápurrarrì], Bentatx.) eta bada sail bereko beste ale bat gurean; LAPURTXULOz ari gara (lapur + zulo; 'lapurrak gordetzen diren zuloa'), hau ere ahoz jaso duguna *Lapurtxulo* ([lápurtxulò] (K.). Ingurunez landako bustidura da azpimarragarriena azken horren kasuan, elkartuaren bigarren osagaian ikusten den *-tz-* > *-tx-* sabaikaritzea, alegia. Cf. APAIZARRI.

MARKESAMUGA (*markesa* + *muga*; 'Astigarragako markesaren lurren muga'). Metonimiaren adibidea da (*Markesamuga* [márkesamúgà], Atx. / [márkesamúgà], Añu.), baina berri samarra delakoan gaude.

SANTIZABAL (*santi-* + *zabal*). Dauden testigantzak idatzizkoak dira eta zaharrena 19. gizaldikoa da (*Santizabal*, 1868, *montazgo*, DJE; 1960, *monte bajo*, UUA10I; 1960, *regata*, UUA10I). Gaztelaniazko hagionimoaz gainera (*Santi[ago]*), aurreneko zatia *santu-* apelatiboaren *santi-* aldaera izan liteke[675] (< lat. *sancti*).

UNAMUNO (*una[n]-* [*unai*[676]] + *muino*; 'unaiaren muinoa', 'unaia egoten den muinoa'). Lehenbiziko agerraldia 17. gizaldikoa da eta *-u-* + *-i-* + *-n-* > *-uñ-* sabaikaritzearen lekuko dateke (*Unamuño*, 1683, HUA28), baina, nolanahi ere, argi dezagun handik aurrera *Unamuno* gailentzen dela aldi oro idatziz (1773, VEK1A; 1833-1835, *monte*, DUA3; 1926, *loma*, JMB2, 121 or.; 1960, *espolón*, LPB, 74 or.; 1982, *lugar*, CAG, 188 or.) eta, beraz, aurreneko agerraldiko *Unamuño*-k salbuespena dirudiela. Ahozko tradizioan *Unamuno* ([unámunò], Amu., Ezk. b., En. eta Txim.) nagusitzen da, nahiz eta *Unamune* ([unámunè], En.) ere bildu dugun. *Unamune* eta

674 Cf. Luzaideko *Ohoinarri* (Satrustegi, 1970b: 146).
675 Cf. Galipentzuko *Santitisi* (Salaberri, 1999: 1173-1174).
676 Ikus *AV*, 578; cf. AITONAREN BEGIRALEKUA eta BIXTARRI.

Unamene aldaera hauek loturazko bokalaren erabilpenarekin (*Unamuneko galbayua* [únamunekò gálbayuà], Ezk. b.) eta atzerako asimilazioarekin dukete zerikusia (ikus SAGASTIMUÑO).

AMAIRULURRA toponimoa ere bildu dugu (*hamahiru* + *lur* + *-a*; 'hamairu jaberen lur-zatia'?), zoritxarrez, iharturik dagoena hau ere (*Amairu-lurra*, 1920, HUA57, 651 or.). Iturburua *hamairu jabeen lurra* sintagma dela irudi du[677], baina hedadura-neurriekin ere izan lezake zerikusia[678] ('hamairu gizalan dituen lurra'?).

Sailkapenaren aldetik bereziak diren zenbait izen espezifiko dakartzagu ondoren. Bereziak diogu mugatzaileek egiazki gizakizkoak ez diren izakietan dutelako oinarria, hots, *intxixu* eta *sorgin* izenetan. INTXISUERREKA hidrotoponimoren (*intxixu* + *erreka*; 'intxixuen erreka') testigantza bakarra Oiartzungo ahozko tradiziotik bildua da (*Intxisu erreka*, 1989, OM) eta ez da harritzeko, herri horretan dauden *Arditurri*-ko zuloetan bizi ziren izaki mitologikoak baitziren *Intxisuak*[679] (cf. SORGIÑERREKA).

Ildo beretik, lau dira gurean lehen osagaitzat *sorgin* apelatiboa duten izen espezifiko konposatuak. SORGINMALDA[680] da aurrenekoa (*sorgin* + *malda*; 'sorginen malda') eta hau ere ahozko tradiziotik bildu dugu (*Sorginmalda* ([sorgínmaldà], Txab. 2). Bigarrena sabaikarituriko txistukaria duen SORGINTXULO da (*sorgin* + *zulo*; 'sorginak gordetzen diren zuloa') idatziz eta ahoz jaso duguna (*Sorguinchulo*, 1920, *Manzanal*, HUA57, 70 or.; *Sorguintxulo*, 1936, HUA57, 76 or.; *Sorgintxulo* 1989, HUTB). SORGINZULO dugu hirugarrenik (*Sorguinzulo*, 1835-1837, H.L.4, 85 au.), aurrekoak ez bezala txistukari bustigabea duena; iharturik dago. Laugarrena, eta azkena, SORGIÑERREKA[681] da (*sorgin* + *erreka*; 'sorginak egoten diren erreka') eta hau, berriz, ahoz baizik ez dugu bildu (*Sorgiñerreka* [sorgíñerrekà], Pard. g. 1 eta Pard. g. 2).

Gizakizkoenak ez ezik, lehen osagaitzat abereen izenak dituzten toponimo asko daude. AKELARRE (*aker* + *larre*) fitotoponioarekin hasiko gara. Ahozko testigutza dago,

---

677 Cf. Lizartzako *Amabisoro* (1999, LIM) edota Lezoko *Ogeisalleta* (1995, LRM).
678 Ikus Jimeno Jurio (1987: 435-436).
679 Barandiaran (1972: 111).
680 *Sorginmalda* toponimoa biltzen du Pasai San Pedron Elortegik (1992: 167).
681 Oiartzunen ere *Sorgiñerreka* ur-ibilgua dago (Goikoetxea & Lekuona (2007: 285).

baina sorginekin lotzen duen lekukotasunik ez da bildu (*Akelarre*, 1989, HUTB). Akerrez ari garenez, AKERTZULO oronimoa ere bada gure esparruan (*aker* + *zulo*; ‘akerra eroritako zuloa’?, ‘akerra atertazen den zuloa’?). Berriemaileak afrikatuz eta frikariz ebakitzen du (*Akertzulo* [akértzulò] / *Akerzulo* [ákerzúlo], Mari. 2) eta hau ere ahozko literaturarekin egon liteke lotua.

ANTZUSAROBE (*antzu*? + *sarobe* [*saroi*]; ‘animalia antzuak gordetzeko saroia’?). Estreinako agerraldiak 17. gizaldikoak dira eta bi forma (*Antzu-* / *Antzi-*) ikusten dira orduko hitz hasieran (*Anzisarobe*, 1683, HUA28 / *Anzusarobe*, 1683, HUA28). 18. mendean *Anzusarobe* (1797, HUA41) kausitu dugu eta 19.ean, berriz, *Anchisarobe* (1833-1835, DUA3), *Anchistasarove* (1833-1835, DUA3) eta *Anso-sarobe* (1868, DJE). Nolanahi ere, azken bi horiek forma berreraikiak direla uste dugu. Ahozko tradizioan hainbat aldaera bildu ditugu (*Antsusarobe* [ántsusaròbe], Amu.; *Antzusarobe* [ántzusaróbe], Mari. 2; *Antsosarobe* [ántsosarobè], Amu.; *Antsosaabe* [ántsosaabè], Ek.; *Antzusabe* [ántzusabè], Amu., Mari. 2; *Ansusabe* [ánsusabè], Amu.; *Antsusabe* [ántsusabè], Mari. 1; *Antsuzabal* [ántsuzabàl], Amu., Mari. 2; *Antzuzabal* [ántzuzabàl], Mari. 2), baina *Antzi-* hasiera duen alerik ez dago. Hortaz, lehen tokian ‘antzu’ apelatiboa egon liteke (cf. ANTZUZABAL), baina *Anzisarobe*, *Anchisarobe* eta *Anchistasarove* aipamenek iturburua ANTXISTA ere izan litekeela iradokitzen dute. Alde horretatik, ANTXISTA eta ANTZUSAROBE ondo-ondoan daude eta aurrenekoak 12. gizaldian hasten den idatzizko tradizio naroa du. Eite bereko beste toponimoa ANTZUZABAL da (antzu + zabal; ‘animalia antzuak larretzen diren zabala’) eta oraingoan ere berriemaile batek bitara ahoskatzen du toponimoa, hots, *Antzuzabal* ([ántzuzabàl]) zein *Antzuzabel* ([ántzuzabél], Larra.) darabiltza hark; bigarren aldaera hori loturazko bokalaren erabilpenarekin eta asimilazioarekin dagoke lotua: **Antzuzabal(eko)* > **Antzuzabel(eko)*. Cf. ALTZUZABALA.

ARRANBIDE[682] (*arran-* [*arrano*[683]] + *bide*; ‘arranoen bidea’?). 1566an hasten den tradizio luze samarra du (*Arranbide*, 1566, LMM, 155 or.) eta *Arrambide* aldaera

[682] Satrustegik (1970b: 138) *Arrañosin* biltzen du Luzaiden eta haren iritziz *arrain*-ekin zerikusia izan lezake. Cf. *Arnegi* herri-izena (< *Arranegi*; ‘arrano + hegi’). Ildo beretik, Kerexetak (1992: 172) *Arranegi* (1704) izeneko auzoa zerrendatzen du Lemoizen.

[683] Ikus *AV*, 87.

erabiltzen da arrunki, nahiz eta *Arranbide* ere kausitu dugun (1773, VEK1). Ahoz *Arranbide* ([árranbidè], K.) gailentzen da, eta *Arranbi* ([árranbì], Arg.) salbuespentzat jo daiteke. Ohar bat, bidenabar: *Arranbide* haranean dago, URUMEA errekaren ondo-ondoan (cf. OIARBIDE).

ASTABIXKAR[684] (*asta-* [*asto*] + *bizkar*; 'astoek igotzen duten bizkarra', 'malda handia'?). Lehen osagaiaren azken bokala irekia edo erdikoa izan liteke eta, bestalde, ingurunez kanpoko sabaikaritzea agitu da (*Astabixkar* [ástabixkár] / [ástabixkàr], Amu.) / *Astobixkar* ([ástobixkàr], Amu.).

AZARILEPOA[685] (*azeri* + *lepo* + *a*; 'azeriak igarotzen duen lepoa', 'azeriak izaten diren lepoa'). Ingurunez landako bustidura dugu oraingo honetan ere[686], (*Azeri lepua*, 1989, HUTB; [áxarilépuà], Txab. 1), *-oa* > *-ua* hersketaz gainera. Bada *-lepo* duen beste toponimoa: BELELEPO (bele + lepo; 'beleak egoten diren lepoa'). Hemen ere, ahozko tradiziotik bilduriko lekukotasuna dago (*Belelepo*, 1989, OM) eta, aurrekoan ez bezala, mugatuko kasu markarik ez dago. Cf. OTSOLEPO.

BUZTANARRIA (*buztan* + *harria*). Izaki mitologikoek jaurtikitako harritzarraren izena da (*Buztanarriya* [búztanarriyá], Etxol.) eta, dakigula, harriak ez du buztan eiterik. Cf. SANTSONARRI eta ARRIUZTUNA.

KATAMOTZARRI[687] (*katamotz* + *harri*; 'katamotz[ar]en gordelekua'). Badaude idatzizko testigantzak, berandukoak izan arren (*Catamozarri*, 1889, *punto*, HUA56 eta 1920, *montazgos*, HUA57, 887 or.; *Catamocharri* (1989, GS). Ahozko tradizioan txistukari afrikaria duen aldaera baliatzen da usaian (*Katamotzarri* [kátamotzarrí], Amu.; [katámotzarrì], Txab. 1; [kátamotzarrì], Txim. eta Bezk.), baina *Katamozarri* ([kátamozarrì], Txil.) forma ere bildua dago.

---

684 *Astobizkar* Baztango mendia da.

685 Etxalarren (Bortziriak) *Axerilepo* tokia dago (*NTEM*, IL, 133) eta ildo berekoak dira Iturengo *Axerilur* eta *Axerixulo*. Iñigok (1996: 233) jasotzen duenez, antzeko formak daude Lesakan (*Azerizulua*), Igantzin (*Azarizulo*) eta Beran (*Azerizulo*). Cf. *Asarizuloa* (Jimeno Jurio, 1969: 374).

686 Izen arruntean ez da agertzen (*Azaya*, *Azeya*).

687 Cf. Aralarko *Katamoztegi* eta *Katamotzeta-ko koba*; Elosegi (1972: 151 eta 174).

KUKULARRE (*kuku* + *larre*; ‘kuku-belarra ateratzen den larrea’?, ‘kukua entzuten den larrea’?). Berriemaile bati bildutakoa da (*Kukularre* [kukúlarrè], Id.), eta, zoritxarrez, toponimoaren etorkia garbi lezakeen argibiderik ez du ematen.

MANDARRI (*manda-* [*mando*] + *harri*; ‘mandoa dirudien harria’?, ‘mandoa igaro harria’?). Osaketa *manda-* + *(h)arri* delakoan gaude (*Mandarri* [mándarrì], Txim. eta Id.), baina horrela dela ezin dugu ziurtatu. Cf. ASTABIXKAR.

OTSARRAMENDI (*-mendi*). Idatzizko iturrietan duen ibilbideari dagokionez, txistukariak grafia ezberdinak ditu (*Ossarramendi*, 1611, HUA24, 113 au.; *Ozarramendigaña*, 1728, HUA34; *Otzarramendi*, 1797-1833, HGR2, 57 au., *Otsarramendi*, 1845-1846, HTR1, 1 au.) eta dardakariaren ordez albokaria duen *Ozalamendi* (1739, HUA36) salbuespena ere jaso dugu. Ahozko tradizioan ez dago *tz* duen adibiderik, bai ordea *ts* eta *tx* dutenak (*Otsarramendi* [otsárramendì], Ek.; [otsárramendikò érrekà], Al.; *Otxarramendi* [otxárramendì], Txab. 2). Bestalde, eta etimoari doakionez, aurreneko aukera lehen zatia izen berezia izatea da (cf. *Santiagomendi*) eta, ildo horretan, oroit bedi, Luchairek biltzen duen bezala (1881: 163), behinola bazela euskaraz *Osar* / *Ochar* apelatiboa (‘zakur’) (“C’est le mot labourdin *ozar*. C.L: 153, 1116”), *Garsisas Fortuniones Oxarra* pertsona-izenean legokeena hain zuzen. Haatik, gure esparruko toponimoak *-ts-* du, eta horrek aurreneko osagaia *ozar* / *oxar* izatea zailtzen du, gure ustez. Beste hipotesia lehen osagaia *otxar* (‘Granza’, *Rubia tinctorum*[688]) fitonimoa izatea da, baina orduan amaierako *-a* horren jatorria argitu gabe geldituko litzateke. Hirugarren posibilitatea Salaberrik (1997: 33) aipatzen duen **arrai* oinarria egotea da (*Ots[a]* / *Otz[a]* + **arra[i]* + *mendi*; cf OTSAZULOETA).

Otso osagaia duten bi izen espezifiko elkartu daude gure esparruan. Lehenbizikoa OTSOLEPO[689] da (*otso* + *lepo*; ‘otsoek igarotzen duten lepoa’, ‘otsoak ehizatzen diren lepoa?). Idatzizko aipamenak berandukoak dira (*Otzolepo*, 1944, GHO1; *Osolepo*, 1962, UTC; *Otsolepo*, 1982, CAG, 185 or.) eta ahoz *Otsolepo* ([otsólepò], Amu. /

[688] *DVEF*, 877 eta *OEH*, XIII, 777-778.
[689] Cf. Iguzkitzako (Doneztebe ibarreko) *Portillo de los lobos*, *NTEM-XXIV*, 109.

[ótsolepò], Ek., Mari. 1 eta Mari. 2) jaso dugu. AZARILEPOAren ildokoa da horrenbestez, eta gogoan har bedi lehen osagaiaren azken bokala ez dela ireki. *Otso* duen bigarren etsenplua OTSOZULO da (*otso* + *zulo*; 'otsoa gordetzen den zuloa', otsoak gordetzen diren zuloa'). Ahozko lekukotasuna dago (*Otsozulo* [ótsozúlo], Amu.) eta hemen ere ez dago aldaketarik lehen osagaiaren azken bokalean.

POTOTXOERREKA (*pototxo* + *erreka*; 'lepahoriak ibiltzen diren ur-ibilgua'?). Idatzizko tradizio naroa du (*Potochoerreca*, 1730, HUA35; *Potocho-erreca*, 1797-1833, HGR2, 45 au.; *Potochoco erreca*, 1797-1833, HGR2, 46 au.; *Potocho-erreca*, 1797-1833, HGR2, 48 au.; *Potich-erreka*, 1933, HUA57, 656 or.) eta ahozko tradizioan hiru aldaera jaso ditugu, guztiak informatzaile berak emandakoak, nahiz eta batzuk itxuraldatu samarrak egon: *Pototxaerreka* ([pótotxaérrekà]) / *Potxoserreka* ([potxóserrekà]) / *Putxuserreka* ([putxúserrekà], Okendo.). Azkuek (1984 [1905]: 910) biltzen duenez, *Martes martes* (lepahoria) delako piztiari *pototxa* esaten zaio Goizuetan eta Leitzan, *putotsa* alegia

TXINGURRITXULO (*txingurri* [*inurri*] + *zulo*; 'inurrien bizilekua', 'zulo txikia'). Idatzizko testigantza bat baizik ez dago (*Chingurrichulo*, 1920, *manzanal*, HUA57, 625 or.), toponimo gardena badirudi ere. Bigarren txistukariaren bustidurak adierazkorra ematen du.

URDANTXULO (*urdan-* + *zulo*; 'txerrizainaren[690] zuloa?'). Idatzizko eta ahozko lekukotasunak daude, guztiak sabaiko txistukaria dutenak (*Urdanchulo*, 1920, *montazgos*, HUA57, 887 or.; *Urdantxulo* [úrdantxulò], Etxol.). Alde horretatik esan beharra dago gure esparruan bertan (Errenterian) badela busti gabeko txistukaria duen URDANTZULO (*Urdanzulo*, 1989, OM) toponimoa (Cf. LAPURTXULO).

Bi osagaietan bizigabe-izen arrunt konkretuak[691] dituztenak arras ugariak dira toponimo elkartuen arloan. ABALLARRIrekin hasiko gara (*habaila* + *harri*; 'habailarekin jaurtikitako harria[692]'). Estreinako aipamena 1923. urtekoa da (*Aballarri*, 1923, JMB1,

690 Ikus *AV*, 585.
691 Zuhaitz eta landareen izenak bizigabetzat hartzen dira euskaraz (*arbolara igo*).
692 Ikus 2.12.§.

93 or.) eta gainerako idatzizko agerraldietan forma bera kausitu dugu; orobat ahozko tradizioan (*Aballarri* ([abállarrì], K.; [áballarrì], Amu.; [aballárri], Mik.). Izaki mitologikoek jaurtikiriko harritzarra izendatzen du, SANTSONARRIk egin moduan.

ADARRAMENDI[693] (*adarra* + *mendi*; '[abisu emateko] adarra jotzen den mendia'). Tradizio idatzian *Adarra* baliatzen da (1625, LMI, 230 or.; 1628, DUA1 eta 1833-1835, DUA3), baina informatzaile guztiek *Adarramendi* darabilte, *-mendi* osagaia erantsita alegia[694]. Zentzu horretan, mendia denez gero, sarritan aurretik gaztelaniazko *monte* terminoa duela agertzea ez da harritzeko (*Monte Adarra*, 1881, JOA eta 1898, EGZ). Makrotoponimo honek badu ahozko beste aldaera, *Agerre* hain zuzen. Aurreneko aldiz 20. mendean aurkitu dugu eta bistakoa da *Adarra* formaren bilakaera dela, egun *Aerreko zabala* eta antzeko formak erabiltzen direlako ahozko tradizioan, jatorriz ADARRA eta ADARRAMENDI ezberdinak ziratekeela iradokitzen dutenak, hots, dermioa ADARRA zela, eta ADARRAMENDI eta ADARREKO ZABALAren gisakoek aurkintza zabal hori zatitzeko balio zutela, gehiago zehazte aldera (ikus 5.19 §). Guztiaz ere, informatzaile batek esaten duenez (Amu.), adarra joaz eta *lekaio* (oihu) bidez handik abisu ematen zelako du ADARRAMENDI izena mintzagai dugun lurraren-goraguneak (ikus LEKAIO).

ALTUGAIN (*altu*? + *gain*). Oikonimo honen erreferentzia zaharrena 19. mendearen erdialdekoa da; artikulua du (*Altugaña*, 1850-1852, UTR5, 40 au.), 20. mendeko idatzizko erakusgarriak ez bezala (*Altu-gain*, 1945, UUA15; *Altugain*, 1979, UUA20). Berriemaileek bokal arteko igurzkari belarra gabe ebakitzen dute arrunki (*Altuain* [áltuà̯ɲ], K.), *Altugain* (1989, UUTB) ere jasoa egon arren. Badaiteke erredundantzia baten aurrean egotea, bigarren osagaia *-gain* delako eta lehenbizikoak *altu* (gazt. *alto*) izen geografikoarekin izan dezakeelako zerikusia[695]. Nolanahi ere den, garbi dagoena da egungo *-ain* 19. eta 20. mendeetan *-gain* idazten zela (*-gain* > *-ain*).

ALTZIBAR (*haltz* + *ibar*; 'haltzen ibarra'). Hau Isastik aipatzen du aurreneko aldiz 1625ean (*Alcibar*, *casa*, LMI, 102 or.) eta informatzaileek *Altzibar* ([áltzibàr], K.)

693 Cf. *Adarrecolepoa*; Yanguas Miranda (2000 [1840] III: 1420).
694 *Adarra* forma ematen dutenek *Adarramendi* ere erabiltzen dute.
695 ALTUGAIN muino baten gainean dago.

darabilte usaian, hots, txistukari afrikatuarekin ebakitzen dute; bokal arteko kontsonantea gabeko aldaera ere entzun dugu (*Altziar* [áltziarrá], Amu., *adl.s.*). Ikusten den bezala txistukari afrikatua duten formak besterik ez dira baliatzen ahozko tradizioan.

ANGELUITURRI (*angelu*[696] + *iturri*; 'leku beherean dagoen iturria'). Idatzizko testigutzarik ez dago eta ahozko tradizioan, jatorrizkoa dirudien *Angeluitturri* ([ángeluitturrì], Bentatx. eta Txab. 1) aldakiaz gainera, diptongorik ez duen *Angelitturri* ([ángelitturrì], Bentatx.), sinkoparen lekuko den *Angletturri* ([ángletturrì], Bentatx.) eta herri-etimologia dirudien (*Anjelitturri* [ánjelitturrì], Larra.) jaso ditugu. Ohar bedi *Angelu* maileguak 'beherea, zorua, sakana' adiera duela[697] eta latinezko *angulus*, *-i* izenaren *angellus* txikigarrian duela iturburua. Mitxelenak (*FHV*, 159-160) oroitarazten du *n* + *kontsonantea* segidaren aurretik *i* garatu dela batzuetan euskaraz (*aingeru*), nahiz eta baldintza beretan beste batzuetan bokal horren zantzurik ez egon (*angelu*; *Angellu*, Donemiliaga 1025). Maileguetan, latinezko *ll* euskaraz *l* bihurtu dela ere azpimarratzen du (*FHV*, 320), *-ellum* atzizkia zuen *Angellu*-k egungo *Anguelu* eman duela, alegia. Beste hizkuntza batetik harturiko izenekin jarraituz Mitxelenak (*FHV*, 311-312) antzinako *l* bokal artean *r* bihurtu dela oroitarazten du[698] (*aingeru* 'angel'), *n*-kin gertatu antzera, baina batzuetan alderantzizkoa ere gertatu dela irudi du[699].

---

[696] Gipuzkoan *Aingelu* (1767) etxea dago Pasai Donibanen (Elortegi, 1992: 61) eta Nafarroan ere badira zenbait lekukotasun, *Angelu* izeneko tokiak baitaude Urrotzen (*Angelu*, 1592; *NTEM-XXXVII*, 227) eta Adoainen (Urraulgoitin) (*NTEM-XXXI*, 62). Araban, bestetik, *Angelu* (Azua) eta *Angelua* toponimoak biltzen ditu Lopez de Gereñuk (1989: 41) Miñaon.

[697] Cf. Campión (1985 [1892]: 62), Mitxelena (*AV*, 55) eta Iglesias (2000: 194).

[698] Cf. *sor(h)o* 'campo, prado' < lat. *solum*.

[699] Izun (Oltza zendean) 1661. urteko *Aynguеru yturri(a)*-ren 20. gizaldiko oinordeak *Anguiliturri* (1903), *Inguiliturri* (1903) eta *Ingliturria* (1926) dira. Hortaz, hitz hasierako diptongoa bateratu egin dela dirudi (*Ai- > A-*), eta gero *a — i > i — i* asimilazioa gertatu. Hala berean, Jimeno Juriok (1981:187) ongi asko dioen moduan, bokal arteko dardarkari ahula albokari bihurtu da. Hain zuzen, ikertzaile horrek (1992: 93) *Aingeruiturri* toponimoa biltzen du Añezkarren zein Oteitzan (Antsoainen) eta garbi ikusten da albokaria duten bi aipamenak berandukoak direla, 16., 17. eta 18. mendeetan dardakariz hornituta ageri delako artean. Zenborainen ere *Angiruiturri* hidrotoponimoa dugu eta, *Anguiruiturri*-z (1715) gainera, *Angliturri* (1892) eta *Anguiliturri* (1892) / *Angilitúrri* oinordekoak daude; NTEM-XXXVIII, 199. Bestalde, Iñigok (1986: 340) biltzen duenez, *Aingeruiturri* gobaralekua dago Zubietan (Malerrekan); ildo beretik, kanposantuaren ondoan eta handik ez oso uruti, Elgorriagan hain zuzen, *Aingelu* izeneko sakonunea dago. Azken hori *Angelu*-ren aldaera da seguruenera, egileak berak dioen moduan (1986: 159). Halaber, Tolosan eta Lizartzan *Aingerusoro* izeneko aurkintzak daude (Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio, 2006: 49 eta 1999, LIM) eta, azkenik, Lopez de Gereñuk (1989: 41) *Angelusolo* (Urbina, 1794) toponimoaren berri ematen du.

AÑAGAIN (*ainar* + *gain*; ‘ainarra dagoen gaina’) oronimoak idatzizko erakuskari berri gutxi batzuk besterik ez ditu. Lehenbiziko alea 1951. urteko idazki batean aurkitu dugu eta -*gain* du bukaeran (*Añagain*, UUA18), baina bigarren lekukotasunean, bost urte geroagoko idazki batean, -*ain* irakur daiteke (*Añain-gaña*, 1956, UUA23). Idatzizko azken agerraldia 1968. urtekoa da (*Añaingo mendia*, 1968, UUA23). Belarriz *Añainñ* ([áñái̯ñèn], Ai., *in.* / [áñai̯ngò léi̯zià], Larr. / [añái̯nméndí], Mik.), *Añaiña* [áñai̯ñá] (Oiarbi.) artikuluduna eta -*e* loturazkoa duen *Añaiñe* [áñai̯né] (Mik.) jaso ditugu; *Añaain* (1989, UUTB) forma ere zerrendatuta dago. Cf. AÑAGORRI eta AÑARBE.

ARANZABAL (*haran* + *zabal*; ‘haran zabala’, ‘haraneko zabala’). Ahoz jaso dugun oronimo honi doakionez (*Aranzabal* ([aránzabàl], K.) sudurkari ondoko txistukaria frikaria dela nabarmendu nahi dugu.

ARBELAITZ (*harbel* + *haitz*; ‘arbelezko haitza [dagoen tokia]’). Hau ere berriemaileei bildu diegu (*Arbelaitz* [árbelài̯tz], K), baina, goikoa ez bezala, eta oikonimoa den heinean, exonimoa izan liteke, nolabait esan. Ikus ARBELAITZENEA.

ARGARATE (*ar-* [*harri*] + *garate*[700]; ‘harri arteko pasabidea’). Bi dira gure esparruan honen erakuskariak. Bata Urnieta-Elduain mugan dagoen mendia da (*Argarate azpicoa*, *Argarate garaicoa*, 1739, VEK2; *Argarate*, 1944, GHO2; *Argarate* [árgaraté], Amu. / [árgaratè], Ek.; *Argaate* ([árgaatè], Amu.; Ek.) eta, bestea, berriz, Urnietako baserria (*Argarate*, 1566, L.M.1, 161 or.; *Argate*, 1989, UUTB). Ikusten den moduan, ahoz, idatziz ez bezala, bokal arteko dardarkari ahula erortzen da batzuetan, baina ez beti.

ARGURUTZ[701] (*ar-* [*harri*] + *gurutz[e]*; ‘gurutzea duen harria [dagoen lekua]’). Estreinako erakuskaria 18. gizaldikoa da (*Argurucea*, 1797, *mojon*[702], HUA41) eta

---

[700] ‘Mendatea’ adieraz gainera, ‘saroi-muga’ zentzua du, *Orotariko Euskal Hiztegian* biltzen denez (VIII alea, 351. or.).

[701] *Argurutz* izeneko tokia dago Zenborainen (*Arriguruzea*, 1699) eta, gurean bezala, harrizko gurutzea dago han; *NTEM-XXXVIII*, 199.

[702] "*... hasta el peñasco, ò piedra que llaman Argurucea, que sirve de mojon, y para su legitimidad por tal le tiene sobre la superficie una cruz artificial. Poco antes de esta piedra grande, ò mojon, existen otros dos tambien con cruces: el del medio plantificado, y mobible; pero el del extremo firme, y peremne, como la citada de Argurucea.*"

badira 20. mendeko testigantzak ere, biak amaierako bokala galdu dutenak[703] (*Arguruz*, 1920, *punto*, HUA57, 44 or.; *Argurutz* (1932, *Terreno Montazgo*, HUA57, 614 or.). Ahozko tradizioan ere erorketaren lekuko diren formak bildu ditugu (*Arguutz* [árguùtz], Bort. b. eta Pard. g. 1; *Argutz* [árgùtz], Txil.) eta azpimarratzekoa da, bestalde, bokal arteko dardarkari ahularen desagerpena ere (cf. ARRIGURUTZEKO TONTORRA).

Aurrekoaz gainera, lehen tokian *har-* [*harri*] osagaia duen toponimo mordoa dago gurean. ARLEPOrekin jarraituko dugu (*har-* [*harri*] + *lepo*; 'harrizko lepoa', 'harri arteko lepoa') eta laburzki mintzatuko gara horri buruz: bi aipamen daude (*Arlepo*, 1944, GHO1; GHO2) eta iturria ez da fidagarria. ARMUNTOren (*ar-* [*harri*] + *munto*; 'harrien muntoa[704]') aurreneko aipamena, berriz, 18. mendearen amaierakoa da (*Armunto*, 1794-1831, UGR3, 17 au.) eta badaude 20. gizaldiko testigutzak (*Armunto*, *Armonte*, *Armute*, *Armuto*, 1951, *helechal*, UUA18). Gainera, informatzile batek ere aipatu zigun (*Armunto* [ármuntó] / [ármuntò], Ai.). Idatzizko zenbait formari erreparatuz gero, *monte* gaztelaniazkoa gure esparruko zenbait toponimoren mugakizuna dela ematen du. Etsenplu zaharrena 19. mendeko *Arismonte* (1831-1845, U.L., 425 au.) da eta horrelakoetan *-monte* gaztelaniazkoa *munto* ('cerro') euskaldunaren eskutik azaltzen da, behin baino gehiagotan *monte* / *munto* aldizkatzea gertatzen delarik[705]: *Armunto* (1951, UUA18) / *Armonte* (1951, UUA18); *Basamonte* (1951, UUA18) / *Basamunto* ([básamuntò], Larr.); *Errecamonte* (1925, UUA3) / *Errecamunto* (1945, UUA15). Nolanahi ere, *-munto* mugakizuntzat duten formak dira nagusi idazkietan hiru kasuetan, eta, gainera, ahozko tradizioan *-monte* bukaera duen aldaerarik ez dago. Hortaz, *-monte* herri etimologiaren ondorio dateke (Cf. MUNTTO).

ARRIGURUTZEKO TONTORRA / ARRIGURUTZEKO PUNTA (*harri* + *gurutze*; 'harrizko gurutzearen tontorra'). Bi erakuskariak ahozko tardiziotik bildu ditugu (*Arrigurutzeko tontorra* [árrigurutzekò tóntorrà], En.; *Arrigurutzeko punta* [árrigurutzekò púntà], En.) eta, deklinatu gabeko testigantzarik ez dagoenez gero, izenburu nagusia ARRIGURUTZ ala ARRIGURUTZE den ezin jakin (cf. ARGURUTZ).

---

[703] Mitxelenaren (*FHV*, 134) arabera, zenbait kontsonanteren ondoren ez dirudi maileguetan arau oso finkoak daudela eta hartu ziren garaiarekin luke zerikusia horrek (*gurutz* / *gurutze*).

[704] Izan ere, hori da hara joanez gero ikusten dena.

[705] Izaki geografiko bera izendatzen duten bikoez ari gara.

ARTONTOR (*ar-* [*harri*] + tontor; ‘harriaren tontorra’, ‘harrizko tontorra’). Bi berriemailek aipatzen dute (*Artontor* [ártóntòr], Ezk. b.; Txim.), baina, dakigula, ez dago harri edo harrite berezirik tontor hartan. Bada ildo bereko beste bat: ARTXUBIKO ERREKA[706] (*ar-* [*harri*] + *zubi*; ‘harrizko zubiko erreka’). Ahozko toponimoa da eta txistukariaren testuinguruz landako sabaikaritzea ikusten da (*Artxubiko erreka* [ártxubikò érrekà], Amu.). Han ez dago zubirik, horratik. Cf. ARKITURRI.

ARIZMENDI (*haritz* + *mendi*; ‘haritzen mendia’). Bi tokitan azaltzen da eta bietan bokal arteko dardarkari ahula gabe ebakitzen dute berriemaileek, hau da Urnietan (*Arizmendi*, 1794-1831, UGR3, 16 au.; *Aizmendi* [ái̯zmendì], K. / [ái̯zmendiá], Amu., *adl.s.*) eta Hernanin (*Arizmendi*, 1863, HRU, 40 au.; *Aizmendi* [ái̯zmendì], K.). Bustitako aldaera ere jasota dago (*Aixmendi*, 1989, HUTB).

ARKITURRI (*ark[u]* + *iturri*, *ark[a]* + *iturri*; ‘zubi[707] ondoko iturria’?, ‘uharka ondoko iturria’?). Iharturiko hidrotoponimo honen lekukotasun bakarra berandukoa da (*Arquiturri*, 1920, HUA57, 888 or.) eta, bestetik, gure esparruan zubi edota uharka ondoan dagoen iturririk ez da ezagutzen.

BASAMUNTO (*basa-* [*baso*] + *munto*; ‘basoaren muntoa’, ‘basoko muntoa’). Idatzizko tradizioan herri-etimologiaren ondorio diren *Basamortu* (1948, *sembradío*, UUA16) zein *Basamonte* (1951, *sembradío*, UUA18) bildu ditugu eta ahozkoan, berriz, *Basamunto* ([básamuntò], Larr.) jaso dugu. Ikus ARMUNTO.

BUZTINTZULO. BUZTINTXULO. (*buztin* + *zulo*; ‘buztinaren zuloa’, ‘buztina ateratzeko zuloa’). Bi dira gurean *buztintzuloak*. Errenteriakoa hortz-hobietako apikariarekin ebakitzen du informatzaileak (*Bustinzulo* [bustínzulò], Asta.), baina Hernanikoaren ahozko lekukotasunik ez dago (*Buztinchulo*, 1936, *camino vecinal de Loidi a*, HUA57, 177 or.).

---

[706] Eite bereko izenak daude, besteak beste, Berriogoitin (*Artxubi*, 1952; Jimeno Jurio, 1992: 238); Arrasaten (*Artzubiko korta*, *Artzubiko kortie*; Ormaetxea, 1996: 259) eta Apinaizen (*Arzubi*; Lopez de Gereñu, 1989: 79).

[707] *Arco* erromanikoa (< lat. *arcus*; ‘zubiaren arkua’) dateke sorburua. Cf. Gendrons (2006: 72).

ELORRIBI (*elorri* + *ibi*; ‘elorrien ibia’). Lehenbiziko testigantza 16. gizaldikoa da eta hitz hasierako bokala falta du (*Lorribia*, 1573, HUA19, 7 bin.), baina orduz geroz forma osoa azaltzen da beti (*Elorrivia*, 1740, HUA30, 541 bin.; *Elorribia*, 1864, HUA47). 19. gizaldian hirugarren bokala irekirik duen aldaera dugu aurkitu estreinakoz (*-ibi* > *-abi*), asimilazio-disimilazio prozesuraren ondorioz segur aski[708] eta aurrerantzean erabat nagusitzen da, hala idatziz nola ahoz (*Elorrábia* (1857, HUA48, 45 or.; *Elorrabi*, 1911, IM; *Elorrabia*, 1921, *caserío y pertenecidos*, HUA57, 440 or.; *Elorrai*, 1928, *casa*, JMB3, 268 or.; *Elorrabi*, 1937, AB; *Elorrabi* [elórrrabì], K.).

ERRAMUERREKA[709] (*erramu* + *erreka*; ‘erramuen erreka’). Lekukotasun guztiak ahozkoak dira eta berriemaileek *-ue-* segida bateratuta ahoskatzen dute (*Erramuerreka* [érramwerrekà], Pard. g. 1, Pard. g. 2, Txab. 2).

ERREKAMUNTTO (*erreka* + *munto*; ‘errekako muntoa’). Oikonimo hau 19. gizaldian aurkitu dugu lehen aldiz eta jatorrizko forma datekeena erabiltzen da idatzizko iturrian (*Errecamunto*, 1857, *casa de labor*, HUA48, 71 or.). 20. mendean beste bi aldaera baliatzen dira *Errecamunto*-z (1951, UUA18) gainera, dagoeneko ikusi dugun *Errecamonte* (1925, UUA3) eta sabaikarituriko *Errecamuncho* (1966, *monte bajo*, UUA10L). Ahozko tradizioan, berriz, bustiriko aldakia dugu bildu (*Errekamuntto* [errékamunttò], Ai., K. eta Mik.) / [érrekamunttò], Amu.). Horzkariaren sabaikaritzearen arrazoia zein den ez dago garbi, baina, neurri batean, *munttegi* bezalako formen analogiaz sortu dateke. Hernanin bada aztergai dugun izena duen etxea, eta hura ere sabaiko horzkariz ebakitzen dute (*Errekamuntto* [errékamunttò], K.). Ikus ARMUNTO.

ERREKAZOKO. ERREKATXOKO (*erreka* + *zoko*; ‘errekako zokoa’). Aurrenekoaren testigutza bakarra ahozko tradiziotik bildutakoa da (*Errekazoko*, 1989, HUTB) eta Hernanin bertan beste erakuskari bat dago, idatzizko eta ahozko tradizioetan sabaiko txistukariarekin azaltzen dena[710]: (*Errekatxoko*, 1921, *aprisco con terreno*, HUA57, 951 or.; *Errekatxoko* [érrekatxokò], Ezk. b., Iz.).

---

[708] Labaienen (Basaburu Txikin) *Elorribieta* toponimoa dago (*NTEM-LVI*, 151) eta, hortaz, han asimilazio-disimilazioa gertatu denik ez dirudi.

[709] Cf. Lesakako (Bortzirietako) *Erramuegi*; *NTEM-IL*, 213.

[710] Lotzan (Berriobeitin) *Errekazokoa* izeneko aurkintza dago; *NTEM-I*, 141.

GALTZADAZOKOA (*galtzada* + *zoko* + *-a*; ‘harrizko bideko zokoa’). Lehen osagaiaren sorburua latinezko *calciata*-n du toponimo honek eta etsenplu bakarra *Galtzazokua* ([gáltzazókuà], Txab 2) da. Ikusten den bezala, hirugarren silabaren sinkopa gertatu da, bokal arteko horzkariaren erorketaren ondorioz (*Galtzadazokoa* > *Galtzaazokoa* > *Galtzazokoa*). Amaierako bokalaren hersketa ere azpimarratu nahi dugu (*-o* + *-a* > *-ua*).

GAZTAINMUNTTOA (*gaztain[a]* + *munto* + *-a*; ‘gaztainondoaren muntoa’, ‘gaztainen muntoa’). Bi lekuko daude, berriemaile berari jasoak biak, bata *-a*-rekin eta bestea gabe (*Gaztañamunttua* [gáztañamúnttuá] / *Gaztainmunttua* [gáztaı̯nmunttuà], Aparr.). Agerikoa da bietan bigarren horzkariaren sabaikaritzea eta *-o* + *-a* > *ua* hersketa izan direla (cf. ERREKAMUNTTO).

GAZTELULURRA (*gaztelu* + *lur* + *-a*). Iharturik dago (*Gaztelu-Lurra*, 1937, HUA57, 425 or.), baina, lehen osagaia, izen arrunta ez ezik, deitura izan liteke (cf. GAZTELUTXO eta TOLEDOLURRA).

GOROSTARBE[711] (*gorost-* [*gorosti*] + *-[h]arbe*; ‘gorostia dagoen toki harritsua’?, ‘gorostia dagoen harpea’?). Saroi honen lehenbiziko testigantza 16. gizaldikoa da (*Gorostarbe*, 1516, HUA7) eta berriemaileek bokal arteko dardarkari ahula gabe ebakitzen dute (*Goostarbe* [góostarbè], Amu. eta Mari. 2). Leireko (1104) idazki ezagunaren arabera *arbe*-k ‘petra super petram’ esan nahi du, hots, ‘harria harriaren gainean’. Irigoienek (1995: 150) dio ‘zoru harritsua’ (“suelo pedregoso”) dela adiera zehatza, baina, bestalde, gauza jakina da Hondarribian haitzen babesean egindako edo itxitako etxolei harpeak esan zaie, abeltzaintzarako ez ezik, gordeleku eta biltegi gisa ere baliatu izan direnak.

GURMENDI (*egur* + *mendi*; ‘[sutako] egurraren mendia’). Fitotoponimoa ez ezen, (*Gurmendi*, 1921, *manzanal*, HUA57, 193 or.; 1936, *manzanal*, HUA57, 187 or.) oikonimoa ere izan zen behinola (*Gurmendia de Yrazusune aspicoa*, 1773, VEK1B) eta

[711] Nahiko toki harritsua da. Goizuetan ere badago *Gorostarbe* izeneko tokia; *NTEM-XLVII*, 38.

ildo horretan, litekeena da Andoaingo baserriarekin izatea zerikusia (*Gurmendi*, 1857, HUA4, 83 or.). Azpimarratzekoa da aferesiaren erakusgarriak gutxi direla gurean.

GURUTZELEPOA (*gurutze* + *lepo* + *-a*; 'gurutzearen lepoa', '[bide]gurutzearen lepoa'). Ahozko testigantza bakarra dugu (*Gurutzelepua* [gurútzelepuá], Larr.); ikusten den bezala, hitz amaierako bokal erdikoa itxi egin da (*-o* + *-a* > *-ua*), artikuluaren erabilpenaren ondorioz (Cf. ARGURUTZ eta ARRIGURUTZEKO TONTORRA).

ITURMENDI[712] (*itur-* [*iturri*] + *mendi*; 'iturri[ar]en mendia'). Gardena da, iharturik dagoen oronimoa izan arren (*Yturmendi*, 1739, HUA36). Badago *iturri* lehen osagaitzat duen beste toponimoa, ITURRITXOKO hain zuzen (iturri + txoko; 'iturriaren txokoa[713]'). Ahozko bi lekukotasunetan agitu sabakaritzea da esanguratsuena (*Itturritxoko* [ítturritxokò], Aparr. / [ittúrritxokò], Etxol.).

JOKOMUNTTO[714] (*joko* + *munto*; 'jokatzeko muntoa'). Ahozko erreferentzia dago, sabaiko horzkaria duena (*Jokomuntto* [jókomunttó], Ai.), baina berriemaileak izenaren etorkia garbi zezakeen argibiderik ez zigun eman (Cf. ERREKAMUNTTO).

KANALZUBI izena gaztelaniazko *acueducto*-ren parekoa dateke, Leitzarango indarretxeak urez hornitzeko zubi-gainean eraikitako ubideak izendatzeko erabili dela baitirudi; zernahi gisaz, Berastegiko informatzaile bati baizik ez diogu entzun. Bokal arteko ezpainbikoa gabe ebakitzen du, diptongoa eginez (*Kanalzuiko erreka* [kanálzwikò érrekà], En.).

KATILLUITURRI[715] (*katilu* + *iturri*; '[edateko] katiluaren iturria'?, 'katilu bat ur baizik ematen ez duen iturria'?). Bi lekukotasun daude, biak ahozko tradiziotik bilduak (*Katillo iturri*, 1989, OM; *Katilluitturri* [katíllwitturrì] (Id.). Bistan da lehenbizikoa

712 Cf. Burundako *Iturmendi* herri-izena.

713 Izan ere, horrelaxe da: iturria dago txoko hartan.

714 Cf. PELOTASORO eta PALANKALEKU.

715 Urbasan *Katiliturri* hidrotoponimoa dago: "Fuente del cazo"; *NTEM-XVIII*, 126. Hor dugu, baita ere, Aratzuriko (Oltza zendeako) *Catilluiturri*; Jimeno Jurio (1989b: 37). Cf. Larraulgo *Katillutxulo iturria* (1995, LRM).

itxuraldatua dagoela, alderdi honetan *iturri* hitza busti egiten delako normalki. Cf. TELLITURRI.

LARRAGAIN (*larre* + *gain*; 'bazkalekua dagoen gaina'). Hernaniko saroiaren erreferentzia zaharrenak 18. mendekoak dira; lehenbizikoa 1702. urtekoa da eta mugatzailea du (*Larragaña*, 1702, HUA29), baina bigarrenean ez da marka hori agertzen (*Larragain*, 1773, VEK1B). Besterik da hirugarrenaren kasua, herskari ahoskabearen grafemarekin azaltzen baita (*Larracain*, 1773, VEK1A), baina erratua delakoan gaude, gizaldi hartako gainerako lekukotasunetan *Larragain* forma dugulako (1797, HUA41; 1797-1833, HGR2, 43 au., 52 au., 63 au., 66 au., 72 au. 1799, HUA42, 171 bin.). 19. mendean *Larragain* topatu dugu gehienetan, bi adibidetan azentu-markarekin irakur daitekeena (*Larragáin*, 1857, HUA54, 46 or.; *Larragáin-berri*, 1857, HUA48, 46 or.). Badago, haatik, salbuespen bat: *Larrain* (1898, EGZ). 20. gizaldian bokal arteko igurzkari belarra dutenen pisua garrantzitsua da artean (*Larregain*, *Larre-gain*, *Larregaiñ*-), denboraren buruan, *Larrain*-ek gero eta indar gehiago badu ere tradizio idatzian. Ahoz *Larrain* ([lárrə̀i̯n], K.) erabiltzen da arrunki (cf. *Larragain* ([lárragə̀i̯n], Añu.), *Larraiñ* (1989, HUTB) ere bildua egon arren[716].

LARRAPUNTA (*larre* + *punta*; 'larrearen muturra?'). *Larrapunta* ([lárrapuntà], Añu.) da erakuskari bakarra eta litekeena da *punta*-k 'muturra, iskina' adieraztea[717], eta ez 'goieneko aldea'. Ikus 6.2.1.2.§.

LEITZITURRI (*leize*? + *iturri*; 'leizeko iturria'). Testigutzak ahozkoak dira eta txistukari afrikatua dute (*Leitzitturri* [léi̯tzittúrri], Amu. / [léi̯tzitturrí], Mari. 2). Aurreneko osagaiak LEITZA makrotoponimoarekin zerikusia duenik ez dugu uste, bai, ordea, *le(i)ze*-rekin.

OIARBIDE (*oiar*- [*oihan*] + *bide*; 'oihaneko bidea'). Oikonimo honen testigantza zaharrena 15. gizaldikoa da (*Oyarbide*, 1429, *casa*, HUA4) eta tradizio idatzian forma osoa azaltzen da beti; ahoz, ordea, azken silaba gabe ahoskatzen da usaian (*Oyarbi*

716 Cf. (*FHV*, 198).
717 Cf. Iglesias (2000: 206).

[óyarbì], K.). Aurreneko zatiaz Mitxelenak (*FHV*, 309-310) adierazten du zahar antzekoak diren konposatu batzuetan lehen osagaiaren bukaerako *n* desagertu egin dela edo, bestela, *r* bihurtu dela. Gehiago da: sarritan kontsonante aurrean azaltzen den *oi(h)ar*- dakar horren adibidetzat.

ONDARTXABAL (*hondar* + *zabal*; 'hondarraren zabala', 'hondarra ateratzen den zabala'). Ahozko tradiziotik bilduriko etsenplua dago, sabaiko txistukaria duena (*Ondartxabal*, 1989, OM). Ikus 5.13.4. §. Ildo beretik, ONDARTZULO oronimoa dugu gure esparruan (*hondar* + *zulo*; 'hondarraren zuloa', 'hondarra ateratzeko zuloa'), ahozko tardizioan kausitu duguna eta, URZULO toponimoak ez bezala, txistukari afrikaria duena (*Ondartzulo* [óndartzulò], Man.). Cf. BUZTINTZULO.

OTELARRE (*ote* + *larre*; 'otearen[718] larrea', 'otea dagoen larrea', 'otea mozten den larrea'). Idatzizko erakuskaria dago (*Otelarre*, 1956, *monte bajo*, UUA10G) eta, itxura batean, toponimoaren etorkia argitzeko aski dirudi. Cf. OTARRE[719].

PAGAZELAI (*paga*- [*pago*] + *zelai*; 'pagoen zelaia', 'pago arteko zelaia'). Idatzizko eta ahozko lekukotasunak kausitu ditugu (*Pagacelay*, 1921, *terreno 1/4 lote*, HUA57, 169 or.; *Pagazelay*, 1936, HUA57, 189 or.; *Pagaxelai* [pagáxelài], Pag.), lehen osagaiaren azken bokala aldatu gabe duen forma barne (*Pagocelay*, 1932, HUA57, 875 or.). Bada antzeko egitura duen beste toki-izena gure esparruan, PAGOTXABAL hain zuzen (*pago* + *zabal*; 'pagoen zabala', 'pago zabala [dagoen tokia]'), idatzizko eta ahozko iturrietan sabaiko txistukariarekin ageri dena (*Pagochabal azpia* (1831-1845, UGR4, 28; *Pagochaval*, *Lizarrachope o*, 1955, *monte alto*, UUA10F). Ahozko tradizioari dagokionez, bokal arteko bi frikarien galera izan da (*Paotxaal* [páotxaàl], Ai., Mari. 2, Zul.). PERRAZELAI[720] ere PAGAZELAIren ildokoa da (*perra*[721] [*ferra*]? + *zelai*;

[718] Multzokaria dirudi, zaila delako ote-landare bakarra egotea.

[719] *Otaerre* toponimoa biltzen du Ugartek (1998: 155) Urretxun, eta Elosegik (1972: 176), berriz, *Oterrea* Aralarren.

[720] Cf. Gaintzako (Artzibarko) *Perrazabal* (Elosegi, 1972: 207).

[721] *Perra, ferra* 'soroa' izan liteke, erdarazko "perraña" hitzaren sinonimoa, alegia. Cf. Larragoako (Ameskoagoiengo) *Sarrico perrea* (1634; Salaberri, 1998: 52). Gurean adiera hori balu erredundantzia baten aurrean geundeke.

‘ferra-jokoan jarduteko zelaia?’). Damurik ahozko lekukoa baizik ez dago oraingoan eta, gainera, bestek bildutakoa da (*Perrazelai*, 1988, OBIE). Cf. JOKOMUNTO.

TRANPAZUBI[722] (*tranpa* + *zubi*; ‘[animaliak harrapatzeko] tranparen zubia’). Testigantza bakarra dago (*Tranpazubiko erreka*, 1989, UUTB) eta berriemaileak etimoa argitzen duen informazio osagarririk ez du ekartzen.

PRESAZABALi buruz ere labur mintzatuko gara (*presa* + *zabal*; ‘presako zabala’, ‘presa zabala [dagoen tokia]’). Badago idatzizko testigantza (*Presa-zábal*, 1936, *sembradío*, HUA57, 188 or.), baina ahozko tradizioan ezezaguna da.

PUTXUMALDA (*putzu* + *malda*; ‘putzu[ar]en malda’). Oraingo honetan lekukoa ahozkoa da (*Putxumalda* [putxúmaldà], Larr.) eta bustidurak ingurunez landakoa dirudi, nahiz eta adierazkorra ere izan litekeen, putzua txikia balitz.

SAGASTIMUÑO (*sagasti* + *muino*; ‘sagastiaren muinoa’, ‘sagastiko muinoa’). Aldaera bat baino gehiago jaso ditugu, guztiak ahozkoak: *Sagastimene / Sagastimenia* (1989, UUTB); *Sagastimuño* ([ságastimuñò]) / *Saastimenia* ([saástimenià], Ai.). Bukaerako *-mene* forma deklinabideko bokalaren erabilpenarekin (**Sagatimuneko*) eta atzerako asimilazioarekin dagoke lotua (Ikus UNAMUNO).

TANTAIZELAIA[723] (*tantai*[724] + *zelai* + *-a*; ‘gora hazten utzitako zuhaitzen zelaia’). Ahozko testigutza dago, baina ez da guk zuzenean bildua (*Tantaizelaya*, 1989, OM). (Cf. PAGAZELAI).

TELLITURRI[725] (*teila* + *iturri*; ‘[edateko] teila dagoen iturria’). Idatzizko eta ahozko erakusgarriak daude (*Telleturri*, 1951, *herbal*, *argomal*, UUA18; *Tellitturri* [tellittúrri], Amu.) eta ohar bedi *-a* + *i-* > *-i-* bat-egitea gertatu dela (Cf. KATILLUITURRI). Iturri

[722] Cf. Luzaideko *Trampaco alorra* (1914) (*NTEM-XXXV*, 215) edota Arizkungo (Baztango) *Tranpako zelaia* (*NTEM-LIII*, 143).

[723] Cf. Mitxelenak (FHV, 108) aipatzen duen Leintz-Gatzagako *Tantaydui* (1548).

[724] Ikus Perurenak (2007: 106-107) *tantai* hitzari buruz egindako iruzkina.

[725] Cf. Oiartzungo *Tellako iturria*; Goikoetxea & Lekuona (2007: 291).

mugakizuna duen beste hidrotoponimoa TXANPAIÑITURRI da (*xanpain* + *iturri*; ‘xanpaina dirudien ura ematen duen iturria’). Metonimiaren adibide horren lekukotasuna ahozkoa da (*Txanpain itturri*, 1989, HUTB).

URMENDI (*hurritz* + *mendi* / *hur* + *mendi*; ‘hurritzen mendia’? / ‘hurren mendia’?). Oikonimo honen idatzizko lekukotasunak berriak dira (*Urmendi*, 1924, *Caserío y pertenecidos*, HUA57, 21 or.; *Urmendi* [úrmendì], K.) eta, ez da harritzeko, hortaz, **Urrimendi* / **Urramendi* bezalako formen testigantzarik ez egotea[726]. Hain zuzen, sinkopa gertatu izatearen aukera ezin da erabat baztertu, gure aburuz. Itxura batean berdina izan arren, URZULOren lehen osagaiak eta URMENDIrenak zerikusia dutenik ez dugu uste (*ur* + *zulo*; ‘uraren zuloa’, ‘ura ateratzen den zuloa’). Bi iturrietako testigantzak ditu, eta dardakari ondoko txistukaria frikaria da beti (*Ursulo*, 1951, *argomal*, UUA18; *Urzulu*, 1959, *monte alto*, UUA10H; *Urzulo* [úrzulò], Mari. 2). Cf. ONDARTZULO.

Aurrekoez gainera, etorki ezezaguna duten izen espezifiko elkartu zenbait daude gure esparruan, segur aski *izen arrunta (bizigabea)* + *izen geografikoa* osaketa dutenak hauek ere. Buru horretan sar daiteke, esaterako, ABILLATS (*abil-* [*amil*[727]] + *lats*; ‘amildegiko erreka’?). Aurreneko agerraldia 15. gizaldikoa da eta gaztelaniazko egitura du (*Larsa de Avillas*, 1467, HUA5; ikus). Amaiera afrikatua garbi adierazten duen grafemarik ez da azaltzen 18. gizaldia arte (*Abilas*, 1550, HUA14; *Abillas*, 1773, VEK1A; *Abillatz*, 1773, VEK1B; *Abillats*, 1857, HUA48, 44 or.) eta ahozko tradizioan, bestalde, *Abillats* gailentzen da ([ábíllàts], K.), nahiz eta salbuespena den *Abillatx* ([ábíllàtx], Txil.) ere jaso dugun. ABILLATSen lehen osagaia eta AMILIBIArena etorki berekoak direlakoan gaude (*amil* + *ibi* + *a*; ‘amildegiko igarobidea’). Izan ere, idatzizko ibilbide luze samarra duen toponimoa da hura, nahiz eta iharturik egon. Aurreneko lekukotasuna 12. gizaldikoa dateke (*Eualiuia*, 1178, IKA3) eta gainerakoak 17.

[726] Oiartzunen *Urmendi* izeneko parajea dago (*Urrimendi* 1867; *Urramendi* 1818); Goikoetxea & Lekuona (2007: 309).

[727] *Amildegi* eta *amildu* hitzen oinarriaz ari gara (*AV*, 45). Esate baterako, Lopez de Gereñuk (1989: 36) honako toponimoak aipatzen ditu Araban: *Amilburu* baserria (1667) Gantzagan, *Amilletachiqui* saroia Elgean eta *Amillaga* (1715) soroa Erretanan. Gipuzkoan, Ataunen hain justu, *Amilleta* (1404) izeneko saroia biltzen du Arin Dorronsorok (1958: 110); *Amilletako linosiñe* hidrotoponimoa ere ahotan hartzen du (1928: 59).

(*Amilibia*, 1683, HUA28) eta 18. gizaldikoak dira (*Amilivia*, 1773, VEK1A; 1780, *sel menor*, HUA39). Mugatuko kasu markaren idatzizko lehen erakuskarietako bat da Urumeako zilegimendietan. ARAINIBAR[728] da hirugarren etsenplua. Iharturiko toponimo honen lehen aipamenak zaharrak dira (*Arainiuarr*, 1178, IKA3), *Araynybar*, 1401, HUA3),[729]) eta *haran* + *ibar* osaketak errepikatzailea dirudi, baina hori egotea ez da ezinezkoa[730].

Ahozko hiru toponimo hartuko ditugu ahotan orain. BASELIZen (*bas[o]*-?) lekukotasuna ahozkoa da (*Baseliz* [báselìz], Bent.) eta argi dagoena da bertan ez dela elizarik egon. BEIZITURRIren (*-iturri*) erakuskari bakarra bestek bildua da (*Beiz iturri*, 1989, OM) eta bistakoa da bigarren osagaia *-iturri* dela. EAZTELORRI-ri dagokionez, azkenik, (*hegazti?* + *elorri*; 'hegaztien elorria'?; *Eaztelorri*, 1989, OM), bigarren osagaia gardena da, baina lehenbizikoa ez (cf. ENAZTI).

ELTZAMENDI (*-mendi*). Aurreneko aipamena 18. gizaldikoa da eta txistukariaren ondoren bokal irekia dago (*Elzamendi*, 1759, AT, 182 or.). Gauza bera agitzen da 19. gizaldiko agerraldian (*Elzamendia*, 1897, AT, 182 or.), baina 20. gizaldian bokal erdikoa ikusten da lekune horretan, hala idatzizko testigantzetan (*Eltzemendi*, 1945, AT, 182 or.), nola ahozkoetan (*Eltzemendi* [éltzemendì], Mari. 2). Etimoari gagozkiolarik, gure esparruan INTXAURTXIPIETA eta INTXAUSTI toponimoak daude, lehen osagaia *eltzaur* izatea oztopatzen dutenak[731].

EPISKAR (*-bizkar*). *Episcar* (1857, HUA48, 61 or.) eta *Epizcar* (1981, SGE2) dira idatzizko lekukotasunak eta ahozkoak, berriz, *Epixkar* ([épíxkàr], Id.) eta *Ipixkar*

---

728 Irunen *Aranibar* eta *Aranibarzar* oikonimoak (1998, IRM) daude, Arantzan (Bortzirietan) *Aranibar* (1646) dugu (*NTEM-IL*, 33) eta Astigarragan ere bazen *Aranibar* (*Anibar*) baserria (Barrengoa, 1988, II: 91). Hala berean, *Haranibar* deitura biltzen du Barandiaranek (1962: 65) Saran ("En el L.B. hay un apellido Haranibar que debe ser el antiguo nombre de esta casa.") eta Iglesiasek (2000: 301) *Aranibar* Baionan, 1730. urtean.

729 18. gizaldiko kopian *Aranibar* (HUA3b) jartzen du.

730 Oiartzunen *Araingibel* oikonimoa dago, 15. gizaldirako lekukotzen dena; Goikoetxea & Lekuona (2007: 71).

731 Cf. Sainz Alberok eta Sainz Pezonagak (2002: 127) Iguzkitzan bilduriko *Eltzimendi* (*Elcimendi*, 1780) edota Goizuetako *Elizamendi* (1780, NAO, 311 au.-311 bin.); "Traslado del amojonamiento de los seles sitos en el término general de Anizlarrea, pribatibo de la Real Casa de Roncesvalles, hecho precedente nombramiento de Maestro de Obras y personas versadas en sus montes y noticia de la villa de Goizueta". Errege-Auzitegiak, 156970 (I) zenb.

([ípixkár], Id.). Azkenaren harira, atzerako asimiliazioa gertatu dela ematen du, txistukariaren sabaikaritzeaz gainera.

ETSILLATS (*-lats*?). Berriemaile bakarrak hiru forma darabiltza (*Etsillas* [etsíllàs], *Etsillesko erreka* [etsílleskò érrekà], *Esillasko erreka* [esíllaskò érrekà], Larr. b.). Litekeena da bigarren osagaia *lats* izatea, are gehiago hidrotoponimoa dela aintzat hartuz gero, baina, datu gehiagoren faltan, hipotesi hutsean gelditu beharko.

ETZUBI (*-ibi*). Idatzizko erakuskariak bakanak dira eta aurrenekoa zein azkenekoa fidagarritasun gutxiko idazkietan aurkitu ditugu: *Etzuria* (1833-1835, *paraje* , DUA3), *Etzubi ó Ostazurieta* (1868, *montazgo*, DJE), *Ezurrico-Eguia* (1960, GS). Ahozko tradizioan aski oronimo ezaguna da eta berriemaileek aldi oro dardarkaririk gabe ahoskatzen dute (*Etzui* [étzuí], Amu.; *Etzubi* [étzubì], Bezk.; *Itzuli* [ítzulì], Sants.; *Etxui* [étxuì], Txim.; *Etzubiko bizkarra* [étzubikò bízkarrá], Mari. 2; *Etzubiko tontorra* [etzúbikò tóntorrá], Amu.; / *Etxuiko tontorra* [étxwikò tóntorrà], Txim.). Etimoaren aldetik, uste dugu bigarren osagaia *ibi* izan litekeela, jakina baita hurrengo silaban *i* dagoenean, sarritan, ezpainkari aurreko bokala *u* bihurtzen dela (cf. *FHV*, 76) eta, esate baterako, *Arantzibia* oikonimoak *Arantzubi* eman duela Urnietan bertan[732]. Beste hipotesia osaketa **Etz-obi* izatea da. Ildo horretan, dakigula, zubirik ez da egon mintzagai dugun lekuan. Aurreneko osagaia ETZELA oronimoan azaltzen den bera dateke, hemen ere esanahi ilunekoa.

OKELAR[733] (*okela*? + *larre*?, *lar*?). Bi testigutza daude, bata idatzizkoa (*Oquelar*, 1739, VEK2) eta bestea ahozkoa (*Okelar* [ókelàr], Amu.). Etimoa *okela* + *larre* balitz, metonimia kasu baten aurrean geundeke; alabaina, *lar* ere izan liteke (‘laharra’).

OSTAKUTZ (*osta-* [*hosto*[734]]). Lekukotasun guztiak ahozkoak dira, eta hirutariko formak daude: *Ostakutse* ([óstakutsè], Altz. eta Lor. b.), *Ostakutz* ([ostákutz], Ezk. b. /

---

[732] Cf. Tolosako *Berasibi* (11.) oikonimoa, 20. gizaldian *Berazubi* aldaera duena; Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio (2006: 8).

[733] Pasai Donibaneko mendi batek *Okalar* izena du. Elortegik (1992: 147), Irigoieni jarraikiz, iturburua keltiar jatorria lukeen *Oka* izan litekeela deritzo.

[734] Izan ere, horixe egiten zen ondazilegietan, orbela eta iratzea bildu.

[óstakùtz], Lor. b.), *Ostakus* ([ostákus], Lor. b.). Ohar bedi berriemaile berak aldaera ezberdinak darabiltzala, batzuetan *e* loturazkoarekin eta besteetan gabe. Bigarren osagaiaren nondik norakoa ezezaguna da, baina litekeena da gure esparruko ARTIKUTZ toponimoarekin egotea lotua.

OTRAITZ (-*haitz*?). Idatzizko lekukotasunak ez du laguntzen etimoa argitzen (*Otram*, 1554, *otero de*, EUA2, 122 or.), baina, ahozko testigantza ikusirik, bigarren osagaia *haitz* edo *haritz* dela pentsa liteke (*Otraitz* [otrái̯tz], Id.).

TXIMINTXOKO (*tximin*[*i*]?, *zumitz*? + *zoko*). Ahozko toponimo hau bestek bildutakoa da (*Tximintxoko*, 1989, OM) eta litekeena da aurreneko osagaia *tximini* izatea, baina *zumitz* edo *Txomin* pertsona-izena izatea ere bai, atzerako asimilazioa dela medio.

USOKO (*ur*? + *zoko*?). Aurreneko agerraldiak 18. gizaldikoak dira eta bi aletan -*rs*- kontsonante-multzoa irakurtzen da (*Ursuco*, *Ursoco*, 1780, HUA39) eta beste bitan -*s*- (*Usoco*, 1769, HUA37; *Usoco*, 1773, VEK1). 1780ko aipamen batean *Ursu*- dago hasieran (Cf. *Ursua* deitura) eta azpimarratzekoa iruditzen zaigu, bestalde, 20. mendean *Ursoco* aldaera aurkitzea (*Usoco*, 1847, JII, 34 or.; *Ursoco*, 1920, HUA57, 279 or.; *Usoco*, 1920, HUA57, 886 or.), are gehiago ahozko tradizoan *Usoko* ([úsokò], K. eta Txab. 1) zein *Uxoko* ([úxokò], Txab. 1) erabiltzen direnean. Mitxelenaren (*AV*, 592) oinatzetan uste dugu lehen osagaia *ur* hidronimoa izan litekeela, hau da, *-*rz*- > -*rs*- > -*s*- bilakaera agitu dela (cf. *FHV*, 362), besteak beste badirelako gurean -*rs*- > -*s*- murriztapenaren etsenplu gehiago[735]. Hortaz, iturburua **Urzoko* izan liteke (‘uraren zokoa’) eta ildo horretan diogun *Uzoko* oikonimoa (*Urzoco*, 1830) biltzen dutela Oiartzunen Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 313).

USONZULO (-*zulo*). Honi buruz labur arituko gara: lekukotasun bakarra dago (*Usonzulo* [úsonzulò], Mari. 2) eta sudurkari ondoan txistukari frikaria egotea da aipagarriena (Cf. BUZTINTZULO).

[735] Cf. *Macurssola* (1178) > *Makutsulo* ([makútsulò]).

Gutxi dira, baina, izan, lehen osagai moduan izen ez konkretuak dituztenak badira toponimo elkartuen artean. BIXTARRI da horietako bat (*bista* + *harri*; '[azienda zaintzeko] bista ona dagoen harria') eta lau dira gure esparruan izen hori duten tokiak, bat Urnietan[736], beste bi Hernanin eta azkenekoa Donostian. Berriemaileek forma bera darabilte lauretan (*Bixtarri* [bíxtarrí], Amu.; [bíxtarrì], Etxol.; [bíxtarrì], Txim.); [bíxtarrì], Larra.). Cf. AITONAREN BEGIRALEKUA eta EUGENIOREN BEGIRATOKIA.

BURRUNDALAITZ (*burrunda* [*burrunba*] + *haitz*; 'burrunba egiten duen haitza'?). Dagoen testigantza 18. gizaldiaren amaierakoa da (*Burrundalaiz*, 1794-1831, UGR3, 19 au.) eta, hortaz, etimoa argi dezakeen kontakizunik ezin izan dugu jaso, alegia, burrunda egiten zuen haitzen bat zegoela edo.

OKERTZULO (*oker* + *zulo*; 'okerraren zuloa'?, '*Okerra* ezizena zuen norbaiten zuloa'?, 'zulo okerra'?). Ahozko aipamena dago (*Okertzulo* [okértzuló], Mari. 2) eta lehen osagaia izen ez konkretua ('pekatua') edota norbaiten ezizena izan liteke, baina egitura *izenondoa* + *izena* izatearen aukera ere ezin da baztertu, gurean POLIPASO edota GAIXTOERREKA toponimoak badirelako.

ZORBIDESOROA (zorbide + soro + -a; 'zorbidea igarotzen den soroa', 'herribidea dagoen soroa'). Iharturik dago baina gardena da (*Zorbidesoroa*, 1797-1833, HGR2, 58 au.). Bistakoa da ez dela *-o* + *-a* > *-ua* inflexioa gertatu.

Etxe- eta auzo-izenen sailean, argi dezagun lehenik eta behin AUZOKALTE toponimoaren *Ansocalte* (1898, EGZ) eta *Ansokalte* (1911, IM) aipamenak erratuak direla. Izan ere, ahozko tradizioan *Auzokalte* ([áu̯zokaltè], K.) esaten da. Iturri beretik *Sasietxe* (1989, HUTB) ere jaso dugu. Aintzat har bedi sail honetakoak ezizenak direla[737]: AUZOKALTE / BENTATXURI eta SASIETXE / ERREKALDE.

---

736 "Peña en la ladera septentrional de IRUMUGARRIETA. Se dice que esta peña era utilizada por los pastores como lugar de observación."; *UUTB*, 73 or.

737 Iraingarriak dirudite: 'auzoaren kalterako den jendea dagoen etxea', 'sasikumeak bizi diren etxea'.

Izenondoa + *izena* (*mugatzailea* + *mugakizuna*) egitura duten bost toponimo daude, azkenik: GAIXTOERREKA, GALDUERREKA, LASAIETXE, OTZITURRI eta POLIPASO. Aurrenekoak ERREGAIXTO jatorrizkoaren itxuratxartzea irudi du (*Gaisto-erreka*, 1983, GFA2; *Gaixto erreka*, 1989, UUTB) eta hedadura gutxi du, gainera. Ihartutako *Galduerreca* (1739, HUA36) GALDOSERREKA toponimoaren sailekoa izan liteke eta LASAIETXE oikonimoak (*Lasaietxe*, [lásaịetxè], K.) eziena ematen du. *Otzitturri* ([otzítturrì], Goi.) toponimoaren aurreneko zatia, izenondoa izan beharrean, izena izatea ez litzateke harritzeko, are gehiago gurean POLIPASO baserri izena dagoela ikusirik (*Poli-baso*, 1843, HUA44; *Polipaso*, 1857, HUA48, 47 or.).

8.2.2. *Mugakizuna + mugatzailea* egitura duten izen elkartuak

Jarraian aztertuko ditugun termino gehienak bereizleei eskainitako kapituluan ikusi ditugu dagoeneko, baina, hemen, han ez bezala, ez dira espezifikoei forma berriak sortze aldera erantsitako elementuak, izen espezifikoen berezko osagaiak baizik, toponimoak izan daitezen ezinbestekoak direnak. Izen espezifikoei erantsita doazenean postposizioak edo bereizleak deitzea egokia da[738], baina, gure iritziz, izen espezifikoen oinarrizko osagaiak direnean termino horiek ez dira hain zuzenak.

Alde, *ondo* eta antzeko izenak bigarren osagaitzat dituzten toponimoen elementuen arteko harremana ez da *mugatzailea* + *mugakizuna* egitura dutenen artean dagoena bezalakoa. Lehenik eta behin, aurreneko zatiak ez duelako bigarrena mugatzen eta, bigarrenik, ez direlako maila bereko edo pareko osagaiak, bakoitza, bere aldetik, toki bat identifikatzeko gai liratekeenak (***erreka***); duen funtzioa bete ahal izateko bigarrenak aurrenekoa behar du ezinbestean (***erreka*** + *alde*). Horrenbestez, oinarria den izen geografikoaren eta ondoan dagoen elementuaren arteko lotura ez da, adibidez, ERREKA**MUNTTO** toponimoaren osagaiena bezalakoa (***erreka*** + ***munto***). Izan ere, halakoetan, bigarrenak osatzen du lehenengoa (***erreka****ren ingurua*, ***erreka****tik gertu*), ez alderantziz, eta bigarren zatia ez da zenbakarria izaten, zenbakaitza eta neurtezina baizik.

Espero izatekoa zenez, *alde*, *ondo* eta kidekoak bigarren tokian baizik ez dira azaltzen. Nolabait esan, toponimoak erreferente bakarra du (***erreka***) eta ez bi, ERREKAMUNTTOren kasuan bezala[739] (***erreka*** + ***munto***). Hala berean, *alde*, *ondo* eta antzeko osagaiak bigarren tokian dituzten izen espezifiko elkartuek atzizkirik ez dute hartzen, eta hori da beste berezitasuna: *Ondarriturri* edota *Arrilimuri* bezalako espezifikoek, esaterako, *-eta* atzizkia hartu eta ONDARRITURRIETA nahiz ARRILIMURIETA eratorriak eman dituzte, baina *ERREKALDEETA edota *MUNTTONDOAGA izeneko tokirik ez dago gure esparruan.

---

[738] Salaberrik (1994: 81-94) postposizio hauen balioa ongi asko finkatzen du bere tesian.

[739] Whynne-Hammondek (1992: 47) norabide-izenak ("izen direkzionalak") deitzen die horien antzekoei.

Hori argiturik, *izen arrunta* + *izen arrunta* egitura duten toponimoekin emango diogu hasiera azpiatal honi, hain zuzen lehenbiziko tokian *izen arrunt konkretua*[740] eta bigarrenean *izen arrunt ez konkretua* dutenekin. Esate baterako, *alde* duten izen espezifiko bat baino gehiago daude gurean: BORDALDE, ERREKALDE (3), ITURRALDE (2), LEGARRALDE, ZIARRALDE. *Legarralde* da idatziko iturrietan lehenbizi aurkitu duguna, 12. gizaldian aurkitu ere (1178, IKA3) eta Hernaniko *Iturralde* (1898, EGZ), *Naparralde* (1911, IM), Errenteriako *Yturralde* (1864, HUA47) zein Urnietako *Recalde* (1945, UUA15) dira gainerako estreinako aipamenak. Berriemaileengandik, berriz, *Bordaldeko kaskua* ([bórdaldekò káskuà]) / *Bordaldeko malkarra* ([bórdaldekò málkarrà], Larr.), *Errekalde* ([érrekaldè], K.), *Itturralde* ([ítturraldè], K.), *Learralde* ([leárraldè], K.) eta *Ziarralde* ([zíarraldè]) / *Xiarralde* ([xíarraldè], Aparr.) jaso ditugu. Deigarria da idatzizko eta ahozko tradizioan artikulua duten etsenpluak falta izatea. Guztien etorkia gardena da eta garbi dago mugakizunak *borda*, *erreka*, *iturri*, *legar* eta *zehar* direla.

Ildo beretik, lau dira *(t)arte* osagaia duten izen espezifiko elkartuak[741], ARRITARTE, BELAZARTE, LARRARTE eta OTSARTE. Aurrenekoa ihartuta dago (*Arritarte*, 1547, LMM, 155 or.), baina bigarrena, BELAZARTE alegia, idatziz zein ahoz bildu dugu (*Belazarte*, 1920, *tierra labrante*, HUA57, 633 or.; *Belazarte* [belázartè], K. / [bélazartè], Pag.); LARRARTEren berri informatzaile batek ematen du (*Larrarte* [lárrartè], Ai.). Honenbestez, mugakizunak *harri*, *belar* eta *larre* dira. OTSARTE toponimoari dagokionez, etimoa ezezaguna dela esan beharrean gara, ahozko aipamenak besterik ez daudelako (*[O]tsarte* [ótsarté] / [(o)tsártè], Id.) eta oinarria ‘otso’ animalia izenarekin lotua egotea zaila delako hemen.

Aurre elementua duen toponimo elkartu bat dago, ZUBIAURRE, idatziz eta ahoz bildu duguna (*Zubiaurre*, 1933, HUA57, 155 or.; [zúbiaurrè] K.) eta bistako etorkia duena (*zubi* + *aurre*). Halaber, erabat finkatu gabea dirudien ZELAIAZPIA da *azpi* elementua duen toponimo bakarra (*zelai* + *azpi* + *-a*). 18. gizaldiaren amaierako lekuko

[740] NAPARRALDE salbuespena ere kausitu dugu (*Naparralde* ([náparraldè], K.), hots, mugakizuntzat izen espezifikoa duen etsenplua.

[741] ERREKARTE eta LEIZITARTE ez ditugu fidagarritzat jotzen.

bat dago (*Zelai-azpia*, 1794-1831, UGR3, 8 au.), ikusten den bezala, mugatuan deklinatua.

AÑARBE, OSIÑAPEA(2), OZISPE eta ZULABE dira *-be* / *-pe* (*behe*) terminoa duten izen espezifiko elkartuak gurean. Idatziz lehenbizi aurkitu duguna *Ozispe* da, 16. gizaldian aurkitu ere (1574, *lurtsaila*, LMM, 182 or.) eta azkena azaltzen dena, berriz, *Osiñapea* toponimoa da; horren bi erakuskariek artikulua dute (1920, *manzanal*, HUA57, 581 or.; 1920, *ribera*, HUA57, 581 or.). Atentzioa ematen du bigarren osagaiaren forma *-pe* izatea, lehenengoa bokalez amaitzen delako. OSIÑAPEAren lehenengo bokal irekia mugakizunari erantsitako artikulua izan liteke, arau orokorra, dardarkari eta bokal ondoan *-be* baita, eta txistukari zein sudurkari ostean *-pe*; beste hipotesia iturburua **Osinagapea* izatea da (ikus OSINAGA). AÑARBEri bagagozkio, hasieran diptongoa duen *Aiñarbe* (1625, LMI, 234 or.) dugu 17. gizaldian, baina hortik aurrera *Añarbe*[742] nagusitzen da, hala idatziz (1773, VEK1) nola ahoz ([áñarbè], K., Arg. eta Id.). Ahozko tradizioan, azkenik, *Zulabe* ([zúlabé], Ai.) eta *Ozispe* (1989, OM) formak jaso ditugu. Beraz bada, *ainar*, *zulo* eta, agian, *osin*, dira multzo honetako mugakizunak.

Bitarte bigarren tokian duten hiru toponimo aurkitu ditugu gure esparruan[743] (AIZPITARTE, AÑABITARTE, ARBITARTE) eta hiruren lehenbiziko aipamenak 19. mendekoak dira (*Aizbitarte*, 1826, *zuhaiztia*, LMM, 151 or.; *Añabitarte*, 1882, LMM, 153 or.; *Arbitarte*, 1833-1835, *alto*, DUA3). AIZPITARTE[744] toponimoaren kasua adierazgarria da, txistukariaren ondoren herskari ahoskabea duten formak berandu azaltzen direlako tradizio idatzian[745] (*Aitzbitarte*, 1847, JII, 35 or.; *Aizbitarte*, 1882, LMM, 151 or. eta 1898, EGZ; *Aizpitarte*, 1944, GHO2; *Aizbitarte*, 1942, IGC1; *Aitzbitarte*, 1979, RMH); ahozko tradizioan, ordea, herskari ahoskabea dute jaso ditugun lekukotasun guztiek[746] (*Aizpitarte* [ái̯zpitartè], K.; *Aixpitarte* [ái̯xpitarté] / [ái̯xpítartè], Larra.). AÑABITARTE toponimoaren testigutzak idatzizkoak dira

742 *Añarbe* (1570) mendia biltzen du Amurrion Lopez de Gereñuk (1989: 44).
743 Azken biek toki bera izendatzen dute, antza denez. Ikus OARAIN 8.3.3. atalean.
744 "Intervalle entre deux rochers, deux monts"; Vinson (1909: 335).
745 Cf. AIZKORRI.
746 *Aspiyarte* ([áspiyartè] (Id.) salbuespena ere bildu dugu.

(*Anavitarte*, 1898, EGZ; *Anabitarte*, 1942, IGC1; *Añabitarte*, 1962, UTC; 1981, SGE2) eta ARBITARTE oronimoak, hirugarrenik, bietariko erakuskariak ditu, idatzizkoak eta ahozkoak (*Arbitarte*, 1847, *mendia*, JII, 35 or.; *Arbitarte* [árbitartè], Arg.). Azken horien artean horzkari sabaikoa duen *Arbittarte* ([árbittartè], Aska.) azpimarratu nahi genuke, bakarra delako. *Haitz* eta *harri* (*har*-) mugakizunak gardenak dira, ez, ordea, *Añа*-. Oinarria *ainar* dela pentsa daiteke (*ainar* + -*be*), baina AÑARBE nahiko gertu dagoenez gero, egiazko izenburu nagusia **Añarbebitarte* izatea ez litzateke harritzeko.

Buru azpiatal honetan aztertutako izen naroenen artean dago, hamar izen espezifiko elkartutan azaltzen baita: ARANBURU, ERROLLABURU, ETXABURUA, IBARBURU, LARBURU, OLABURU, PRESABURU, SASPURU, ZABURU eta ZELAIBURU. Itxarotekoa zenez, herskari ahoskabea duen aldaera (-*puru*) txistukari ondoan erabiltzen da eta deigarria da, bestalde, artikulua behin bakarrik azaltzea.

Idazki batean aurrena aurkitu duguna LARBURU da eta, aipamen horren argitan (*Laarburu de yuso*, 1548, *casa*, HUA12), lehenbiziko osagaia *lahar* dateke, eta ez *larre*, nahiz eta hortik aurrera *Larburu* forma aurkitu dugun aldi oro dokumentazioan (1607, *Estevan de*, HUA23; 1855, *caseria*, UEA1; 1951, *caserío*, UUA18). Beste toponimoen estreinako agerraldiak *Aramburu* (1773, VEK1), *Errollaburu* (1853, HUA46, 230 bin.), *Echaburua* (1799, *retazo*, HUA42, 171 bin.) artikuluduna, *Ibarburu* (1863, HRU, 41 au.), *Olaburu* (1864, HUA47) eta *Zabu* (1889, *monte*, HUA56) dira. Ahozko tradizioan *Errollaburu* / *Ellorraburu* / *Illarraburu* / *Illorraburu* (1989, HUTB); *Goiburu* ([gói̯buru], K.), *Larburu* ([lárburù], K.); *Olaburu* ([ólaburù], K.); *Presaburu* ([presáburù], K.); *Zelaiburu* ([zélai̯burù], Larra.) eta *Saspuru* ([sáspurú] / [sáspurù], Id.) jaso ditugu.

Aipatzekoa da ZABURU toponimoaren kasua, berriemaileek *buru*-ren aldaketen paradigmatzat har litekeen forma multzoa baitarabilte: *Zabu* ([zábu] / [zábù], Amu.) *Zabuu* ([zábuua], *adl.s.*, Amu.), *Zau* ([záu], Ek.), *Zaiburu* ([zái̯burù], Ek. eta Mari. 1); salbuespena den *Zagu* ([zágu]) / *Xagu* ([xágu], Ek.) ere jaso dugu. Zoritxarrez, etorki

ezezaguna du[747]. GOIBURU[748] toponimoa (*goi* + *buru*; itxitua, *isidua*[749]) 17. mendean aurkitu dugu aurreneko aldiz idazkietan (*Goyburu*, 1681, *castañal*, LMZ, 163 or.) eta hortik aurrera lekukotasun mordoa dago, batzuek mugatuan deklinaturikoak eta besteak ez (*Goiburua*, 1855, *valle*, UEA1; *Goiburu*, 1863, URU, 151 bin.; *Goiburua*, 1931, *valle*, UUA8; *Goiburu*, 1956, *caserío*, UUA10G). Ahozko tradizioan *Goiburu* ([gói̯buru], K.) baliatzen da, hots, artikulurik gabe. IPARBURUri dagokoinez (ipar + buru; 'iparraldera ematen duen gaina'), 19. mendean azaltzen da (*Yparburu*, 1843, HUA44) eta oraindik bizirik dirau (*Iparburu* [íparburù], K.). IPARGAIN eta IPARRAGIRRE toponimoen ildo berekoa da, hortaz. **Ifar* forma erabili delako zantzurik ez dago gure esparruan (ikus *FHV*, 267).

Ondo ere termino oparoa da izen espeziko elkartuen sailean, hamalau izen espezifikotan baliatzen baita gutxienez: ARIZTONDO, ARRONDO, BELONDO, BURKONDO, ERREKAONDOA, ETXEONDUA, ITURRONDO, MUNTTONDO, PIKALONDOA, PRESAONDO, SAGASTIONDO, SORONDO, URRIOLONDO eta ZELAIONDO. Dokumentazioan aurrena kausitu duguna *Picalondoa* da, 1569. urtean hain zuzen (*parte*, HUA18, 4 bin.) eta tradizio idatzia duten gainerako toponimoen lehen lekukotasunak *Ariztondo* (1860-1862, UTR10, 53 au.), *Arrondo* (1683, HUA28), *Belondo* (1831-1845, UGR4, 23 au.), *Sagastiondo* (1628, *mojón*, DUA1), *Sorondo* (1932, *Regata llamada*, HUA57, 417 or.), *Urriolondo* (1615, AT, 165 or.) eta *Celaiondo* (1739, HUA36) artikulugabeak zein *Erreca ondoa* (1794-1831, UGR3, 9 au.) artikuluduna dira. Ahoz *Arrondo* ([árrondò], Etxol.), *Belondo* ([bélondó] / [bélondò], Ai. eta Bent.), *Burkondo* ([búrkondò], Id.), *Itturrondo* ([ítturrondó], Goi.), *Munttondo* ([múnttondò], Asta.) eta *Urbillondo* ([úrbillondò], Amu.) jaso ditugu.

BELONDO toponimoaren kasua berezia da, *Belaondo* formak lekuko bat baino gehiago dituelako 20. mendean (1944, *helechal*, UUA13; 1951, *maizal*, UUA18; 1951, *herbal*, UUA18; 1951, *erial*, UUA18), aipamen gehienetan *Belondo* agertuagatik (1831-

747 *Yzai buru guibela* (1693) eta *Ycaiburu ondoa* (1601) biltzen ditu Jimeno Juriok (1992: 123) Ballariainen (Antsoainen). Bestetik, *Zaldiburu* toponimoa dago Eulaten (Ameskoabarrenen); *NTEM-XXII*, 183.

748 *Goiburu* Urnietako udal barrutia osatzen duten lau auzoetatik garaiena da.

749 Hona, hitzez hitz, Aierbek (1995: 120 eta hurrengoak) biltzen duena: "... terminos e exidos comunes llamados goyburus del dicho balle de Legazpia eran e son [...]".

1845, UGR4, 23 au.; 1925, *herbal*, UUA3; 1925, *arbolado*, UUA3; 1951, *helechal*, UUA18). Diogun, bestalde, berandu arte bizirik iraun duen URRIOLONDO ongi dokumentatuta dagoela eta, hain zuzen, *Urriolondo* (1615, 1763 eta 1857-64) dela ziurrenik iturburua, eta hortik *Urbillondo* (1848, 1960 eta 1983) eta *Urrillondo* (1818, 1897 eta 1937) irten direla. *-E > -a* irekitzea erakusten duen *Echaondo-garay* (1768-1797, HGR1, 30 au.) forma ere azpimarratu nahi dugu *Echeondua* (1920, *tierra*, HUA57, 633 or.) baino zaharragoa delako. *Piku-* izenarekin zerikusia dukeen *Picalondoa* (1569, *parte*, HUA18, 4 bin.) ere aipatzekoa da, **Pik(a)ondoa* espero zen tokian, elkargunean kontsonante albokaria duen forma dugulako. Zernahi gisaz, *piku-*rekin ez ezik, *pika* izenarekin egon daiteke lotua[750] (‘malda handiko aldapa’).

Bigarren tokian *izen ez konkretua* duten espezifiko elkartuen lehen agerraldien diagrama

21.				
1989				
1950	aurre			
1900				
1850				
	bitarte			
18.-19.				
1700	azpi			
1600	*-be*			
1500	ondo	buru	*-pe*	(t)arte
1200				
	alde			

[750] Ikus *AV*, 523; Salaberri (1994: 862 eta 1997b: 9).

Lehen tokian *izen arrunt konkretua* eta ondoren *izenondoa* dutenek sail garrantzitsua osatzen dute *mugakizuna* + *mugatzailea* egitura duten izen espezifiko elkartuen arloan. Kromotoponimoak ez direnei lotuko gatzaizkie lehenik, eta *agerri* izenondoa duen OLASAGARRE da dakargun lehen estenplua (**olatza*[751]? + *agerri*; 'ageriko ola [dagoen tokia']). Aztarna bakarra aurkitu dugu (*Olasagarre*, 1855-1857, UTR8, 46 au.) eta irudi du dardarkari aurreko bokala ireki egin dela.

LURRATXURTU[752] oronimoaren kasua apartekoa da, bigarren osagaiaren iturburua partizipioa delako. Ahozko aipamena badago (*Lurratxurtu* [lúrratxúrtù], Pard. g. 2) eta 'luberria' adiera duke.

Espero izatekoa zenez, *berri* izenondoa osagaitzat duten toponimo bat baino gehiago daude gurean, sei hain justu[753]: BENTABERRI, BORDABERRI, ETXOLABERRI, LANGABERRI, OLABERRI eta SAGASTIBERRI. Idatzizko iturrietan lehenbizi azaltzen dena *Olaberria* da (1797, *casa*, HUA41), eta *Venta berri* (1951, *helechal*, UUA18), *Echola berri* (1855-1857, HTR8, 22 au.) zein *Langa-berri* (1942, IGC1) dira aurreneko beste agerraldiak. *Bordaberri* eta *Sagastiberri* formek ahozko erakuskariak baizik ez dituzte.

Biribil elementua duten izen elkartuen alorrera etorriz, LARREBIRIBIL toponimoaren estreinako aztarnak 18. mendearen amaierakoak dira eta, forma osoaren ondoan, azken bi silabak galdu dituen aldaera azaltzen da orduko[754] (*Larribiribil*, 1794-1831, UGR3, 17 au. / *Larrabil*, 1794-1831, UGR3, 9 au.). 19. mendean *Larrevirivil* (1831-1845, UGR4, 26 au.) eta amaieran *-ll* digrama duen *Larrebiribill* (1852, UINGR2, 2414 zenb.) kausitu ditugu, eta 20. mendean *Larrabil* (1925, LMZ, 164 or.), *Larrebil* (1940, *monte alto*, UUA10B). Ahozko tradizioan aldaera sinkopatuak eman dizkigute beti informatzaileek (*Larrabil* [lárrabìl], K., Amu., Pard. g. 2) eta batzuetan bokal arteko

751 Ikus *AV*, 485.

752 Lopez De Gereñuk (1989: 22) *Achurtu* toponimoa biltzen du Garaion eta Marietan 1768. urtean. Cf. Hiriberri Aezkoako *Lurlarrutua*, *NTEM-XXXIV*, 188.

753 Aurrenekoak bi oinordeko ditu (Urnietan [1] eta Aranon [1]), eta bigarrenak, berriz, sei (Hernanin [3], Aranon [2] eta Urnietan [1]).

754 Zizur Nagusian *Larre biribilla* toponimoa azaltzen da 1578. urtean; Jimeno Jurio (1986b: 199). Cf. Elgetako *Larrabil* (San Martin, 2000: 123), edota Trebiñuko *Landabiribila* (González de Viñaspre & Uribarrena, 2005b: 372).

bigarren ezpainbikoa (*Larrail* [lárrà̰l], K.) zein amaierako albokaria gal daiteke (*Larrabi* [lárrabì], Mik.) barne[755].

Bigarren elementutzat *biribil* duen beste toponimoa MUÑABIRIBIL da (*Muñavirivil*, 1797-1833, HGR2, 62 au.) eta badaiteke MIKELABIL oikonimoan ere egotea, frogatzen duen idatzizko aipamenik aurkitu ez arren (*Miquelabil*, 1857, HUA48, 72 or.; 1925, LMZ, 164 or.; 1945, UUA15; 1951, UUA18). Ahozko tradizioan amaieran albokaria ez duen aldaera nagusitzen da (*Mikelabi* [míkelabì], K. eta Pard. g. 1; *Mikalai* [míkalà̰n], Ai., *in.*), *Mikelai* ([míkelà̰n], Po., *in.*), baina *Mikelabil* (1989, UUTB) ere jasota dago. *Mikela-* mugakizuna *Mikele* / *Mikela* pertsona izenarekin lotua dagoke. Hor dugu, hala berean, ATXUTIL oronimoa (*Atxutill*, 1989, UUTB; *Atxutil* [átxutìl], Mari. 2) eta amaierako *-il* / *-ill* segida da, hain zuzen, bigarren osagaia *biribil* datekeela uste izateko arrazoia. Mugakizuna *haitz* izan liteke, baina gure esparruan ez da sabaikaritzen arrunki.

Lau dira *eder* izenondoa duten izen espezifiko elkartuak (EGIEDER[756], IZENEDER, ITURRIEDER eta OIANEDER[757]); idatzizko aurreneko lekukotasunak 15. mendean aurkitu ditugu (*Oyaneder*, 1467, *Iñigo de*, HUA5; *Yçaederra* / *Ynçaederra* / *Ycanederra*, 1467, HUA5). IZENEDER saroi-izenaren harira, esan dezagun *Yçenedér* (1595, HUA10), *Izeneder* (1736, HUA30, 496 bin.), *YzenEderra* (1773, *sel maior de*, VEK1A), *Yceneder* (1843, HUA44) eta *Iceneder* (1911, IM) erakuskariak daudela tradizio idatzian, *Inza-* — *Izan-* metatesia burutu dela iradokitzen dutenak. Horrez gainera, asimilazioaren ondorio dirudien *-an-* + *-e-* > *-ene-* asimilazioaren lekuko lirateke, *Oyeneder* (1920, HUA57, 196 or.) aldaera bezalaxe. Ahozko tradizioan horzkaria duten *Egieder* (1989, OM), *Itturrieder* ([ítturiéder], Amu.), *Izeneder* ([izénedèr], K.) eta *Oyaneder* (1989, HUTB) formen ondoan, bokal arteko kontsonantea galdu duten *Itturrieer* ([ítturieèr], Amu. eta Mari. 2) zein *Izener* ([izénèr], Txab. 1) jaso dizkiegu berriemaileei. Etimologiaren aldetik toponimo gardenak dira gehienak eta mugakizun ezagunak dituzte (*hegi*, *iturri* eta *oihan*).

---

755 Cf. Gaintzako (Araitzeko) *Larrail* (Elosegi, 1972: 205).

756 Errenterian eta Hernanin ageri da.

757 Arrasaten *Oianeder* baserria dago; Ormaetxea (1996: 431).

Besterik da IZENEDER toponimoaren kasua, lehen osagaiaren jatorria ez delako agerikoa. Izan ere, *Inza-* > *Izan-* aldaketa gertatu den ala 1467. urteko *Ynçaederra* eta *Yçaederra* erratuak diren ez dago garbi. Ildo horretan, Oiartzunen *Intzensoro* oikonimoa dago (Goikoetxea & Lekuona, 2007: 161) eta *Izain* izeneko tokiak daude Aratzurin (Oltza zendean), Artikan (Antsoain zendean) eta Beasoainen (Jimeno Jurio, 1986: 267). Hala berean, Otsagin (Zaraitzun) *Izanerrieta* (1668) eta *Izanerria* / *Izañerria* (1898) toki-izenak daude eta Hiriberrin (Aezkoan) *Inzensariogaina* aurkintza (*NTEM-XXX*, 307 eta *NTEM-XXXIV*, 184; cf. Trebiñuko *Izalarratia*, González de Viñaspre & Uribarrena, 2005b: 368-369).

Bada *eder* izenondoa duen beste toponimo bat, GOIENEDERRA hain justu (*goien* + *eder* + *-a*; 'ederra den mendi-gaina'). Behin azaltzen da (*Goyenederra*, 1932, *terreno sembradío*, HUA57, 55 or.) eta *goi-* izenaren superlatiboa eta *eder* izenondoa dirateke osagaiak, baina hain informazio gutxirekin ustean gelditu beharko. Cf. GOIENETXE eta OIANEDER.

ITURPIÑA dateke *fin* izenonodoa duen kasu bakarra ('emari gutxiko iturria', 'ur ona ematen duen iturria'). Lekukotasun guztiek herskari ahoskabea dute kontsonante ezpain-horzkariaren ordez (*-f-* > *-p-*) eta kasu batean azken bokala (artikulua) ez da erori (*Itturpiñ*, 1989, HUTB; *Itturpin* [ittúrripìn], Etxol.), *Itturripiña* ([ittúrripíñà], Txab. 1).

Bestalde, *gaizto* izenondoa duten bi izen espezifiko daude, ERREKAGAIXTO[758] ('toki txarretik igarotzen den erreka', 'erreka arriskugarria') eta BURKAILGAIXTO ('amildegi arriskutsua). Idatzizko aipamenak, holakorik badenean, berriak dira (*Erreka Gaisto*, *Erreka-Gaisto*, 1983, IGN2). Txistukaria busti egiten dute berriemaileek, salbuespena den *Errekagaisto* ([érrekagaɻstò], Mari. 1) alde batera utziz gero; ez da harritzeko, jakina baita gurean hori gertatzen dela arrunki herskari aurrean (cf., *FHV*, 192). Bokalei dagokienez, diptongoari eutsi dioten formak (*Errekagaixto* [érrekagaɻxtò], Txim.; *Errekagaixto* [érrekagaɻxtò], Pard. g. 1 eta Txim. / [érrekagáɻxtò], Pard. g. 2) eta ez diotenak daude (*Errekagaxto* [errekagaxtò] / [érrekagaxtó] / [érrekagaxtò] /

[758] Hiru tokitan aurkitu dugu; bi Urnietan daude eta hirugarrena Hernanin. GAIXTOERREKA aldaera ere ezaguna da gurean.

[érrekagáxto], Amu.). BURKAILGAXTO ([búrkaḭlgaxtò], Arg.) oronimoari begiratuz gero, gure esparruan *burkaitz* terminoa erabili dela erakusten du[759] eta ematen du lehen osagaiaren amaierako aldaketa (**Burkaitz-* > *Burkail-*) ondoko herskari belarraren eraginez gertatu dela. Berriemaileari *burkail* terminoak zer esan nahi zuen galdetzean, BURKAILGAIXTO izeneko tokian "*erroitz aundiya*" [erróḭtz áu̯ndiyà] zegoela erantzun zigun[760].

LARRAKAITZ eta SAROEKAITZ dira gurean *-kaitz* osagaia duketen bi toponimoak. Idatzizko aurreneko lekukotasuna 15. gizaldikoa da (*Saroecayz*, 1467, *sel*, HUA5) da, zoritxarrez, toponimo horren ibilbidea orduan bertan amaitzen bada ere. Haatik, *Larracaiz* (1780, *montes francos*, HUA39) idatzizkoarekin batera *Larrakaitz* ([lárrakàḭtz], Txab. 1), *Larrekaizko erreka* (1989, HUTB) eta *Larrekaitz erreka* [lárrekàḭtz érrekà] (Txim.) daude bilduta ahozko tradiziotik[761]. LARRAKAITZen mugakizuna *larre* izenaren elkarketarako *larra-* aldaera dela dirudi eta SAROEKAITZi dagokionez ez da ezinezkoa, aurrenekoan bezala, *-kaitz* (*-gaitz*) izan beharrean, mugatzailea *(b)akoitz* izatea[762], are gehiago saroia dela jakinik ('saroi bakuna'). Guztiaz ere, bi hauetan *-kaitz* izenondoak hanpatzaile baten antzekoa ematen du[763].

SARGAZTE toponimoan *gazte* izenondoa dagoela irudi du, baina ez da jakite ziurra, idatzizko lekukotasunik ez dagoelako (*Sargaste* [sárgastè], K.) / *Sargaze* ([sárgazè], Lor. b.).

---

[759] *Burkail* bizkarra dago Lezon (1999, LZM) eta Oiartzunen *Atsoaren burkaitza* parajea (Goikoetxea & Lekuona, 2007: 93). Era berean, Irunen *Burkalleku* tontorra (1998, IRM) dugu eta Lizartzan *Burko* (1999, LIM) zein *Murkaitzondo* (1999, LIM) aurkintzak. Nafarroari bagagozkio, *Burkaitz zelai* (1989, BM) dago Beran eta *Burkaitza* azaltzen da Malerrekako Elgorriagan, Donezteben, Iturenen eta Zubietan; Iñigo (1996: 176).

[760] Cf. Artikutzako *Erroitza* (*Erroiza*, 1816; Erriondo, 1988: 123).

[761] *Larrekaitz* izeneko lekuak daude, esaterako, Luzaiden (*Larrékaitze*) (*NTEM-XXXV*, 197) eta Beartzunen (*NTEM-LII1*, 181). Baztangoa *Larracayz* formaz idatzia ageri da 1703. urtean. Iturengo (Malerrekako) *Larrakaitz* (1656) dela eta, Iñigok (1996: 283) dio *-kaitz* bokal ondoan ere ager litekeela, normalki txistukari edo sabaikari ondoan azalduagatik.

[762] Mitxelenak (*FHV*, 226) deritzonez, bokal arteko kontsonante ahostunak (antzinatik) frikari moduan ahoskatzeak euren desagerpena ekarri zuen eta horren lekuko dira toki-izen elkartuetan ikusten diren erorketa-adibideak, 12. gizaldiko *Soracoiz* nafarra kasu (< soro- + *-bak(h)oitz*)

[763] Mitxelena (*FHV*, 563) eta Salaberri (2005: 116). Cf. EZTEIZAKAITZ (vs. EZTEIZATXIKI).

Gozo izenondoa hirutan ageri da gurean, betiere hidrotoponimo beraren barnean: ITURGOXO[764], ITURRIGOXO eta ITURRIGOZO (‘ur ona ematen duen iturria’). Idatzizko aipamen bakarra 18. mendearen amaierakoa da eta txistukaria sabaikaritu gabe dago (*Iturrigozo*, 1794-1831, *casa* , UGR3, 15 au.); berriemaileek busti egiten dute, horratik (*Itturgoxo* [ittúrgoxò], Eg. 2; *Itturrigoxo* [ítturrigoxó], Mari. 2).

ARANGUREN[765] (‘haran ona’, ‘haran ederra’). *Aranguren* (1794-1831, UGR3, 7 au.) da bildu dugun testigantza bakarra eta Irigoienenek (1986: 80) zein Salaberrik (1994: 422) deritzote antroponimian eta toponimian *guren* izenondoak ‘ona’, ‘ederra’, ‘emankorra’ esan nahi duela, Mitxelenak (*AV*, 295), kasu honetan, *guren* terminoak *muga* adiera duela adierazi arren.

Izen elkartuen sailean *-aundi* zortzi toponimotan kausitu dugu, EGIAUNDI, ERREKAUNDI, ITURRIANDI, OSIÑAUNDI, PAGADIAUNDI, PAGOAUNDI[766], SAGASTIAUNDI eta ZABALAUNDI etsenpluetan hain zuzen. Idatzizko lekukotasunak 18. mendean hasten dira eta, itxarotekoa zenez[767], hiru erakuskarietan ez dago diptongorik (*Eguiandia*, 1797, *loma*, HUA41; *Errecandia*[768], 1773, VEK1; *Yturriandi* (1702, *paraje*, HUA29). Izan ere, azalpen etimologikorik ez duen [au̯] diptongoa 19. gizaldian azaltzen da gure esparruan (*Osiñaundi*, 1848, AT, 229 or.) eta ahozko tradizioan erabat nagusitzen da (*Egiaundi* ([égiáu̯ndi], Amu. / [égiau̯ndìn], Amu., *in*. eta Txim.; *Errekaundi*, 1989, HUTB; *Osiñaundi* [osináu̯ndi], Amu. / [ósiñau̯ndí], Amu. / [osíñau̯ndí], An. 1; *Pagadiaundi* [págadiáu̯ndì], Lor. b.; *Sagastiaundi* [ságastiáu̯ndì], Okend.; *Zabalaundi*, 1988, OBIE). Ohar bedi mugatuan deklinaturiko ahozko formarik ez dagoela.

---

764 Cf. Tolosako *Iturgoxo*; Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio (2006: 101).

765 Elgorriagan (Malerrekan) *Auzaguren* aurkintza dago, erreka ondoan egon ere. 18. mendeaz geroztik *Azaun* formaz dokumentatzen da behin baino gehiagotan eta, hain zuzen, horixe da egun ahoz gailentzen den aldaera. Iñigoren iritziz (1996: 170), bigarren osagaia *-guren* izenondoarekin dagoke lotua, baina, hala berean, badaiteke *-goien* superlatiboarekin izatea zerikusia.

766 Bi oinordeko ditu, bata Berastegin (*Pagoaundi* [págoau̯ndì], Ezk. b.) eta bestea Urnietan, (*Pagoaundi* [págoau̯ndì] / *Paoaundi* [páoau̯ndì], Amu.). Gure esparruan bada AITZOLAKO PAGO HAUNDIA toponimoa ere.

767 Ikus *FHV*, 96, 488.

768 Atondon (Itzan) ere *Erreca andia* dugu 1570. eta 1611. urteetan, baina *Errecaundi* 1945ean; Jimeno Jurio (1990: 126).

Bi dira *legor* (lehor) terminoa barnean duten espezifiko elkartuak gure esparruan, ARLEGOR (‘harria agerian dagoen tokia da’) eta ERREKALEGOR (‘emari gutxiko uribilgua). Idatzizko lehen aipamenak Hernaniko ARLEGORenak dira (*Arlegor* / *Arlegorra*, 1797, HUA41); Urnietakoarenak beranduago ageri dira (*Arlegor*, 1951, *arbolado*, UUA18). Bestalde, *Errecalegor* (1794-1831, UGR3, 17 au.) testigantza ere aurkitu dugu tradizio idatzian. Bokal arteko belarraren galera automatikoa da bietan (*Arleor* [árleòr], Ai. eta Oiarbi.; *Errekaleor* [érrekaleòr], Bezk.) eta batzuetan, gainera, lehen osagaiaren amaierako dardarkari ahula ere erori egiten da disimilazioz (*Aleor* [áleòr], Mari. 2 eta Mik. / [áleortìk], Po., *abl.* / [áleorrèn], Amu., *in.*). Cf. ARRILIMURI.

Limuri izenondoa duen toponimo bakarra dago, ARRILIMURI hain zuzen (‘harri irristakorren tokia’). 19. mendean azaltzen da lehenbizikoz idatziz (1831-1845, UGR4, 22 au.) eta gizaldi horretan forma hori baizik ez da ageri (1831-1845, UGR4, 22 au.; 1831-1845, UGR4, 28 au.; 1857-1860, HTR9, 27 au.). 20. gizaldian *Arrilimoi* (1948, *plantanos*, UUA10E) / *Arrilimoy* (1951, *argomal*, UUA18) zein *Arrilimuri* (1951, *helechal*, UUA18) jaso ditugu (*-uri* > *- ori-* > *-oi*). Ahozko tradizioan bost aldaera bildu ditugu, sinkoparen eta *-rl-* > *-l-* murriztapenaren lekuko direnak, baita, segur aski, *-rl-* > *-rr-* asmilazioarenak (edo herri-etimologiarenak) zein *-l-* > *-r-* aldaketarenak ere: *Alimoi* ([álimòi̯], K.), *Alumei* ([álumèi̯], Eg. 1), *Arlimoi* ([árlimòi̯], Ek.), *Arrimoi* [árrimòi̯], Mik.), *Arimoi* (1989, UUTB),.

Luze izenondoa naroenetarikoa da, zazpi baitira gure esparruan bigarren osagaitzat duten izen espezifiko bakunak[769]: ARLUZE, ARIZTILUZE, BELAZELUZEA, EGILUZE, IBARLUZE, PAGALUZE eta SOROLUZEA. Horietatik guztietatik hiru izen espezifikok dituzte idatzizko aipamenak; aurrenekoak 18. mendekoak dira eta hirurak mugatuan deklinaturik daude (*Ariztilucea*, 1739, VEK2; *Ybarluzea*, 1702, HUA29; *Pagolucea*, 1794-1831, UGR3, 15 au.). Ahozko tradizioari erreparatzen badiogu, BELAZELUZEA, ([bélazelúzià], Mari) eta IBARLUZE ([ibárluzè] (K.) alde batera utzita, gainerako guztietan txistukaria sabaikaritu egiten dute berriemaileek (*Aixtiluxe* [ái̯xtilúxe], Amu. / [ái̯xtiluxé], Zul.; *Astiluxe* [ástiluxè] / *Aiztiluxe* [ái̯ztiluxé], Amu.; *Arluxe*, 1989, UUTB;

[769] Lau dira gurean ARIZTILUZE izeneko lekuak, bi Urnietan eta beste bi Elduainen; SOROLUZEA izenekoak, berriz, bi dira, biak Hernanin.

Egiluxe, 1989, HUTB; *Sooluxia* [soóluxià], Altz.); bi etsenplutan, gainera, amaierako bokal erdikoa erori egin da (*Astilux* [ástilùx], Mari. 2; *Paalux* [páalùx], Ai. eta Mik.). Aintzat har bedi BELAZELUZEA eta SOROLUZEA toponimoen ahozko erakuskariek amaierako bokalaren hersketa erakusten dutela (*-e* + *-a* > *-ia*), artikuluaren erabileraren ondorioz.

Motz izenondoa, berriz, PAGADIMOTZ-en bakarrik azaltzen da (*Pagadimoz*, 1794-1831, UGR3, 10 au.) eta ihartutako toponimo honetan *pagadi* multzokaria osatzen duela dirudi (‘pagadi txikia’), esanahia ‘pago motzak dauden pagadia’ ere izan litekeen arren.

ITURRIPOTXOLO toponimoak (‘emari oneko iturria’) bi erakuskari ditu Hernanin eta bietan izenondoaren txistukaria bustirik azaltzen da (*Itturripotxolo* ([ítturripótxolò], Etxol.; *Iturri potxolo*, 1989, HUTB); sabaikaritze adierazkorraren aurrean gaude, beraz.

Hitz bi URUMEA potamonimoari doakionez (*Urhumea*, 1101, NAO1). *Ur-* osagaiak ‘ur-ibilgua’ esanahia du[770] eta *-umea* izenondoak berriz ‘xumea’, ‘txikia’. Horrenbestez, toponimoaren esanahia ‘ur xumea’ / ’ur gutxiko ibilgua’ da. (Ikus 6. eta 9.§)

Txiki izenondoa duten zazpi toponimo daude (ARKAIZTXIKI, BORDATXIKI, ERREKATXIKI (2), LEPATXIKI, LEPOTXIKI eta PAGADITXIKI), idatzizko bi aipamen baizik aurkitu ez baditugu ere, biak berri samarrak, gainera (*Lepachiqui*, 1920, *caserío y pertenecidos*, HUA57, 56 or.; *Lepotxiki u Otzarramendi*, 1936, HUA57, 805 or.). LEPATXIKIren testigantzei erreparatuz gero *lepa-* aldaera ikusiko dugu usaian, hala idatzizko tradizioan nola ahozkoan (*Lepachiqui*; *Lepatxiki* [lépatxikì], Txab. 2 eta Txil.), nahiz eta informatzaile batek *o* duen LEPOTXIKI toponimoa eman (*Lepotxiki* [lépotxikì], Larr.). Izan ere, irudiz, LEPATXIKI eta LEPOTXIKI toponimoek toki bera izendatzen dute. BORDATXIKI oikonimoaren bigarren silabaren sinkopa ere azpimarratu nahi dugu, horrelako kasu gutxi daudelako eta informatzailea nafarra delako (*Bortxiki* [bórtxikì], Lor. b.). *Ttiki* formaren zantzurik ez dugu aurkitu izen espezifiko elkartuen sailean. Cf. ZILLEGITTIKIA.

[770] URUMEA formaren harira, Irunen *Urunea* eta *Uruneko errota* toponimoak daude (1998, IRM).

Irudi du *txar* bi toponimotan ageri dela, baina ez da ziurra, *zahar* izenondoaren bustiriko *-xar* aldaeraren oinordeak izan litezke eta. Aurreneko etsenplua ihartua dagoen ESTEGITXAR da (*Esteguichar*, 1797, *piedra*, HUA41; 1833-1835, *cerro*, DUA3) eta bigarrena bizirik dirauen NOTIZITXAR[771] (*Notizizar*, 1995, DTE, 156 or.; *Notizitxar* [nótizitxàr] / *Notixitxar* [nótixitxár], Arg.). Azken hori arras berezia da, izenondoaren aurretik dagoen izena konkretua izaten delako gehienetan.

Zabal mugakizuna ere lekukotasun gehien dituen izenondoetariko bat da, elkartutako bederatzi izen espezifikotan ageri baita: BIDETXABAL, ETZABAL, LEZATXABAL, MENDIZABAL, OIARZABAL, PUTXUTXABAL, PORTATXABAL, SOROZABAL eta URRUZTIZABAL. Idatzizko iturrietan hiru toponimoren testigantzak aurkitu ditugu: *Lezachábal* (1936, HUA57,177 or.); *Portachabal* (1848-1850, HTR4, 10 au.); *Sorozábal* (1857, HUA48, 47 or.). Ñabarduretan sartuz gero, sei toponimotan txistukaria sabaikaritu egin da (*Bidetxabal* [bidétxabàl], Txim.), *Lezachábal*; *Portachabal*; *Putxutxabal* [putxutxábal] / [putxúxabàl], Amu.; *Sorotxabal* [sorótxabàl], Txab 2; *Urruztitxabal*, 1989, HUTB) eta bokal arteko ezpainbikoa ETZABALen baizik ez da erori (*Etzaal* [étzaàl], Ezk. b.) edo aldatu (*Etzaral* [étzaràl], Lor. b.). Mugakizunen arloan, *Urruzti-* forma asimilazioaren lekuko da (*hurrizti*) eta informatzaile batek, azkenik, *Solazabal* ([solázabàl], Pard. g. 2) ahoskatzen du, *Sorozabal*-en ([sorózabàl], Ek.) ordez (*-o* > *-a*; *-r-* > *-l-*).

Zahar ere ugari baliatzen da izen espezifiko elkartuen osagaitako eta, gutxienez, hogei etsenplutan ikus liteke: BORDAZAR (2), ERREKAZAR, ETXEZAR, GALTZADAZAR, GAZTAINXARKO HARKAITZA, ITURRIZAR, KAROBIZAR, LARRAZAR, LEKUZARRA, OLAZAR, PAGADIZAR, PRESAZAR, PUTZUZAR[772], SAIZAR (2), TXABOLAZAR, TXOKOZAR, XAUXAR (2) eta ZUBIZAR. Idatzizko lekukotasun zaharrenak 17. eta 18. mendeetakoak dira (*Larrazar*, 1683, HUA28; *Zubizar*, 1683, HUA28; *Olazarra*, 1773, VEK1A; *Pagadizar*, 1794-1831, UGR3, 14 au.; *Presazar*, 1857, HINGR2, 5097 zenb.; *Chabolazar*, 1797-1833, HGR2, 44 au.; *Chocozar*, 1889, HUA56; *Saizar*, 1930, UUA7)

---

[771] Litekeena da, *txar*-en ordez, *zahar* egotea.

[772] *Putzuzar* izeneko aurkintzak daude Etxarren (Arakilen) eta Zia Itzan. Bigarrenaren kasuan *Buzuzarra* forma dugu 1724. urtean; *NTEM-XIII*, 61, 173.

eta txistukaria busti delako zantzurik ez dago. Ahozko tradizioan, ordea, txistukaria busti egiten dute berriemaileek zortzi etsenplutan (*Axkaxar* [áxkaxàr], Id. / *Askazar* [áskazàr], Txab. 1; *Etxexarko lepua* [étxexarkò lépuà], Txim.; *Gaztainxarko arkaitza* [gaztái̯nxarkò árkai̯tza], Txab. 1; *Itturrixar* [ittúrrixàr], Iz. eta Txab. 1; *Putxuxar* [pútxuxàr], Id. / *Putzuzar* [pútzuzàr], Txab. 1; *Saixar*, 1989, UUTB; *Xauxar* [xáu̯xàr], Lor. b. eta En. / [xáu̯xarkò bórdà], Lor. b.). Artikulua duten bi toponimoek (*Labezarra*, 1989, HUTB eta *Lekuzarra* [lékuzárrà], K.) eraikin aski berriak izendatzen dituzte eta, alde horretatik, *Errekazar* ([érrekazàr], Ek.) / *Errekazarra* ([érrekazárrà], Pard. g. 2, Txil.) bikoaren kasuak bestelakoa ematen du. Mugakizunei dagokienez, SAIZAR eta XAUXAR toponimoen aurreneko osagaia zein den ez dago argi; *saroi* hitzarekin zerikusia izatea da aukera bat[773].

Aurrekoez gainera, AINXAR[774], ESTEIZAR, KULPIZAR, MAIXAR eta MALMAZAR toponimoak daude gure esparruan, *zahar* elementua dutenak horiek ere, antza denez. Idatzizko aipamen zaharrena *Narbaçar* (1554, *cuesta arriba de*, EUA2, 122 or.) da eta, hala berean, *Kulpizarre* (1923, *monte*, JMB1, 144 or.) testigutza ere bildu dugu, azken hori loturazko *-e-* bokala duena seguruenik. Ahozko tradizioan *Malmazar* ([málmazàr], Bentatx. eta Id.) eta *Kulpizar* (1988, OBIE) oronimoek busti gabeko txistukaria dute, ez, horratik, gainerako guztiek (*Ainxar* [ái̯nxàr], Asta.; *Itxeixar* [ítxeixàr], Etxol., *Exteixarko ataka* [éxtei̯xarkò átakà], Ig. g. eta Txim.; *Maixar* [mái̯xàr], Id. / [mái̯xár], Larra.).

Begira diezaiogun astiroago MALMAZAR toponimoari. Itxura batean lehenbiziko zatiaren iturburua *malba*[775] da, aurreranzko asimilazioaren ondorioz *malma* bihurtu dena, baina aurreneko agerraldia ikusirik (*Narbaçar*, 1554) litekeena da Mitxelenak (*AV*, 468) aipatu **narba* izatea[776]. Zernahi gisaz, ez bedi ahantz hori behin bakarrik agertzen dela tradizio idatzian (*Malvazar*, 1628, *mojón*, DUA1; *Malmazar*, 1833-1835,

---

[773] Berriemaile baten arabera iturburua *Sarobezar* da eta, horren argitan, **Saroezar* > **Sao(e)zar* > **Sauzar* edo litzateke bilakabidea. Cf. Hondarribiko *Saroizigarronea* (> *Saizarrenia*); Furundarena (2002: 785).

[774] *Ainzar* (1927) toponimoa biltzen du Jimeno Juriok (1992: 40) Aitzoainen (Antsoainen).

[775] Ohar bedi *-lm-* eta *-rm-* multzoak maileguetan ikusten direla usuenik, *malma* ('malva') kasu (*FHV*, 355).

[776] Zegama aldean badaude *narda* hitzaren lekukotasunak eta 'maldan behera eroritako harri pila' adiera du han: *Nardaaundi*, *Nardadioko gaina*, *Nardagaizto*, *Nardasakon*, *Nardatxiki* eta *Nardazear* (1997, ZGM).

altura, DUA3; *Malmazar*, 1889, *altura*, HUA55; *Malmazar*, 1911, IM; *Malmazar*, 1928, JMB3, 268 or., *Malbazar ó Malmazar*, 1944, GHO1).

ONTZORROTZ[777] toponimoan *zorrotz* izenondoa dagoela ematen du, baina ez da gauza ziurra, besteak beste, tradizio idatzi urria duelako (*Onzorrozco-gaña*, 1942, IGC1; *Onzorroco-gaña*, 1980, IGN1) eta ahozko lekukotasun bakarra dagoelako (*Ontzorrotz* [ontzórròtz], Lor. b.).

Kromotoponimoak ez diren izenondoak dituzten toponimoekin amaitze aldera, TXORIKANTARI[778] aitatu nahi dugu (*Txorikantai* [txórikantái̯]; *Txorikantari* [txórikantarì], Amu.) / [txórikantarí], Mari. 2), eite hori duen bakarra izateaz gainera, bigarren osagaia izenondoa edo adizlaguna den jakitea neke delako.

Mugakizuna + *mugatzailea* egitura duten toponimoen saileko azken multzoa aztertuko dugu orain, *izen arrunta* + *kolorezko izenondoa* baturan oinarri duten izen elkartuek osatzen dutena alegia (kromotoponimoena), eta hasteko errepara diezaiegun *beltz* izenondoa dutenei. Gure esparruan lau dira ERREKABELTZ / ERREKABELTZA[779] izena duten tokiak ('toki ilunean barrena doan erreka', 'ur beltza duen erreka'; cf. ERREKAGORRI), Urnieta eta Donostian bana, eta beste biak Hernanin. Urnietakoak (*Errecabel*, 1794-1831, UGR3, 17 au.) eta Hernaniko batek[780] idatzizko erakuskariak dituzte (*Errecabell*, 1898, EGZ) eta ahozko tradizioan ezpainbikoa galdu duen *Errekaeltz* ([érrekaèltz], Amu.) zein kontsonante horri eutsi dioten *Errekabeltz* ([érrekabèltz], Txab. 1 eta Txim.) eta *Errekabeltza* ([érrekabeltzà], Arg. / *Errekabeltzeko egiya* [érrekabeltzekò égiyà], Txab. 1) jaso ditugu. *Errekabeltxa* (1989, UUTB) aldaera ere azpimarratu beharra dago, txistukariaren bustidura adierazkorra izan litekeelako.

---

[777] Iñigok (1996: 304) *Oltzorrotz* (*Urtzortza*) biltzen du Iturenen (Malerrekan) eta haren iritziz bigarren elementua *zorrotz* izenondoa da; urreneko osagaia, ordea, iluna da eta gehitzen du Goizuetako *Untzorrotz* toponimoan dagoen bera dirudiela.

[778] Artikutzan *Txorikantari* jasotzen du Erriondok (1988: 126) eta 1827. urtean *-aga* atzizkiarekin dokumentatzen du (*Choricantariaga*). Cf. Agezako (Eslaba aldeko) *Motxilukantua* (*EAEATB*, 139) edota Lagrango *Cantarrana* (Lopez de Gereñu, 1989: 140).

[779] *Errekabeltz* biltzen du Ataunen Arin Dorronsorok (1928: 61).

[780] Kokapena: 64-39-2.

Beltz mugatzailea duten beste bi toponimoak OTADIBELTZA eta ITURRIBELTZ dira. Ahozko tradiziotik jaso ditugu biak eta aurrenekoan txistukariak bere horretan badirau ere (*Otaibeltza* [ótaị̈beltza], Larra.) berriemaileek busti egiten dute bigarrengoan (*Iturribeltxa* (1989, HUTB; *Itturribeltx* [ittúrribèltx], Pard. g. 2).

Gorri elementua AIZKORRI ('haitza biluzik dagoen tokia', 'haitza besterik ez dagoen tokia'), AÑAGORRI, ARGORRI[781], ATEGORRI, ERREKAGORRI[782] ('emari gutxiko erreka', 'hondoa agerian duen erreka', 'ur gorria duen erreka'), IÑASTORGORRI, IRASGORRI[783], LANGAGORRI[784], MUÑAGORRI[785] ('soil edo biluzik dagoen muinoa') eta SARASKORRI izen espezifiko elkartuetan azaltzen da[786]. Idatzizko aurreneko lekukotasunak 18. eta 19. mendeetakoak dira (*Yñastorgorri*, 1739, HUA36; *Argorri*, 1870, HUA49; *Irasgorri*, 1831-1845, UGR4, 25 au.; *Muñagorri*, 1831-1845, UGR4, 22 au.; *Aitz-gorri*, 1897, AT, 235 or.). Zentzu horretan, *Aitz-gorri* forma berezia da, salbuespena ez delako (*Aitzgorri*, 1912, AT, 235 or.) eta herskari ahoskabea duen aurreneko lekukotasuna ere 20. mendean kausitu dugulako[787] (*Aizcorri*, 1944, GHO2). Ahozko tradizioan bigarren aldaera hori baino ez dugu jaso (*Aizkorri* [áị̈zkorrì], Amu. eta An. 1, [áị̈zkorriá], Amu., *adl.s.*; *Aixkorri* [áị̈xkorrí], Amu.) eta, hori ikusirik, pentsatzekoa da *Aitz-gorri* eta *Aitzgorri* aipamenak herri-etimologiak eraginik ez ote diren sortu.

MUÑAGORRI oronimoaren kasua ere nabarmentzekoa da, besteak beste, bokal arteko belarraren erorketaren eta ondoren agituriko bokal baturaren berri ematen duen *Munorri* [múnorrì] (Mik.) dugulako ahozko tradizioan. Izan ere, horrelako bakarra da (cf. *Ategorri*, 1989, OM; *Errekagorri* [érrekagórrì], Mari. 2); *Langagorri* [lángagorrì], K.).

---

781 Oiartzunen *Algorri* (18.) oikonimoa biltzen dute Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 57). Cf. Unanuko (Ergoieneko) *Arrigorri* oronimoa; *NTEM-VIII*, 69.

782 Cf. Gorobel mendilerroko *Iturrigorri*, Aiara ibarraren gainean.

783 Cf. Urritzolako (Arakilgo) *Irastordi* (*NTEM-XIII,* 117), Beartzungo (Baztango) *Irastorri* (*NTEM-LIII*, 232) edota Sorogaingo (Erroibarko) *Iraztorri* (*NTEM-XXXV*, 144). Era berean, Jimeno Juriok (1987b: 50) *Hirastorria* (1640) biltzen du Arlegin (Galar zendean).

784 Garatek (1930b: 6), konparaziora, Bilboko *Landagorri* toponimoaren berri ematen du eta, hori ikusirik, izatez, *Langagorri* aldaera disimilatua izan liteke.

785 Cf. Zutzako (Longida ibarreko) *Larregorria*; Muxika Urdangarin (1988: 147).

786 ERREKAGORRIk eta LANGAGORRIk bina agerraldi dituzte.

787 Subitzan (Galar zendean) *Ayzcorrigaña* jasotzen du 1666. urtean Jimeno Juriok (1987b: 376).

Aurreko horiekin batera IRAKURRI azpimarratu nahi dugu. Idatziz 18. mendean azaltzen da lehenengo aldiz (*Yracurri*, 1773, VEK1B) eta badaude 20. mendeko idatzizko testigantzak (*Iracurri*, 1942, IGC1; 1953, IGC2; *Irokurri*, 1962, UTC). Bestetik, jatorrizko forma datekeenaren eitea duen *Irakurri* ([irákurrì], Arg.) / ([irákúrrì], Aska.) zein bokal arteko dardarkari ahula galdu duen *Eakurri* ([eákurrì], Arg. eta Aparr.) jaso ditugu ahozko tradizioan eta ohar bedi azken aldaera horrek hasieran bokal erdikoa duela (*Ira-> Era-*). Etorki ezezaguneko toponimo baten aurrean gaude, baina litekeena da etimoa *ira* + *gorri* izatea[788] (cf. IÑASTORGORRI eta IRASGORRI).

Ilun bigarren osagaitzat duen ATXETILLUN toponimoaren idatzizko lekukotasunak 18. mendekoak dira (*Achetillun*, 1794-1831, UGR3, 19 au.) eta, zorionez, bizirik dirau (*Atxetillun* [átxetillùn], Amu.). ARKAITZILLUN, berriz, ahozko tradizioan baizik ez dugu aurkitu (*Arkaitzillun* [árkaı̯tzíllun] / [árkaı̯tzíllùn], Amu.), baina badaiteke bi toponimoek elkarrekin zerikusia izatea, besteak beste, elkarren ondo-ondoan daudelako. Hala balitz, ARKAITZILLUN herri-etimologiaren ondorio izatea ez litzateke baztertu beharko.

Txuri mugatzailea BENTATXURI, ETXETXURI, LARRAINTXURI, LARRATXURI, TANTATXURI eta ELMITXURI espezifikoetan azaltzen da. Idatzizko aurreneko lekukotasuna 18. mendeko *Larrainchuri* (1794-1831, UGR3, 10 au.) da[789] eta *Ventachuri* (1870, HUA49), *Tantachuri* (1921, *Cillegui*, HUA57, 653 or.) zein *Larratxuri* (1926, *caserío*, JMB2, 120 or.) dira gainerako estreinako aipamenak. Bistan denez, txistukaria bustirik azaltzen da beti idatzizko tradizioan eta orobat ahozkoan (*Bentatxuri*, [béntatxurì], Larra. eta Txab 2.; *Etxetxuri*, 1989, HUTB; *Larrantxuri*, 1989, HUTB / *Larraintxuri* [lárraı̯ntxurì], Mari. 2; *Larratxuri* [larrátxurì], Ezk. b.; *Tantatxuri* [tantátxurì], Pard. g. 2; *Elmitxuri* [elmítxurì], Goi.); salbuespen bakarra *Bentazuri*

[788] Ezkurran *Irakurri* izeneko tokia dago. Hona hemen jasota dagoen argitalpenean (*NTEM-LVI*, 114) egiten den oharra: "Según DMR: ‹‹A la vista de la documentación de Arano se podría pensar en **Irakorri* 'Helechal Rojo' o 'Raso de Helechos'. En Arano existe un nombre similar *Erakurri*, pronunciado *Iakurri* y *Eakurri*, documentado *Idocorri* en 1724 e *Iracorri* en 1713››". Aitortu beharrean gara azken bi aipamenak ezezagunak zirela guretzat, eta bigarrenaren harira diogun Eibarren *Iraragorri* oikonimoa dagoela, 1857 geroztik (haplologiagatik agian) idatzizko tradizioan *Iragorri* erabiltzen bada ere; orobat ahozkoan (San Martin, 2000: 59). Cf. Berako *Iakagorri* (*Iakaurri*) baserri-izena (1989, BM).

[789] Ikus Mitxelena (1964: 41).

([bentázurí], Larra.) da[790]. Nabarmen dezagun, halaber, bokal arteko dardarkari ahula erori egin dela batzuetan (*Bentatxui* [béntátxuì], Id.) / [béntatxuí], Larra.; *Mentatxui* [méntatxuì], Id., Larra.; *Tantatxui* [tántatxwì], Txab 2; *Elmitxui* [élmitxwì], Goi.). Zentzu horretan, *Tantatxubi* formak ([tantátxubì], Txil.) herri etimologiarekin lotua dirudi, baina ez litzateke harritzekoa izango, bestalde, ezpainbikoa hiatoari eusteko garatu izatea. Honenbestez, *benta*, *etxe*, *larra(i)n*, *larre* (*larra-*), *tanta(i)-* eta etimo iluna duen *elmi-* dira mugakizunak. GISASURI toponimoari dagokionez, 18. mendean behin aurkitu dugu (*Guisasuri*, 1739, HUA36) eta mugatzaileak *zuri* ematen du (*gisats* [isats] + zuri?), aipamen bakarrarekin segurua ez den arren.

8.2.3 Izen espezifiko elkartuen aldaketak

Bokalen arloan, hasteko, dardarkari aurrean irekitzea gertatu dela erakusten duten lekukotasunak daude (*Olasagarre*, 1855-1857, UTR8, 46 au.). Asimilazio-disimilazio prozesuaren ondorioz burutu dardarkari ondorengo bokalaren inflexioaren lehen testigantzak ere garai berekoak dira, ELORRIBI (*-ibi* > *-abi*) toponimoan ikusten dena kasu (*Elorrábia*, 1857; *Elorrabi* [elórrrabì], K.). Era berean, MIKELABIL oikonimoaren ahozko zenbait lekukotasunetan irekitzea dugu (*Mikalai* [míkalài̯n], Ai., *in.*). *Unamene* aldaera (UNAMUNO) deklinabideko loturazko bokalaren erabilpenaren (**Unamuneko*) zein asimilazioaren ondorioa izanen da eta orobat gertatu bide da SAGASTIMUÑO toponimoaren *Saastimenia* ([saástimenià], Ai.) aldaeran. Bestetik, espero izatekoa zenez, bokal erdikoak itxi egiten dira hitz amaieran mugatzailea eranstean (*-o* + *-a* > *-ua*; *-e* + *-a* > *-ia*): *Gaztañamunttua* ([gáztañamúnttuá], Aparr.), *Gurutzelepua* ([gurútzelepuá], Larr.); *Sooluxia* ([soóluxià], Altz.).

Diptongo eta hiatoen alorrean, behinolako *-ai̯-* diptongoak *-i-* eman du BENTURAITURRI toponimoan (*Venta-iturri*, 1951, *argomal*, UUA18; *Bentitturri* [béntitturrì], Mari. 2), baina AÑARBEren kasuan *-a-* da hitz elkarketaren emaitza (*Aiñarbe*, 1625, LMI, 234 or. > *Añarbe*, 1773, VEK1). *-ai̯-* diptongoaz ari garela, ez dezagun ahantz behin baino gehiagotan bigarrenkaria dela (*Maizulo* [mái̯zulò], K.);

[790] Informatzaile berak *Bentatxuri* ([béntatxurì], Larra.) ebakitzen du.

Mikelai ([míkelài̯n], Po., *in.*), ez eta artikulua eranstean bokalerdia sabaikaritu egiten dela ere (*Tantaizelaya*, 1989, OM).

-au̯- diptongoa *-aundi* izenondoa duten toponimoetan aurkitu dugu (*Egiaundi* [égiáu̯ndi] / [égiau̯ndìn], Amu., *in*. / [égiau̯ndì], Txim.; *Errekaundi*, 1989, HUTB) eta oroit dezagun 18. mendean aldaera diptongogabea (*-andi*) zela nagusi artean idatzizko tradizioan (*Eguiandia*, 1797, *loma*, HUA41; *Errecandia*, 1773, VEK1; *Yturriandi*, 1702, *paraje*, HUA29). Badaude [*-wi-*] diptongoaren lekukotasunak, hala hitz elkarketan (*Katilluitturri* [katíllwitturrì], Id.) nola hitz barruan (*Kanalzuiko erreka* [kanálzwikò érrekà], En.); bigarrenkaria da normalki (< KANALZUBI).

Hiatoen karietara, esan dezakegu toponimoa bokal itxiz amaitzen denean sabaiko herskaria garatzen dela artikulua erantsiz gero ([búztanarriyá], Etxol.) eta, bestalde, *-ui-* hiatoa murriztu egin da hitz elkarketan (*-u-* + *-i-* > *-i-*) ANGELUITURRI hidrotoponimoan (*Angeluitturri* [ángeluitturrì], Bentatx. eta Txab. 1 / *Angelitturri* [ángelitturrì], Bentatx.).

Bokalen batze, erortze eta garatzearen alorrean, GURMENDI toponimoa dateke (*EGURMENDI) aferesiaren erakusgarri bakarra. Halaber, BORDATXIKIren *Bortxiki* ([bórtxikì], Lor. b.) aipamena azpimarratu nahi dugu, sinkoparen adibide gutxi dagoelako eta informatzailea nafarra delako. ARRILIMURI toponimoa ere buru horretan sar liteke (*Arrilimuri*, 1831-1845 > *Alimoi* ([álimòi̯], K.). Ahozko tradizioarekin jarraituz, apokopea gertatzen da OIARBIDE oikonimoan (*Oyarbi* [óyarbì], K.) eta kontsonante ondoko amaierako bokal atonoa erori egin da[791] ARIZTILUZE eta PAGALUZE toponimoetan (*Astilux* [ástilùx], Mari. 2); *Paalux* [páalùx], Ai. eta Mik.). Azkenik, haplologiaren lekuko bakarra ESKALANABERRI dateke (*Escalamberri*, 1936, HUA57, 796 or.; *Eskalanberri* [éskalanberrì] / *Eskallanberri* [éskallanberrì], Etxol.).

Kontsonanteen arlora etorriz, bokal arteko igurzkari belarraren erortzeak indarrean darrai ahozko tradizioan: *Paalux* ([páalùx], Ai. eta Mik.); *Arleor* ([árleòr], Ai. eta Oiarbi.) / *Aleor* ([áleorrèn], Amu., *in.*); *Errekaleor* ([érrekaleòr], Bezk.). Igurzkari ezpainbikoa ere ezabatu egiten da sarritan (*Paotxaal* [páotxaàl], Ai., Mari. 2 eta Zul.).

[791] Cf. *FHV*, 411.

Alde horretatik, ETZABAL toponimoaren kasua berezia da, *Etzaal* ([étzaàl], Ezk. b.) aldaerarekin batera, dardarkari ahula duen *Etzaral* ([étzaràl], Lor. b.) baitarabil informatzaileak. LARREBIRIBIL, ALTZIBAR, ERREKABELTZ eta MIKELABIL toki-izenen ahozko lekukotasunen artean ere igurzkaria galdu duten ale bat baino gehiago daude (*Larrail* [lárrài̯l], K. / *Larrabi* [lárrabì], Mik.; *Altzibar* ([áltzibàr], K. / *Altziar* [áltziarrá], Amu., *adl.s.*; *Errekaeltz* [érrekaèltz], Amu. / *Errekabeltz* [érrekabèltz], Txab. 1 eta Txim.; *Mikelabi* [míkelabì], Pard. g. 1 / *Mikelai* [míkelài̯n], Po., *in*.). Igurzkari horzkaria duten toponimoen testigantzen artean, *Egieder* (1989, OM), *Itturrieder* ([ítturiéder], Amu.), *Izeneder* ([izénedèr], K.), *Oyaneder* (1989, HUTB) nahiz *Itturrieer* ([ítturieèr], Amu. eta Mari. 2; ITURRIEDER) eta *Izener* ([izénèr], Txab. 1; IZENEDER) formak kausitu ditugu.

MALMAZAR oronimoan aurrerako asimilazioa izan da itxura batean (*Malvazar*, 1628, *mojón*, DUA1 > *Malmazar*, 1833-1835, *altura*, DUA3) eta BENTATXURI oikonimoan, aldiz, atzerako asimilazioak hastapeneko ezpainbikoa sudurkaritu du (*Bentatxui* [béntátxuì] / *Mentatxui* [méntatxuì]**,** Id. eta Larra.).

Sudurkariez ari garenez, kontsonante horien ondoan *afrikari / frikari* oposizioak ez du eraginik sarritan eta behin baino gehiagotan aldizkapena informatzaile beraren ahotan gertatzen da (cf. *Urzulo* [úrzulò] / *Okertzulo* [okértzuló], Mari. 2; *Akertzulo* [akértzulò] / *Akerzulo* [ákerzúlo], Mari. 2). Etsenplu batzuetan txistukariak frikari egiteko joera dago (*Aranzabal* [aránzabàl], K.; *Bustinzulo* [bustínzulò], Asta.; *Usonzulo* [úsonzulò], Mari. 2), baina beste askotan ez (*Dontzellaitturri*, [dontzellai̯ttúrri] / [dóntzellai̯tturrì], Id.). Afrikariekin jarraituz, ezpain-horzkaria herskari bihurtzen da ahozko tradizioan (*-f-* > *-p-*), *Itturpiñ* (1989, HUTB), *Iturripiña* ([itúrripíñà], Txab. 1) eta *Itturripin* [ittúrripìn], Etxol.) testigutzak lekuko.

Albokariei doakienez, amaierako *-l* erori egiten da ahozko tradizioan LARREBIRIBIL eta MIKELABIL toponimoetan (*Larrabi* [lárrabì], Mik.; *Mikelabi* [míkelabì], K.) eta, dardarkarien sailean agiturikoari erreparatuz gero, bistan da bokal arteko dardarkari ahularen erortzeak indarra baduela gure esparruan, eta ez da harritzeko, bertako hizkeran hola egiten delako (*Arrilimuri*, 1831-1845, UGR4, 22 au. > *Arrilimoi*, 1948,

UUA10E; *Sooluxia* [soóluxià], Altz.; *Argarate* [árgaraté], Amu. / [árgaratè], Ek., *Argaate* [árgaatè], Amu. eta Ek.; *Arguutz* [árguùtz], Bort. b. eta Pard. g. 1; *Marizulo* [marízulò] / *Maizulo* [mái̯zulò], K.; *Aizmendi* [ái̯zmendì], K.; *Goostarbe* [góostarbè], Amu.; Mari. 2). Bestalde, albokari ondoko dardarkari ahularen murrizketa gertatzen da aldian behin (*Arleor* [árleòr], Ai. / *Aleor* [áleorrèn], Amu., *in.*) eta *-r- > -l-* disimilazioaren lekukoa ere aurkitu dugu (*Argorri* [árgorrì], Iz. / *Algorri* [álgorrìn], Larra., *in.*).

Kontsonante multzoen alorrean aipatzekoa da LATXA eta USOKO toponimoen kasua. Aurrenekoan **rtz > rts > ts* dateke bilakabidea (*Larsa de Avillas*, 1467, HUA5; *Lassa / Laza*, 1595, HUA10; *Latze*, 1843, HUA44; *Latse*, 1864, HUA47; *Latxe* [látxè], K.) eta bigarrenean, berriz, **rz > rs > s* (*Ursuco*, *Ursoco*, 1780, HUA39; *Usoco*, 1769, HUA37; 1773, VEK1; *Usoco*, 1847, JII, 34 or.; *Usoko* ([úsokò], K.). Hala berean, *-rl- > -l-* dugu ARRILIMURI toponimoan (*Arrilimuri*, 1831-1845, UGR4, 22 au. > *Arrilimoi*, 1948, UUA10E > **Arlimoi* > *Alimoi* [álimòi̯], K.).

Kontsonanteen aldaketekin amaitze aldera, esan dezagun asimilazio bustiduraren lekuko franko daudela gure esparruan:

○ *inV > iñV*: *Sorgiñerreka* ([sorgíñerrekà], Pard. g. 1, Pard. g. 2).

○ *izC > ixC*: *Errekagaixto* ([érrekagai̯xtò], Txim.); *Errekagaixto* ([érrekagai̯xtò], Pard. g. 1 eta Txim.) / [érrekagái̯xtò] Pard. g. 2).

○ *ntV > nttV*: *Errekamuntto* ([érrekamunttò], Amu.). 20. mendearen erdialdetik hona herskari horzkariaren bustidura nagusitzen da, *munttegi* bezalako formen analogiaz segur aski.

○ *itV > ittV*: *Itturritxoko* ([ítturritxokò], Aparr. / [ittúrritxokò], Etxol.).

○ Hitz amaierako albokari bakuna, erortzen ez denean, busti egin da LARRABIL toponimoan eta gertakizun horren aurreneko lekukotasuna 19. mendekoa da

(*Larrebiribill*, 1852, UINGR2, 2414 zenb.). Egun toponimoa adlatiboan deklinatzean sabaikaritzea burutzen da, baina bestela ez (*Larrabilla* [lárrabillá], Mik.). Badaude albokariaren asimilazio bustiduraren lekukotasun gehiago, *Praillian osiña* ([prái̯llián ósiñà]) / *Prallian osiña* ([prállián ósiñà], Pag.) adibidez.

Bukatzeko, diogun ingurunez landako bustiduraren etsenplu bat baino gehiago daudela (*Otsarramendi* [otsárramendì], Ek. / *Otxarramendi* [otxárramendì], Txab 2; *Artxubiko erreka* [ártxubikò érrekà], Amu.; *Putxumalda* [putxúmaldà], Larr.) eta, gainera, aldaketa horren idatzizko erakusgarriak aurkitu ditugula, berri samarrak izan arren[792] (*Errekatxoko*, 1921, *aprisco con terreno*, HUA57, 951 or.; *Sorguinchulo*, 1920, *Manzanal*, HUA57, 70 or.; *Chingurrichulo*, 1920, *manzanal*, HUA57, 625 or.).

8.2.4. Izen espezifiko elkartuen osagaiak

Espezifiko elkartuen osagaitzat erabilitako ehun eta laurogei hitz topatu ditugu, guztira gure esparruko toponimian baliatu diren terminoen herena baino gehiago, hortaz. Gehien-gehienak izenak dira, eta gutxi batzuk izenondoak. Maileguak laurdenera ez dira iristen eta, beraz, izen generikoen sailean dagoen hainbatekoa baino askoz gutxiago. Idatziz aurrena opatu ditugunak *alde*, *amil*, *harain*-, *ibar*, *ibi*, *legar*, *ume* eta *ur* dira; guztiak 12. gizaldian azaltzen dira. 15. mendean, *bide*, *eder*, *lats*, *oihan* eta *saroi* aurkitu ditugu estreinakoz, eta, agian *bakoitz* ere bai.

Batzuk ihartuta daude, *agerri*, *ainar*, *angelu, garate*, *guren*, *harain*, *harbe*, *ibi*, *lander*, *larrain*, *lats*, *legar*, *limuri*, *oihan*, *olatza*, *pototxo* eta *unai* kasu. *Ibar*, *katamotz* eta *tantai* ere galzorian daudeke eta, bestalde, *gaitz* eta *sasi* terminoen esanahia gure esparruko toponimian lehen aldiz azaltzen diren garaitik hona franko aldatu da. Nolanahi ere den, izen elkartuak osatzeko erabilitako hitz-multzoaren murrizketa nabarmena denik ezin da esan, generikoekin alderatuz gero bederen. Ildo horretan, aitortu beharrean gara generikoen sailean azaltzen diren *atze*, *kasko*, *malkar* (1797-1833) eta *mehaka* (1683) izen espezifiko elkartuen sailean ez azaltzea deigarri zaigula.

[792] Oñederra (1990: 17-19)

Izenen artean emankorrena *zulo* da, hamahiru toponimoren osagaia baita. Izenondoen artean, berriz, *zahar* da ugarien ageri dena. Aipatzekoa da *gorri* izenondoa ere, bederatzitan kausitu baitugu. Izenondoek izenek baino lekukotasun gehiago dituzte, hau da, izen gehienek erakuskari bat edo bi besterik ez dituzte, izenondoek ez bezala.

Izen eta izenondo gehienek idatzizko lekukotasunak dituzte eta ahoz bakarrik azaltzen direnak ez dira heren batera iristen. Horretan ere aldea dago, izen espezifiko elkartuen osagaiek generikoek baino idatzizko testigantza gehiago baitituzte. Hitzak hizpidea ekarrita, gogora dezagun izen espezifiko elkartuen osagai diren zenbait termino generikotzat ere opatu ditugula, baina horrelakoak ez dira laurdenera iristen[793]. Esanguratsua da espezifikoen osagaitzat ageri direnean generikotzat baino lehenago opatzen direla, sei-zazpi kasutan izan ezik. Bestalde, espezifiko bakuntzat eta espezifiko elkartuen osagaitzat erabilitako bost izen daude[794] eta generikotzat, espezifiko bakuntzat zein espezifiko elkartuen zatitzat baliaturiko bakarra *zoko* (*txoko*) mailegua da, eta agian *txabola* ere bai.

Hogeita bost dira izen espezifiko elkartuen aurreneko eta bigarren osagai gisa aurkitu ditugun hitzak (*baso*, *bide*, *elorri*, *erreka*, *etxe*, *gurutze*, *haitz*, *harri*, *ibar*, *iturri*, *larre*, *lepo*, *lur*, *mendi*, *muino*, *munto*, *osin*, *sagasti*, *saroi*, *soro*, *zabal*, *zelai*, *zoko*, *zubi* eta *zulo*) eta horrek, gehienetan, mugatzailetako eta mugakizuntako aurkitu ditugula esan nahi du, beti ez bada ere. Horrenbestez, pisu berezia duten izenak dira eta ikusten den bezala oso mailegu gutxi daude multzo horretan[795]. Hauxe esango dugu hori ikusirik, guretzat argi eta garbi dagoenez gero: paisaia gizakitu menditsua, urez ongi hornitua eta landaretza joria duena irudikatzen dute gure esparruko izen espezifiko elkartuek.

---

[793] Hauek dira: *baso*, *bide*, *bizkar*, *erreka*, *etxe*, *haitz*, *harizti*, *harkaitz*, *harri*, *hegi*, *labe*, *larre*, *leize*, *lepo*, *malda*, *mendi*, *munto*, *ola*, *osin*, *pagadi*, *pago*, *presa*, *punta*, *putzu*, *sagasti, saroi*, *sasi*, *soro*, *tontor*, *txabola*, *txara*, *zabal*, *zehar*, *zelai*, *zoko (txoko)*, *zubi* eta *zulo*.

[794] *Langa*, *muga*, *txabola*, *txara* eta *zoko* (*txoko*).

[795] *Erreka*, *gurutze*, *munto*?, *soro* eta *zoko*.

Izen espezifiko elkartuen osaketarekin jarraituz, kopuruaren aldetik *mugakizuna* + *mugatzailea* (SAROEKAITZ) eta *mugatzailea* + *mugakizuna* (LANDERBASO) egitura dutenen artean ez dago alde handirik, nahiz eta aurreneko sailekoak gehixeago izan. Mami-mamiraino joz gero, garbi ikusten da *izena* + *izena* egitura dutenak nagusitzen direla eta, horien artean, *izen arrunta* + *izen arrunta* osaketa dutenak batez ere; horrelakoak *mugakizuna* + *mugatzailea* (LEGARR**ALDE**) zein *mugatzailea* + *mugakizuna* (**ERREKA**MUNTO) egitura duten toponimoetan aurki litezke. Zernahi gisaz, ongi begiratuz gero, aldea dago azken bi multzo horietako izenen artean, batzuk konkretuak direlako eta besteak ez.

Izena + *izenondoa* osaketa dutenak ere ugari dira, *izena* + *izena* multzokoak baino gutxiago izan arren. Ildo beretik, kolorezkoak ez diren izenondoak dituzten espezifiko elkartuak (LARRE**BIRIBIL**), kromotoponimoak baino naroagoak dira (LARRAIN**TXURI**).

Izen espezifiko elkartuei eskainitako lerrookin bukatze aldera, gure esparruan aurkitu ditugun osagaien zerrrenda dakargu[796]:

A. adar- (1625), -agerri (1855-1857), ainar- (1625), aitona-, aker-, -alde (1178), amil- (1178), amona- (1833-1845), angelu-, antzu- (1683?), apaiz-, -(h)arbe (1516), arka-?, arku-?, arran(o)-? (1566), arroila- (1853), -arte? (1920), -tarte (1547), aska-, asto-, ate-, -atxurtu, -aurre (1933), auzo- (1898), azeri-, -azpi (1794-1831). **B.** -bakoitz? (1467), baso- (1948) / -baso (1583), -behe (-*be*, 1625 / -*pe* 1574), belaze- (1920), bele-, -beltz (1794-1831), benta- (1870), -berri (1797), -bide (1429) / bide-, -biribil (1794-1831), bista-, -bitarte (1833-1835), -bizkar (1857), borda-, burkaitz-, burrunba- (burrunda-) (1794-1831), -buru (1548; -*puru*), buztan-, buztin- (1936). **D.** dontzeila- (1988). **E.** -eder (1467), egur- (1773), elorri- (1573) / -elorri (1989), erramu-, erreka- (1773) / -erreka (1730), eskale-? (1936), -etxe / etxe- (1853). **F**. -fin, fraide-. **G**. -gaitz (1780), gaizto-, -gaizto (1989), galdu- (1739), galtzada-, -garate (1739), gaztaina-,

[796] Izen espezifiko elkartuen sailean honako izen bereziak aurkitu ditugu: *Agustin*, *Anton*, *Bentura* (1831-1845), *Jeronimo* (1936), *Mari* (1628), *Maria Lopez* (1776-1794), *Martin* (1989), *Mikela* (1739) eta *Santson*.

gazte-?, gaztelu- (1937), goien- (1932), gorosti- (1516), -gorri (1739), -gozo (1794-1831), -guren (1794-1831), -gurutze (1797) / gurutze-. **H**. habaila (1923), haitz- (1826) / -haitz (1794-1831), haltz- (1625), hamahiru- (1920), -handi (1702), (h)arain- (1178), haran- (1773), harbel-, haritz- (1794-1831), harizti- (1739), harkaitz-, harri- (1547) / -harri (1889), hegazti-? (1989), hegi- (1797), hondar- (1989), hosto-, hurra- (1924), hurritz-? (1924), hurrizti-. **I**. -ibar (1178) / ibar- (1863), -ibi (1178), -ilun (1794-1831), inestor- (1739), intxisu- (1989), ipar- (1843), isats-? (*gisats*-) (1739), -iturri (1831-1845) / iturri- (1702) **J**. joko-. **K**. -kale, -kalte (1898), kanal-, kantari-, katamotz- (1889), katilu-, kuku-. **L**. labe-, lahar- (1548), -lanberri (1936), lander- (1583), langa- (1942), lapur-, larrain- (1794-1831), -larre (1956) / larre- (1683), lasai-, -lats (1467), legar- (1178), -lehor (-legor) (1797), leize- (1936), -lepo (1944) / lepo- (1920), -limuri (1831-1845), -lur (1920) / lur-, -luze (1702). **M**. -malda, mando-, markes-, -mendi (1625) / mendi-, motz- (1794-1831), -muga, -muino (1683) / muino- (1831-1845), -munto (1794-1831) / munto-, murko-?. **N**. nafar- (1911), notizia-?. **O**. oihan- (1429), okela-? (1739), oker-, ola- (1773), olatza- (1855-1857), -ondo (1569), osin- (1848), -osin, otadi-, ote- (1956), otso- (1944), otsorrai-? (1611), otxar-? (1611). **P**. pagadi- (1794-1831), pago- (1794-1831), pika-? (1569), piku-? (1569), polit- (1843), pototxo- (1730), -potzolo, presa- (1857), -punta, putzu-. **S**. -sagasti (1833-1845) / sagasti-, santu- (*santi*-, 1868), -saroi (1683), saroi- (1467), sasi-, sorgin- (1835-1837), -soro (1797-1833) / soro- (1857). **T**. tantai- (1921), teila- (1951), -tontor, tranpa-. **Tx**. txabola- (1797-1833), -txar? (1797), -txara ?, tximini-? (1989), txingurri- (1920), -txiki (1920), txori-. **U**. -ume (1101), unai- (1683; bunan-, 1554), ur- (1101). **X**. xanpain- (txanpain-) (1989). **Z**. -zabal (1848-1850) / -txabal (1831-1845) / zabal-, (1854), -zahar (zar, 1683), zear-, -zelai (1739) / zelai- (1739), -zoko / -txoko (1921) / txoko- (1889), zorbide- (1797-1833), zorrotz-? (1942), -zubi / zubi- (1683), zulo- / -zulo (1835-1837) / -txulo (1920), -zuri (1739) / -txuri (1870).

Lehen agerraldien diagrama

21.

	aitona-	aker-	angelu-	apaiz-	arku-
	aska-	asto-	ate-	-atxurtu	azeri-
	bele-	bide-	bista-	borda-	burkaitz-
	-*puru*	buztan-	erramu-	-etxe	-fin
	fraide-	-gaizto	galtzada-	gaztaina-	gazte-?
	gurutze-	harain-	harbel-	harkaitz-	hosto-
	hurrizti-	joko-	kanal-	kantari-	katilu- kale
	kuku-	labe-	lapur-	lur-	lasai-
	-malda	mando-	markes-	mendi-	-muga
	munto-	murko-?	notizia-?	oker-	-osin
	-potzolo	-punta	putzu-	sagasti-	sasi-
	-tontor	tranpa-	-txara ?	txori-	zear-
	-zoko	-zubi	zulo-		
1989	dontzeila-	-elorri	hondar-	intxisu-	xanpain-
1950	ote-	teila-	gaizto-		
	-arte?	-aurre	baso-	belaze-	buztin-
	eskale-?	gaztelu-	goien-	habaila	hamahiru-
	hurra-	hurritz-?	langa-	-lanberri	-larre
	nafar-	leize-	-lepo	lepo-	-lur
	ote-	otso-	tantai-	teila-	txingurri-
1900	-txoko	zorrotz-?	-txulo	-txiki	urde-
	-agerri	arroila-	auzo-	benta-	-bizkar
	etxe-	-harri	ibar-	katamotz-	-kalte santu-
1850	olatza-	presa-	soro-	txoko-	-txuri zabal-
	amona-	-bitarte	haitz-	ipar-	-iturri
	muino-	osin-	polit-	-sagasti	sorgin-
	-zabal	-txabal	-zulo	-limuri	
	-azpi	-beltz	-biribil	burrunba-	-gozo -guren
	-haitz	haritz-	-ilun	larrain-	motz- -soro
18.-19.	-munto	pagadi-	pago-	txabola-	zorbide-
	-berri	egur-	erreka-	-erreka	-gaitz
	galdu-?	-garate	-gorri	-gurutze	-handi
	harizti-	haran-	hegi-	inestor-	isats-?
	iturri-	lehor-	-luze	okela-?	ola-
1700	pototxo-	-txar?	-zelai	zelai-	-zuri
	adar-	ainar-	antzu-	-behe (*-be*)	haltz-
	larre-	-mendi	-muino	otsorrai-?	otxar-?
1600	-zahar	-saroi	unai-	zubi-	
	-(h)arbe	arran(o)-?	-tarte	-baso	-behe (*-pe*)
	-buru	elorri-	gorosti-	harri-	lahar-
1500	lander-	-ondo	pika-?	piku-?	
1400	-bakoitz?	-bide	-eder	-lats	oihan- saroi-
1200					
	-alde	amil-	-(h)arain	-ibar	-ibi legar- -ume ur-

8.3. Izen espezifiko eratorriak

Azpiatal honetan gure esparruko izen espezifikoen paratzizkiak, bukaerak eta atzizkiak hartuko ditugu ahotan eta, lehen-lehenik, informazioren antolaketarekin loturiko zerbait argitu nahi dugu: lotura nabarmena dutenean edota bata bestetik gertu daudenean, izen espezifiko edo izenburu nagusi beraren oinordeak diren toki-izenak ez ditugu banan-banan aztertuko (ikus I.1.1.§) eta, hori horrela delarik, *-aga* atzizkiaren sailean, esate baterako, AGINAGA izenburuaz esandakoa AGINAGAKO ETXOLA, AGINAGAKO TONTORRA eta AGINAGAKO ZABALA eratorriendako baliogarritzat jotzen dugu. Aldiz, forma bera urrun dauden tokietan kausituz gero kasu bakoitza bereiz aztertu dugu eta, adibidez, LIZARRAGA toponimoaren hiru erakusgarriei iruzkin bana egin diegu, bata baserriari, bestea saroiari eta hirugarrena izaera geografiko ezezaguna duen aipamenari, hirurek zerikusia izatea litekeena den modu berean, askotariko iturburuetakoak izatearen aukera ezin bazter litekeelako.

Hori argiturik, toponimoen azterketa egiterakoan erabilitako terminologia azalduko dugu orain. Hasteko, *atzizkiak*, *paratzizkiak* eta *bukaerak* bereizi ditugu. Atzizkiek izaera zein ibilbide ezaguna dute arrunki eta toponimo frankotan azaltzen dira, *-aga* edota *-(e)nea* kasu. Paratzizkiek ere sorburu jakina dute, baina, atzizkiak ez bezala, izenetan dute jatorria, behinola bereiz baliatu ziren osagaietan alegia, nahiz eta, denboraren buruan, atzizkiak balira bezala erabili diren. Bukaerek, azkenik, jatorri iluna dute eta, atzizkiekin alderatuz gero, toponimo gutxitan azaltzen dira. Gainera, azken horiek elkarren arteko lotura ulergaitza dute eta, ondorioz, maiz aski batzuek besteekin duten estekari antzematea zaila izaten da. Hitz bitan, atzizkiek eta paratzizkiek aldaera nahiko ezagunak dituzte, baina bukaerek ordea ez, eta, hori gutxi balitz, elkarren arteko harremanak ere ez daude oso argi.

Berebat, diogun paratzizkia, bukaera edo atzizkia kenduz gero gelditzen den zatiari *oinarria* deitu diogula, hau da, **GALTZADABERRI**ETA toponimoaren kasuan, adibidez, *Galtzadaberri*-ri; bestela esan, *oinarria* diogunean atzizki, paratzizki edo bukaeraren aurretik dagoenaz ari garela ulertu behar da betiere[797]. Oinarriak osagai bakarra (**AGIN**AGA) edota bat baino gehiago izan ditzake (**ORMAZARR**ETA; *[h]orma* + *za[ha]r*

[797] *Beko-* edota *goiko-* bezalako bereizgarriak ez ditugu kontuan hartzen hemen. Ikus 7 §.

+ *-eta*), izena eta izenondoa konparaziora. Atzizkiaren, paratzizkiaren edo bukaeraren aurretik osagai bakarra dagoenean (bakuna denean) zati horri *erroa* deituko diogu eta zati bat baino gehiago daudenean, edota hala irudi duenean, *oinarria*. Hortaz, *erro* guztiak *oinarriak* dira, baina *oinarri* guztiak ez dira *erroak*.

Atzizki, paratzizki eta bukaerek gure esparruko toponimian duten pisuari dagokionez, hiru izenburu nagusietatik batek atzizki, paratzizki edo bukaera toponimikoa du (% 31,5k). Ugarien aurkitu duguna, nabarmen gainera, *-eta* berrekailua da, aztertu dugun multzoaren barruan toponimoen %35'5k baitu osagai hori. Ondoren *-(e)nea* eta *-egi* daude, % 15'3 eta % 12'7rekin. *-Aga* eta *-zu* atzizkiak, bigarren horrek dituen aldaera guztiekin, aurreko bien erdira ez dira iristen (% 6'7 eta % 6'3) eta, ildo beretik, *-di* duten toponimoen kopurua txikia dela azpimarratu nahi dugu, 3'2 hain zuzen. Paratzizkiak eta bukaerak (*-ola*, *-arain*, ...), azkenik, corpus toponimikoaren % 12'4 dira guztira.





8.3.1. Paratzizkiak

8.3.1.1. -*Ola* paratzizkia

AITZOLA oronimoarekin hasiko gara (*haitz*? + *ola*, *ha[r]itz*? + *ola*). Lehenbiziko aipamena Barandiaranen 1926. urteko artikulu batean opatu dugu (*Aitzola*, JMB2, 121 or.) eta hurrengoak 1942. urtekoak dira; bi aldaera baliatzen dira mapa berean, bata bestearen ondoan, *Aitzola* (1942, IGC1) eta *Araichola*, (1942, IGC1). Bi urte geroago bikoiztasun hori bera errepikatzen da, *Aratzola ó Araitxola* (1944, GHO1) eta *Aitzola ó Descarga* (1944, GHO1) formak irakur baitaitezke mapa batean, eta orobat 1953. urtean (*Aitzola*, IGC2; *Araichola*, IGC2). Gainerako erreferentziak kartografiatik hartuak dira eta *Aitzola* (1962, UTC; 1980, IGN1, 1981, SGE2) azaltzen da; belarriz ere *Aitzola* ([ái̯tzolà], K.) jaso diegu berriemaile gehienei, nahiz eta, egon, *Aitzula*-ren ([ái̯tzulà], An. 2) lekukotasuna badagoen (*-tz-* + *-ola* > *-tzula*). Erroa *haitz* geonimoa zein *haritz* (< *haraitz*) fitonimoa izan liteke[798] (‘haitz ondoko abeltzain-azpiegitura’?, ‘haritzezko abeltzain-azpiegitura’?), gure esparruko hizkeran bokal arteko dardarkariak erortzea arrunta baita (*VrV* > *VØV*). Etimoaz ari garelarik, esan beharrean gara Urumeako Zilegimendietan, gaur, AITZOLA izeneko etxolarik ez dela ezagutzen, eta burdinolarik ere ez. Are gehiago: 1773 urteko mapa batean *Azarola* ipintzen du (ikus AZAROLA) egun AITZOLA dagoen tokian eta, bien idatzizko ibilbidea ikusirik, bata bestearekin lotuak egotea ez litzateke harritzeko.

AKOLA saroiaren erreferentzia zaharrena 15. mendekoa da, hain zuzen 1467. urtekoa (*Acola*, HUA5) eta ordutik sarritan ageri da idatzizko iturrietan, *Acola* formaz arrunki[799]; izan ere, salbuespen bakarrak 1683. urteko *Alcola* (HUA28) eta 1780ko *Arcola* (HUA39) dira. Berriemaileek ere *Akola* ([ákolà]) darabilte usaian. Oinarriaren nondik norakoari datxekionez, lehenik eta behin, *Arcola* forma ikusirik (1780), *Arku-*rekin lot liteke, are gehiago Aralarren abeltzaintzan erabiltzen ziren harrizko eraikin biribilei *arkuek* esaten zitzaiela aintzat hartzen bada. Etorki kontuekin jarraituz, 1683. urteko *Alcola* aldaera dela eta, aipatzekoa da, Baztango Haraneko Artxiboan dagoen

[798] Cf. *AV*, 77.

[799] *Akola* grafia 20. gizaldian lekukotzen da (1928, JMB3, 263, 268 or.; 1982, CAG, 191, 193 or.; 1983, IGN2).

Executorial Insertas[800] liburuan, *Alcola* (1584) izeneko saroia ahotan hartzen dela *Michelia* eliaz jardukitzean. Horrenbestez, *Arcola*, disimilazioz, *Alcola*-tik ateratakoa izan liteke (cf. ARKOROLA). Guztiarekin, zailtasunik handiena *Alkola* > *Akola* urratsa azaltzean datza[801].

AMUNOLA (*amona* [*amuna*] + *ola*) ere saroi-izena da, baina honen aurreneko lekukotasuna aurreko toponimoarena baino zaharragoa da, zehazkiro, 1178. urtekoa baita. Hasteko, sudurkari arteko bokal itxiaz landa, *-mm-* digrama nabarmendu nahi dugu, kasu horretan besterik ez delako azaltzen (*Ammunola*, IKA3). Hurrengo aipamenak 15. mendekoak dira eta bi forma irakur litezke, *Amunola* (1467, HUA5) eta albokari geminatua duen *Amunolla* (1467, HUA5). Ildo beretik, 16. mendean *Amunola de suso* (1516, HUA7), *Amunola de baxo* (1516, HUA7) zein *Amunola* (1538, HUA9) aurkitu ditugu, baina 17.ean gauzak aldatzen hasten dira: bokal artean, *-n-* ordez, *-r-* duen *Amurola* (1616, HUA24, 252 bin.) agertzen da estreinakoz (*-m-* — *-n-* > *-m-* — *-r-* disimilazioa), *Amunola*-rekin batera erabiltzen dena (1607, HUA23; 1625, HUA26, 51 bin.; 1683, HUA28). 18. mendean dardarkaridunak dira nagusi (*Amurola de Yuso*, *Amurola de suso*, 1769, HUA37; *Amurola*, 1773, VEK1; 1773, VEK1B; 1797, HUA41 / *Amorola*, *Amorola de Yuso*, *Amorola de suso*, 1773, VEK1; *Amorola arriba*, 1773, VEK1A) eta hustutako iturrietan, salbuespen moduan, *Amunola* (1773, VEK1A) formaren bi erakusgarri eta *Amonola*-ren (1780, HUA39) lekukotasun bat baizik ez ditugu aurkitu; kontuan har bi sailetan *-u-* — *-o-* > *-o-* — *-o-* disimilazioaren lekukotzak daudela. 19. mendean ere dardarkaria dutenak gailentzen dira[802] (*Amurola*, 1831-1845, UGR4, 21; 1833-1835, DUA3; 1860-1862, UTR10, 54 au.; 1863, HUA50 / *Amorola*, 1855, UEA1; 1857-1860, UTR9, 48 au.; 1860, UINGR2, 7258 zenb.; 1862, UINGR2, 8056 zenb.; 1868, DJE; 1870, HUA49; 1879, HUA49; 1889, HUA56), eta bokal artean *-n-* dutenak gutxi dira (*Amon-ola*, 1831, DUA2; *Amon-ola de suso*, 1838, DUA5; *Amon-ola de yuso*, 1838, DUA5; *Amonola*, 1870, HUA49). 20. mendean ez dago bokal artean *-n-* duen estenplurik, bai, ordea, *-r-* duten mostra ugari (*Amurolacoa*, 1900,

800 1748, Iruñea, Herederos de Martínez. "Sentencia arbitraria del 1584 entre el Monasterio y el Valle".

801 Albokariez diharduenean, Mitxelenak (*FHV*, 340) dio, inplosiboak badira, zerorekin txandaka litezkeela; alabaina, ez du uste disimilazio-galerak direnik, jatorri iluneko epentesiak baizik.

802 Gizaldi hartan Hernaniko *Amarola* (1847, JII, 34 or.; 1850-1852, UTR5, 39) azaltzen da aurrenekoz, ARRANBIDE aldean.

UEA2; *Amurola*, 1976, T. A., 16 or.; *Amorola maizterra*, 1900, UEA3; *Amorola nagusi*, 1900, UEA3; *Amorolazar*, 1969, UUA10N; *Amorola e Insausti*, 1951, UUA18; *Amorola*, 1969, UUA23). Mende horretan bertan, aurrekoekin batera, sudurkari ezpainbikoaren ondoren *-ue-* hiatoa duen aldakia topatu dugu lehenbiziko aldiz idazkietan[803] (*Amuela*, 1911, IM; 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1944, GHO2; 1953, IGC2; 1962, UTC; 1980, IGN1; 1981, SGE2; 1983, IGN2; *Amuelacelay*, 1944, GHO1; *Amuela-Zar* / *Amuelazar*, 1983, IGN2), egun ahoz baliatzen den aldaera[804] (*Amuela*, [ámuelà], K.). Erroan *amona* dago, pertsona-izen moduan erabili den ahaidego hitza, eta idazki zaharretan bokal itxiarekin azaltzen dena[805] (*Amuna*); hortaz, abeltzain-azpiegituraren erabiltzailea adierazten duen toponimoa da AMUNOLA[806].

ANDOLA[807] oikonimoaren aurreneko testigantzak 18. mendeko idazkietan aurkitu ditugu. Lehenbizikoa 1739. urtekoa da eta bigarrena urtebete beranduagokoa (*Andola*, 1739, HUA36; 1740, HUA30, 541 bin.) eta bi horiekin batera, gizaldiaren amaieran, *-azpi* eta *-be* (*behe*) bereizgarriak dituzten *Andolaspia* (1797-1833, HGR2, 59 au.) eta *Andolapia* (1797-1833, HGR2, 41 au.) jaso ditugu. Orobat 19. eta 20. mendeetan, betiere *Andola* erabiltzen delako idazkietan (1843, HUA43; 1863, HRU, 44 au.; 1857, HUA48, 45 or.; 1920, HUA57, 352 or. eta 1937, AB) eta bereizgarriak edota generikoak erantsiz sortutako formetan ere ez delako aldaketarik antzematen atzizkian[808] (*Andola azpia*, 1848-1850, HTR4, 10 au.; *Andolapia*, 1797-1833, HGR2, 49 au.; *Andolapea*, 1932, HUA57, 923 or.; *Andolachaga*, 1857, HUA54, 39 or.). Berriemaile guztiek, bestetik, *Andola* ([ándolà], K.) ahoskatzen dute (cf. *Andolatxa* [ándolatxà], K.; ANDOLATXAGA). Erroan ANDOAIN toponimoan 15. menderako ageri den[809] *Ayndu-* / *Ayndo-* (**Aindula* / **Aindola*?) egon liteke.

---

[803] Cf. Donostiako *Arburola* (1719) > *Arbuela* (1841).

[804] Bilakabidea *Amunola* > *Amurola* > **Amuola* > *Amuela* izan da eta azken urratsa asimilazio-disimilazioz burutu dateke. *Amula* (1989, UUTB), *Amonazar* ([ámonazàr], Ai.) eta *Amola* ([ámolà], Txim.) formak itxuratxartzetzat dauzkagu, ebakitzen dituzten informatzaileek *Amuela* baitarabilte arruntean. Cf. Goizuetako *Amonamozko kaxkoa* (*Mugarriko kaxkoa*); Etxeberria (1988: 112).

[805] Cf., adibidez, *Amunna Maura* (1052-1054); Libano (1995: 248). Ikus Luchaire (1881: 159) eta Gorrotxategi Txurruka (1984: 363-364).

[806] Cf. Gamizko *Amunuri* (1704) oikonimoa; Kerexeta (1992: 132). Ikus *AV*, 484.

[807] Azpilkuetan (Baztanen) *Andola* (1712) toponimoa dago (*NTEM-LII1*, 167) eta Oiartzunen *Aiendola* oikonimoa (Goikoetxea & Lekuona (2007: 55).

[808] Larraulen *Andolalde* izeneko bizkarra dago, Alkizako mugatik gertu (1995, LRM).

[809] *-ain* bukaera duten toponimoen zerrendan Zarikiegiko (Zizur zendeako) *Aindurain* aipatzen du Jimeno Juriok (1986: 257) eta izen horren lekukotasunen artean *Andolain* eta *Andulain* daude (1717-

ANTSOLA / ANTZOLA espezifikoak bi erakusgarri ditu gure esparruan, biak ihartuta dauden arren (*Anzola*, 1797, HUA41; *Ansola*, 1936, HUA57, 176 or.). Irudi du lehen osagaia *Antso* pertsona-izena dela, baina bada beste aukerarik, konparazio batera, eta *-z-*duen forma badenez gero, Hernani bertako ANTZIOLA toponimoarekin izatea zerikusia[810] (*Ansiola*, 1739, HUA36).

ARKOROLA ere idatzizko forma da, mostra bakarra 1628. urteko izkribu batean aurkitu baitugu (*Arcorola*, DUA1). Esan gabe doa hain informazio gutxirekin *Arcor-*osagaiaren nondik norakoa antzemanezina dela; eskribauaren erratu edota berreraikitzeren bat dela medio, ez litzateke harritzeko AKOLA toponimoaren itxuratxartze baten aurrean egotea.

ARITZOLA (*haritz* + *ola*). Lehen-lehenik jakitera eman beharra dago hau ez dagoela Urumeako zilegimendietan, Urnietako herrigunetik gertu baizik. Hain zuzen, dorretxe izandako baserriaren lehen erreferentzia 1566. urtekoa da (*Ariçola*, LMZ, 161 or.) eta gure esparruko eraikinarena 18. mendearen amaierakoa (*Borda de Arizola o Cherritegieta*, 1797-1833, HGR2, 67 au.); 19. mendeko erakusgarriak *Arizolaborda* (1850-1852, UTR5, 41 au. eta 1855, UEA1), "... *borda de Arizola* [...]" (1863, HRU, 53 au.), *Arizola e su Borda* (1863, URU, 145 au.) zein *Arizola-borda* (1857, HUA48, 71 or.) dira. 20. mendean dardarkaria galdu duten lekukotasunak azaltzen dira aurreneko aldiz (*Aizolaborda*, 1911, IM; *Aitzolaborda*, 1925, LMZ, 161 or.), kontsonante hori gordetzen dutenen ondoan (*Aritzola-borda*, 1951, *monte bajo*, UUA18; *Aritzolaborda* (1979, UUA20) eta, espero izatekoa zenez, berriemaileek dardarkaria gabe ebakitzen dute (*Aitzola* [ái̯tzolà], K.; *Aitzolaborda* [ái̯tzolabordà], K.), bertako euskaran horrela egiten baita normalki.

1925). Badira *Andulain* gehiago, Imarkoain edota Goñerrian konparaziora. Bestalde, Bearinen (Deierrin) *Anduela* (1552) dugu, *Andu*-tik etor litekeena ('cepa'). Baztango *Andola* ere sail berekoa litzateke, Sainz Albero eta Sainz Pezonagaren aburuz (2002: 40-41). Cf. *andur* 'ruin, pequeño'; Salaberri (2005: 116).

[810] Gipuzkoako *Antzuola* herriarekin ere izan dezake lotura (ikus *AV*, 60).

Bi dira gure esparruan ARROLA izena duten tokiak[811], bata Urnietakoa eta bestea Aranokoa. Urnietakoaren aurreneko lekukoak 18. mendearen amaierakoak dira (*Arrola*, 1794-1831, UGR3, 12 au., 19 au.) eta azkenekoak, berriz, 19. mendekoak (*Arrola*, 1831-1845, UGR4, 23 au. eta 1863, URU, 147 au.); informatzaileek ere aldaera hori darabilte (*Arrola* [árrolá], Ai., Bent.). Aranokoaren idatzizko adibide bakarra 1898. urteko *Arroyo de Aola* (EGZ) da eta belarriz *Aola* ([áolà], Lor. b.) zein ezpainbikoaren epentesia erakusten duen *Abolaerreka* ([ábolaerrekà], Lor. b.) bildu ditugu guk, nahiz eta *Arrola* (1989, HUTB) aldaera ere jasoa dagoen. Bi toponimoek iturburu bera dutela ezin da baieztatu, besteak beste Aranokoan ikusten den bokal arteko dardarkari anizkunaren erortzea euskaraz ez delako arrunta, bestela esan, kontsonante hori jatorrizkoa den argi ez dagoelako (cf. EGURROLA). Nolanahi ere den, *Arrola* formak bi etorki izan ditzake[812], *harri* + *-ola* eta *harro* + *-ola*, egia aitortze aldera, lehenbizikoa egiantz handiagokoa iruditzen zaigun arren.

ARTOLA / ARTOLEA bikoarekin aurrekoekin gertaturikoa errepikatzen da hein batean, ale bat baino gehiago baitaude gure esparruan; jatorrizko formari eutsi diotenekin hasiko gara. Astigarragan, konparaziora, *Artola-borda* (HUA48, 40 or.) baserria dugu 1857. urtean eta ahoz ere *Artolaborda* ([ártolabordà], Goi., Erm.) esaten zaio. Hernanin bada beste *Artolaborda* ([ártolabórda], Txim.) bat, berriemaile bakarrak aipatzen duena. Bestetik, analogiaren lekuko den[813] ARTOLEA oikonimoa dugu Urnietan eta horren aipamen zaharrena 16. mendekoa da, 1555. urtekoa hain zuzen[814] (*Artolea*, HUA16). Berriemaileek albokariaren ondoren *-ia* hiatoarekin ahoskatzen dute (*-ea* > *-ia*) eta orobat Urumeako zilegimendietan dagoen *Artolian borda* ([ártoljàn bordà], Ai., Larr.) eratorriaren kasuan. Mitxelenaren (*AV*, 483) irudiko erroa *ardi* zoonimoa dateke, baina, gure irudiko, osaketa *arte* + *ola* ere izan liteke (‘erdiko ola’, cf. ARTAMUGARRI).

811 Dakigula ez da saroirik egon ez batean eta ez bestean, ezta burdinolarik ere.
812 *AV*, 90.
813 Muxika (1996: 231).
814 Idatzizko gainerako etsenpluetan *Artolea* aurkitu dugu (1855, UEA1, 1857, HUA48, 71 or.).

ASOLAMAKIO[815]. Hasteko, esan dezagun saroi-izen honek *-ola* osagaia ba ote duen ez dela segurua, egotekotan amaieran egon beharrean hitz barruan legokeelako[816] (*Asola* + *maki* + *o*?). Idatzizko tradizioan duen ibilbideari erreparatuz gero, aurreneko mostra 1683. urtekoa da eta txistukariaren eta albokariaren artean *-u-* bokal itxia dago (*Asulamaquio*, 1683, HUA28), baina hurrengo agerraldian, 1769. urtean, *-o-* bokala dugu lekune horretan (*Asolamaquio*, 1769, HUA37). 1773. urteko bi mapatan ere ageri da eta bana aldaera dituzte (*Asulamaquio*, 1773, VEK1A / *Asolamaquio de Granada*, 1773, VEK1B). 19. mendeko idazkietan gaurko ahoskeratik hurbil dauden *Esola-maquil* (1852-1854, HTR6. 15 au.) zein *Esolamaqui* (1863, HRU, 47 au.) aurkitu ditugu eta. 20. mendean molde berekoa den *Esolamakil* (1960, UZA) / *Esolamaquil* (1989, GS) nahiz jatorrizko bokal irekiari eutsi dion *Asolamaki* (1951, *monte bajo*, UUA18). Berriemaileek, bestetik, hitz hasieran bokal erdikoarekin ahoskatzen dute (*Esolamaki* [ésolamakì], Ai. / [ésolamáki], Amu.; *Esolamakill* [ésolamakillèn], Ai., *in.* / [ésolamákill], Amu.) eta, ildo horretan, ohartarazi nahi dugu, gure ustez, *Esolamakil* aldaera herri-etimologiaren ondorioa dela (*hesola* + *makil*).

AZAROLA[817]. Honen erreferentzia zaharrena 1538. urtekoa da (*Açarola*, HUA9) eta 1683. urteko idazki batean ere ageri da, baina bigarren adibide horretan erratua dirudi, *-z-* dugulako dardarkariaren ordez (*Acazola*, HUA28). Kausitu ditugun beste bi lekukoak *Azarola* (1773, VEK1A) eta *Asarola* (1833-1835, DUA3) dira. Osaketari doakionez, lehen osagaia *azari* izena izan liteke eta argitu beharra dago 1773ko mapan (VEK1A) *Azarola* egun AITZOLA izenaz ezagutzen den mendia dagoen tokian azaltzen dela.

---

[815] Lezaunen (Deierrin) *Solomaki* aurkintza dago (*NTEM-XXVI*, 72).

[816] *Asuela* (*Asuola*, 1429) / *Asula* (1480) izeneko lekuak daude Arrasaten, Zaldibarren zein Garagartzan (Ormaetxea, 1996: 420, 112). Iratin bada *Asolatze* izeneko lekua ere (*NTEM-XXX*, 196) eta *Asolame* izeneko aurkintzak daude, bestetik, Zaraitzuko zenbait herritan, Galozen (*Asurame*, 1701), Izizen (1891) eta Gorzan (*NTEM-XXX*, 85, 90, 126) adibidez. Berebat, *Azolaazpikoa*, *Azolagañekoa* eta *Azolaigartza* izeneko baserriak ditugu Eibarren; aurreneko aipamena 15. mendekoa da eta *s*-z idatzirik ageri da, (*Asola*; San Martin, 2000: 54); cf. hango *Asolaerreka*, *Asolagaña* eta *Asolaurrea* toponimoekin (Eibarko Udala eta Ego Ibarra Batzordea, 1995: 113). Etxalarren (Bortzirietan) *Asolaborro* (*Asolavorro*, 1713) toponimoa dugu (*NTEM-IL*, 133) eta, azkenik, *Solamacur* (1703) izeneko lekua dago Antzinen (Egaibarren), aidanez, "pieza torcida" esanahia duena (*NTEM-XXIV*, 52).

[817] Cf. Olaberriko *Azarola* (1997, OM) edota Ataungo *Azarolaberri* zein *Azarolazar* baserriak (1999, ATM).

Bi dira gure esparruan BAZTERROLA izeneko tokiak, bata Hernanin eta bestea Urnieta aldean. Hernanikoa burdinola izan zen aspaldi eta idatzizko lehen erreferentzia 1573. urtekoa da; ahoz bezala, *Bastola* erabiltzen da (*Bastola la nueba*, 1573, HUA19, 7 bin.), baina handik aurrera, 20. mende arte, forma osoa baliatzen da, izan *-s*-rekin, izan *-z*-rekin (*Basterrola*, 1610, HUA25; 1797, HUA41; 1773, VEK1B; *Bastterrola*, 1773, VEK1; *Bazterrola*, 1843, HUA43; 1864, HUA47). Esan bezala, 20. mendeko idazkietan *Bast(a)ola* / *Bazt(a)ola* gailentzen da (*Baztaola*, 1920, HUA57, 217 or.; *Bastaola*, 1923, HUA57, 797 or.; *Bastola*, 1944, GHO2), forma osoa ere topatu dugun arren (*Basterola*, 1944, GHO1; *Basterola*, 1983, GFA2). Gisa berean, berriemaileengandik *Bastola* ([bástolà], K.) jaso dugu guk, baina *Basterola* (1989, HUTB) ere bildua dago. Urnietako BAZTERROLAri buruz, adieraz dezagun idatzizko lekuko bakarra 19. mende erdialdekoa dela (*Bazterrola*, 1831-1845, UGR4, 27 au.) eta informatzaileek *Bastola* ([bástolà], K.) ebakitzen dutela. Alabaina, Hernanikoa ez bezala, oronimoa da hura eta, dakigula, ez da burdinolarik egon han. Hortaz, *bazter* izena da erroa bietan eta uste izatekoa da, zenbait aldiz, espezifikotzat erbili dena aurretik izen generikoa izan zela[818] (‘erreka ondoan dagoen burdinola’).

GORROTOLA / BORROTOLA (*gorroto* + *ola*). Lehen testigutza 1538. urtekoa da (*Gorrotola*, HUA9) eta bada 1668ko erakusgarri bat ere (*Gorrotola*, HUA27, 125 bin.); hirugarrena 1730koa da eta zati generikoa du (*Gorrotola Macurra*, HUA35). Ikusten den bezala, hiru erreferentzia horietan herskari belarra dago hitz hasieran, baina aldaera hori ez da gehiago lekukotzen, gainerakoan, ezpainbikoa duen aldakia kausitu dugulako tradizio idatzian (*Borrotola*, 1797, HUA41; 1797-1833, HGR2, 51 au.; 1920, HUA57, 70 or.; 1944, GHO1; GHO2). Orobat ahozko iturriari doakionez, berriemaileek hitz hasieran herskari ezpainbikoarekin ahoskatzen baitute (*Borrotola* [borrotóla], Fag.; *Borrotolako itturriya* [borrótolakò ítturriyà], Txab. 2). Jatorrizko forma *Gorrotola* dela ikusirik, oinarrian *gorroto* izen ez konkretua dagoela pentsa liteke, baina mendi baten izenak horrelako osagaia izatea ez da ohikoa, Urumeako Zilegimendietan bederik. Hipotesi bat *gorroto* izengoitia izatea da.

---

818 Uztarrozen (Erronkarin), esaterako, *Zierrola* (*Cierrola*, 1828) dugu (*NTEM-XIV*, 209). Hor daude, hala berean, *agorrola*, *haizeola* eta *mendiola* generiko ezagunak ere.

BURRUNTXOLA oronimoaren idatzizko lekukotasunik ez dugu aurkitu eta belarriz *Burruntxulo* (1989, UUTB) eta *Burruntxola* ([burrúntxolà], Benta.) aldaerak daude bilduak. Etorki iluna du eta hain informazio urriarekin ezer gutxi argi liteke (cf. URRUNTZALEKUETAKO BORDA). Are gehiago: litekeena da *-ola* paratzizkia egon beharrean *etxola* hitza egotea.

Gure esparruan bi erakuskari dituen beste toponimo bat dakargu jarraian. Izan ere, EGURROLA izena duten bi izaki geografiko daude, Hernanin bata eta Urnietan bestea. Hernanikoa saroia da eta 1516. urtean lekukotzen da lehenbiziko aldiz; dardarkari ahula du, eta hori salbuespena da (*Hegurola*, HUA7), gainerakoan *Egurrola* opatu baitugu idazkietan (1607, HUA23; 1773, VEK1; 1797, *arroyo*, HUA41; 1797, *partida*, HUA41; 1838, DUA5; 1893, C.E. 129 or.; 1889, HUA52; *Egurolla*, 1932, HUA57, 391 or.). Bestetik, Urnietako baserriaren aurreneko agerraldia 17. mendekoa da, 1610. urtekoa hain justu (*Egurrola de Yuso*, 1610, L.M., 163 or.) eta hurrengoa, berriz, 1625. urtekoa; dardarkari ahularen grafemarekin idatzia dago (*Egurola*, 1625, LMI, 102 or.), baina gainerakoan *Egurrola* aldaera nagusitzen da (1794-1831, UGR3, 14 au.; 1776-1794, UGR2. 4 au.; 1855, UEA; 1857, HUA48, 71 or.; 1920, HUA57, 336 or.; 1931, UUA8; 1951, UUA18; 1964, UUA10J). Zehatz dezagun *-o-* bokal erdikoa galdu duten *Egurla* (1900, UEA2) nahiz *Egurlacoa* (1900, UEA2) topatu ditugula 20. mendean, *Egurola* formaren hiru lekukotasunekin batera (*Egurola*, 1900, UEA3; *Egurola lache*, 1900, UEA3; *Egurola*, 1979, UUA20). Berriemaile guztiek *Eula* ([éu̯là], K.) aldaera darabilte[819] eta bilakabidea *Egur(r)ola* > *Egurla* > **Eurla* > *Eula* izan da, horrenbestez. Hitz bitan, sinkoparen etsenplu baten aurrean gaude[820], eta ez dira asko horrelakoak gurean. Azkenik, bistan dago osaketa *egur* + *ola* dela (‘egurrezko abeltzaintza-azpiegitura’, cf. LASTOLA).

[819] Orobat jazo da EGURROLABORDA toponimoaren kasuan: *Egurrola borda* (1831-1845, UGR4, 25 au.), *Eulaborda* (1911, IM), *Egurola-borda* (1951, *herbal*, UUA18), *Eulaborda* ([éu̯labordà], K.). Ildo beretik, Oiartzunen *Egurrola* oikonimoa dago eta egun *Eula* esaten zaio (Goikoetxea & Lekuona, 2007: 119); Tolosan ere *Eula* (1547, 1548...) oronimoa dugu (Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio, 2006: 195).

[820] “Si precedía vocal, el átono *-ola* pasaba, pues, a *-ula*; pero si había una *r*, la o átona caía del todo: en el departamento de Bajos Pirineos hay nada menos que 5 *Ibarla* por *Ibarrola*”; Coromines (1972: 305).

ELOLA oikonimoaren idatzizko aipamenak berandukoak dira (*Elola*, 1937, A.B.; 1944, GHO2; 1983, GFA2) eta ahoz forma bera erabiltzen da (*Elola* [élolà], K.). Kanpotik etorritako deitura da gurean, ez bertako izena (eli + ola?).

ERRENTERIOLA ihartutako toponimoa da. Aurreneko erreferentzia Isastiren historia liburuan topatu dugu, 17. mendean (*Renteriola*, 1625, LMI, 234 or.), eta bildutako beste bi lekukoak *Rentteriola* (1773, VEK1) eta *Renteriola* (1893, C.E., 131 or.) dira. Agerikoa da oinarria *Renteria* / *Errenteria* makrotoponimoa dela, eta ez da harritzeko, hango udalarena baitzen burdinola.

GISASOLA gure esparruko etxe bati izena eman dion deitura da. Bi hitz honi buruz: informatzaileek *Gisasola* ([gísasolà], K.) ebakitzen dute eta toponimoaren etimoa *(g)isats* + *ola* da irudiz[821], baina, nolanahi ere den, hitz hasierako herskaria berri samarra izan daitekeela nabarmendu nahi dugu (ikus ISASOLA).

IEROLAko (*ihar* + *ola*) bi saroiak, horrelakoetan ohi denez, bata besteari itsatsita daude. Agirietako erreferentzia zaharrena 12. mendekoa da eta, horrenbestez, idatzizko ibilbide luzea du (*Eierala*, 1178, IKA3). Hurrengo mostra 15. mendekoa da eta bigarren agerraldi horretan *Igarr-* irakurtzen da lehen zatian, hots, kontsonantea dago hiatoan (*Iñigo de Igarrola*, 1467, HUA5), aurrenekoan ez bezala. 17. mendean bokal arteko belarra gabe ageri da berriz (*Yerola*, 1683, HUA28) eta 18. mendean denetarik dago, idazki berean aldaera ezberdinak erabiltzen baitira behin baino gehiagotan. Alde batetik, hitz hasieran *Yer-* duena dugu, *Yerola* (1769, HUA37; 1773, VEK1B; 1797, HUA41) kasu eta, bestetik, *Iguer-* duen *Iguerola* (1797, HUA41); herri-etimologia dirudien *Yraola* (1773, VEK1A) ere kausitu dugu. 19. mendean *Iguerola* (1864, HUA47; 1857, HUA48, 46 or.), *Yraola* (1870, HUA49) eta *Iorla* (1898, EGZ) / *Iorla-berri* (1898, EGZ) baliatzen dira idazkietan, eta orobat 20. mendean, *Iguerola* / *Yguerola* (1920, HUA57, 392 or.; 1932, HUA57, 254 or.; 1937, AB; 1937, AB; 1937, HUA57, 35 or.), *Igarola* (1911, IM; 1911, IM; 1944, GHO2; 1944, GHO2), *Iraola* (1920, HUA57, 634 or.) / *Iraola berri* (1920, HUA57, 634 or.) eta *Iola bekoa* (1983, GFA2) / *Iola goiko* (1983, GFA2) formak jaso baititugu. Berriemaileei *Iyola* ([íyolà], K.) aldaera entzun

[821] Ikus *AV*, 281.

diegu elkarrizketa guztietan eta salbuespen bakarra *Iyorlako itxuan etxia* ([íyorlakò ítxuàn étxià], Altz.) da[822]. Laburbilduz, irudi du hasierako *I*-k *ei* diptongoan duela sorburua (*Ei-* > *I-*) eta *-g-* epentetikoa duten formak 15. gizaldian agertzen direla. Hain garbi ez dagoena da ahozko tradizioko sabaiko herskaria *-g-*ren oinordea den edo *Io-* ihatoa desegiteko garatu ote den. Amaitzeko, diogun toponimoak izendatutako tokiak ez dituela errota edo *igara* izateko beharrezkoak diren baldintzak, mendian baitago.

ISASOLA. Honen lekuko bakarra 1773. urtekoa da (*Ysasola*, 1773, VEK1) eta, burdinola zela kontuan izanik, jabeen deitura izatea ez litzateke harritzeko. Zentzu horretan, daitekeena da GISASOLArekin egotea lotua.

KARRAMITXOLA oronimoaren lehen agerraldia 1683. urtekoa da (*Carramichola*, HUA28) eta bigarrena (eta azkena) 1773ko mapa batean dago (*Caueza de Caramichola*, VEK1A). Ahozko tradizioan *Karramitxola* ([kárramitxolà], Amu. / [karrámitxolà], Pag., Txim.) eta *Karramintxola* ([karrámintxolà], Txim.) aldaerak jaso ditugu guk, baina *Karramitxuloko itturriya* (1989, HUTB), *Karramintxuloko lepua* (1989, HUTB) eta *Karramontxola* (1989, HUTB) ere gordeta daude. Etorkia ezezaguna da, nahiz eta, beharbada, bigarren osagaia *etxola* izan. Esan moduan, ez da saroia, eta burdinola ere ez.

KARTOLA[823] toponimoa dela eta, hasteko, esan dezagun iturburua *Kartola* edo *Kartolaerreka* den ez dagoela argi. Izan ere, aipamen zaharrena ur-ibilguarena da, 1683. urteko dokumentu batean *Cartolaerreca* (HUA28) eta *Cartola Erreca* (HUA28) baitaude izkiriaturik; gainera, idatzizko aipamen gehienak hidronimoarenak dira (*Cartolaerreca*, 1773, VEK1A; *Cartola erreca*, 1780, HUA39; *Cartola-erreca*, 1797, HUA 42; *Cartolerreca*, 1833-1835, DUA3; *Kartola-erreka*, 1935, HUA57, 151 or.) eta bigarren zatia ez duen idatzizko adibide bakarra, Iztuetak idatzitakoa, 1847. urtekoa da (*Gartola*, 1847, JII, 34 or.). Haatik, ahoz *Kartola* ([kártolà] (K.) oronimoak *Kartolako*

[822] *Igarola* (1989, HUTB), *Iraola* (1989, HUTB), *Iraulako egiya* (1989, HUTB) eta *Igerola* (1989, HUTB) formak ere zerrendatuta daude.

[823] Elizondon (Baztanen) *Gartola* izeneko aurkintza azaltzen da 1705. urteko idazki batean; *NTEM-LII3*, 47.

erreka [kártolakò érreká], Amu.) hidronimoak adinako hedadura du[824], nolabait esan. Etimoak garraioarekin izan dezake zerikusia (< *kartola*[825]) eta, zentzu horretan, bide zaharraren hondakinak daude oraindik han.

LASTAOLA[826] saroiaren aurreneko aipamena, IEROLArena bezala, 1178. urtekoa da (*Lastaola*, IKA3) eta orduz geroztik ugari agertzen da idazkietan, han eraiki hiru baserrien karietara batez ere. Alde batetik *-ao-* hiatoari eutsi dion aldaera dago, hots, *Laztaola* (1797-1833, HGR2, 45 au.) / *Lastaola* (1797-1833, HGR2, 56 au.; 1797-1833, HGR2, 58 au. eta 61 au.; 1855-1857, HTR8, 22 au.; 1863, HRU, 42 bin.; 1920, HUA57, 693 or.; 1937, AB; 1944, GHO1; 1944, GHO2; 1969, BG; 1979, RMH; 1982, GFA1; 1983, IGN2) eta, bestetik, *-a + ola > -ola* murriztapena izan duen *Lastola* lekukotu dugu (1467, HUA5; 1576, HUA20, 8 au.; 1702, HUA29; 1739, HUA36; 1740, HUA30, 541 bin.; 1797-1833, HGR2, 49 au.; 1797-1833, HGR2, 55 au.; 1797-1833, HGR2, 70 au.; 1843, HUA43). Hain zuzen, ahoz bigarren forma hori besterik ez dugu jaso ([lástolà], K.). Erroak *lasto* (*lasta-*) izenarekin duke zerikusia, eta ez *lats*-ekin, besteak beste, *lats*-etik *Lastola* (*edo *Latsola*) izanen genukeelako[827] (ez *Lastaola*); horrez gainera, handik ez da errekarik igarotzen, URUMEA urruti egon ez arren. Mitxelenak (*AV*, 397) Oihenarten azalpen adierazgarria biltzen du: *lastola* <<cabaña hecha de paja>>.

MATITXOLA izen espezifikoaren idatzizko erreferentziak fidagarriak ez diren 20. mendeko lau mapatan daude. Bi forma azaltzen dira, erratua den *Maicholaco* (1962, UTC eta 1981, SGE2) zein zuzenagoa dirudien *Matichola* (1942, IGC1; 1953, IGC2) / *Maticholaco-gaña* (1942, IGC1; 1953, IGC2). Ahozko tradizioari dagokionez, informatzaile bakarrak aipatzen du *Matitxola* ([matítxolà], Lor. b.). Osaketa *Mat- + etxola* zein *Mati(tx)- + -ola* izan liteke eta alde horretatik, oinarria *Mati(tx)-* balitz ez litzateke harritzeko pertsona-izena izatea (*Martitx*?).

---

824 Cf. Luzuriagako (Donemiliaga) *Cartolamendi* (1625); Lopez de Gereñu (1989: 147).

825 'Zamariek zama hobeto eramateko erabilitako zurezko tresna'. Gurdiari alboetan ezarritako oholei ere *kartola* esaten zaie. Cf. Sainz (2004: 86).

826 Cf. Segurako *Lastaola* baserria (1997, SM) edota Lesakako (Bortzirietako) *Lastolea*, (*Lastolea*, 1795; *Lastola*, 1835; *NTEM-IL*, 228).

827 Cf. *FHV*, 364.

MAKUTSOLO 12. gizaldian dokumentatzen diren hamabost saroietako bat da (1178, *Macurssola*, IKA3), baina honen idatzizko ibilbidea hor amaitzen da. Berriemaileengandik *Makutsulo* ([makútsulò], Ezk. b. eta Lor. b.) eta *Makutsolo* [makútsolò] (Lor. b.) aldaerak jaso ditugu eta itxuraldaketa horiek, antza denez, herri-etimologiarekin dute zerikusia hein batean, arrazoi fonetikoak egon badaitezke ere, asimilazio-disimilazioak konparaziorako. *Makurts*- erroaren nondik norakoaz[828] lehen-lehenik oroitarazi nahi dugu *-rts*- kontsonante-multzoa urria dela begiratu dugun dokumentazioan eta, bigarrenik, Mitxelenaren (*FHV*, 272-273) iduriko, *M(a)*-izen-aurrizkia egon dela euskaraz, duela gutxi arte emankorra izan dena eta, hain zuzen, *mak(h)ur* (‘inclinado, arqueado, torcido’) litzateke Errenteriako ikertzaileak dioenaren erakuskari bat[829].

NAGIOLA (*nagi* + *ola*) forma ihartua da eta 18. mendearen amaieran kausitu dugu (*Nagiola*, 1794-1831, UGR3, 16 au.). Erroa *nagi* izenondoa dela dirudi, baina, zoritxarrez, saroia, burdinola edo oronimoa den ezin jakin.

PAGOALERDI oikonimoaren lekukorik zaharrena 18. mendearen amaierakoa da (*Pagoalerdi*, 1794-1831, UGR3, 7 au.) eta 19. mendean forma hori bera dugu idazkietan, 20. mendean *Pagolardi* aldaera nagusitzen den arte. Espero izatekoa zenez, badira salbuespenak eta 1863. urteko agiri batean, adibidez, *Pagolardi* (URU, 155 bin.) irakur daiteke. 20. gizaldiko iturriei erreparatzen badiegu, 1969an *Pagoalerdi-garaikoa* (UUA10N) azaltzen da, baina *Pagolerdi* (1900, UEA3) ere jaso dugu eta ahozko tradizioan *Paulerdi* ([páu̯lerdì], K.) aldaera baliatzen da. Toponimo hau atal honetan sartzearen arrazoia, 18. eta 19. mendeetako *Pagoalerdi* formaren argitan, iturburua **Pagolaerdi* izan litekeelako ustekizuna da, *l — a* > *a — l* metatesia dela medio. Nolanahi ere den, garbi dago lehen osagaiak *pago*- zuhaitz izenarekin duela zerikusia (*pago* + *ola* + *erdi*?).

---

828 *Makutso* oikonimoa 15. gizaldirako azaltzen da Oiartzunen; Goikoetxea & Lekuona (2007: 227).

829 Errenteriakoaren ustez, aurrizki sudurkaridunak prozedura adierazkor nahiko berriak dira normalki, bokalez hasten diren hasierako hutsune horiek betetzeko aukera baliatu dutenak, lekune horren ahultasunaren ondorioz.

PARDIOLA[830] oikonimoaren lehenbiziko lekukotzak 18. mendearen amaierako agirietan aurkitu ditugu guk (*Pardiola*, 1794-1831, UGR3, 11 au., 14 au. eta 18 au.; 1797, HUA41) eta gainerako iturrietan forma bera errepikatzen da[831] (*Pardiola*, 1831-1845, UGR4, 21 au.; 1831-1845, UGR4, 26 au.; 1831-1845, UGR4, 21 au.; 1843, HUA43; 1850-1852, UTR5, 41 au.; 1855-1857, HTR8, 22 au.; 1863, HRU, 47 bin.; 1863, URU, 148 bin.; 1864, HUA47; 1857, HUA48, 46 or.; 1936, HUA57, 309 or.; 1936, HUA57, 176 or.; 1944, GHO2; 1948, UUA16; 1951, UUA18), ahozko tradizioa barne (*Pardiola* [párdiolà], K.). Alabaina, Aragonek (2001: 46) *Pardiolaguiz* saroia biltzen du Hernanin 1643. urteko agiri batean (**Pardiolagaitz*?) eta, formaren aldetik ez ezik, historiaren aldetik txoil garrantzitsua da erreferentzia hori, besteak beste lehen osagaia gaztelaniazko *Pardina* (‘saroia’) izan litekeelako hipotesia indartzen duelako[832], hots, *Pardiola* balizko **Pardinola* batetik letorkeelako ustekizuna sendotzen duelako[833].

TXAROLA (*txara* + *ola*) oikonimoak 18. mendearen amaierako lekukotsunak ditu eta hiruretan dardarkari ahula dago bokal artean (*Charola*, 1797-1833, HGR2, 54 au.; 1797-1833, HGR2, 54 bin.; 1797-1833, HGR2, 58 au.). Hurrengo mostrak 19. mendekoak dira eta ezpainbikoa duen *Chabola* irakur liteke orduko (1833-1845, HGR3, 79 au.; 1843, HUA43), dardarkaria duen *Charola* aldaerarekin batera (*o Elurzulo*, 1833-1845, HGR3, 80 au.). Begiratu ditugun beste idazkietan *Chabola* (1863, HRU, 46 bin.; 1864, HUA47; 1857, HUA48, 45 or.; 1898, EGZ; 1927, HUA57, 14 or.) / *Chavola* (1911, IM; 1920, HUA57, 7 or.; 1929, HUA57, 339 or.; 1980, IGN1) erabiltzen da eta informatzaile guztiek ere *Txabola* ([txábolà], K.) ebakitzen dute. Erroa *txara* da, *-r-* > *-b-* aldaketa gertatu dela agerian baitago.

UNTZOLA (*huntz* + *ola*). Toponimo ihartu honen agerraldi zaharrena 1683. urtekoa da (*Uncela*, HUA28) eta bigarrena, eta azkena, berriz, 1773. urtekoa (*Uncola*, 1773, VEK1A). Lehen osagaia *huntz* dateke eta *Uncela* aldaerari dagokionez ez da aise jakitea erratua den ala *u* — *-ola-* > *u* — *-ela* aldaketa burutu den (cf. AMUNOLA).

---

[830] *Pardiolaren borda* (*Pardiolarena*, 1706) toponimoa dugu Beartzunen (Baztanen) (*NTEM-LIII*, 237) eta Aralarren *Pardarri* izeneko alderdia dago (Elosegi, 1972: 147).

[831] Salbuespen bakarra *Pardiolas* (1944, GHO1) pluralekoa da.

[832] Gure esparrua mintzagai duten idazkietan 12. gizadirako azaltzen da.

[833] Cf. Aietxuko *Pardanola*; *NTEM-XXXI*, 105.

ZAMIOLA saroiaren idatzizko ibilbidea 16. mendean hasten da, 1516. urtean hain zuzen (*Çaminola*, HUA7). Hurrengo aipamenak 17. mendekoak dira eta *-n-* gabeko *Zamiola* (1607, HUA23) aurkitu dugu orduko[834], *-n-* duen *Caminola* (1683, HUA28) aldaeraren ondoan. 18. mendean, *Caminola* (1773, VEK1) zein *Zamiola* (1769, HUA37) formekin batera, *S-* grafemaz hasten diren *Saminola* (1780, HUA39), *Samiola* (1773, VEK1A; 1773, VEK1; 1784, HUA40) eta ahozko aldakitik gertu dagoen *Samiela* (1773, VEK1B) aurkitu ditugu, eta ikusten den bezala, azken etsenplu horretan *-i-* + *-ola*> *-iela* aldaketa garatu da. 19. mendean *Samiola* (1838, DUA5) eta *Zamiela* (1889, HUA52) opatu ditugu, eta 20. mendean *Zamiela* (1911, IM; 1944, GHO2). Berriemaileek, azkenik, *Zamiela* ([zámielà], Ezk. b., Lor. b.) / *Zamielaerreka* ([zámielaérrekà], Ezk. b.) / *Zamielapusko* ([zámielapuskò], Ezk. b.) nahiz herri-etimologiak diruditen[835] *Sanmielmendiya* ([sánmielméndiyà], Ezk. b.), *Samieltxo* ([sámieltxó], Amu.) eta *Samielsoro* ([sámielsorò], En.) / *Sanmigelsoro* ([sánmigelsorò], Ezk. b.) / *Sanmielsoro* ([sánmielsorò], Txim.) darabiltzate. *Zamin-* oinarriaren sorburua iluna da[836], baina 12. gizaldian *Zamilola* saroia azaltzen da Aralarren eta 14.ean Orreagan[837] (*Zamilola-artecoa*, *Zamilola-goiena*, *Zamilola-hualdea*), segur aski gure esparrukoarekin zerikusia dutenak, asimilazioa / disimilazioa dela medio (*Zamilola* > *Zaminola*?).

-Ola paratzizkia duten toponimoekin bukatzeko, ZUTOLA oronimoak 1566. urteko idatzizko lekukotasuna besterik ez du (*Zutola*, LMM, 191 or.) eta belarriz *Zutola* ([zútolà], Id.) zein atzerako asimilazioa garatu duen *Zotola* ([zótolà], Id.) bildu ditugu. Toponimo iluna da eta idatzizko testigutza bakarrak ez du laguntzen etimoa argitze aldera[838].

---

834 *Zaimola* (1683, *alto*, HUA28) erratua ere aurkitu dugu.

835 (*Fagus castanea*) "Variedad de SAN MIGUEL: fruto que se madura temprano, el primero de esta especie, y es por lo mismo importante por el precio alzado en que se vende: vas. SANMIGELÁ, que quiere decir de San Miguel, aludiendo al Arcángel para cuya festividad se recoge."; Lakoizketa (1994 [1888] 149). Aurrekoaren harira, oroit dezagun Coromines izenen kristautzeaz mintzo dela 1973. urtean argitaratutako "Du nouveau sur la toponymie occitane" lanean (234 or.)

836 Ameskoabarrenen Lapuentek (1975: 400, 401) *Çamilaran* / *Çamilaranguena* (1590) biltzen du

837 1774. urtea, NAO. "*Extracto de los Instrumentos y Rolde de los seles que a la Santa Iglesia de Roncesvalles y su Hospital pertenecen en el término general de Alduide*, *acreditado con los instrumentos que acompañan*, *y comprobados con declaraciones de prácticos del País*". Orreaga, Alduderi buruzko 3. sorta, 100 zenb.

838 Cf. *zotol(a)* 'txerriei jaten emateko etxola', *OEH*, XVI: 934.

Euskal Herrian *-ola*-ren idatzizko lehenbiziko aipamenak 11. mendekoak dira[839] (Araba, 1025. urtea) eta Mitxelenaren (*AV*, 483) aburuz abeltzaintzarekin lotutako hitza da jatorriz, geroago *burdinola* zentzua izan badu ere; hain justu, gaztelaniazko *sel*, *bustaliza* eta *cabaña* terminoen parekoa zatekeen behinola. Azkuerentzat (1984: 838), ordea, *sufijo derivativo local* delakoa baizik ez da eta badira latinezko *aula*, *-ae* terminoarekin oinordekoa dela proposatu duten ikertzileak ere, baina garbi dago bide hori okerrekoa dela[840], fonetika alorreko eragozpen gaindiezinak baititu[841].

Gure esparruan *-ola*-ren erreferentzia zaharrenak 12. mendekoak dira (*Ammunola*, *Eierala*, *Lastaola*, *Macurssola*, 1178) eta, denboraren buruan izan duen ibilbideari dagokionean, AMUNOLA saroi-izenaren kasua adierazgarria da, *Amunola* zaharretik *Amuela* aldaera modernoa atera delako[842], asimilazio-disimilazio prezesu baten ondorioz (*u — ola > u — -ela*). ZAMIOLAren kasuan ere *i — ola > i — -ela* burutu da (*Çaminola*, 1516 > *Samiel[a]*, 1773) eta litekeena da *Uncela* (1683) / *Uncola* (1773) bikoa ere bilakabide beraren adibide izatea. EGURROLA toponimoaren *Eula* ([éu̯là], K.) aldaera ere aipatzekoa da (*Egurrola*, *Egurola* > *Egurla*[843] > *Eula*), besteak beste, sinkopa egon dela erakusten digulako. Hala berean, LASTAOLA toponimoan antzematen den *-a-* + *-ola* > *-ola* murriztapena azpimarratu nahi dugu, 15. menderako dokumentatzen delako. Azkenik, bi hitz MAKUTSOLO toponimoaren *Makutsolo* / *Makutsulo* aldakiez: *u — ola > u — olo / u — ulo* aldaketaren lekuko dira (*Makurtsola* 12. mendean), aurreranzko asimilazioaren eta herri-etimologiaren eraginez burutu dena, menturaz.

-Ola hartu duten oinarrien artean, lehenik eta behin, *amona* (*amuna-*) ahaidego-izena dugu eta pertsona-izenen artean **Ayndu* /**Ayndo* zen *Martitx* izen-bereziak ere egon litezke. Horiekin batera, bada herri-izen bat, hots, *Renteri(a)* (*Errenteria*). Bi

---

839 *AV*, 483. 1284. urtean (Orreagan) bereiz eta albokari geminatuarekin idatzi zuten artean (*Vaga olla*, *Iuan olla*, ...).

840 Cf. *AV*, 484.

841 Ildo beretik, Féniék (1992: 77) *aulha*, *auelha* eta *oelhas* terminoak biltzen ditu gaskoieraz ('artegia'), haren ustez latineko *ovicula*-tik datozenak ('ardi txikia').

842 Cf. Iturengo *Arrutola* (1549, 1805); *Arrotola* (1648) / *Arrutela* (1804, 1882 1982); Iñigo (1996: 228-229).

843 *Iturla* (1738) izeneko aurkintza dago, konparazio batera, Larraonan (Ameskoagoien); *NTEM-XXII*, 198.

animalia-izen daudeke, *ardi* eta *azeri* (ezizena?) eta, bestetik, fitonimoen sailean, *haritz* zein *txara* landare-izenak aurkitu ditugu, baita, apika, *arte* ere. Agerikoa den beste oinarria *egur* da, eta *harri*, *haitz* zein *lasto* elementuak egotea litekeena da; ildo beretik, uste izatekoa da *pardina* termino geografikoa dagoela PARDIOLAn (**Pardinola*). *Nagi*, *bazter* eta *gorroto* nabarmendu nahi ditugu, gutxi direlako horrelakoak gurean, ez konkretuak diren oinarriak alegia; daitekeena da, batzuetan, horrelakoak izengoitiak izatea. Xehetasun bat, amaitzeko: *-ola* bigarren osagaitzat duten toponimoen herena saroi-izenak dira eta ez litzateke harritzeko beste adibide batzuk ere abeltzaintzarekin izatea lotura; burdinolen izenak, ordea, hagitz gutxi dira, hamarretik bat edo.

Aldaketa eta murriztapenen diagrama

21.						
1989	-ola	**-ela**	**-ala?**	**-(u)la**	**-a + -ola- > -ola**	**-ulo/-olo**
1900	*-ola*	***-ela***	***-ala?***	***-(ur)la***		
1800	*-ola*		***-ala?***		***-a + -ola- > -ola***	
18.-19			***-ala?***		***-a + -ola- > -ola***	
1700	*-ola*				***-a + -ola- > -ola***	
1600	*-ola*					
16.	*-ola*				***-a + -ola- > -ola***	
1400	*-ola*				***-a + -ola- > -ola***	
1300						
1200						
12.	*-ola*		***-ala?***			

8.3.1.2. -*(K)ue* paratzizkia

Bost dira gure esparruan -*(k)ue* paratzizkia duten toponimoak eta bostek izaki geografiko garrantzitsuak izendatzen dituzte. MERKUE[844] mendia da aurrenekoa eta honen erreferentzia zaharrena 1683. urteko dokumentu batean aurkitu dugu (*Mercue*, HUA28). 18. mendean ere forma bera erabiltzen da idatziz (1797, HUA41), baina 19. mendean, *Mercue*-z gainera (1833-835, DUA3), bokal erdikoa galdu duen aldaera azaltzen da estreinakoz (*Mercu*, 1898, EGZ). 20. mendeko dokumentazioan *Mercu* (1911, IM; 1944, GHO1, GHO2) / *Merku* (1958, PPG) topatu dugu eta informatzaile guztiek ere bukaerako -*e* gabe ebakitzen dute, hala absolutiboan nola beste kasuetan (*Merku* [mérkù], Amu.) / [mérku], Etxol.; *Merkuko erreka* [mérkukò érrekà], Ek.). *Mer(k)*- erroaren jatorria iluna da.

MUNISKUE saroiaren aipamen zaharrena 15. mendekoa da, baina, 18. mendean egindako kopia izanik, iturria ez da fidatzekoa; are gehiago: gure iritziz, garbi dago erratua dela (*Ainniscue*, 1467, HUA6). Idatzizko gainerako erakuskariei dagokienez, 17. eta 18. mendeetan *Munisque* (1683, HUA28; 1773, VEK1), *Munizcue* (1769, HUA37; 1780, HUA39) eta *Muñisque* (1773, VEK1A) formak irakur daitezke eta 19.ean -*co* amaiera duen aldakia aurkitu dugu aurreneko aldiz (*Munisco*, 1889, HUA56), *Munisque* (1863, HRU, 47 bin.) / *Muniscue* (1833-1835, DUA3; 1855-1857, HTR8, 22 au.) bikoaz landa. 20. mendean -*co* dute lekukotasun guztiek eta bokal artean, sudurkariaren ordez, albokari bakuna (*Mulisco*, 1920, HUA57, 743 or.; 1920, HUA57, 907 or.; 1983, IGN2 / *Mulisko*, 1979, RMH; 1982, CAG, 180 or.; 1983, GFA2 / *Mulisko-gaina*, 1982, CAG, 180-181 or. / *Mulisko-Gaina*, 1983, GFA2). Berriemaileei bietakoak entzun dizkiegu, hau da, sudurkaria nahiz albokaria dutenak[845] (-*n*- > -*l*-), eta bukaera beti -*ko* da (*Mulixko* [mulíxko], Amu. / [múlixkoá], Amu., *adl.s.*; *Mulisko* [múliskotìk], Amu., *abl.* / [múliskò], Pard. g. 2; *Muluxko* [múluxkò] / [mulúxko], Amu., *Muunuxko* [muúnuxkò], Larr.; *Muuluxko* [muúluxkò], Larr.; *Munusko* [múnuskò], Mik.; *Munixko* [múnixkò], Txil., Txim.; *Munuxko* [múnuxkò], Pard. g. 2 / [múnuxkò], Mik.). Amaierari datxekionez, argi dago hortz-hobietako apikariaren ondoan aldaera herskariduna baliatu

[844] Leitzan *Merque* izeneko saroia zegoen 1614an. NAO Errege-Auzitegiak. Prozesuak (epaiketak) 150044 zenb.

[845] Cf. Artetako *mulo* (< *mu[i]no*). Salaberri (1998: 71 eta 2004c: 1134).

dela (*-kue*) eta, bestetik, Oltza zendeako *Izkue* herri-izenaren argitan (< *Ehizcue*), uste izatekoa da oinarriaren osaketa *Mun-iz* dela (< **Mun-eiz-kue*?). Hori horrela balitz, lehen osagaia *mu(i)no* litzateke segur aski (cf. MUNITXORRO) eta bigarrena, apika, *ihi*-rekin legoke lotua[846].

UNTZUE[847] (*huntz* + *-ue*) izeneko saroi bikoaren aurreneko aipamenak 16. mendean aurkitu ditugu (*Unçue*, 1516, HUA7 / *Unçue de abaxo*, 1595, HUA10 / *Unçue de arriba*, 1595, HUA10; *Uncue*, 1538, HUA9) eta idatzizko aipamen ugari daude orduz geroztik, guztiak bukaeran *-ue* dutenak (*Unzue de suso*, 1607, HUA23; 1773, VEK1; *Unzue*, 1683, HUA28; *Uncue-Suso*, 1773, VEK1A; *Unzue de arriba*, 1774, HUA38; *Unzue de avajo*, 1780, HUA39; *Unssue de suso*, 1833-1835, DUA3; *Unzue-azpi*, 1838, *valle*, DUA5; *Unzueco-eguiya* (1942, 1 47-1 48/43 15-43 14, IGC1; 1953, 1 47-1 48/43 15-43 14, IGC2; *Unzue*, 1962, UTC; *Unzue-Goico*, 1980, IGN1). Ahozko tradizioari bagagozkio, hitz amaierako hiatoak ez du iraun usaian, informatzaile batek *Untzue goiko* ([úntzwè góikò], Aska.) forma badarabil ere. Zenbait kasutan *-ue-* > *-u-* murriztapena burutu da (*Untzuko* [úntzukò], Aska.) / *Untzukolepo* [úntzukolépò], Aska.) eta elkarketan paratzizkia erabat desagertu da (*-ue-*> *-u-* > *-∅-*), *Untzaundi* ([untzáu̯ndì] / [úntzau̯ndí] (Id.) eta *Untzeiko lepua* ([úntzei̯kò lépuà], Aska.) etsenpluek erakusten duten bezala; badago bokal itxia *-o-* bihurtu delako (*-ue-* > *-u-* > *-o-*) testigantza ere (*Untzokomunttei* [úntzokomúnttèi̯] / [úntzokò múnttéi̯], Arg.). Mitxelenaren iritziz (*AV*, 580) oinarrian *huntz* dago[848], txistukari bizkar-hobietakoaz amaitzen dena eta, ondorioz, herskaririk gabeko *-ue* aldaera hartu duena (‘huntza dagoen aurkintza’).

USASKUE[849] baserriaren idatzizko aurreneko erreferentzia ere 16. gizaldikoa da (*Unsacue*, 1554, EUA2, 122 or.). Hurrengoa 1898. urtekoa da, baina, bokal erdikoa izan beharrean, amaieran bokal irekia du bigarren adibide horrek[850] (*Usascua*, 1898, EGZ).

---

[846] Ikus Salaberri (2005:114).

[847] Nafarroan bada *Untzue* herria, *Etxague* dagoen ibar berean (Orbaibarren); 12. menderako azaltzen da idazkietan (*Unçue*/*Unzue*). Ikus Euskaltzaindia (1990: 196).

[848] Cf. Salaberri (2005: 114).

[849] Cf. Iriberriko (Lizarrako) *Yssascue* (1246); Mitxelena (*FHV*, 305).

[850] *Auzkue* izeneko aurkintza dago Lokizen: *Auzqua* (1688), *Auzque* (1741), *Uzcue* (1814 eta 1885); *NTEM-XXIII*, 189.

Begiratu ditugun gainerako idatzizko iturrietan *Usascue* irakur daiteke (1944, GHO2; 1962, UTC; 1981, SGE2) eta ahoz ere *Usaskue* jaso dugu ([usáskwe], Asta.). Lehen zatiaren jatorrizko forma *Usas*- balitz *isats* landare-izena legoke segur aski oinarrian, eta, horrenbestez, bokal-ezpainkaritzeaz mintzatu beharko genuke; 1554. urteko *Unsacue*-k, ordea, bide hori oztopatzen du, nahiz eta, bakarra denez gero, erratua izatearen aukera ezin bazter daitekeen.

Azkenik, UZKALKUE oronimoak 1467. urteko lekukotasuna du (*Uzcalcue*, HUA5) eta hainbat idazkitan aurkitu dugu hartaz gero, hasierako bokal itxiaren segidan -*z*-rekin edo -*s*-rekin (*Uzcalcue*, 1516, HUA7; 1607, HUA23; 1683, HUA28; 1833-1835, DUA3; 1773, VEK1; 1784, HUA40; 1838, DUA5 / *Uscalcue*, 1632, H.U.A 26, 153 au.; 1773, VEK1B; 1780, HUA39; 1773, VEK1B; 1780, HUA39). Ahozko tradizioan amaieran -*ko* duten formak (-*kue* > -*ko*; cf. MUNISKUE) baizik ez daude bilduak: *Uskalkoko borda* / *Uxkalkoko borda*, *Uskalkoko zabala* / *Uxkalkoko zabala* (1989, HUTB). *Uzcal(k)*- / *Uskal(k)*- oinarriaren etorkia ezezaguna da.

Laburbilduz, gure esparruan -*(k)ue* paratzizkiaren lehen mostrak 15. mendekoak dira (*Uzcalcue*, 1467) eta -*ue* aldaerari datxekionez aurreneko testigantza 16. mendekoa da (*Unçue*, 1516). Xehetasunetan sartuz gero, herskaria duen aldaera (-*kue*) lehen zatia dardarkariz, txistukari frikariz edota albokariz amaitzen denean baliatzen da eta, -*ue* forma, berriz, txistukari afrikariarekin bukatzen denean[851]. Informatzaileek amaierako -*e* gabe ebakitzen dute arrunki[852] (*Merku*, *Munisko*, *Untzu*, *Uskalko*) eta salbuespena *Usaskue* oikonimoa da. Esan beharra da hau hartu duten oinarrien jatorria ezkutukoa dela gehienetan, baina badaude salbuespenak, *huntz* landare-izena konparaziorako (UNTZUE). -*(K)ue* paratzizkia -*gune* izenarekin dago lotua, baina, nolanahi ere, gauzak ez daude erabat argi bien arteko harremari dagokionean. Mitxelenak (*FHV*, 305) dio *gune*-k hitz beregain gisa eta konposaketan duen *n* hori tinkoa dela bi kasu horietan,

[851] Cf. Tolosako *Jazkuebekoa*, *Jazkuegoikoa* (egun *Jazkugoiko*); Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio (2006: 102-103)

[852] *Abracue gaña* toponimoa biltzen du Oltzan Jimeno Juriok (1989b: 232) 1591. urteko agiri batean (*abaro* + -*kue*), 1683. urtean *Abracu gaña* formaz azaltzen dena; hortaz, -*kue* > -*ku* aldaketa gertatu da han ere. Artikutzan (Goizueta) *Aku* esaten dioten lekua dago (*Acue*, 1792 eta 1827), baita *Izu* deituriko parajea (*Yzue o Izgüe*, 1792, 1827; Erriondo, 1988: 121, 124). Ildo beretik, *Izkue* herri-izenaren (Oltza zendea) ahozko forma *Izku* da (*Ehizcue*, 1124; *Eyzcue* 1279, 1585; Jimeno Jurio, 1989b: 154-155).

sudurkaria gabeko aldaerak falta baitira; Nafarroako toponimian ugaria dela eransten du, txistukari ondoko *-kue*[853] batik-bat (*Izcue*). Era berean, toponimiako *-kue* aldakia Nafarroan agertzen dela ohartarazten du, baina, ikusi dugun bezala, ez da beti horrela. Mitxelenak (*AV*, 579) azpimarratzen duenez *-une* aldaera hainbat deituratan *-un* formarekin azaltzen da eta Ravierek **-unn* protoforma proposatzen du *-un*-en iturburutzat; alabaina *-gue* /*-(z)kue* aldaerek aukera hori oztopatzen dute. Ravierek bere buruari galdetzen dio *-gue / -(z)kue*-k ez ote duten bestelako jatorria, aipamen zaharrenetan (13.) ez baitago sudurkariaren arrastorik[854]. Salaberri (2005: 114), azkenik, *-un*, *-(g)ue* berrekailu lokatiboaz mintzo da, azpiatal honetan aztergai izan dugun paratzizkiaren izaera eta esanahia argitzeko ekarpen garrantzitsua eginez.

[853] Berebat, ikus Mitxelena (1989: 292). Menéndez Pidalek (1952: 27) ere aipatzen du bukaera hau (*-kue*, *-güe*, *-ue*).

[854] Cf. Iglesias (2000: 221).

8.3.2. Bukaerak

8.3.2.1. *-Ain* / *-an*, *-arain* / *-araun* / *-aran* eta *-in* bukaerak

ABARAIN toponimoaren bi adibideak egile berarenak diren 1944. urteko bi mapatan daude, baina, zoritxarrez, iturria ez da fidagarria (*Abarain*, GHO1, GHO2). Hipotesia besterik ez bada ere, erraturen bat dela medio, APARRAIN toponimoarekin zerikusia duelakoan gaude.

AKAN[855] oronimoaren aurreneko aipamenak 18. mendearen amaierakoak dira eta ale batean *-ain* dugu bukaeran[856] (*Acain*, 1797-1833, HGR2, 64 au., 70 au.) eta bestean *-an* (*Acan*, 1797-1833, HGR2, 46 au.). 19. gizaldian *Acan* kausitu dugu, *-azpi* bereizgarriarekin oraingoan (*Acan-azpia*, 1833-1845, HGR3, 75 au.) eta berriemaileek ere *Akan* ([ákàn], K.) darabilte. *Ak-* erroaren nondik norakoa ezezaguna da, baina litekeena AKOLA toponimoaren lehen zatiarekin lotua egotea.

ALKATXURAIN izeneko saroi nagusia 1467. urtean lekukotzen da eta *-en* dago amaieran, *-ain*-en tokian[857] (*Alcaycuren de yuso*, HUA5; *Alcayçuren de suso*, HUA5). 1683. urtean, ordea, *Alzachurrain* saroia (HUA28) eta *Alcazurcogaña* (HUA28) aurkintza aipatzen dira idazki batean, bata bestearen ondoan, eta 17. gizaldiaz geroztik, 20. mende arte, *Alcachurain* forma gailentzen da tradizio idatzian (1736, HUA30, 496 bin.; 1769, HUA37; 1773, VEK1; 1773, VEK1B; 1780, HUA39; 1843, HUA44; 1864, HUA47; 1898, EGZ). Salbuespen bakarrak 1769. urteko *Alcaichurain* (HUA37), 1773ko mapa batean aurkitutako *Alcachuren* (1773, VEK1A) eta 1774ko *Alcarchurain* (1774, HUA38) dira, 1857ko Gipuzkoako baserri-izendegian irakur litekeen *Alcachurin*-ez gainera (HUA48, 44 or.). 20. mendeko idatzizko lekukoei erreparatzen badiegu, *Alcachurain* behin bakarrik azaltzen da (1920, HUA57, 693 or.) eta, aitzitik, bokal arteko dardarkaria galdu dutenak gailentzen dira; azken horien artean bietakoak daude: txistukari sabaikoaren ondoren *o* bokala dutenak (*Alcachoain*, 1911, IM; 1944, GHO2; *Alkatxoain*, 1932, AI; *Alkan Txoin* 1983, IGN2) eta lekune horretan *-i-* dutenak

[855] Berueten *Acan* saroia zegoen 1754an. NAO Errege-Auzitegiak, prozesuak (epaiketak) 110984 zenb.

[856] Cf. Debako *Akain* baserria (1999, DBM).

[857] 18. mendeko kopian ere *Alcaizuren de iuso* (HUA6) eta *Alcaizuren de suso* (HUA6) ipintzen du.

(*Alcachuain*, 1920, HUA57, 860 or.; 1933, HUA57, 314 or.; 1936, HUA57, 306 or.; 1962, UTC; 1981, SGE2; *Alkatxuain*, 1934, HUA57, 125 or.; 1934, HUA57, 124 or.; 1934, HUA57, 125 or.; *Alcachurala*, 1942, IGC1; 1953, IGC2; *Alcatxuain*, 1944, GHO1). Hortaz, aipamen horien arabera, ez dirudi *Alkatxoain* aldaerak *Alkatxuain*-ek bezainbateko hedadura izan duenik. Berriemaileengandik hitz amaieran *-in* bukaera duten mostrak baizik ez ditugu jaso guk (*Alkatxuin* [álkatxùn̪], K.; *Alkatxuiñ* [álkatxùn̪ñ], Hern. 1), nahiz eta *Alkatxuain* (1989, HUTB) zein *Alkatxurin* (1989, HUTB) aldaerak gordeak egon. Deklinabide hondarkiak dituzten formetan ez dugu aldaketarik sumatu, *Alkatxuingo Arretxen borda* ([álkatxun̪gò árretxèn bórdà], Txab. 1) eta *Alkatxuingo sarobia* ([álkatxun̪gò sárobià], Etxol.) lekuko. Belaskori (1996: 56) jarraikiz, uste dugu lehen osagaiak, *Alka[i]*-k alegia, Oihenartek erabilitako eta goi-nafarreran zein lapurteran Azkuek (1984: 186) bildutako *alka* (*avena silvestre*, *folle avoine*) izenean izan lezakeela sorburua; bestalde, 1683. urteko *Alcazurcogaña* (HUA28) aintzat hartuz gero, *Alca(y)cur-* oinarria lehendik erabilitako izen espezifikoa izan liteke[858] (**Alcayzur[i]* + *[g]ain*?) eta ohar bat, ildo horretan: ALKATXURAIN Urumearen ondoan dago (haranaren azpiko aldean), mazelan, eta ez mendi-gainean.

ANDOAIN toponimoaren lehenbiziko erreferentziak 1452. urtekoak dira eta *-u-* dute *-ayn* bukaeraren aurretik, gaurko *-o-* bokalaren ordez (*Ahinduayn / Aynduayn*, 1452, JGL, 162 or.). Handik urte gutxira, 1467an hain zuzen, *-ayn* bukaeraren aitzinean *o* bokal erdikoarekin idatzita azaltzen da (*Ayndoayn*, HUA5) eta hurrengo aipamenean, 1468. urtean, *Ahindudayn* (An.Ag., 560 or.). Halere, azken hori erratua izatea ezin da baztertu, pasarte berean beste inon azaltzen ez diren *Arnani* (Hernani) eta antzekoak irakurtzen direlako[859]. Egungo aldaera 17. menderako nagusitzen da idazkietan (*Andoain*, 1683, HUA28; *Andoain* [ándoàn̪], K.). Mitxelenak (*AV*, 51) aurreneko osagaia izen berezia dela iradokitzen du, baina forma zaharra zehazkiro Errenteriakoak aipatu *Andon-* edo *Aindu-* (> *Ando-*) ote den ez dago garbi[860]. Hain zuzen, gure

[858] Arantzan (Bortzirietan), adibidez, *Alkatxuri* toponimoa dago (*Alcazuri*, 1795; *NTEM-IL*, 32). Cf. Goizuetako *Alkainzuriain* (Salaberria, 1988, 99).

[859] Antxon Agirrek Telletxea Idigorasen "D. Francisco de Oquendo y la fábrica de anclas de Hernani" lanetik hartua. *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián* 10 (1976), Caja de Ahorros Municipal, Donostia.

[860] Gorrotxategi Txurrukak (1984: 137-139) ere oinarrian antroponimoa dagoela uste du eta Donemiliagako izkribuan (1025) datorren Arabako *Anduiahin* (*Andoin*, Asparren) toponimoarekin batera aipatzen du Gipuzkoako herriaren izena.

esparruan ANDOLA oikonimoa dagoela (1739) ezin da ahantzi[861] eta *-ain* bukaerak oinarrian pertsona-izena duten jabego kutsuko herri-izenekin duen lotura ere ez, mintzagai dugun toponimoa izen haien ohiko eremutik kanpo badago ere[862].

APARRAIN[863] saroi nagusia da eta 1178. urteko erakuskaria du, baina estreinako agerraldi horretan *-en* du hitz amaieran[864] (*Apparren*, IKA3), gainerako idazkietan nagusitzen den *-ain* bukaeraren ordez. Lehen lekuko horretan ageri den *-pp-* ere nabarmendu nahi dugu, ez baitugu gehiago aurkitu (ikus 9. §). Hurrengo aipamenak 15. mendekoak dira (*Aparrayn*, 1467, HUA5) eta 16. gizaldiko iturrietan ere *Aparrayn* / *Aparrain* aldaera erabiltzen da (*Aparraynondoa*, 1536, HUA8). Are gehiago: berrogeitik gora diren lekukotasunen artean salbuespen bakarrak *Aparráin* (1857, HUA48, 45 or.) eta *Aparraiñ* (1937, AB) dira; hala berean, generikoa duen adibide bakarra dago (*Aparrain-sarobe*, 1840, HUA43, 117 bin.). Aurreko lekukotasunez gainera, berriemileei *Aparrain* ([áparràin̯]) jaso diegu guk, baina *Aparren* ([áparrèn], Bezk.) eta *Aparrin* (1989, HUTB) formak ere zerrendatuak daude; bide batez, argi dezagun deklinabide hondarkia bokalez hasten denean bustidura garatzen dela sarritan[865] (*Aparrain* + *-era* > *Aparraiñ[e][r]a*; [áparrañà], Id., *adl.s.*). Erroa Mitxelenak (*AV*, 65) aipatu *Aper* pertsona-izena denik ez dugu uste, hain justu, *abar* zein *abaro* terminoekin zerikusia duelakoan baikaude (Cf. Errenteriako *Aparola*).

---

861 Zarikiegin (Zizur zendea) *Aindurain* toponimoa dago, *Andolain* eman duena, baina kontuan har euskara galdua dela han; Jimeno Jurio (1986b: 454).

862 "Tenemos nombres en *-ain* también al Oeste en Alava y Guipúzcoa, como: *Andoain*, *Beasain*, *Agurain*, etc. Esto parece dar a entender que durante el dominio romano se tendió a ocupar los valles prefiriendo su colonización a las montañas y laderas más inhóspitas", Zierbide (1980: 90). Cf. Salaberri (2000: 113-114, 134).

863 Gure esparrutik hurbil, LEITZARANen, *Aparrain* izeneko beste tokia dago ([áparrà□n], Bordatx. eta En), 89-6-6). Bestalde, Donezteben APARAN ibarra dugu, APARANZOKO deitzen dioten bazterra duena. Iñigoren iritziz (1996: 93) toponimo horren etimoa *ap(h)o* + *haran* da eta, hain justu, *Apa-* elkarketarako aldaera litzateke. Gisa berean, *Aparain* (1685; *Apain*) izeneko tokiak daude Aralarren (*NTEM-XII*, 193), eta Mutrikun (*Aparain*, 1999, MUM). *Aparra* toponimoa dugu (1660.), azkenik, Etxarrenen. Idatziz Girgillaon azaltzen da aurreneko aldiz 1583. urtean eta *Apargain* oinordekoa eman du (*Aparragaña*, 1699; *Aparagña*, 1700; *Apargain*, 1894).

864 Cf *Alcayçuren*, 1467, HUA5. Mitxelenak (*FHV*, 165), bokalen garapenaz eta desagerpenaz ari delarik, *Hasparren* izenaren aipamenen artean (13.-14. gizaldietan) *-ain* duen aldaerarik ez dagoela azpimarratzen du.

865 Ikus (*FHV*, 198).

ELDUAIN herri-izenaren aurreneko aipamena 1313. urteko dokumentu batean dago. Deitura moduan baliatzen da (*Yenego Garçez de Elduayen*, CDSB, 29 or) eta orobat gertatzen da hurrengo mostrarekin, 1467. urtekoa hura (*Domingo de Elduayn*, HUA5). Hirugarrengo agerraldian, 1683. urtean, herri-izentzat erabiltzen da eta sudurkariaren aurrean *-e-* bokal erdikoa du, 1313koan bezala (*Elduaien*, HUA28). Gainerakoan ere *Elduayen* forma gailentzen da idazkietan[866] (1868, DJE; 1911, IM; 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1983, IGN2 eta 1983, GFA2). Etimoari doakionez, *Eldua* + *harain* dateke gure ustez (**Elduarain* > *Elduaraien* [*Elduarayen*] > *Elduaien*[867] [*Elduayen*] > *Elduain* [*Elduayn*]) eta alde horretatik, uste izatekoa da **Elduarain*-en adiera '*valle de Eldua*' izan daitekeela. Hain zuzen, ibarrean (errekan) gora joanez gero *Eldua* izeneko auzoa igaro ondoren dago ELDUAIN, eta Berastegitik Tolosara doan errekaren aipamen batzuk dakartzagu diogunaren lekuko. Lehenbizikoa 1942koa da eta Ibarra eta Tolosa herrien arteko mugarriztatzetik atera dugu[868]: "... *arroyos llamados Apata-erreka y Elduaran-erreka* [...]" eta "... *arroyo llamado Elduaran-erreka* [...]"; bigarrena Pedro Elosegi Irazusta ikertzailearen 1956. urteko "Perímetro del término Municipal de Tolosa" artikulutik hartu dugu[869]: "... *hasta su desembocadura en el río Elduarain* [...]".

ERBIZIN oronimoaren mostra guztiak ahozkoak dira (*Erbizingo zokoa* [érbizingò zókoà], Larr. b.; *Erbizingo erreka*, OBIE; *Erbizingo malda*, OBIE) eta, damurik, informazio gehiagoren faltan etorkiaz ezin ezer esan.

ERROTARAN[870] oikonimoa 15. mendean lekukotzen da eta aurreneko erreferentziak (1427) *-(a)ran* du bukaeran (*Errotaran*, HUA1), baina handik urte gutxira, 1467an, *-(a)rayn*-ekin irakur liteke[871] (*Herrotarayn*, HUA5); zernahi gisaz, salbuespena da, hortik aurrerako aipamen guztietan, 18., 19. eta 20. mendeetan, *Errotaran* erabiltzen delako. Belarriz *Errotan* ([érrotàn], Hern. 1) bildu dugu, bokal arteko dardarkariaren

866 Lizundiak (1989) *Elduain* izenaren aipamenak biltzen ditu, 1575 geroztik.

867 *Elduaien* formaren karietara, Salaberri (2005: 102) *-ien* atzizkiaz mintzo da.

868 Instituto Geográfico y Catastral. Trabajos topográficos, Provincia Guipúzcoa (4º brigada). Ibarra-Tolosa. 1942. Sorta bereko Belauntza-Ibarra mugarriztatzean "*río Elduayen*" izenez aipatzen da.

869 Tolosako Udala (1956).

870 Lezaunen (Deierrin) *Errotaran* aurkintza dago (*Errotaran*, 1843) erreka ondoan; *NTEM-XXVI*, 63.

871 Tradizio idatzian erakusgarri hori besterik ez du. Cf. Elgorriagako (Malerrekako) *Errotaurrutia*, 16, 17 eta 18. mendean lekukotzen dena ('errotaren erreka edo andaparaz haraindi dagoen tokia'); Iñigo (1996: 17).

erortzearen ondorioz elkarren ondoan gelditutako bi bokal irekien bakuntzaren berri ematen duena[872]:

EUNTZIN oronimoaren aurreneko bi erreferentziak 1683. urteko idazki batean opatu ditugu (*Euncin*, HUA28 / *Uncin*, HUA28) eta kontuan har bigarrena salbuespena dela, 18. eta 19. mendeetako dokumentazioan *Euncin* baliatzen baita arrunki (1773, VEK1B; 1889, HUA52; 1889, HUA52). Salbuespenez ari garenez, Iztuetak sudurkari aurreko bokal itxia gabe eta lekuko genitiboaren hondarkiarekin idatzi zuen 1847. urtean (*Encingo*, JII, 34 or.) eta, bestetik, 20. mendeko zenbait etsenplutan sudurkariarekin azaltzen da hasierako bi bokalen artean (*Enuncin*, 1932, HUA57, 391 or.; *Enucin* (1942, IGC1; 1953, IGC2; 1980, IGN1). Era berean, berriemaileei *Euntzin* ([éu̯ntzin], Aska.), *Entzin* ([éntzìn], Ezk. b.), *Euntziñe* ([éu̯ntziñè], Lor. b.) zein *Inuntzi* ([ínuntzì], Mari. 2) entzun dizkiegu eta, ildo horretan, azpimarratu nahi dugu *Euntziñe* paragogearen lekuko dela eta *Entzin*, berriz, *-eu-* > *-e* bat-egitearena. *Inuntzi* forma dela eta, urrutikotasunaren eta herri-etimologiaren ondorio dirudi, toponimoa *iyuntziya*, *iuntziya*, *inuntziya* landare izenarekin[873] lotzen duen informatzailea Urnietakoa delako, hots, aipamena urrun dagoen toki batetik datorrelako. Oinarriak nafarrerako *euntze*[874] ('pastizal') hitzarekin izan dezake zerikusia eta horrela balitz bilakabidea *Euntze* + *-ain* > **Euntzain* > *Euntzin* litzateke segur aski (cf. UNTZUE eta INTZIARRI). *Euntze*-z kestione, Mitxelenak (*FHV*, 251, 492) latineko *fenu*-ren eratorri irregularraren aurrean gaudela iradokitzen du (**peun*-), jarraian euskal *-tze* atzizkia duena. Salaberri (2005: 114), *euntza*, *eutza*, *eutze* eta *euntze*-z mintzo da eta etorkia, zehazkiro, < **feun* (edo antzekoa) + *tza* da Uxueko irakaslearen irudiko.

[872] *Errotaran bekua* (1989, HUTB) forma ere bildua dago.

[873] "Salix (sauce): iuntcia"; Lakoizketa (1994 [1888]: 180). Aranzadik (1905: 15) ohar hau egiten du: "No encontré toponimias con los nombres *zumarika*, *zumelika*, *zarika*, *zumua*, *illunzi*, *iuntzi*, *inuntzi*, aunque éste último aparece en el apellido Inuncibay". Cf. *AV*, 326.

[874] "En Iruñerria y otras partes, *Euntze* equivale a Soto; […] A veces también equivale a prado. (…). Pero *Euntze* no es cualquier tipo de dehesa, prado o soto, sino uno muy concreto y con caraterísticas específicas: terreno comunal, fresco y frondoso, generalmente contiguo a regatas y extendiéndose por sus dos márgenes; sus hierbas eran reservadas para pasto de dulas concejiles de ganado mayor de reja y baste; su aprovechamiento solía ser objeto de reglamentación especial, siendo acotados o vedados durante determinadas épocas del año o para determinadas especies de animales de labor, o reservados para el corte de hierba […]"; Jimeno Jurio (1987: 436).

IGORIN[875] mendi-izena 1467. urtean lekukotzen da lehen aldiz ikertu ditugun iturrietan (*Ygorin*, HUA5) eta bada 1595. urteko mostra ere, baina, aurrenekoan ez bezala, ez dago hiatoari eusteko *-g*-rik (*Yorin*, 1595, HUA10). Hirugarren lekukotasuna, 17. gizaldikoa hura, berezia da, bukaerari doakionean batez ere (*Igueraín*, 1628, DUA1). Aipamen hori alde batera utziz gero, bi modutara azaltzen da idatziz 19. mende arte, kontsonante belarrarekin (*Igorin*, 1683, HUA28; 1773, VEK1A / *Ygoringo gaña*, 1683, HUA28 / *Igorinpea* (1799, HUA42, 171 bin.) eta, bigarren aipamenean bezala, kontsonante hori gabe (*Yorin*, 1740, HUA30, 541 au., 1784, HUA40 / *Ioringoaiza*, 1833-1835, DUA3). 19. mendean *-g-* duen aldaera nagusitzen da (*Igorin*, 1840, HUA44, 117 bin.; 1847, JII, 34 or.; 1857, HINGR2, 5097 zenb.; 1863, HRU, 52 au.; 1857, HUA48, 46 or.), nahiz eta *Yorin* (1870, HUA55) zein *Igoin* (1842, HUA45) bilduak egon. 20. mendeko dokumentazioan *Igoin* forma gailentzen da argi eta garbi (*Igoin*, 1928, HUA45; 1911, IM; 1942, IGC1; 1944, GHO1; 1944, GHO2; 1953, IGC2; 1982, CAG, 191, 194 or. or.; *Igoingo-lepua*, 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1962, UTC; 1980, IGN1; 1981, SGE2; *Igoin-Akola*, 1979, RMH; 1982, CAG, 191 or.; *Igoingo lepua I*, 1982, CAG, 194-195 or.; *Igoingo lepua II*, 1982, CAG, 194 or.), baina badago salbuespen bat *Irueingo-lepo* (1928, JMB2, 263 or.) hain zuzen, ikusiko dugun bezala, ahozko tradiziotik nahiko hurbil dagoena. Berriemaile gehienek, bestalde, *Irun* aldaera darabilte (*Irungo lepua* [írungò lépuà], Fag., Larra.[876] eta Txab. 1; *Irungo lepo* [irúngo lépò], Id.; *Irungo gaña* [írungò gáñà], Larra.; *Irunitturrita* [irúnitturritá], Id.) eta *Igoin* (1989, HUTB), *Iyungo lepua* ([íyungò lépuà], Etxol.), *Igoain* ([igoái̯n], Larra.) zein *Iguain* [iguái̯n] (Larra.) formak ere jasoak daude. Xehetasunekin jarraituz, hitz amaierako sudurkariaren erortzearen lekukotasun bat dago, *-sasi* generikoa duena (*Iruisasi* [írwisasì], Txab. 1). *I(g)or-* oinarriaren jatorria eta esanahia ilunak dira[877], baina garbi dago toponimoaren ibilbidea jarraian laburbildutakoa izan dela:

[875] *Iboroin* izena duen aurkintza dago (*Iboróin*) Abartzuzan (Deierrin). Aurreneko aipamena 1725. urtekoa da (*Yboroin*) eta, horrez gainera, *Yburoain*, *Yburoin* zein *Yguroin* aldakiak lekukotzen dira 1882. urteko katastroan; *NTEM-XXVI*, 40. Ildo beretik, 1888. urteko idazki batean, Subizako (Galar zendeako) *Igarain* (1680, 1888) *Igurain* formarekin dokumentatzen da; Jimeno Jurio (1987b: 402).

[876] Cf. *Igoaingo lepua* ([ígoa□ngò lépuà] / *Iguaingo lepua* [iguá□ngo lépuà], Larra.).

[877] Cf. Izabako (Erronkariko) *Igordoia* eta *Igoria* (1828); *NTEM-XIV*, 114. Berebat, *Igorita* izeneko tokia dago Nafarroako beste muturrean, Ameskoako limitazioetan (*Igorita*, *Igurita*, 1500); *NTEM-XXII*, 233.

21.			
	*Igu**ain** / Igo**ain***		*Iru**n*** *Iyu**n***
1989			
1900		*Igo**in***	*Iru**ein***
1800		*Igor**in***	*Yor**in***
1700		*Igor**in***	*Yor**in** / Ior**in**-*
1600	*Iguer**aín***	*Igor**in***	
1500			*Yor**in***
15.		*Ygor**in***	

ILLARRAINZOKO toponimo ihartua da eta bildu ditugun bi aipamenak 20. mendekoak dira, lehena 1920. urtekoa (*Illarrain-soco*, HUA57, 651 or.) eta bigarrena 1935koa (*Illarrainsocoa*, HUA57, 138 or.). Etorkiari dagokionean, baliteke *Illarrain* espezifikoaz (*ilar* + *-ain*) eta *zoko* generikoaz osatua egotea, baina, modu berean, ezin bazter liteke lehen zatiak ILLARASUAIN toponimoarekin izatea zerikusia.

ILLARRASUAIN saroiaren aurreneko lekukoak 16. mendekoak dira (*Yllarrasuayn*, 1516, HUA7; 1595, HUA10) eta 17. mendeko idazkietan ere azaltzen da (*Yllarrasuain*, 1607, HUA23; 1683, HUA28). 18. mendean forma aniztasuna dago, *-s-* dutenekin batera (*Yllarrasuain* (1769, HUA37; 1773, VEK1; 1780, HUA39; *Yllarrosain*, 1773, VEK1; *Yllarrasen*, 1773, VEK1A) *-z-* dutenak topatu ditugulako (*Yllarrazuain*, 1769, HUA37; *Yllarrazuin* (1773, VEK1B) eta, gainera, ikusten den bezala, amaieran ere forma bat baino gehiago daudelako (*-ain*, *-en*, *-in*). Iturri idatziekin bukatzeko, 19. mendeko bi lekukotasun daude, ezer berririk erakusten ez badute ere (*Illarrasuain* (1826, LMM, 171 or. / *Illarrazuain*, 1833-1835, DUA3). Ahoz *Illaausin* ([íllaaụsìn], Aparr. / [illáaụsín], Arg.), *Illausiñ* ([íllaụsìñ], Aparr.), *Illaan usiña* ([íllaàn úsiñà], Aparr.) eta *Illausiña* ([íllaụsiñà], Arg.) jaso ditugu guk eta *Illaosin* (1989, HUTB) nahiz *Iñausin* (1995, DTE) ere bilduak daude. Beraz, *-suain* > *-(a)usin* itxuraldaketaz landa, txistukaria beti *-s-* izatea eta kasu batzuetan artikulua agertzea dira puntu

azpimarragarrienak. Bidenabar, zehatz dezagun *Illaan usiña* ([íllaàn úsiñà]) forma ez dela bat-batekoa, informatzaileak toponimoaren zentzua argitzeko asmoz jakinarazitako herri-etimologia baizik. Laburbilduz, 16., 17., 18. eta 19. mendeko idazkietan *-uain* (*-u* + *-ain*) nagusitzen da eta *-uin* 18. mendean agertzen da lehenengoz (*-uain* > *-uin*). Oinarrian *ilar* landare-izena eta *-tsu* / *-zu* atzizkia egon litezke[878], baina horretarako tarteko *-a-* horren etorkia azaldu beharra dago (*ilar* + *a* + *zu* + *-ain*?). Aukera bat, Manterolari (2006: 674) jarraikiz, urrutiko mugatzailearen hondakina dela pentsatzea da.

LEITZARAN toponimoa Isastik aipatzen du lehen aldiz 1625ean eta Lezoko geografoak *-arain* bukaerarekin idatzi zuen (*Lezarain*, *rio*, LMI, 227 or.; *Lezarain* (1625, *montaña*, LMI, 231 or.). Larramendik, 18. mendean, *Leitzaran* aldaera darabil (*rio Leitzaran*, 1784, ML, 33, 34 or.) eta gizaldi hartan bertan *-araun* amaierarekin aurkitu dugu (*terminos de Leizaraun*", 1791, JGL, 137 or.); orobat 19.ean[879] (*termino expresado de Leizaraun*, 1826, JGL, 149 or.). Ahozko tradizioari begiratuz gero, urnietarrek *Leizaran* ([léi̯zaràn], Amu.) / *Leitzaran* ([léi̯tzaràn], Amu.) ahoskatzen duten bitartean, Berastegikoek (Elduakoek barne) *Leitzaun* ([lei̯tzáu̯n], Argiñ. / [léi̯tzàu̯n], Bordatx.) ebakitzen dute. Irudiz, oinarria *Leitza* da (< *Leiotz*) eta bigarren osagaia, berriz, *(h)arain* (‘valle’).

OARAIN mendiaren erreferentzia antzinakoenak 16. mendekoak dira eta bi bukaera ikusten dira iturritzat erabili ditugun izkribuetan, *-(a)ran(a)* eta *-(a)rain*: *Oeranna* (1554, EUA2, 122 or.), *Oaran* (1569, LMM, 181 or.), *Oarain* (1575, LMM, 181 or.), *Oarainarribitarte* (1575, LMM, 181 or.). *-(E)raun* formarekin 1683. urteko idazki batean besterik ez dugu aurkitu (*Oberaun*, HUA28) eta, ikusten den bezala, hiatoan herskari ezpainbikoa du orduko. 18., 19. eta 20. mendeetan *Oberan* aldaera gailentzen da (1773, VEK1A; 1773, VEK1B; 1831, DUA2; 1847, JII, 34 or., 35 or., 66 or.; 1953, IGC2) eta salbuespenak 1833.-1835. urteko *Oeran* (DUA3) eta *Oerangopagoac* (DUA3) dira. Berriemaileengandik *Orain-* / *O(e)rein-* formak jaso ditugu guk (*Oraingo tontorra* [óra̯ngò tóntorrá], Arg.; *Oraingoitturri* [óra̯ngoi̯tturrì], Arg.; *Oreiñitturri* [oréi̯ñitturrì], Id.; *Oreiñiturri* [oréi̯ñiturrí], Id.; *Oereinitturri* [oére̯initturrì], Id.), eta hor

[878] Oiartzunen *Illarratzu* parajea dago (*ilarratz* + *-zu*). Goikoetxea & Lekuona (2007: 159).

daude bestek bildutako *Oberan* (1995, DTE) eta *Oren itturri* (1989, OM) ere. Laburbilduz bada, *-(a)ran*, *-(e)ran*, *-(a)rain*, *-(a)raun* aldaerak topatu ditugu tradizio idatzian eta *-(e)ran*, *-rain* , *-ren*, *-(e)rein* ahozkoan. *O(a)-* / *-O(b)(e)-* erroaren nondik norakoa ezezaguna da, baina ez litzateke harritzeko Usurbilgo *Oa* / *Hoa* (1625, LMI, 218 orr) edota Donostiako *Uba* / *Hua* (1625, LMI, 218 orr) toponimoen sail berekoa izatea.

ORAUNE oronimoaren lekuko bakarra ahozkoa da (*Orauneko lepoa*, OBIE) eta hain informazio urriarekin ezer gutxi esan liteke, baina hipotesia da *-raun (< -araun)* eta loturazko *-e-* dituela bukaeran, kasu markaren aurretik. Bestalde, ez bedi ahantz OARAINekin zerikusia izan lezakeela, ondo-ondoan egon ez arren, ez dagoelako handik oso urruti (Cf. ORANTZUN).

OSARRAINen testigantza bakarra 1561. urtekoa da (*Osarrain*, HUA17, 11 au.) eta, horrenbestez, aurreko kasuan bezala, arriskutsua da toponimoaren etorkiari buruz mintzatzea. Badaiteke etimoa *Osarr* + *ain* izatea, baina, Salaberriri (2000: 116, 127, 129) jarraikiz, *Os(a)* + *-(a)rrain* aukera ezin da baztertu (cf OTSARRAMENDI).

SARATSAIN saroiaren aurreneko agerraldia 1467. urtekoa da (*Sarasayn*, HUA5) eta hortik aurrera *-ain* (*-aín*, *-áin*) bukaerarekin topatu dugu aldi oro idatziz (*Sarassain*, 1607, HUA23; *Sarrazain*, 1683, HUA28; *Sarasain*, 1683, HUA28; *Sarrasaín*, 1833-1835, DUA3; *Sarrasoain*, 1833-1835, DUA3; *Sarraçain*, 1773, VEK1A; *Saratzain*, 1773, VEK1B; *Sarratsain*, 1850-1852, HTR5, 14 au.; *Sarasáin*, 1857, HUA48, 47 or.; *Saratsain*, 1864, HUA47); berriemaileek *Saatsain* ([saátsa̱in], K.) aldaera darabilte[880] (*VrV > VØV*). Agerikoa da erroa *sarats* (sahats) landare-izena dela (cf. SARATSETA)

[879] *Leitzaran* forma ere erabiltzen da iturri berean: "*... río y valle de Leizaran* [...]".
[880] *Saratsain* (1989, HUTB) eta *Sarasain* (1989, HUTB) ere bilduak daude.

UBARAN[881] izeneko haranaren lehenbiziko aipamenak 1683. urtekoak dira eta ez dago kontsonante txertaturik aurreneko bi bokalen artean (*Uaran*, HUA28; *Huaran*, HUA28); hurrengoak 18. mendean aurkitu ditugu eta ezpainbikoa dugu hiatoan, orduko (*Baran*, 1773, VEK1A; *Ubaran*, 1797, HUA42). Ildo beretik, 19. mendean idatzizko lekukotza bakarrak kontsonante epentetikoa du, *-b-* izan beharrean belarra bada ere[882] (*Ugaran*, 1831-1845, UGR4, 27 au.). 20. mendean, azkenik, hiru aldaera aurkitu ditugu idazkietan; alde batetik, ezpainbikoa duen *Ubaran* (1960, UUA10I) dugu, eta, hain zuzen, horixe da forma erabiliena; bestetik, belarrarekin idatzitako *Ugaran* (1941, UUA10C) dago, baina aldaketa azpimarragarriena ez da hitz hasieran burutzen, amaieran baizik, *Ubaan* (1951, UUA18) aipamenak bokal arteko dardarkariaren eroketaren berri ematen baitu, *-an* aldaerari bide emanez (*Regata Uban*, 1980, IGN1; *Uban*, 1981, SGE2). Informatzaileek *-an* eta *-aan* bukaerak dituzten formak darabiltzate (*Ubaan* [úbaán], Mik.; *Uban* [úbán], Mik.; *Ubanerreka* [ubánerrekà], Mari. 2 / [úbanerrekà], Mikel.; *Ubango erreka* [úbangò érrekà], Larr.; *Ubaango erreka* [úbaangò érrekà], Mik.) eta ez da harritzeko, bertako euskaraz horrela egiten baita (*VrV > VØV*).

Gure esparruan beste UBARAN bat dago, Andoain aldean hura. Idazkietan Urnietakoaren jokabide bertsua erakusten du, zerbait aldatzekotan artikuluaren erabilpena besterik ez delako aldatzen (*Ugarana*, 1736, AT, 192-193 or.; *Huarana*, 1763, 1765, AT, 192-193 or.; *Ubarana*, 1773, 1848, AT, 192-193 or.; *Ubaran*, 1894, 1897, 1907, 1945 AT, 192-193 or.; *Ubaon-erreca*, 1948, UUA16; *Ugaran-aldea*, 1951, UUA18; *Ugaran-aldea*, 1951, UUA18; *Ubaran-aldia*, 1951, UUA18; *Ubaran-aldia*, 1951, UUA18). Ahozko forma *Uban* (1993, AT, 192-193 or.) da. Etimoari dagokionez, *ur* eta *haran* izenak dira hidrotoponimo honen bi osagaiak[883]; alde horretatik, emari oneko erreka duten haran estuak dira bi tokiak.

---

881 *Ubaran* izeneko lekua dago Urdianen. Aurreneko idatzizko aipamena 1701. urtekoa da (*Ubarana*) eta informatzaileak *Ubaán* ematen du, gurean bezala, bokal arteko dardarkari ahula gabe, alegia; *NTEM-X*, 110.

882 Arrasateko *Ugaran*, adibidez, 1393. urtean azaltzen da aurreneko aldiz idazkietan. Ormaetxea (1996: 163). Cf. Ikaztegietan ere bada *Ugaran* bat (1999, IKM).

883 Ik. *AV*, 571 eta 572. Irigoienen arabera (1988: 655), *Uharana* / *Ugarana* / *Ubarana* gaztelaniazko ‘ribera’ izen geografikoaren parekoa da.

Honenbestez, hustu ditugun iturrietan, sarritan, jatorri ezberdineko aldaerek eite bera dutela garbi dago eta, ondorioz, ezaugarri jakin batzuen arabera osagai horiek taldeetan bana daitezkeen arren, behin baino gehiagotan, sailkapenak egitea arriskutsua izaten da. Hori dela eta, finkatuko ditugun multzo ezberdinetan etorki bera duten bukaeren aldakiak biltzen ote diren ez da segurua.

Zernahi gisaz, goikoa ahaztu gabe eta osotasuneko ikuspegia izate aldera, merezi du azpiatal honetan ikusi ditugun toponimoen sailkapena egiten saiatzea. Hala, lehen sailean 12.-15. gizaldietan *-en*[884] eta handik aurrera (20. mende arte) usaian *-ain* bukaera duten toponimoak sar litezke[885], APARRAIN eta ALKATXURAIN saroi-izenak, alegia. Bigarren tokian, hasieratik, 15.-16. mendeetatik, 20.eraino, usaian *-ain* bukaeraz azaltzen diren ANDOAIN, SARATSAIN eta ILLARRASUAIN ditugu, eta, apika, ihartutako OIDOAIN, ILLARRAINZOKO zein ABARAIN ere bai[886]. AKAN multzo horretara eraman liteke, aurreneko aipamenetan (18.-19.) *-ain* eta *-an* formen erakusgarriak daudelako[887], baina, haatik, aurreko bi taldeekiko ezberditasun pisuzkoa dago, hots, *-ain* > *-an* aldaketa burutu dela, eta aurrekoetan ez. Beste atal garrantzitsua OARAIN eta LEITZARAN toponimoek osatzen dute, idatzizko tradizioan (16.-19.) *-(a)rain*, *-(a)ran*, *-(a)raun* amaierekin opatu ditugunak. ERROTARAN[888] ere horien kidekoa izan liteke[889], aitzineko agerraldian (15.) *-(a)rain* eta *-(a)ran* ditugulako, baina, haatik, ez dugu *-araun* bukaerarekin aurkitu. ELDUAINena kasu berezia da, *-(a)in*, *-(a)rain*, *-(a)ran* eta

884 Txulapain ibarrean *Gartziriain* izeneko herria dago eta hauek dira Erdi Aroko aipamenak: *Garçarien* (1174), *Garzariain* (1198), *Garzariein* (1179), *Garzarin* (1095, 1102), *Gayzaring* (1095); Martín Duque (1983: 434, 472, 468, 215, 271 eta 216). Beste adibidea Zubietako (Malerrekako) *Akarriain* da; idazkietan *Acarriain* nagusitzen da, baina 1694. eta 1810. urtean *Acarrin* formarekin agertzen da (*-i* +*-ain* > *-in*); 20. mendearen amaieran, berriz, *-en* duen (*Acarren*) aldaera gailentzen da. Hori dela eta, *-in* > *-en* gertatu dela pentsa liteke, 1720. urteko *Acarrien* eta *Acarrean* aipamenek bide hori nabarmen oztopatu arren; Iñigo (1996: 341). Ikus Salaberri (2000: 115-116).

885 *Zarrin* izeneko ingurua dago Lorkan (Deierrin) eta hori da, hain justu, idatzizko eta ahozko tradizioan nagusitzen den aldaera, baina dardarkari ondoren bokal erdikoa duen forma ere aurreneko aipamen idatzietan azaltzen da (*Zarren*, 1701). Beste erakusgarria 1830. urtekoa da; *NTEM-XXVI*, 164.

886 *-Ain* atzizkiaren nondik norakoaz janzteko ikus, Artaxoako toponimia biltzen duen liburuan, Jimeno Juriok eta Salaberrik (1998: 187-190) egindako laburpena; begira, baita ere, Salaberri (2000: 117-124).

887 Cf. *AV*, 69.

888 Lokizen *Gartziaran* toponimoa dago eta, *-aran* (1739) bukaera duten aipamenekin batera, *-arain*-en testigutzak daude (*Garciaraina*, 1739, 1814); *NTEM-XXIII*, 192.

889 ORAUNE ere bai agian, baina oso informazio gutxi dago toponimo horri buruz.

-*(a)ien*-ekin idatzi delako[890]. Aurrekoekin batera, aldi oro (17.-20.) -*aran* formarekin azaltzen diren Urnieta-Andoainetako bi UBARANak daude eta azken saila, IGORIN eta EUNTZIN oronimoek osatuko lukete[891], beti (15.-20.) -*in* dutenek, alegia.

Sailkapen hori osatzeko, honatx adierazgarriak gerta litezkeen hiru diagrama:

LEITZARAN

21.					
1989	-(a)ran	-(a)u̯n			
1900					
1800		-*(a)raun*			
1700	-*(a)ran*	-*(a)raun*			
1600				-*(a)rain*	

OARAIN

21.					
					-rai̯n, -(e)rei̯n
1989	-*(b)eran*				-*rain*, -*ren*
1900	-*(b)eran*				
1800	-*(g)eran*, -*eran*				
1700	-*(b)eran*				
1600		-*(b)eraun*			
1500	-*eran*		-*aran*	-*arain*	

[890] Iguzkitzan *Elkurin* toponimoaren idatzizko aipamen ugari daude, -*rien* > -*ren*, -*rin* bilakabidearen lekuko direnak: *Elcurien* (1185), *Alqueren* (1723), *Alcuren* (1797) / *Alcurin* (1797), *Elcurin* (1835); *NTEM-XXIV*, 106, 115, 126.

[891] Anizlarrean *Gainzin* eta *Gorostin-goicoa* izeneko saroiak zeuden 1780. urtean. NAO, errege-Auzitegiak, 156970 (I) zenb.

Aldaera ezberdinen diagrama bateratua

21.

	-en	-aḛn	-raḛn,-(e)reḛn	-(a)(r)an	-aṵn	-in
						-un
1989			*-rain*, *-ren*	*-eran*		
1900		*-ain*	*-arain*	*-eran*, *-(a)(r)an*		*-in*
1800				*-(b)eran*, *-(a)ran*	*-araun*	*-in*
18.-19.		*-ain*		*-an*		
1700	*-en*	*-ain*		*-(b)eran*, *-aran*	*-araun*	*-in*
1600		*-ain*	*-arain*	*-aran*	*-(b)eraun*	*-in*
1500		*-ain*		*-eran*, *-(a)ran*		*-in*
1400	*-en*	*-ain*	*-arain*	*-aran*		*-in*
12.	*-en*					

Lehenbizi azaltzen den forma *-en* da, 12. mendean azaldu ere, baina ihartuta dago, 15. eta 16. mendeetako *-arain* zein 17. eta 18. mendeetako *-eraun* eta *-araun* bezalaxe. 20. mendeko *-aan* eta *-an* aldaerek, berriz, bizirik diraute eta, bestalde, ahoz bildu ditugunak *-aḛn*, *-raḛn / -reḛn*, *-(a)ran*, *-an*, *-aan*, *-(a)ṵn̄* eta *-in* dira[892].

Oinarrien artean *errota*, *euntze*, *sarats* (sahats) zein *ur* izen geografikoak daude, baita, agian, *ilar* fitonimoa ere. *Eldua* eta *Leitza* toponimo beregainak dira eta *Illarrasu*-nahiz *Alcayçur*- ere izen espezifikoak direteke. *A(hi)ndu* / *Ayndo*-k antroponimo kutsua du eta *Abar*-, *Ak*-, *Erbis* / *Erbiz*-, *Igor*- / *Ior*-, *Oa*- / *Obe*- eta *Os*- oinarrien jatorria ez da gardena. Toponimoen laurdena saroi-izenak dira eta makrotoponimoen pisua ere kontuan hartzekoa da (ANDOAIN, ELDUAIN, LEITZARAN).

[892] Anderssonek (1963: 315) *-ain* (*-ein*) atzizkiaren antzinako eta egungo *-an*, *-en* zein *-in* aldaerak jorratzen ditu. Haren ustez *-ain* bertako atzizkia da eta ez du *-anum* / *-ani* latinekoarekin zerikusirik.

Azpiatal honetan bildu ditugun toponimoen nondik norakoa laburbiltze aldera, aukera bat da bi talde nagusi bereiztea, alde batera jatorriz dardarkaririk ez dutenak (*-en*, *-ain*, *-an*, *-in*) eta bestera dardarkaria dutenak (*-arain*, *-aran*, *-araun*) eta haien oinordekoak banatuz. Lehenengo multzoaren iturburua *-en* / *-ain* litzateke eta bigarrenarena *-aran* / *-arain* izen geografikoa[893] (< *haran*). Guztiarekin, bat gatoz Salaberrirekin (2000: 134) ahotan hartu ditugun amaiera batzuen zenbait alderdik argitu gabe dirautela dioenean.

[893] Ikus Salaberri (2000: 127).

8.3.2.2. *-Ani* bukaera

HERNANI[894] makrotoponimoak 12. gizaldian hasten den idatzizko ibilbide luzea du. Xehetasunetan sartuz gero, lehenbiziko lekukoa 1101. urtekoa da (*Ernani*, NAO1) eta bigarrena 1105koa (*Ernania*, IKA1). 12. mendeko gainerako bi mostrak, *Ernani* (1186-1189, IKA4) zein *Hernani* (1186-1193, IKA5) dira eta ohar bedi azken horretan *H* dagoela hasieran. Hurrengo erreferentziak 15. mendekoak dira (*Ernani*, 1427, HUA1; *Hernani*, 1467, HUA5) eta handik aurrera *Hernani* nagusitzen da ia erabat idatzizko tradizioan[895]. Zati generikoak dituzten formen kasuan grafia aldatu egiten da zertxobait eta, adibidez, 18. mendean *Ernanibasoa* (1739, HUA36) eta *Ernanibaso* (1797-1833, HGR2, 58 au.; 1797-1833, HGR2, 61 au.) kausitu ditugu, lehen erakuskaria *Hernanibasoa* (1712, HUA30, 87 bin.) izan arren, hots, usaian hasieran *H*-rekin idatzirik egon arren. Modu berean, berriemaile guztiek *Ernani* ([érnanì], K.) darabilte. *Ern-* erroak *Ernio* toponimoaren aurreneko elementuarekin duke zerikusia eta baliteke *-ani* bukaera *Altzania* (*Altzani*) eta *Bidania* (*Bidani*) toponimoen bigarren osagaiarekin lotua egotea, baina horien kasuan ere nondik heldu den ez dago argi. Izan ere, *Hernani*, *Altzania* eta *Bidania* toponimoen bukaerak latinarekin zerikusia duela ez dirudi eta, ildo horretan, aintzat har ez dagoela *-ani* > *-ain* urratsaren zantzurik. Hain zuzen, Caro Barojaren (1981: 13) irudiko, *-ani* bukarea duten izenak latinezko genitibo singularraren gainean eraiki direteke, *-anus*-en gainean alegia, eta Berako ikertzailea (1990 [1945]: 59-83; 1980: 207-328) *-anum* > *-ain* zein (*-anum* >) *-ain* > *-in* bilakaerez mintzo da. Alabaina, Mitxelenak (*AV*, 18) *-ani* > *-ain* urratsa hobesten du, *-anu* > *-ain*-en ordez, eta Irigoienen (1995: 193-203) aburuz, *-ain*-ek antroponimia latindarreko *-ano* (< *-anu*) formaren *-ani* bikian du jatorria. Salaberri (1994: 43-44), azkenik, *-ani* > *-ain* bilakabidearekin bat dator, bide horrek, behin baino gehiagotan, arazoak aurkezten baditu ere. Nolanahi ere den, atentzioa ematen du HERNANI makrotoponimoaren amaieran 12. gizaldiaz gertoztik gaur arte aldaketarik ez egotea, hots, Erdi Arotik gaur arte gailentzen den forma *Hernani* izatea eta ez besteren bat[896].

---

[894] Libanoren Erdi Aroko toponimia-bilketaren bigarren alean (1996: 454-456) *Hernani*-ren aurreneko aipamen guztiak daude zerrendatuta.

[895] Ikus 9 §.

[896] Cf. Salaberri (2000: 126-127).

8.3.2.3. *-No* eta *-ño* bukaerak

Azpiatal honetan bi toponimo hartuko ditugu ahotan. Aurrenekoa ABAÑO da eta honen aipamen guztiak 20. mendeko dokumentazioan aurkitu ditugu. Zaharrena 1942. urteko mapa batean dago eta *Agoño* (IGC1) irakur liteke bertan, bigarrenean bezalaxe (*Agoño*, 1953, IGC2), baina hortik aurrera *Abaño* topatu dugu aldi oro tradizio idatzian (1962, UTC; 1983, GFA2; 1981, SGE2; 1983, GFA2). Informatzaileek dokumentazioan kausitu bi formak darabiltzate[897] (*Agoño* [ágóñò], Aparr.; *Abaño* [abáñò] / *Abañoko zentrala* [abáñokò zéntralà], Aska.), forma arrunta *Abaño* bada ere, esan nahi baita hori dela guztiek maizenik erabiltzen dutena; bigarren bokalaren asimilazioa erakusten duten *Aboñoko altzudiya* (DTE) eta *Aboñoko zentrala* (1989, HUTB) ere gordeak daude. Toponimo iluna da eta, gainera, idatzizko datu gutxi daude, baina zerbait esatekotan, esan dezagun Lasarte-Usurbilen, gure esparrutik gertu, badela *Abendaño* toponimoa, eta hura ere erreka ondoan dagoela[898].

Begiratu dugun dokumentazioan ARANO[899] herri-izenaren aurreneko agerraldia 16. mendekoa da, 1538. urtekoa hain zuzen[900] (*Arano*, HUA9) eta idazki guztietan forma bera errepikatzen da harrezkero (1683, HUA28; 1773, VEK1; 1911, IM; 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1970, SGE1; 1980, IGN1; 1983, IGN2 eta 1983, GFA2), deklinabide-hondarkia edo generikoa dutenak barne (*Aranoco-Etzelaco-gaña*, 1899, HUA49; *Aranoarren*, 1920, HUA57, 888 or.; *Aranoagen-monja*, 1920, HUA57, 887 or.; *Arano-mendi*, 1960, LPB, 79 or.). Berriemaileek, bestetik, *Arano* ([áranò], Amu.; *Aranoarran txabola* [áranoarràn txábolà], Ek.; *Aranoko kalbayua* [aránokò kálbayuà], Txim.) eta bokal arteko dardarkaria galdu duen[901] *Aano* formak darabiltzate ([áanò], Amu. / [áanò áldeá][902], Amu., *adl.s.* / [áanon], Arg., *in.* / [áanoà], Id., *adl.s.*). Nafarroako

---

[897] Cf. *HUTB*.

[898] Cf. Gasteiz udalerriko *Abendañu* kontzejua. Gorrotxategi & Otxoa de Eribe (2004). Kantabrian (San Vicente de la Barquera ondoan) bada *Abaño* izeneko herrixka bat eta Asturiasen bi toki-izen hauek aipatzen ditu Viejok (1992: 30, 68), *Abanus* eta *Aboño*: "*Abanus*, del aniciu indoeuropéu **ab*-, <<augua, ríu>>, presente en célticu y en llatín, o bien del ilíricu **ap*-, del mesmu significáu"; "*Aboño* (de *Aponius*, sobre l'acusativu). Antropónimu na toponimia del conceyu de Carreño".

[899] Cf. Orioko *Arano* eta *Aranoko erreka* toponimoak (1998, ORM), edota Getariako *Arano* baserria (1998. GM).

[900] Honako aipamena egiten du Urangak (1983: 49): "… escritura de 1508 —que también cita Yanguas—, por la que el prior y cabildo de Roncesvalles dieron acenso perpetuo el lugar desolado de Arano, con sus términos y montes, a Juan Periz de Iraizoz y a su hermano Lopecho, […]".

[901] Cf. Salaberri (1997: 659) eta Euskaltzaindia (1997: 658-659, 664).

[902] *ARANO* + *alde* + *adlatiboa*: *ARANO aldera*.

makrotoponimo honen etorkiaz Mitxelenak (*AV*, 470, 69) dio -*no* txikigarria egon litekeela (*[h]aran* + -*no*), -*ano* bukaeraren ordez, baina Irigoienek (1990: 40) uste du *Ara* / *Arano* (*Ara* + -*no*) pertsona-izenekin egon litekeela lotua. Salaberri (1997b: 34; 2005: 116) ere, ordea, Mitxelena bezala, -*no* txikigarriaz mintzo da (‘harankoa’).

Laburbilduz, dagoen informazioaren argitan, gure esparruko -*no* eta -*ño* bukaerak -*no* txikigarriarekin lotuak daudela ezin da ziurtatu, idazkietan gutxi eta berandu agertzen diren bi toponimo direlako, baina uste izatekoa da *Arano* herri-izenaren kasuan bederik -*no* txikigarria dagoela.

8.3.2.4. *-Ki* bukaera[903]

ORMAKIO[904] oronimoaren idatzizko lekukotasunak 1944. urteko bi mapatan aurkitu ditugu (*Ormaquierreca*, 1944, GHO1; 1944, GHO2) eta azpimarratu beharra dago belarriz jaso dugun forma bera ageri dela kartografian (*Ormaki* da, [órmakì], Amu., An. 1), nahiz eta informatzaile batek bukaeran bokal erdikoarekin ahoskatzen duen (*Ormakioerreka* [órmakjoérrekà], Ek.). Lehen zatiak *horma* hitzarekin duke zerikusia eta kontuan har aztergai dugun izena oronimoa dela, ez baserria eta, gainera, dakigula, ez dagoela aparteko eraikinik han. Beste aukera da, Salaberriri (1994: 68) jarraikiz, *Orma*-k 'murru' zentzua izatea eta, orografiari erreparatuz gero ORMAKIOn arroila galanta dago.

PARDAKI mendi- eta baserri-izenaz, hasteko, adieraz dezagun aurreneko aipamenak 18. mendearen amaierakoak direla eta bokal irekia dutela hitz amaieran (*Achitillun o Pardaquia*, 1794-1831, UGR3, 15 au.; *Pardaquia*, 1794-1831, UGR3, 17 au.; 1794-1831, UGR3, 18 au.). Hurrengo gizaldian, ordea, behin bakarrik azaltzen da *-a* bokalarekin (*Pardaquia*, 1831-1845, UGR4, 24 au. / *Pardaqui*, 1844, AT, 179 or.; 1855, UEA1; 1860, UINGR2, 79172 zenb.; 1863, URU, 155 bin.; 1897, AT, 179 or.; 1945, UUA15; 1945, AT, 179 or.; 1948, UUA16; 1951, UUA18) eta 20. gizaldian, azkenik, *Pardaki* (1951, UUA15b; 1979, UUA20; 1983, GFA2) forma baizik ez dugu kausitu. Berebat, eratorri asko daude, zati generikoak zein bereizgarriak dituztenak, aldaketa azpimarragarririk ez dagoen arren (*Pardaqui echeverria*, 1831-1845, UGR4, 26 r.; *Pardaquico-aitz-ondoa*, 1794-1831, UGR3, 19 r.; *Pardaqui-azpia-ondoa*, 1951, *herbal*, UUA18; *Pardaqui-goicaldicoa*, 1951, *maizal*, UUA18, *Pardaki´ko-arkaitzak*, 1976, TA, 14 or.; *Purdaquiborda*, 1980, IGN1). Berriemaile guztiek ere *Pardaki* ahoskatzen dute ([párdakì], Ai., Mik. eta Oiarbi. / [pardáki] Amu. / [párdakí], Amu.) / [párdakiá], Amu., *adl.s.*). Amaitzeko, diogun oinarriak gure esparruko PARDIOLArekin zein Aralarko *Pardarri*-rekin izan lezakeela lotura eta, bestetik, garbi dagoena da idazkietan hitz amaieran azaltzen den bokal irekia artikulua dela.

---

[903] ASOLAMAKIO ere sail honetakoa da.

[904] Zegaman *Ormakio* lepoa dago (1997, ZGM) eta Galipentzun *Ormakieta* toponimoa dugu. Ilurdotzen (Esteribar) ere *Ormakieta* izeneko tokia dago (*Hormaquieta*, 1892; *NTEM-XXXVI*, 106) eta, azkenik, Aldaban (Itza zendean) *Formaquio* aurkintza dokumentatzen da 1125-1135. urtean; Goñi Gaztanbide (1997: 149).

-*Ki* bukaera 17. mendean azaltzen da aurrenekoz idazkietan eta jatorri ezezaguna du; oinarriek ez dute laguntzen, gehienak ilunak direlako (*Asolama*-, *Orma*-, *Pard[a]*-). BELOKI alde batera utziz gero, idazkietan segidan -*o* edo -*a* bokala duela opatu dugu, hots, mugatzailearekin eta, ñabarduretan sartuz gero, bokal horiek gabeko formak 19. mendeko idazkietan ikusten dira lehenbizikoz; alabaina, *Ormakioerreka* salbuespenaz landa, ahozko tradizioan amaieran bokal irekia duen mostrarik ez dugu aurkitu (-*o*, -*a*). Mitxelenak (*AV*: 481) dio -*ki* bukaerak lekua adierazten duela eta *toki* hitz aske / atzizkiarekin dagoela lotua[905], baina, Salaberrik (1994: 901-902; 1998: 80-81; 2005: 101, 116) ohartarazten duenez, txikigarria ere izan liteke.

[905] *OEH*n "berogi" aldaera biltzen da; Mitxelena (1987b: IV, 814).

8.3.2.5. -*Ka* bukaera

Gutxi azaltzen diren bukaeretako bat -*ka*, nahiz eta osagai hori duen toponimo bat, TXUSAKA hain zuzen, nahiko ezaguna izan gure esparruan. Begira diezaiegun astiroago dauden adibideei. KONTRASKA oikonimoaren lehenbiziko lekukotasuna, esate baterako, 1739. urtekoa da (*Contrasca*, 1739, HUA36) eta orduz geroztik forma bera bildu dugu, hala idatziz (1797-1833, HGR2, 47 au.; 1843, HUA43; 1864, HUA47; 1857, HUA48, 45 or.) nola ahoz (*Kontraska* [kóntraskà], Eg. 2). Hipotesi bat da *Kontresta* / *Kontrista*[906] apelatiboarekin dagoela lotua (cf. Arabako, Nafarroa mugako, *Kontrasta* herriaren izena), aurreranzko asimilazioa dela medio eta, beste bat, berriz, *kontra* + *aska* edo dagoela (‘kontrako aska’).

ORTZAIKA. Honen idatzizko aurreneko aipamena 1797. urteko idazki batean aurkitu dugu eta *Oceriagoca* (HUA41) forma irakur liteke bertan. 20. mendean, ordea, *Orzaica* forma kausitu dugu gehienetan (1920, HUA57, 104 or.; 1932, HUA57, 391 or.; 1936, HUA57, 95 or.) eta salbuespen bakarra *Oreceica* (1920, HUA57, 898 or.) da. Belarriz, bestalde, *Ortzabika* ([ortzabíka], Amu.), *Ortzeika* ([órtzei̯kà], Iz., Txab. 1, Txim.), *Ortzaika* ([órtzai̯kà], Txim.) jaso ditugu guk eta *Ortzika* aldaera ere zerrendatua dago (1989, HUTB). Etimoaren karietara, Irigoienek (1995: 79) dio *Orceriagoca* forma toponimotzat estratifikatutako esaldia dela, hau da, *satzname*-a dagoela hor. Haren ustez, adberbioz, datiboan deklinaturiko zeharkako konplementuz eta datiboarekin komunztaduran doan adizkiz legoke osatua, eta gaztelaniazko *a que estás esperando ahí* esamoldearen adierakide litzateke (‘hor zeri hagoka’).

Goian esan moduan, TXUSAKA oikonimo ezaguna da gure esparruan, erakusgarri zaharrena 18. mendekoa den arren (*Chosaca*, 1776, UINGR1, 7 zenb.; *Chuzaca*, 1776, UINGR1, 12 zenb.). Kontuan har ez dagoela sabaikarituriko aldaerarik, 19. mendeko idazkietan ez bezala (*Chuchaca*, 1855, UEA1 / *Chuchaca borda*, 1863, URU, 147 au.; *Chosaca*, 1864, HUA54; *Chusaca chiqui*, 1878, UUA1). 20. mendean *Susaca* (1925, L.M. 165 or., 1951, *helechal*, UUA18; 1951, *argomal*, UUA18), *Suseca* (1942, IGC1; 1953, IGC2), *Chusaca*, 1951, *helechal*, UUA18; 1951, *argomal*, UUA18) *Susuka*

[906] “Adversario, adversaire”, *DVEF*, 652.

(1956, UUA10G), *Sososca* (1962, UTC; 1981, SGE2) eta *Xoxoka* (1983, IGN2; 1983, IGN2; 1986, GFA3) bildu ditugu idatziz, eta ahoz *Txuseka* ([txúsekà], Ai. / [txúsekàn], Mik., *in.* / [txúsekà], Urn. 1), *Txosoka* ([txósokatík], Ai., *abl.* / [txósokà], Amu.), *Txusoka* ([txúsokà], Amu. / [txúsokàn], Amu., *in.*), *Xoxoka* ([xóxokà], Ai. / [xóxokatìk], Ak., *abl.* / [xóxokà], Amu. / [xóxokàn], Amu., *in.*) eta *Xuxoka* ([xúxokà], Amu.); ikusten den bezala, aldaketak informatzaile berarengan gertatzen dira sarritan. Etorkia ez da bistakoa, baina, gure iritziz, ibilbidea honakoa izan da: *Txosaka / Txusaka* > *Txosokoa / Txuseka / Txusoka* > *Xoxoka / Xuxoka*.

UXTARKA oronimoaren lekukotasun guztiak, azkenik, ahozkoak dira (*Uxtarka* [uxtárka], Amu. / [úxtarkà], Mari. 2; *Ustarka* [ústarkà], Mari. 1) eta hortik aurrera ezer gutxi erants daiteke, gertu dagoen UZTARKAITZ toponimoarekin zerikusia izan lezakeela ez bada.

Gure esparruan *-ka* bukaera duten lau toponimo daude (KONTRASKA, ORTZAIKA, TXUSAKA, UXTARKA) eta, horrenbestez, ez da asko azaltzen den bukaera. Ildo horretan, Mitxelena (1981: 259), toponimia hagusiaz ari delarik, *-Vka* atzizkiaz mintzo da, baina iluna dela esaten du, eta euskal jatorria duela zalantzan jartzen du ondoren[907]. Nolanahi ere, *-Vka* guztiak ez dira segur aski *Gernika*, *Lauzirika* edo *Gaubeka*-ren ahaide edo multzokoak.

[907] Cf. Salaberri (2005: 115).

8.3.2.6. -*O* bukaera[908]

Izen espezifiko eratorrietan dauden bukaeren azterketarekin amaitzeko *-o* bokala duten toponimoez mintzatuko gara ondorengo lerroetan. Esate baterako, ATXURRO[909] izeneko bi toki daude gure esparruan, bata Astigarraga-Hernanietako mugan (64-30-8) eta bestea Hernanin (64-47-2). Aurrenekoaren (64-30-8) erreferentzia zaharrenak 18. mendean aurkitu ditugu eta lehenbizikoan (1780. urtea) *erreka* generikoa du osagai (*Achurruerreca*, 1780, HUA39); beste bi etsenpluetan, ordea, *-l-* dago hitz hasierako bokalaren ondoan (*Alchurru*, 1797-1833, HGR2, 72 au.; *Alchurru-echeverri* (1797-1833, HGR2, 72 au.). 19. mendean albokaria ikusten da adibide batzuetan (*Alchurru*, 1831, DUA2; 1847, JII, 34 or.) eta gizaldi horren azken aldera aldaketak daude, bukaeran, bokal itxia zegoen tokian, bokal erdikoa (*-u* > *-o*) dagoelako (*Alchurro de Lucámbio*, 1857, HUA48, 39 or.; *Alchurro de Ormazábal* (1857, HUA48, 39 or.). 20. mendeko idatzizko erakusgarri bakarra *-e-*z amaitzen da, hots, bokal paragogikoa duke (*Achurre*, 1920, HUA57, 633 or.) eta berriemaileek *Atxurro* ([átxurrò], K.) forma darabilte. Hernaniko (64-47-2) toponimoaren aipamen guztiak ahozkoak dira eta hitz bukaeran denetatik dago, informatzaile berak *Atxurro* ([átxurrò]), *Atxurroko bizkarra* ([atxúrrokò bízkarrà]), *Atxurreko egiya* ([atxúrrekò égiyá]), *Atxurreteiko egiya* ([atxúrreteịkò égiyá]), *Atxurmalda* ([átxurmaldá]) zein *Atxurrumalda* ([atxúrrumaldà], Aparr.) formak baliatzen baititu. Etimoari dagokionean, bigarren osagaia hidronimoa (gazt. *chorro*) edo oronimoa izan liteke[910] (*tuturru*, *txutxurro*, *txutxurru*; ‘punta’, ‘muturra’, ‘gailurra’). Cf. MUNITXORRO.

ETZIAGO. Honen lehenbiziko lekukotasunak 1797. urtekoak dira eta *Eceago* forma irakurtzen da idatzizko iturrian (*juncos*, HUA41; *peña*, HUA41). Zernahi gisaz, 20. mendeko dokumentazioan *Etzio* / *Ezio* kausitu dugu aldi oro (1942, IGC1; 1944, GHO1; 1953, IGC2; 1962, UTC; 1980, IGN1; 1981, SGE2; 1983, IGN2; 1982, CAG, 189 or.; 1982, CAG, 190 or.; 1982, CAG, 188-190 or.) eta ildo beretik, ahoz *Etzio* ([étzíò], Amu.), *Etzioko arriya* ([etzíokò árriyà], Amu.) zein *Eziokoarri* ([ezíokoárrì], Txim.) jaso ditugu. Horrenbestez, *Etzeago* > *Etziago* > **Etziao* > *Etzio* / *Ezio* bilakabidea

---

908 Ikus baita ere ASOLAMAKIO eta ORMAKIO.

909 Igeldon (Donostian) bada *Txurruta* hidronimoa (64-11-3), 1818. urtean *Churrueta* formaz aipatzen dena. Iturenen (Malerrekan), bestetik, *Aitzurra* izeneko hegia dago; Iñigo (1996:211).

910 Ikus *EAEATB*, 851-852.

burutu da, nahiz eta lehen zatia non amaitzen den eta bigarrena non hasten den jakitea neke izan[911]. Alde horretatik, ez litzateke harritzeko aurreneko zatiak (*Etze*-? / *Eze*-?) ETZELA toponimoarekin zerikusia izatea.

EZIAGOri datxekionez, lehen-lehenik diogun kokapenaren aldetik ez duela aurrekoarekin (ETZIAGOrekin) zerikusirik, biak eite berekoak izan arren. Aurreneko aipamenak 15. eta 16. gizaldietakoak dira eta hitz hasieran ez dago bokalik (*Ceago*, 1418 , A.A., 561, 778 or.; 1546 , A.A., 562 or.), idazketaren arloko okerrak direla medio segur aski (*de *Eceago* > *de Ceago*). 18. mendean hitz hasieran bokal erdikoarekin irakur liteke (*Eseago*, 1739, HUA36) eta 19. mendean hiru forma aurkitu ditugu idazkietan, *Eciago* (1843, HUA43; 1864, HUA47), *Ceago* (1863, HRU10, 53 bin.) eta *Eciagu* (1857, HUA47, 45 or.). 20. gizaldian *aurre* bereizgarria duen *Eciago-aurria* (1920, *terreno vivero*, HUA57, 43 or.) jaso dugu eta ahozko tradizioari erreparatzen badiogu *Ezio* ([ézíò], K.) ahoskatzen da arrunki, hau da, ETZIAGOren kasuan ez bezala, txistukari igurzkariarekin ebakitzen dute informatzaileek.

GARRIGO toponimoaren erreferentzia guztiak 20. mendeko kartografian topatu ditugu (*Garrigo*, 1942, IGC1; 1944, GHO1; 1953, IGC2; 1962, , UTC; 1980, IGN1; 1981, SGE2), baina iturri horiek, damurik, ez dira fidagarriak eta, gainera, ez dago ahozko erreferentziarik.

LEKAIO[912] mendi-izena 17. menderako lekukotzen da (*Lecaio*, 1683, HUA28; *Lecaiopera*, 1683, HUA28) eta ohar bedi bigarren aipamenean adlatiboan deklinaturik dagoela. 18. mendean beste izen bati (ADARRAri) erantsita aurkitu dugu (*Andarlecaiopea*, 1773, VEK1A) eta 19.ean sabaiko belarraren grafemarekin idatzita azaltzen da lehenbizikoz (*Lecayo*, 1857, HUA48, 72 or.). Idatzizko gainerako testigutzak erratuak dira, guztiak 20. mendekoak[913] eta ahozko tradizioari doakionez, sabaiko herskaria du beti *-o-* aurrean (*Lekayo* [lékayò], Ai., Amu., Larr., Mari. 2 / [lekáyo], Amu.). Berriemaile batek jakinarazten duenez, *lekaio* terminoak ‘ohiu’, ‘uju’

911 Idiazabalen bada *Eziolatza* baserria (1999, IDM).

912 Barandiaranek (1962: 119) *Lekaien-borda* (1802, *Borde de Lekai*) jasotzen du Saran.

913 *Leyaco* (1944, GHO1; 1944, GHO2; *Leiako*, 1982, CAG, 183 or.; 1983, GFA2), *Leiako elurzuloa* (1960, LPB, 53 or.).

adiera du eta, haren esanetan, mendiaren beste izena (ADARRAMENDI) eginkizun berarekin dago lotua, hau da, handik (adarra joaz) abisu ematearekin[914].

MENDABIO[915] 12. mendean lekukotzen den hamabost saroi-izenetariko bat da eta sudurkari ondoan horzkari ahoskabea ageri da aldi hartan (*Mentauio*, 1178, IKA3), nahiz eta handik aurrera horzkari ahostuna azaltzen den beti lekune horretan (*Mendabio* / *Mendauio*, 1516, HUA7; 1607, HUA23; 1773, VEK1; 1831, DUA2; 1847, JII, 34 or.; 1855, HINGR2, 4244 zenb.; 1951, *inculto*, UUA18; 1976, TA, 16 or.); herskari ezpainbikoaren tokian dardarkaria duen *Mendario* (1780, HUA38; 1863, HRU7, 44 v.; 1960, UZA1) eta, ezpainbikoaren erortzearen ondorioz, *-ayo* bukaera duen *Mendayo* (1976, TA, 17 or.) / *Regata-Mendayo* (1983, IGN2) ere topatu ditugu idazkietan. Berriemaileengandik *Mendabiyo* ([méndabíyo], Amu.), *Mendayo* ([méndayò], Ek.), *Mendaiyo* ([méndaiyò], Larr., Mari. 2) jaso ditugu guk eta *Mendaayo* (1989, UUTB) forma ere gordea dago. Etimoaren harira, izan, oinarria *Menta* landare-izena izan liteke[916], eta alde horretatik ezin ahaztu 12. mendean *Mentauio* forma dugula, *-nd*-ren tokian *-nt-* duena[917], baina, berebat, *mando* zoonimoa egon liteke, izen horren elkarketarako aldaera litzatekeena alegia (**Manda-bi-o*), atzerako disimiliazioz *Mendabio* eman bide duena[918]. Bigarren osagaia *-bi-* dateke ('bidea'), hau da *-bide*-ren aurrekaria[919] eta amaierari doakionez, egon, Mitxelenak (*AV*, 471) aipatutako *-io* bukaera egon liteke, *Areitio*, *Bakio* edota *Elorrio* izenetan agertzen dena alegia (cf. *Labio* [< *Labiano*], *Undio* [< *Undiano*]); alabaina, Salaberrirekin (1997b: 35) bat eginez, uste dugu adibide horietan (eta gure esparrukoan) *-o* gradu hurbileko mugatzailea dagoela[920] (cf. *Mendabia*).

MUNITXORRO oronimoaren idatzizko hiru testigantzak 19. mendekoak dira (*Muñachurro*, 1852-1854, UTR6, 43 au.; *Muñachorro*, 1857-1860, UTR9, 49 au., 1863,

914 Idiazabalen bada *Ojuleku* izeneko tokia (1999, IDM).

915 Zubietan (Malerrekan) *Mendabio* auzoa dago (Iñigo, 1996: 400) eta Arraiozen (Baztanen) izen bereko lekua (1884; *NTEM-LII1*, 161).

916 Bentarik ez dago inguruan. Cf. Iglesias (2000: 289).

917 *FHV*, 353.

918 Cf. *Mendabia* (Lizarra merindadean): *Mendauia*, *Mendavia*, 1194 / *Mandauia*, *Mandavia*, 1272; *NTEM-XIX*, 138.

919 Ikus *FHV*, 412.

920 Pastorrek (1989: 217) *Portillo de Carramendavia* (1778) aipatzen du Los Arcosen.

URU, 155 bin.) eta, bestalde, ahozko *Munitxorro* (1989, UUTB), *Munitxoor* ([múnitxoòrr], Ai.) zein disimilazioaren lekuko den *Mulitxorro* ([mulítxorrò], Benta.) formak daude zerrendatuak (cf. MUNISKUE). Osaketaren aldetik, aukera bat baino gehiago daude, kasu guztietan lehen osagaia *muino* (*muina*-) izen geografikoa dela irudi badu ere: *muino* (*muina*-) + *zorrotz*[921], *muino* (*muina*-) + *txurru*, *muino* (*muina*-) + (*txu*) *txurro* ('muinoaren punta'); Cf. ATXURRO.

URLIO da azpisail honetako azkena. Idatziko etsenplu bakarra 1944. urteko mapa batean dago, baina ez da fidagarria (*Urtio*, 1944, GHO1) eta belarriz *Urlio* ([úrliò] (Bordatx., En.) zein hiato barruan sabaiko frikaria duen *Urliyo* ([úrliyò], Amu.) bildu ditugu. Oinarria *ur* izan liteke[922], baina bigarren zatiaren (-*lio* bukaeraren) nondik norakoa ezezaguna da.

Amaieran -*o* bokala dute, baina ez du ematen azpiatal honetan aztertutako toponimo guztiek jatorri bereko bukaera dutela. Izan ere, *txurru* / *txurro* hitzarekin loturik daudekeen ATXURRO eta MUNITXORRO toponimoez gainera, -*(a)go* segida duten ETZIAGO eta EZIAGO opatu ditugu, esate baterako. Bestalde, ASOLAMAKIO, MALKARRO eta ORMAKIOren bukaerako -*o*, Irigoienek (1986: 129) eta Salaberrik (1997b: 34) iradoki moduan, gradu hurbileko mugatzailea da ziurrenik. Laugarrenik, -*io* duten MENDABIO, LEKAIO eta URLIO kausitu ditugu eta horien ezaugarria da denboraren buruan ez dutela bukaerako -*o* galdu, aurreko hirurek ez bezala. Mitxelenak ahotan harturiko -*io* bukaerarekin zerikusia izan lezakete[923] eta, ildo beretik, Salaberri (2005d: 851) ere -*io* bukarea duten leku-izenez mintzo da (*Berrio*, *Elorrio*, *Gorrio*, *Orio*, *Orrio*), baina, *Mendabia* herri-izena badela ikusirik, uste izatekoa da MENDABIO[924] toponimoaren kasuan bederik gradu hurbileko mugatzailea dagolea, eta ez -*io*.

---

[921] Cf. Etxarri Aranazko *Altxorrotx*; *NTEM-XII*, 33.

[922] Errekarik ez da falta han, bi edo hiru baitaude gutxienez.

[923] Ikus González de Duranak (1981: 106) Bizkaian -*io* atzizkia duten toponimoekin osaturiko zerrenda.

[924] Nafarroako Zubietan ere izen hori duen ingurua dago eta gure esparrutik hurbil, Goizuetan hain zuzen, *Berdabio* toponimoa dago, aurrenekoak bezala, bukaeran -*bi*-*o* segida duena.

8.3.3. Atzizkiak

8.3.3.1. -*Eta* atzizkia

AGIÑETA izen espezifiko eratorriaren berri informatzaileei esker izan dugu (*Agiñeta* [ágiñetà], K.) eta, kasu honetan, agerikoa da erroa *hagin* zuhaitz-izena dela (*[h]agin* + *-eta*; 'hagin lekua'). Cf. AGINAGA.

AGIRREZELAIETA ihartutako oikonimoa da eta idatzizko aipamen bakarra 1857. urteko baserri-izendegian dago (*Aguirre-celayeta*, HUA48, 44 or.). Etxe-izena denez gero deitura izan lieteke jatorriz eta, alde horretatik, *Aguirre*-k eta *celayeta*-k deitura itxura dute, are gehiago iturrian marratxoa erabiltzen dela ikusirik.

AIZTIETAKO MUNTOA oronimoaren iturburua izatez **Ariztieta*, **Ariztegieta* zein **Aiztegieta* izan daiteke, baina, ahozko lekukotasunak besterik opatu ez ditugunez, (*Aixtitako munttua* [ái̯xtitakò múnttuà], Ezk. b., Lor. b.) ezin auzi hori erabaki. Garbi dagoena da oinarriaren eta atzizkiaren arteko elkargunean *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena burutu dela.

AKOLAITURRIETA forma 19. mendean ageri da aurrenekoz (*Acola Yturrita*, 1855-1857, HTR8, 22 au.), baina oinarrian dagoen *Akolaiturri* toponimoa 18. mendean dokumentatzen da (*Acola Yturri*, 1780, HUA39; *Acola-yturri*, 1780, HUA39). Bada 20. mendeko idatzizko lekuko bat (*Acola-Yturrieta*, 1920, HUA57, 982 or.) eta berriemaileei *Akolitturrita* ([ákolitturrità], K., Txab. 1 / [akólitturríta], Id. / [ákolitturríta], Id.) baizik ez diegu entzun; zentzu horretan, oinarrian gertatutako *-a* + *i-* > *-i-* bakuntzaz gainera, *-i* + *-eta* > *-ita* laburtzea nabarmendu nahi dugu. Hitz bitan, atzizkirik gabe lehendik bazen *Akolaiturri* hidrotoponimoak (*Akola* + *iturri*) *-eta* hartu du ('Akolako iturria dagoen aurkintza'). Ikus AKOLA.

ALDAPETA (*aldapa* + *-eta*; 'malda handiko lekua') baserri-izenak 19. mende erdi aldeko agiri batean dagoen idatzizko testigantza bakarra du (*Aldapeta*, 1831-1845, UGR4, 27 au.). Ahozko tradizioan forma hori bera erabiltzen da (*Aldapeta* [áldapetà], K.) eta agerian dago erroa *aldapa* dela, elkargunean *-a* + *-eta* > *-eta-* gauzatu baita; ez da harritzeko, horixe baitago han, malda latza. Ikus MONTEFRIO.

ALDURAITURRIETA (*Aldura[ko]iturri* + *-eta*; '*Aldura*-ko iturriaren eremua') eratorriaren erakuskari guztiak ahozkoak dira eta bietariko aldaerak daude, leku genitiboaren hondarkia dutenak eta ez dutenak (*Aldura itturrita*, 1989, OM; *Aldurittturrita* [álduritturritá], Id.; *Alduruko itturrita* [áldurukó ítturritá], Id.). *Aldura* eta *iturri*-ren arteko lotuneko *-u* + *i-* > *-i-* bakuntza zein oinarriaren eta atzizkiaren elkarguneko *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena azpimarratu nahi ditugu; berebat, bokal asimilazioa erakusten duen forma genitiboduna ere aipatzekoa da. Adibide honetan, eta ez da bakarra (cf. AKOLAITURRIETA), atzizkirik gabe erabilitako toponimo batek (*Aldura[ko] iturri*-k) *-eta* hartu du, honenbestez.

ALTZITURRIETA[925] Hernaniko hegi baten izena da ([*h]altz* + *iturri* + *-eta*; 'haltzen iturriko eremua'). 1857. urteko erakuskaria du (*Altz-iturrieta*, HINGR2, 5097 zenb.) eta belarriz *-i* + *-eta* > *-ita* burutu dela adierazten duen *Altzitturrita* ([áltzitturritá], Etxol.) bildu dugu. Lehen bi osagaiak *haltz* eta *iturri* izenak direla dirudi, baina badago beste aukera bat, etimoa *Altz(u)* + *iturri*+ *-eta* izatea, alegia (ik. ALTZUETA).

ALTZUETA[926] (*altzu [altxu]* + *-eta*?; *[h]altz* + *-tzu* + *-eta*?; 'larretokia'?, 'haltz tokia'?) oikonimoaren lehen aipamena 1668. urteko dokumentu batean dago (*Alsueta*, HUA27, 125 au.) eta orduz geroztik, erratua den *Artueta* (1942, IGC1 eta 1953, IGC2) alde batera utziz gero, bi aldaera nagusitzen dira idazkietan: batetik —aipamen zaharrenean bezala— albokariaren ondoren *-s-* dutenak daude (*Alsueta*), 17, 18 eta 19. mendeetako idazkietan aurkitu ditugunak (1728, HUA34; 1739, HUA36; 1740, HUA30, 541 bin.; 1843, HUA44; 1864, HUA47; 1857, HUA48, 45 or.) eta, bestetik, albokariaren ondoan *-z-* dutenak sailka daitezke, hots, *Alzueta* formaz idatzitakoak, 18, 19 eta 20. mendeetakoak direnak (1797-1833, HGR2, 39 au., 44 au., 59 au.; 1852-1854, H.L.P.6, 16 au.; 1863, HRU6, 42 au.; 1920, HUA57, 432 or.; 1937, A.B.; 1944, GHO1; 1944, GHO2). Xehetasunetan sartuz gero, badaude *-tz* grafemarekin

---

925 *Altziturrieta* (*Alziturrieta*, 1696) aurkintza dago Etxarri Aranatzen (*NTEM-XII*, 33) eta, era berean, *Altziturrita* jasotzen du Gaintzan (Araitzen) Elosegik (1972: 195). Gipuzkoari dagokionez, *Altziturrieta* (1998, OXM) dugu Orexan. Cf. Zegamako *Altziturri garakoa* eta *Altziturri azpikoa* (1997, ZGM).

926 Donezteben (Malerrekan) *Altzueta* etxea dago eta, orobat, Sunbillan eta Oronozen (Baztanen); Iñigo (1996: 437). Etxalarren (Bortzirietan) *Altxueta* dago bilduta (*NTEM-IL*, 126) eta Barandiaranek (1962: 76), bestalde, Sarako *Altxua* (*Halchua* 1764) etxearen berri ematen du. Eibarren, azkenik, *Altzubarren* baserria eta *Altzuzubiaga* tokia daude; Eibarko Udala & Ego Ibarra Batzordea: (1995: 68-69).

idatzitako bi lekuko 20. mendearen bigarren zatian (*Altzueta*, 1962, UTC; 1981, SGE2), eta *-alde* izenarekin zein *-berri* eta *-zar* (zahar) izenondoekin ere aurkitu dugu (*Altzueta-aldea*, 1932, HUA57, 607 or.; *Alzueta Berri*, 1983, GFA2; *Alzueta Zar* (1983, GFA2). Informatzaile guztiek albokariaren segidan afrikatu bizkar-hobietakoaz ebakitzen dute eta *-u* + *-eta* > *-uta* murriztapena egiteko joera dago[927] (*Altzutako buelta* [áltzutakò bwéltà], Andol. eta Elor.; *Altzutako erribera* [áltzutakò érriberà], Elor.), nahiz eta atzizkia osorik duen aldaera ere jasota dagoen (*Altzueta* [áltzwetà], K.). Toponimoa Urumea errekaren ondoan dagoela kontuan hartuz gero, oinarrian *haltz* zuhaitz izena eta *-zu* atzizkia daudela pentsa daiteke[928] ('haltzak dauden tokia') baina, Mitxelenaren (*AV*, 37) oinatzetan, erroa abeltzaintzarekin lotutako *altxu*[929] ('larretokia') ere izan liteke.

ALTZUSTA saroi-izenak 16. gizaldian hasten den idatzizko ibilbidea du eta, hain zuzen, aurreneko agerraldian, 1516. urtean, bokal itxiaren segidan *-z-* grafemarekin kausitu dugu (*Alçuzta*, HUA7). Ordutik, hiru talde bereiz daitezke tradizio idatzian; batetik, *Alzusta* forma dugu, lehenbizikoz 1607. urtean topatu duguna[930] eta agirietan gailentzen dena; bigarren taldea albokariaren ondoan *-s-* dutenek osatzen dute (*Alsusta*, 1780, HUA39; 1864, HUA47; 1868, DJE) eta, hirugarrena, sabaiko txistukariarekin idatzitako *Alchusta* (1773, VEK1A) eta *Altxusta*-k (1969, UUA10N, 793 zenb.). Berriemaile gehienek albokariaren ondoren *z*-rekin ahoskatzen dute (*Altzusta* [áltzustà] K.), *s*-rekin ebakitako salbuespenak badiren arren (*Altsusta* [áltsustà], Amu. / [áltsustakuá], Amu., *l.g.* / [áltsutákuak], Ak., *l.g.*), atzerako asimilazioaren ondorioz. Oinarria ALTZUETA toponimoan dagoen bera izan liteke, baina, nolanahi ere, txistukari frikariaren nondik norakoa ez dago argi[931]. Alde horretatik, gure esparruko ANTXISTA toponimoarekin duke zerikusia[932] (**Altzu-tze-eta* > **Altzu-z-eta* > *Altzuzta?*).

---

927 Cf. *Altzuta* (1989, HUTB).

928 Cf. Arantzadi (1905: 14) eta Arana (1930: 749).

929 Zubereraz *altso*, *altsu* eta *alxu* aldaerak ditugu; *OEH*, I: 836, cf. Iglesias (2000: 293).

930 *Alcusta* (1683, HUA28) erratua ere buru berean sar liteke.

931 Tolosan *Altzusta* oikonimoa biltzen dute Elosegik eta Goikoetxeak (2006: 224) eta Zeanurin ere *Altzusta* izeneko auzoa dago. Cf. Berako (Bortzirietako) *Altxuska*, (BM, 1989; *NTEM-IL*, 70) edota Lakarrak (1965: 61) *Velçoagui* monasterioaren saroien artean aipaturiko *Onçusta* (1069. urtea).

932 *Antzusieta* jasotzen du Bedoñan (Arrasaten), adibidez, Ormaetxeak (1996: 89).

AMUTXUETA / AMUTXUETARRIA bikoaren bi agerraldiak 1944. urtekoak dira, baina iturriak ez dira batere fidagarriak, damurik (*Amuchueta*, GHO1; *Amuchuetarria*, GHO1).

ANTONIZABALETA oronimoa informatzaile bakarrak darabil[933] ([ántonizabaletá], Aska.) eta oinarria *Antonio* / *Antoni(a)* izen bereziarekin lotua dagoela dirudi. Alabaina, bigarren osagaiak *Zabala* deiturarekin zerikusia duen (*Antonio Zabala* + *-eta* / *Antoni[a] Zabala* + *-eta*) edota, aitzitik, generikoa den ezin jakin (*Antonio[ren]* + *zabala* + *-eta* / *Antoni[a][ren]* + *zabala* + *-eta*).

ANTXISTA gure esparruko izen zaharrenetariko bat da, saroi honen lehen aipamena 12. mendekoa delako. Hain zuzen, eta ñabarduretan sartuz gero, amaieran *-(e)ta* gabe dago idatzia 1178ko mostran (*Anziz*, IKA3). Bigarren erakuskaria ere garai hartakoa da eta badaiteke, aurreko kasuan bezala, okerrekoa izatea, bukaerari datxekionez bederik (*Ançieta*, 1197, NAO2), bigarren txistukaria falta dela irudi duelako (**Ançizeta*?). Beste aukera egiazki **Ançiçta* izatea da, hots, kopia egin zuen eskribauak *e* eta *ç* nahasi izana. Hurrengo agerraldia 16. mendekoa da, baina testu berean aipatzen den ALTZUSTA ("*sel de Alçuzta*") toponimoarekin nahasten du eskribauak[934] ("*dos seles de Alçustas*, 1516, HUA7). Gauzak horrela, 17. gizaldia arte itxaron beharra dago, 1607. urteko idazki batean, *Ançista* (HUA23), *Anzista de yusso* (HUA23) eta *Anzista de susso* (HUA23) irakurtzeko. 1773. urtean da sudurkari ondoan *-c-* grafemarekin azaltzen den azken aldia[935] (*Ancista*, 1773, VEK1; 1773, VEK1A), erratuak alde batera utziz gero, hortik aurrera (17., 18., 19. eta 20. mendeetan) sudurkari edo albokariaren ondoan beti *-ch-* edo *-tx-* grafemekin dagoelako izkiriaturik (*Anchista*). Bestalde, hirutan herskari horzkariaren aurrean, *-s-*ren ordez, *-z-* dago (*Anchizta*, 1780, HUA39; *Antxizta*, 1944, GHO1; *Antxizta*, 1976, TA, 13 or.). Bada beste aldaera bat, *-n-*ren ordez *-l-* duena; 20. gizaldian agertzen da (*Altxista*, 1923, JMB1, 144 or.; 1926, JMB1, 121 or.; 1979, GFA1; 1982, CAG, 185-186 orr.; 1983, GFA2), baina ez dugu ahoz lekukotu, informatzaile guztiek *Antxista* ([ántxistà]) darabiltelako (Amu., Ek., Larr., Mari. 1, Mari. 2, Txim.). Etimoari dagokionez, toponimo iluna da. 1197. urteko *Ançieta* (NAO2)

933 *Antonio zabaleta* (1995, DTE) forma ere bildua dago.
934 1980. urteko mapa batean erratu bera bi aldiz errepikatzen da (*Alchusta*, 1980, IGN1).
935 C*h*-z idatzirik ere ageri da orduko (*Anchista*, *Anchistta de suso*, 1773, VEK1).

aintzat hartuz bilakabidea **Antzi-tze-eta > *Antzi-z-eta> Antzizta* dela pentsa daiteke, hau da, Mitxelenak (*FHV*, 286, 295) *in(t)sausti* eratorriarentzat (*in[t]zaur-tze-* + *di* > **in[t]zaur-s-ti* > *in[t]sausti*) proposatzen duen ildo berekoa dela, eta, horrela balitz, *Orbaizta*[936] (*Orbaizeta*) edo *Ibizta* (*Ibilcieta*) aldaera laburtuen antzekoa litzateke[937]; haatik, lehen lekukoa (*Anziz*, 1178) interpretazio horren aurka mintzo da. Azkenik, aurreneko osagaia *A(i)ntzi*[938] dateke, Hernaniko *Antziola* auzo-izenarekin izan lezakeena zerikusia.

APAIZETAKO ERREKA informatzaile bakarrak ezagutzen du (*Apaizetako erreka* [ápaịzetako erreka], Txab. 1) eta APAIZARRI (apaiz + [h]arri) toponimoarekin dago lotua, izatez, **Apaizarrietako erreka* (*apaiz + [h]arri + -eta*) formaren aldaera laburtua delako (‘apaiza bizi izandako harriko erreka’).

ARANTXOETA izena behin azaltzen da idatziz, zehazkiro adierazteko 18. mendearen amaieran (*Aranchueta*, 1797-1833, HGR2, 61 au.). Berriemaileei *Arantxuta* ([arantxúta], Amu.), *Antxota* ([ántxotà], Ek.), *Antxueta* ([ántxwetà], Etxol.) zein *Antxutako* ([ántxutakò lépuà], Etxol.) jaso dizkiegu guk, nahiz eta *Antxusta* (1989, HUTB) eta *Arantzuta lepua* (1989, HUTB) formak bilduak dauden; horrenbestez, *-u / -o + -eta* > *-uta / -ota* murriztapenak ditugu kasu honetan ahozko tradizioan. Lehen bi osagaiak *haran* terminoa eta *-txo* atzizki txikigarria direla irudi du (‘haran txikia dagoen lekua’?), baina iturburua hori dela ez da ziurra, eta toponimo gardena dela ezin esan, batetik, ARANTXOETA mendi baten goialdean dagoelako eta, bestetik, gurean badelako LIZARRATXOPE toponimoa, *Lizaratzupe*-tik datorkeena.

ARIZIRAKURRIETA ihartutako toponimoa da eta bi aztarnak 18. mendekoak dira (*Ariziracurrieta*, 1702, HUA29; *Arizerracurrieta*, 1739, HUA36). Oinarrian *haritz*

936 EUSKALTZAINDIA (1997: 658).

937 *FHV*, 368.

938 Cf. Gazteluko *Antzi* (1998, GZM) eta Abaltzisketako *Antziarain* (1997, ABM). Bide batez, diogun *Aintzi* dugula (*Ainci* / *Aince*, 1892) Urdirotzen (Artzibarren) eta Urritzen (*Ainci*, 1892); *NTEM-XXXII*, 126, 132. Erroibarren *Aintzioa* (*Ancyoa*, 1274; *Ayncioa*, 1366) herria dago (*NTEM-XXXV*, 53) eta, azkenik, *Aynçia* (1680) / *Aincia* (1732) toponimoa aipatzen du Zubitzan (Galar zendean) Jimeno Juriok (1987b: 375).

fitonimoa eta *irakurri* / *errakurri* izen / izenondoa daude, eta ez litzateke harritzeko azken hori IRAKURRI toponimoaren sail berekoa izatea (cf. ARIZMAKURRETA).

ARIZMAKURRETA (*[h]aritz* + *makur* + *-eta*; 'haritz okertu[ar]en aurkientza'?, 'haritzak dauden bihurgunea'?) ere iharturiko forma da, bi testigantzak 19. mende erdialdeko idazkietan kausitu ditugulako (*Arizmacurreta*, 1852-1854, HTR6, 16 au.; 1863, HRU, 42 au.). Agerian dago etsenplu honetan *haritz* fitonimoa eta *makur* izena[939] / izenondoa[940] ditugula oinarrian, baina, damurik, ezin jakin kokapenaren aldetik gure eremuko sortaldean dagoen ARIZMAKURRA toponimoarekin bat datorren[941].

ARKAITZETA bizkarraren idatzizko lekukotasun bakarra 1983. urteko mapa batean dago (*Arkaitzeta*, GFA2) eta ahozko tradizioan *Bekoarkaitzeta* (1989, OM) zein *Goikoarkaitzeta* (1989, OM) gorde dira. Etorki gardena du, ikusten den bezala (*[h]arkaitz* + -eta; 'harkaitz lekua').

Har- / Harri- lehen osagaitzat duten zazpi espezifiko eratorri daude gure esparruan eta lehenbizikoa ARMENDIETAKO ITURRIA da (*[h]ar- [harri]* + *mendi* + *-eta* + *-ko* + *iturria*; 'harriak dauden mendiko iturria'). Aipamen bakarra jaso dugu, ahoz jaso ere, eta *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena garatu dela adierazten du (*Armenditako itturriya*, 1989, HUTB). Gure esparruan **Armendieta* soilik izena duen tokirik ez da ezagutzen.

Hala berean, bi dira gure esparruan ARNABARRETA izeneko tokiak[942] (*har- [harri]* + *nabar* + *eta*; ('harri arreak dauden lekua'). Bata Aranon dago eta Barandiaranek aipatzen du 20. mendearen hasieran (*Arnabarreta*, 1923, JMB1, 144 or.; 1926, JMB2, 120 or.); bigarrena, berriz, Urnietan dago eta 1951. urteko amilaramenduan aurkitu dugu estreinakoz (*Arnabarreta*, 1951, UUA18). Berriemaileek elkargunean, dardarkari anizkunaren tokian, albokaria duela (disimilatua) ebakitzen dute

---

939 Ikus 6. §

940 Cf. Artaxoako *Ardantzemakurra* (Jimeno Jurio, 1969: 374; Jimeno Jurio & Salaberri, 1998: 206).

941 Donezteben (Malerrekan; Iñigo, 1996: 97) eta Orreagan (Erroibarren; *NTEM-XXXV*, 227) *Arizmakur* izeneko parajeak daude. Cf. Unanuko *Aizmakur* (*Ayzmacurra*, 1652); *NTEM-VIII*, 66.

942 Besteak beste, Lakuntzan (*Arnabarreta*, 1716; *NTEM-XII*, 94) eta Goizuetan (Etxeberria, 1988: 91) ageri da (*Arnaarta; Arnabartako azpia; Arrinabarreta; Arri nabarta*). Cf. Ziordiko zein Entziako *Aznabarreta*-k (1858; *NTEM-IX*, 91 eta Lopez de Gereñu, 1989: 92).

(*-rr-* > *-l-*), idatzizko lekukotasunetan gertatu ez bezala (*Arnabaleta* [árnabaletá], Ai., Mik. / [árnabaletà], Ai., Larr. / [arnábaletá], Mik. / [arnábaléta], Mik. / [arnábaletà], Larr.; *Arnabaletako erreka* [árnabaletakò érreká], Ai.; *Arnabaletako punta* [arnábaletakò púntà], Larr.). Aurreneko bi osagaiak *harri* izenaren elkarketarako *har-* aldaera eta *nabar* izenondoa dira eta oroit dezagun Mitxelenak (*FHV*, 310) dioena, alegia hitz zaharretan hasierako lekunean *N* ez dela arrunta, eta *nabar* dela salbuespenetariko bat ('abigarrado').

ARRIAMILDUETA (*[h]arri* + *amildu* + *-eta*; 'maldako harkadia') informatzaile bakarrak ezagutzen du eta *-u* + *-eta* > *-uta* murriztapena ikusten da hemen ere (*Arriamilduta* [árriamildutà], Amu.). *Harri* izenaz eta *amildu* partizipioaz / izenondoaz osatutako *Arriamildu*-k Zegama aldean jaso den *narda* terminoaren kidekoa dirudi[943]. Cf. LURRATXURTU.

ARRILLIMURIETA (*Arrilimuri* + *-eta*). Honen aipamen bakarra 19. mende erdialdekoa da (*Arrillimurieta*, 1847-1848, HTR3, 8 au.) eta oinarrian dagoen ARRILIMURI toponimoa ere (*harri* + *limuri*; 'harri irristakorra') aldi berean azaltzen da lehenbizikoz dokumentazioan (1831-1845, UGR4, 22 au.).

ARRITXIETAren lehen erakusgarria Barandiaranen 1928. urteko idazki batean topatu dugu (*Arritxieta*, JMB3, 263 or.); hurrengoa, eta azkena, berriz, 1982. urtekoa da (*Arritxieta*, 1982, CAG, 194 or.). Ahozko tradizioan ere *Arritxieta* ([árritxjetà] / [arritxjéta]) aldaera nagusitzen da eta, hortaz, ikusten da atzizkiaren bokal erdikoa ez dela galdu (*-i* + *-eta* > *-ieta*), informatzaile batek *Arritxeta* ([arritxéta]) ematen badu ere. Badaiteke aurreneko bi elementuak *harri* izena eta *txiki* izenondoa idaztea[944], baina bigarren tokian *itxi* (itxitura) egotea ez da ezinezkoa[945]. Alde horretatik, *Arritxieta* toki harritsua da, abeltzaintza-eremuan dagoena.

---

[943] Ikus MALMAZAR.

[944] *Arrichiquieta* izeneko meatzea dago, esate baterako, Legution; Lopez de Gereñu (1989: 71).

[945] *Harri* + *-txo* + *-eta* ere izan liteke.

Gure esparruan ARRITXURIETA[946] izena duten bi toki daude gurean (*harri* + *txuri* + *eta*; 'kuartzoz osatutako harri lekua'), biak Hernanin (64-31-6: *Arritxurita* [arrítxurità], Goi.; *Arritxuita* [árritxuịtà], Larra.; *Arrizurita* [árrizurità], Larra.; 64-63-1: *Artxuita* [ártxwità], Ezk. b.; *Arritxuita* [árritxuịtà], Etxol.; *Arritxurita* [arritxuríta], En.). Ikusten den moduan, idatzizko testigutzarik ez dugu aurkitu eta bi adibideetan *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena automatikoa da. Bestalde, ohar bedi aurrenekoan txistukaria ez dela sabaikoa aldi oro. Salbuespenez ari garenez gero, *Artxuita* ([ártxwità]) forma laburtua ere azpimarratu nahi dugu. Cf. ETZELAKO HARTXURIAK.

Aurreko adibidean gertatu moduan, bi dira ARRIURDIÑETA (*[h]arri* + *urdin* + *eta*; 'kareharri eremua') izeneko tokiak gurean. Lehenbizikoa Hernanin dago eta baserria da; bestea, berriz, Aranoko oronimoa da. Hernaniko oikonimoaren lehenbiziko lekukotasuna 1843. urtekoa da (*Arri-urdiñeta*, 1843, HUA44) eta hortik aurrera forma bera erabiltzen da egun arte iturri idatzietan (*Arriurdiñeta*, 1864, HUA47; 1857, HUA48, 45 or.; 1920, HUA57, 632 or.; 1936, HUA57, 461 or.;1937, AB; 1942, IGC1; 1983, GFA2). Salbuespen bakarra 1944. urteko mapa batean dago, baina ez fidagarria, horratik (*Arriurdiña*, 1944, GHO1). Informatzaile guztiek *Arriurdiñeta* ([arríurdiñetà], K.) darabilte. Bestetik, Aranoko mendi-izenaren idatzizko erakusgarri bakarra 1960. urtekoa da (*Arriurdiñeta*, LPB, 88 or.) eta ahozko tradizioan ere *-eta* duela jaso dugu gehienetan (*Arriurdiñeta* [árriurdiñéta], Lor. b.), atzizki gabeko *Arriurdin* (1989, HUTB) bildua dagoen arren. Bistan denez, sorburua *harri* izenaz eta *urdin* izenondoaz osatutako *harriurdin* terminoa da (cf. ARGORRI).

ARROBIETA iharturiko toponimoa da eta lekukotza bakarra 19. mende erdialdeko idazki batean dago (*Arrobieta*, 1845-1846, HTR1, 1 au.). Zernahi gisaz, etimoa gardena da (*harrobi* + *-eta*; 'harrobi tokia').

[946] Iñigok (1996: 354) adierazten duenez, *Arrixurieta* malkarra dago Zubietan (Malerrekan), besteak beste, honako agerraldiak dituena: *Arrichuriza* (1772), *Arrischurieta* (1821) eta *Arrizurita* (1933). Aipatzekoa da 20. mendean *Arrichista* formaz dokumentatzen dela behin baino gehiagotan (1933, 1982, 1990) eta ahozko tradizioan bi aldaerak gorde direla (*Arrixurita* / *Arrixista*).

ARTEGIETA (*artegi* + *-eta*; ‘ardiak biltzeko tokia’) oronimoaren idatzizko lehen aipamena 18. mendekoa da (*Arteguieta Colepoa*, 1780, HUA39) eta badago 19. mendeko erreferentzia bat ere (*Arteguieta*, 1833-1835, DUA3). Bestalde, geuk elkarrizketaturiko informatzaileek *Arteitako* darabilte[947], bokal arteko belarra erori dela eta *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena automatikoa dela erakusten duen aldaera (*Arteitako gaña* [artei̯takò gáñà], Txab. 1; *Arteitako lepua* [artei̯takò lépuà], Txab. 1, Txim.). Oinarria *ardi* izenaz eta *-(t)egi* atzizkiak dituen *artegi* da, artzaintzarekin lotura duena.

ARTESKIÑETA[948] mendiaren bi ereferentzia daude eta biak ahozkoak dira (*Arteskiñeta* [artéskiñetà], Ezk. b. / [árteskiñetà], Lor. b.). Espezifiko eratorri honen nondik norakoa zein den ezezaguna da, lehenbiziko osagaiak *artesi* hitzarekin zein *arte* zuhaitz-izenarekin izan lezakeelako zerikusia eta bigarrenak *-kin* (*-gin*) adzkiarekin edota *iskina* (‘bazterra’) terminoarekin (*artes[i]* + *-kin [-gin]* + *-eta*?, *arte* + *[i]skin[a]* + *-eta*; ‘artesiak egiten diren tokia’?, ‘arte tokia’?).

ASTINKETA ihartutako toponimoa da; testigutza bakarra 18. mendearen amaierakoa da. Hain informazio gutxirekin azpian zer dagoen antzematea neke da, baina hipotesia da ARTESKIÑETA toponimoaren aldaera itxuragabetuaren aurrean gaudela.

ALTABALETA formaren lekukotasun bakarra 1944. urteko mapa batean dago (*Altabaleta*, GHO1) eta erratua delakoan gaude, iturria fidagarria ez delako eta inguru hartan izen hori edo antzekoren bat duen tokirik ez dagoelako. ATABALARIAREN BORDA oikonimoaren okerreko aldaera izan liteke.

AUSTINITURRIETA (*Agustin* + *iturri* + *eta*?; ‘Agustinen iturria’?) hidrotoponimoaren berri ematen duen idatzizko testigantzarik ez dago, baina bada *Austinitturrieta*-z ([áu̯stinitturrjéta], Aska.) mintzo den berriemaile bat[949]. Antza denez,

[947] *Artegitako gaña* (1989, HUTB), *Artegitako lepua* (1989, HUTB) eta *Artitako gaña* (1989, HUTB) formak ere zerrendatuak daude.

[948] Lesakan (Bortzirietan) *Artaskingo hegia* dago (*Artesquinoetaondoa*, 1499; *Arttaesquineta*, *choza de*, 1819; *NTEM-IL*, 203.

[949] *Austin itturrita* (1995, DTE) forma ere gordea dago.

Agustin + *iturri* da osaketa, eta, hortaz, kasu honetan *-eta* atzizkiak ugaritasun zentzua izatea zaila da.

AZKETA[950] (*[h]az-* [*haitz*] + *-eta*; 'haitz tokia') mendi-izena 18. mendearen amaieran azaltzen da lehenbiziko aldiz (*Asqueta*, 1794-1831, UGR3, 10 au.) eta hurrengo erreferentzia Iztuetaren idazki batean dago, Zaldibiko idazleak Hernani-Elduain mugako mendia aipatzen baitu 1847. urteko *Condaira*-n (*Asqueta*, JII, 34 or.). Hirugarren mostra 20. mende hasierakoa da (*Azqueta*, 1920, HUA57, 392 or.) eta harrezkero lekukotasun ugari daude (*Azqueta*, 1944, GHO1; 1944, GHO2 / *Azketa*, 1958, PPG, 60; 1960, LPB, 59 or.; 1982, CAG, 186 or.; 1983, GFA2). 18. eta 19. mendeetan *-z-* grafemarekin idatzirik ageri da, baina 20. mendeko aipamenetan *-s-* dokumentatzen da beti herskari belarraren aurretik eta aldaketa hori grafiarekin ala ahoskerarekin lotua dagoen jakitea ez da erraz. Ahozko tradizioan bizkar-hobietako igurzkaria dutenak nagusitzen dira, hortz-hobietako apikaria duen aldaerak bizirik dirauen arren; ohar bedi *-s-* / *-z-* aldizkapena informatzaile beraren hizkeran gertatzen dela batzuetan (*Asketa* [ásketà], Ak., Amu., Ek., En., Mari. 1; [ásketàn], Amu., *in*.; [ásketá], Amu.), *Azketa* [ázketà], Amu. eta En.). Erroa *(h)aitz* da[951], *Az-* formara murriztu dena (*Aʑ-* > *A-*). Besterik da jarraian dagoen *-k-* horren jatorria zein den zehaztea. Baliteke txistukari ondoan buruturiko epentesia izatea (*FHV*, 247), baina bilakabide hori ez da aukera bakarra, garai batetik aurrera *-keta* atzizkitzat hartzen delako eta txistukaririk ez dagoenean ere baliatzen delako; disimilazioz sortua izan liteke: *Haitz* + *-eta* > *Aitzeta* > (**Aizteta*) > *Aizketa* > *Azketa*.

AZKONAZULOETA[952] (*azkona[r]* + *zulo* + *-eta*; azkonarraren goredelekua dagoen tokia'). Honen aurreneko aipamena 18. mendearen amaierakoa da (*Azconazulueta*, 1794-1831, UGR3, 17 au.) eta bigarrena 19. goa (*Azconazuloeta*, 1831-1845, UGR4, 23 au.); idatzizko azken bi testigantzak 20. mende erdialdean kausitu ditugu (*Azcono-*

[950] Irunen *Asketagaña* aurkientza dago, Oiartzungo mugan (1998, IRM); cf. Segurako *Askaata* (1997, SM) eta Zegamako *Askaeta* (1997, ZGM). Ildo beretik, *Asketa* iturri-errekak daude Irotzen (Esteribarren; *NTEM-XXXVI*, 123) eta, era berean, Nafarroan bertan badago *Azketa* herri-izena ere (Iguzkitza ibarra). Cf. Uxueko *Aizketa* (Salaberri, 1994: 71).

[951] Hernani aldetik begiratuz gero, AZKETA mendiaren gaineko aldea haitza da.

[952] Beran (Bortzirietan) *Azkonzulota* (1989, BM), toponimoa dago. Cf. Orendaingo *Azkonartegi* (1998, ODM) eta Gaintzako (Araizko) *Azkonartokita* (Elosegi, 1972: 198).

zulueta, 1951, UUA18; *Azcona culmeta*, 1951, UUA18). Ahozko tradizioan albokari ondoko bokal erdikoaren hersketa eta atzizkiaren lehen bokalaren erorketa gertatu dira (*uCo* > *uCu*; *-o / -u + -eta* > *-ota / -uta*): *Azkonazuloeta* ([ázkonazuloéta], Ai.), *Azkonazulota* ([ázkonazulóta], Amu.), *Azkonazuluta* ([ázkonazulutà] / [ázkonazúlutà], Larr.), *Azkonazulueta* ([azkónazulwéta], Mik.). Oinarria *azkonarzulo* da (*azkonar + zulo*); Urnietan bertan dagoen *Azkonobieta* toponimoaren aldaera edo forma berria dirudi, hortaz.

AZKONARZULOETA oronimoak ez du aurrekoarekin zerikusirik. Idatzizko testigantza bakarra 19. mende erdialdeko agiri batean aurkitu dugu (tokia ez da zehazten) eta, izan, AZKONAZULOETA toponimoaren aipamena izan liteke (*Azconarzuloeta*, 1831-1845, UGR4, 27 au.), baina ahozko tradizioan *Azkonarzulueta* (1989, UUTB) forma dago bildua, eta kokapenaren aldetik AZKONAZULOETA toponimoarekin ez du loturarik.

AZTEGIETA ihartutako toponimoa da, testigantza bakarra 19. mende erdialdeko idazki batean aurkitu baitugu (*Azteguieta*, 1831-1845, UGR4, 27 au.). Lehen tokian Azkuek (1984: 273) bildutako *haztegi*[953] (‘lugar en que se rasca el ganado’, ‘*endroit où le bétail se gratte*’) zein *haz(i)tegi* izenak egon litezke, biak *-(t)egi* atzizkia dutenak, baina sorburua *haitz + -tegi + -eta* izatea ezin bazter daiteke erabat.

BAPURRUETA ahozko toponimoa da (*Bapurruta*, [bápurrutà], Asta., Larra.; *Papurruta*, [pápurrutà], Id.; *Papurrutako erreka* ([pápurrutakò érrekà], Id.) eta etorki iluna du. Zernahi ere den, hitz hasierako herskari ezpainbikoaren artikulazio moduaren aldizkatzea (*B- / P-*) eta elkarguneko *-u + -eta* > *-uta* murriztapena nabarmendu beharra dago.

BEITURRIETAren bi erakusgarriak ere ahozko tradiziotik bildu ditugu eta elkargunean *-i + -eta* > *-ita* erredukzioa erakusten dute biek (*Beitturrita* [bé̯itturrità], Bordatx., En.). Lehen osagaiaren nondik norakoa ez da agerikoa, besteak beste, *behi*

953 *Azteguia* (1704) etxea aipatzen du Natxituan (Ean) Kerexetak (1992: 208).

zein *behe* (> *bei*) izenetan dukeelako iturburua; garbi dagoena da bigarren osagaia *iturri* dela.

BELABIETA izenburu nagusiaren aurreneko aipamena 19. mende erdialdean opatu dugu eta *-i + eta > -ita* murriztapenaren lekuko da, orduko (*Belabita*, 1831-1845, UGR4, 27 au.). Idatzizko bigarren erreferentzia, eta azkena, 1939. urtekoa da eta atzizkia osorik ageri da oraingo honetan (*Belabieta*, 1939, UUA10A). Ahozko tradiziotik *Belabita* (1989, UUTB), *Belabieta* (1989, UUTB), *Belabietako gaña* ([bélabjetakò gáñà], Mari. 2) eta *Belabitako arkaitza* ([bélabitakò árkaı̯tzà], Mari. 2) daude bilduak eta, horrenbestez, informatzaile berak *-ieta* zein *-ita* bukaerak darabiltzala garbi dago. Iturburua *belagai* [954] (> *belai*?) izan liteke, baina Tolosako informazioari kasu eginez gero, bada beste aukera bat, egiantz handiagoa duena; izan ere, *Belauriate* (1399) oronimoa dago han, *Belabiate* (1922-1936) eta *Belabieta* (1956, 1993) oinordeak dituena (Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio, 2006: 142-143).

BELEKABIETA[955] (*bele + kabi + -eta*) ahozko toponimoa da eta erakuskari bakarrari erreparatuz gero agerikoa da *-i + -eta > -ita* murriztapena burutu dela (*Belekabitako arkaitza* [belékabitakò árkaı̯tzà], Txab. 1). Oinarrian *belekabi* terminoa dugu (*bele*[956] ornitonimoa + *kabi* [‘habia’] izena).

BELEZKETA forma iharturik dago. Dauden erakuskariak 1467. urteko idazki batean eta 18. mendean egindako kopian kausitu ditugu (*Belesqueta*, 1467, HUA5; *Velezqueta*, 18., HUA6) eta ematen du BEZKITA toponimoarekin duela zerikusia, idazkian adierazten den kokalekuaren arabera bederen. Balizko etorki bat *belatz + -eta (-keta)* izan liteke eta, guztiarekin, garbi dagoena da txistukari bizkar-hobietakoaren ondoan atzizkiaren *-keta* aldaera dagoela[957].

---

[954] *Belagai* (> *belai*) ‘dehesa cerrada, prado’, *belategi* ‘prado, hierbal’; *FHV*, 338.

[955] Oiartzunen *Belekabieta* tontorra dago (Goikoetxea & Lekuona, 2007: 103), Tolosan *Zapelazkabi* iradia dugu (Elosegi Aldasoro & Goikoetxea Gazpio, 2006: 281) eta Iturenen (Malerrekan) *Mirukabi* aurkintza biltzen du Iñigok (1996: 299). Cf. Trebiñuko *Peña de los cuervos* (González de Viñaspre & Uribarrena, 2005b: 387).

[956] Mitxelenak (*FHV*, 320) adierazten duenez, hizkuntzaren ondare zaharreko hitz askok *r* bihurtu ez den bokal arteko *l* dute, eta *bele* (‘cuervo’) jartzen du adibidetako.

[957] Cf. *FHV*, 247.

BELUTSETAren berri informatzaile batek ematen du (*Belutxeta* [bélutxetà], Txab. 1) eta toponimoa bertan beleen habiak egotearekin lotzen du, baina ez da jakite ziurra, horratik. Hipotesi bat, baina oso zalantzazkoa, *eluts*[958] + *eta* osaketa izan liteke ('paraje ospela'), gurean ezpainbikoaren protesiaren adibideak badaudelako, MOZPELANGO ZOKOA kasurako.

BEZKITA oikonimoaren aurreneko lekukotasuna 16. mendekoa da eta, hasierako ezpainbikoa sudurkaria izateaz gainera, hitz amaieran bokal erdikoa dagoela azpimarratu nahi dugu (*Mezquite*, 1538, HUA9). Hurrengo mostrak 18. mendekoak dira eta aurreneko aipameneko bi berezitasunak errepikatzen dira, baina ez batera, bakoitza bere aldetik baizik: *Misquita* (1773, VEK1A), *Mezquita* (1780, HUA42), *Vezquite* (1784, *herreria jermada*, HUA40). Hitz amaieran bokal erdikoa duen aldaerak 19. mende arte irauten du tradizio idatzian (*Vesquite*, 1833-1835, DUA3), baina 18. mendearen amaieran azaltzen den *Bezquita* (1797-1833, HGR2, 44 au.) erabat nagusitzen da aurrerantzean (*Vezquitarrieta*, 1857-1860, UTR9, 48 au.; *Borda de Vezquita*, 1863, URU, 154 au.; *Bezquita borda*, 1864, HUA47; *Bezquita*, 1868, DJE; *Bezquita*, 1889, HUA56). 20. mendean bietakoak daude, hasieran herskaria dutenak eta sudurkaria dutenak, baina, haatik, bigarren aldaera hori hirutan besterik ez da erabiltzen (*Mezquita*, 1951, UUA18). Berebat, *Vezquitarrieta* (1857-1860, UTR9, 48 au.) forma azpimarratu nahi dugu, deitura itxura duen *arrieta*-ren karietara, *-eta* atzizkia bitan dukeelako. Berriemaile guztiek hasieran herskari ezpainbikoa eta amaieran bokal irekia duen aldaera baliatzen dute eta batek *-i-* ondoko horzkaria busti egiten du aldian behin (*Bezkita* [bézkità], Ai., Pard. g. 2 / [bézkitakuàk], Ai., *l.g.* / [bézkitá], Amu. / *Bezkitta* [bézkittakuá], Amu., *l.g.*). Etimoari doakionez, BELEZKETA formarekin zerikusia izatea da lehenengo hipotesia eta bigarrena osaketa *(B)ezki* + *-eta* ('ezki tokia') edo *(B)ezki* + *-te* izatea. Bada hirugarren bat: *mizki* izenarekin lotura edukitzea[959] ('ezer balio ez duen tokia'?).

[958] Cf. ELUTSANEKO BORDA.

[959] Cf., konparaziora, *Mezkia* eta *Mezkiritz*. Ikus *AV*, 449 eta Salaberri (2003: 92-93).

BIDAURRETA (*bide* + *aurre* + *-eta*; ‘bide aurrean dagoen lekua’). Mostra bakarra 19. mende erdialdeko idazki batetik lortu dugu (*Bidaurreta*, 1845-1846, UTR1, 35 au.) eta, ihartutako toponimoa izan arren, gardena ematen du.

BIDEGORRIETA (*bide* + *gorri* + *-eta*) aldapan dagoen tokia da eta mostra bakarra 1989. urteko mapa batean kausitu dugu. *-I* + *-eta* > *-ita* murriztapena ikusten da oraingo hoentan ere (*Bidegorrita*, OM) eta, bestalde, oinarria *bide* izenaz eta *gorri* izenondoaz dago osatua (‘bideak lur gorria duen eremua’?).

Ildo beretik, bi dira gure esparruan BIDEGURUTZETA (*bidegurutze* + *-eta*) izena duten tokiak, bata Hernanin eta bestea Donostian. Bien lekukotasunak ahozkoak dira eta bi forma ezberdin baliatzen dituzte informatzaileek toki bakoitzarentzat (64-38-4, *Birekutzeta* [birékutzetà], Etxol.; 64-31-8, *Bidekrutzeta* [bídekrutzetà], Bentatx.). Honenbestez, aurrenekoan *-d-* > *-r-* aldaketa eta *-gurutze* > *-kurutze* > *-kuutze* > *-kutze* bilakaera ikusten dira eta bigarrenean, berriz, *-gurutze* > *-kurutze* > *-krutze*[960] burutu da. Esan gabe doa bi toponimoen sorburua *bidegurutze* izen geografikoa dela (‘bidegurutzea dagoen aurkintza’).

BIDEMAKUETA[961] (*bide* + *maku[r]* +*eta*?; *bide* + *mako*[962] + *-eta*?; ‘bihurguneko bide-zatia’?, ‘bideak bihurgunea egiten duen tokia’?) odonimoak ahozko lekukotasuna baino ez du, elkargunean *-u* + *-eta* > *-uta* murriztapena garatu dela erakusten duena (*Bidemakuta* [bídemakutà], Etxol.). Lehen bi osagaiak *bide* izena eta *makur* / *mako* izen / izenondoa dira (cf. GORROTOLAMAKURRA).

BORDAZARRETA (*borda* + *zahar* + *eta*; ‘borda zaharra dagoen tokia’) izeneko tokiak ere bi dira gurean, bata Aranon (*Bordazarreta* [bórdazarretá] Lor. b. / *Bordazarreta borda* [bórdazarretà bórdà], Ezk. b.) eta bestea Hernanin (*Bordazarretako arkaitza*, 1989, HUTB). Hitz bitan, agerikoa da lehen bi elementuak *borda* izena eta *zahar* izenondoa direla.

---

960 Erdarak ere izan duke zerikusia. Cf. Aranaratxeko (Ameskoagoien) *Bidakrutza* (*Vidacruza*, 1867); *NTEM-XXII*, 151.

961 Arantzan (Bortziriak) *Bidemakueta* lekua dago (*NTEM-IL*, 39, 79).

962 Cf. Leitzarango *Makoaundi*, *Makoluze* eta *Makoeta* zein Goizuetako *Makoa*.

BOSTAITZETA malkarraren berri bakarra ahozko tradiziotik datorkigu (*Bostaitzeta* [bóstaɨtzetá], Amu.). Labur jardungo gara honen sorburuaz ere: lehen osagaia *bost* zenbakia da[963], baina besterik da bigarrenaren etorkia, *haitz* edota *haritz* izenekin egon litekeelako lotua[964].

BRANKETA[965] (*branka* + *-eta*?) hegi-izena da eta bi aipamenak ahozko tradiziotik bilduak dira (*Branketa*, 1989, HUTB; *Branketako erreka* [bránketakò érrekà] Txab. 1). Erroa *branka* izan litekeela uste dugu eta, ondorioz, BRANKETA brankak egiteko erabilitako zuhaitzak zeuden tokiaren izena litzateke. Hain zuzen, hipotesi horren oinarria da, behinola, gure esparruko zuhaitzak ontzigintzan erabili zirela. Zernahi gisaz, toponimo berri samarra dateke, *muta cum liquida* multzoa du eta[966].

BURUTXURIETA (*buru* + *zuri* + *-eta*?) oronimoa da. Dauden mostrak ahozkoak dira eta lehenbiziko dardarkariaren erorketa zein *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena errepikatzen dira mostra guztietan (*Buutxuita* ([buútxwità], Larr., Mik.), baina badago hitz hasieran —ezpainbikoaren tokian— herskari belarrarekin ebakitzen duen informatzaile bat (*B- / G-*): *Guutxuita* [guútxwitá], Mari. 1). Oinarrian *buru* izena eta *zuri* izenondoa daudeke (‘landaretzarik ez duen mendi-gaina’?).

BUZTIÑETAKO LEPOA (*buztin* + *-eta*; ‘buztina dagoen tokia’) espezifiko elkartuaren lekukotasun bakarra ere ahoz jaso dugu (*Buztiñetako lepua* [búztiñetakò lépuà], Bezk.) eta ohar bedi, espero izatekoa zenez, *-i-* ondoren sabaiko sudurkaria duela.

---

963 Zilegimendietan egin ohi zen ustiapen-banaketaz (zozketaz) ari delarik, honakoa dio Jimeno Juriok (1987: 436): “En la Navarra central debió ser común darles [a los lotes] una superficie quinaria […]”. Ikus. 6.3.5.1. Bestalde, Mitxelenak (*FHV*, 531) oroitarazten du *bost* dela hasieran *b-* duen hitz zaharrenetariko bat, berriak ez diren maileguetan ere herskaria erori egin delako.

964 Cf. Olaberriko *Bostaritzeta*, Idiazabalgo mugan dagoena (1997, OM), edota Urretxuko *Bostaritzeta* (*Bostáitzetá*; Ugarte, 1998: 267). Espainieraz ere badira horrelakoak Artetako (Ollarango) *Los cuatro arboles* (*NTEM-XI*, 44) edota Lana ibarreko *La senda de los Tres Robles* (*NTEM-XXIII*, 151) kasurako.

965 Kintoan (Erroibarren) *Brangeta* izeneko tokia dago (*NTEM-XXXV*, 242) eta Aralarren *Brankala* jasotzen du Elosegik (1972: 150).

966 Cf. *FHV*, 348.

DANTZATOKIETA[967] (*dantzatoki* + *-eta*; ‘dantza-lekua’). Honen idatzizko erreferentziarik ez dago, baina ahoz *Dantzatokita* [dantzátokità] (Bentatx.) aipamena bildu dugu, toponimoaren etimoa *dantzatoki* + *-eta* dela antzemateko aski dena[968], baita, berriz, elkargunean *-i* + *-eta-* > *-ita* murriztapena dugula (cf. JOKOMUNTTO).

Hegi[969] izen geografikoan oinarri duen EGIETAKO LEPOAren erreferentzia bakarra ahozko tradiziotik bildutakoa da (‘hegian kokaturiko tokia’) eta elkargunean *-i* + *-eta* > *-ita* erredukzioaz mintzatu beharra dago beste behin (*Egitako lepua* (1989, UUTB).

ELIZTAKO MALDA[970] ihartutako toponimoa da eta testigantza bakarra Urnietako 1951. urteko amilaramenduan kausitu dugu; irudi du txistukariaren ondoko bokala erori egin dela (*-z-* + *-eta* > *-z∅ta*?; *Eliztaco-malda*, 1951, UUA18). Erroa *eliza*-rekin lotua dagoenik ez dugu uste, bai, ordea, *lizar* edota *leize*-rekin, besteak beste, ez delako elizarik egon han.

ELKIETAren lekukotasun guztiak, aurreko kasuan ez bezala, ahozko tradiziotik bildu ditugu (*Elkita*, [élkità], Aparr., Bentatx.; *Beko Elkita*, [béko élkità], Aparr., Bentatx.; *Elkitako lepua*, [élkitakò lépuà], Aparr., Bentatx.) eta, itxura batean, erroa *elge* / *elke* terminoa izan daiteke, segurua ez bada ere (‘alorra dagoen aurkintza’?). Nolanahi ere den, ustekizun hori egiaztatuko balitz, murriztapen etsenplu baten aurrean geundeke: *elke-* + *-eta* > **Elkeeta*; *-eeta* > *-ieta* (**Elkieta*); *-ieta* > *-ita* (*Elkita*).

Bi dira ELORRIETA izena duten lekuak gure esparruan (*elorri* + *-eta*; ‘elorri tokia’), bata Hernanin eta bestea Elduainen. Hernanikoaren erreferentzia guztiak ahozko tradiziotik lortu ditugu eta informatzaile batek atzizkia osorik duela ahoskatzen du, besteak *-e-* gabe ebakitzen duen arren (*-i* + *-eta* > *-ita* ; *Elorrietako lepo* ([élorrjetakò

967 *Dantzaleku*-ak daude, konparazio batera, Altsasun (Burundan) (*NTEM-IX*, 40) eta Arrasaten (Ormaetxea, 1996: 307).

968 Ik. 2.13.

969 Hitzak hizpidea ekarrita, Mitxelenaren (*FHV*, 125) iritziz, bokalak aztertzerkoan, hitz amaiera eta konposatuetako zein eratorri batzuetako bukaerak berezi behar dira, azken kasu horietan tinbre-aldaketak eta galerak, ugariak izateaz landara, erregularrak direlako (*harri-* > *har-*; *herri-* > *her-*). Salbuespenak badira, halere, eta, hain zuzen, *(h)egi* da horietako bat.

970 Cf. Goizuetako *Elizamendi*; 1780, “*Traslado del amojonamiento de los seles sitos en el término general de Anizlarrea* [...]).

lépoá], Iz., *adl.s.*; *Elorritako lepua* [élorritakò lépuà], Txab. 1); Elduainen ere bietakoak daude: (*Elorrita*, [élorritá], Amu., En.; *Elorrieta*, [elorrjéta], Amu.; *Elorritako egiya*, [élorritakò égiyá], En.).

ELORRITXERTATUETA (*elorri* + *txertatu* + *-eta*; 'beste landare bat sarturik duen elorria dagoen tokia') toponimo ihartuaren mostra 1628. urteko idazki batean aurkitu dugu (*Elorri chertatueta*, DUA1) eta, aipamen bakarra egonagatik, etimoa gardena da, oinarrian *elorri* izena eta *txertatu* partizipioa daudelako.

ELORRITXOETA (*elorri* + *txo* + *-eta*?; 'elorri txikiak dauden eremua'?). Honen bi lekukoak ahozkoak dira eta elkargunean *-oeta* > *-ueta* > *-uta* herstea garatu da (*Elorritxuta* [elórrritxutà], Larr. eta Mik.). Sorburuari datxekionez, oinarrian *elorri* landare-izena eta *-txo* txikigarria daude seguruenik. Cf. LIZARRATXOPE.

Badira gurean lehen osagaitzat *erle* izena duten toponimoak. ERLEETAKO LEPOA da aurrenekoa (*erle* + *-eta*; 'erlauntza dagoen alderdia') eta izen espezifiko honen berri informatzaile batek eman digu (*Erlietako lepua* [érljetakò lépuà], Larr. b.). Ikusten den moduan, *-e* + *eta* > *-ieta* disimilazioa dugu elkargunean. Bigarrena ERLEETAKO MALDA[971] da. Aipamena 1951. urtekoa da (*Erlietaco-malda*, 1951, UUA18) eta, aurrekoan bezala, *-e* + *eta-* > *-ieta* burutu da.

ERRETENETA. ADARRETENETA. *Erreteneta* toponimoa 1683. urteko idazki batean (HUA28) opatu dugu lehenbiziko aldiz eta bigarren agerraldia, eta azkena, 20. mendekoa da, 1976. urtekoa hain zuzen (*Erreteneta*, 1976, TA, 14 or.). *Eteneta* aldaerari doakionez, idatzizko aurreneko erakusgarriak egile beraren bi mapatan agertzen dira, baina ez dira fidagarriak (*Etaneta*, 1944, GHO1 eta GHO2). Hurrengoa 1960. urtekoa da (*Eteneta*, 1960, LPB, 57 or.) eta aurrerantzean forma hori baizik ez dugu bildu (1976, TA, 14 or.; 1982, GKA., 184-185 or.), baita ahoz ere *Eteneta* ([eténetà], K.). Erroa *erreten*[972] terminoa da ('ubide txikien lekua') eta ERRETENETA

[971] Aurrekoarekin zerikusirik ez du, urrun baitaude biak elkarrengandik. Cf. Oiartzungo *Erlietaegia* bizkarra (Goikoetxea & Lecuona, 2007: 127), Ataungo *Erletako malloa* (Arin Dorronsoro, 1928: 121) edota Gartzaingo (Baztango) *Erleta* (1884; *NTEM-LII3*, 53).

[972] 'Acequia', *FHV*, 332.

dateke, hain zuzen, aztertzen ari garen aldaera guztien iturburua. *Andareteneta* forma, adibidez, 1773. urteko dokumentu batean ageri da (1773, VEK1A) eta lehen zatiak ADARRA toponimoarekin duke zerikusia, erraturen bat dela medio, hasierako bokalaren eta herskari horzkariaren artean *-n-* grafema badago ere. Bestetik, *Arreteneta* aldaeraren erakusgarriak ahozkoak dira eta denetarik dago, hau da, dardarkariaren ondoren bokal erdikoa dutenak eta *-ie-* hiatoa dutenak (*Arreteneta* [arrétenetà], Amu., Mari. 1; *Arrieteneta* [arríetenetá], Amu.; [arríetenetà], Mari. 2); ohar bedi irakurlea informatzaile zaharrenek hiatoa duen aldakia darabiltela. Herri-etimologia izatearen aukera ezin da erabat baztertu, baina, esan moduan, *Arreteneta* forma *Erreteneta*-ren bilakaera delakoan gaude; hain zuzen, *Adarreteneta* formarekin duke zerikusia, gure esparruan bokal arteko igurzkari belarraren erorketa arrunta delako (*Adarreteneta* > **Aarreteneta* > *Arreteneta*).

ESTEGIETAKO ATAKAKO TXABALA. Honen mostra 19. mendearen erdialdeko idazki batetik atera dugu (*Esteguietaco atacaco chabala*, 1831-1845, UGR4, 23 au.) eta, antza denez, *-(t)egi* atzizkia du, *-eta*-z gainera. EZTEIZA eta ESTEGITXAR toponimoekin izan lezake lotura.

EZAITZETA ere ihartutako toponimoa da, lekukotasun bakarra 1605. urteko dokumentu batean baitago (*Eçaiceta*, HUA24, 52 bin.). *Eçaic-* erroaren etimoa iluna da.

EZPONDARENMINETA[973] forma EZPONDAREN MINAK[974] izenburu nagusiaren eratorria da eta ahozko aipamena baizik ez dago (*Ezponden mineta* [ézpondèn mínetà], Ollok.). Atzizkirik gabe ere erabilitako toponimo batek *-eta* hartu du, beraz.

FAGOZURRIETAren bi erreferentziak 1427. urteko idazki batean eta haren 16. mendeko kopian azaltzen dira. Bigarrenean herskari ezpainbikoa dugu bi bokal itxien

---

973 *Ezponda gaña* (1837) jasotzen du Eultzan (Zizur zendean) Jimeno Juriok (1986b: 261). Iñigok (1996: 259, 377), bestalde, *Ezponda* biltzen du Zubieta-Iturenetan (Malerrekan) eta bigarrenak *Ezpondeta* eratorria eman du. *Ezpondagain* izeneko tokia dago, azkenik, Urdirotzen (Artzibarren); *NTEM-XXXII,* 128.

974 *Ezpondan minak* ([ezpóndàn mínàk], En.). *Ezponda*, herri guztia aidean ibiltzen zuen gaizkilea, Goizuetako Perunean bizi omen zen. Ikus Garmendia (1989: 91-92).

artean, dardarkari anizkunaren ordez[975] (*Fago çurrieta*, HUA1; *Fagoçubieta*, HUA2). Toponimo honetan *pago* (*fago*) fitonimoa eta *zuri* izenondoa daude ziurrenik, baina bada balizko beste bilakabide bat, bigarren osagaia *zubi* izatea, alegia.

FRANTZIPUTZUETA (*Frantzi[a]* + *putzu* + *-eta*) hidrotoponimoaren berri berriemaileei esker izan dugu eta *-u* + *-eta* > *-uta* murriztapena automatikoa dela esan daiteke. Guk *Frantziputzuta* ([frántziputzutà], Aska.) besterik ez dugu jaso, baina *Prantziputzuta* (1989, HUTB) aldakia ere bildua dago. Ildo horretan, gauza ezaguna da Gipuzkoan eta Nafarroako zenbait eremutan *f* maileguetakoa *p*-k ordezkatzen duela, baina, era berean, argi dago ez dela aldaketa zaharra, bigarrenkaria den prozesu berria baizik. Mintzagai dugun kasuan, gainera, kontuan hartu behar da euskaraz bi txistukari dituzten hitzak asko direla eta arrunki artikulazio-puntu bera izan ohi dutela, asimilazio asko egon direlako[976] (*frantses*, baina *Frantzia*). Lehen bi osagaiak *Frantzia* koronimoa eta *putzu* generikoa direla eta, horrenbestez, kasu honetan *-eta* atzizkiak ugaritasuna adieraztea ez da aise.

GALTZADABERRIETA (*galtzada* + *berri* + *-eta*; ‘galtzada berria igarotzen den tokia’) oikonimoa 1843. urtean agertzen da (*Galzadaberrieta*, HUA44) eta idatzizko beste bi lekukotasunetan forma bera kausitu dugu (1857, HUA48, 46 or.; 1937, AB). Ahozko tradizioari erreparaztuz gero, elkargunean *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena erakusten duen *Galtzadaberrita* ([gáltzadabérrità], Txab. 2) eta *Galzada berrieta* (1989, HUTB) daude jasoak. *Galtzada* izena eta *berri* izenondoa ditugu hemen eta, beraz, ez dago multzo zentzurik.

GAROBIETA (*karobi* + *-eta*?; ‘karobi lekua’?) formaren lau lekukotza daude, 1951. urtekoak laurak (*Garobieta*, UUA18, [2]; *Gorobieta*, UUA18, [2]). Gure esparruan bertan herskari ahoskabea duten aipamen zaharragoak badirela ikusita (*Carovieta*, 1794-1831, UGR3, 13 au.; *Carobieta*, 1831-1845, UGR4, 26 au.), *K-* > *G-* aldaketa geratu dela pentsa daiteke, baina —*karobi* esaten denez— idazterakoan gertatu erratua ere izan liteke.

---

975 Cf. ETZUBI eta LOIZUBIETA.
976 Cf. *FHV*, 263 eta 283.

GAZTAÑAMOTZETA ahozko tradiziotik bildu dugun toponimoa da (*Gaztañamotzeta* [gáztañamotzetà], Txab. 2, Txil.) eta agerikoa da *gaztaina* izena eta *motz* izenondoa daudela (*gaztaina* + *motz* + *-eta*; '[otarrak egiteko] gaztain-zepak dauden tokia'?, 'gaztaina morkots lodiak dauden lekua'?).

GEREZIETAKO MALKARRA[977] (*gerezi* + *-eta*; 'gereziondo tokia') oronimoaren testigantzak ere ahozko tradiziotik bildu ditugu eta *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena burutu dela ikusten da (*Geezitako malkorra* [géezitakò málkorrà], Etxol.). Esan beharra dago toki bera izendatzeko *Geeziyako malkorra* ([géeziyakò málkorrá], Amu.) eta jabego genitiboa duen *Geeziyan malkorra* ([géeziyàn málkorrà], Amu. / [geéziyàn málkorrà], Ek.) erabiltzen direla eta, horren argitan, badaiteke iturburua *Gereziaren malkorra* izatea, ikusi dugunez, izen espezifikoek *-eta* hartu dutelako etsenplu gehiago badaudelako.

GOIKOGAÑETA[978] (*goiko* + *gain* + *-eta*; 'mendi-gainaren alderdi garaiena') ihartutako toponimoa da, bi testigantzak 19. mende erdialdekoak dira eta (*Goico-gañeta*, 1855-1857, HTR8, 21 au.; *Goicogañeta*, 1855-1857, UTR8, 46 au.). Kontuan har erredundantzia dagoela (*goiko* izenlaguna + *gaina* izena).

Errotzat *gorosti* landare-izena duen GOROSTIETA ahoz baizik ez dugu bildu ('gorosti eremua') eta, bokal arteko dardarkari ahularen erorketaz gainera, elkarguneko *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena azpimarra daiteke (*Gorostita*, 1989, UUTB; *Goostita* [góostità], Mik.).

Berebat, GOROSTITXOETAren aipamen bakarra ahozko tradiziotik jasotakoa da eta hemen ere laburtzea (*-o* + *-eta* > *-ota*) gertatu dela garbi dago (*Gorostitxota*, 1989, UUTB). *Gorosti* landare-izena eta *-txo* txikigarria dira osagaiak irudi duenez ('gorosti txikiak dauden ingurua'?), baina ez da gauza ziurra (cf. LIZARRATXOPE).

977 Cf. Larraiako (Zizur zendeako) *Guereci gaña* (1837); Jimeno Jurio (1986b: 335).
978 Cf. *Goiko gaña* (1989, HUTB); IZA. GEO.: 10201; KOK. KART.: 64-29-3, Her.*

GURUTZETA oronimoari buruz laburzki mintzatuko gara: agerraldi bakarra 1920. urtekoa da (*Guruceta*, 1920, *lote*, HUA57, 392 or.). Erroan *gurutze* izen geografikoa dago eta, horrenbestez, ugaritasun zentzua izatea zaila da.

IGORINITURRIETA (*Igoriniturri* + *-eta*; 'Igoringo iturria dagoen aurkintza') hidrotoponimoaren berri informatzaile batek ematen du (*Irunitturrita* [irúnitturritá], Id.) eta *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapenaz hitz egin beharra dago hemen ere. *Igoriniturri* toponimoa da iturburua eta, beraz, *-eta* atzizkiak leku zentzua baizik ez du.

INTXAURTXIPIETA (*intxaur* + *txipi* [*txiki*] + *-eta*; 'intxaur txiki tokia') toponimoaren lekukotasun bakarra 1739. urteko idazki batean aurkitu dugu (*Ynchaurchipieta*, HUA36), baina, haatik, aski dirudi *intxaur* fitonimoaz eta *txipi* (txiki) izenondoaren forma zaharraz osatuta dagoela jakiteko.

IPENARRIETA ere idatzizko toponimoa da. Aurreneko mostra 1683. urtean lekukotu dugu (*Ypenarrieta*, HUA28) eta hurrengoa, eta azkena, 1773koa (*Ybalarietta*, 1773, VEK1A). Aldaketa nabarmena antzematen da, hortaz, aipamen batetik bestera lehenbiziko osagaian (*Ypen-* / *Ybal-*), nahiz eta bigarrenak, *(h)arri* izenak alegia, bere horretan iraun. Egiazkoa den edota idatzizko erratua den jakitea ez da erraz, ezta Mitxelenak (*AV*, 311) aipatutako **iben-*/**ipen-* erroarekin zerikusia duen ere. Ikus IPIÑABARSASI.

Hiru zenbakia lehen elementutzat duten lau toponimo aztertuko ditugu orain. Has gaitezen, IRUAITZETArekin. Erakuskari guztiak ahozkoak dira (*Iruaitzeta* [iruai̯tzetá], Amu. eta Mari. 2; *Iruaizeta* [iruai̯zetá], Amu. / [iruái̯zetá], Ek.; *Iruatzita* [iruatzità], Mari. 1), herri etimologia dirudien *Iruzuaitzeta* (1989, HUTB) barne, eta deigarria da ale batean ikusten den atzizkiaren lehenbiziko bokalaren hersketa (*-a[i]tz-* + *-eta* > *-atzita*).

IRUBIDEETA (*hiru* + *bide* + *-eta*; 'hiru bidek bat egiten duten tokia') oikonimoaren idatzizko aurreneko aipamena 1942. urtekoa da (*Irubidieta*, 1942, IGC1) eta, gainerakoak bezala, kartografian aurkitu dugu (*Irubidieta*, 1953, IGC2; 1962, UTC;

1981, SGE2). Eraikina *Irubide* forma laburtuarekin ezagutzen da 20. gizalditik honera, hala idatziz, nola ahoz (*Irubide*, 1920, HUA57, 52 or.; 1936, HUA57, 713 or.; 1983, GFA2); [irúbidè], K.). *Hiru* zenbakia eta *bide* izena daude oinarrian[979] eta, hortaz, elkargunean *-ee-* > *-ie-* disimilazioa gauzatu da.

IRUITURRIETA (*hiru* + *iturri* + *-eta*; 'hiru iturrien aurkintza') hidrotoponimoaren etsenplu bakarra dago, ahozko tradiziotik bildua dena eta elkargunean *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena erakusten duena (*Iruitturrita*, 1989, HUTB). *Hiru* zenbakia eta *iturri* izena dira lehenbiziko bi osagaiak, ikusten den bezala.

IRUMUGARRIETA[980] (*hirumugarri* + *-eta*; 'hiru herriren muga adierazten duen mugarria dagoen tokia'). Idatzizko lehen lekukotasuna 1797. urtekoa da (*Yrumugarrieta*, HUA41) eta hurrengo bi aipamenetan (19. mendean) aldaki bera azaltzen da (*Yrumugarrieta*, 1868, DJE; 1889, HUA56). 20. mendeko iturrietan, horratik, bi aldaera erabiltzen dira, *Irumugarrieta* (1944, GHO1) eta erratua den *Irumoarrieta* (1942, IGC1; 1981, SGE2). Ahozko tradizioari erreparatuz gero, bi aldaeraz mintzatu beharra dago: diptongoari eutsi dion *Irumugarrieta*-z ([írumugarrjéta], Ek. / [írumugarrjetà], Mari. 1) eta, bokal arteko igurzkari belarraren galeraren eta *-i* + *-eta* > *-ita* laburtzearen lekuko den *Irumuarrita*-z ([irúmuarritȁ], Amu. / [írumuarríta] (Amu.) / [irúmuarritátìk], Amu., *abl.*); badago *Irumugeta* ([irúmugetà], Larr.) forma baliatzen duen berriemaile bat ere. *Hirumugarri* terminoa (ikus 6.3.§) 18. menderako dokumentatzen da gure esparruan.

Aurreneko osagaitzat *iturri* izena duten hiru hidrotoponimo datoz orain. Lehenik eta behin, ITURRIAUNDIETA izeneko bi toki daude gure esparruan, Hernanin bata eta Urnietan bestea (*iturri* + *haundi* + *-eta*; 'emari handiko edanlekua'). Hernanikoaren aurreneko aipamena 18. mendekoa da, 1799. urtekoa hain justu (*Yturriaundieta*, HUA42, 171 bin.) eta badaude ildo bereko beste bi etsenplu (*Iturri-aundieta*, 1857, HINGR2, 5097 zenb.; *Iturraundieta*, 1863, H.RU, 52 au.). Ahozko tradizioan *Itturriaundita* ([ítturriaụ̈ndità], Amu., Etxol.) zein *Itturriaundieta* ([ítturriaụ̈ndjetà],

[979] Cf. Iruñeko *Irubide* aurkintza; Jimeno Jurio & Salaberri (1994: 262).
[980] Cf. Gorraizko (Eguesibarko) *Tresmugas* (*NTEM-XXXVII*, 122).

Etxol.) formak jaso ditugu eta, ikusten denez, *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena burutzen da batzuetan. Urnietakoaren erakusgarri bakarra, bestalde, ahozkoa da (*Itturriaundita*, 1989, HUTB). Oinarrian *Iturriaundi* hidronimoa dago eta, zentzu horretan, bada gure esparruan *Yturriandi*-ren testigantza (Hernanin), 1702. urtekoa hura (HUA29), baina ITURRIAUNDIETArekin lotura duen ezin jakin.

ITURRIETA (*iturri* + *-eta*; 'iturri tokia') hidrotoponimoaren idatzizko lekukotasuna 1976. urteko liburu batean aurkitu dugu (*Iturrieta*, TA, 16 or.) eta, bestetik, informatzaileek *Itturrita* ([ítturritá], Amu., Mari. 2) zein *Itturritako erreka* [ítturritakò érrekà], Amu.) darabiltzate, *-i* + *-eta* > *-ita* laburtzearen berri ematen dutenak.

ITURRITXOETA (*iturri* + *-txo* + *-eta*; 'iturri txikia dagoen aurkintza', 'emari gutxiko iturria dagoen eremua') iharturik dago zoritxarrez, erakuskari bakarra 1628. urtekoa baita (*Yturrichoeta*, DUA1). Osagai nagusiak *iturri* izena eta *-txo* txikigarria dira.

IURRITA espezifiko eratorriaren lekukotasuna 18. mendearen amaierakoa da (*Yurrita*, 1797-1833, HGR2, 66 au.) eta, etimoa gardena ez bada ere, *-i-* + *-eta* > *-ita* hersketaren etsenplu baten aurrean gaudela dirudi.

JOSEPETA ahozko toponimoa da (*Josepeta* [jósepetà], Bort. b.; *Josepetako zelaya* [jósepetakò zélayà], Bort. b) eta, izendatzen duen tokiaren jabetza eta kokapena aintzat hartuz gero, inguruko *Joxepenea* baserri-izenarekin lotua dagoela pentsa liteke[981]. Bada beste aukera bat, tradizio kristauean iturburu duen *Josafateko zelaia*[982] toponimoaren erreplika izatea, alegia. Ohar bedi, hitz hasieran *j* [x] duen toponimo bakarretakoa dela gure esparruan.

---

[981] *Josepe sô* ("heredad de José") aurkintza aipatzen du Ataunen Arin Dorronsorok (1928: 79). Bestalde, diogun *Josefatenea* etxea dagoela Iturenen (Malerrekan) eta Iñigoren (1996: 528) iritziz *Josafat*-ekin dagoela lotua.

[982] "Beste bizitzari deitzen dio jende askok Josafateko Zelaia, baina Azken Juizioa izango den tokiari dagokio zehazki, eta ez dago beste munduan, gure honetan baino: Jerusalendik gertu dagoen Zedron haranari deitzen diote horrela, eta Joel profetaren liburuko pasarte batek sortu zuen Josafateko Zelaiaren eta Azken Juizioaren uztarketa"; Lertxundi (1996: 231). Cf. Urretxuko (1801) *Animasoroa* (Ugarte, 1998: 43), Idiazabalgo *Arimasagasti* oikonimoak (1999, IDM) edota Murilloko (1749-1781) *Pieza de las ánimas* (Zierbide & Herrero, 1985: 130).

KAROBIETA (*karobi* + *-eta*; ‘karobi tokia’) izen espezifiko eratorria iharturik dago. Lehenbiziko aipamena 18. mendekoa da (*Carovieta*, 1794-1831, UGR3, 13 au.) eta badira 19. mendeko bi lekuko ere (*Carobieta*, 1831-1845, UGR4, 26 au.). Aipatzekoa da *erreka* generikoa erantsitakoan ez dela atzizkia azaltzen[983] (*Carobi-erreca*, 1942, UUA10D; 1960, UZA; *Carobierreka*, 1960, GS; *Karobi-erreka*, 1969, UUA10N), bai, ordea, *buru* bereizgarria gehitzen zaionean (*Carovieta burua*, 1831-1845, UGR4, 26 au.).

KATILLUXARRETA (*katilu* + *zahar* + *-eta*; ‘katilu zaharra dagoen iturria’?). Idatzizko lekukotasunak kartografia modernotik bildu ditugu eta kasu batean atzizkiaren lehen bokala falta da, hots, sinkopa gertau bide da (*-rr* + *-eta* > *-røta*): *Katilluxarreta* (1989, OM), *Katilluxarreta iturri* (1989, OM), *Katilluxarta iturri* (1989, OM). Esan beharra dago, halere, geuk elkarrizketaturiko informatzaile batek atzizkirik gabe darabilela (*Katilluxar* [kátìlluxàr], Id.). Guztiarekin, oinarria *katilu* + *zahar* da eta garbi dago oraingo honetan *-eta* atzizkiak ez duela ugaritasuna adierazten (cf. KATILLUITURRI).

LANBERRIZARRETA (*lanberri* + *zahar* + *-eta*; ‘lanberri zaharraren tokia’). Bi dira ihartutako toponimo honek izendaturiko tokiak gure esparruan, bata Hernanin eta bestea Urnietan. Hernanikoaren testigantza bakarra 18. mendearen amaierakoa da (*Lamberrizarreta*, 1797-1833, HGR2, 63 au.) eta Urnietakoaren aurreneko aipamenak ere garai hartakoak dira (*Lamberri-zarreta*, 1794-1831, UGR3, 18 au.; *Lamberri-zarreta*, 1794-1831, UGR3, 19 au.); beste biak 19. mendean kausitu ditugu (*Lamberrizarreta*, 1848-1850, UTR4, 38 au.; *Lanberrizarreta*, 1863, URU, 149 bin.). *Lanberri* izena eta *zahar* izenondoa dira lehen bi osagaiak eta, ildo horretan, ez bedi ahantz gure esparruan 18. mendearen amaierarako azaltzen dela lehenbiziko hori (gazt. *artiga*).

Langa osagaia duten bi toponimo daude gurean eta LANGAURRETA (*langa* + *aurre* + *-eta*; ‘ataka aurrean dagoen eraikina?) oikonimoarekin hasiko gara. Idatzizko erakusgarri bakarra 1857. urteko baserri-izendegian aurkitu dugu (*Langaurreta*, 1857,

[983] Ikus 6 §.

HUA48, 40 or.) informatzaileek *Langaurrita* ([lángau̯rrità], K.) ebakitzen dutena, **Langaurrieta*-tik datorren forma alegia. Bilakabidea hau izan da: **Langaurre* + *-eta* > **Langaurreeta* (*-ee-* > *-ie-*) > **Langaurrieta* (*-i* + *-eta* > *-ita*) > *Langaurrita*. Agerikoa da *langa* eta *aurre* izenak ditugula hemen eta, ildo horretan, kontuan har euskaraz, sarritan, maileguetako *herskaria* + *ozena* multzoko lehen kontsonantea erori egin dela hitz hasieran (*pl* > *l*), bakuntzez[984] (lat. *planca* > *langa*). LANGAZARRETA[985] (*Langazar* + -eta) formari dagokionez, bi lekukotasunak ahozko tradiziotik hartu ditugu (*Langazarreta* [langázarretà], Txab. 2 / [lángazarretà], Txil.) eta garbi dagoena da iturburua LANGAZAR espezifiko elkartua dela (*Langazar* [lángazàr], Pard. g. 2). Hortaz, ez dirudi oraingoan *-eta* atzizkiak ugaritasun zentzua duenik.

LARRETAALDEA (*larre* + *-eta*; 'larrea dagoen lekua') ihartutako toponimoa da eta bere erreferentzia 19. mendearen erdialdekoa idazki batean dago (*Larreta aldea*, 1831-1845, UGR4, 26 au.). Elkargunean *-e* + *-eta* > *-eta* bakuntza antzematen da eta, bestalde, bistan da *-alde* bereizgarria hartu duela (ikus 7. §). LARREZURIETAren lehen osagaia ere *larre* da, baina idatzizko erreferentziarik ez dago oraingoan; guztiak ahozkoak dira (*Larrazuita,* 1989, UUTB; *Larrezuita* [lárrezwità], Amu., Mari. 2; *Larrezurita* [lárrezuritá] (Amu.). Lehen zatian *larre* izena eta *zuri* izenondoa ditugu, horrenbestez, esan daiteke elkargunean *-i* + *-eta* > *-ita* gertatu dela.

LEUNETA oronimoaren idatzizko lehen aipamena 1863koa da (*Mojon de Leuneta*, CB) eta hurrengoak 1923. eta 1926. urteetakoak (*Leuneta*, 1923, JMB3, 144 or.; 1926, JMB2, 120 or.). Aurrerantzean *Leuneta* jaso dugu beti, hala idatziz (1942, IGC1; 1944, GHO1; 1953, IGC2; 1960, LPB, 61 or.; 1969, BG; 1983, GFA2; 1979, RMH eta 1982, CAG, 186 or.) nola belarriz (*Leuneta* [leunéta], Amu. / [léu̯netà], Amu., Bordatx., En., Txim.) / [léu̯netá] (Amu.). Erroari doakionez, *leun* izenondoarekin dagoke lotua[986] eta, alde horretatik, 'mendi leuna' da LEUNETA, baina, esan beharrean gara Oiartzunen *Lerun* (1814) toponimoa biltzen dutela Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 217), egun *Leun* ebakitzen dena. *e* diptongoaren harira, Mitxelenak (*FHV*, 98) argitzen du, bi

984 Cf. *FHV*, 347.

985 LANGAURRETArekin ez du zerikusirik.

986 Zubietan, esaterako, *Arrileuneta* biltzen du Iñigok (1996: 353). Cf Ezporogiko (Oibarko) *Larreleuna*, *EAEATB*, 329.

bokalak ondoan dituen formaz gainera (*leun*), badela *e* eta *u* kontsonante batez bereizirik dituen aldaera ere (*legun*.), baina, zernahi gisaz, *legun* aldaera bigarrenkaria litzateke[987].

LINDOETA zoko-izenaren idatzizko lehen erreferentzia 1894. urtean topatu dugu; *-o + -eta* > *-ota* murriztapenaren zantzua dago (*Lindota*, 1894, AT, 227 or.). Hurrengo agerraldian, ordea, osorik azaltzen da (*Lindoeta*, 1901, AT, 227 or.) eta 1934. urtekoa den azkenekoan *Lindota* irakurtzen da berriro (1934, AT, 227 or.). Informatzaileak ere *Lindota* ([lindóta] / [líndotà], Amu.) ahoskatzen du.

LIÑAPUTZUETA. Ihartutako toponimo honen aztarna 18. mendearen amaierakoa da (*Liñapuzueta*, 1797-1833, HGR2, 42 au.) eta garbi dago *lina-putzu* dela lehenbiziko osagaia ('[ehunak egiteko zuntzak ateratzerakoan] lihoa sartzen den putzua').

LIZARRITURRIETA (*lizar* + *iturri* + *-eta*; 'lizarrak dauden / lizarra dagoen iturria'). Honen testigantza 1569. urtekoa da (*Licarriturrieta*, HUA18, 4 bin.).

Lo(h)i-rekin hasten diren hiru toponimo daude Urumeako Zilegimendietan. LOIPUTZUETAren kasuan *putzu* izena da bigarren elementua ('lohia den putzua dagoen tokia') eta aipamen bakarra ahozkoa da (*Loiputzuta* [lói̯putzutà], Larr.); beste behin *-u* + *-eta* > *-uta* murriztapena dugu elkargunean.

LOIZUBIETA iharturik dago. Aurreneko lekukotasuna 18. mendearen amaierakoa da (*Loizubieta*, 1794-1831, UGR3, 15 au.) eta azkena, berriz, 19. mende erdialdekoa (*Loizubieta*, 1831-1845, UGR4, 24 au.). Bigarren tokian *zubi* dagoela irudi du beraz, baina *zuri* izenondoa egotearen aukera ezin da baztertu, gure esparruan *-r-* > *-b-* aldaketa ezaguna delako (ikus ETZUBI eta FAGOZURRIETA).

---

987 Errenteriako irakalseak (*FHV*, 372) uste du litekeena dela Corominesek arrazoia izatea euskarazko *leun* 'liso, pulido' okzitanierako *teun(e)*-tik datorkeela dioenean.

LOIZULOETA (*lohi* + *zulo* + *-eta*?; ‘lohia ateratzeko zulo[ar]en parajea’?). Honen erreferentzia bakarra Urnietako 1951. urteko amilaramenduan dago (*Cucutegui o Loizulueta*, 1951, UUA18) eta *zulo* dateke bigarren osagaia, naiz eta LOIZUBIETAren okerreko aldaera ere izan litekeen.

LOSETA[988] (*losa* + *-eta*?; ‘lauza tokia’?, ‘lauza harrobia’?) izenburu nagusiaren bi mostra daude gure esparruan, bata Urnietan eta bestea Hernanin. Idatzizko lekukotza bakarra *Losetaco zocoa* (1794-1831, UGR3, 12 au.) da eta Urnietakoari dagokio; Hernanikoaren testigantza moduan, berriz, ahozko *Losetako malda* ([lósetakò máldà], Txab. 2, Txil.) jaso dugu. Erroa *losa* (lauza) izena dateke. Izan ere, toponimian, maiz, *lauza* ageri da, *Lauzatzea*-ren modukoetan.

MARRUETA formaren erakusgarri guztiak kartografiatik hartuak dira. Aurrenekoa 1898. urteko mapa batean irakur liteke (*Marrueta*, 1898, EGZ) eta gainerako guztietan *Murrueta* forma erabiltzen da (1911, IM; 1942, IGC1; 1944, GHO1; 1944, GHO2; 1953, IGC2; 1962, UTC; 1981, SGE2; 1983, IGN2). MURRUETA izenaren okerreko aldaera baten aurrean gaude segur aski.

MINETA (*mina* + *-eta*; ‘meatze lekua’). Honen aipamen guztiak ahozkoak dira (*Mineta* [mínetà], Etxol.; *Minetako erreka* [mínetakò érreká], Amu. / [mínetakò érrekà], Ek.; *Minetako kanala* [mínetakò kánalà], Etxol.; *Minetako portillua* (1989, HUTB) eta berriemaileek atzizkia gabe ere erabiltzen dute (*Minako erreka* [mínakò érrekà], Amu., Ek. eta Etxol.). Hainbat meatze daude bertan.

MIZPIRETA (*mizpira* + *-eta*; ‘mizpira-lekua’) aldaparen erakusgarria ere ahozkoa da eta elkargunean *-a* + *-eta* > *-eta* murriztapena burutu dela ikusten da (*Mizpereta* [mízperetà], Txab. 1). Cf. MIZPIRAKO KASKOA.

MOTZARENERLIETA (*Motza* + *-ren* + *erle* + *-eta*; ‘*Motza* ezizeneko gizasemearen erlategia’). Izen espezifiko honen berri ere informatzaile bati esker izan dugu

[988] Orion ere bada *Loseta* mendi-bizkarra (1998, ORM) eta Zubietan (Malerrekan) izen bereko aurkintza dago. Lauzak ateratzen omen ziren handik, aidanean; Iñigo (1996: 396).

(*Montzanerlieta* [mótzanérljetà] / [mótzàn erliéta], Amu.; *Motzanerlietako erreka* [mótzanerljetakò érrekà], Amu.) eta lehen bi osagaiak jabego genitiboaren hondarkia hartu duen *Motza* ezizena zein *erle* zoonimoa dira; esan gabe doa elkargunean *-e* + *-eta* > *-eeta* > *-ieta* disimilazioa gertatu dela.

MUGARRIETA izena duten toki bat baino gehiago daude gure esparruan (*mugarri* + -eta; 'mugarri lekua'). Idatzizko lehen lekukotasuna 1628. urtekoa da eta Donostiako alderdian zegoen galtzada bati dagokio (*Mugarrieta*, DUA1). Hernani aldekoa, berriz, 1863. urteko agiri batean irakurtzen da aurrenekoz (*Mugarrieta*, HRU10, 54 au.). *Mugaritaco-Chavola* (1942, IGC1 eta 1953, IGC2) erratua ere topatu dugu eta hor dago, era berean, 1944ko *Mugarrita* (GHO1) ere. Ahozko tradizioan *Muarritako txabala* ([múarritakò txábalà], Bentatx.) jaso dugu, *-i* + *-eta* > *-ita* laburtzearen lekuko dena, eta esan beharrekoa da inguru berean badagoela atzizkirik gabeko *Muarriko kaskua* ([múarrikò káskuá], Larra.) toponimoa.

MUGETA[989] (*muga* + *-eta*; 'mugan dagoen lekua'?). Lehenbiziko etsenplua 1848. urtekoa da (*Mugeta*, AT, 239 or.) eta 1889-1897 bitartean ere *Mugeta* forma errepikatzen da (AT, 239 or.). Ahozko tradizioan *Mugeta* (AT, 239 or.) zein *Mueta* ([múetà], Amu.) aldaerak daude bildurik eta, ikusten den bezala, bigarrenak bokal arteko igurzkaria galdu du; ez da harritzeko, bertako euskaran horrela egiten delako.

MUNTTEGIETA (*mintegi* + *-eta*; 'mintegi lekua') fitotoponimoaren bi lekukotasunak ahozkoak dira (*Muntteita* [múntteịtà], Txab. 2, Txil.); hemen horzkari sabaikoa nabarmendu nahi dugu (< *muin-*), elkarguneko *-i* + *-e-* > *-ita* murriztapenaz gainera. Ikus 6. §. s. v. *Muntegi*.

MURRUETA (*murru* + *eta*; 'burkaitza, arroila') geotoponimoaren aipamen guztiak berriemaileei jaso dizkiegu eta *-u-* + *-eta* > *-uta* laburtzearen lekuko dira (*Murruta* [múrrutà], Arg. eta Aska.). Ñabarduretan sartuz gero, *Morruta* ([mórrutà], Arg.) ere bildu dugu, atzerako dismilazioaren lekuko dena. Ikus MARRUETA.

[989] Cf. Nafarroako *Mugeta* eta *Mugetaxarra* herri-izenak.

OINDOALDAPETA ahozko toponimoa da (*Onyoaldapeta* [ónyoaldapetá], Amu.) eta *Oindoko aldapa* forman du sorburua (‘Oindoko aldaparen alderdia’). Elkargunean *-a* + *-eta* > *-eta* murriztapena burutu da, horrenbestez.

OLABERRIETA (*ola* + *berri* + *-eta*) izena duten bi toki daude gure esparruan, bata Hernani-Urnietako mugan eta bestea Astigarragan. Hernani-Urnietakoaren aurreneko erreferentzia 1899. urtekoa da (*Olaberrieta*, UUA2) eta hurrengoa 1920koa (*Olaberrieta*, HUA57, 520 or.). Gainerako lekukotasunak kartografia modernoan aurkitu ditugu eta bi aldaera baliatzen dira; aurreneko bietan agertzen den *Olaberrieta* (1983, IGN2 eta GFA2) eta dardarkari aurrean bokal irekia duen *Olabarrieta* (1983, IGN2 eta 1983, IGN2), nahiz eta bigarren hori erratua delako ustekizuna izan, iturria fidagarria ez delako. Bestetik, ahoz *Olaberritako erreka* ([ólaberritakò érrekà], Ek.) forma bildu dugu, *-i* + *-eta* > *-ita* laburtzea burutu dela erakusten duena. *Ola* izena eta *berri* izenondoa dira lehenbiziko bi osagaiak[990] (‘burdinola berria zegoen aurkintza’), 16. menderako *-aga* atzizkiarekin horniturik azaltzen direnak (*Olaberriaga*). Ildo beretik, Astigarragakoaren lehenbiziko lekukotasunak dardarkari aurreko bokal irekia eta *-aga* atzizkia ditu (*Olabarriaga*, 1554, EUA2, 122 or.); bigarrena 1857. urteko baserri-izendegian kausitu dugu eta, orduko, *-eta* atzizkiarekin irakurtzen da (*Olaberrieta*, HUA54, 40 or.). Honen idatzizko azken testigantza 1980. urteko mapa batean dago (*Casa Olaverrieta*, 1980, IGN1) eta oraingo honetan ere *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena garatu da ahozko tradizioan (*Olaberrita* [ólaberritá], Goi.).

OLLAKIÑETA[991] toponimoaren bi adibideak 18. mendeko dokumentazioan opatu ditugu (*Ollaquiñeta*, 1707, HUA30, 29 bin.; 1739, HUA36) eta *ollaquiñ* oinarriaren nondik norakoa ez dago garbi, besteak beste, *oilakaran* landare-izenean[992] zein eskulangintzan (*-quiñ-* [-gin]) izan lezakeelako jatorria[993] (cf. ARTESKIÑETA).

---

990 Inguruan burdinola zegoen, baita izen bereko saroia ere.

991 Irunen *Olakiñeta* baserria dago (1998, IRM).

992 “Azkue, Bonaparte eta Mitxelenaren arabera (*oilaka*) “zakur emea” da, baina Beteluko *Ollakadi* bezalako toponimoek landareren bat ez ote den susma erazten digute (cf. gainera, *Oilakaran*, *Oilakarizketa* …)”; Salaberri (1991: 50).

993 Ikaztegietan *Ollakindegi* baserria dago (1999, IKM) eta Nafarroan bada *Ollakindia* deitura ere.

ONDARRITURRIETA (*Ondariturrieta* + *-eta*; ‘hondarra ateratzen den iturriaren ingurua’) formak lekukotasun bakarra du; ahozko tradiziotik bildua da, eta elkargunean *-i* + *-eta* > *-ita* laburtzea dugu beste behin (*Ondarritturrieta* [óndarritturrità], Mari. 2). Sorburua *ondar* eta *iturri* izenez osatutako ONDARRITURRI toponimoa da[994].

OREITURRIETA[995] ihartutako toponimoa da eta dauden erreferentzietatik hiru 16. mendekoak dira (*Oreiturrieta*, 1561, HUA17, 11 au.; 1573, HUA19, 7 bin.; *Oreayturrieta*, 1576, HUA20, 8 au.); laugarrena eta azkena 18. mendekoa da (*Oriturrieta*, 1708, HUA31), baina esan beharra dago 17. mendean *Oreiturri-* oinarria *-aga* atzizkiarekin ere azaltzen dela (*Oreiturriaga*, 1625, LMI, 229 or.). Cf. OREERRIAGA.

Gure esparruan bi ORMAZARRETA daude (*horma* + *zahar* + *-eta*; ‘harrizko hormen tokia’, ‘harrizko baserriaren tokia’), bata Urnietan eta bestea Andoainen. Urnietakoaren lehenbiziko agerraldia 18. mendekoa da eta *-ch-* grafemaz dago idatzirik (*Ormacharreta*, 1712, L.M., 165 or.). Hurrengoa 19. mendekoa da eta *-z-* du (*Ormazarreta*, 1855, UEA1), nahiz eta handik urte gutxira, berriro txistukari bustiarekin eta (aurreneko aldiz) atzizkirik gabe ageri den (*Ormachar*, 1863, URU, 144 bin.). Hortik aurrera bi aldaera gailentzen dira tradizio idatzian, *Ormazar* eta *Ormazarreta* (*Ormazar-azpia*, 1951, UUA18; *Ormazarretaco-borda-aldea*, 1925, UUA3). Ahozko tradizioan ere *Ormazar* (1989, UUTB) / *Ormaxar* ([órmaxàr], Ai. eta Amu.) atzizkigabeak zein *Ormazarreta* ([órmazarretà], Ai. / [ormazarréta], Amu.) eta *Ormaxarreta* ([ormaxarréta], Amu.) atzizkidunak baliatu dira. Andoaingoari dagokionez, erakusgarri bakarra ahozkoa da (*Ormazarretako arkaitza* [órmazarretakò árkaị̀tzá], Amu.). Elementu nagusiak *horma* mailegua (< lat. *forma*) izena eta *zahar* izenondoa dira eta, ildo horretan, litekeena da Urnietakoaren kasuan etimoak eraikuntzarekin izatea zerikusia, baserri-izena baita.

---

994 1942. urterako lekukotzen da eta informatzaile batek ere aipatzen du (*Ondarritturri* [óndarritturrì], Larr.).Cf. Amezketako *Ondarre-iturri*; Elosegi (1972: 146).

995 Cf. Morionesen (Oibarren) Salaberrik (1994: 697-698) jasotzen dituen *Oreingaña* eta *Oreingibela*.

OSTAZURIETA (*osto* + *zuri* + *-eta*) maldaren idatzizko bi aipamenak 1868. urteko idazki batean topatu ditugu, baina bigarrena aurrenekoaren okerreko aldaera da segur aski (*Ostazurieta*, 1868, DJE; *Eztazurreta*, 1868, DJE). Berriemaileek bizkar-hobietako zein sabaiko txistukariz ebakitzen dute, betiere *-i* + *-eta* > *-ita* laburtzea burutuz (*Ostozuita* [óstozwità], Amu.; *Ostatxuita* [óstatxwità], Ek. / [ostátxwità], Mari. 2). *Hosto* izenaren *(h)osta-* aldaera eta *zuri* izenondoa dira aurreneko bi elementuak.

OTSAZULOETA (*otso* + *zulo* +- *eta*; 'otso-zuloa dagoen lekua'?) oikonimoa da eta lehenbiziko aldiz Barandiaranek aipatzen du 1928. urteko artikulu batean (*Otsazulueta*, JMB3, 268 or.). Idatzizko beste bi agerraldietan (1944, GHO1; 1980, IGN1) *Otzazulueta* forma erabiltzen da eta hor dago *Utzazulueta* (1944, GHO2) erratua ere, bestalde. Ahozko tradizioan *-o* + *-eta* > *-ota* eta *-u* + *-eta* > *-uta* murriztapenen lekuko diren *Otsozulota* ([otsózulotà], Berr. z.) zein *Otzazuluta* ([otzázulutà], Id.) jaso ditugu; *Otzazulueta* (1995, DTE) aldaera ere bildua dago. Dakigula, ez da otsoak harrapatzeko zulo edo hertsigunerik egon han.

Pago zuhaitz-izena errotzat duen PAGOETA (*pago* + *-eta*) toponimoaren berri informatzaileei esker izan dugu eta, *Pagota* [págotà] (Larr. eta Mik.) aldaerarekin batera, *-o* + *-eta* > *-weta* aldaketaren lekuko den *Paguetako gaña* [págwetakò gáñà] (Txim.) zein hitz amaieran loturazko *e* bokala duen *Pagote* [págotè] (Pard. g. 2) zerrendatu ditugu. Azken aldaera hori forma deklinatuak erabiltzearen ondorioz sortu bide da: *Pagoteko sarobia* ([págotekò sárobià] (Pard. g. 1, Pard. g. 2) < *Pagotako sarobea* < **Pagoetako sarohea.*

PAGOLUZEETA (*pago* + *luze* + *-eta*; 'tantaiak dauden aurkintza' edo 'lepatu gabeko pago tokia') izena duten lekuak hiru dira, bi Hernanin eta bestea Hernani-Urnieta mugan. Bada idatziz aipatzen den laugarren bat, *Pagoluceta* (1951, UUA18) hain zuzen (*-e* + *-eta* > *-e*), baina, damurik, kokapen ezezaguna du. Idatzizko testigantzez ari garenez, diogun PAGALUZE toponimoa ere ezaguna dela gurean (*Pagolucea*, 1794-1831, UGR3, 15 au.;1948, UUA16; 1951, UUA18). Ahozko tradizioan erreferentzia gehiago daude eta hiru kasuetan *-e* + *-eta* > *-ieta* disimilazioa ikusten da elkargunean: 64-46-4, Her.-Urn.; *Pagoluxieta* ([págoluxjetà] (Txim.), *Pagoluxeta* (Pard. g. 2, Txim.); 64-47-2,

Her.; *Pagoluzieta* (1989, HUTB); 64-55-2, Her.; *Pagoluzieta* (1989, UUTB). *Pago* zuhaitz-izena eta *luze* izenondoa daudela agerikoa da, beraz (cf TANTAIZELAIA).

PAGOSARDEITA (*Pagosarde* + *-eta*?) formaren bi mostrak 1944. urteko bi mapatan kausitu ditugu, baina ez dira iturri fidagarriak, erratu asko dituztelako (*Pagosardeita*, 1944, GHO1; GHO2). Bi aipamenak PAGOSARDE izeneko inguruan kokatzen dira eta, itxuratxartzea ez balitz, PAGOSARDE izenaren oinorde baten aurrean geundeke segur aski.

PARETAZARRETA (*pareta* + *zahar* + *-eta*) espezifiko eratorriak bi erakuskari ditu, biak ahozkoak (*Paretazarreta* [parétazarretà], Etxol. / [páretazarréta], Goi.), eta badakigu uharka zahar bat izendatzen duela. Bistakoa da *pareta* izena eta *zahar* izenondoa direla osagai nagusiak (cf. ORMAZARRETA) eta, horrenbestez, ugaritasuna adierazten duelako zantzurik ez dago.

PIXALEKUETA (*pisaleku* + -eta). Berri bakarra ahozkoa da eta elkargunean *-u* + *-eta* > *-uta* murriztapena burutu dela erakusten du (*Pixalekuta*, 1995, DTE). PIXATOKIETAren[996] (*pisatoki* + -eta) erreferentziak ere ahozkoak dira eta informatzaileengandik *Pixatokita* ([pixatokíta], Arg. / [píxatokíta] Arg. / [píxatokitàn], Arg., *in*.) jaso dugu (*-i* + *-eta* > *-ita*); hala berean, *Pisatokieta* (1995, DTE) ere bildua dago. PIXATOKIETAk eta PIXALEKUETAk toki bera izendatzen dute, eta, bestalde, oraingo honetan ere *eta* atzizkiak ugaritasun zentzua duenik ezin esan.

PORTALETA (*portale* + *-eta*) bizkarraren erreferentzia ere ahozkoa da (*Portaleta* [pórtaletà], Bark.) eta, itxura batean, erroa *portale* mailegua dela dirudi, baina etimo hori ezin egiazta dezakegu, bertan inolako eraikinik ez dagoelako.

SARAKOLETA iharturiko toponimoa da. Lehenbiziko bi testigantzak 18. mendearen amaierako agirietan topatu ditugu eta aurrenekoan dardarkaria dago bokal ireki artean, bigarrenean albokaria dugun lekuan (*Saracoleta*, 1776-1794, UGR2, 3 au. / *Salacoleta*, 1794-1831, UGR3, 13 au.), agian atzerako asimilazioaren ondorioz (*r — l* > *l — l* ?).

[996] *Pisatokieta* parajea dago Oiartzunen; Goikoetxea & Lekuona (2007: 271).

Azken agerraldia 19. mende erdialdekoa da eta bokal artean albokaria du (*Salacoleta*, 1831-1845, UGR4, 21 au.). **Saracol-* / **Salacol*-en nondik norakoa iluna da.

SARATSETA (‘*sarats* + *-eta*; ‘sarats tokia’) fitotoponimoaren idatzizko lehen testigutza 1769. urtekoa da (*Saraceta*, HUA37) eta hurrengoa (eta azkena), berriz, 20. mendekoa (*Sagastietako lepua*, 1982, CAG, 192 or.). Ahozko tradizioan bokal artean dardarkari ahula duen aldaera (*Saratsetako lepua*, 1989, HUTB) eta lekune horretan igurzkari belarra duena (*Sagastietako lepua*, 1989, HUTB) daude jasota. Hain zuzen, azken hori bokal arteko dardarkaria gabe ahoskatutako **Sa(r)atseta* jatorrizkoaren herri-etimologia dateke, erroa *sarats* zuhaitz-izena baita[997].

SASITURRIETA (*Sasi[ko] iturri[a]* + *-eta*; ‘sasiko iturriaren lekua’) hidrotoponimoaren erreferentziak ahozko tradiziotik datoz eta *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapenaren lekuko dira (*Sasitturrita* [sásitturrità], Mari. 2; *Sasitturritako erreka* [sasítturritakò érrekà], Mari. 2). Atzizkirik gabe ere baliatzen den SASI(KO) ITURRI(A) toponimoa da iturburua[998] eta, ondorioz, oraingoan *-eta* atzizkiak ez du multzoa adierazten.

SOROTXOETA (*soro* + *-txo* + *-eta*; ‘soro txikiaren lekua’) espezifiko eratorriak baditu idatzizko aipamenak, guztiak 20. mendekoak, *-o* + *-eta* > *-ota* erredukzioaren berri ematen dutenak (*Sorotxota*, 1925, UUA4; *Sorochota*, 1951, UUA18). Belarriz, berriz, *Sootxota* (1989, UUTB), *Soratxota* (1989, UUTB), *Sorotxeta* (1989, UUTB) eta *Sorotxota* ([sórotxóta], Amu.) daude bilduak. Lehen bi osagaiak *soro* izena eta *-txo* txikigarria direla dirudi (*izena* + *atzizkia* + *atzizkia*).

SOROZARRETA (*soro* + *zahar* + *-eta*; ‘behinola soroa zen eremua’) izeneko bi aurkintza daudeke, baina, era berean, badaiteke biek sorburu bera izatea. Aurrenekoaren mostra zaharrena 18. mendearen amaierakoa da (*Sorozarreta*, 1797-1833, HGR2, 64 au.) eta hurrengoa 19. gizaldiaren erdialdekoa (*Sorozarreta*, 1845-1846, HTR1, 1 au.; 1854-1855, HTR7, 19 au.); azkenekoa, aldiz, 1920. urtekoa da (*Sorozarreta*, 1920,

[997] Cf. Irungo *Sarastieta* malda eta iturria (1998, IRM).
[998] *Sasiko iturri* (1703, 1822) aipatzen du Ormaetxeak (1996: 206) Urretxun.

HUA57, 661 or.). Bigarren SOROZARRETA 1857ko baserri-izendegian aurkitu dugu lehenengoz (HUA48, 47 or.) eta ahozko tradizioan *Sorozarreta* (1989, HUTB) zein *Soozarreta* (1989, HUTB) formak daude bilduak. Horrez gainera, *izena* + *izenondoa* + *atzizkia* egitura da azpimarragarriena.

TTANGOETA ahozko toponimoa da (*Ttangota* [ttángotà], Etxol.; *Ttanguta* [ttángutà], Etxol.) eta, ikusten denez, bi aldaerak informatzaile berari hartutakoak dira. Elkargunean bi aldaketa ikusten dira, *-o* + *-eta* > *-ota* zein *-o* + *-eta* > *-ueta* > *-uta*, eta azpimarratzekoa da hitz hasierako herskaria sabaikoa izatea. *Ttango* erroaren jatorria zein den ezezaguna da, baina dantzarekin zerikusia izatea da aukera bat, besteak beste gure esparruan DANTZALEKU eta DANTZATOKIETA badirelako[999].

Tolare terminoa lehen osagaitzat duen TOLAREETA ('sagarra jotzeko tokia') oikonimoaren lehenbiziko bi lekukotasunak 1857. urtekoak dira eta elkargunean *-e* + *-eta* > *-ieta* hersketa dugu orduko (*Tolarrieta*, HUA47; *Tolarieta*, HUA48, 47 or.). Badaude erreferentzia gehiago (*Tolarieta*, 1911, IM; 1920, HUA57, 370 or.; 1937, AB; 1983, GFA2; *Tolarieta aldea*, 1920, HUA57, 943 or.; *Tolarietacoburu*, 1924, HUA57,116 or.; *Tolaritacoburun*, 1920, HUA57, 219 or.) eta dardarkariaren ondoren *-e-* bokala soilik duen idatzizko aipamen bakarra 1983. urtekoa da (*Regata Tolareta*, IGN2); ahozko tradizioan ere azken aldaera hori gailentzen da (*Tolareta* [tólaretà], K.; *Tolaretako erreka* [tólaretakò érrekà], Mik.), hiatoa duen forma bildua badago ere (*Tolarieta*, 1989, HUTB). Ohar bedi irakurlea gure esparruan *tolare* esaten dela, ez *dolare*, eta ondorioz, ez du ematen hitz hasierako herskari ahoskabeak asimilazioarekin zerikusia duenik hemen (*D — t* > *T — t*). Nabaria da sagardogintzarekin lotura duen toponimoa dela eta, zentzu horretan, oraindik badira sagastiak han.

TRENTXALEKUETA; TRINTXALEKUETA. ('otea trintxa[txeko] tokia'). *Trintxaleku* / *trentxaleku* oinarria duten bi toponimo daude gurean[1000]. TRENTXALEKUETAren

[999] Cf. Ataun-Iturmendi mugan dagoen *Dantzaleku* (1997, ARM) edota Segurako *Fandangozelai* (1997, SM).

[1000] Bada Urnietan bertan TRINTXALEKU izeneko beste toki bat, aurrenekoz 1951. urtean lekukotzen dena (*Trincha-lecu,* UUA18); ahozko tradizioan *Trintxaleku* ([tríntxalekù], Larr.) bildu dugu. *Trintxuleku* izeneko tokiak daude, berebat, Urretxun (Ugarte, 1998: 173) eta Gaintzan (Araitzen) (Elosegi, 1972: 209).

lehenbiziko agerraldia 18. mendearen amaierakoa da (*Trenchalecueta*, 1794-1831, UGR3, 8 au.) eta TRINTXALEKUETArena, berriz, 20. gizaldikoa (*Trintxalekuta*, 1976, TA, 14 or.). Ahozko tradizioan, itxarotekoa zenez, *-u* + *-eta* > *-uta* erredukzioa erakusten duen *Trintxalekuta* ([tríntxalekutà], Amu., Mari. 2 / [tríntxalekúta], Amu. / [trintxálekutá], Mik.) jaso dugu. *Trintxalekuak*, abereentzat janari gutxi zegoenean, otea txikitzeko tokiak ziren. *Aditza* + *izena* + *atzizkia* egitura duen izen espezifiko eratorri baten aurrean gaude, beraz.

TRONKOETA (*tronko*[1001] + *-eta*?). Honen bi testigantzak ahozkoak dira (*Tronkotako erreka*, 1989, UUTB; *Trunkotako erreka* [trúnkotakò érrekà], Larr.) eta, *o-* + *-eta* > *-ota* murriztapenaz gainera, azpimarratzekoa da sudurkari ondoan bokal itxia duen aldaera, menturaz, *o — o* > *u — u* disimilazioagatik sortua dena.

TUNELETA (*tunel* + *-eta*; 'tunel tokia') izen espezifikoaren berri bi informatzaileri esker izan dugu (*Tunaleta* [túnaletà], Ai. / [túnaletá], Po.; [túneletà], Ai. / [túneléta], Po.) eta, ikusten den moduan, asimilazio-disimilazio eraginen ondorioz, albokari aurrean bokal irekiarekin ebakitzen dute batzuetan. Erroan *tunel* mailegua dago eta ez da harritzeko, meatzea baitzegoen bertan.

TXAKURZARRETA (*txakur* + *-tzar* + *-eta*) oikonimoaren aipamen bakarra ere ahozko tradiziotik bildua da (*Txakurzarreta*, 1989, HUTB) eta *txakur* izenaz zein *-tzar* atzizkiaz dagoke osatua ('txanpona', gazt. 'perra gorda'). Alde horretatik, ez bedi ahantz baserri-goitizena dela ('jende txiroa bizi den etxea'?).

TXERRITEGIETA (*txerri* + *-tegi* + *-eta*). Bi dira ihartutako toponimo honen mostrak; bata 18. mendekoa da eta bestea 19. mende erdialdekoa (*Borda de Arizola o Cherritegieta*, 1797-1833, HGR2, 67 au.; *Cherriteguieta*, 1847-1848, HTR3, 5 au.). *Txerritegi* izena da oinarria (*izena* + *atzizkia*), idazkietan 19. menderako azaltzen dena (*Cherritegui*, 1860-1862, HTR10, 31 au.) eta, alde horretatik, oroit dezagun Gipuzkoa-Nafarroetako alderdi batean antzinako aldaera adierazkorra (*txerri*) oinarrizko bihurtu

[1001] Zegaman *Trunkoeta* (1995, ZM) lekua dago eta Ataunen Arin Dorronsorok (1928: 102) *Truncoetaco celaye* (1733) jasotzen du. Cf. Agezako (Oibar haraneko) *Onborduia* (Salaberri, 1994: 144) edota Goizuetako *Enborretako lepoa* (Etxeberria, 1988: 105).

dela[1002]. Gero, aldaki bustigabeak balio handigarria edota iraingarria hartu du (*zerri* vs. *txerri*).

URBIETA (*ur* + *bi* + *-eta*; 'bi errekak bat egiten duten parajea') ihartutako toponimoa da; lehen agerraldia 1739. urtekoa idazki batean dago (*Urbieta*, HUA36), bigarrena, eta azkena 19. mende erdialdekoa da (*Urbieta-aldia*, 1833-1845, HGR3, 78 au.). Badaiteke *Urbieta* deitura izatea, baina edozein modutan, *ur* izena eta *bi* zenbakia daude hemen (*izena* + *izena* + *atzizkia*)

URDANETA izeneko bi baserri daude ('zerrizaina egoten den lekua'?), bata Donostian eta bestea Urnietan. Donostiakoaren aurreneko erakusgarria 1898. urteko mapa batean aurkitu dugu eta zertxobait itxuraldaturik dago (*Urdaindeta*, 1898, EGZ). Gainerakoan, *Urdaneta* (1944, GHO1 eta GHO2; 1983, IGN2) erabiltzen da tradizio idatzian. Ahozko iturriari dagokionez, *Urdaneta* ([urdanéta] / [úrdanetá] / [úrdanetà], Mik.) forma bildu dugu Urnietan eta Donostiakoaren erakusgarriak, berriz, *Urdaneta* ([úrdanetà], K. / [úrdanetá], Larra.) zein *Urbaneta* ([úrbanetà], Larra.) dira (*Urd-* > *Urb-*). Mitxelenak (*AV*, 585) dio *urdan-* forma *urdain*-en elkarketarako aldaera izan daitekeela (< **Urdani* 'porquerizo'), eta ez *urde*-rena[1003].

URDANTZALEKUETA / URDANTZULOKOETA. Iharturiko formak dira biak. Aurreneko erreferentzia 1855-1857koa da (*Urdanzulocoeta*, 1855-1857, UTR8, 46 au.) eta handik urte gutxira *Urdanzalecueta* (1863, URU, 152 au.) irakurtzen da antzeko dokumentu batean. Lehenbiziko osagaia *urdan-* dateke hemen ere eta bigarrena *zulo* (cf. URDANTZULO).

Gure esparruan URKIETA (*urki* + *-eta*; 'urki lekua') izena duten hiru toki daude eta hiruren lekukotasunak ahozkoak dira; 64-38-6, Urn.: *Urkita* ([úrkità], Larr.); 64-48-6, Err.*: *Urkita* ([úrkità], Id.), *Urkietalepo* (1989, OM), *Urkita-lepo* (1995, DTE), *Urkitako lepua* (1995, DTE); 64-62-8, Eld.*: *Urkitako malda* ([úrkitakò máldà], En.).

[1002] Cf. *FHV*, 191.
[1003] Cf. Iñigo (1996: 545-546).

Garbi dago *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena burutzea joera indartsua dela, automatikoa izatera iritsi ez arren.

URNIETA makrotoponimoaren lekukotasun zaharrena 1427. urtekoa da eta gaurko forma ageri da orduko (*Urnieta*, HUA1), baina, handik gutxira, 1467. urteko testu batean hain zuzen, hasierako bokal itxiaren ondoan *-rr-* digrama duen *Urrieta* (HUA5) zein *Urnieta* (HUA5) irakur litezke. Nolanahi ere, *Urrieta* dokumentu horretan baizik ez dugu kausitu eta gainerako agirietan *Urnieta* (1538, HUA9; 1555, HUA16; 1683, HUA28; 1911, IM; 1983, GFA2 eta 1983, IGN2), *Hurnieta* (1597, HUA22; 1773, VEK1B) edo *Urnietta* (1773, VEK1) dago idatzirik[1004]. Informatzaileek *Urnieta* forma darabilte usaian ([úrnjetá], Ak. / [úrnjetà], Amu. / [úrnjetatìk], Maer., *abl*.), nahiz eta *-i* + *eta-* > *-i-* laburtzearen lekuko den *Urnita* ([úrnitàn], Ak., *in.* / [úrnità], Amu. / [urníta], Arg.) ere jaso dugun. Toponimo honen nondik norakoak behin betiko argitu gabe dirau. Mitxelenak (1988: 174) hasiera batean —Garateren ildo beretik— *burdin* hitzaren *burni* aldaerarekin lotzen du, baina aurrerago ideia hori alde batera uzten du (*AV*, 586), elkarketan *burdin* azaltzen delako (eta ez *burni*). Gauzak horrela, hipotesia da iturburua **Urneeta* izan daitekeela (*-e* + *-eta* > *-ieta*).

URREMEATZETA oronimoaren berri informatzaile batek baizik ez du ematen (*Urremiatzeta* [úrremjatzéta], Amu.), baina han ez dago meatze arrastorik egun. Oinarria *Urre* eta *meatze* hitzekin (*izena* + *izena*) osatutako *Urremeatze* da.

URTIETAren idatzizko lekukotasunak zalantzakoak dira, iturriak ez baitira fidagarriak (*Urtietaco-gaña*, 1942, IGC1; *Urtieta*, 1944, GHO1; *Urtietaco-gaña*, 1953, IGC2), baina informatzaile batek *Urtietako lepua* ([úrtjetakò lépuà], Arg.) forma aipatzen du eta horregatik hartu dugu aintzakotzat azpiatal honetan. URTIETA aldaera URKIETA toponimoa dagoen toki berean kokatzen da eta, ahozko aipamenik ez balego, erratutzat hartuko genuke, are gehiago idatzizko iturriak seguruak ez direla kontuan hartuz gero. Etimoari bagagozkio, *urte* + *-eta* dateke aukera bat (cf. URTEAGA); bestea herskarien artean aurrerako asimilazioa gertatu dela kontu egitea.

[1004] Atzerrian egindako bi mapatan *Uronta* salbuespena irakurtzen da (1652, S.AB eta 1690, G.Can.).

USASETA ihartuta dago, lehenbiziko aipamena 1942. urteko mapa batean aurkitu dugulako (*Usaseta*, 1942, IGC1) eta bigarrena, eta azkena, 1953. urteko beste karta batean (*Usaseta*, 1953, IGC2). Erratua izan liteke, iturria ez delako fidagarria.

USATEGIETA (*usategi* + *-eta*; usategi tokia') oikonimoaren aurreneko agerraldiak 16. mendekoak dira (*Usateguieta*, 1569, HUA18, 30 au.; 1576, HUA20, 8 au.) eta ordutik *Usateguieta* forma aurkitu dugu idazkietan beti (1628, DUA1; 1702, HUA29; 1714, HUA30, 122 bin.; 1739, HUA36; 1773, VEK1A; 1797-1833, HGR2, 66 au.; 1797-1833, HGR2, 71 au.; 1843, HUA43; 1845-1846, HTR1, 1 au.; 1864, HUA47 eta 1857, HUA48, 47 or.). Sabuespena atzizkirik ez duen 1683. urteko testigutza da (*Usategui*, HUA28) eta 20. mendean ere *Usateguieta* nagusitzen da (1911, IM; 1935, HUA57, 342 or.; 1937, AB; 1944, GHO2; 1962, UTC; 1983, GFA2; 1980, IGN1 eta 1981, SGE2). Belarriz *Usateita* ([úsateịtà], Ai., Amu.) / [usáteịtà], Ai. / [usatéịta], Amu. / [úsatéịta], Amu.) aldakia jaso dugu guk, *-i* + *-eta* > *-ita* laburtzearen lekuko dena, *Usategieta* (1989, HUTB) eta *Usategietako gaña* (1989, HUTB) formak ere zerrendatuak dauden arren. Oinarria *usategi* generikoa da, *izena* + *atzizkia* osaketa duena.

ZALALURRETA formaren erreferentziak 1951. urteko amilaramenduan aurkitu ditugu (*Susaca o Zalalurreta*, 1951, *helechal*, *argomal*, UUA18); bigarren zatia *lur* izena dela argi samar badago ere, aurrenekoaren jatorria ezezaguna da.

ZELAITXOETA (*zelai* + *-txo* + *-eta*; 'zelai txikia dagoen tokia') espezifiko eratorriaren idatzizko aurreneko lekukoa 18. mendearen amaierakoa da eta ez dago *-o* + *-eta* > *-ota* murriztapenaren zantzurik (*Celai-choeta*, 1794-1831, UGR3, 12 au.); beste biak 20. mendekoak dira eta *-oe-* > *-ue-* disimilazioa dago (*Chusaca y Celaichueta*, 1951, *helechal*, UUA18; *Chusaca y Celaichueta*, 1951, *argomal*, UUA18); ahozko tradizioan aldaera murriztua (*-o* + *-eta* > *-ota*) nagusitzen da (*Zelatxota* [zélatxotà], Ai. eta Po. / *Zelaitxota* [zélaịtxóta], Amu.). *Zelai* generikoa eta *-txo* txikigarria daude hemen eta, beraz, toponimoak *izena* + *atzizkia* + *atzizkia* egitura du. Cf. ZELAITXO eta ZELAITXOKO INDARRETXEA.

ZELAITOKIETA. *Zelai* eta *toki* izenak osagaitzat dituen toponimo honen berri bakarra ahozkoa da eta *-i* + *-eta* > *-ita* erredukzioaren emaitza da (*Zelaitokita* [zélaị̈tokità], Amu.). Toponimo berri samarra dirudi.

ZELAIZARRETA toponimoaren testigantza 18. mende amierakoa da (*Celaizarreta*, 1794-1831, UGR3, 18 au.); oraingo honetan *zelai* izena eta *zahar* izenondoa ditugula dirudi (‘lehen zelaia zen aurkintza’?).

ZERRITOKIETA (*txerritoki* + *eta*; ‘txerri tokia?) oronimoaren aipamenak ahozko tradiziotik jasoak dira eta hiruretan *-i* + *-eta* > *-ita* murriztapena burutu dela ikusten da (*Zerritokita*, 1989, HUTB; *Zerritokitako sansonarriya*, 1989, HUTB); dardarkari aurrean bokal irekia duen aldaera ere azpimarratu nahi dugu (*Txarritokita*, 1989, HUTB). *Zerri* eta *toki* izenez osatutako *zerritoki* da oinarria.

ZOLABIETA formaren testigutzak 20. mendeko kartografiatik datoz (*Regata de Zolabieta* (1942, IGC1; 1953, IGC2; *Regato de Zolabiuta*, 1981, SGE2), baina iturriak ez dira fidagarriak, eta itxuratxartutako forma dateke.

ZUATZETA (*zuhaitz* + *-eta*; ‘zuhaitz tokia). Lehenbiziko lekukotasuna 1640. urtekoa da (*Zuaceta*, 1640, LMZ, 165 or.) eta, harrezkero, 18., 19. eta 20. mendeetako idazkietan bi aldaera erabiltzen dira; batetik, —lehen aipamenaren eredua jarraituz— hasierako txistukariren ondoren *-ua-* hiatoa dutenak daude (*Zuatzeta azpia*, 1794-1831, UGR3, 7 au.; *Zuazeta azpia*, 1794-1831, UGR3, 11 au.; *Zuaceta*, 1855, UEA1; *Zuatzeta*, 1863, URU, 148 bin.; *Zuaceta*, 1857, HUA48, 72 or.; *Zuaceta-azpia*, 1846-1847, UTR2, 36 au.; *Zuatzeta-goicoa*, 1951, UUA18) eta, bestetik, ezpainbikoa duten formak ditugu (*Zubaceta*, 1845-1846, UTR1, 35 au.; *Zubatzeta*, 1863, URU, 148 bin.; *Zubaltzeta*, 1930, *punto*, UUA7; *Zubaltzeta*, 1931, UUA8; *Zubaltzeta*, 1951, *antepuertas*, UUA18; *Zubaltzeta-aldea*, 1951, *herbal*, UUA18; *Zubaltzeta-aldia*, 1951, *herbal*, UUA18); hala berean, *Sugaceta* (1863, URU, 148 bin.) forma ere azaltzen da behin. Ahozko tradiziotik *Zuatzeta* ([zúatzetà], K.) jaso dugu guk, hau da, *-b-* igurzkaria gabe ahoskatu digute berriemaileek, baina *Zubaltzeta* (1989, UUTB) aldaera ere bildua dago.

ZUBIZARRETA (*zubi* + *zahar* + *-eta*; ‘zubi zaharraren lekua’) odonimoaren lekukotasun bakarra ahoz bildua da (*Zubizarreta*, 1989, HUTB), baina agerikoa da oinarrian *zubi* izena eta *zahar* izenondoa ditugula; hortaz, hemen ere berrekailuak ez du ugaritasuna adierazten.

ZULOETA (*zulo* + *-eta*) saroiak nahiko ibilbide luzea du idatzizko tradizioan eta, hain justu, lehenbiziko aipamena 1178. urtekoa da[1005] (*Zuloeta*, IKA3). Bi multzo nagusi aurkitu ditugu iturri idatzietan orduz geroztik; alde batetik elkargunean *-oe-* hiatoa duten *Çuloeta* (1516, HUA7; 1632, HUA26, 153 au.), *Culoeta* (1538, HUA9), *Zuloeta* (1607, HUA23; 1628, DUA1; 1683, HUA28; 1780, HUA39; 1838, DUA4; 1855, UEA1; 1863, URU, 144 bin.; 1863, URU, 145 bin.; 1863, URU, 156 bin.; 1863, HUA56; 1870, HUA55; 1879, HUA49; 1960, UZA; 1976, TA, 17 or.) eta *Zuloetta* (1773, VEK1; 1773, VEK1A) daude eta, bestetik, (*-o* + *-eta* > *-u* + *-eta* aldaketaren ondorioz) elkargunean *-ue-* duen *Zulueta* dugu (1683, HUA28; 1780, HUA39; 1848, UINGR2, 1096 zenb.; 1855-1857, UTR8, 47 au.; 1898, EGZ; 1931, UUA8; 1937, AB; 1942, UUA10D; 1944, GHO1; 1944, UUA15; 1945, UUA15; 1951, UUA18; 1960, CA; 1960, GS; 1983, GFA2; 1983, IGN2); ohartu, espero izatekoa zenez, *-ue-* dutenak (1683) *-oe-* dutenak (1178) baino beranduago azaltzen direla dokumentazioan. Ahozko tradizioari bagagozkio, bi joera ikusten dira elkargunean. Lehenik eta behin, *-o* + *-eta* > *-ota* murriztapena garatu formak jaso ditugu (*Zulota* [zúlotàn], Ai., *in*. / [zúlotakuà], Ai., *l.g.* / [zúlotákua], Amu., *l.g.* / [zulotákua], Amu., *l.g.*); bigarrenik *-o* + *-eta* > *-ueta* disimilazioa erakusten duten testigantzak daude (*Zulueta* [zuluéta], Mik.; *Zuluetako bordak* [zúlwetakò bórdàk], Bezk., Larr.) eta, azkenik (*-o* + *-eta* >) *-ueta* > *-uta* erredukzioaren ondorio den aldaera dugu (*Zuluta* [zúlutà], Ai., Mik., Po. / [zúlutákuà], Ak., *l.g.* / [zúlutàn], Amu., *in.* / [zúlutatìk], Amu., *abl.*). Erroa *zulo* izena da[1006] eta, zentzu horretan, ZULOETA zokoan dagoen tokia da, baina ez da ospela, egutera baizik. Horrez gainera, aparteko zulorik edo leizerik ez da ezagutzen han, egun bederik.

[1005] Cf. Iratxeko dokumentazioan aipatu *Çulloaga* (1099); *FHV*, 481.

[1006] Hizkuntzaren ondare zaharreko zenbait hitzek *r* bihurtu ez den bokal arteko *l* dute, eta *zul(h)o* da horietako bat (*FHV*, 320).

ZULOZARRETA (*zulo* + *zahar* + *-eta*). Bizkar honen berri informatzaile batek ematen du (*Zulozarreta* [zúlozarretà], Ollok.) eta oinarriaren osagaiak *zulo* izena eta *zahar* izenondoa direla irudi du, baina *-tzar* berrekailua egotea ez da ezinezkoa.

Azkenik, ZUZUETA toponimoaren harira, diogun ihartua dagoela eta erakuskari bakarra 1932. urteko dokumentu batean aurkitu dugula (*Zuzueta*, HUA57, 391 or.). *Zuzu*-ren nondik norakoa ez dago agerian, eta lekukotza bakarra dagoenez gero, beste zerbaiten itxuratxartzea izan liteke. Etimoari dagokionean, iturburua Mitxelenak (*AV*, 634) aipatzen duen *zuzun* zuhaitz-izena (*Populus tremula*) izan liteke (**Zuzuneta* > *Zuzueta*).

Asko idatzi da *-eta* atzizkiaren jatorriaz[1007] eta iritziak bereiz dabiltza oraindik, auzi horri dagokionean. Schuchardtek[1008], esate baterako, latinetik datorkeeela deritzo, *-etum* atzizkiaren (multzokariaren) pluraleko *-eta* aldaeratik hain zuzen (erromantzez *-eda*). Alabaina, beste ikertzaile batzuk ez dira uste berekoak eta, zenbait etsenplu jartzearren, oroit dezagun Azkuerentzat[1009], adibidez, *e bokal eufonikoaz* eta *-ta* atzizkiaz dagoela osatua eta, ildo beretik, Caro Barojak[1010] ez duela uste latinetik datorrenik. Irigoienek (1990: 182) "pluralizatzailea" deitzen dio, bere iritziz, euskal pluraletik datorrelako (1994: 128) eta Mitxelenak[1011] ere zailtasunak ikusten dizkio latinetiko etorkiari (*FHV*, 248). Gaurko zenbait ikertzailek, ordea, Schuchardtekin bat egiten dute, eta berrekailuaren iturburua latinetikoko *-eta* dela deritzotze, Salaberrik (2005: 100) kasurako. Zehazkiro, Uxueko irakasleak sorburua *-etum* multzokariaren plural neutroa delako ustekizunarekin bat egiten du (*-edo* erromantzez). Azkenik, euskal artikulu definituaren gainean ari delarik eta 1025eko Arabako herrien zerrendan ageri diren zenbait izenen argitan (*Erroheta*, *Bagoheta*...), Manterolak (2006: 674) adierazten du *-eta* atzizkia ez dela latinetik mailegatu eta *-ta* bakartu genezakeela (*e-ta*), leku-kasuetakoarekin lotuz. Beste zatiak, bokal erdikoak alegia, erakusletiko jatorria luke.

[1007] Atzizkiaren esanahi eta jatorriaz 20. gizaldian esandakoaz ikus *EAEATB*, 63-65 zein Agud & Tovar (1989: IV; *-Eta* sarrera).

[1008] " … desde Schuchardt se piensa, aunque quedan graves dificultades, que procede del lat. *-eta*, pl. del colectivo *-etum*"; *FHV,* 248.

[1009] *DVEF*, 439.

[1010] *HGPV*, 159.

[1011] Ikus, baita ere, *FHV*, 528-529; 1971: 245-246 eta *AV*, 235 eta 373.

Zentzuari dagokionez, Azkuek (1984 [1905]: 439) sarritan aniztasuna adierazten duten toponimoen osagaia dela azpimarratzen du eta Aranaren (1930: 765) iritziz *-eta* pluralgilea baizik ez da. Caro Barojak (1990 [1945]: 136), hasiera batean, atzizkiak batzuetan 'aniztasuna eta lekua' eta beste batzuetan 'lekua' bakarrik esan nahi duela proposatzen du, baina aurrerago lekuaz eta ugaritasunaz mintzo da[1012].

Aurrekoaren harira, esan dezagun gure esparruan *-eta* 12. menderako agertzen dela idazkietan (*Zuloeta*, 1178) eta toponimo frankoren osagaia dela, baina beti ugaritasuna adierazten duela ezin da esan, konparaziora, AKOLAITURRIETA toponimoaren kasuan garbi dagoelako leku zentzua besterik ez duela.

Caro Barojaren (1980: 159) aburuz, *-Ø / -aga / -eta* bukaerak baliokideak dira eta, ildo horretan, badaude gurean *-eta / -Ø* txandaketaren erakusgarriak tradizio idatzian[1013], MUGARRIETA (1628) edota ARRIURDIÑETA (1843) konparaziora (ikus 8.3.2.§), eta ahozko tradizioan ere bai (ikus MINETA[1014]). Bidenabar, nabarmentzekoa da *-eta* atzizkiaren aurretik, oinarrian, beste atzizki bat duen toponimo baten lehen agerraldia (*-tegi* + *-eta*) 19. mende erdialdekoa dela gurean (ESTEGIETAKO ATAKAKO TXABALA, 1831-1845).

Mitxelenak (1971: 244-245) *-keta* aldaera normalki txistukari ondoren azaltzen dela zehazten du eta, ñabardura horri erreparatuz gero, gure esparruan *-keta* duten bi toponimoetatik batak txistukaria du aurretik (AZKETA) eta besteak sudurkaria[1015] (ASTINKETA). *-Keta* duen izen baten aurreneko agerraldia (*-z-* + *-eta* > *-zketa*) 18. mendearen amaiera aldekoa da (1794-1831).

[1012] Caro Baroja (1980: 159).

[1013] *-aga* / *-eta* txandaketa dela eta, ikus 8.1.2.

[1014] Bada jabego genitiboaren hondarkiz zein atzizki toponimikoz horniturik (*-eta / -ren*) azaltzen den ale bat (GEREZIETAKO MALKORRA / GEREZIAREN MALKORRA).

[1015] Gauza jakina da aldi oro ez da horrela gertatzen, esate baterako, Ameskoako limitazioetan *Iturriketa* parajea dagoelako (*Iturriqueta*, 1897; *NTEM-XXII*, 234); hasieran txistukari ondoan gelditu zen bukaera gero atzizkitzat hartu eta edozein oinarriri erantsi zitzaion.

Oro har oinarrien azken bokaletan aldaketa gutxi antzematen dira 12. mendetik hona (cf. *FHV*, 528-539). Aipagarriena, *-R- > -l-* da, bigarren osagaia dardarkari anizkunarekin amaitzen denean garatzen dena (ARNABARRETA > *Arnabaleta*). Berria ematen du, halere, ahoz besterik ez delako lekukotzen disimilazioa.

Berrekailua hartu duten oinarri gehienak izen elkartuak dira, hau da, osaketa arrunta *izena + izena + -eta* edota *izena + izenondoa + -eta*. Are gehiago: lehen zati konposatuak dituzten toponimoak bakunak (erroak) dituztenak halako bi dira. Bi kasuetan ia toponimoen erdiak ahozko lekukotasunak baizik ez dituzte eta hainbateko horri 20. gizaldian agertzen direnak gehitu behar zaizkio. Ñabarduretan sartuz gero, bi multzoetan idatzizko erakuskariak dituzten izen gehienak 18. eta 19. gizaldietan azaltzen dira eta aipamen zaharragoak oso gutxi dira, 12. gizaldiko bana lekuko badaude ere.

Erroen sailean landareak (*elorri*, *gerezi*, *gorosti*, *hagin*, *haritz*, *mizpira*, *pago*, *urki*), izen geografikoak (*aldapa*, *erreten*, *harkaitz, iturri, larre*, *muga*, *sarats*, *tunel*, *zulo*), abereak (*erle*, *urde*) eta gizakizkoak (*apaiz*) kausitu ditugu. Izen espezifikoak ere badira tartean (*Akolaiturri*, *Alduruiturri*, *Arrilimuri*, *Oindoko aldapa*) eta, hain zuzen, horrelako toponimoek garbi erakusten dute *-eta* atzizkiak ez duela beti ugaritasuna adierazten. *Belekabi*, *Bordazar*, *Dantzatoki*, *Frantziputzu*, *Galtzadaberri*, *Lamberrizar*, *Larrezuri*, *Linaputzu*, *Pagoluze*, *Zelaitoki*, *Zelaitxo* eta *Zulozar* oinarriak ere izen espezifikoak izan litezke. Jatorri eta izaera iluneko lehen zatiak ere badaude noski, *Arteskin-*, *Papur-*, *Estegui-*, *Eçaic-* eta *Lindo-*, besteak beste.

Izena + izena egitura duten oinarrien multzoari erreparatuz gero, bigarren izena termino geografikoa da gehienetan: *ondar + iturri*, *azkonar + zulo*, *zelai + toki*. Badaude *zenbakia + izen geografikoa* egitura dutenak, *bost + haitz / haritz*, *hiru + iturri* edota *hiru + haitz / haritz*, adibidez, baina gutxi dira horrelakoak. *Izena + izenondoa* osaketa duten lehen zatiak ere ez dira gutxi[1016] eta *haritz + makur*, *bide + gorri* eta *lanberri + zahar* dira mostra batzuk. Oinarrien lehen osagaitako gehien azaltzen den terminoa

[1016] Mitxelenak (1971: 243) esandakoa berresten da hemen, gure esparruan *-eta* atzizkia beti *izena + izenondoa* bikotearen ondoren azaltzen delako, eta inoiz ez tartean.

harri (*har*-) da eta *bide*, *elorri*, *haltz*, *lohi* eta *zelai* ere behin baino gehiagotan lekukotzen dira. Bigarren osagaien artean *iturri* eta *zulo* izenak nabarmendu nahi ditugu, eta batez ere *zahar* izenondoa, hamar toponimotan azaltzen baita gutxienez.

Bi atzikzi dituzten toki-izenez labur mintzatuko gara. Gehienetan oinarriak izen generikoak dira (*hariztegi / harizti*, *haztegi*, *mintegi*, *txerritegi*...), baina, asko ez izan arren, badira -*eta*-ren aurretik -*txo* txikigarria dutenak ere[1017] (*elorri* - + - *txo*; *haran*- + -*txo*; *zelai*- + -*txo*). Amaitzeko, -*eta* atzizkia hartu duten erro eta oinarriei kasu eginez gero, diogun, salbuespenak salbuespen, erliebe malkartsua eta landaretza anitza dituen paisaia irudika litekeela, baina, guztien gainetik, ezaugarri bat gailentzen da: gure esparrua inguru gizakitua dela oso.

[1017] Oinarrian -*txo* atzizkia duen toponimo baten lehen testigutza 1794-1831koa da.

Hersketak eta murriztapenak tradizio idatzian

1989			
	-i + -eta > -ita	**-e + -eta > -ieta**	-i + -eta > -ieta
1950		**-o + -eta > -ueta**	-u + -eta > -ueta
	-i + -eta > -ita	***-e + -eta > -ieta***	*-i + -eta > -ieta*
1900	*-o + -eta > -ota*	***-o + -eta > -ueta***	*-u + -eta > -ueta*
		-e + -eta > -ieta	*-e + -eta > -eeta*
			-i + -eta > -ieta
	-o + -eta > -ota		*-o + -eta > -oeta*
1850			*-u + -eta > -ueta*
	-a + -eta > -eta		
	-i + -eta > -ita		*-i + -eta > -ieta*
			-o + -eta > -oeta
18.-19.			*-o + -eta > -oeta*
	-i + -eta > -ita		*-i + -eta > -ieta*
			-u + -eta > -ueta
1700			*-i + -eta > -ieta*
			-i + -eta > -ieta
			-o + -eta > -oeta
1600		***-o + -eta > -ueta***	*-u + -eta > -ueta*
16.			*-i + -eta > -ieta*
1400			*-i + -eta > -ieta*
12.			*-o + -eta > -oeta*

Hersketak eta murriztapenak ahozko tradizioan

21.			
-a + -eta > -ata	**-a +-eta > -eta**		
		-e + -eta > -ieta	
-i + -eta > -ita	**-i + -eta > -eta**		-i + -eta > -ieta
-o + -eta > -ota			
-u + -eta > -uta		**-o + -eta > -ueta**	-u + -eta > -ueta
1989			**-ueta > -uta**

-Aga atzizkia

Ezaguna da, behin baino gehiagotan, ahozko lekukotasunetan bereziki, *-aga* atzizkiak artikuluaren itxura hartzen duela, bokal arteko kontsonante belarraren erorketa dela medio, elkarren ondoan gelditutako bi bokalek bat egiten dutelako (*-aga* > **-aa* > *a*). Beraz, izen espezifiko eratorrien amaierako *-a* hori artikulua edo *-aga* atzizkiaren bilakaera izan liteke, eta dokumentaziorik ez dagoenean etorki zehatza zein den jakitea lan zaila bihurtzen da. Hori horrela delarik, atzizki toponimikoa agerian duten izenez gainera, *-aga* izan lezaketenez ere arduratuko gara azpiatal honetan, ahozko tradizioak edo dokumentazioak horretarako bide emanez gero behintzat.

Hori argiturik, has gaitezen AGINAGA (*[h]agin* + *-aga*; 'hagin lekua') oronimoarekin. Idatzizko aurreneko aipamena 1467. urtekoa da (*Aguinaga*, HUA5) eta 15.-18. mendeetako izkribuetan forma osoa kausitu dugu ia beti, atzizkia osorik duena, alegia. Ñabarduretan sartuz gero, *-i-* bokalaren ondoko sudurkaria 1773. urteko *Aguiñaga* (VEK1A eta VEK1B) aipamenean baizik ez da azaltzen sabaikariturik eta, bestalde, atzizkiaren tokian soilik *-a* duten hiru testigantzak 1944. urtekoak dira, iturri berekoak hirurak (*Aguiña*, 1944, GHO1, GHO2; *Altos de Aguiña*, 1944, GHO1). Informatzaileei jaso dizkiegun adibide guztietan *-aga* > *-a* itxuraldaketa garatu da eta, ondorioz, atzizkiak mugatu singularreko kasu markaren eite bera du (*Agiña* [ágíñà], K.; *Aiña* [aíñà], Id.). Alabaina, leku genitiboan deklinatzean ez dago loturazko *-e-* bokalaren zantzurik (*Agiñako tontorra* [ágiñakò tóntorrà], Txab. 1 / **Agiñeko tontorra*) eta *mendi* generikoa eranstean ere ez da azken bokalean inolako aldaketarik burutzen (*Agiñamendi* [ágiñamendì], Txab. 1 vs. **Agiñemendi*).

AKURRIKA saroi-izenaren kasua apartekoa da. 1628. urteko idazki baten kopian azaltzen da aurreneko aldiz, baina okerreko erreferentziak dira han irakur litezkeenak[1018] (*Acurriaza* / *Alurriaza*, DUA1). Idatzizko gainerako erreferentziak *Azurriaga* (1683, HUA28), *Acurriaga* (1773, VEK1A) eta *Acurrica* (1868, DJE) dira eta berriemaile guztiek bokal artean herskari ahoskabez ebakitzen dute[1019] (*Akurrika*).

[1018] Iturria ez da fidagarria eta litekeena da toponimoa berridatzi zuenak *-g-* hizkia *-z-* luze edo gotikoarekin nahasi izatea.

[1019] Deklinabide hondarkia hartu dutenetan ez dago aldaketarik (*Akurrikako murrua* [ákurrikakò múrruà], Mari. 2).

Hori dela eta, garbi dago AKURRIKA forma *-aga* > *-aka* aldaketaren adibidea dela[1020], Caro Barojak (1990 [1945]: 204) proposaturikoaren alderantzizko bilakabidearena alegia[1021]. Badira etsenplu gehiago gure eremutik kanpo, *Meaga* / *Meaka* edota *Lesaga* / *Lesaka* bikoak kasu, eta, hain zuzen, Irigoienek (1975: 104) horrelako pareen azterketari garrantzia handia ematen die. *Akurri-* oinarria ez da gardena eta Mitxelenak (*AV*, 27) aipatutako *Acuriola / Acurriola* toponimoekin izan lezake zerikusia, gurean aldi oro dardarkari anizkuna badu ere[1022].

ALLANGUAGA. Atzizkia osorik duen aipamen bakarra 1568. urtekoa da (*Allanguaga*, LMM, 151 or.), beste lekukotasunak *Allange* (1570, LMM, 151 or.) eta *Allangua* (18.-19., LMM, 151 or.) forma laburtuak direlako. Ildo beretik, *Allango erreka* (1988, OBIE) eta *Allango sarobia* (1988, OBIE) toponimoak daude bilduak gure esparruan, baina aurrenekoarekin zerikusia dutela ezin da ziurtatu. *Allangua-* oinarriak etorki iluna du[1023].

ALTZEGA oikonimoaren aipamenekin 15. mendean egin dugu topo aurrenekoz (haltz + -aga; '*Alnus glutinosa* motako zuhaitzak dauden tokia') eta azpimarratu beharra dago deitura moduan erabiltzen dela: *Martin Perez de Alzaga* (1461, LMD, 411 or.), *Martin Perez de Alçaga* (1467, HUA5) eta *Martin Perez de Alçaga* (1478, JGL, 159 or.). 15. mendean *Alçaga* forma nagusitzen da, baina 16. mendean *Alçega* (1546, HUA11, 25 au. eta 32 au.) / *Alzega* (1584, EHA1) aldaera baizik ez dugu aurkitu[1024] eta aurrerantzean ere, 20. mende arte, bokal erdikoa dute idatzizko aipamen guztiek (*Alcega*, 1928, HUA57, 180 or.; *Alcega-azpiya*, 1920, HUA57, 257 or.). Bokal arteko

---

[1020] Eleizaldek (1916: 25) *-aga* atzizkiaren *-aka* aldaera aipatzen du.

[1021] Iglesiasek (2000: 292) *Mendiacq* < *Mendiaga* etsenplua biltzen du. Bestalde, Mitxelenak (1964b: 86) oharrarazten du *-ika* (Bizkaian eta ugari dena) gutxi ageri dela Gipuzkoan zein Nafarroan.

[1022] Kerexetak (1992: 205) Muruetako *Acurío barrena, Acurío de medio* eta *Acurío goicoa* (1704) baserri-izenen berri ematen du. Cf. González de Durana (1981: 106).

[1023] Cf. Arabako lautadan dagoen *Alangua* herri-izena.

[1024] "Desde antiguo se documentan en Hernani las historias relacionadas con la casa solar de **ALCEGA**: Digamos de entrada que en la documentación de los siglos XV y XVI aparece normalmente escrito **Alçaga** (Alzaga) y posteriormente se entremezclan ambos apellidos **Alçaga** y **Alcega**, siendo este último el dominante en escrituras de siglos posteriores;". Migel Rezolak *El Diario Vasco* egunkarian 1980ko ekainaren 20an argitaratua. Cf. Aramaioko *Alzaga* baserria; Lopez de Gereñu (1989: 34).

kontsonante belarra gabe behin azaltzen da idatziz (*Alzea*, 1928, JMB3, 268 or.), baina ahoz *-ea* amaiera duen aldaera gailentzen da.

ARZABALAGA (*[h]arri* + *zabal* + *-aga*; 'harlauza tokia[1025]') izen espezifikoaren bi testigantzak 18. mendekoak dira (*Arzaualaga*, 1702, HUA29; 1708, HUA.31) eta, ildo horretan, argitu beharrean gara Urnietan badela aurreko horren oinordekoa izan daitekeen toponimo bat, ARRIZABAL hain zuzen, nahiz eta atzizkia osorik duen erakusgarririk ez aurkitu eta oraingo honetan lehen osagaiaren azken bokala ez erori. Azken hori 1868. urteko idazki batean ageri da aurrenekoz (*Arizabal* / *Arrizabal*, 1868, DJE) eta berriemaile batek ere ezagutzen du (*Arrizabal* [árrizabàl], Mari. 2). Errenterian (64-23-4, 64-40-5) badira beste bi ARRIZABAL, biak santsonarriak edo jentilarriak izendatzen dituztenak (ikus 2.12.§), baina, damurik, ARZABALAGAren oinordeak diren ez dakigu.

ASTIGARRAGA (*astigar* + *-aga*; '*Acer* motako zuhaitzen lekua') toponimo nagusia 1773ko mapa batean aurkitu dugu lehen aldiz (*Astigarraga*, VEK1A) eta, bestetik, informatzaileek *Astiarra* ([ástiarrà], K.; [ástiarrá], Larra., *adl. s.*) ebakitzen dute[1026], kontsonante belarraren erorketaren ondorioz. Deklinabideko hondarkiak erabiltzean ez da loturazko *-e-* bokala azaltzen (**Asti[g]arreko*).

ATTURRIAGA forma behin bakarrik agertzen da, 1773. urtean hain zuzen (*Legarralde o Atturriaga*, VEK1) eta, saroia izanik, ondoko AKURRIKArekin nahasketa gertatu dela uste dugu.

BELARZAGA ere ihartutako toponimoa da; lekukotasun bakarra Hernaniko 1928. urteko amilaramenduan azaldu zaigu (*Belarzaga*, HUA57, 813 or.). Oinarrian *belar* izena eta *-tza* atzizkia dituzkegu (*belar* + *-za* + *-aga*;'belardi tokia').

BESALAGA. Honen bi aipamenak 18. mendearen amaierakoak dira, bai *Besalaga* (1794-1831, UGR3, 17 au.) bai *-azpi* bereizgarria duen *Besalaga azpia* (1794-1831,

[1025] Cf. *DVEF*, 232 or.
[1026] Egon, idazten den bezala ahoskatzen dutenak badaude.

UGR3, 17 au.). *Besal-* oinarria *gesal* izenaren aldaera izan daiteke, disimilazioaren eraginez (*G —g > B —g*).

BIDABERRIAGA ere (*bide* + *berri* + *-aga*; 'bide berria dagoen tokia') idatzizko toponimoa da. Bi mostrak 1427. urteko idazki batean eta 16. mendean egindako kopian kausitu ditugu (*Bidaberriaga*, 1427, HUA1; *Bidaberriaga*, 16., HUA2). Ohar bedi irakurlea bietan *-a-* dugula lehen osagaiaren amaieran eta bistakoa da, bestetik, *-aga* atzizkiak ez duela ugaritasuna adierazten (cf. OLABERRIAGA); aitzitik, toki adiera du.

ETXERREAGAKO SAROIA. ETXERREAGAKO LOTEA (*etxe* + *erre*[1027] + *-aga*; 'etxe errearen aurkintza'). Gure esparruko bi izenburuon iturburua *Etxerreaga* oikonimoa da eta, ildo horretan, haren aurreneko aipamena itxuraldaturik dagoela azpimarratu nahi dugu (*Iñigo de Cherreaga*, 1467, HUA5), *De Echerreaga > decherreaga > de Cherreaga* aldaketa grafikoa gertatu baita. Lau gizaldi geroago txistukariaren ondoan *-ee-* digramarekin azaltzen da (*Echeerreaga*, 1857, HUA48, 45 or.), baina salbuespena da hori. Berriemaileek, bestetik, hitz amaieran bokal irekiarekin ahoskatzen dute, deklinatutako formak barne (*Etxerreako sarobia* [etxérreakò sárobià], Txab. 1). Toponimoaren osagaiak *etxe* izena eta *erre* izenondoa dira eta ez dirudi, hortaz, hemen *-aga* atzizkiak plural zentzua duenik.

FAGOLLAGA (*pago* + *bil* 'biribil' + *-aga*; 'pago biribilen tokia') idatzizko tradizio naroa duen toponimoa da. Lehen aipamena 1573. urtekoa da eta hitz hasieran igurzkari ezpain-horzkaria du (*Fagollaga*, HUA19, 29 au.) eta, ildo beretik, 16., 17., 18., 19. zein 20. mendeetako idatzizko erakusgarri gehienak ere igurzkariaz hasten dira, FAGOAGA toponimoaren kasuan ez bezala. Herskari ezpainbikoa dutenak sei dira guztira; aurreneko biak 18. mendekoak dira (*Pagollaga*, 1773, VEK1A; 1797-1833, HGR2, 43 au.) eta beste laurak 20. mendekoak; *B*-rekin hasten den adibiderik ez dugu aurkitu. Ahozko tradizioan hitz hasieran herskari ezpainbikoa duten testigantzak nagusitzen dira eta xehetasunei erreparatuz gero, informatzaileek (*Paolla* ([páóllà], K.) ahoskatzen dute maizenik, bokal arteko igurzkari belarraren erorketaren ondorioz; salbuespenak badira, horratik, *Paollaa* ([paóllaatìk], Ak., *abl.*; *Paollaga* [paóllagà], Txil.) konparaziora. Bide

[1027] Cf. Arabako 1025. urteko *Olhaerrea* edo Belateko *Benterrea* (Nafarroan).

batez, diogun leku genitiboaren hondarkia hartu duten forma guztietan ez dagoela loturazko *-e-* bokalaren zantzurik (*Paollako eskola* [paóllakò éskolà], Txil.). Mitxelenak (*AV*, 483) eta Irigoienen (1986: 220-221) irudiko *-olla-* formak *-ola* atzizkiarekin du zerikusia (*Fago-* + *-ol(l)a-* + *-aga*), baina Gipuzkoan etorkia hori izatea neke da, Euskal Herriko alderdi erromantzatuan ez bezala. Egiantz handiagokoa iruditzen zaigu oinarrian *pago* + *bil* dagoela pentsatzea (**Pagobillaga*), Iñigok (1996: 309) Iturengo *Pagobilla*-ren kasuan eginten duen bezala[1028] (Cf. Goizuetako *Pagobilleta*[1029]), besteak beste, *bil* forma (*biribil*) gehiagotan ageri delako gure eremuan[1030]. Agerikoa da **Fago-* osagaia *pago* zuhaitz izenarekin dagoela lotua[1031], baita, etsenplu honetan, *F- > P-* aldaketa nahiko berria dela, hots, bigarrenkaria dela, eta ez datorrela zuzenean *B*-tik[1032] (**Bagobillaga*), berriago litzatekeen **Fagobillaga*-tik baizik. Zentzu horretan, gure esparruko FAGOLLAGA zein PAGOAGA herskariaz ahoskatzen dira arrunki egun, baina, itxura denez, *F- > P-* aldaketa ez da bi kasuetan batera garatu eta, adibidez, gaur egun, bata igurzkariaz eta bestea herskariaz idazten dira oraindik kartografian eta abarretan[1033]; gainera, *Fagollaga* bizirik dago ahozko tradizioan.

FRANTZESILLAGA (*Frantzesillo* + *-aga*; '*Frantzesillo*-ren [bizi]lekua) oikonimoaren lekukotasun zaharrena 1569. urtekoa da (*Franzesillaga*, LMM, 167 or.) eta badira erakuskari gehiago, 1857. urteko baserri-izendegian dauden *Francesillaga-berri* (HUA 54, 61 or.) eta *Francesillaga-zar* (HUA 54, 61 or.) adibidez. Informatzaileek txistukari afrikariarekin ebakitzen dute eta, bestalde, erreferentzia guztiak *-a(g)a > -a* bilakaeraren lekuko dira (*Frantzilla berri* [frántzillà bérrì], K.; *Frantzilla zar* [frántzillà zár], K.). Mitxelenaren (*AV*, 10) aburuz erroak *Francesillo* pertsona-izenarekin duke zerikusia eta, horrenbestez, zaila da kasu honetan *-aga* multzokaria izatea.

[1028] *Pagobilla* toponimoa *pagolla* formarekin ageri da 1617., 1672., 1810. eta 1882. urteetan. Ahozko tradizioan ere *Pagolla* biltzen du Iñigok.

[1029] "*... , y que el dicho mojon puestto en medio del sel de Pagobilletta es el centtro y esttendiendose desde el dicho centtro en ttoda su circunferencia en ciento y sesenta y ocho brazadas como se esttienden ttodos los seles de Anizlarrea, Eliberria, y Leiza,* [...] ; 1780, NAO, 845 bin.; "Traslado del amojonamiento de los seles sitos en el término general de Anizlarrea [...]".

[1030] Ikus MIKELABIL.

[1031] Cf. Arantzadi (1905: 18) eta *AV*, 515.

[1032] Cf. *FHV*, 263-264.

[1033] Satrustegin (Arakilen), adibidez, *Fagadiaundi* aurkintza dago (*NTEM-XIII*, 109) eta Dorraon (Ergoienan) *Fagaditxiki* zein *Fagomotxeta* ditugu (*Fagamocheta*, 1898; *NTEM-VIII*, 35).

LIZARRAGA (*lizar* + *-aga*; ‘lizar eremua’) izenburu nagusiak toki eta izaki geografiko ezberdinak izendatzen ditu gure esparruan. Bakoitza bere aldetik aztertuko ditugu, baina jatorri bakarrekoak izatearen aukera kontuan hartu beharra dago, bizilekua eta saroia direnez, daitekeena delako batak besteari izena eman izatea. Lehenbiziko aipamena 1569. urtekoa da eta baserriari dagokio (*Lizarraga*, HUA18, 30 au.). Era berean, aurrerantzean idatzizko erakuskari guztietan forma hori errepikatzen da eta generikoak edota bereizgarriak eranstean ere *-aga* atzizkiak bere horretan dirau (*Lizarraga-malda o Errollaburu*, 1935, HUA57, 838 or.; *Lizarraga aldea*, 1920, HUA57, 38 or.); alabaina ahoz *Lizarra* ([lízarrà], Altz.), *Lizarramalda* ([lízarramaldà], Añu., Atx.) eta *Lizarrako erribera* ([lízarrakò érriberà], Atx.) jaso ditugu eta kontuan hartu behar da oinarriaren amaierako bokala *-a-* dela azkeneko lekukotasunean, eta ez *-e-*. Saroiaren idatzizko hiru aipamenak 19. mendekoak dira[1034] (*Lizarraga*, 1855-1857, HTR8, 21 au.; 1855-1857, HTR8, 22 au.; 1860, HINGR2, 6147 zenb.) eta badago harekin lotura duen 20. mendeko beste aipamen bat (*Lizarraga*, 1932, *cuarto de lote nº 176*, HUA57, 894 or.). Ahozko tradiziotik *Lizarrako paraa* ([lízarrakò páraà], Amu.) forma bildu dugu eta, beste behin, *-a(g)a* > *-a* burutu dela ikusten da.

OLABERRIAGA (*ola* + *berri* + *-aga*; ‘ola berrriaren tokia’) izenburu nagusiak ere elementu ezberdinak izendatzen ditu inguru berean, baina, izaki geografiko nagusien (saroiaren eta olaren) arteko loturak ezagunak direnez gero, batera aztertuko ditugu. Aurreneko aipamena (saroiarena) 1516. urteko idazki batean dago (*Olaberriaga*, HUA7) eta, bestalde, *-aga*-ren ordez, *-a* soilik duen lehen testigantza ere larretokiarena da (*Olaverria*, 1632, HUA26, 153 au.). Hitz amaieran atzizkirik edo morfemarik ez duen lehenbizikoa, berriz, 1868koa da eta erreka izendatzen du[1035] (*rio Olaverri*, 1868, DJE). Ildo horretan, hitz amaieran bokal irekia duen aipamena dago urte batzuk geroago eta hura ere ur-ibilguari dagokio (*regata Olaberria-erreca*, 1899, HUA52). Badaude *-aga* atzizkiaren ordez *-eta* duten adibideak. Aurreneko biak 19.-20. mendeetakoak dira (*Olaberrieta*, 1899, UUA2; *Olaberrieta*, 1920, HUA57, 520 or.) eta aldaera hori gaurko kartografian ere azaltzen den bera da (erreka beti). Berriemaileek atzizkirik gabe

[1034] Badago *Lizarraga* (1740, HUA30, 541 bin.) aipamena, baina bizilekuari edo saroiari dagokion jakitea zaila da, idazkian izaki geografikoa ez delako zehazten.

[1035] Gure esparruan badago beste OLABERRI bat, bizilekua hura. Lehen aldiz, 1833.-1835. urtean dokumentatzen da (*Olaverria*, 1833-1835, *casa de*, DUA3) eta tradizio idatzian ez dugu inoiz *-aga*-rekin aurkitu.

ahoskatzen dute (*Olaberri* [oláberrí] / [ólaberrì], Ai., Amu.; *Olaberriko erreka* [ólaberrikò érrekà], Amu.; *Olaerri* [ólaerrì], Amu.; *Olaerrierreka* [ólaerrierrekà], Amu.). *Ola* izena eta *berri* izenondoa daude mintzagai dugun toponimoaren oinarrian eta garbi dago *-aga* atzizkiak ez duela ugaritasuna adierazten[1036].

OREERRIAGA (*orei[n]* + *erri* + *aga*) espezifikoaren idatzizko bi erreferentziak 1583. urteko agiri batetik hartuak dira (*Oreerriaga*, HUA21, 2 bin.; *Horeherriaga*, HUA21, 20 au.) eta, agerikoa den bezala, bigarrenak bi *h* ditu, hori gurean ohikoa ez den arren. Bigarren zatiak *herri* izenarekin zein *berri* eta *erre*[1037] izenondoekin duke zerikusia, baina lehen zatiaren (**[H]ore-*) nondik norakoari antzematea nekezagoa da oraindik. Aukera bat *orein* zoonimoa egotea da (cf. *Ororbia*). Guztiaz ere, nabarmendu nahi dugu gure esparruko OREERRIAGAk *Orreaga* toponimo nafarraren antzinako *Orierriaga* aldaeraren eitea duela[1038].

Hurrengo bi formek aurreko toponimoarekin zerikusia izatea ez litzateke harritzeko; OREITURRIAGA eta OREITURRIETA bikoaz ari gara. Lehen aipamena 1561. urtekoa da (*Oreiturrieta*, HUA17, 11 au.); beste hiru aldiz kausitu dugu aldaki hori (*Oreiturrieta*, 1573 , HUA19, 7 bin.; *Oreayturrieta*, 1576, HUA20, 8 au.; *Oriturrieta*, 1708, *paraje*, HUA31). *-Aga* berrekailua duen aldaera, ordea, behin azaltzen da, Isastiren liburuan hain zuzen (*Oreiturriaga*, 1625, LMI, 229 or.). Etorkiari doakionez, bigarren osagaia *iturri* da, baina hasierako *Or(e)(a)i*-ren sorburua, goiko etsenpluan bezala, ez dago garbi. Hipotesi bat *Ororbia*-rekin zerikusia izatea da, gauza jakina baita Nafarroako herria 11.-13. gizaldian *Oreriuia*, *Ororiuia* formarekin dokumentatzen dela (< *orein* + *ibi* 'oreinen ibia') eta, berebat, Mitxelena (*FHV*, 486) **o/rer/i-*. **oreir-* > *orer-* murriztapenaz mintzo dela.

[1036] Inguru horretan saroi eta burdinola bana egon dira.

[1037] Cf. Imotzen (Basaburuan) dagoen *Erretako zuloa* (*NTEM-XLIV*, 147). Hitzak hizpidea ekarrita, gogora dezagun larreak eta soroak lortzeko basoa erretzea ez dela gaur goizeko ihintza. Ikus, esaterako, Concepción Suárez (1992: 325-330).

[1038] Vinsonek (1912: 405-411) *Orerriaga* idazten du, baina Mitxelenak (1964: 38, 125-126) eta gainerakoek *Orierriaga*.

ORKOLAGAri doakionez (*urka-* + *-ola* + *-aga*?), lehen agerraldian deituratzat erabiltzen da (1584ko *Martin de Orcolaga*, EHA1) eta tradizio idatzian forma osoa azaltzen da beti. Hain zuzen, salbuespen bakarra 1920. urteko *Orcola gañe* (HUA57, 7 or.) da eta berriemaileek ere hitz amaieran *-a* duela ahoskatzen dute[1039] (*Orkola* [órkolà], Altz.). *-(E)nea*-rekin ere baliatu da (*Orkolagania* / *Orkolania*, 1989, HUTB)[1040] eta *Orkolako gaña* (1989, HUTB) testigantzan ere, leku genitiboaren hondarkia erabiltzean alegia, ez dago loturazko *-e-* bokalaren zantzurik. Toponimoaren jatorria ezkutukoa da, baina Mitxelenak (*AV*, 588) iradokitakoaren bidetik, baliteke *Urka-* + *-ola* + *-aga* izatea[1041]. Horrela balitz, hitz hasierako bokalaren atzerako asimilazioa genuke.

OSIÑAGA (*osin* + *-aga*; 'putzu tokia'). 1556. urtean egin dugu topo aurrenekoz oikonimo honekin (*Osinaga*, *molino*, AA1, 561 or.) eta hortik aurrera, 20. mende arte, atzizkia osorik duela aurkitu dugu. Berriemaileek, ordea, hitz amaieran bokal irekiarekin ebakitzen dute (*Osiña* [ósinà], K.) eta leku genitiboan deklinatzean ez da loturazko *-e-* bokala garatzen (*Osiñako* zentrala [ósiñakò zéntralà], K.); hala berean, generikoa hartzean ez du amaierako bokala galtzen (*Osiña erreka*, 1989, HUTB).

PAGOAGA (*pago* + *-aga*; 'pago lekua') ere baserri-izena da. 1550. urteko agiri batean azaltzen da aurreneko aldiz (*Fagoaga*, HUA14) eta, kontuan har hasieran igurzkari ezpain-horzkariaz dagoela idatzia. Herskari ezpainbikoarekin izkiriaturiko lehen mostra ere 16. mendekoa da, 1595. urtekoa hain zuzen (*Pagoaga*, 1595, HUA10) eta 18. mendetik aurrera *P*-z hasten direnak gailentzen dira (*Pagoaga*, 1773, VEK1), 17. gizaldiko agirietan, artean, *f* hizkiz adieraziagatik (ikus FAGOLLAGA). Bada gizaldi horretan ezpainbiko ahostunaz idatzitako lekukotza bat, 1773. urteko mapa batean dagoena[1042] (*Casa de Bagoaga*, VEK1B). Berriemaileek hitz hasieran herskari ahoskabea eta amaieran *-a* duela (*-aga* > *-a*) ahoskatzen dute (*Pagua* [páguà], K.) eta

[1039] *Orkolaga* (1989, HUTB) ere zerrendatuta dago.

[1040] ORKOLAGA auzotik gertu dago.

[1041] Ikus 8.1.1.§, s. v. *Urkamendi*.

[1042] *Bago* / *pago* banaketa, Mitxelenak adierazi bezala (FHV, 51, 241), dialekto-irizpideei ez dagoela lotua egiaztatzen da. Cf. González de Viñaspre & Uribarrena (2005b: 406).

deklinabide hondarkiak eranstean oinarriaren amaierako bokala ez da aldatzen (*Paguako itturriya* [páguakò ítturriyà], K.).

PIKOAGA (*piku* + *-aga*; 'piku lekua') etxe-izenak aurreko toponimoaren eitea du. Idatzizko aurreneko erakuskaria 16. gizaldikoa da oraingo honetan ere, 1585. urteko bataio-liburu batean *Maria de Picoaga* (EHA1) izena irakur baitaiteke[1043]. Orduz geroztik *Picoaga* forma azaltzen da usaian idatzizko tradizioan, berriak diren *Pikoetxe Berri* (1983, IGN2) eta *Caserío Pikoetxe Berri* (1983, IGN2) salbuespenak topatu baditugu ere. Informatzaileek *Pikua* ([píkuà], K.) baliatzen dute[1044]. Aintzat har bedi frikari ezpain horzkariaz hasten den aipamenik ez dagoela, PAGOAGA eta FAGOLLAGA oikonimoen kasuan ez bezala. Bidenabar, deigarria da azken hiru toponimoak haranaren azpiko aldean egotea, errekaren ondo-ondoan.

SAGARMINAGA (*sagarmin* + *-aga*?; 'sagarmin lekua'?) saroi-izenaren lehenbiziko lekukotasuna 1516. urtean aurkitu dugu (*Sagarminaga*, HUA7) eta 20. mende arte forma hori nagusitzen da idatziz. Badaude, halere, esanguratsuak diren salbuespenak, *Sagarmunoaga* (1769, HUA37) eta *Sagarmuñaga* (1773, VEK1B; 1797, HUA41) kasu, *sagar* eta *muino* izenak daudela iradokitzen dutenak, nahiz eta ziurrenik erroa *Sagarmin-* izan[1045]. Informatzaileek erabilitako *Sagarmiyo* ([ságarmiyò], Bezk., Pag., Telleri) formaren ildokoak diren *Sagarmiyo* (1920, HUA57, 633 or.) eta *Sagarmio* (1932, HUA57, 391 or.) ere aurkitu ditugu 20. mendeko dokumentazioan. Laburbilduz, bilakabidea honakoa izan liteke: *Sagarminaga* > *Sagarmi(n)a(g)a* > *Sagarmiya; Sagarmiya* + ko > *Sagarmiyako* > *Sagarmiyoko* > *Sagarmiyo*.

SAGARRAKO PARADA[1046]. Honen idatzizko aipamenik ez dugu kausitu, baina ahozko tradizioan *Saarrako para* (1989, HUTB), *Sagarrako parada* (1989, HUTB) eta *Saarrako paraa* ([saárrakò páraà], Amu.) formak daude bilduak. Loturazko *-e-* bokala

---

[1043] Cf. Tolosako *Pikoaga* oikonimoa; Elosegi & Goikoetxea (2006: 275).

[1044] Cf. Mutrikuko *Pikua* (< *Pikoaga*) (1999, MUM).

[1045] *Malus sylvestris* izeneko zuhaixkaren euskal izena. Cf. Lapuentek (1975: 406) Ameskoan aipatzen duen *Sagarmina* toponimoa (1801).

[1046] *Sagarraga* izeneko tokia dago Goñerrin, Munarritz-Urdotz mugan (*NTEM-XVIII*, 90, 100) eta *Sagarraga* (1854) izeneko jabetzaren berri ematen du, halaber, Legardak (1976: 435) Utergan (Itzarbeibarren).

ez garatu izana da *-aga* atzizkiarekin lotua dagoela uste izateko arrazoi nagusia, alegia, etimoa **Sagarragako parada* dela pentsarazten diguna. Nolanahi ere den, garbi dagoena da erroa *sagar* zuhaitz-izena dela (cf. PAGOAGA).

Bi dira gure esparruan URRITZAGA izena duten tokiak (*hurritz* + *-aga*; 'hurritz lekua'); bata Astigarraga-Errenteria mugan dago eta bestea Elduain-Hernanin. Errenteria aldekoaren lehenbiziko erreferentziak 1409. urteko idazki batean daude (*Hurriçaga* / *Urriçaga*, EUA1, 143 or.) eta idatzizko hirugarren aipamena 1544. urtekoa da (*Urrizaga*, LMM, 190 or.). Bestalde, egun erabilitako forma *Urritza* ([úrritzà], K.) da (*-aga* > *-a*). Hernani aldeko URRITZAGAren aurreneko aipamenak, berriz, 1889. urteko mugarriztatze batean kausitu ditugu (*Urritzaga*, HUA50) eta bada 20. mendeko testigantza bat ere (*Urritzako Lepoa*, 1983, GFA2). Ahozko tradizioan *Urritzako lepua* ([úrritzakò lépuá] Amu. / [úrritzakò lépuà], Txim. eta Ek.), *Urritzako lepo* ([úrritzakò lépò], Ek.), *Urritzeko lepua* ([úrritzekò lépuà], En. eta Ezk. b.), *Urritzelepo* ([úrritzelépò], Amu.) eta *Urritzelepua* ([úrrítzelépuá], Amu.) bildu ditugu eta bi gertaera dira azpimarratzekoak, *-aga* > *-a* bilakaeraz gainera: informatzaile nafarren lekukotasunetan lotunean bokal erdikoa azaltzea lehena eta informatzaile batek *Ø* eta *-ola* aldizkatzea (*Urritzeko lepua* [úrritzekò lépuà], En. / *Urritzola* [urrítzolà], En.) bigarrena.

URTEAGA[1047] (*ur* + *-te* + *-aga*; 'toki urtsua'). Oronimo honen idatzizko ibilbidea 16. mendean hasten da (*Urteaga*, 1561, HUA17, 11 au. / *Hurteaga*, 1569, HUA18, 30 au.) eta, harrezkero, 18. mendearen amaierako bi aipamenetan izan ezik, *Urteaga* azaltzen da beti, generikoa hartu dutenak barru (*Urteagagaña*, 1730, HUA35); zehazkiro esanda, aipatu bi salbuespenetan *-aga* atzizkiaren zantzurik ez dago (*Urtechabal*, 1797-1833, HGR2, 47 au.; 64 au.). Ahozko tradizioan lau aldaera bildu ditugu: *Urtokitxabal* ([úrtokitxábàl], Aran.), *Urteko txabale* ([úrtekò txábalè], Ek.), *Urtiako txabala* ([úrtiakò txábalà], Txab. 2) eta *Kurtikotxabal* ([kúrtikotxábàl], Pard. g. 2). Lehenbizikoan, bigarrenean eta laugarrenean *-aga* atzizkiaren aztarnarik ez dago eta amaierako bokal irekia hirugarrenean baizik ez da gordetzen. Ildo horretan,

[1047] Franko errepikatzen da han-hemen. Uxuen, adibidez, bada *Urteaga* izeneko aurkintza bat (Salaberri, 1994: 905).

gogoan har aurrenekoa herri-etimologiaren ondorioa dela eta laugarrenak kontsonante protetikoa duela, leku genitiboaren markaren eraginez segur aski. Mitxelenaren (*AV*, 582 eta 553) irudiko, oinarriak *ur* izenarekin eta *-te* atzizkiarekin du zerikusia eta, alde horretatik URTEAGAn ez da urik falta, errekastoa jaiotzen delako han.

ZIKUÑAGA hagionimo eta oikonimo moduan erabili da aldi berean eta, aurreko toponimoak bezala, idatzizko ibilbide luze samarra du, lehenbiziko lekukoak 16. gizaldikoak baitira, 1529. urtekoak hain justu (*Çicuñaga*, AA2, 14 or.). Mende bat geroago Isastik *-i-* bokalaren tokian *-u-* duela idatzi zuen (*Nuestra Señora de Zucuñaga*, 1625, LMI, 216 or.), baina aldaera hori testu horretan baizik ez da erabiltzen, gainerakoan beti *Cicuñaga* irakurtzen delako. Ahozko tradizioan *Zikuña* ([zíkuñà], Ai., Altz., Po.) eta *Zukiña* ([zúkiñà] (Ai., Alkatx., Altz., Larreg.) aldakiak bildu ditugu eta leku genitiboa hartu dutenetan ez da aldaketarik antzematen lotunean (*Zikuñako seroretxia*, 1989, HUTB). Agerikoa denez, azken etsenplu horretan, *-aga* > *-a* bilakaeraz gainera, *-i-* — *-u-* > *-u-* — *-i-* metatesia burutu da. Litekeena da erroak Azkuek bildutako *zikin* hitzarekin zerikusia izatea ("*Zikin*, *maleza de un campo*, *broussailles d'un champ*", *DVEF*, 1171.), baina badago beste hipotesi bat, sorburua Lazkoizketak hiztegian (1994 [1888]: 87) aipatzen duen ZIGIÑA landarea izatea hain zuzen. Ñabarduretan sartuz gero, forma hori Larramendiren hiztegi hirukoitzetik hartu duela aitortzen du Narbarteko apaizak[1048].

ZUMARRIAGA (*zumar* + *-di* + *-aga*?; 'zumardiaren eremua'?) espezifiko eratorriaren estreinako idatzizko lekukoak joan den mendearen erdi aldeko dokumentazioan aurkitu ditugu (*Zumariaga* (1831-1845, UGR4, 23 au. / *Zumarriaga* (1831-1845, UGR4, 26 au.) eta, orduko, *-aga*-ren ordez, soilik *-a* duen aldaera ageri da (*Zumarria*, 1846-1847, UTR2, 36 au.). Nolanahi ere, ez du indar handirik, gainerakoan idatziz *Zumarriaga* forma erabiltzen delako ia beti[1049]. Toponimoa ezagutzen zuen informatzaile bakarrak *-a* bokalarekin eman zigun (*Zumarria* [zúmarrià], Benta.).

[1048] "La I segunda no es fija en esta palabra, así es que nosotros decimos ZIGUÑA, por lo que es de suponer que en ámbas dicciones es cambio de A, con la que sonaría ZIGAÑA."; (75. Malva syvestris, L. […]: vas. ZIGIÑA)

[1049] *Zumarria* (1956, UUA10G) beste behin bakarrik azaltzen da.

Zumardi multzokaria dateke iturburua oraingo honetan; dardarkariaren eraginez, horzkariaren asimilazioa garatu dela irudi du. Cf. ZUMARDI.

-*Aga* ez da gure esparruko toponimian gehien erabiltzen diren atzizkietako bat. Zernahi gisaz, idatzizko aurreneko aipamenak 15. mendekoak dira (1409., 1427. eta 1467.) eta berrekailua duten gainerako toponimoen adibide zahar gehienak 16. mendekoak dira, egon, lehenbizikoz hurrengo mendeetan azaltzen diren toponimoak badauden arren (1628, 1683, 1702, 1889, 1928).

Berrekailua hartu duten oinarriei erreparatuz gero, *izena* + -*aga* eta *izena* + *izena / izenondoa* +-*aga* osaketa dutenen artean ez dago alderik kopuruari dagokionean, -*eta* berrekailuaren kasuan ez bezala. Bi sailetako toponimo guztiek, batek izan ezik, idatzizko lekukotasunak dituzte; esan beharra dago aurreneko agerraldi gehienak 16. gizaldikoak direla; badaude, gainera, 15. gizaldiko batzuk, asko ez izan arren. Horretan ere alde nabarmena dago honen eta -*eta*-ren artean, ikusi bezala, -*aga*-ren kasuan toponimo gehienen idatzizko erreferentziarik ez dagoelako.

-*Aga* atzizkiaren ordez -*a* bokala soilik duen estreinako lekukotasuna 1632. urtekoa da (-*aga* > -*a*) eta aurrerago ere badira horrelako gehiago dokumentazioan (1846-1847, 1920, 1944). -*Aga* > -*ega* disimilazioaren aurreneko testigantza, berriz, 1546. urtekoa da eta -*ega* > -*ea* bilakaerarena 1928koa. Halaber, -*aga* > -*aka* aldaketaren estreinako erreferentzia 1868. urteko dokumentu batean dago eta, espero izatekoa zenez, ez dugu -*aka* > -*ak* urratsaren zantzurik aurkitu[1050]. -*Aga* > -∅ gertatu delako lehen erreferentzia[1051] 1868. urtekoa da eta badirudi generikoa eransteak zerikusia izan duela horretan. -*Aga* / -*eta* txandaketaren aurreneko testigutza, azkenik, 1899koa da[1052]. Ahozko tradizioari erreparatzen badiogu, informatzaile gehienek bukaeran -*a* duten formak darabiltzate (-*aga* > -*a*), berrekailua osorik ebakitzen duenik baden arren. Badira -*aga* atzizkiaren tokian -*eta* duten adibideak, baita ezer ez dutenak ere. Bide batez, oroit

[1050] "No creo que (-aga) tenga nada que ver con el artículo singular ni plural vasco, según la conocida hipótesis todavía no superada de H. Gavel, que formula fonéticamente la identidad supuesta por A. León, así como por Campión". Aurrerago, "Está claro que -*aga* entre los vascos da -*a*, no -*ak*, cuya afirmación carece de base que pueda ser documentada", Irigoien (1975: 103, 105).

[1051] Ikus Caro Baroja (1980: 158) eta Salaberri (1994: 32).

[1052] Ikus Mitxelena (1971: 241-267).

dezagun idazkietako *-aka* aldaera bere horretan eman digutela informatzaileek (AKURRIKA). Deklinabide-hondarkia edota zuzenean generikoa hartu dutenen artean ez da loturazko *-e-* bokala garatzen arrunki, egon, salbuespenak badaude ere.

-Aga berrekailuaz jardukitzean Mitxelenak (*FHV*, 238, 529, 481) adierazten du pluraleko balioa oso ilunduta ageri dela zenbait toki-zenetan (cf. *Çulloaga*; Iratxe, 1099) eta, hortaz, zaila dela bilakaera *-ak* < *-a-ga* izatea, nahiz eta toponimian erabiliriko atzizki hau izan lexiko arruntean parekorik ez duen bakarretakoa[1053]. Gainera, *-aga* aurrean oinarria ez da aldatzen, eratorpen atzizkien aitzinean bezala, eta ez dago azken bokalaren galerarik edota tinbrearen aldaketarik (*Harriaga* / **Harraga*).

Erroen sailean landareak nagusitzen dira argi eta garbi (*astigar*, *hagin*, *haltz*, *lizar*, *pago*, *piku*, *hurritz*) eta oinarri elkartuen osagaien artean ere badira fitonimoak[1054] (*belartza*, *pago*, *sagarmin*, *zumardi*). Badaude ur-ibilgu eta ur-tokiak adierazten dituzten etsenpluak, *ur* eta *osin* kasu eta, ildo beretik, badago *iturri* osagaia duen oinarri bat (*oreiturri-*). Iturburua geologian duen bakarra *harzabal* da, eta, agian, *Besal-* ere bai (< *gesal*?). Giza ekimenekin lotutakoak *bide* + *berri*, *etxe* + *erre* eta *ola* + *berri* dira, eta bada, berebat, pertsona izen bat, *Frantzesillo*. Ohar bedi lehen hiru adibideek bigarren osagaitako izenondoak dituztela. *Orein* zoonimoa dukeen estenplu bat ere azaldu zaigu (*Orei[n]* + *herri* + *aga*; *Orei[n]* + *iturri* + *aga*). *Aga*-ren aurretik dauden oinarrietan, azkenik, *-di* (*zumar* + *-di* + -aga), *-(t)za* (*belar* + *-[t]za* + *-aga*) eta *-te* (*ur* + *-te* + *-aga*) atzizkiak azaltzen dira eta ondoren baliatutako bakarra *-(e)nea* da (ORKOLAGANEA).

Espero izatekoa zenez, gure esparruko toponimian *-aga* atzizkiak duen zentzua ez da beti batekoa, ugaritasuna[1055] edo lekua[1056] adieraz baititzake. Batzuetan multzo adiera agerikoa da, erroan dauden zuhaitzak taldean hazten direnean adibidez[1057] (ALTZEGA,

[1053] Gorrotxategi Txurrukak (1995b: 754) uste du *-eta*-k zein *-aga*-k toponimian dutela jatorria.

[1054] Cf. Uhlenbeck (1909: 4)

[1055] Ideia horri eusten diote, esate baterako, Agud eta Tovarrek (1989-I: 303).

[1056] Azkue (1984[1905]: 165), De Rijk (1981: 83-101) eta Salaberri (1994: 32) bat datoz horretan.

[1057] "Un toponyme botanique est évidemment le signe de l'existence présente ou passée, à un endroit donné, d'un certain végétal (et encore n'est-ce pas toujours absolutement sûr, comme on le verra plus bas). Mais la plante peut se trouver tout à fait isolée, et a servi à désigner un endroit justement à cause de son caractère insolite", Séguy (1950: 18).

URRITZAGA), baina beste batzuetan plural zentzua izatea zaila da[1058], giza-jarduerarekin lotura duten toponimoak direnean esate baterako (BIDABERRIAGA, OLABERRIAGA).

Aldaketa eta aldizkapenen diagrama

21.			
	-aga > *-aka*		*-aga* / *-ola*
	-aga > *-a*		*-aga* / *-eta*
1950	*-aga*	*-ega* > *-ea*	
	-aga > *-a*		
1900	*-aga*	*-ega* > *-ea*	
	-aga > *-aka*		*-aga* / *-eta*
	-aga > *-a*		*-aga* > *-∅*
1850	*-aga*	*-ega*	
18.-19.	*-aga*	*-ega*	
1700	*-aga*	*-ega*	
	-aga > *-a*		
1600	*-aga*	*-ega*	
16.	*-aga*	*-aga* > *-ega*	
1400	*-aga*		

[1058] Cf. *AV*, 10.

8.3.3.3. *-Egi* atzizkia

AIZEARREI (*haitz* + *agerri*?; *haitz* + *harri* + *-egi*?) oronimoarekin hasiko dugu *-egi*-ri eskainitako azpiatala eta oharra ipini nahi genuke hainbat lasterren: lekukotasun bakarra ahozkoa da (*Aizearrei* [ái̯zearréi̯], Amu.) eta, hori horrela delarik, *-egi* atzizkia ote dagoen ez da gauza ziurra, hots, **Aizearregi* ez ezen, sorburua **Aizeagerri* izan daiteke[1059] (> **Aizeaerri* > *Aizearrei*). Zernahi gisaz, aurreratu moduan, *-ei* bukaera ikusirik, eta aurkako idatzizko frogarik ez dagoenez gero, *-egi* egotea ez da ezinezkoa; horrexegatik sartu dugu, hain zuzen, azpiatal honetan.

AKERREGI (*aker* + *-egi;* 'akerra dagoen lekua'; '*akerra* esaten dioten gizasemea bizi den etxea'). *Aker* abere-izena errotako duen toponimo honen idatzizko erreferentzia zaharrena 19. gizaldiaren erdialdeko idazki batean dago (*Aquerregui*, 1848-1850, HTR4, 9 au.). Hurrengoa 20. mendearen hasierakoa da (*Acarregui*, 1920, HUA57, 52 or.) eta aldaketa dago, dardarkari aurreko bokala, erdikoa izan beharrean, irekia delako (*-e-* + *-R-* > *-a-* + *-R-*). Berriemaileek, ildo beretik, *Akarregi* ([akárregì], K.) eta *Akarrei* ([ákarrèi̯], K.) darabiltzate (*-egi* > *-ei*). Amaitzeko, agerian ipini nahi dugu jatorriz oikonimoa zena auzo-izen bihurtu dela denboraren buruan.

ALKEI (*elke* + *-egi*?) leku-izenari dagokionez, lehenik eta behin, aitor dezagun ez dakigula idatzizko formak eta ahozkoak toki berari dagozkion, aurreneko iturria (kartografia) oraingo honetan fidagarria ez delako (*Alcai*, 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1962, UTC; 1981, SGE2) eta berriemaileek, bestalde, *Alkei* ([álkèi̯], Lor. b.) ebakitzen dutelako. Etimoa *elke* + *-egi* dateke ('alorra dagoen aurkintza'), baina *alka*, *alke* landare izena ere egon liteke[1060] ('*alka* ateratzen den aurkintza'; cf. ALKATXURIAIN). Halaber, daitekeena da bigarren osagaia *-egi* izan beharrean *-di* izatea[1061].

[1059] Cordovillan (Galar zendean) *Aizagerria* izeneko bizkarra dago. Honako aipamenak daude argitaratuak: *Aycauerre* (1364), *Aycarregui* (1364), *Aizaguerria* (1574), *Ayçaguirre* (1598), *Aice aguirre* (1600); Jimeno Jurio & Salaberri (1992: 128-129).

[1060] Salaberrik (1997b: 36) Ultzamako *Alkotz* izenaren lehen osagaia *alka*, *alke* dela iradokitzen du, Azkuek (1984 [1905]: 32) bere hiztegian biltzen duen landare-izena, alegia (esp. *avena silvestre*).

[1061] *Alkadi* izeneko tokia dago Zubietan (Malerrekan); Iñigo (1996: 343). *Alkai* (1871) errekatxoa zegoen, era berean, Pasai Donibanen; Elortegi (1992: 63).

ALLEGIri[1062] lotuko gatzaizkio orain. Bi dira gurean izen hori duten tokiak, bata Hernani-Donostietako mugan eta bestea Urnietan. Lehenbiziko kasuan bokal arteko kontsonante belarra galdu duen *Allei* (1989, HUTB) forma bildu dugu; Urnietakoari dagokionez, aurreneko erakuskaria 1894. urtekoa da, *-g-* duena (*Allegui azpia*, 1894, UUA6), gainerako lekukotasun guztietan bezala (*Allegui*, 1951, *robledal*, UUA18; *Allegui*, 1951, *helechal*, UUA18; *Allegui-malda*, 1964, *monte bajo*, UUA10J, 8). *All-* oinarriaren nondik norakoa iluna da (cf. *Allotz* herri-izena Nafarroan), berriemaile batek (Aparr.) balizko iturburutzat 'txara' adiera lukeen *allaa* hitza aipatuagatik.

ALLIRI. Astiroago aztertzen hasi baino lehen, bihoa aurretik azalpen bat: ez da segurua oronimo honek jatorriz *-egi* berrekailua duela. Izan ere, 19. mendeko zenbait idazkitan, *-egi*-ren ordez, *-eri* / *-iri* amaierarekin idatzirik agertzen da (*Alleri*, 1848, *peñas altas*, AT, 235 or.; *Alliri Aspia*, 1848, AT, 236 or.; *Alliri*, 1897, AT, 235 or.), aldi hartan bertan *-eg(i)*-rekin ere aurkitu arren (*Allegazpi*; 1848, AT, 236 or.). 20. gizaldiari doakionez, alderantzizkoa gertatzen da tradizio idatzian, *-egi* bukaera dutenak nagusitu arren (*Allegui*, 1905, AT, 235 or.; *Allegui*, 1916, AT, 236 or.; *Allegui o Allirigaña*, 1945, *bajo y matorral*, AT, 236 or.; *Allegui Azpia*, 1945, AT, 236 or.), iturri batzuetan *Alliri* (1916, AT, 236 or.) azaltzen delako. Gure aldetik *Allei* ([álleị] / [álléị], Amu.; [állèị], An. 1) nahiz *Aiei* ([áị̯éị], Ollok.) jaso dugu belarriz eta *Allegi* (1989, AT, 235 or.) zein *Allegiazpi* (1989, AT, 236 or.) formak ere bildurik daude. Cf. ALLEGI.

AÑARREGI (*ainar* + *-egi*; 'ainarra ateratzen den eremua'). Gure esparruan izen hori duten bi leku daude, bata Hernanin eta bestea Astigarragan. Hernaniko baserriaren aurreneko lekukoak 19. mendekoak dira eta, nolabait esan, gordetzaileagoa den *Añarregui* aldakiarekin batera, egungo ahozko formaren eitea duen *Añarrai* ere irakurtzen da, segur aski bokal arteko kontsonante belarraren erorketaren ondorio den *-ei*-ren irekitzea (> *-ai*) erakusten duena (*Añarregui*, 1843, HUA43; *Añarrai*, 1855-1857, HTR8, 21 au.; *Añarregui*, 1864, HUA47; *Añárregui*, 1857, HUA48, 45 or.). 20. mendean *Añarregui* (1911, IM; 1944, GHO1; 1944, GHO2) / *Añarregi* (1983, GFA2) erabiltzen da idazkietan eta kartografian aldi oro. Belarriz bokal arteko belarraren

[1062] Ataunen *Aralegi* (1404) toponimoa dugu (baserria, saroia) eta, hain justu, *Alei* da Arin Dorronsorok (1928: 59) biltzen duen ahozko aldaera.

erortzea (*-egi* > *-ei*) adierazten duten *Añarrei* ([áñarrèi̯], K.) eta *Añarreiko itturriya* ([áñarrei̯kò ítturriyà], Elor.) bildu ditugu. Hitzak hizpidea ekarrita, zehaztu nahi dugu Astigarragako oronimoaren ahozko erreferentziak ere aldaketa bera erakusten duela (*Añarrei* [áñarrèi̯], Goi.). Azkenik, derragun errotako baliatu elementua *ainar* (lat. *Erica*) landare-izena dela.

Uki dezagun orain ARANBEGI toponimoa[1063]. Idatzizko testigantza gehienak 1951. urteko agiri batean daude (UUA18) eta *Aramberri* zein *Aramberri-goicua* aldakiak baliatzen dira iturri horretan. Haatik, urte bereko beste idazki batean, *Arambegui-azpicoa* (1951, UU5) kausitu dugu eta 1983. urteko mapa batean *Arambei* (IGN2). Ahozko tradizioan ere bukaeran *-ei* duen forma erabiltzen da, hala guk zuzenean jaso ditugun testigantzetan (*Aranbei* [áranbei̯], Amu. / [áranbèi̯], Mari. 2; *Aranbeiko borda* [áranbei̯kò bórdà], Mari. 2) nola beste ikertzaile batzuek bildutakoetan (*Anbei*, 1989, UUTB; *Aanbeiko erreka*, 1989, UUTB). Tradizio idatziak ez du argitzen jatorrizko toponimoa *Aranberri* ala *Aranbegi* den, baina ahozko tradizioari eta, oro har, euskaraz gertatzen denari kasu eginez gero, hau da, dardarkari azkarra, eskuarki, bokal artean erorkaitza dela aintzat hartuz gero, *-egi* (edota *-hegi*) dagoela pentsa liteke. Edonola ere, *begi* izena ezaguna da toponimian eta, hori horrela delarik, ez da ezinezkoa sorburua *Aranbegi* izatea. Guztiarekin, *Aranberri* herri-etimologiaren emaitza delakoan gaude. Erroak *haran*-ekin duke zerikusia (ikus 8.3.§) eta alde horretatik esan beharra dago ARANBEGI, UBARAN ERREKAren goialdean dagoen bizkarra dela (*haran* + *hegi*?).

ARGINDEGI (*hargin* + *-egi*; ‘harginaren etxea’). 16. mendetik 20.era *Arguindegui* dokumentatu dugu (1585, EHA2; 1740, HUA30, 541 r.; 1843, HUA43; 1864, HUA47; 1857, HUA48, 45 or.; 1889, HUA56; 1927, HUA57, 2 or.; 1937, AB) eta berriemaile guztiek igurzkari belarra gabe (*-egi* > *-ei*) ahoskatzen dute (*Argindei* [árgindèi̯], K.; *Argindeiko erreka* [árgindei̯kò érrekà] (Bent.). Honenbestez, bistan da oikonimo honen oinarrian *hargin* ogibidea dagoela eta, hala berean, atzizkiak, sudurkari ondoren, horzkari ahostuna duela (*-degi*).

[1063] *Aranbegia* izeneko lekua dago Erronkarin, 1892an (*Arambeguia*); *NTEM*-XIV, 140 eta Lopez-Mugartza (2008: 372). Cf. *It(h)urbegi* ‘manantial’ (*FHV*, 127).

ARLOTEGI (*arlote* + *-egi*?; ‘arloteak ibiltzen diren lekua’?). Idatzizko iturrietan *Arlotegui* forma erabiltzen da beti saroi hau izendatzeko (1683, HUA28; 1736, HUA30, 496 bin.; 1769, HUA39; 1773, VEK1A; 1780, HUA27; 1920, HUA57, 694 or.) eta ahozko tradizioan, espero izatekoa zenez, belarra gabeko *Arlotei* ([árlotèi̯], K.) baliatzen da, horrela egiten baita bertako euskaran. Oinarrian zer dagoen ezin da ziur jakin, besteak beste, *arlo* (‘soroa’; *-o* + *-tegi*) nahiz *arlote*[1064] (esp. ‘vagabundo’; *-ote* + *-egi* > *-otegi*) izenak egon litezkeelako. Cf. LANDERBASO.

ARPIZTEGI oronimoaren erreferentzia bakarra ahoz bildua da; bokal arteko igurzkari belarraren erorketa adierazten du (*Arpiztei* [árpiztèi̯], Larr.). Idatzizko erreferentziarik gabe zaila da toponimoaren etimoari antzematea, baina hipotesi bat *har(ri)* + *biz(i)* + *-egi* ikustea izan liteke eta, horrela dela egiaztatuko balitz, litekeen bezala, dardarkari ondoko ezpainbikoaren ahoskabetzeaz mintzatu beharko genuke[1065] (*-r-* + *-b-* > *-rp-*).

ARIZTEGI (*haritz* + *-egi*; ‘haritzak dauden tokia’). Lehenbiziko aipamena 18. mendearen amaierakoa da (*Ariztegui*, 1797-1833, HGR2, 56 au.) eta badaude 19. (*Aristegui*, 1850-1852, HTR5, 13 au.; *Arístegui*, 1857, HUA48, 45 or.) zein 20. gizaldietako testiguzak ere (*Ariztegui*, 1920, HUA57, 732 or.; *Aristegui*, 1920, HUA57, 689 or.). Bestetik, berriemaileei *Aistei* ([ái̯stèi̯], K.) jaso diegu guk, eta *Aixtei* (1989, HUTB) aldaera sabaikaritua ere zerrendatua dago. Oikonimo honen erroa *haritz* landare-izena da, aztergai dugun atzizkiarekin zehazkiro nola lotu den argi ez dagoen arren. Egon ere bi aukera baitaude; lehena, LASTAOLA toponimoaren bide beretik, *(h)aritz-* + *-egi* (**Aritzegi* > *Ariztegi*) elkarketa burutu dela pentsatzea da eta bigarrena osaketa *(h)aritz-* + *-tegi* (*Ariztegi*) izan dela.

ARTZEALEI oronimoa aztertuko dugu jarraian. Dauden erreferentziak berriemaile berak emandakoak dira eta aintzat har bedi txistukariaren artikulazio modua aldatu egiten duela (*Artzealei* [ártzealéi̯] / *Arzealei* [árzealèi̯], Amu.). Bada, halere, beste arazo bat, aurrekoa baino axolazkoagoa: *-egi* atzizkia ote dagoen ez da segurua. Zentzu

[1064] *Arlote muño* (1837) toponimoa biltzen du Asterainen (Zizur zendean) Jimeno Juriok (1986b: 58).

[1065] Cf. Mitxelena (1957: 130).

horretan hipotesia da *har(ri)* + *zelai* + *-egi* batura dagoela, metatesia dela medio (‘harri asko dituen zelaia dagoen lekua’).

BARKAIZTEGI[1066]. Lehenbiziko aipamenak 16. mendekoak dira eta garbiro azaltzen digute baserri-izen honen soburutako erabili oinarria *Barkardaz* dela (*Barcardaztegui de yuso*, 1548, *casa*, HUA12; *Barcardaztegui*, 1555, *Juango de*, HUA16 / 1556, LMZ, 162 or.). Orduz geroztik lehenbiziko zatian *Barcaiz-* /*Barcais-* irakurtzen da usaian idatzizko iturrietan; alde horretatik, Isastik erabiltzen dituen *Barcazte azpicoa* (1625, LMI, 162 or.) eta *Barcaztegoia* (1625, LMI, 102 or.) salbuespenak dira. Laburbilduz, *Barkardaz-* zaharra *Barkaiz-* bilakatu da (*Barkardaz-* > **Barkadaz* > **Barka(a)z* > *Barkaiz-*), haren jatorria eta esanahia ezezagunak badira ere (*Bark-* + *ardatz* + *-tegi?*). Hain zuzen, *Barkaiz-* aldakiaren *-i-* azaltzeko, adibidez, *-tegi-*rekin jokatu beharra dago, gure esparruan horrelako kasu gehiago ezagutu ez arren. Lekukoei datxekienez, guztiek *Barkixtei* ([bárkixtèi̯], K.) ebakitzen dute, eta biri *Barkaztei* ([bárkaztèi̯], Ai., Po.) aldaera ere jaso diegu. Zentzu horretan, igurzkariaren erortzea azpimarratu nahi dugu (*- [t]egi* > *-[t]ei*), baita *-ai-* diptongoaren bat-egitea ere (*-ai̯-* > *-i-*).

BASOATEGI. Oikonimo honen aurreneko erreferentziak 18. mendearen amaierakoak dira eta *Basoategui* forma irakur daiteke bietan (1794-1831, UGR3, 7 au., 8 au.). 19. gizaldian, *-oa-* hiatoaren ordez, txistukariaren ondoan *-i-* bokal itxia duen *Basítegui* / *Basitegui* (1857, HUA48, 71 or.;, 1855, UEA1) aldaera[1067] agertzen da (*-oa-* > **-a-* > *-i-* / *-oa* > **-wa-* > **-ia-* > *-i-*) eta 20. mendean ere bokal itxia duen aldakia erabiltzen da idazkietan (*Basitegui*, 1979, UUA20). Guk elkarrizketaturiko berriemaileek *Baxitei* ([báxitèi̯], K.) sabaikarituta ahoskatzen dute, eta *Basitei* (1989, HUTB) ere zerrendatua dago. Lehen zatia ez da gardena, baina pentsa daiteke *Basa*-rekin (*baso*-rekin) duela zerikusia.

BASOLANTEGI (*baso* + *lantegi*; ‘ikaztegi lekua’, ‘mintegia). Idatzizko erakusgarri bakarra 1951. urteko idazki batean kausitu dugu (*Basolantegui*, UUA18) eta ahozko tradizioan ere lekuko bakarra dago, igurzkariaren erorketaren berri ematen duena hura

[1066] Oiartzunen *Bakardaztegi* oikonimoa dago, *Makarraztegi* eman duena; Goikoetxea & Lekuona (2007: 99)

[1067] Forma asimilatua da, azken batean.

(*Basolantei* [basólantèi̯], Ai.). *Baso* eta *lantegi* (*lan* + *-egi*) izenez osatutako toponimo honek espezifiko bihurturiko generiko itxura du[1068].

BELASTEGIz[1069] kestione (*belatz* + *-egi*?), 1983. urteko idatzizko aipamena baino ez dago (*Belategi*, GFA2); gainera, erratua dirudi, berriemaile bati horzkariaren aurretik *-s-* duen *Belastegi* ([belastégi], Arta.) jaso baitiogu. Jatorrizkoa ahozkoa balitz, erroa *belatz* hegazti-izena litzateke, apika.

BERASTEGI. Begiratutako iturrietan aurkitu dugun aipamen zaharrena 14. mendekoa da (*Blastegui*, 1313, CDSB, 30 or.), baina ez dakigu salbuespena (erratua) ala jatorrizko forma den; izan ere, ordutik, hainbat aldiz topatu dugu idazkietan eta beti forma bera erabiltzen da (*Berastegui*, 1467, HUA5; *Verastegui*, 1538, HUA9). Informatzaileek, itxarotekoa zenez, igurzkari belarra gabe ebakitzen dute (*Beastei* [béastèi̯], K.). Ikus BEZKITA.

BERKOIZTEGIren lekukotza bakarra ahozkoa da (*Berkoiztegi*, 1989, OM) eta, zoritxarrez, hain informazio gutxirekin *Berkoiz-* oinarriaren jatorria zein den ezin idoro. Kokapenaren aldetik ez du zerikusirik BARKAIZTEGIrekin.

BESADEGI[1070] toponimo ezaguna da gure esparruan, jatetxea egoteaz gainera, ADARRAMENDIra doan bide nagusia handik irtetzen delako. Erreferentzia zaharrena 18. mendearen amaierakoa da (*Besadegui*, 1794-1831, UGR3, 15 au.) eta 19. gizaldikoak diren hurrengo hiru etsenpluetan ere forma bera irakurtzen da (1855, UEA1; 1857, HUA48, 71 or.; 1864, DJE). Nolanahi ere, 19. mendearen amaieran bada toponimoaren bilakaera ezagutze aldera esanguratsua den aipamena[1071], *Besabe* (1898, EGZ) hain zuzen. 20. gizaldiko idazkietan, azkenik, hiru aldaera erabiltzen dira: *Besadegui* jatorrizkoa (1951, UUA18; 1976, TA, 14 or.; 1979, UUA20; 1983, IGN2), *Besabe* laburtua (*Besabe-burua*, 1951, *helechal*, UUA18) eta egun erabiltzen den *Besabi* (1942, IGC1; 1945, UUA15; 1953, IGC2; 1962, UTC; 1981, SGE2; 1982, CAG, 180 or.; 1983,

[1068] González Salazarrek (1972: 12) dioenez, *lantegi*-ik Araban duen adiera ‘el lugar donde se hacían las carboneras’ da.

[1069] *Belastegui* (1826) izeneko aurkintza biltzen du Gasteizen Lopez de Gereñuk (1989: 111).

[1070] Zubietan (Malerrekan) *Basabi* toponimoa dago; Iñigo (1996: 360).

[1071] Iturri berean *Besetari* (1898, EGZ) forma ere erabiltzen da, baina, bistan denez, erratua da.

GFA2). Berriemaileek ere *Besabi* ([bésabì], K.) ebakitzen dute arrunki. Honenbestez, toponimoaren bilakabidea *Besadegui* > **Besadei* > **Besadi* > *Besabi* nahiz *Besadegui* > **Besadei* > **Besabei* > *Besabe* > *Besabi* izan daiteke. Lehen zatiaren nondik norakoa ez da gardena, baina argi dago *-degi* aldaera erantsi zaiola.

BORRONDEGI[1072]. Informatzaile batek oronimo honen bi forma darabiltza, bata gordetzailea dena eta bestea, berriz, hizkera arruntean ohikoa den kontsonante-galera izan duena (*Borrondegi* [borrondégi], *Borrondei* [bórrondèi̯], Txab. 1). *Morroi* hitzaren *morron-* aldaeran izan lezake jatorria (cf. *morrontza*).

BORTXOLONDEGI forma ihartua da, 19. mendearen erdialdeko idazki batean baizik ez baitugu aurkitu (*Borcholondegui*, 1854-1855, HTR7, 19 au.). Itxura batean, lehen zatia BORTTOLUANEA oikonimoarekin dago lotua (*Borttoluan[ea])* + *-egi*).

BUZTINDEGI[1073] (*buztin* + *-egi*; 'buztina dagoen aurkintza', 'buztina atertazen den gunea'). Bi dira gure esparruan izen hori duten tokiak, bata Hernanin eta Urnietan bestea. Hernanikoaren lehen agerraldia 16. mendekoa da eta mugatzailea du (*Buztindeguia*, 1569, HUA18, 27 au.). Berebat, badaude 18. mendeko erakusgarriak; hona bi: *Bustindegui* (1739, HUA36), *Buztindeguizabala* (1797-1833, HGR2, 48 au.). Ahoz *Bustindei* (1989, HUTB) dago bildua. Urnietakoa ez dugu idatzizko iturrietan topatu, baina informatzaile batek *Buztindei* ([búztindèi̯], Bezk.) aipatzen du, ikusten den moduan, bizkar-hobietako txistukaria duena, Hernanikoak ez bezala. Cf. BUZTIÑETAKO LEPOA.

DIUSTEGI oikonimoari buruz, hasteko, diogun testigantza zaharrena 1606. urteko idazki batean kausitu dugula (*Diustegui*, 1606, EHA1) eta gainerako idatzizko iturrietan forma bera baliatzen dela (1740, HUA30, 541 au.; 1843, HUA43; 1864, HUA47; 1889, HUA56). Ahozko tradizioari datxekionez, maizenik erabiltzen den *Diustei* ([díustèi̯], K.) zein *Diustegi* ([diustégi], Txab. 2) gordetzailea jaso ditugu guk, baina *Diostegi*

[1072] Oiartzunen *Borrondegi* oikonimoa 15. gizaldirako dokumentatzen da. Goikoetxea & Lekuona (2007: 113).

[1073] Cf. Aizkorbeko *Buztiñegi*; *NTEM-XIII*, 34.

(1989, HUTB) eta *Diostei* (1989, HUTB) formak ere transkribatuak daude. *Dius*-en jatorria zein den ezezaguna da.

FANATXEGIren bi lekukotasunak 20. mendeko kartografian daude (*Fanachegui*, 1953, IGC2; 1980, IGN1), baina iturriak ez dira fidagarriak, eta mapetan kokatzen den tokian izen hori edo antzekoren bat duen ezer ez dago.

GARALORREGI[1074] (*garo* [*gara*-] + *alor* + *-egi*?; *galar* + *ola* + *-egi*?). *Garalorregui* eta *Galarrolegui* dira (1739, VEK2) saroi-izen honen idatzizko lekuko bakarrak, gainerako erreferentziak ahozko tradiziotik hartuak direlako. Azken horretan bokal arteko igurzkari belarraren erori dela dakusagu (*Galolei* [gálolèi̯], Amu., Bordatx., Mari. 2) eta berriemaile batek albokariaren ordez dardarkaria duen aldaera (*-l-* > *-r-*) ebakitzen duela (*Garolei* [gárolèi̯] / [gároléi̯], Amu.). *Garalorr-* / *Galarrol*-en osaketa ez da gardena, besteak beste, batura *garo* [*gara*-]+ *alor* nahiz *galar* + *ola* izan daitekeelako.

GOROLDEGI[1075] (*goroldi[o]* + *-egi*; 'goroldioa dagoen lekua'). Honen lehenbiziko aipamena 19. mendekoa da, 1863. urtekoa, (*Goroldegui*, 1863, URU, 149 bin.) eta hurrengoa 1951koa (*Goroldegui*, 1951, UUA18). Idatzizko azken agerraldia 1966 urtekoa da eta bokal arteko dardarkariaren erortzea ikusten da (*Gooldegui*, 1966, UUA10L). Ahozko tradizioari dagokionez, *Gooldei* ([góoldèi̯], K.) jaso dugu berriemaileengandik[1076].

Mintza gaitezen orain GOROSTEGIz. Erreferentzia zaharrenak 12. mendekoak dirateke; hain justu, 1101. urtean, hitz hasierako *G-* gabe eta, horzkari ahoskabearen aurrean, *-z-* grafema duela azaltzen dela ematen du (*Oroztegi* / *Oroztegui*, NAO1), baina egiazki GOROSTEGI ote den ezin jakin, iturrian ez baita kokapena zehazten. Izan ere, bestelakoan *G-* eta *-s-* dituela aurkitu dugu usuenik, hots, *Gorostegui* forma gailentzen da hustu dugun dokumentazioan (1683, HUA28; 1773, VEK1A; 1847, JII, 35 or.; 1942,

[1074] Cf. Oiartzungo *Karalorregi* bizkarra; Goikoetxea & Lekuona (2007: 173).
[1075] Cf. Tolosako *Goroldiazpi* eta *Goroldioko gaina*, biak Irurako mugan daudenak (1999, IRUM).
[1076] *Goldeiko erreka* (1989, UUTB) forma ere bildua dago.

IGC1; 1944, GHO1; 1953, IGC2; 1962, UTC; 1980, IGN1; 1981, SGE2); salbuespen bakarra aipa genezake: *Goroztegui* (1833-1835, DUA3). Informatzaileek *Goostei* ([góostèi̯], K.) / [góostéi̯], Arg.) darabilte arrunki, baina *Gorostegi* (1995, DTE) ere zerrendatua dago. Lehen zatiaren esanahia eta etorkia zehaztea ez da erraz, besteak beste, *gorotz* zein *goros(ti)* hitzekin izan lezakeelako zerikusia. Ez hori baharrik: hitz hasierako kontsonante belarra protesia izan liteke[1077] (< **Oro[t]z*?), *Gipuzkoa* koronimoaren kasuan gertatu gisa (< *Ipuzkoa*).

ITURREGI. Izen geografiko batean jatorri duen forma ihartu honen aurreneko testigutza 1863. urtekoa da (*Iturregui*, HRU, 48 bin.) eta ordutik aldaera bera baliatzen da beti idazkietan (1847-1848, HTR3, 7 au.; 1855-1857, HTR8, 22 au.; 1920, HUA57, 257 or.). Toponimo gardena da (*iturri* + *-egi*).

IXURTEGIren idatzizko lekuko guztiak 20. mendeko kartografian topatu ditugu (*Izurtegui*, 1944, GHO1; GHO2; *Izurtegi*, 1983, GFA2) eta belarriz *Ixurtei* (1989, HUTB) zein *Ixurtegi* ([ixúrtegì], Txab. 1) daude jasoak. Hain informazio urriarekin erroa *isur(i)* dela ezin da ziurtatu, *izur* ('kizkurra') ere egon litekeelako, adibidez.

KUKUTEGI[1078] (*kuku* + *-egi*; 'kuku lekua'?; '*kukuak* bizi diren baserria). Etsenplu zaharrenak 19. mendekoak dira (*Cucutegui*, 1855, UEA1; 1863, URU, 145 au.; 1857, HUA48, 71 or.) eta 20. gizaldian aldaera bera baliatzen da begiratu dugun dokumentazioan (1900, UEA2; 1944, UUA44; 1945, UUA15; 1951, UUA18; 1962, UTC; 1981, SGE2). Bestetik, bokal arteko belarra gabeko *Kukutei* ([kúkutèi̯], K. / [kukutéi̯kua], Amu., *l. g.*) jaso dugu ahoz. Bistan da oinarria *kuku* hegazti-izena dela, kasu honetan ezizena izan daitekeena, oikonimo baten aurrean baikaude.

LARREGI (*larre* + *-egi*; 'larre-tokia'). Aurreneko lekukoa 17. gizaldikoa da (*Larregui*, 1683, HUA28) eta beste idatzizko iturrietan ere *Larregui* ageri da (1833-1835, DUA3; 1855-1857, HTR8, 22 au.; 1911, IM; 1920, HUA57, 887 or.; 1944, GHO1; 1944, GHO2). Informatzaileek, bestalde, bokal arteko belarra gabe ahoskatzen

[1077] Hor ditugu, esate baterako, *Orotz* zein *Orozko* herri-izenak. Ikus *AV*, 500.
[1078] Abaigarren (Egaibarren) *Kukugaña* toponimoa dago; *NTEM-XXIV*, 33.

dute (*Larrei* [lárrèi̯], K.), bertako euskaran egin ohi den legez. Uste izatekoa da erroa *larre* dela eta, ondorioz, *-e* + *-egi* > *-egi* bat-egitea izan dela.

LISTORREGI (*liztor* + *-egi*; 'liztor asko dagoen aurkintza'). Oronimo honen bi testigantzak belarriz bilduak dira eta bokal arteko belarrarren zantzurik ez dago; batak bokal irekia du dardarkariaren ondoren (*-rr-* + *-ei* > *-rrai*) eta besteak, berriz, bokal erdikoa (*Liztorrei* ([líztorrèi̯], Lor. b.; *Listorrai*, [lístorrài̯], Ezk. b.). Txistukariari dagokionean, *Liztorrei* forma salbuespena da[1079], besteak beste gure esparruan bertan LISTORRETA dugulako. Bistakoa da erroa *liztor* entomonimoa dela.

LIZARREGIren karietara (*lizar* + *-egi*; '*fraxinus* motako zuhaitzak dauden tokia'), derragun erreferentzia zaharrena, saroiari datxekiona, 12. mendekoa dela (*Izarrlegui*, 1178, IKA3). Xehetasunetan sartuz gero, ematen du, hitz hasieran egon ordez, dardarkariaren ondoren dagoen albokaria erratua dela, haren aztarnarik ez dugulako topatu baliatu ditugun gainerako iturrietan, hots, 12. gizalditik aurrera, txistukariaren grafia aldaketak alde batera utziz gero, aldaera bera aurkitu dugulako aldi oro idatzizko iturrietan (*Liçarregui*, 1516, HUA7; *Lizarregui*, 1607, HUA23). Salbuespenen alorrean, *Lezarregui* (1773, VEK1B) forma azpimarratu nahi dugu, erratua izateko arriskua egon arren, ahozko tradizioan oinordea duela dirudielako (*Lezarriko lepua*). Orobat *Lizarrei basua*-ri doakionez (1920, HUA57, 531 or. eta 532 or.), bokal arteko kontsonante belarra falta duelako (*-egi* > *-ei*); izan ere, gutxi dira oso aldaketa horren idatzizko adibideak. Ahoz *Lizarrei* ([lízarrèi̯], K.), *Lizarreierreka* ([lízarrei̯érrekà], Txab. 1), *Lizarreiko txabala* ([lízarrei̯kò txábalà], Aparr.), *Lizarregiko lepua* ([lízarregikò lépuà], Aparr.) zein *Lezarriko lepua* ([lézarrikò lépuà], Aparr.) jaso ditugu guk eta *Lezarrei* zein *Lizarri* (1989, HUTB) formak ere transkribatuak daude. Ikusten den bezala, bokal arteko kontsonante belarraren erorketa joera indartsua da (*-egi* > *-ei*). Lehen aipatu *Lezarriko lepua* forma ere nabarmendu nahi dugu 1773. urteko *Lezarregui* aldaeraren eite bera duelako, baina kontuan eduki behar da darabilen berriemaileak beste aldaera batzuk ere ahoskatzen dituela.

[1079] Bi informatzaileak aranoarrak dira.

MANDATEGI (*manda-* [*mando*] + *-egi*). Bi aipamen daude, *-g-* gabe bata (*-egi* > *-ei*) eta *-g-*rekin bestea (*Mandategi* ([mandatégi], Bentatx.; *Mandatei* ([mándatèi̯], Larra.). Nolanahi ere den, aski dira beren laburrean lehen osagaia *mando* izenaren elkarketarako *manda-* aldaera dela ikusteko.

MARIMIKELOSTEGI. Forma ihartu honen bi erreferentziak 1928. urtekoak dira (*Marimiquelostegui*, 1928, *sembradío*, *ribera*, HUA57, 783 or.). Irudi du oinarria *Marimikel-* pertsona-izena dela (*Mari[a] + Mikel*), baina kontuan har, kasu honetan, ez dela baserri-izena, oronimoa baizik.

MORGINDEGIren lekukotasun bakarra ahozko tradiziotik bildua da; igurzkari belarra falta du hitz amaieran (*Morgindei* [mórgindèi̯], Altz.). Zoritxarrez, *Morgin-* erroaren esanahi eta jatorria ilunak dira, are gehiago idatzizko erakuskaririk ez dagoenean.

MOZOTEGI oikonimoaren aurreneko aipamena 18. mendearen amaierakoa da (*Mozotegui azpia*, 1794-1831, UGR3, 12 au.) eta harrezkero aldaki bera erabiltzen da sarrienik idazkietan Urnietako eraikina izendatzeko (1855, UEA1; 1863, URU, 149 bin.; 1857, HUA48, 71 or.; 1951, UUA18; 1979, UUA20; 1983, GFA2); salbuespen bakarra *-s-* duen *Mosotegui* (1900, UEA3) da. Berriemaileengandik, espero izatekoa zenez, hitz amaierako kontsonante belarra galdu duen *Mozotei* ([mózotèi̯], K.) jaso dugu. Gaztelaniazko *mozo* izena dateke oinarria, agian, ezizen adiera izan dezakeena[1080]. Beste aukera *mozolo* ornitonimoa egotea da[1081] (**Mozolotegi*; cf. KUKUTEGI).

OLAZIREGIren harira, diogun idatzizko erakusgarri bakarra 1936. urteko dokumentu batean aurkitu dugula (*Olaciregui o Putronea*, 1936, HUA57, 131 or.) eta, hala berean, ahoz, txistukari ondoren erdiko bokala duen *Olazeregi* ([ólazeregì] (Txab. 2) bildu dugula. *Olazi(r)*-ek *ola* terminoarekin duke zerikusia; hain zuzen, etimoa *Olatz(a*, *e)* (< *ola* + *tz[a*, *e])* + *iregi* (<*ira* + *-egi*) izan liteke, behar bada.

[1080] *Mozo* / *Moso* / *Moxo* antroponimo ezaguna da; cf. Salaberri (2009: 85).
[1081] Aezkoako mendietan bada *Mozoloandi* izeneko tokia; *NTEM-XXXIV*, 85.

OLLAKINDEGI[1082]. Honen lehenbiziko agerraldia 19. gizaldiaren erdialdekoa da (*Ollaquindegui*, 847-1848, HTR3, 8 au.) eta badaude 20. mendeko adibideak ere; *Ollaquindegui* (1922, HUA57, 106 or.) da bata, eta albokariaren ondoren bokal erdikoa duten *Olloquindegui* (1926, HUA57,107 or.) zein *Ollokindegi* (1932, HUA57, 454 or.) beste biak. *-Kin-* (< *-gin*) bukaeraren argitan, *Ollakin-* ogibidea izan daiteke[1083], baina, dakigula, ez da baserri-izena.

Goazen orain OLLOKI[1084] aztertzera. Burdinolaren lehen erreferentzia 17. mendekoa da eta ez dago *-egi*-ren zantzurik (*Olloqui*, 1625, LMI, 234 or.), baina 18. eta 19. mendeetan *-egi* duela kausitu dugu (*Olloquiegui*, *epaipides*[1085] *de*, 1739, VEK2; *Olloquiegui*, 1847, *ola*, JII, 67 or.). Berriemaileek, berriz, *-egi* gabe ebakitzen dute (*Olloki* [óllokiá], Amu., *adl.*; [óllokì], En.). Dagoen informazioaren arabera, jatorriz berrekailua baduen, ∅ / *-egi* txandaketaren kasu baten aurrean gauden edota, bokal arteko kontsonante belarraren erorketa dela medio, bilakaera *Ollokiegi* > **Ollokiei* > *Olloki* izan den ezin da jakin; *Olloki*-ren sorburu zehatza ezezaguna da, beraz. Hain zuzen, Mitxelenaren (*AV*, 478) aburuz, *Olloqui* nahiz *Olloquiegui* toponimoek *oillo* / *ollo* hegazti-izenean dute sorburua, baina Irigoienek (1984-36), adibidez, *Oillo* pertsona-izenetik datozela uste du. Besterik da pertsona-izena hegaztiarekin lotua dagoen; ildo horretan, *Olloqui*, iraskale bizkaitarraren ustez, *-ki* atzizkia duen eratorria litzateke, eta *Olloquiegui* formak *Olloqui*-ren jabetza adieraziko luke.

PAGALEGIri[1086] doakionez (‘pagoak dauden tokia’), aurreneko testigantza 18. mendekoa da (*Pagalegui*, 1797, HUA41) eta orduz geroztik ez dago aldaketa aipagarririk idatzizko iturrietan (1944, GHO1; 1944, GHO2; 1962, UTC; 1980, IGN1;

[1082] Jaitzen *Ollakarizketa* izeneko aurkintza dago; *NTEM-XXVII*, 149. Berebat, hor dugu *Ollakarizketa* herri-izena ere (Txulapainen).

[1083] Zaldibian *Goroskindegi* baserria dago, ‘gorostiarekin [makilak edo/eta hesiak] egiten zituenaren etxea’, alegia.

[1084] Zozaian (Baztanen) *Olloki* (*Olloqui*, 1703) lekua dago (*NTEM-LII2*, 86, 212) eta Erronkarin *Ollokia* mendia; azken hau, 1704. urtean azaltzen da aurreneko aldiz (*Olloquia*; *NTEM-XIV*, 155). Iratin ere *Ollokia* etxola dago eta Sartzen (Zaraitzun), berriz, izen bereko parajea dugu (1916, *Olloquia*; *NTEM-XXX*, 207, 280). Berebat, Esteribarren *Olloki* herria dago (cf. *Ollo*, *Ollobarren*, *Ollogoien*). Bizkaian, azkenik, *Ocolloqui* izeneko eraikina azaltzen da Etxebarrin, 1704. urtean azaldu ere (Kerexeta, 1992: 113).

[1085] ‘Epai-bide’?

[1086] *Pagaegi*, *Pagaegi-abeletxe*, *Pagaegi-korta* eta *Pagaegi-etxebarri* baserriak daude Eibarren. Tradizio idatzian hiatoa bere horretan dutela ageri dira beti, 15. gizalditik (San Martin, 2000: 66-67).

1981, SGE2). Salbuespenen sailean, *Pagaleikogaña* (1944, GHO1) forma azpimarratu nahi dugu, bokal arteko igurzkariaren erortzea adierazten duela ematen baitu. Izan ere, *Paalei* ([páalèi̯], Txim.) jaso dugu guk eta *Pagalei* (1989, HUTB) forma ere gorderik dago. Kasu honetan ere bokal arteko belarraren erorketak egun duen indarra agerian gelditzen da, beraz. Erroa *pago* fitonimoa da (elkarketan *paga-*) eta, etimoaz ari garelarik, esan beharra dago, bokal irekiaren ondoko albokaria ikusirik (*-l-egi*), etorkia *Paga-* + *-egi* edo *Pagol(a)-* + *-egi* izan daitekeela[1087].

PATXIKULEGIren mostra guztiak ahozko tradiziotik hartuak dira (*Patxikulai*, 1989, HUTB; *Patxikuleiko itturriya*, 1989, HUTB; *Patxikuleiko urbitartia*, 1989, HUTB) eta ohar bedi irakurlea, aurreko toponimoan bezala, *-l-* albokaria dagoela *-egi* oinarriaren jarraian (*-legi*). Aipatzekoak dira, era berean, bokal arteko igurzkariaren erortzea (*-egi* > *-ei*) eta ondorengo diptongoaren irekitzea (*-ei* > *-ai*). Guztiarekin, ematen du toponimoaren oinarria *Patxiku-* hipokoristikoa dela (< *Frantzisko*).

SAURDEGI oikonimoaren idatzizko erakusgarri zaharrenak 19. mendekoak dira eta, xehetasunei erreparatuz gero, hitz hasieran *S-* / *Z-* txandaketa dugula ikusten da (*Saurdegui*, 1855, UEA1; *Zaurdegui*, 1863, HRU, 52 au.). 20. gizaldiko iturrietan ere forma aniztasuna dago: *Z-* txistukaria eta *-ao-* hiatoa (*-au-*> *-ao-*) dituen *Zaordegui* (1931, UUA8; 1951, UUA18), hasieran *S-* duen *Saordegui* (1956, UUA10G) eta igurzkaria galdu duen *Saurdey* (1967, UUA10M) kausitu ditugu (*-egi* > *-ei*). Azken hori da, hain justu, ahozko tradizioan entzun dugun aldaera, berriemaileengandik *Saurdei* [sáu̯rdèi̯] (K.) jaso baitugu guk. Aipatzekoa da, zentzu horretan, *Saurdeko borda* (1989, UUTB) forma, jatorra balitz, *-ei* > *-e* bilakaeraren lekuko litzatekeelako[1088]. *Xaurdei* (1989, UUTB), *Zabordegi* (1989, UUTB), *Zaordei* (1989, UUTB) eta *Saordei* (1989, UUTB) ere gordeak daude. Damurik, *Saur-* / *Zaur-* osagaiaren etorkia ezezaguna da.

SOÑEGI oronimoaren berri guztiak ahozkoak dira eta, beste askotan bezala, bokal arteko *-g-* ez da ebakitzen (*Soñei* [sóñèi̯], Aparr.; *Suñei* [suñéi̯], Arg. / [súñèi̯], Aska.). Lehen zatiaren jatorriari antzematea ez da aise, are gehiago idatzizko adibiderik ez

[1087] Cf. Oiartzungo *Pagolaegia*; Goikoetxea & Lekuona (2007: 261).
[1088] Atzean *-ko* behar du, jakina.

dagoenean, baina, hipotesi moduan, *soinu*-rekin lotua egon litekeela deritzogu[1089] (cf. ADARRAMENDI, DANTZALEKU eta LEKAIO). Beste aukera bat, hego-nafarrerako *soinegi*[1090] ('sorbalda') terminoarekin zerikusia duela uste izatea da, baina, dakigula, gure esparruan ez da euskalki hori hitz egin.

SUSPERREGI oikonimoaren lehenbiziko agerraldia 1885. urtekoa da (*Susperregi*, 1885, LMM, 187 au.) eta badaude 20. mendeko aipamenak ere (*Susperregui*, 1962, UTC; 1981, SGE2). Ahozko tradizioan *Susperrei* ([súsperrèi̯], Id.), *Susperri* ([súsperrì], Id.), *Zuzperrei* ([zúzperrei̯tìk], Id., *abl.*), *Zozperrei* ([zózperrèi̯], Id.) eta *Susperregi* ([súsperregì], Iz.) aldakiak zerrendatu ditugu guk eta, ikusten den bezala, informatzaile berak *S-* / *-s-* eta *Z-* / *-z-* txistukariak aldizkatzen ditu; hori bai, bi kontsonanteak ez dira inoiz batera azaltzen. Mitxelenak (*AV*, 549) adierazten duenez, *Susper-* erroak gaztelaniazko *fogoso*, *ardiente* eta *vivo* izenondoen adiera bera du (cf. *suspertu*) eta, horren argitan, pentsa daiteke hemen ezizen zentzua duela, goian aurreratu moduan, SUSPERREGI baserri-izena delako.

TRIKULANTEGI oronimoa dela eta, hasteko, bi aipamenak ahozkoak direla esango dugu; bokal arteko igurzkari belarra ez da ahoskatzen, ez batean ez bestean (*Trikulantei* [tríkulantèi̯], Amu.; *Trikulanteierreka* [tríkulanteierrekà], Amu.). Antza denez, lehen bi osagaiak *triku* eta *lantegi* izenak dira[1091] (cf. BASOLANTEGI).

TXABALOTEGI. Aitzineko erreferentziak 16. gizaldikoak dira (*Chabalotegui*, 1595, *casilla llamada*, *casa*, HUA10) eta idatzizko beste guztiak 18. eta 19. mendeetakoak (*Chabalotegui*, 1773, VEK1; 1773, VEK1A; *Chavalotegui*, 1773, VEK1B; 1843, HUA43; 1864, HUA47). Ahozko tradizioan *Txabalotei* ([txábalotèi̯], K., Ek.), *Txabolatei* ([txábolatèi̯], Bort. b.), *Txabalatei* ([txabálatèi̯], Ek.) eta *Txaalotei* ([txáalotèi̯], Larr.) aldaerak jaso ditugu eta, gure iritziz, aniztasun horrek

[1089] Cf. Orregako *Ioal eguieta* (1284); *FHV*, 317.
[1090] Camino (2003: 458).
[1091] Ikus *trikuharri* 6.5.§

herri-etimologiarekin nahiz TXABOLATEGI (64-39-5) izeneko baserria aski gertu egotearekin duke zerikusia. *Txabalo*- oinarriak hipokoristiko itxura du[1092] (< *Zabalo*).

TXABOLATEGIri doakionez, lehenik eta behin, azaldu beharra dago TXABALOTEGIk (64-38-3) eta TXABOLATEGIk (64-39-5) kokapen ezberdina dutela. Hori argiturik, diogun TXABOLATEGIren estreinako lekukotasuna 19. mendekoa dela (*Chabolategui*, 1857, HUA48, 47 or.) eta orduz geroztik aipamen ugari daudela; zenbait aipatuko ditugu, adibide antzera: *Chavolategui* (1911, IM; 1920, HUA57, 886 or.; 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1962, UTC; 1981, SGE2), *Txabolategui* (1983, IGN2), *Chabolategui* (1937, A.B.). Ahozko tradizioan *Txabolatei* ([txábolatèi̯], Bort. b., Txab. 2) jaso dugu eta, horrenbestez, oraingoan, idatzizko eta ahozko tradizioen artean ez dago aurreko kasuan, eta beste batzuetan, ikusten den aldea. Lehen zatia *Txabola* generikoarekin zein gure esparruko TXAROLA toponimoarekin egon liteke lotua.

Gure esparruan TXAREIKO BORDA izena duten bi eraikin daude, biak Aranon (‘txara dagoen aurkintzako borda’), baina, zoritxarrez, ahoz besterik ez dugu izan haien berri (64-63-3; *Txarei* [txárèi̯], Ar. 1, Lor. b.; *Txareiko borda* ([txárei̯kò bórdà], Lor. b.; 64-55-8; *Txareiko borda* [txárei̯kò bórdà], Lor. b.). Etimoari datxekionez, litekeena da sorburua *Txaregi* izatea, baina *Txaradi*[1093] egotea ere ezin bazter liteke erabat (*-adi* > *-ai* > *-ei*).

Jarrai dezagun TXATXUTEGIrekin. Oikonimo honen idatzizko bi erakusgarriak 20. mendearen hasierakoak dira (*Chachutegui*, 1920, HUA57, 102 or.; 1932, HUA57, 610 or.) eta badago ahozko erreferentzia ere (*Txatxutei* ([txátxutèi̯], Altz.), arrunki *-g-* erortzen dela adierazten dutenak. Oinarritako erabili izena *txatxu* hipokoristikoa dateke[1094] (< *Juantxo*, *Juantxu*).

[1092] Cf. Salaberri (2009: 53).
[1093] *Txaradi* oikonimoa dugu, konparaziora, Oiartzunen; Goikoetxea & Lekuona (2007: 235).
[1094] Ikus Salaberri (2009: 61).

TXERRITEGI toponimo ihartua da, mostra bakarra 19. mende erdi aldekoa delako, (*Cherritegui*, 1860-1862, HTR10, 31 au.); alabaina, aski eta sobera da espezifikotzat erabilitako izen generikoa dela jabetzeko.

URDANDEGI (‘urdeak zaintzen dituen pertsonaren bizilekua’ / ‘zerritegia’). Hau ere iharturik dago eta erreferentzia bakarra 1870. urtekoa da (*Urdandegui*, HUA49). Lehen zatia *urdain*-en (< ***urdani* ‘porquerizo’) elkarketarako *urdan*- aldaera izan daiteke, baina kontuan har *urdandegi* ‘zerritegia’ ere badela.

URKIDEGI (*urkidi* + *-egi*). Honen testigutza 1728. urteko idazki batean kausitu dugu (*Urquidegui*, HUA34). Aipamen bakarra dago oraingoan ere, eta nahikoa dirudi lehen zatia *urkidi* multzokaria dela konturatzeko (‘urkiak dauden eremua’), baina *-di* eta *-egi*-ren arteko nahasketa ere izan daiteke, ez bakarrik elkarketa edo batuketa.

USATEGIk ere erakuskari bakarra du, 1683. urtekoa hura (*Usategui*, HUA28). USATEGIETA toponimoarekin dagoke lotua, hots, erratu baten aurrean gaudekeela begitatzen zaigu.

XEOTEGIren bi aipamenak, azkenik, belarriz bilduak dira (*Xeotegi*, 1989, OM; *Xeotegizoko* (1989, OM). Zoritxarrez, lehen osagaitako baliatu *Xeo*-ren etorkia iluna da.

Mitxelenaren (*AV*, 183, 194, 554) aburuz, *-egi* berrekailuak lekua adierazten du oro har, batzuetan, zehazkiro, bizileku zentzua duela garbi badago ere. Are gehiago: *-tegi* eta *-egi* formen arteko harremanak argi daude, zenbait aldiz *-tegi* aldaerak *-egi*-k duen balio bera duela iruditagatik. Guztiarekin, *-tegi* forma *-egi*-ren aldaera da, usaian txistukari ondoan agertzen dena[1095]. Pertsona-izen, deitura eta abarren ondoan azaltzen den *-tegi* (‘bizilekua’), patronimoekin doanean ‘jabetza’ zentzua bide duena, bilakaera berria datekeela ere zehazten du. Bestalde, Errenteriako maisuaren (1989: 554) arabera, *-tegi* duten zenbait toponimoren lehen osagaiak ez dira gardenak, gure esparruko *Barkaiztegi* eta *Diustegi* kasu. Berebat, *-degi*, *-l* edo *-n* ondoko aldaera dela azpimarratzen du, baita albokaria duen *-legi*, eskuarki, *-r* ondoan azaltzen dela ere.

[1095] *FHV*, 246 eta *AV*, 554.

Gure esparruan *-egi* atzizkia 12. menderako lekukotzen da (*Izarrlegi*, 1178) eta, idatzizko iturriez ari garenez, derragun bokal arteko igurzkari belarraren erorketa, ahozko tradizioan arrunta dena (*-egi* > *-ei*), berandu eta gutxitan dokumentatzen dela (*Saurdey*, 1967, UUA10M). Nabarmentzekoa da *-degi* > *-bi* bilakaera, erakusgarri bakarra izan arren eta egiazki bilakabidea *Besadegui* > **Besadei* > **Besadi* > *Besabi* edo *Besadegui* > **Besadei* > **Besabei* >*Besabe* > *Besabi* den argi ez badago ere. Ø / *-egi* txandaketaren lekuko garbirik ez dago tradizio idatzian (ikus OLLOKI).

Eskuartean balia ditzakegun datuen arabera, bokal arteko kontsonante belarra ez ebakitzea joera indartsua da ahozko tradizioan eta, galera horren ondorioz, dardarkari eta albokari ondoko bokala ireki egiten da (*-rr* / *-l* + *-e[g]i* > *-lai*) behin baino gehiagotan (*Listorrai*, *Patxikulai*). Hala berean, igurzkari belarraren erorketaren emaitzaz sortu diptongoa *-e-* bihurtu da kasu batean (*-ei* >*-e*), atzean *-ko* duelako seguruenik (*Saurdeko borda*, 1989, UUTB); beste adibide batean, berriz, itxi (*-ei-* >*-i-*) egin da (*Lezarriko lepua* [lézarrikò lépuà], Aparr.).

Gure esparruan *-tegi* forma *z* eta *s* txistukarien jarraian (BARKAIZTEGI, ARPIZTEGI; BERASTEGI, DIUSTEGI, MARIMIKELOSTEGI), *r* ondoren (IXURTEGI) eta *a*, *i*, *o* eta *u* bokalen segidan azaltzen da (BASOATEGI, MANDATEGI, USATEGUI, TXERRITEGI, MOZOTEGI, KUKUTEGI, TXATXUTEGI). *-Degi* aldaera, berriz, *n* ondoan (ARGINDEGI, BASOLANTEGI, BORRONDEGI, BORTXOLONDEGI, BUZTINDEGI, MORGINDEGI, OLLAKINDEGI, URDANDEGI), *r* jarraian (SAURDEGI) eta *i* gibelean aurkitu dugu (URKIDEGI). Aurretik dardarkari indartsua dagoenean *-egi* atzizkiak ez du kontsonanterik hartzen (AKERREGI, AÑARREGI, ITURREGI, LISTORREGI eta LIZARREGI) eta sudurkaria duten zenbait etsenplutan ere ez (SOÑEGI).

Garbi antzematen den bokal bat-egite bakarra *-a* + *-egi* > *-egi* da (TXAREI). Hitzak hizpidea ekarrita, agerian ipini nahi dugu zenbait elkargune ilunak direla, lotura aukera bat baino gehiago daudelako, ARLOTEGI lekuko (*Arlo-* / *Arlote-* + *-(t)egi*). Ildo beretik, hauxe gehitu nahi dugu: ARIZTEGI bezalako toponimoetan dagoena ere ez da gardena, batura *Hari(t)z* + *-egi* nahiz *Haritz* + *-tegi* izan litekeelako.

Toponimoen sorburutako baliatu oinarriei erreparatuz gero, animaliak (*aker*, *belatz*, *kuku*, *liztor*), antroponimoak (*arlote*?, *hargin*, *Mari(a)mikel*, *Patxiku*, *Txabalo*, *Txatxu*), landareak (*ainar*, *baso*?, *elke*?, *gorol[dio]*?, *haritz*, *larre?*, *lizar*, *pago* [*paga*-], *txara*, *urki*) eta, nolabait esan, gauzakiak eta izen geografikoak daude haien artean (*buztin*, *gorotz*?, *iturri*).

-egi formaren diagrama

21.		
	-rr- + -egi > -rregi	-ñ + egi > -ñegi
1989		
1900		-o + -egi > -oegi
1800	-rr- + -egi > -rregi	
18.-19		
1700		
1600	-rr- + -egi > -rregi?	
16.		
1450		
12.	-rr- + -egi > -rregi	

-degi eta *-tegi* aldaeren diagrama

21.				
		-ategi		-ndegi
			-olegi	
			-ulegi?	
1989		-otegi?		
	-stegi	*-utegi* -		*-ndegi*
1900				*-rtegi*
	-ztegi	*-utegi*		*-ndegi*
1800				*-rdegi*
18.-19.		*-otegi*		
	-stegi	*-ategi*		
		-idegi		
1700			*-alegi*	
1600	*-stegi*	*-ategi*		
16.	*-ztegi*	*-otegi*		*-ndegi*
1450	*-stegi*			
12.	*-ztegi?*			

8.3.3.4. *-Di* atzizkia

Jatorriz espezifikoak diren izenak espezifikotzat erabilitako izen generikoetatik bereiztea zaila gertatzen da behin baino gehiagotan. Fitotoponimoen kasuan, esate baterako, ez da erraz landare- edo zuhaitz-izenen multzokariak (jatorriz izen generikoak direnak), adiera geografiko berezituarekin erabiltzearen ondorioz, izen espezifiko noiz bihurtu diren jabetzea. Hori dela eta, *-di* atzizkia duten zenbait forma espezifikotzat baliatu izen generikoei eskainitako atalean aztertuak ditugu dagoeneko (INTXAUSTI, INTSUSADI, LOIDI, MIZPIRADI, TXERTADI, TXILLARDIA, URKIDI, ZUAIZTI, ZUMADI, ZUMARDI, ZUMIZTI), baina badira jorratzeke utzi ditugun beste batzuk, hemen, izen espezifiko eratorriei dagokien atal honetan, ahotan hartuko ditugunak. Banaketa egiterakoan espezifikotzat erabilitako izena jatorriz multzokaria den eta multzokari moduan informatzaileen artean (generikotzat) bizirik dirauen hartu dugu kontuan.

Hasteko, lot gakizkion AIERDI[1096] oikonimoari (*aiher* + *-di*; 'toki maldatsua', 'leku aldapatsua'). Aurreneko lekukotasuna 15. mendekoa da, 1467. urtekoa hain zuzen (*Pedro de Ayerdi*, HUA5) eta, lehenbiziko horrek bezala, gainerako idatzizko aipamen gehienek ere *Ayer-* dute hitz hasieran (*Ayerdi*, 1850, UINGR2, 2098 zenb.; 1855, UEA1; 1857, HUA48, 71 or.; 1863, URU, 144 bin.; 1942, IGC1; 1945, UUA15; 1953, IGC2; 1956, UUA10G; 1979, UUA20; 1980, IGN1; 1983, IGN2; *Ayerdi-berri*, 1855, UEA1; *Ayerdicoa*, 1900, UEA2; 1900, UEA3). Alabaina, badaude *Ai-* grafiaz idatzitako ale batzuk (*Aierdi*, 1566, LMZ, 161 or.; 1625, LMI, 102 or.; 1708, HUA31). Bidenabar, diogun Hernaniko Kale Nagusian bazela *Aierdi* izeneko jauregia, 19. mende erdialdean *Casa torre Ayerdi* (1833-1845, HGR3, 82 au.) dokumentatzen dena; Urnietako AIERDI leinukoen bizilekuetako bat zen. Baina gatozen harira. Gure esparruan ahoz *Ayerdi* ([áyerdì], K.) forma erabiltzen da eskuarki, dardarkari aurrean bokal irekia duen aldaera ere, *Ayardi* alegia ([áyardì], Ai., Mik.; [áyardikuá], Amu., *l.g.*), zenbait informatzaileri entzun diegun arren[1097] (*-err-* + *-di* > *-arr-* + *-di*). Etimoari dagokionean, Mitxelenak (*AV*, 17) oinarrian *aiher* (gazt. *inclinación*, *pendiente*) dagokeela iradokitzen du[1098],

[1096] Gipuzkoan badira *Aierdi* gehiago, konparazio batera, Olaberrian (1997, OLM), Zegaman (1995, ZM), Larraulen (1995, LRM) eta Idiazabalen (1999, IDM).

[1097] Cf. *Goyarri* (< *Goyerri*).

[1098] Urnietako AIERDI penditz gutxiko hegi batean dago.

baina orduan *-di* multzokaria izatea zaila litzateke[1099]. Salaberriren (1997b: 8) oinatzetan, uste dugu horrelakoetan *-di*-k 'tokia' adierazten duela, eta ez besterik. Erroaren jatorria edozein dela ere, garbi dago dardarkari ondoren *-d* daukan aldaera azaltzen dela (*-di*).

Jarrai dezagun ENAZTIrekin. Honen testigantza guztiak ahozkoak dira (*Enazti* [enáztì], Ezk. b.; [énaztì], Lor. b.; *Enaztiko borda* [enáztikò bórdà], Ezk. b., Lor. b.) eta, zoritxarrez, ez dago bestelako argibiderik. Guztiarekin, argi dago herskari ahoskabea dugula txistukari ondoan, idatzizko frogarik gabe haren nondik norakoa zein den ezin jakin badaiteke ere[1100].

ENBUTODI. Oikonimo honen erreferentzia zaharrenak 19. mendekoak dira eta bi aldaera irakurtzen dira idazkietan, *Embotodi* (*Embotodi-erreca*, 1831-1845, UGR4, 27 au.; *Embotodi-berri* (1857, HUA48, 71 or.) eta *Embutodi* (*Embutodi*, 1846-1847, UTR2, 36 au.; *Embutadicoa* (1847-1848, UTR3, 37 au.). Berriemaileek, ordea, *Inbutei* ([ínbutèi̯], Ai.; [inbúte̯ìtìk], Mik., *abl*.) baliatzen dute eta, ildo beretik, *Inbutegi* (1989, UUTB) forma ere bildua dago. Datuok garbiro azaltzen digute hitz hasieran *Enbo-* > *Inbu-* hersketa egon dela; bokal arteko horzkariaren erortzea zein *-oi* > *-ei* aldaketa ere bistakoak dira. Laburbilduz, toponimo honen etorkia ez da gardena eta *-di* multzokaria dagoela ezin da ziurtatu, esaterako, *-odi* (*hodi*) egon daitezkeelako[1101].

Lau toponimo ihartu datoz orain. IGERDI da aurrenekoa, 1863. urteko erakuskaria duena (*Iguerdi*, 1863, HRU, 48 bin.). Honen sorburua zein den ez dakigu, baina, gure esparruan bada IEROLA toponimoa.

IERDIGAZTAINADI da bigarrena. Testigantza 18. mendearen amaierakoa da (*Yerdi gaztainadi*, 1794-1831, UGR 17 au.) eta daitekeena da iturburua AIERDI oikonimoa izatea, bestela esan, aferesia izan duen aldaeraren aurrean gaudela pentsatzea izan

[1099] Cf. Salaberri (1997b: 8).
[1100] Cf. Tolosako *Enazategierreka* (1760); Elosegi & Goikoetxea (2006: 259).
[1101] Cf. *Odieta* ibar izena.

daiteke aukera bat[1102]; bestea eskribauaren akats moduan hartzea da, baina, hain informazio urriarekin, hipotesi hutsetan gelditu behar, handik aurrera urratsik egin gabe.

IRANDIren mostra bakarra 1561. urtekoa da (*Yrandi*, HUA17, 11 au.) eta esan gabe doa hain datu gutxirekin ezin dela ziurtatu *-di* berrekailua duela. Orobat lehen zatiari datxekionez, nahiz eta oinarrian *ira(tze)* landare-izena egoteak egiantz apur bat izan.

IRAZURDI da lau toponimo ihartuetarik azkena. 15. mendean dokumentatzen da lehenbiziko aldiz (*Yraçurdi*, 1427, *montes de*, HUA1) eta 17. mende arte sarritan ageri da idazkietan; alabaina, orduz geroztik ez dugu gehiago kausitu. Aurrekoa bezala, *Ira(tze)* izenarekin dagoke lotua hau ere.

LERTXUNDI (*lertxun* + *-di*) oikonimoaren berri belarriz izan dugu (*Lertxundi* [lértxundì], K.) eta, BEKOENBUTODI / ENBUTODIBEKOA baserria izendatzen duela aintzat hartuz gero, uste izatekoa da deitura baten aurrean gaudela.

MUNAI oronimoaren karietara, lehen-lehenik, derragun *-di* atzizkia ote duen ez dela gauza ziurra, batez ere, dauden aipamenak ahozko tradiziotik bilduak direlako (*Munai* (1989, OM) / [múnaị], Id.; *Munall*, 1989, OM; *Munaill*, 1989, OM). Lehen osagaia *muino* izenaren *muna-* aldaera izan daiteke, baina bigarren osagaia, *-di* berrekailuarena izan beharrean, *biribil* izenondoaren oinordekoa izan daiteke, izenondo hori, toponimo elkartu baten bigarren osagaia denean, hitz amaierako albokaria gabe ahoskatzen delako sarri askotan (cf. LARREBIRIBIL). Izan ere, bada puntu bat gogoan eduki beharrekoa: *mu(i)no* izen geografikoa eta *-di* multzokaria elkarren eskutik joatea zaila begitantzen zaigu (‘muino ugari dauden tokia’?). *-Egi* ere egon daiteke, apika (*-egi* > *-ei* > *-ai*).

OKOLODIren bi estenpluak 17. mendekoak dira (*Ocolodi*, 1611, HUA24, 113 au.; 1668, HUA27, 125 bin.) eta, goiko kasuan gertatu moduan, hemen ere etorkia ez da gardena. Balizko sorburuei kasu eginez gero, hor dago, esate baterako, *okoilu*[1103] izen

[1102] Cf. Irigoien (1994: 45-46).
[1103] Ikus *FHV*, 83.

geografikoa (gazt. *rincón*, 'txokoa'), baina, oinarria hori balitz, zaila litzateke kasu honetan *-di*-k multzokari zentzua izatea.

OINDI mendi-izenari lotuko gatzaizkio orain. Aurreneko aipamenak 17. mendekoak dira (*Oindi*, 1625, LMI, 230 or.; 1683, *Cerro*, HUA28; 1683, *alto*, HUA28; 1683, *peña*, HUA28) eta 18. mendean ere *Oindi* erabiltzen da idatzizko iturrietan (1708, HUA31; 1769, HUA37; 1780, HUA39; 1797, HUA41). 19. mendean, ordea, hitz hasierako diptongoaren ordez, bokal itxia duen aldakia azaltzen da (*Ondi*, 1850, PM, 231 or.; 1899, HUA52) eta, modu berean, 20. mendeko lehen hamarkadetako agirietan ere *Ondi* topatu dugu (1911, IM; 1920, HUA57, 783 or.; 1920, HUA57, 830 or.; 1920, HUA57, 56 or.; 1936, HUA57, 480 or.). Azkenik, *-y-* grafema duen aldaera (*-n* + *-di* > *-nyi*) nagusitzen da 20. gizaldiaren erdialdetik aurrera (*Onyi*, 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1958, PPG; 1960, LPB, 53 or.; 1962, UTC; 1969, BG; 1976, TA, 14 or.; 1979, RMH; 1980, IGN1; 1981, SGE2; 1982, GFA1; 1982, CAG, 181 or.; 1983, GFA2; 1983, IGN2) eta informatzaile guztiek ere sabaiko herskariz (*-n* + *-di* > *-nyi*) ebakitzen dute[1104] (*Onyi* [ónyì], K.). Oinarrian *oin* izena dagoela dirudi, aztergai dugun kasuan bide duen adiera ezezaguna bada ere[1105].

PAGOZTADIri dagokionez, diogun idatzizko lekuko zaharrena 18. gizaldiaren amaieran aurkitu dugula (*Pagastadi*, 1794-1831, UGR3, 19 r.). Orduz geroztik bi aldaera erabiltzen dira agirietan: batetik, aurreneko erreferentziaren ildoko *Pagaztadi* (1956, *pinar*, UUA10H) kausitu dugu eta horrekin batera, amaieran, *-t-* ondoren, bokal erdikoa duen *Pagaztedi* (1925, *helechal*, UUA3); bestetik, lehen zatian, *-g-* ondoren bokal erdikoa duen *Pagoztadi* topatu dugu (1855-1857, UTR8, 46 au.; 1951, *helechal*, UUA18). Ahoz *Pauxtei* ([páu̯xtèi̯], Ai., Oiarbi.) jaso dugu guk eta *Paoxtei* (1989, UUTB) ere transkribatua dago. *Pauxtei*-ren harira, bi igurzkarien (*-g-* eta *-d*-ren) erorketa eta bigarren (*-a-* + *-o-* > *-au-*) eta hirugarren (*-ai* > *-ei*) bokalen hersketak agerian jarri nahi ditugu. *Pagasta-* / *Pagozta-* oinarria *pago* zuhaitz-izenaz eta *gazte* izenondoaz osatua dagoela ematen du eta, xehetasunetan sartuz gero, laburtzea haplologiaz gertatu datekeela iruditzen zaigu. Alabaina, badaiteke aurreneko osagaia,

[1104] Cf. *FHV*, 181.

[1105] Beizaman *Ointzabal* izeneko baserria dago (1992, BEM).

pago izan beharrean, *pagadi* izatea. Bigarren osagaia ere, (*-[a]+zta-* / *-[a]zte*) alegia, uherra da. Hitz bitan, **Pagadigaztea* izan daiteke iturburua.

TARTAKADIk[1106] (*tartaka* + *di*; '*Quercus* motako zuhaitzak dauden lekua') erakuskari bakarra du, ahozkoa (*Tartakai* [tártakàị], Amu.). Uste izatekoa da iturburua TARTAKADI dela, gure esparruan bokal arteko horzkari igurzkariaren erortzea arrunta delako, baina, idatzizko erreferentziarik gabe, hipotesia besterik ez da. Lehen zatiari datxekionez, *tartaka* (*Quercus bellota*) zuhaitz-izenekin duke zerikusia[1107].

ZEPADI da *-di* berrekailua duen azken izenburu nagusia (*zepa* + *di*). Bi dira gure esparruan toki-izen hori duten lekuak, Hernanikoak biak (64-30-8; *Zepai* [zépàị], K.; 64-31-5; *Zepai*, 1989, HUTB; *Zepaiko zabala* [zépaị̀kò zábalà], Etxol.). Bokal arteko horzkaria erori dela garbi dago, toponimoaren etimoa gardena baita, idatzizko lekukorik egon ez arren. Izan ere, erroa *zepa* terminoa da, burdinoletan, mea kiskali ondoren gelditutako hondakina izendatzen duena. Zentzu horretan, gure esparrua ez da salbuespena, bi ZEPADIen ondoan burdinola bat baino gehiago zeudelako behiala eta inguru haietan lantegietako jardueraren arrastoak idoro direlako.

Uhlenbeck-ek *-tegi*-rekin lotzen du[1108], baina gure esparruan *-di* eta *-tegi* atzizkien arteko estekaren frogarik ez dago. Mitxelenak (*FHV*, 107-108) *-di* forma *-doi* eta *-dui*-tik atera dela dio, eta azken bi horiek *do.i* silababiko zaharrago batetik, menturaz, tarteko kontsonantea zukeena hura. Gure esparruan 15. gizaldian lekukotzen diren bi adibide daude (AIERDI, IRAZURDI), baina bietan *-di* dugu orduko, eta ez *doi*, hau da, ez dago **Aierdoi* / **Aierdui* edo **Irazurdoi* / **Irazurdui* bezalako formen lekukotasunik. Villasantek (1974: 66-67) dioena berresten da, ordea, *-ti* aldaera txistukari ondoan azaltzen baita eta *-di*, berriz, bokal, sudurkari eta dardarkari gibelean. Honatx diogunaren lekukotzat dakartzagun adibideak: txistukari segidan ENAZTI; ***a***, ***o*** jarraian TARTAKADI; ENBUTODI, OKOLODI; ***n***, ***r*** ondoren OINDI; AIERDI, IGERDI, IERDIGAZTAINADI.

[1106] Iñigok (1996: 321) *Tartaka* toponimoa biltzen du 18 eta 19. mendeetan Iturenen. Ildo beretik, *Tartakiturri* dugu Gerendiainen (Erroibarren); *NTEM-XXXV*, 87.

[1107] Ikus Lakoizketa (1994 [1888]: 152) eta *DVEF*, 1001.

[1108] Schuchardt ere, esate baterako, bat dator ideia horrekin. *DEV* III, -DI sarrera.

Salaberrik (1991: 33-53), atzizkiaren jatorriari buruz eman diren iritzien bilduma egin ostean, silaba bakarreko oinarria duten toponimoetan laburtzea ez dela burutu azpimarratzen du[1109]. *-Di* zabalerarik handieneko aldaeratzat jotzen du Uxueko irakasleak, Iparralde eta Gipuzkoatik Artaxoaraino, eta Ziorditik Agoitz ondoraino erabili dena. *-Doi* / *-toi* sortaldean ageri dela ere zehazten du, eta *-dui* / *-tui*, berriz, bi eremuetan, hots, sortaldean eta sartaldean (Lana, Ameskoa barne).

Esan dugunez, gure esparruan *-di* atzizkia 15. menderako dokumentatzen da eta badira 16. (*Yrandi*, 1561, HUA17, 11 au.) eta 17. gizaldietako adibideak ere (*Ocolodi*, 1611, HUA24, 113 au.). Aldaketa aipagarriena sudurkari ondoko horzkariaren bustidura da (*-n* + *-di* > *-nyi*), estreinakoz 20. mendearen erdi aldera aurkitu duguna eta egungo ahozko tradizioan indarrean dagoena (OINDI). ENBUTODI toponimoaren kasuan, bokal arteko *-d*-ren erorketaren ondorioz sortutako diptongoaren lehen bokalaren artikulazio puntua aurreratu egiten dute elkarrizketatu ditugun berriemaileek (*-oi* > *-ei*).

Atzizkiaren aurretik aurkitu oinarri gehienak landare-izenak (*ihar*, *Iran-*?, *Pagazta-*, *tartaka*?) eta termino geografikoak dira[1110] (*aiher*, *okolo?*). Bukatzeko, diogun AIERDI oikonimoari kasu eginez gero, gure esparruan *-di*-ren adiera ez dela beti batekoa, bestela esan, ez dela multzokaria aldi oro, aipatu adibidean eta antzekoetan ‘tokia’ adierazten duelako, eta ez beste ezer.

[1109] Ikus baita ere Salaberri (1998: 78-80).

[1110] *Enaz-*, *Enbuto-* eta *Oin-* oinarrien nondik norakoa ezezaguna da.

8.3.3.5. *-Do* atzizkia

AIERDO (*aiher* + *-do*). Gutxi izanagatik, bitariko erakusgarriak ditu oronimo honek, bai idatzizkoak (*Aierdo*, 1739, partida, VEK2), bai ahozkoak (*Ayerdo* [áyerdò], K.; *Aierdo* [ájerdò], Ollok.). Lehen zatian *aiher* (‘aldapa’, ‘malda’) izen geografikoa dukegu. Cf. AIERDI.

OINDO[1111] oronimoaren idatzizko lehen aipamena ere 18. mendekoa da; *Oi-* diptongoa du hitz hasieran (*Oindo*, 1773, VEK1A). Haatik, 19. mendearen amaieran nahiz 20.aren hasieran *Ondo* aldaera aurkitu dugu (1889, AT, 231-232 or.; 1901, AT, 231-232 or.) eta 20. gizaldiaren erdialdetik aurrera, berriz, sudurkariaren ondoren *y* grafema duena *Onyo* (1944, GHO1, GHO2; 1960, LPB, 57 or.; 1969, BG; 1976, TA, 14 or.; 1982, CAG, 184 or.). Nolanahi ere, argitu beharra dago *y* grafema lehenagotik azaltzen dela eratorrien artean (*Onyabe*, 1862, AT, 231-232 or.). Salbuespenei doakienez, *-ll-* grafemarekin irakurtzen da bi adibidetan (*Onllo*, 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1983, GFA2). Informatzaileek, azkenik, hitz hasieran *O-* bokalaz eta sabaiko herskariz ahoskatzen dute (*Onyo* [ónyò], Amu., Mari. 2). Lehen zatiaren etorkia ez da agerikoa. Ikus OINDI.

-Do atzizkia, honenbestez, 18. menderako lekukotzen da gure esparruan (1773, *Oindo*), baina bi toponimoren osagaitako baino ez da erabili. Dardarkariz edota sudurkariz amaitzen diren erroekin azaltzen da eta azken inguramendu horretan horzkaria sabaikaritu egiten da (*-n* + *-do* > *-nyo*). Oinarritako erabili elementuei erreparatuz gero, bata termino geografikoa dateke (*aiher*) eta bestearen nondik norakoa ezezaguna da (*Oin-*).

Deigarria da hemen aztertu ditugun bi toponimoek (AIERDOk eta OINDOk), gure esparruan bertan (AIERDI eta OINDI), *-di* atzizkia duten erreplika bana dauzkatela ikustea, haiekin zerikusirik ez duten bi izaki geografiko izendatzen dituztenak. Hitzak hizpidea ekarrita, oroit dezagun Mitxelenak (*AV*, 180) adiera zehaztugabea duen *-da* atzizki toponimikoarekin batera aipatzen duela *-do*, *Bizkardo* adibidea erabiliz.

[1111] Alegian *Oindoerreka* ur-ibilgua dago (1998, ALM) eta Villabonan *Oindo* mendia (1994, VAM).

Salaberrik (*EAEATB*, 202-203) ere aztertzen du mintzagai dugun berrekailua. Hain zuzen, Uxueko irakasleak uste du *-do* eta *-di* atzizkiek, jatorri ezberdina izanik, zentzu osagarria izatea daitekeena den modu berean, jatorri bera izan eta denboraren buruan biak adiera ezberdina hartu izatea ez dela ezinezkoa. Gutziarekin, *-do* ere, *-di* bezala, *do.i* silababiko zaharrago batetik atera dela deritzo[1112].

[1112] Salaberri (1998: 78-79). Berriki, *Izen ttipiak euskaraz* liburuan (2009: 107), toponimiako nahiz antroponimiako *-do* atzizkiari buruz ikertzaile ezberdinek esandakoaren bilduma eta azterketa egiten du.

8.3.3.6. -*Tz(a, e)* eta -*zu* atzizkiak

Begiratu ditugun iturrietan, ALTZA herri-izenaren idatzizko lehenbiziko erakusgarria 18. mendekoa da (*Alza*, 1773, VEK1B) eta hurrengoa, eta azkena, 1911. urtekoa (*Alza*, IM). Berriemaile guztiek *Altza* ([áltzà], K.) darabilte eta zati generikoa eranstean ez da inolako aldaketarik sumatzen elkargunean (*Altzabasua* [áltzabasuà], Arg. / *Altzabaso* [áltzabáso], Larra.). Nolanahi ere den, herri-izen honek -*tza* atzizkia beregan duen ezin da ziurtatu, etimoak argitzeke dirauelako (ikus ALTZUETA).

ANTZUMEZIARTZA ikusmiratuko dugu jarraian. Toponimo ihartu honen bi testigantzak 1573. urteko idazki batean aurkitu ditugu (*Ançumeciarça*, HUA19, 7 bin.; *Ançumeçiarça* (HUA19, 8 au.) baina, damurik, ez dugu gehiago topatu. Irudi du *Ançumeciar-* / *Ançumeçiar-* oinarriak *Antxume* izenarekin duela zerikusia, bigarren osagaiaren etorkia eta egiazki -*tza* ote dugun batere garbi ez badago ere (*antxume* [*ahuntz* + *ume*] + *zehar* + *tza*?).

Aurrekoakin batera, amaieran -*kutz(a)* segida duten bi toponimo daude gure esparruan[1113]. Aurrenekoa ARTIKUTZA saroi-izena da eta honen idatzizko bi erreferentziak 1739koak dira; bi aldaera irakurtzen dira, *Articuza* (VEK2) eta *Articuz* (1739, VEK2). Gainerako erreferentziak belarriz bilduak dira eta hiru forma darabiltzate berriemaileek, *Artikutz* ([ártikùtz], Amu.), *Artikuz* ([ártikúz], Amu.) eta *Artikutza* ([ártikutzà], Ollok.). Toponimoaren osaketa ez da gardena, lehen osagaiak *ardi*-rekin lotua irudituagatik, hortik aurrera urratsak ematea ez delako aise. Aukera bat *artizkune* terminoarekin zerikusia izatea da (‘ardiak jeizteko tokia’), baina hiru oztopo daude horretarako: txistukaria, sudurkaria eta bokal erdikoa falta direla (**Arti[z]ku[n][e]tza*?). Beste aukera, Salaberriren oinatzetan[1114], *Tartiku* (landare-izena) + -*tza*-tik eratortzea da, disimilazioz (**Tartikutza* > *Artikutza*).

EGUZKITZA (‘egutera’) oikonimoa bitan ageri da iturri idatzietan, zehazkiro esanda 20. mendeko kartografian (*Eguzkiza*, 1983, GFA2; 1983, IGN2). Ahozko tradiziotik

---

[1113] Salaberrik (1997b: 7-39) *-(g, k)untz(a, e)* hizkera arrunteko atzizki homonimoarekin lotzen du; *-(g, k)untz(a, e)* / *-(g, k)un(e)* txandakatzea ere aztertzen du. Bidenabar, gure esparruan -*kutz(a)* duen beste toponimoa OSTAKUTZ dela aurreratuko dugu.

[1114] *Goizuetako etxe izenak*, lan argitaragabea (J. J. Zubiri eta P. Perurenarekin).

Euskitza ([éu̯skitzà], K.) jaso dugu guk, *Eguskitza* (1989, HUTB) forma ere transkribatua dagoen arren. Uste izatekoa da gure esparruko EGUZKITZA deitura dela, besteak beste, berria den baserri baten izenaren aurrean gaudelako.

ERKATZU / ERKATZA / ERKAITZA toponimo joria da benetan. Idatzizko lehenbiziko lekukoa 17. mendeko agiri batean dago eta *-zu* du amaieran (*Ercazu*, 1683, HUA28). Hurrengo hiru aipamenak 1769. urteko idazki batean aurkitu ditugu eta hirurak ezberdinak dira, besteak beste bukaeran *-zu*-ren eta *-za*-ren arteko txandaketa dagoelako (*Ercazu*, HUA37; *Ercarza*, HUA37; *Escarza*, HUA37). 1773. urteko hiru agerraldi daude aurrekoen ondoren eta *-zu* eta *-(t)za* amaierak aldizkatzen dira, baina txistukariaren aurretik dardarkaria duen aldaeraren zantzurik ez dago (*Ercazu*, 1773, VEK1A; *Ercatza*, 1773, VEK1B; *Ercaza o Aparrain*, 1773, VEK1). *-Zu* ez da gehiago azaltzen, 18. gizaldiaren amaierako idatzizko iturrietan *-(t)za* eta *-tz(e)* nagusitzen direlako (*Ercatza*, 1780, HUA17; *Arcatza*, 1780, HUA17; *Ercaza*, 1784, HUA39; *Ercatza*, 1799, HUA42, 171 bin.; *Ercatzarripea*, 1799, HUA42, 171 bin.; *Ercatz erdicoa*, 1799, HUA42, 171 bin.). Bide batez, derragun *-itza* duen aldaeraren lehen etsenplua ere 18. mendearen amaierakoa dela (*Ercaiza*, 1797-1833, HGR2, 44 au.). Ildo beretik, 19. mendean forma ezberdinak baliatzen dira dokumentazioan. Lehenik, bukaeran *-(t)z* (< *-tza*) dutenak dauzkagu (*Ercatz-arripia*, 1840, HUA43, 117 bin.; *Ercatz-erdicoa* 1840, HUA43, 117 bin.); bigarrenik, bukaeran *-tz* izanik, aurretik *-ai-* diptongoa dutenak daude, hots, *-ai(t)z* segida daukatenak (*Ercaitz-arripia*, 1857, HINGR2, 5097 zenb.; *Ercaitz-erdicoa*, 1857, HINGR2, 5097 zenb.; *Ercaiz-arripi*, 1863, HRU, 50 bin.; *Ercaiz erdicoa* (1863, HRU9, 50 bin.); azkenik, *-s(a)*-rekin idatzitako *Ercaras* (1855-1857, HTR8, 22 au.) eta *Ercasa* (1863, HRU8, 47 au.) topatu ditugu. 20. mendean ez dugu amaieran bokal irekia duen formarik aurkitu, hain zuzen, *-aiz* /*-aitz* duten *Ercaiz* (1920, HUA57, 886 or.) / *Ercaitz* (1944, GHO1, GHO2) / *Erkaitz* (1983, GFA2) zein *-atz* duen *Ercatz* (1911, IM) kausitu ditugulako aldi oro. Ahoz, azkenik, diptongoa duen *Erkaitze* ([érkai̯tzè], Txab. 1) nahiz *Erkatz* ([érkàtz], Txim.), *Erkatzeko lepua* ([érkai̯tzekò lépuà], Txab. 1) eta *Erkatzeko sarobia* ([érkatzekò sárobià], Txim.) jaso ditugu, loturazko *-e* bokalaren erabilpenaren berri ematen dutenak; *Erkaatz* (1989, HUTB), *Erkaatzeko sarobia* (1989, HUTB) eta *Erkazko sarobia* (1989, HUTB) formak ere zerrendatuak daude. Begira diezaiogun orain erroaren etorkiari.

Mitxelenaren (*FHV*, 234) irudiko gipuzkerako *erratz* (‘brusco, piorno’, ‘escoba pequeña’) eta goi nafarrerako *erkatz* (‘escoba’) izen konposatuak izan daitezke. Alabaina Coromines (1972: 300) aurrerago doa eta *erkatz* > *erratz*[1115] etimoa proposatzen du. Beraz, lehen osagaia *erratz* / *erkatz* izatearen aukera ezin da baztertu. Argi dagoena da Salaberrik (1997: 28-30) dioena egiaztatzen dela, *Erkatza* formatik *Erkaitz* sortu delako, elkartuetan joatearen ondorioz; bestela esateko, *-itz (a*, *e)*, kasu horretan, *-tz (a, e)*-ren aldaera baino ez da.

21.

			[-(ai̯)tzè-]	[-(à)tz]	[-(a)tzè-]
1989				*-(a)z*	*-(a)atze-*
1900			*-(a)itz* /*-(a)iz*	*-(a)tz*	*-(a)tze?*
1800		*-sa*	*-(a)itz* / *-(a)iz*	*-(a)tz*	
18.-19			*-(a)iza*		
1700	*-zu*	*-rza* / *-za* / *-tza*		*-(a)tz*	
17.	*-zu*				

EREÑOTZU (*ereinotz* + *-zu*; ‘*Laurus nobilis* landareak dauden tokia’). Baserri eta auzo-izen honen testigantza zaharrenak 15. mendekoak dira eta, ordutik, idatzizko tradizio aberatsa du honek ere. Hasteko, aurreneko agerraldian bezala, dardarkariaren ondoren *-ei-* diptongoa eta amaieran *-çu* duten formak daude (*Ereynoçu*, 1467, HUA5; *Ereinoçu*, 1467, HUA5; *Ereiñozu*, 1625, *casa*, LMI, 96 or.). Horien harira, esan beharra dago 17. mendean *-ei-* diptongoa duten aldaerak erabat desagertzen direla, *-ei̯-* + *-n-* > *-e-* + *-ñ-* sabaikaritzea dela medio segur aski (*Ereñoçu*, 1595, HUA10). Ohar bat ipini nahi dugu bide batez: dardarkariaren ondoren *-eñ-* dutenak aipamen idatziak hasten diren une beretik ageri dira (*Ereñoçu* (1467, HUA5; 1550, HUA14; 1569, HUA18, 27 au.; 1595, *cassa*, HUA10; *Ereñoçu echabi*, 1595, HUA10 / *Ereñoçuchavi*, 1595, HUA10; *Erenoçu*, 1538, HUA9; 1605, HUA24, 52 bin.; *Hereñozu*, 1683, HUA28; 1707, *herrerías de*, HUA30, 24 au.; *Ereñozu*, 1773, VEK1; 1833-1835, DUA3; 1920, *caserio y pertenecidos*, HUA57, 886 or.). Badago *Erenocu*-ren (1610, HUA25) lekuko

[1115] *Ruscus aculeatus* landarea.

bat eta, badira *-tzu* formaren idatzizko adibideak ere (*Ereñotzu-echeverri*, 1843, HUA43). Azkenik, sudurkari ondoan bokal irekia duten kasu hauek aurkitu ditugu, asimilazio-disimilazio prozesuaren nahiz idazkariaren erratuen emaitza izan daitezkeenak (*Erenaçu*, 1566, HUA17, 55 au.; *Ereñazu ferreria*, 1773, VEK1A; *Erreñazu*, 1773, VEK1A; *Erreñazu Puzuba*, 1773, VEK1A); *Heriñazu* (1625, LMI, 234 or.) forma talde berean sailka daiteke. 19. gizaldiko aipamenen artean *Iñazu* (1882, HUA56) aipamena azpimarratu nahi dugu, ahozko tradizioan aurkitu dugun aldakiaren eitea duelako (*E-> I-*). Idatzizko iturriekin bukatzeko, diogun amaieran *-ça* / *-za* aldaera duten bi adibideak 15. eta 17. gizaldietakoak direla (*Herrenoça*, 1465, A.A., 560 or.; *Ereñoza*, 1625, LMI, 87 or.). Ahozko tradizoan *Ereñozu* ([éreñozù], K.), *Eeñazu* ([eéñazù], Larra.) zein hasieran bokala itxia duen *Iñotzu* ([íñotzù], Larra.) jaso ditugu guk, eta *Eñotzu* (1989, HUTB) nahiz *Iñatzu* (1989, HUTB) formak ere gordeak daude. Toponimoaren oinarria *ereinotz* landare-izena da, gure esparruko toponimian gehiago aurkitu ez duguna eta egun iharturik dagoena.

EZTEIZA oronimoaren ibilbidea ere joria da. Aurreneko erreferentziak 16. mendeko agiri batean daude (*Esteiça*, 1538, HUA9) eta bi talde bereiz daitezke harrezkero idatzizko tradizioan; batetik, *-ça / -za* atzizkiaren aurretik, *-ei-* diptongoa dutenak daude (*Ezteyça*, 1546, HUA21, 35 au.; *Ezteiza* (1797-1833, HGR2, 72 au.; *Esteiza*, 1831, *trozo*, DUA2; 1847, JII, 34 or., *Ezteiza*, 1899, *alto* , HUA54; *Esteiza-garaicoa*, 1935, HUA57, 954 or.); bestetik, *-za*-ren aurretik *-i-* bokala besterik ez dutenak ditugu (*-ei-* > *-i-*), gutxiago eta beranduago erabiltzen direnak (*Estiza*, 1797, HUA42; 1920, *montazgos*, HUA57, 887 or.; *Eztiza*, 1920, HUA57, 392 or.; 1935, HUA57, 151 or.). Ahozko tradizioari dagokionez, *-ei-* diptongoa duen aldaerak bizirik dirauela ematen du eta, hala berean, diogun berriemaileek txistukari igurzkaria duen aldaera erabiltzen dutela beti (*Eztiza* [éztizà], Amu., Ek.; *Ezteiza* [éztei̯zà], En., Larr.; *Eztizako punta* [éztizakò púntà], Larr.; *Esteizako punta* [éstei̯zakò púntà], Larr.). Bidenabar, EZTEIZAKAITZ (*Esteizacaiz*, 1683, HUA28; 1833-1835, DUA3; 1797, HUA41; *Ezteizacaiz*, 1683, HUA28; *Estizacaiz*, 1797, HUA41; 1848, HINGR2, 1213 zenb. *Estizacaitz*, 1797, HUA41) eratorria aipatu nahi dugu, *bakoitz*[1116] nahiz *gaitz*[1117] (*-kaitz*)

[1116] Mitxelenaren (*FHV*, 226) arabera, kontsonante ahostunak desagertzearen arrazoia bokal artean eta beste testuinguru jakin batzuetan frikari ahoskatu izana da. Cf. *Soracoiz* (12. gizaldia; < *soro* + *-bakoitz*). Ildo beretik, Iruñetik hurbil *Sorauren* herria dago (*Soro* + *guren*).

izenondoekin zerikusia izan dezakeelako; damurik, EZTEIZAKAITZ ihartuta dago. Bestalde, gure esparruan ESTEIZAR eta ESTEGITXAR toponimoak daude, EZTEIZArekin bide duten zerikusia uherra bada ere. Lehenbizikoa galdua dago eta bigarrenaren kasuan idazkietan *Esteguichar* (1797, HUA41; 1833-1835, DUA3) aurkitu dugu. Ahozko tradizioan, berriz, *Itxeixar* ([ítxeixàr], Etxol.) zein *Exteixarko ataka*[1118] ([éxteị̈xarkò átakà] (Ig. g., Txim.) entzun ditugu. Harira etorriz, EZTEIZAren lehen osagaiaren (*Ezt[e]i*-ren) nondik norakoa ezezaguna da, baina, ESTEGITXAR eta ESTEGIETAKO ATAKAKO TXABALA toponimoak ikusirik, pentsa daiteke **Eztegi*- iturburutik sortua dela (< **Hazitegi*?).

GARAGARTZA[1119] (*garagar* + *tza*; '*Hordeum vulgare* delako landarea dagoen lekua'). Bi dira gure esparruan izen hori duten lekuak; bata Arano-Hernani mugan dago eta bestea Urnietan. Lehenbizikoaren idatzizko estreinako erreferentzia 12. mendekoa da, 1178. urtekoa hain zuzen (*Guaragarze*, IKA3) eta, hurrengoan ez bezala, *-za*-ren tokian, *-ze* dago (1683, *Garagarza*, HUA28). Are gehiago: gainerako aipamenetan *Garagarza* errepikatzen da beti (*Garagarza o Carramichola*, 1797, HUA41; *Garagarza*, 1889, HUA52; *Garagarza*, 1944, GHO1). Berriemaileengandik aldaera bat baino gehiago jaso ditugu, guztiak *-tza* dutenak (*Gaartza* [gáartzà], Ezk. b., Lor. b., Txim; *Gartza* [gártzà], Ezk. b.; *Galartza* [gálartzà], Ezk. b.; *Garagartza* [gáragartzà], Ig. a.) eta, ildo horretan, aintzat hartu behar da leku genitiboaren hondarkia dutenen artean ez dagoela aldaketarik lotunean, *Gaartzako galbayua* ([gaártzakò gálbayuà], Ezk. b.) lekuko. Urnietako GARAGARTZAren idatzizko adibide bakarra dago (*Garagarza*, 1794-1831, UGR3, 16 au.) eta ahoz *Gartzan elurzulua* ([gártzàn elúrzuluà], Mari. 2) zein *Gaartzan elurzulua* (1989, HUTB) formak daude bilduak, bokal arteko kontsonateen erortzearen berri ematen dutenak.

IARTZA oronimoaren karietara (*ihar* + *-tza*), esan dezagun testigantza zaharrenak 16. mendekoak direla eta *sasi* generikoa dutela erantsita (*Yarçasasi*, 1569, HUA18, 30 au.;

[1117] *Erreka gaitza* (1603) izeneko ur-ibilgua dago, esaterako, Itzan; Jimeno Jurio (1981: 190). Cf. Ardazko (1744) eta Urbikaingo (1702) *Errekagaitz* hidrotoponimoak (biak Itzagaondoan); *NTEM-XXXIII*, 53, 116.

[1118] *Ixteixar* (1989, HUTB) eta *Itxeitxako ataka* (1989, HUTB) formak ere zerrendatuak daude.

[1119] Leitzan bada *Garagartza* izeneko baserria.

Yarçasasia, 1594, HUA17, 194 bin.). Hurrengo erreferentzia 18. gizaldikoa da eta, aurreneko bietan ez bezala, igurzkari belarra dago hitz hasierako hiatoan (*Igarza*, 1740, HUA30, 541 au.). 19. mendean *Yarzagaña* (1860-1862, HTR10, 33 au.) topatu dugu eta 20. mendean bi aldaera baliatzen dira idazkietan, hiatoan kontsonante belarra duen *Igarza / Igarza gaña* (1932, HUA57, 1 or.; 1933, HUA57, 11 or.) eta ahoz bildutako formaren eitea duen *Iyarza* (1933, HUA57, 11 or.), azken hori sabaiko igurzkaria duena. Ahozko tradizioan sabaikariarekin ebakitzen da (*Iyartzagaña* [íyartzagañà], K.) eta kontsonante belarra duen aldaeraren lekukotasunik ez diegu entzun informatzaileei. Sabaikarituriko kontsonantez jardukitzean, Mitxelenak (*FHV*, 190) ohartarazten du Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait ingurunetan *d* eta *g* busti egin direla sarritan *i* ondoren eta eremu horietan *Id-* / *Ig*-ren emaitza bat datorrela *i* + *bokala* baturarekin, *iy-* + *bokala* multzoa sortzen baita bietan. Oinarrian *ihar* (< *eihar?*) fitonimoa dukegu (*Acer*[1120] espezieko zuhaitzak dauden tokia'?). Cf. IEROLA.

ITURRITX[1121]. Honen berriak ahozko tradiziotik datozkigu. Guk *Iturritx* ([íturrìtx], Etxol., Txil.) jaso dugu berriemaileengandik, nahiz eta herri-etimologia irudi duen *Iturriotz* (1989, HUTB) ere gordea egon. Toponimoak *-tza* / *-tze* atzizkia balu hitz amaierako azken bokalaren erorketaz ere mintzatu beharko genuke, *-i-* ondoko txistukariaren sabaikaritzeaz ez ezik; beste aukera, berrekailua *-txo* txikigarria izatea da (*-txo* > *-tx*). Esan gabe doa aurreneko tokian *iturri* izen geografikoa dagoela.

LARRATS (Ikus 8.1.1.§).

LEITZA herri-izenaren harira, azalpena eman nahi dugu hainbat lasterren: gure esparrutik at dagoenez gero, gorde ditugun testigantza guztiak ahozkoak dira (*Leitza* [léi̯tzà], Amu.). Nolanahi ere den, aski eta sobera dira bere laburrean hemen agertu nahi genukeena agertzeko: leku genitiboaren hondarkia hartu duten formetan bokal erdikoa dago hondarkiren aurretik (*Leitze-* [léi̯tzekuá], Amu., *l.g.*, *Leitzeko atsua*, [léi̯tzekò átsuá], Amu.), *-a*-ren ordez. *Eleiza* nahiz *leize* hitzekin lotu izan da LEITZA, baina etorki horiek ez dira egiantz handikoak; hain zuzen, Salaberrik (1997b: 27-28) zehazten duenez *Leiun* eta *Leotz* (*Leyotz* 1268an) oinarriekin duke zerikusia.

[1120] Cf. Ruiz Urrestarazu (2009a: 397-401).
[1121] Aralaren *Iturritx* toponimoa biltzen du Elosegik (1972: 174).

MENDARATZen idatzizko etsenplu bakarra 16. mendekoa da eta *-s* du hitz amaieran (*Mendaras*, 1552, LMM, 180 or.). Ahozko tradizioan, aitzitik, *Mendaraz* ([méndaràz], Larr. b.) eta *Mendaatz* ([méndaàtz], Arg.) jaso ditugu guk (*-tz* / *-z*), eta *Mendaratz* (1995, DTE) forma ere transkribatua dago. Osaketa *mend(i)* + *aratz*[1122] izan daiteke ('mendi ederra'?), baina *-tza* atzizkia egotearen aukera ezin da erabat baztertu; horregatik sartu dugu hemen.

MUGATZ[1123] (*muga* + *-tz[a*, *e]*?; 'muga tokia'?) saroi-izenaren lehen erakusgarria 12. mendekoa da (1178, *Muez*, IKA3) eta ohar bedi irakurlea *-e* bokal erdikoa dagoela txistukariaren aurretik; halaber, bokal arteko kontsonante belarra ez da agertzen, ondorengo aipamenetan ez bezala. Izan ere, 16. gizaldiaz geroztik, hiru aldaera erabiltzen dira idazkietan; gehien agertzen dena bokal artean kontsonante belarra eta hitz amaieran *-z* duen *Mugaz* da (1516, HUA7; 1683, HUA28; 1773, VEK1; 1831, DUA2; HUA57, 887 or.; *Mugaz-azpiya* (1920, HUA57, 887 or.); bigarrenik, hitz amaieran *-tz* duen aldaera dugu, *Mugatz* alegia (1773, VEK1B; 1780, HUA39; 1797, HUA41; 1847, JII, 34 or.) eta, azkenik, *-s-* duen *Mugas-erreka* (1970, L.M., 74 or.) dago. Informatzaileei doakienez, *Muas* ([múaskuà], Amu., *l.g.*), *Muaz* ([kantína muáz], Etxol.), *Muatz* ([múàtz], Ek. / [kantína múatz], Etxol.) eta *Muatza* ([múatzà], Pag.) jaso dizkiegu. Sorburua *muga* + *-tz(a*, *e)* dateke eta, alde horretatik, egon, Gipuzkoa-Nafarroetako mugan dago MUGATZ, zehazkiro, Arano-Hernani artean.

MUGITZA[1124]. Honen aurreneko erreferentzia Díezek (1997: 237) Gipuzkoako burdinolei buruz idatzi liburuan dago (*Muguiza*, 1598, *sel*). Beste adibideak ahozkoak dira eta leku genitiboaren hondarkia dutenetan *-e* bokala dago txistukariaren ondoren (*Muitzeko borda* [múitzekò bórdàk], En., Ollok.). Ildo horretan, absolutiboan deklinatzen dutenean *Muitze* ([múitzè], En., Ollok.) ebakitzen dute berriemaleek. Generikoa hondarkirik gabe eranstean, batzuetan, ez dago erdiko bokalaren zantzurik;

[1122] Ik. *AV*, 71.

[1123] Cf. Gesalazko *Muetz* herri-izena edota Abartzuzako *Mugez* oronimoa (Deierrin).

[1124] Donezteben (Malerrekan) *Mugitz* toponimoa dugu (Iñigo (1996: 136) eta Aralarren, berriz, *Muitze* zein *Muitzeko aizpea* izeneko aurkintzak daude (Elosegi, 1972: 146, 151). Bestalde, Sainz Alberok eta Sainzek (2002: 236) *Mugiaitza* toponimoa biltzen dute (*Muguiaiça*, 1666; *Muguiçiça*, 1676; 1992 *Mugiáiz*) Aranaratxen (Ameskoan).

azaltzen denean, irekia da (*Muizgaña* [múizgáñà], En.; *Muixaerreka* [múixaerrekà], Ollok.).

ORENTZUN saroi-izenaren lehenbiziko erakuskaria ere 1598ko da (*Orenzun*; Díez, 1997: 237). Badaude aipamen berriagoak, baina ez dagozkio saroiari, hango mendigainari baizik (*Oentzun*, 1923, *alto*, JMB1, 144 or.). Ahozko tradiziotik *Orantzu* ([orántzù], Amu.), *Orantzun* ([orántzùn], Amu.), *Oantzun* ([oántzundìk], Amu., *abl.*) eta *Orontzun* ([oróntzùn], En.) aldaerak jaso ditugu eta, ikusten den bezala, gehienak berriemaile berak emandakoak dira. Bokal arteko dardakariaren eta amaierako sudurkariaren erortzeak dira aldaketa aipagarrienak, automatikoak direla esateko adina indarrik ikusten ez diegun arren. Toponimoaren etorkia iluna da (Cf. OREITURRIETA eta OREERRIAGA), baina, Salaberriri (2005: 112) jarraikiz, osaketa *Oren* + *-zu* + *[g]un[e]* izan litekeelakoan gaude (Cf. *Oiartzun*).

OSTAKUTZ da gure esparruan *-kutz* segida duen bigarren toponimoa. Zoritxarrez, ez dago idatzizko errferentziarik, testigutza guztiak ahozkoak direlako. Xehetasunetan sartuz gero, informatzaile batek *-e*-rekin ebakitzen du (*Ostakutse* [óstakutsè], Altz.; Lor. b.), beste batek bietara (*Ostakutse* [óstakutsè] / [óstakùtz] / *Ostakus* [ostákus], Lor. b.) eta hirugarren batek *-e* gabe beti; azken horrek, *-ko* zuzenean eransten dio izen espezifikoari (*Ostakutz* [ostákutz], *Ostakusko borda* [ostákuskò bórdà] / *Ostakuzko borda* [ostákuzkò bórdà], Ezk. b.). Aurreneko osagaia *hosto* (*hosta-*) dateke, baina bigarrena zehatz-mehatz nondik datorren ez dakigu eta, jakina, ezta *-tza* dagoen ere.

OTRAITZ toponimoaz kestione, beste ezer baino lehen, argitu beharra dago hemen ere *-tza* berrekailua ote dagoen ez dela gauza segurua, idatzizko erakusgarri bakarra erratua delako (*Otram*, 1554, EUA2, 122 or.). Informatzaileek *Otraitz* ([otrái̯tz], Id.) zein *Otraizko txabola* ([otrai̯zko txábolà], Id.) darabiltzate[1125]. Aurreneko osagaiaren jatorria ez da agerikoa eta bigarrenarena, *-(a)itz*-ena alegia, *haitz*-ekin nahiz *-tza*-rekin egon daiteke lotua (cf. ERKATZA).

[1125] Cf. *Otraitzborda* (1989, OM).

TARTATZU[1126] oronimoaren idatzizko lekuko bakarra 1920. urteko agiri batean kausitu dugu; gaztelaniazko plural morfema du (*Tartazus*, 1932, HUA57, 923 or.). Informatzaileek *-zu* nahiz *-tzu* dituzten aldaerak darabiltzate (*Tartazu* [tártazù], And.; *Tartatzu* [tártatzugañà], Altz.) eta, hain zuzen, *-tzu* forma ikusirik, oinarria kontsonantez amaitzen dela pentsa daiteke, baina *tarta-* fitonimoarekin ere izan dezake lotura[1127].

TXIGILLAMAZU oikonimoak *-zu* berrekailua duela ez da gauza ziurra, ALTZUETA (ALTZUETAZAR) baserriaren izengoiti honen ahozko aipamen bakarra dagoelako (*Txigillamazu*, 1989, HUTB) eta hain informazio gutxirekin etorkia argitzea zaila delako. Zernahi gisaz, badaezpada ere, azpiatal honetan sartzea erabaki dugu.

Begira diezaiogun orain URRUZUNO toponimoari. Hango burdinolen aipamen zaharrenak 1467. urteko agiri batean daude[1128] (*Urruçuno*, *Urruçuno de Suso*, *Urruçuno de Yuso*, HUA5) eta harrezkero, zorionez, askotan aurkitu dugu idatzizko iturrietan. Bukaerari erreparatzen bazaio bi talde bereiz daitezke, *-uno* dutenak[1129] (1516, HUA7; 1595, HUA10; 1607, HUA23; 1607, HUA23; 1610, HUA25; 1683, HUA28[1130]; 1769, HUA37; 1769, HUA37; 1780, HUA39; 1797, HUA41; 1838, *valle* , DUA5; 1936, HUA57, 188 or.) eta, bestetik, *-una* dutenak[1131] (1833-1835, DUA3; 1773, VEK1; 1773, VEK1B; 1797, HUA41; 1843, HUA43; 1864, HUA47; 1857, HUA48, 47 or.; 1898, EGZ; 1911, IM; 1920, HUA57, 397 or.; 1920, HUA57, 887 or.; 1921, HUA57, 169 or.; 1937, AB; 1983, GFA2). Badira salbuespenak, azken bokala falta duten (*-una* / *-uno* > *-un*) *Urruzun*[1132] (1683, HUA28; 1864, HUA47), edota erratua dirudien *Urrozonia* kasu (1863, URU, 152 au.). Ahozko tradizioan *-una* bukaera duten formak besterik ez ditugu jaso (*Urruzuna* [úrruzuná], Amu.; *Urrusuna* [úrrusúna], Ol.; *Urruzuna goiko* [úrruzunà

[1126] *Tartazu* izeneko bi mendi-bizkar daude Zubietan (Malerrekan). Goizuetan ere *Tartazu* auzoa dago. Ikus Iñigo (1996: 412).

[1127] Azkueren hiztegiaren oinatzetan (*DEVF*, 1001), pentsa daiteke *Tartazu* toponimoak *tarta* ('sasi') izenean duela jatorria.

[1128] 18. mendekoa dirudien kopian *Urruzuno* erabiltzen da (HUA6).

[1129] Sail horretan *Verruzuno garaicoa* (1625, LMI, 234 or.), atzeranzko asimilazioa erakusten duen *Urrusono* (1773, VEK1A) / *Uruzono* (1773, VEK1A) nahiz *-eno* bukaera duten *Urruceno de yuso* (1833-1835, DUA3), *Urruzena de* yusso (1833-1835, DUA3) eta *Urruceno de suso* (1833-1835, DUA3) ere sar daitezke.

[1130] Dokumentu berean *Urruzun* forma irakurtzen da hiru aldiz.

[1131] Horiekin batera *Urruzunaburua* (1797, HUA41) eratorria ere bai.

[1132] Hiru aldiz erabiltzen da.

gói̯kò], Bezk.; *Urruzunaiko* [úrruzunái̯ko], Bezk.). Eskuartean ditugun datuek garbiro azaltzen digute jatorrizko bukaera *-uno* dela, *-una* duten aldakiak berriagoak direlako (18. mendekoak). Horrenbestez, *-uno* eta *-una* osagarriak edo parekoak direla uste izateko arrazoirik ez dago. *-Uno* formak *-(k)u(n)e* paratzizkian izan dezake jatorria (*hurritz* + *une*), baina, era berean, *-no* txikigarria egon liteke azpian, oinarria *Urruzu-*balitz (*hurritz* + *zu* + *-no*), litekeen bezala.

USABELARTZA oronimoak 17. mendeko lekukotasunak ditu. Aurrenekoa Isastiren 1625ko liburuan dago (*Usaberarra*, 1625, LMI, 230 or.) eta bigarrenak hiru urte gehiago ditu; erratu itxura du (*Usabaraza*, 1628, DUA1). 18. gizaldiko iturrietan ere bokal erdikoaren ondoren dardarkari ahularekin irakurtzen da (*Usauerarza*, 1764, AT, 233 or.; *Usaberarza*, 1784, ML, 56 or.), baina 19. eta 20. mendeetan, *-r-* > *-l-* aldaketaren adibideak daude; zenbait aipatuko ditugu, adibidetzat: *Usabelarza* (1848, AT, 233 or.; 1909, AT, 233 or.; 1916, AT, 233 or.), *Usabelarsa* (1897, AT, 233 or.), *Usobelartza* (1983, D.F.G.2). Berebat, Iztuetaren liburuan dagoen *Usabaratza* (1847, JII, 34 or.) salbuespena nabarmendu behar da, besteak beste, 1625. urteko aipamenaren erreplika dirudielako. Ahoz, bokal arteko ezpainbikoaren erorketaren lekuko diren *Usaelartza* ([usáelartzà] / [úsaelartzá], Amu.), *Usolartza* ([úsolartzà], Ek.) eta *Usalartza* ([úsalartzà], Mari. 2) jaso ditugu guk, eta *Usabelartza* (1989, UUTB) forma ere zerrendatua dago. Toponimo honen oinarrian *uso* (eratorketan *usa-*) eta *belar* izenak daudela irudi du, baina badira, alde horretatik, zenbait puntu gogoan eduki beharrekoak. Lakoizketak (1994 [1888]: 199), esate baterako, *uso belarra* izena hiru hostoko belarrari dagokiola biltzen du (*Trifolium pratense*), baina San Martinek (1974: 267, 275), aitzitik, lehen osagaiak 'herri basoa' ('comunal') adiera duela esaten du. Ildo beretik, Sánchezek (1985: 335) *La Usa* eta *Usa* (Saseta) aipatzen ditu Argantzun inguruan, "ejido, campo o monte común de los pueblos" adiera zuketenak. Etorki hori egiaztatatuko balitz, esanahiaren aldetik, gure esparruko ZILLEGIren sailekoa litzateke, beraz.

UZTARTZA[1133] saroiaren idatzizko erakusgarri zaharrena 12. mendekoa da, 1178. urtekoa hain zuzen (*Urtarzando*, IKA3), gainerako aipamenak ahozko tradiziotik bildu baditugu ere (*Uztarza* [úztarzà], En.; *Ustarzaerreka* [ústarzaerrekà], En.; *Uztartzako*

[1133] Cf. *Uztaritze* herri-izen lapurtarra.

zokua [uztártzakò zókuà], Ezk. b.). Estreinako agerraldiari dagokionean, Gorrotxategi Txurrukari (1995b: 750) eta Salaberriri (2005: 115) jarraikiz, bigarren osagaia *-ndo* txikigarria delakoan gaude, are gehiago saroi-izena dela aintzat hartuz gero, jakina baita saroi handiak eta txikiak zeudela.

-Tz(a, e) eta *-zu* atzizkiak dituzten toponimoekin amaitzeko, ZUELKEZU oronimoa aztertuko dugu. 16. mendeko bi erakuskari dauzka eta batek *-ço* du amaieran (*Çuelqueço*, 1554, *otero de*, EUA2, 122 or.), besteak *-çu* badu ere (*Çuelqueçu*, 1595, HUA10). 17. gizaldian *Zuelquezu* (1683, HUA28) zein *Zubalquizu* (1628, DUA1) salbuespena kausitu ditugu eta 18. mendean gauzak ez dira asko aldatzen berrekailuari dagokionean, *Suelcazucomuga* (1773, VEK1A) lekuko. Ahozko tradizioan *Zuarkazu* ([zúarkazù], Bentatx., Larra.) eta *Zuelkazu* ([zuélkazú], Id.) aditu ditugu guk eta *Zuerkazuko gaña* (1989, HUTB) forma ere gordea dago; nabarmentzekoa da azken hiru etsenpluetan txistukari igurzkaria azaltzen dela amaieran eta bi adibidetan *-l-* > *-r-* aldaketa ikusten dela. *Zuelke*-ren jatorria iluna da, baina haren bigarren osagaia *elke* (*elge*) terminoarekin egon daiteke lotua.

Gure esparruan *-tz(a, e)* atzizkia 12. menderako lekukotzen da[1134] (*Guaragarze*, 1178). Idatzizko tradizioan *-tz(a, e)* eta *-(a)itz(a, e)* aldaerak aurkitu ditugu, baina zehaztu beharra dago *-(a)itz(a, e)* duten etsenpluak urriak eta berandukoak direla (1797-1833). Bada beste arazo bat, aski axolazkoa: 17. gizaldian *-zu* dena *-tz(a, e)* bihurtzen da aurrerago kasu batzuetan, ERKATZA / ERKATZU lekuko; ez hori bakarrik, bi aldaerak aldi berean erabili baitira. Bestalde, eta hustu ditugun iturrien arabera, ahozko tradizioan *tz* duten formak *z* dutenak baino gutxiago baliatzen dira (EZTEIZA, ZUELKEZU), bitariko erakusgarriak dituzten toponimo batzuk badiren arren, UZTARTZA eta TARTATZU adibidez. Oinarritako erabili hitzei erreparatuz gero, gehienak landare-izenak dira (*ereinotz*, *garagar*, *ihar*, *usobelar*, *-elke*, *tartaka*?) eta termino geografikoak ere egon litezke tartean (*muga*?). *Ançumeziar*-ek, azkenik, artzaintzarekin lotua dirudi.

[1134] Agian *Muez* (1178, IKA3) eta *Urtarzando* (1178, IKA3) aipamenetan ere bai.

Caro Barojak (1980: 162-165) eta Mitxelenak (1989: 569, 570, 622) *-tza* / *-zu* bikoari ematen dioten ugaritasun zentzua agerikoa da franko aldiz, baina, Salaberrik (2004c: 1132; 1997b: 18-26) azpimarratu bezala, beste batzuetan ez da hain erraz antzematen. Gurean ZUELKEZU oronimoa dateke Uxueko irakasleak dioenaren erakusgarri bat.

Mitxelenak (*FHV*, 500) iradokitako sartalde (*-tza*) / sortalde (*-tze*) banaketa ez da gure esparruan egiaztatzen, bitarikoak duadelako eta, hain zuzen, behin baino gehiagotan, *-tze* formak deklinabideko loturazko bokalaren eraginez sortua dirudielako. Salaberrik (1995: 28-31) egiaztatu moduan, garbi ikusten da *-itz(a*, *e)* aldaera *-tz(a*, *e)* jatorrizkoaren bilakaera dela. Errenteriako maisuarekin (*FHV*, 111) jarraituz, *-tza*, / *-tze* atzizkia interesgarritzat jotzen du hark, aditz-izenak sortzen dituen *-tze*-ren berdina izan daitekeelako jatorriz. Araba mintzagai duten 11.-13. gizaldietako idazkietan *-ça(h)a* / *-za(h)a* irakurtzen da sarritan eta hortik ikusten du *-tza*-ren sorburua. Manterolaren (2006: 674) iritziz, ordea, *-ça(h)a* / *-za(h)a* formaren oinarrian *-za*, ezaguna dugun atzizkia eta, *-ha* genituzke, hots, artikuluaren forma arkaikoa.

Fonética Histórica Vasca maisulanaren aurreneko edizioan (286) *-zu* eta *-tsu* atzizkiak bereizten ditu Mitxelenak (ugaritasunezkoak biak), baina, beranduago berak aitortu moduan, banaketa ez da beti batekoa, historikoki bederik (*FHV*, 542-543). Toponimiari erreparatzen badiogu ikusiko dugu antzina atzizki bakarra zegoela: *-zu*. Hortaz, *-tsu* berrikuntza da, behinola inguramenduekiko zuen menpekotasuna galdurik, *-zu* ordezkatzen joan dena; azken hau, zeina hiztegi arruntean forma zaharkitu gisa baino ez da gorde (*FHV*, 543).

Gorrotxategik eta Lakarrak (2001: 431-432), bestalde, *-z-u* segidak ‘plurala + tokia’ adierazteko balio zukeela uste dute, eta eskuarki toponimian erabili dela gehitzen dute. Salaberrik (2005: 109, 112), azkenik, *-tsu*, *-zu* atzizkia duten izenez ihardukitzean, gure esparruaren mugan dagoen *Oiartzun* toponimoak *oihan* (*oihar-*) + *-tsu*, *-zu* + *-un* (lokatiboa) egitura duela zehazten du[1135].

[1135] *Gorrotxategi* (2006: 117).

Aldaera ezberdinen diagrama

21.							
	-tzu/ -zu	-tza	-tze	(a)itze(-)	-(a)tz/	-(a)tze-	-tz?/-z?
1989	*-tzu/ -zu*	*-tza*			*-(a)tz/-(a)z*	*-(a)(a)tze--*	
1900	*-tzu/ -zu-*	*-za*		*-(a)itz/-(a)iz*	*-(a)tz*	*-(a)tze?*	*-z?*
1800	*-zu*	*-za/-sa*		*-(a)itz/-(a)iz*	*-(a)tz*		*-tz/-z?*
18.-19.	*-zu*	*-za*		*-(a)iza*			
1700	*-zu*	*-za/-tza*			*-(a)tz*		*-tz /-z?*
1600	*-çu/-zu*	*-za*					*-z?*
16.	*-çu -ço*	*-ça*			*-(a)s*		*-z?*
1400	*-çu*	*-ça*					
12.		*za?*	*-ze*				*-z?*

8.3.3.7. *-(R)ena* (*-[e]nea*) atzizkia

ALKITZENEKO MUNTOA oronimotik hasiko gara *-(r)ena* (*-[e]nea*) duten toponimoak aztertzen. Oraingo honetan berri bakarra ahozkoa da (*Alkitzeneko munttua* [álkitzenekò múnttuà], Txim.), baina aski da lehen zatia *Alkitza* herri-izena dela jabetzeko. Elkargunean *-a +-ne- > -ene-* asimilazioa egon da, horrenbestez.

ALTZAIRUNEA oikonimoaren bi erakusgarriak ere belarriz bilduak dira. Ale batean *-ea > -ia* ikusten da amaieran, baina bestean ez da disimilaziorik egon, informatzailearen jarrera gordetzaile edo arkaizanteagatik edo; izan ere, aipatu aldaketa ia automatikoa da bertako euskaran (*Altzairunia* [áltzaı̯runià], Pag., Txim.; *Altzairunea* ([áltzaı̯runeà], Bezk.). Lehen osagaia *Altzairu* metal izena dela pentsa daiteke, idatzizko aipamenik gabe egiazki horrela dela ezin ziurta badaiteke ere (cf. ATXERUAENEA).

ANTSONEKO BORDA. Aurreko bi kasuetan bezala, honen berri informatzaile batek eman digu (*Antsoneko borda* [ántsonekò bórdà], Lor. b.). Erroa *Antso* pertsona-izena da, baina Urnietako ANTSO baserri-izenarekin zerikusirik ez du.

AÑOENEA saroi-izenaren aurreneko agerraldia 1794-1803koa da eta *-ea* segidaren zantzurik ez dago amaieran (*Añon*, *sel*, NAO[1136]). Hurrengo bi etsenpluak 1960. urtean kausitu ditugu (*Añoenea*, 1960, LPB, 95 or.; *Añona'ko lepoa* (1960, LPB, 96 or.) eta, bi agerraldi horien karietara, diogun lehenbizikoak zaharkitua ematen duela eta bigarrenak, haatik, ahozko tradiziotik hartua. Toponimoaren aurreneko osagaia gure esparruko AÑOA toponimoan azaltzen den *año-* dateke.

ARANATXENEA baserri-izenari lotuko gatzaizkio jarraian. Aipamen guztiak ahoz bilduak dira (*Anatxene* [anátxenè], K.), *Anatxenia* [anátxenià], Mik. / [ánatxenià], Mik.; *Anatx* [ánàtx], Pard. g. 2; *Aanatxen borda* [aánatxèn bórdà], Ek. / [áanatxèn bórdà], Larr.; *Aranatxen txabola* [áranatxèn txábolà], Ek.) eta, ikusten den moduan, bokal arteko dardarkariaren erortzea, hitz amaierako *-ea > -ia* hersketa eta *-ene(a)* / ∅ aldizkapena dira ezaugarri garrantzitsuenak. Lehen osagaia Nafarroako *Aranatz*

[1136] Errege-auzitegiak, prozesuak (epaiketak), 156972 zenb.

(*Arantza*) herri-izena da, *Aranatx* hipokoristikoa eman duena, handik etorri baitziren Urnietara baserrian bizi direnen arbasoak (cf. ALKITZENEKO MUNTOA).

ARBELAITZENEA. Hiru dira gure esparruan izen hori duten etxeak, hirurak Hernanikoak. Hirigunean kokatzen zena, *Arbelaizene* ([árbelai̯zenè], K.) alegia, desagertua dago (64-30-1), baina Ereñotzu auzoko biek zutik diraute. Horietako baten aurreneko erreferentzia 19. mendekoa da, 1864. urtekoa hain zuzen (*Arbelaizenea*, 1864, HUA47) eta 20. mendean beste hiru agerraldi ditu idatzizko iturrietan (*Arbelaiz-enea*, 1920, HUA57, 99 or.; *Arbelaitz-enea chiqui*, 1932, HUA57, 604 or.; *Arbelaitz Enea*, 1983, GFA2). Berriemaileek *-enea* gabe ebakitzen dituzte biak (64-30-1; *Arbelaitz* [árbelài̯tz], K; 64-38-3; *Arbelaitz* [árbelài̯tz], K. / [árbelà̯i̯tz], Txil.; *Arbelaiztxiki* [árbelai̯ztxikì], K. / [arbélai̯ztxikì], Txil.). Esan gabe doa oinarrian *Arbelaitz* deitura dagoela (*harbel* + *haitz*).

ARTZAIANEA (‘artzaina bizi den etxea’) oikonimoak bi erakusgarri ditu gure esparruan, bata Urnietan eta bestea Hernanin. Urnietakoaren lehen erreferentzia 1942. urteko mapa batean topatu dugu, baina erratua du amaieran (*Artzayaina*, 1942, IGC1). Gainerako idatzizko etsenpluak ere kartografian aurkituak dira eta zuzena den bakarra *Artzayanea* (1960, GS) da. Belarriz *Artzayania* ([ártzayanià], K. / [ártzayaniá], Mik.) eta *Artzayenia* ([ártzayeniá] / [ártzayenía], Mik.) bildu ditugu Urnietan, eta Hernanin, berriz, *Artzayania* (1989, HUTB) dago jasoa. Elkarguneko *-a* + *-nia* > *-enia* asimilazioa nabarmendu nahi dugu, hitz amaierako hertsitzeaz gainera (*-ea* > *-ia*).

ATXERUANEAz mintzatuko gara jarraian (‘pertsona indartsua bizi den etxea’). Honen aurreneko bi aztarnak 19. mendeko idazkietan kausitu ditugu eta *-ea* > *-ia* hertsitzea ikusten da bietako batean hitz amaieran (*Acheruania*, 1855, UEA1; *Acheruanea* (1857, HUA48, 70 or.). 20. gizaldian ez dago forma disimilaturik, *Acheruane* (1939, UUA11) artikulugabea eta *Acheruanea* (1942, IGC1; 1953, IGC2; 1962, UTC; 1981, SGE) / *Atxeruanea* (1960, GS) azaltzen batira agirietan. Ahoz forma bat baino gehiago jaso ditugu, zehazkiro esanda, *Atxerunea* ([átxerunéa], Amu.), *Atxoania* ([atxóanià], Larr.), *Atxoronia* ([atxóronía], Mik.), *Atxorrenia* ([atxórreniá], Mik.), *Atxorronia* ([atxórroniá], Mik.), *Atxeruan borda* ([atxéruàn bórdà], Larr.),

Atxeruanetxola ([átxeruanétxolá], Amu.) eta *Atxeruan txabola* ([átxeruàn txábolà], Amu., Ek.); *Atxerunia* (1989, UUTB) ere zerrendatua dago. Garbi dago, honenbestez, informatzaile berak aldera bat baino gehiago darabiltzala eta batzuetan ez dagoela *-nea*-ren zantzurik. Lehen osagaia gure esparruko ahozko tradizioan 'indartsu' esanahia duen *atxeru(a)* da (cf. gazt. *macero*).

BELAMENDIANEAren aipamen bakarra ahoz bildua da eta, espero izatekoa zenez, hitz amaieran *-ea* > *-ia* herstea erakusten du (*Belemendiyania* [belémendiyanià], Ek.). Gurean ez da oso toponimo ezaguna, baina, nolanahi ere den, *Belamendia* deitura da oinarria.

BETERINARIOANEA oikonimoaren erreferentzia bakarra ere belarriz bildua da (*Betenayuania*, 1989, UUTB); *-ario* + *-a-* > *aioa* > *-ayua-* zein *-ea* > *-ia* dira aldaketa garrantzitsuenak. Lehen osagaia *betenayua* (< *beterinarioa*, 'albaitaria) ogibide izena da.

BIZKAINEA. Aurreko bi kasuetan bezala, baserri-izen honen lekukotasun guztiak berriemaileek eman dizkigute, bai *-ea* > *-ia* disimilazioa erakusten duen *Bizkainia* ([bízkaịnià], En), bai amaieraren aldetik gordetzailea den *Bixkainea* ([bixkaịnéa], Ollok.). Badaude zati generikoa erantsita duten adibideak, izan edutezko genitiboarekin (*Bizkain borda* [bízkàịn bórdà], En.) izan lekuzkoarekin (*Bizkaineko borda* [bízkaịnekò bórdà], En.). Etxeko biztanleen jatorria adierazten duen *Bizkai(a)* makrotoponimoa da oinarria (cf. ARANATXENEA).

Begira diezaiogun orain BORTTOLUANEA baserriari. Lehen erreferentziak 19. mendeko dokumentazioan aurkitu ditugu. Ñabardurei begiratuz gero, alde batetik, *-ea* > *-ia* hersketa adierazten duten *Bortoluania* (1843, HUA43; 1848-1850, HTR4, 10 au.; 1863, URU, 145 au.; 1864, HUA47), *Bortoluánia* (1857, HUA48, 45 or.) eta *Bortolunia* (1863, HRU, 40 au.) formak daude bildu ditugun aipamenen artean eta, bestetik, *-nea* gabeko *Bortolo chiqui* (1864, HUA47). 20. mendeko erakuskari asko daude idazkietan eta deigarria da gehienek *-nea* izatea, eta ez *-nia* (*Bortoluanea-borda*, 1920, HUA57, 369 or.; *Bartolonea*, 1960, GS; *Bortoloenea*, 1936, HUA57,175 or.; *Bortoluania*, 1983, GFA2). Belarriz *Borttoluania* ([borttóluanià], K.), *Borttulania*

[borttúlanià] (Larr.) eta *Borttoluan borda* ([borttóluàn bórdà], Ek.) bildu ditugu guk eta *Bortoluenia* (1989, HUTB), *Bortoluaenea* (1989, HUTB) zein *Bortoluania* (1989, HUTB) formak ere zerrendatuta daude. Erroa zehazkiro *Borttolu* edo *Borttolua* mugatzaileduna den ez dakigu, baina argi dago *Bartolo / Bortolo* izen berezian duela iturburua. Esan dezagun, hitzak hizpidea ekarrita, badirela gure esparruan *Bartolo / Bortolo* pertsona-izenarekin zerikusia izan dezaketeen beste bi forma, *Borcholondegui* (1854-1855, HTR7, 19 r.) eta *Borttolotia* ([bórttolotià], Pard. g. 1). Aurrenekoari dagokionez, sudurkaria *-nea*-ren aztarna izan liteke (**Borttoluan[e][a]* + *-degi*); eta bigarrenean *Borttolo*-k *lote* generikoa zuzenean hartu duela begitantzen zaigu (cf. BIZKAINEA eta ARANATXENEA).

DOLOREENEA[1137]. Lehen zatian *Doloex* hipokoristikoa (gazt. *Dolores*) duen toponimo honen erakusgarri bakarra ahozkoa da; beste behin *-ea* > *-ia* disimilazioa dugu hitz amaieran (*Doloexenia*, 1989, HUTB), horrela egiten baita bertako euskaran.

Gagozkion orain DONFERMIÑENEA oikonimoari. Aipamen zaharrena 19. mendekoa da, 1843. urtekoa hain zuzen (*Don-fermiñenea*, 1843, HUA43) eta 20. gizaldian beste bi lekukotasun daude (*Donfermiñenea*, 1920, HUA57, 741 or.; 1937, AB). Berriemaileek, bestetik, *Donfermiñene* ([donférmiñenè], K.) artikulugabea ebakitzen dute. Bistakoa da oinarria *Don Fermin* antroponimoa dela, baina, damurik, ez dakigu nor zen gizaseme hura (sendagileren bat?, maisuren bat?).

EGAÑANEA. Bi dira Hernanin *Egaña* (*hegi* + *gaina*) deituran jatorri duten etxe-izenak, bata PORTU auzoan eta bestea hirigunean. PORTU aldekoaren aurreneko erreferentzia 19. gizaldikoa da eta *-ea* > *-ia* ikusten da amaieran (*Egañania*, 1833-1845, HGR3, 49 au.); badago 20. mendeko idatzizko erakusgarri bat ere, disimilatugabea hura (*Egañanea*, 1932, HUA57, 10 or.). Ahozko tradizioan *Egaña* ([égañà], [égañà txíkì], K.) zein *Egañania* [égañanià] (K.) zerrendatu ditugu guk, eta *Eañania* (1989, HUTB) eta *Eaña txiki* (1989, HUTB) formak ere transkribatuak daude. Guztiz ere, *-nea* gabeko adibidea azpimarratu nahi dugu, eta *-ea* > *-ia* hertsitzeaz landara. Herriguneko

[1137] Hernaniko hirigunean behinola bazen DOLOREENEA izeneko etxea (64-29-4).

oikonimoari datxekionez, *Egañania* (1989, HUTB) eta *Eañania* (1989, HUTB) aipamenak ezagutzen ditugu.

ELIZALDENEA. Agerraldi zaharrenak 19. mendekoak dira; aurrenekoa 1843. urtekoa da eta ez dago *-nea*-ren zantzurik, baina bigarrenean, 1864. urtekoan alegia, bai (*Elizalde*, 1843, HUA43; *Elizaldenea*, 1864, HUA47). 20. gizaldiko idatzizko lekukotasun bakarra *Elizalde Enea* (1983, GFA2) da eta ahoz *Elizaldene* ([elizaldéne], Ek.) artikulugabea jaso dugu. Agerian denez, erroa *Elizalde* deitura da ('Elizaldearrak bizi diren etxea', 'Elizaldearren etxea').

ERREPILLENEKO MUNTOA oronimoaren berri ere informatzaile batek eman zigun (*Errepilleneko munttua* [errépillenekò múnttùa], Txim.). Aurreko kasuan ez bezala, oinarritako erabili izenaren nondik norakoa iluna da.

ETXABENEA. Ihartutako toponimoa da, 1932. urtekoa aipamena baizik ez duena (*Echabenea*, 1932, HUA57, 282 or.). Ohar bedi irakurlea hitz amaieran disimilazioaren zantzurik ez dagoela, 20. gizaldiko lekukotasuna izan arren. *Etxabe* oinarria deitura da kasu honetan.

EZKERRANEA oikonimoari lotuko gatzaizkio segidan. Urnieta aldean aski ezaguna den baserri honen idatzizko lehen adibideak 19. mendekoak dira. Estreinakoa 1855. urtekoa da eta *-ea* > *-ia* dugu hitz amaieran (*Ezquerrania*, UEA1); bigarrenak dardarkari ondoren *-o-* bokala eta *-ea* hiatoa ditu, baina hori behin bakarrik gertatzen da begiratu ditugun iturrietan (*Ezquerronéa*, 1857, HUA48, 71 or.), 20. gizaldian ere *Ezquerranea* (1945, UUA15; 1979, UUA20) topatu baitugu. Belarriz *Exkerrania* ([exkérranià], K. / [exkérranekuà], Ai., *l.g.*) sabaikaritua, *Ezkerrania* ([ézkerranià], Larr. / [ezkérraniá], Mik. / [ezkérranekuà], Ai., *l.g.* / [ézkerranekuá], Po., *l.g.*), atzeranzko asimilazioa erakusten duen *Ezkerreneko zubik* ([ézkerrenekò zúbìk], Larr.) eta, *-nea*-ren ordez *-n* (*-ren*) duen *Ezkerran borda* ([ézkerràn bórdà], Larr.) jaso ditugu. Ematen du lehen osagaia *Ezkerra*[1138] dela, baina hurbileko mugatzailea duen *Ezkerro* egotearen

[1138] Mitxelenak (1969: 16), esate baterako, *Belasco Esquerra de Bagaiuarr* (1225. urtea) pertsona-izena aipatzen du.

aukera ezin da erabat baztertu. Bidenabar, gure esparruko *Ezquerra malda* (1860-1862, HTR10, 33 au.) / *Ezquerra-malda* (1920, HUA57, 812 or.) (Her.*) eta *Ezkerren borda* ([ezkérrèn bórdà], Lor. b.; 64-55-4, Ar.*) toponimoak aipatu nahi ditugu, kokapenaren aldetik aurrekoarekin zerikusirik ez badute ere.

GOÑITEGINEA baserri-izenaren aipamena guztiak ahozkoak dira. Gure aldetik *Goñiteinia* ([góñiteı̯nià], K.) bildu dugu, baina *Oñatienia* (1989, UUTB) eta *Gointene* (1989, UUTB) formak ere gordeak daude. Beraz, *-egi* (*-tegi*) eta *-nea* elkarren jarraian doaz eta hori ez da ohikoa gurean. Lehen osagaia *Goñitegi* da, *Goñi* zati espezifikoaz eta *-egi* atzizkiaz osatua dagoena, batura *Goñitegi* + *-nea* edo *Goñi* + *-(t)egi* + *-nea* den argi ez badago ere.

Uki dezagun orain GURMENDIA IRASUNEAZPIKOA toponimo ihartua. Honen aztarna bakarra 18. mendeko idazki batean dago, 1773. urtekoa den mapa batean hain zuzen (*Gurmendia de Yrazusune aspicoa*, 1773, VEK1B). Amaieran *-nea* dagoen ala ez jakitea zaila da aipamen bakarrarekin, are gehiago *Yrazusu-* erroaren jatorria ere iluna denean. Alabaina, hipotesia da azken hori *Irazu* (*Ira* + *-zu*) izen espezifikoarekin lotua dagoela eta amaieran *-nea* (*-[r]ena*) berrekailua, edota, agian, *-(g)une* paratzizkia. Aurreneko zatiaren karietara, diogun badela gure esparruan *Gurmendi* (1921, HUA57,193 or.; 1936, HUA57, 187 or.) toponimoa (< *egur* + *mendi*), baina ez dakigu bertako izena ala kanpotik iritsitako deitura den[1139].

IZKOANEA. *Ixkua* / *Izkoa* (‘idiskoa’) ezizenean nahiz *Izko*, *Izkue* herri-izen / deituretan oinarri bide duen oikonimo honen berriak ahozkoak dira. Arrunki erabiltzen den formak *-ea* > *-ia* disimilazioa erakusten du (*Ixkuania* ([ixkúanià], K.), baina *Izkuenea* ([ízkuenéa], Fag.) ere entzun dugu, gure galderei erantzuteko.

JEXKERANEA baserri-izenaren berri guztiak ere berriemaileengandik datozkigu. Zehazkiro esanda, gure aldetik *Jexkerania* ([jéxkeranià], K.) transkribatu dugu, eta *Jeskerania* (1989 UUTB) forma ere zerrendatua dago. Informatzaile baten arabera

[1139] Andoainen bertan (Eleizalde 1922: 440) eta Zarautzen (1995, ZM) *Gurmendi* izeneko baserriak daude.

(Bark.) oinarrian **Jexkera* apelatiboa dago (< *jaitsi*), zuhaitzetara igotzen eta jaisten trebezia aparta zuen gizasemearen ezizena alegia, baina, gure iritzi apalean, azalpen horrek ez du ez bururik ez hankarik.

JOXEPENEA toponimoa ez da dokumentazioan ageri, bai, ordea, ahozko tradizioan. Aldaera artikulugabea gailentzen da (*Joxepene* [jóxepenè], K. / [jóxepené], Ek.) eta, diogunaren lekuko, informatzaile batek aipatu *Joxepania* ([jóxepaniá], Larr.) da salbuespen bakarra. Lehenbiziko zatia, zehatz-mehatz, *Joxepe* (*Josef*) edo *Joxepa* (*Josefa*) den ez dakigu, baina aurreneko aukera egiantz handiagoakoa begitantzen zaigu, oinarritako erabili emakumezkoen izenak gizonezkoenak baino urriagoak direlako, gure esparruko toponimian oro har, eta oikonimian bereziki.

JUSTONEKO MALDA. *Justo* pertsona-izena lehen osagaitzat duen oronimo honen erakusgarri bakarra dago (*Justoneko malda* [jústonekò máldà], Last. b.). Dakigula, gurean ez dago **Justonea* izeneko baserririk eta, horrenbestez, beste herri bateko eraikuntza izan litekeelakoan gaude. Erabilpen murritzeko toponimoa ematen du.

KAIXERRENEA[1140]. Sorburua *Kaixer* hipokoristikoan (< alem. *Kaiser*) duen oikonimo honen etsenplu bakarra ahozkoa da eta *-ea* > *-ia* dugu hitz amaieran (*Kaixerrenia* [kái̯xerrénià], An. 1). *Kaixer* (Jabier Urdangarin Etxeberria) pertsona ezaguna izan zen oso Urnietan 20. mendearen erdi aldean.

KANPANDUJA(NEA) aztertuko dugu orain. Toponimo ihartua da, eta ez da harritzeko, baserria aspaldi samar desagertu baitzen. Lehenbiziko lekukotasuna 18. gizaldiaren amaierakoa da eta hitz bukaeran ez da *-nea* ageri (*Campanduja*, 1794-1831, UGR3, 18 au.). 19. mendean, ordea, bitarikoak daude, berrekailua dutenak (*Campandugania*, 1831-1845, UGR4, 26 au.) eta ez dutenak (*Campanduja*, 1831-1845, UGR4, 22 au.); 20.ean ere askotariko formak daude: bukaera disimilatugabea dutenak (*Campandojanea*, 1941, UUA1OC; 1951, UUA18; *Campodojanea*, 1951, UUA18), *-ea* > *-ia* hersketa izan dutenak *Campandojania* (1951, UUA18) eta, azkenik, badira atzizkirik ez daukatenak ere (*Achuarria o Campandoja*, 1951, UUA18; *Achuania o*

[1140] Ikus BARKAIZTEGI.

Canpandoja, 1951, UUA18; *Campandoja*, 1951, UUA18). Ahozko tradizioari dagokionez, *Kanpandojania* (1989, UUTB) forma dago gordea. Aurreneko osagaia *Kanpanduja* sagar-izena da, gaztelaniaz *Reineta del Canada* izenaz ezagutzen den fruitua, alegia.

KARKULONEA oikonimoaren erakuskari bat topatu dugu. Ahozkoa da eta, espero izatekoa zenez, *-ea* > *-ia* disimilazioa ikusten da, horrela egiten delako bertako euskaran (*Karkulonia* [kárkulónià], Altz.). Izengoiti itxura du[1141].

KARLOSENE eraikinaz kestione, ahozko lekukoa baino ez dago, mugatzailea falta duena (*Karlosene* [kárlosenè], K. / [karlósenè], Erm.). Esan gabe doa oinarria *Karlos* pertsona-izena dela.

KARPONEAren lekukoak ere belarriz bilduak dira. Oraingoan, halere, aurrekoan ez bezala, *-enea* / Ø amaierak txandatzen dira (*Karpone* [kárponè], K.; *Karpo* [kárpò], Am.). Uste izatekoa da lehen zatia *(Poli)karpo* izenarekin dagoela lotua, baina, idatzizko argibiderik gabe, ezin dugu hori horrela dela egiaztatu.

KAXKATXURINEA. Lehen osagaitzat *Kaxkatxuri* ezizena duen toponimo honen mostra bakarra ahozkoa da (‘ilezuria duen pertsona bizi den etxea’). *-Ea* > *-ia* hersketa da azpimarragarriena.

Hitz egin dezagun KINTALANEAZ[1142]. Oikonimo honen berriak ere ahoz jasotakoak dira; hain zuzen, *Kintalania* ([kíntalanià], K.) zein *Kintalaneko erreka* ([kíntanalekò érreká] / [kintánalekò érrekà], Ai.) jaso dizkiegu guk informatzaileei, baina *Kinttalania* (1989, UUTB) sabaikaritua ere gordea dago. Aurreneko elementua *kintala* zama-neurria dela aintzat hartuz gero, toponimoak izengoitia ematen du (‘jende behartsua bizi den etxea’?).

[1141] Izen jatorrizkoa *Karabeletxiki* da.

[1142] *Kintalerreka* (*Kinttelerreka*) izeneko ur-ibilgua dago Arrasaten; Ormaetxea (1996: 231). Elosegik (1972: 213), bestalde, *Kinttale-euntze* biltzen du Albiasun (Larraunen).

KOJUANEA. Baserri-izenaren erakusgarri bakarra *-oa-* > *-ua* hersketaren lekuko da; ez da harritzeko, bertako euskaran *kojua* esaten delako (*Kojuania* [kójuanià], An. 1). Cf. MAINGUANEA.

LEGARRETANEA dela eta, diogun, aurreko bi etsenpluetan bezala, deitura batean oinarritutako izena dela[1143] eta erreferentzia guztiak ahozkoak direla. Alde batetik, hitz amaieran *-ea* > *-ia* erakusten duen *Legarretania* (1989, HUTB) dugu eta, bestetik, bokal arteko igurzkari belarra galdu duen *Learretanea* ([léarrétanéa], Txil.); aintzat har bedi azken horrek bukaera gordetzailea duela.

LEITZANEAren idatzizko aipamen guztiak kartografia historikoan aurkitu ditugu. Aurrenekoa 19. mendearen amaierakoa da (*Leizenea*, 1898, EGZ) eta bigarrena, berriz, 1911. urtekoa (*Leizenea*, IM); hurrengo biak 1944. bi mapatan topatu ditugu (*Leicena*, 1944, GHO2; *Leitzena ó Leizanea*, 1944, GHO1) eta azkenekoa 1983. urteko beste karta batean (*Leizaenea*, 1983, GFA2). Ahozko tradizioan, azkenik, *Leitzane(a)* ([léi̯tzanè], K.; [lei̯tzanéa], Bezk.) entzun dugu. Lehen zatia etxekoen jatorria adierazten duen LEITZA toponimo nagusia da, hemen, aski harrigarriro, palatalizaziorik erakusten ez duena. Cf. ARANATXENEA.

LERTXUNANEA oronimoari doakionez, lehenbiziko lekukotasuna 1925. urtekoa da (*Lerchunanea*, UUA3) eta gainerakoak, berriz, 1951. urtekoak (*Lerchunenea*, UUA18; *Lerchurenea*, UUA18). Berriemaileei, bestalde, hitz amaieran *-ea* > *-ia* adierazten duen *Lertxunania* ([lértxunaniá], Ai. / [lértxunanià], Ai. , Bent.) eta haplologiaren lekuko dirudien (*Lertxunako zulua* [lértxunakò zúluà], Ai., Amu.) aditu dizkiegu. Lehen osagaia *Lertxuna* da (*lertsun* + *-a*), baina ez dakigu ezizena den ala ez.

LINTERNAENEA ihartutako toponimoa da. Aztarna bakarra 19. mende erdialdeko idazki batean dago (*Linternaenea*, 1850-1852, HTR5, 12 au.) eta *-enea* dugu, *-nea*-ren ordez; izan ere, bakanak dira horrelakoak gurean. Lehen osagaia *linterna* terminoa da, baina haren etorkia zein den ezkutukoa da.

[1143] Legarreta deitura ugaria da Aranon.

MAINGUANEA[1144] baserri-izen ezaguna da Urnieta aldean (‘besamotza bizi den etxea’) eta hari begiratuko diogu segidan. Aurreneko agerraldia 18. mendearen amaierakoa da eta elkargunean *-oe-* hiatoa du (*Mangoenea*, 1794-1831, UGR3, 17 au.); hain justu, horixe da *-ua-* hiatoa ez duen idatzizko aipamen bakarra, bai 1855. urtean (UEA1) bai 1857. urteko baserri-izendegian (HUA48, 72 or.) *Mainguanea* dugulako. Aurrekoekin batera, 1925. urtean ezpainbikoaren epentesia erakusten duen *Manigubanea* (UUA3) kausitu dugu. 1931. urtean *Mainguane* (UUA8) mugatzailegabea aurkitu dugu berriz, eta orduz geroztik ere, 20. gizaldian zehar, *Mainguanea* forma irakurri dugu usuenik dokumentazioan (1951, *sembradío*, UUA18; 1951, *herbal*, UUA18; 1951, *manzanal*, UUA18; 1951, *castañal*, UUA18; 1962, UTC; 1981, SGE2). Berriemaileei datxekienez, *Mainguania* ([mái̯nguanià] (K., Amu.) jaso diegu guk, eta *Maingubania* (1989, UUTB) aldaera ere transkribatua dago. Lehen osagaia *maingu* (‘besamotz’) da, Mitxelenak (*FHV*, 159-160) adierazi moduan, euskaraz, maileguetan, *n* + *kontsonantea* multzoaren aurretik *i* garatu dela oroitarazten diguna (*maingu* < lat. *mancus*). Cf. KOJUANEA.

MAIRTZENEKO BORDA / MARTZENEKO BORDA izena duten bi eraikuntzak Aranon daude, baina ez dute zerikusirik batak bestearekin kokapenaren aldetik. Lehenbizikoaren aipamen bakarra (64-56-2) *Martzeneko borda* (OBIE) da eta bigarrenarena (64-63-3), berriz, *Mairtzeneko borda* ([máirtzenekò bórdà], Ezk. b.). Perurenak *Marigartzinea* (*Mari[a] Gartzia*) jotzen du azkenekoaren (*Maiertzene*-ren) sorburutzat[1145].

MAIZENEA[1146]. *Maiz* deituran jatorri duen toponimo honen erakusgarri bakarra 19. mendearen erdi aldeko dokumentu batean dago (*Maizenea*, 1847-1848, HTR3, 5 au.). Hernani aldean zegoela besterik ez dakigu.

[1144] Arizkunen (Baztanen) *Maingueneko borda* dago (*Mainguarena*, 1708; *Maingüenea*, 1817; *Maingoneko borda* [*maingonéko bórda*]); *NTEM-LII1*, 128.

[1145] Zubiri & Perurena (1998: 254). Aranoko *Maiertzeko borda* ere aipatzen da 247. orrialdean.

[1146] *Marizenea* (*Maizenia*) izeneko etxea dago Iturenen. Horren karietara, Mitxelenari (*AV*, 430) jarraikiz, Iñigok (1996: 536-537) dio *Mari(a)* pertsona-izenaren *Maritz* aldaerarekin egon litekeela lotua.

MAKANEA baserriaren erreferentzia guztiak ahozkoak dira; artikulua ez agertzea da gauza azpimarragarriena, hitz hasierako ezpainbikoaren artikulazio puntuaren aldaketaz landara (*Makane* [mákanè], K.; *Bakene* [bákénè], Goi.). Lehen zatiaren etorkia zein den ez dakigu (*Pako*?, *Paka*? < *Frantzisko*?, *Frantziska*?) eta, hortaz, elkargunean zer agitu den ere ez.

Aurreko kasuan bezala, MANEXENEA oikonimoaren bi lekukoak ahoz bilduak dira eta ez dago mugatzailearen zantzurik[1147] (*Manixene* [maníxenè], K.; [manixéne], Man.). Etimo iluna du toponimo honek, besteak beste, gure esparruan *Manex* izena ezaguna ez delako.

MANTXONEAri buruz, azpimarra dezagun etxearen aipamen zaharrena 1897. urtekoa dela; txistukari bustigabea du (*Mansonea*, AT, 168 or.) eta ez da gehiago azaltzen dokumentazioan. Zehazkiro esanda, *Manchone(a)* (1937, 1950, 1970, AT, 168 or.) forma gailentzen da idatzizko iturrietan 20. mendean, eta, ildo beretik, *Mantxonea* (1989, UUTB), *Mantxonia* (1993, AT, 168 or.) eta *Mantxoneko zentrala* (1989, UUTB) formak daude bilduak ahoz. Bistan denez, oinarria *Mantso* / *Mantxo* apelatiboa da[1148].

MANUELALTXONEA ez da oronimoa, lehen bistadizoan hori iruditagatik. Bi erreferentziak ahozkoak dira eta bietako batean ez dago *-ea* > *-ia* disimilazioaren zantzurik (*Manuelaltxonea* [mánwelaltxonéa], Fag.; *Manuelaltxonia* [mánwelaltxónià], Txil.). Etimoari dagokionean, ematen du lehen zatia *Manuel Altxo* ezizena dela (*Manuel Altzo*), baina *Manuelatxo* ere egon daiteke.

Informatzaile batek eman zigun MARTINBELTZENEA[1149] oronimoaren berri (*Martinbeltzenea* [mártinbeltzenèa], Aparr.; *Martinbeltzeneko pauk* ([mártinbéltzenekò páùk], Aparr.). *Martin Beltza* ezizena dugu oraingo honetan lehen tokian[1150], baina, aurreko adibidean bezala, aurkintza-izena da, ez oikonimoa.

[1147] Cf. Aranzadi Zientzi Elkartea (1990: 75).

[1148] Antroponimoa ere bazen Erdi Aroan; Gorrotxategi & Salaberri (2001). Ikus, baita ere, Salaberri (2003: 212).

[1149] Cf. Saratsako (Itza zendeako) *Juan Beltzena*; Jimeno Jurio (1990: 354-355).

[1150] Lakarra de Miguelek (1930: 251) biltzen duenez, Irantzuko Monasterioko kontu-liburuan (13. mendean) *Martin Belça* izena hartzen da ahotan.

MIKELENEKO BORDA[1151]. Honen bi aipamenak ere belarriz bilduak dira (*Mikeleneko borda* [míkelenekò bórdà], Altz., Lor. b.), eta ez dira aski toponimoaren osaketa zehatzari antzemateko. Izan ere, lehen osagaia *Mikel(e)* gizon-izena zein *Mikela* emakume-izena izan daiteke.

MOTXAENEA[1152] baserri-izenaren lekukotasun guztiak 20. gizaldikoak dira. Xehetasunetan sartuz gero, *-enea* duen *Monchaenea* (1951, UUA18; 1983, IGN2; *Mocha-enea* (1966, UUA10L) nahiz *-nea* duen *Motxanea* (1983, GFA2) aurkitu ditugu idatzizko iturrian eta ahozkoan, berriz, *Motxania* ([mótxanià], K. / [mótxaanekuá], Amu., *l.g*.). *Motxa* izenondoa (apelatiboa) dago oinarrian (‘pertsona txikia eta azkarra bizi den etxea’; ‘pertsona ergela bizi den etxea’).

NAPARRANEA oikonimoaren lekuko bakarra ahozkoa da (*Naparrania* [napárranià], Eg. 2.) eta *-ea* > *-ia* disimilazioa da gauza azpimarragarriena. Esan gabe doa aurreneko osagaia *naparra* (*nafar* +*a*) jentilizioa dela.

OKELENEA eta OKENDOENEAren arteko erlazioa uherra da. Lehenbizikoaren aipamen zaharrena 1857. urtekoa da eta *-ea* > *-ia* azaltzen da orduko hitz amaieran (*Oquenlenía*, 1857, HUA48, 46 or.). Idatzizko beste erakusgarria 1932. urtekoa da eta agerian uzten du biek ala biek toki bera izendatzen dutela (*Oquelenea u Oquendonea*, 1932, HUA57, 835 or.). Ahozko tradizioari erreparatuz gero, *Ukalene* (1989, HUTB) eta *Okolone* (1989, HUTB) formak daude bilduak. Lehen zatiaren karietara, gogora dezagun maileguetan eta beste hitz askotan gertatu galeraren etsenplutzat darabilela Mitxelenak (*FHV*, 531) *okela* izena (‘trozo’; < lat. *buccella*, ‘carne’). Begira diezaiogun orain OKENDOENEAri. Idatzizko erakuskari ugari daude eta horren argitan pentsa daiteke forma jatorra hau dela, bestela esan, oinarrian *Okendo* deitura dagoela[1153], eta ez *okel-*. Aurreneko lekukotasunak 19. mendekoak dira eta orduz geroztik denetarik dago

[1151] Iturenen (Malerrekan) *Mikeleneko borda* izeneko eraikina dago; Iñigo (1996: 299).

[1152] Tolosan *Martinmotzena* biltzen dute Elosegik eta Goikoetxeak (2006: 22). Ildo beretik, *Motzenea* izeneko etxea dago Iturenen (Iñigo, 1996: 538-539) eta Saran ere *Motzainia* dugu (1803, *Motcharenea*; Barandiaran, 1962: 99). Azkenik, oroit dezagun Lakarra de Miguelek (1930: 249) *Orti moça* lekukotzen duela Irantzun 13. gizaldian.

[1153] Okendoarrak, San Millango ahaide nagusien oinordeak, hainbat baserriren jabe ziren behinola Gipuzkoako ipar-ekialdean.

tradizio idatzian; batetik *-oe-* hiatoa duen *Oquendoenea* topatu dugu (1847-1848, HTR3, 6 au.; 1911, IM; 1937, AB) dugu, eta horrekin batera *-ea* > *-ia* inflexioa erakusten duen *Oquendoenia* (1925, HUA57, 942 or.); bigarrenik, elkargunean hiatorik ez dutenak daude, izan hitz amaiera disimilatu gabe dutenak (*Oquendonea*, 1855-1857, HTR8, 20 au.; 1863, HRU, 47 bin.; 1932, HUA57, 835 or.; *Okendonea* (1983, GFA2), izan *-ea* > *-ia* urratsa eman dutenak (*Oquendonia*, 1797-1833, HGR2, 51 au.; 1843, HUA43; 1864, HUA47; 1857, HUA48, 46 or.; 1921, HUA57, 792 or.). Informatzaileei *Okendone* ([ókendonè], K.) artikulugabea eta *Okendo* ([ókendò], Pard. g. 2) berrekailugabea entzun dizkiegu guk, baina *Ukendone* (1989, HUTB) aldaera ere zerrendatua dago. Ematen du, hortaz, OKENDOENEAk eta OKELENEAk ez dutela sorburu bera, baina bietatik zaharrena zein den ezin jakin, begiratu dugun dokumentazioaren argitan bederen.

ORKOLAGANEA toponimoaren berriak ahozkoak dira. Zehatz-mehatz, bokal arteko igurzkaria erortzearen ondorioz, *Orkolania* ([órkolanià], K.) gailentzen da (*Orkola[g][a]nia*), *Orkolagania* (1989, HUTB) ere transkribatua dagoen arren. Ikusten den bezala, *-ea* > *-ia* disimilazioa automatikoa da. Kontuan har *-aga* eta *-enea* elkarren ondoan daudela oraingoan eta, zentzu horretan, komeni da jakitea *Orkolaga* Hernaniko baserri eta auzo baten izena dela (‘Orkolagatik etorritako norbaiten etxea?).

OTSOANEAri lotuko gatzaizkio segidan (‘*otsoa* deitzen dioten gizasemea bizi den etxea’). Aurreneko aipamenak 18. gizaldiaren hasieran kausitu ditugu eta ordutik aldaera bat baino gehiago erabiltzen dira tradizio idatzian. Lehen-lehenik, txistukariaren ondoren bokal erdikoa dutenak daude (*Ozoanea*, 1702, HUA29; 1739, HUA36; *Ozoanea aspicoa*, 1739, HUA36; *Ozoaneas*, 1740, HUA30, 541 au.; *Otzoanea*, 1797-1833, HGR2, 54 au.; *Otzoanea-mayor*, 1863, HRU, 40 bin.), *Otsoania* (1863, HRU, 42 bin.) barne; bigarrenik, txistukariaren ondoren bokal itxia dutenak dauzkagu, hau da, *-oa-* > *-ua-* hersketa izan dutenak (*Otzuanea*, 1797-1833, HGR2, 44 au.; 1797-1833, HGR2, 46 r.; 1911, IM; *Otzuanea-aundi*, 1920, HUA57, 472 or.; 1936, HUA57, 177 or.; 1936, HUA57, 179 or.; *Otzuanea-chiqui*, 1920, HUA57, 756 or.; *Otzuanea-Chiqui*, 1936, HUA57, 177 or.; *Otzuanea chiqui*, 1937, AB; *Otsuanea aundi*, 1864, HUA47; *Otsuanea chiqui*, 1864, HUA47; *Ochuanea* 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1980, IGN1);

bigarren sail horretan hitz amaieran *-ia* segida dutenak ere sartu behar dira (*Otzuania-aundia*, 1857, HUA48, 46 or.; *Otzuania-chiqui*, 1857, HUA48, 46 or.; *Otsuania-aundi*, 1843, HUA44; *Otsuania-chiqui*, 1843, HUA44). Berriemaileei *Otsuania* ([otsúanià], K.) entzun diegu guk, baina *Otza-enea* (1989, HUTB) forma ere gordea dago; herri-etimologia dirudi. Amaitzeko, Hernaniko hirigunean *Otzuanea* (1989, HUTB) / *Otzuaenea* (1989, HUTB) izeneko etxea dagoela adierazi nahi dugu, *Otsoa* izenean oinarritutakoa hura ere.

PEPEZABALENEA toponimo ihartua da, agerraldi bakarra 1920. urtekoa delako (*Pepezabalenea*, 1920, HUA57, 762 or.). Aurreneko bi osagaiak *Pepe Zabala* izen-deiturak dira, baina, dakigula, ez zen baserria, aurkintza baizik.

Ikusmira dezagun orain PUTROENEA baserri-izena. Lehenbiziko aipamenak 1848-1850. urtekoak dira eta bi talde bereiz daitezke harrezkero tradizio idatzian kausitu formen artean. Batetik, elkargunean *-oe-* hiatoa dutenak daude, bai hitz amaieran *-ea* dutenak (*Putroenea*, 1848-1850, HTR4, 10 au.; 1928, JMB3, 268 or.) bai *-ia* bukaera dutenak (*Putroenia* (1843, HUA44); bestetik, elkargunean *-o-* bokala dutenak ditugu, hau da, *Putronea* (1911, IM; 1937, A.B.) eta *Putronia* (1864, HUA47) / *Putrónia* (1857, HUA48, 47 or.). Berriemaileei hasieran ezpainbiko ahostuna duen *Butrone* ([bútronekò], Ek., *l.g.*) eta lekune berean kontsonante ahoskabea duen *Putrone* ([pútronè], Pard. g. 2) jaso dizkiegu. *Putro-* erroaren egiazko jatorriari antzematea ez da aise, besteak beste, *putre*[1154] nahiz *butroi* (*butroe*) terminoekin baitagoke lotua.

SANTIAGONEA. Etxe-izen honen idatzizko agerraldi bakarra 1920. urtekoa da (*Santiagonea*, 1920, HUA57, 120 or.) eta ahozko tradizioari doakionez *Santiyonia* (1989, HUTB), *Santionia* (1989, HUTB) eta *Santiyone* (1989, HUTB) formak ezagutzen dira. Esan gabe doa *Santiago* pertsona-izena dela lehen osagaia (> *Santiyo*).

[1154] Mitxelenak (*FHV*, 537) azpimarratzen duenez, *putre* da, eta ez *sai*, gipuzkeraren eremuan 'buitre' esateko erabili den hitza. Iratxen (13. gizaldian) *Bueytarri* dugu (< **bueitr-arri*; 'piedra del buitre'). Sakanako toponimoa da azken hau, Unanukoa (Ergoiena) hain justu (*Puttarri* arautua).

SOLDADUARENA[1155] oikonimoaren berri informatzaileek eman digute; lekukotasun batzuetan *-(re)n + a* segidaren zantzua dago, eta hori ez da ohikoa gurean (*Soldadubana* [sóldadubanà], Berr. z.; *Soldaubana* [sóldaụbanà], Berr. z.). Badago *-nea* dukeen adibidea ere (*Soldaunane* [sóldaụnanè], Erm.) (< *Soldadubana* / **Soldadubane*).

TERESANEKO BORDA. Erreferentzia bakarra ahozkoa da (*Teresaneko borda*, 1988, OBIE), baina nahikoa da aurreneko tokian *Teresa* antroponimoa dagoela jakiteko.

TROIANEA baserri izenaren aipamen guztiak, bai atzizkidunak bai atzizkigabeak, 20. mendeko kartografian aurkitu ditugu (*Troyanea*, 1942, IGC1; 1953, IGC2; 1980, IGN1; *Troya* (1898, EGZ; 1942, IGC1; 1953, IGC2). Oinarria *Troia* exonimoa da, baina baliatu dugun informazioren argitan ez dago erabat garbi toponimoak jatorriz atzizkia duen ala ez.

TXIMISTANEAren[1156] karietara, esan dezagun aurreneko agerraldiak 19. gizaldikoak direla eta bi talde bereiz daitezkeela tradizio idatzian ordutik; batetik, elkargunean *-an-* batura dutenak topatu ditugu, eta talde horren barruan *-ea* > *-ia* hersketaren lekuko den *Chimistania* (1843, HUA44; 1864, HUA47; 1920, HUA57, 377 or.) eta *Chimistanea* disimilatugabea daude (1855, HINGR2, 4936 zenb.; 1857, HUA48; 1932, *terreno herbal*, HUA57, 139 or.; 1932, *terreno manzanal*, HUA57, 139 or.) / *Cimistanea* (1937, A.B.) / *Tximistanea* (1911, IM; 1936, HUA57, 187 or.; 1980, IGN1); bigarrenik, elkargunean *-ae-* hiatoa duen *Tximistaenea* (1898, EGZ; 1942, IGC1; 1953, UTC; 1962, UTC; 1981, SGE2) / *Tximista enea* (1983, GFA2) kausitu dugu eta, horren harira, diogun deigarria dela *-ia* bukaera duen alerik ez egotea. Ahoz *Tximistania* ([txímistanià], K.), *Tximistanea* ([txímistanéa], Txim.) zaharkitua eta atzizkirik gabeko *Tximista* ([txímistà], Txim.) jaso ditugu. Ezizen itxura du, are gehiago baserri-izena dela aintzat hartuta. (Cf. TXIMISTA, TXIMISTAKO HEGIA).

[1155] Iñigok (1996: 494) *Xoldadunea* izeneko etxea biltzen du Elgorriagan (*Soldadurena* 1641, 1667, 1668). Berebat, *Soldaduena* (1869) lekukotzen dute Getxon Gorrotxategik eta Susok (2004: 304).

[1156] *Zimistania* izeneko etxea dago Saran (1804, *Zimistarenea*); Barandiaran (1962: 111).

TXINTXUA(NEA) baserri-izenaren adibide guztiak ahoz jasotakoak dira (*Txintxuania*, 1989, HUTB / *Txintxuane* [txíntxuaneá], Ek., *adl.s.* / [txíntxuanekuà], Amu., *l.g.*), *-nea* ez duen *Txintxua* ([txíntxuà], K., Txab. 2) forma barne. *Txintxua* (*zintzoa*) izenondoan jatorri duen toponimoa da, ikusten den bezala (‘*Txintxua* deitzen dioten gizasemea bizi den etxea’).

TXOKOLATENEAren lehenbiziko aipamena 1931. urtekoa da eta argi dago *-ea* > *-ia* disimilazioa egon dela hitz amaieran (*Chocolatenia*, 1931, HUA57, 215 or.). Idatzizko bigarren eta azken agerraldia 1983ko mapa batean topatu dugu, baina orduan disimilatu gabe ageri da (*Txokolatenea*, 1983, GFA2). Berriemaileei, azkenik, *Txokolatene* ([txókolatenè], K.) artikulugabea jaso diegu. Ezizen kutsua duen oikonimoa da hau ere.

TXONIKANEKO BORDA. Aranon 1726. urtean *Chuaniquenea* oikonimoa lekukotzen da[1157] eta informatzaile batek *Txonikaneko borda*-ren berri eman digu ([txoníkanekò bórdà], Ar. 1). Sorburua *Txoaniko* izen ttipia da.

TXONKOANEA baserriari buruz mintzatuko gara orain. Idatzizko lehen erakusgarriak 18. mendekoak dira eta aldaera bat baino gehiago erabiltzen dira orduko. Hasteko, hor daude herskari belarraren ondoren bokal erdikoa duten *Choncoanea* (1739, HUA36) eta *Choncoania* (1853, HUA46, 212 bin.); bigarrenik, elkargunean *-oe-* segida duen *Choncoenea* (1797-1833, HGR2, 41 au.) dago, hau ere *-o-* bokal erdikoa duena; azkenik, kontsonante belarraren ondoren *-u* bokala duen *Choncuanea* kausitu dugu (1855-1857, HTR8, 22 au.;1863, HRU8, 46 bin.;1920, HUA57, 407 or.; 1932, HUA57, 10 or.; 1937, AB) eta *Choncuania* (1768-1797, HGR1, 31 au.; 1843, HUA44; 1864, HUA47; 1857, HUA48, or.). Ahozko tradizioan, bestalde, *Txonkuania* ([txónkuanià], K., Elor.) zein *Ttonkoane-* [ttónkoanekò] (Elor., *l.g.*) salbuespena jaso ditugu guk eta *Tonku enea* (1989, HUTB) forma ere gordea dago. Lehen osagaia *txonko* (*txongo*) terminoa izan liteke (‘haragia duen txerri-hezurra’) eta horrela balitz, toponimoari izengoiti zentzua emango lioke (‘goseak dagoen jendea bizi den etxea’?). Alabaina, Salaberrik (1991: 50) aipatzen duen *txunkua* ere egon liteke, *junkua* / *xunkua* / *zunkua*

[1157] Salaberri (2009: 127).

landare-izenaren sailekoa dena; nolanahi ere den, argitu beharra dago, gurean termino horren lekukotasunik ez dela ezagutzen.

TXORIENEA toponimoaren erreferentzia ahozkoa da; zehazkiro esanda, *-ea* > *-ia* inflexioaren lekuko den *Txoriyenia* ([txoríyenià], K.) jaso dugu berriemaileengandik. Oinarrian *Txoria* (*txori* + *a*) dagolea dirudi (cf. OTSOANEA), kasu honetan ezizen kutsua duena.

TXURIANEKO ZUBIAren mostra bakarra ahozkoa da (*Txuriyaneko zubiya*, 1989, HUTB). Oinarritako baliatu izena *Txuriya* (*Zuria*) apelatiboa da[1158], baina, toponimo honen etimoa argitze aldera bada oztopo bat: gurean ez dago **Txuriyanea* izena duen baserririk.

XURRENEKO BORDAren aipamen bakarra ere belarriz bildua da (*Xurreneko borda*, 1988, OBIE). Hipotesia besterik ez da, baina pentsa liteke lehen tokian *Xurra* (*zuhurra*) ezizena dagoela.

-(E)nea (*-[r]ena*) atzizkia duten toponimoekin bukatzeko, diogun ZAKARIASENEA erorita dagoen baserria dela, eta ahozko erakuskariak baizik ez dituela. *-Ea* > *-ia* disimilazioa automatikoa da (*Sakaisenia*, 1989, UUTB; *Sakaixenia* [sákaị̊xenià], Mari. 2, Mik.; *Sakaitxenia* [sakaị̊txeniá], Mik.), baina badaude *-enea* gabeko adibideak, horratik, *Sakariasen itturriya* ([sákariasèn ítturriyà], Mik.), *Sakaisen itturriya* (1989, UUTB) eta *Sakaiko itturriya* (1989, UUTB) lekuko. Bista da *Zakarias* pertsona-izena dela lehen osagaia (‘Zakarias bizi den etxea’, ‘Zakariasena den etxea’).

AIZPARRENEA[1159] baserri-izenak ez du *-(e)nea* (*-[r]ena*) berrekailua, baina atal honetan sartzea komenigarri iruditu zaigu, etsenplu adierazgarria delakoan, bestela esateko, idatzizko lekukotasunik gabe toponimoen irakurketa okerra egiteko arriskua zenbatearaino areagotzen den ederki erakusten duelakoan. Jarraian iritzi horren

[1158] Cf. Mitxelena (1969: 15-16).

[1159] *Aizbarrena* (1945) izeneko pinudia biltzen du Ormaetxeak (1996: 215) Arrasateko Meatzerreka auzoan. Cf. Oltzako *Aizbarren*; Jimeno Jurio (1989b: 232). Artaxoako ikertzailearekin (1992: 231) jarraituz, *Azparrena* (1741) izeneko etxearen berri ematen du Berriobeitiko (Antsoaingo) toponimia aztertzen duenean. Cf. *Hasparren* (*Ahezbarren*, 1247; Morvan, 2004: 22).

sostengutzat dauzkagun datuak dakartzagu. Idatzizko lehen erreferentzia 19. mende erdialdeko agiri batean aurkitu dugu eta *-ea* gabe azaltzen da (*Aitz-barren*, 1845-1846, UTR1, 35 au.). Ildo beretik, handik urte gutxira, birritan kausitu dugu, bietan mugatzailearekin (*Aitz-barrena*, 1846, UINGR2, 79 zenb.; *Aitzbarrena*, 1863, URU, 144 au.). Idatzizko azken erakusgarria 1983. urtekoa da eta *Aizparrenea* irakurtzen da (1983, GFA2). Berriemaileei dagokienez, *-ea* > *-ia* hertsitzearen lekuko den *Aizparrenia* ([ái̯zparrenià], K.), *Aizparrene* ([ái̯zparrenè], K.) artikulugabea eta estreinako lekukotasunaren sail berekoa ematen duen *Aizparren* ([ái̯zparrèn], Amu.) formak jaso dizkiegu; *Aizparrenea* ere zerrendatua dago (1989, UUTB), baina gordetzailea dirudi, hau da, informatzailearen jarrera etimologiazalearen emaitza. Goiko datuek garbiro azaltzen digute, beraz, jatorriz *haitz* eta *barren*[1160] izenak ditugula oinarrian eta *-ea* bukaera inesiboaren zatiketa faltsuaren ondorioz sortu dela (cf. ARTOLEA). Amaitzeko, argi dezagun AIZPARRENEA salbuespena dela, ez baititugu horrelako kasu gehiago aurkitu gure esparruan.

Idazkietan gutxi eta berandu (1702, *Ozoanea*) aurkitu dugun atzizkia da *-(e)nea* (*-[r]ena*), baina badira, halere, zenbait datu gogoan eduki beharrekoak. Esate baterako, eta agerraldiez ari garenez, nabarmentzekoa da sudurkariaren aurretik *-e-* dutenak ez direla aldaki zaharrenak (*Putroenea* 1848-1850; *Linternaenea*, 1850-1852; *Monchaenea*, 1951). Ildo beretik, lehen aldian *-nea* gabe azaltzen diren toponimo bat baino gehiago daude (*Campanduja*, 1794-1831 / *Campandugania* 1831-1845; *Elizalde*, 1843 / *Elizaldenea*, 1857), alderantzizko estenpluak ere badiren arren (*Bortoluania*, 1843 / *Bortolo chiqui ó Borda*, 1857).

Hitz amaierako *-ea* > *-ia* hertsitzea, 18. gizaldirako lekukotzen dena, maiz kausitu dugu idatzizko iturrietan: *Choncuania* (1768-1797), *Oquendonia* (1797-1833), *Chimistania* (1843), *Bortolunia* (1863) eta *Putronia* (1857). Gehiago da: batzuetan forma disimilatuak disimilatugabeak baino lehenago ageri dira, baina ez beti: *Acheruania* (1855) / *Acheruanea* (1857), *Egañania* (1833-1845) / *Egañanea* (1932) eta *Ezquerrania* (1855) / *Ezquerronéa* (1857). Artikulurik gabe topatu dugun adibide bakarra 1931. urtekoa da (*Mainguane*, UUA8).

[1160] AIZPARRENEA baserria PARDAKIKO HARKAITZAren barreneko alderdian dago.

Ahozko tradizioan *-ea* > *-ia* burutzen da usaian, eta ez da harritzeko, bertako euskaran horrela egiten baita (ALTZAIRUNEA, ARANATXENEA, ARTZAIANEA, ATXERUANEA, BELAMENDIANEA, BIZKAIENEA, BORTTOLUAENEA, DOLOREENEA, EGAÑANEA, EZKERRANEA, GOÑITEGINEA, IZKOANEA, JEXKERANEA, KAIXERRRENEA, KARKULOENEA, KAXKATXURIENEA, KINTALANEA, KOJUANEA, LEGARRETANEA, LERTXUNANEA, MAINGUANEA, MANTXONEA, MANUELALTXONEA, MOTXANEA, NAPARRANEA, ORKOLAGANEA, OTSOANEA, TXONKOANEA, TXORIENEA, ZAKARIASENEA). Izan ere, *-ea* bukaera duten ahozko formak gordetzaileak dira, hizkera arruntetik kanpo erabiltzen direlako (IZKOANEA, LEGARRETANEA, LEITZANEA, MAKANE, MARTINBELTZANEA, OKENDONEA eta TXIMISTANEA). Esaten ari garenaren lekuko, berriemaile batzuei bi aldaerak jaso dizkiegu: *Bizkainia* ([bízkaɲnià], En) / *Bixkainea* ([bixkaɲnéa], Ollok.); *Ixkuania* ([ixkúanià], K.) / *Izkuenea* ([ízkuenéa], Fag.); *Manuelaltxonea* ([mánwelaltxonéa], Fag.) / *Manuelaltxonia* ([mánwelaltxónià], Txil.).

Informatzaileek ekarritakoarekin jarraituz, toponimo batzuen aldaera artikulugabeak gorde ditugu, horrelakoak asko ez badira ere (DONFERMIÑENEA, JOXEPENEA, KARLOSENEA, KARPONEA, LEITZANEA, MANEXENEA, MOTXAENEA, PUTROENEA, SANTIAGONEA, TXINTXUANEA, TXOKOLATENEA, TXONKOANEA). Hitzak hizpidea ekarrita, lekuko genitiboaren hondarkia hartu duten formen multzotik *Garponeako borda* ([garponéakò bórdà], En.) da artikulua duen bakarra (cf. *Garponeko borda* [garpónekò bórdà]).

Azkenik, diogun berriemaileek zenbait toponimo atzizkirik gabe (*-nea* / Ø) baliatzen dituztela batzuetan (ARANATXENEA, ARBELAITZENEA, EGAÑAENEA, KARPONEA, OKENDOENEA, TXIMISTANEA, TXINTXUANEA, ZAKARIASENEA).

-(E)nea (*-[r]ena*) berrekailua hartu duten oinarriei doakienez, zalantzak zalantza, honela sailka daitezke:

○ Bizilagunen jatorria adierazten dutenak, hots, toponimo nagusiak: *Alkitza*, *Aranatz (Arantza)*, *Bizkaia* eta *Leitza*. Azpisail honetan *Manuel Altzo* ezizenaren bigarren osagaia ere sar daiteke, apika.

○ Etxekoen etorkia adierazten ez duten exotoponimoak: *Troia*.

○ Maizterren edo nagusien izenak: *Antso*, *Bartolo / Bortolo*, *Dolore*, *Don Fermin*, *Joxepe / Joxepa*, *Justo*, *Karlos*, *(Poli)karpo*, *Maria*, *Mikel(e) / Mikela*, *Santiago*, *Teresa*, *Txoaniko* eta *Zakarias*.

○ Deiturak, maizterrenak eta nagusienak: *Arbelaitz*, *Belamendia*, *Egaña*, *Elizalde*, *Etxabe*, *Goñi(tegi)*, *Legarreta*, *Maiz*, *Okendo* eta *Orkolaga.*

○ Izen-deiturak: *Pepe Zabala*, *Mari(a) Gartzia*?

○ Ezizenak, ezaugarriak adierazten dituztenak: *Atxerua*, *Ezkerra / Exkerra*, *Ixkua / Izkua*, *Kaixer*, *Kaxkatxuri*, *Kojua*, *Lertxuna*?, *Maingua*, *Mantso / Mantxo*, *Motxa*, *Otsoa*, *Txintxua*, *Txori*, *Txuria*, *Txurdiñ* eta *Xur*. Ikusten den bezala, hainbat oinarri mugatzailedunak dira. *Martin Beltza* ere azpisail honetara ekar daiteke, agian.

○ Gauzakiak, izengoiti kutsua duten oikonimoak sortzeko erabiliak: *kanpandoja*, *kintala*, *linterna*, *tximista*, *txokolate* eta *txongoa*. Badaiteke *erretilu* eta *butroi* ere multzo honetakoak izatea.

○ Animalia-izenak, hauek ere ezizenetako baliatu direnak: *Putre*.

○ Jarduerakoak, ogibideen berri ematen dutenak, guztiak artikuludunak: *Artzaina*, *Beterinarioa*, *Soldadua*.

8.3.3.8. -*Txo* atzizkia

Hamar dira *-txo* atzizki txikigarria bigarren osagaitako duten izen espezifikoak gurean: ARIZTITXO, BASOTXO, BORDATXO, ITURRITXO (2), SOROTXO, PRESATXO, UGALDETXO[1161], URRIZTITXO, ZELAITXO eta ZUBITXO. Dokumentazioan aurrena azaltzen dena PRESATXO da, 18. mende amaieran azaldu ere (*Presacho*, 1794-1831, UGR3, 18 au.; 1794-1831, UGR3, 19 au.). Gainerakoen idatzizko aurreneko agerraldiak *Arizticho* (1833-1845, HGR3, 76 au.), *Basocho* (1845-1846, HTR1, 1 au.), *Iturricho* (1863, HRU, 48 bin.), *Sorocho* (1929, *monte comunal*, UUA6), *Ubaldecho*[1162] (1937, AB), *Urrizticho*, *Alsusta ó* (1868, *trozo*, DJE), *Zelaitxo* (1936, *sembradío*, HUA57, 187 or.) eta *Zubicho* (1857-1860, HTR9, 28 au.) dira. Belarriz *Bordatxo* ([bórdátxò], K.), *Itturritxo* (1989, HUTB), *Ugaldetxo* ([úgaldetxò], K.) eta *Urruztitxo* ([úrriztitxó], Amu.; [úrrustitxó], Amu.; *Urruztitxo* [úrruztitxò], Amu.; *Urrestiltxo* [úrrestiltxò], Zul.) besterik ez ditugu bildu; horrenbestez, gehienak toponimo ihartuak dira.

Aurrekoekin batean, ITURRITX toponimoa dugu gure esparruan, ITURRITXO nahiz IUTURRIOTZen oinordekoa izan daitekeena. Ahozko tradizioari esker izan dugu haren berri (*Iturritx* [íturrìtx], Etxol.; *Itturritx* [ítturrìtx], Txil.), baina hain informazio gutxirekin ezin jakin sorburua ITURRITXO, ITURRIOTZ edo **Iturritza* den. Errepara diezaiogun orain, LIZARRATXOPE oronimo ihartuari. Izan ere, *-zu* atzizkia du lehen aipamenean, eta ez *-txo*, aldi oro azaltzen den *-pe* bereizgarriaz gainera (*Lizarrazupe*, 1762, partido, GPAH 2662, 218 au.; *Lizarra Chope-erreca*, 1848, AT, 195 or.; *Lizarrachope*, 1848-1850, UTR4, 38 au.; *Lizarrachope*, 1860, UINGR2, 7912 zenb.). Azken honen harira, oinarriaren amaierako bokal irekia ere nabarmendu nahi dugu (*Lizarra-*), *-rr* + *tx-* multzoa saihesteko jarria baitirudi. UGALDETXO toponimoaren etorkia ere ez da gardena, gure esparrutik gertu, Oiartzunen hain justu, *Ugaldetxo* etxea eta auzoa daudelako, eta han, 15. eta 18. gizaldietan, *Ugaldeche* lekukotzen delako[1163].

[1161] Mitxelenak (*FHV*, 337) azpimarratzen duen bezala, konposatu antzinakoetan, bigarren osagaia bokalez hasten denean, *-r* kontsonatea *h*, *g* edo zerogatik aldatzen da (*ugalde* 'rio' cf. *Uarte* 1025).

[1162] Hasierako bokal itxiaren ondorengo frikari belarra ezpainkaritu egin da, sorburua UGALDETXO (edo **Ugaldetxe*) baita. Beraz, garbi ikusten da, kasu honetan ere, herskari ezpainkariak eta belarrak dituzten aldaerak daudenean, ezpainkaridunak direla bigarrenkariak, *ubalde* (< *ugalde* 'inundación'; cf. *FHV*, 337).

[1163] Goikoetxea & Lekuona (2007: 303).

Bukatzeko, -*txo* atzizkia hartu duten izenak dakartzagu: *haritz*, *baso*, *borda*, *iturri*, *soro*, *presa*, *hurrizti*, *zelai* eta *zubi.*

8.3.3.9. Satznamen-ak edo erlatibo-toponimoak

Gure esparruan ARRIUZTUN / ARRIUZTUNA eta honez gero aztertua dugun HAURRA GALDU ZAN HARRIA Satznamen edo erlatibo-toponimoak kausitu ditugu (ikus 2.12.§, 5.11.§). Ukitzeke dagoenaren karietara, derragun aurreneko erreferentzia 16. mendekoa dela (*Arriuztuna*, 1583, HUA21, 2 bin.) eta hurrengoak 18. gizaldikoak (*parage Arriustuna*, 1730, HUA35; *Arriustun*, 1769, HUA37; *Retazo de Arriustuna*, 1799, HUA42, 171 bin.). Barandiaranek (1928, JMB3, 263 or.) ere aipatzen du: "[...] *peña llamada Arriuztuna*, *de la que cuentan que fué lanzada por Sansón desde la ermita de Santiago de Astigarraga mediante una honda hecha con dos árboles retorcidos.*". Elkarrizketaturiko berriemaileek, bestetik, *Arriuztuna* ([arríuztunà], Etxol. / [árriúztunà], Larra.) darabilte. Etimoari buruzko zalantzarik ez dago, gauza jakina baita *-tuna* amaiera *duen[a]* erlatibozkoaren oinordekoa dela (*harri + huntz + duena*).

Segurolak (1987: 271) dio horrelako toponimoak bereziak direla eta bi arrazoi ematen ditu: euskal toponimian gutxi agertzen direla eta, batez ere, osagaien sintaxia; Ameskoa, Abartzuza, Irantzu eta Ibirikuren arteko elkarrekikoan dagoen *Aaizhunztuna* darabil etsenplutzat[1164]. Haatik, Salaberrik (2008) frogatzen duenez, Satznamen delakoen arrarotasunaz orain arte esandakoa, neurri handi batean, ez da egia, nahiz eta ez diren alderdi guztietan maiztasun berarekin agertzen. Horretarako, Uxueko irakasleak orain arteko lanak aztertu eta ezagutzen diren aleen bilduma egiten du. Guztiarekin, gai honen inguruko zenbait puntu oraindik azterkizun daudela deritzo Salaberrik eta, ondorioz, badagoela non sakondu.

[1164] Ameskoan *Aizhunztuna* izeneko haitza dago; Lapuentek (1975: 400) honako pasartea biltzen du 1771. urtean: "… *la cual peña se llama la peiña de la yedra*, *en bulgar*, *aizhuztuna*". Gollaoko *Aitzunztuna* (*Ayzunztuna*, 1600) eta Lezaungo idazkunetan aipatzen den *Arriunztuna* da (*Arreuztuna* 1500 [1759]); Sainz Albero & Sainz Pezonaga (2002: 31, eta 65). Cf. Salaberri (2008: 726).

9. GIPUZKOAKO SORTALDEKO TOPONIMIA 12. GIZALDIAN

9.1. Gipuzkoako toponimia dakarren idazkun bakarra ezagutzen da 11. gizaldian (1025), baina, zorionez, 12. mendean Probintziako sortaldea mintzagai duen agiri sorta polita dago (ikus 2.9.§). Horri esker, zenbait herri-izen eta makrotoponimoz gainera, hirurogei bat toponimo txikiren laurogei lekukotasun zerrenda daitezke, gehienak saroi-izenak. Zortzi eskuizkribu dira guztira, 1101, 1105, 1141, 1177, 1178, 1186-1189, 1186-1193 eta 1197 urteetako datak dituztenak[1165]; argitu beharra dago, zernahi gisaz, batzuk 13. gizaldian egindako kopiak direla. Zazpi dokumentuk gure eremuko toponimoak aipatzen dituzte, eta zortzigarrenak (1777koak) kilometro gutxira dagoen inguru batekoak hartzen ditu ahotan, Orio-Igeldoetakoak hain justu. Zenbait toki-izen bi edo hiru aldiz azaltzen dira eta esan gabe doa formak finkatzeko oso lagungarri dela hori. Bestalde, izen gehienen mostra berriagoak eskuratu ahal izan ditugu.

Urumeako zilegimendietako toponimiaren (eta euskararen) lehen frogak dira idazkun multzo horretan daudenak. Gure esparruko hamazazpi toponimo zenbatu daiteke eta gainerakoak, gehienbatean, Orio-Igeldokoak edota Aralarkoak dira. Hitz bitan, Gipuzkoako sortaldean daude ia guztiak, guztiak ez esateagatik, eta gure eremukoak ez direnak ere handik arras gertu kokatzen dira maizenik. Idazki gehienek kalitate oneko toponimia biltzen dute eta, bi testutan izan ezik, irudi du erratu gutxi daudela; gainera, bi salbuespenak ez dira garrantzitsuak izen kopuruaren aldetik.

Idazkion argitan 12. gizaldiko toponimia astiroago aztertzen hasi aurretik, bihoaz bi hitz onomastika lanetan une oro gogoan izan beharreko mugei buruz. Ahozkotasuna, edo nahiago bada hizkuntza bizia, idatzizko iturrietan zenbateraino atxiki den zehazkiro jakiteko zailtasuna da gainditu beharreko lehenengo oztopoa, eta nagusia ere bai. Izan ere, gauza ezaguna da idatzizko toponimia gordetzailea dela, eta, ondorioz, garai jakin

[1165] Tesian zehar NAO1 (1101), IKA1 (1105), IKA2 (1141), IKA3 (1178), IKA4 (1186-1189), IKA5 (1186-1193) eta NAO2 (1197) laburdurekin aipatu ditugun testuez ari gara. Salbuespena, orain arte erabili ez dugun bakarra alegia, 1177ko idazkuna da; ikus Goñi Gaztanbide (1997: 306-308).

batean idazkietan zerbait aurkitzeak ez duela ordukoa dela bermatzen; bestela esan, toponimo bat edo haren aldaketen bat izkribuetan agertzeak ez du esan nahi garai horretan, ezinbestean, bizirik zegoela. Nolanahi ere, ukaezina da idatzizko iturriek toponimiaren bilakabidea ulertzen laguntzen dutela eta izen-multzoa kokatzen den lurraldeko hizkuntzaren ibilbidearen ezagutza errazten dutela, neurri batean behintzat. Hori horrela delarik, eta corpusa txikia izan arren, ez dugu behar baino gehiago esan uste 12. gizaldiko idazkiok, hein batean bederik, gure esparruko orduko euskararen berri ematen digutela esatearekin.

Aurreneko idazkiak 1101. urteko data du eta azkenekoak, berriz, 1197 ingurukoa. Zernahi gisaz, eta lehen esan dugun bezala, bat baino gehiago faltsifikazioak direnez gero, idazkietan bertan datu hori ematen bada ere, egiazko data sarritan dokumentuan adierazten dena baino beranduagokoa dela ez da ahantzi behar; hori bai, 11. eta 12. gizaldietako gertaerei buruz hitz egiten digute beti, mende bat geroago idatziak izan arren. Dokumentuok elizgizonek idatzi zituzten maizenik, agintari batek (erregek...) halako eta halako jabetza Elizari eman zizkiola frogatzeko asmoz: Leireko eta San Migelgo monasterioetako zein Iruñeko katedraleko eta gotzaitegiko apaiz eta fraideez ari gara, eta 1014. urteko data duen agiria da iritzi horren sostengutzat dakargun etsenplua. Antso Nagusiak 1014. urtean *Sancti Sebastiani* monasterioa eta *Izurun* hiria (bi eliza eta zazpi saroirekin) Leireko monasterioari eman zizkiola aditzera ematen du, benetan 1197 aldera idatzi bazuten ere.

Testu gehienak Iruñeko katedraleko “liburu biribila” deritzon bildumakoak dira, 829. urtetik 1243ra doan epea harrapatzen duenekoak. Egun 216 orri ditu eta 52.etik 76.era erregek emandako pribilegioak biltzen ditu. 13. gizaldiaren amaieran idatzi (kopiatu) zuten idazle batek baino gehiagok, letrakera carolingiarrez. Sorta horretan daude, hain justu, hemen aztertuko ditugun toponimo gehienak.

Dokumentu naroena egiazki 1178 urte aldera jazotako donazio baten kopia da (73 au.), 1141-1142an argitu zela uste izan den arren[1166]. Berrogeita zazpi toponimo aipatzen dira, eta horietatik berrogeita bat saroi-izenak dira; haietatik hamazazpi gure

[1166] Ikus Barrena (1989: 431).

esparruan daude eta bik ez beste guztiek bizirik diraute[1167]. Hauek dira han dauden leku-izenak: *Arainiuarr*, *Lastaola*, *Legarralde*, *Zuloeta*, *Ammunola*, *Mentauio*, *Anziz*, *Gierala*, *Muez*, *Macurssola*, *Guaragarze*, *Urtarzando*, *Izarrlegui*, *Apparren* eta *Eualibia.* Formaren aldetik zalantzaren bat sor zezaketen biak *Gierala* eta *Izarrlegui* ziren, Barrena Osorok 1989an horrela transkribatzen dituelako eta Goñi Gaztanbidek, berriz, 1997an *Eierala* eta *Izairlegui* ematen dituelako, hots, batak eta besteak forma ezberdinak plazaratzen dituztelako. Iruñeko artxiboan dagoen izkribua zuzenean ikertu ondoren, egiazko formak *Eierala* eta *Izarrlegui* direla egiazta genezake. Bide batez, diogun, saroiez gainera, *Hurumea* potamonimoa ere lekukotzen dela 1178ko izkribu horretan.

Gainerako saroiak, bestela esan, gure esparrutik kanpo daudenak, bi eremutan kokatzen dira. Alde batetik Orio-Igeldoko (*Orio et Hieldo*-ko) hamazortziak ditugu (*Aenetzia*, *Amossorara*, *Badotzularraburu*, *Berarratza*, *Bunieta*, *Dagandiburu*, *Errarzaual*, *Irarue*, *Iringuren*, *Iturriozagua*, *Iuchita*, *Loiçtaran*, *Loizta*, *Lordibeguia*, *Lussarbe*, *Saria*, *Vrdauide*, *Zalburcaicoa*) eta bestetik Aralarko (*Aralarre*-ko) zazpiak (*Arriestarieta*, *Atelecotia*, *Ezquiaso*, *Ataria Barrunecoa*, *Gorostiaga zaarra*, *Iuargoiena*, *Zamilola*). Hitzak hizpidea ekarrita, eta baldin geure iritzia estalkirik gabe agertu behar badugu, derragun dokumentuan *Ataria* eta *Barrunecoa* formen artean dagoen puntua erratua dela, egon, zeinu horrek *Ezquiaso*-ren ondoan egon behar bailuke. Hortaz, ez da "*Ezquiaso Ataria*, *Barrunecoa*" irakurri behar, "*Ezquiaso*, *Ataria Barrunecoa*" baizik. Saroi izenez landara, *Argoiena* eta *Ariatz* makrotoponimoak (Ergoiena eta Araitz) eta jatorri iluneko *Goizeta Jaznue* forma lekukotzen dira 1178ko testuan.

Kalitate oneko toponimo sorta osatzen dute aipamen horiek guztiek, esan bezala, erratuak diratekeen forma gutxi daudelako. Gehienek bizirik diraute eta, lan honetan zehar gure esparrukoei buruz dagoeneko azalpenak emanda ditugularik, zilegi bekigu Orio-Igeldoetako eta Aralarko toponimoen idatzizko errefentzia batzuk hona ekartzea; Orio-Igeldo[1168]: *Aincía* (1857, HUA48, 73 or.), *Amasorráin* (1857, HUA48, 63 or.), *Berreiarza* (1625, LMI), *Munioeta* (1857, HUA48, 53 or.), *Aganduru* (1857, HUA48, 53 or.), *Rezábal* (1857, HUA48, 54 or.), *Iriarte* (1857, HUA48, 67 or.), *Irangüen* (1857,

[1167] ARAINIBAR eta AMILIBIA dira bi adibide ihartuak.

[1168] *Lordibeguia* saroia Orio-Igeldo aldeko zerrendaren barruan dago Iruñeko katedraleko idazkian, baina, dakigula, izen hori duen larretokirik ez da izan han, bai, ordea, Aralarren (*Elordia*, 1409).

HUA48, 67 or.), *Loistaráin* (1857, HUA48, 67 or.), *Lusarbe-andicóa* / *Lusarbe-erdicoa* (1857, HUA48, 53 or.), *Saría* (1857, HUA48, 54 or.), *Urdaira* (1857, HUA48, 74 or.); Aralar: *Harreyztarrieta* (1409; Aierbe[1169], 2005: 11), *Ezquizu* (1452; Aierbe, 2005: 14), *Atauru gañe* (1982, GKA, 134 or.), *Gorostiaga de suso* / *Gorostiaga de yuso* (1409; Aierbe, 2005: 11), *Zaminola* (Goikoetxea, 1985).

9.2. Bokalei datxekien atala aferesiaren bi erakuskari daudekeela esanez hasiko dugu, *Lordibeguia* eta *Lussarbe*, 1178koak biak. Haiz zuzen, aurrenekoaren iturburua **Elordibegia* (**Elordi hegia*) izan daitekeela uste dugu eta bigarrenarena, berriz, **Elusarbe*[1170].

Diptongoei erreparatzen badiegu, 1178ko testuan *-ai-* baizik ez da ikusten gure esparruan (*Arainiuarr*, *Izairlegui*), baina hiatoei begiratuz gero soka luzeagoa da, *-ao-* (*Lastaola*[1171]), *-oe-* (*Zuloeta*), *-ue-* (*Muez*[1172]), *-io* (*Mentauio*) eta *-ia*-ren (*Eualiuia*) etsenpluak baitaude. Aurrekoekin batera, hor dugu *Eierala* forma ere, aspirazioaren galeraren ondorio dirudiena (< **Eiheraola*?). Hitz bitan, *-ao-* eta *-oe-* hiatoak elkarketaren ondorioz sortu bide dira, hots, bigarrenkariak direteke.

Beste bi eremuetan, Orio-Igeldon eta Aralarren alegia, *-ai-* (*Zalburcaicoa*) zein *-oi-* (*Loiçtaran*, *Loizta*, *Iuargoiena*, *Argoiena*, *Goizeta Jaznue*) diptongoak azaltzen dira. Kontuan har beza irakurleak aurrenekoaren erakuskari guztiak *lo(h)i* eta *goi* hitzekin daudela lotuak. Bestalde, badaude *-io* (*Orio*) / *-io-* (*Iturriozagua*, *Saueriolatze*) hiatoa duten toponimoak, elkarketaren nahiz mugatzaile hurbilaren eransketaren karietara sortu dena. Hitz barruko *-ia*-ren jatorria ez da gardena bi kasutan (*Ariatz*; cf. *Gorostiaga zaarra*; *Ezquiaso*), baina amaierako *-ia* segidarena bai: mugatzailearen erabilpenean ondorio da (*Aenetzia*, *Lordibeguia*, *Saria*, *Atelecotia*, *Ataria*). Orobat *-oa*-ri doakionez (*Barrunecoa*). *Iu- eta Ie-* multzoen sorburua ez dago argi (*Hieldo*, *Iuchita*), baina, ageri

[1169] "La Unión o Mancomunidad de Enirio y Aralar: Un caso modélico de montes comunales intervenidos por el Servicio Forestal de la Diputación de Gipuzkoa. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen buletina (Boletín de la RSBAP), LXI, 5-136.

[1170] Ospelean dago, eta ez eguteran. Cf. *Irarue.*

[1171] Murriztapenaren lehenbiziko erreferentziak 15. mendekoak dira.

[1172] Gainerako idazkietan hiatoari eusteko kontsonantearekin azaltzen da.

denez, hitz barruko *-ie-* (*Bunieta, Arriestarieta*) eratorketaren emaitza da. *-Aa-* bikoa, berriz, aspirazioaren galerak eragin du (*Gorostiaga zaarra*) eta, uste izatekoa da, azkenik, *Ae-* segida kontsonante baten erorketa dela medio iritsia dela (*Aenetzia*). Laburbilduz, *-io*, *-ia* eta *-oa* hiatoak mugatzailearen erabilpenaren ondorio dira eta *-io-*, *-ia-*, zein *-ie-* elkarketarenak.

Gatozen orain kontsonanteen arlora. Gure esparruan (eta gainerako lurraldean) hitz hasierako herskari ahoskabeen atala hutsik dagoela ikusteak atentzioa ematen du[1173], hau da, deigarria da *P-*, *T-* edo *K-* (*C-*) kontsonanteekin hasten den toponimorik ez aurkitzea. Ahostunen sailean, bada gurean *G-*z hasten den toponimoa (*Guaragarze*[1174]) eta Orio-Igeldon, hagitz gertu, irudiz *D-*z hasten dena ere bai (*Dagandiburu*), baina azken horren kasuan aldaera modernoa *Aganduru* da, hots, *d-* gabea; hain zuzen, **De Agandiburu* > *Dagandiburu* itxuratxartzea egon dela pentsa daiteke[1175]. Ildo horretan, gogora dezagun *d-* (eta *t-*) euskal hiztegian mailegu, hitz adierazkor eta aditz forma mugatuetan baino ez dela azaltzen, bestela esan, euskara zaharreko sistema fonetikoan ez zegoela hasmentako *d-*rik. Izan ere, Mitxelenaren arabera (1951: 579-580; *FHV*, 254-255), hasieran *d-* duten euskal hitzak, maileguak ez direnean, kontsonante bigarrenkaria dute[1176].

Erdi Aroan hasierako herskariak ez ziren egonkorrak eta sarritan erori egiten ziren, sandhietan bezala[1177]. Hain justu, gurean *Oroztegui* / *Oroztegi* dugu 1101ean, gaurko *Gorostegi*-rekin zerikusia izan dezakeena, herri-etimologia dela medio; alabaina ez dakigu 12. gizaldiko aipamena heskariaren erortzearen lekuko den ala beranduago erantsi ote zaion. Ez litzateke herskari baten protesia egon delako etsenplu bakarra[1178], *Gipuzkoa* makrotoponimoa lekuko (*Ypuzcoa*, 1060).

[1173] Cf. Lakarra Andrinua (2006: 567).

[1174] Cf. Gorrotxategi eta Lakarra (2001: 423-424).

[1175] Disimilazioa da beste aukera.

[1176] Xehetasunetan sartuz gero, Lakarra Andrinuaren irudiko (1995: 201) hitz zaharretan hastapeneko *d-* guti egotea errepikapen hitzetan lehen horzkaria disimilazioz galtzearekin egon daiteke lotua (**do-dol* > *odol*).

[1177] Cf. Gorrotxategi Txurruka (1995b: 752).

[1178] *FHV*, 252.

Ezpainbikoen sailean, *B*-rekin hasten den *Bagoçu* eta *B*- / *M*- aldizkatzearen lekuko den *Bunieta* / *Munieta* bikoa dugu Orio-Igeldoetan. *Bagoçu*-ren kasuan, hortaz, mailegu zaharretako euskararen araua bete dela ematen du, hitz hasierako latinetiko ahoskabeak euskaraz herskari ahostun bihurtzea alegia.

Lehenago esan dugunez, *P*- kontsonantearekin hasten den toponimorik ez dago begiratu dugun 12. gizaldiko dokumentazioan. Hitz barruan agiturikoari erreparatuz gero[1179], 1178ko testuan digramak erabiltzen dira batzuetan ezpainbikoak adierazteko (*Apparren*; *Ammunola*). Tradizio idatzian ez ditugu gehiago aurkitu eta orduko euskararen adierazpide direteke, gauza jakina baita behinola euskararen herskariak artikulazioaren bortiztasunaren arabera bereizten zirela, hau da, gaurko *ahostun* / *ahoskabe* bereizketak ez zuela indarrik[1180]. Are gehiago: ematen du Erdi Aroan ere *ahoskabea* / *ahostuna* aurkakotasunaren emankortasuna eskasa zela. Mitxelenaren (*FHV*, 240, 243) iritziz, euskaraz behinola bazen aurkakotasuna hitz hasmentan, baina aldaketa fonetikoen ondorioz indargabetu egin zen, edota behintzat joera hori egon zen. Guztiarekin, Erdi Aroa aurreratua zegoen arte *ahostun* / *ahoskabe* aurkakotasuna ez zatekeen bi herskari multzoen arteko osagarritasunaren funtsa.

Ahostun eta ahoskabeez ari garenez, agerian ipini nahi dugu *Mentauio*-ren (1178) sudurkari ondoko *-t*-a berezia dela[1181], aurrerantzean toponimoa herskari ahostunarekin azaltzen baita aldi oro[1182] (*-nt-* > *-nd-* ?). Damurik, balia ditzakegun datuekin, jatorrizko forma hori den ala erratua den ezin esan; hain justu, *Mendauia* dokumentatzen da Nafarroan garai berean.

[1179] Gogoan izan bedi euskara zaharrean ezpainbikoen eta bortitzen sailen arteko gurutzaketan lauki hutsa zegoela, zenbait hitzetan *-p-* dugun arren, *lep(h)o* (‘cuello’) kasu. Izan ere, Mitxelenaren (*FHV*, 261) ustez konposatu azterezinak dira batzuetan horrelakoak.

[1180] Gainera, dirudienez, ezpainbikari bakarra zegoen, eta ez gaurko *m*-rik, ezta herskari bortitzik ere. Ikus Mitxelena (1957: 152-156; 1985 [1961]: 274-275, 374) zein Gorrotxategi e& Lakarra (1995: 108-109; 2001: 428-431).

[1181] Testua izkiriaturik dagoen hizkuntza kontuan hartu beharra dago hemen, latin itxurako grafia izan baitaiteke.

[1182] Hori dela eta, baliteke artean euskarara erabat moldatu gabeko mailegua izatea. Cf. Mitxelena (1957: 136-137 eta 1985 [1961]: 356). Bide batez, adieraz dezagun hitz barruan *-rz-*, *-ld-*, *-nt-*, *-st-*, *-nz-* eta *-nd-* kontsonante multzoak erabiltzen direla 1178ko idazkian.

Erdi Aroko euskararen ezaugarriekin jarraituz, gauza jakina da garai batean euskalki guztietan aspirazioa zegoela, baina Gipuzkoan noiz arte jarraitu zuen ezezaguna da. Mitxelenak (*FHV*, 205) jakitera ematen du Euskal Herriko sartaldeko zenbait eremutan 13. gizaldia arte iraun zukeela, baina baita ere Nafarroa Garaian 11. gizaldirako galdurik zegokeela. Gure esparruari dagokionez, 12. mendeko bost toponimotan azaltzen da *h*-a baina, grafema hori oro har jatorrizkoa denik ez zaigu begitantzen, besteak beste, bakanak izateaz gainera, *h* duten toponimoen erakuskariak ez datozelako beti bat elkarren artean. Esate baterako, HERNANI makrotoponimoa bost aldiz azaltzen da 12. gizaldian eta behin baizik ez du *h* (*Hernani*,1186-1193); zehazkiro esanda, aurreneko lau agerraldietan *Ernani(a)* forma irakur daiteke (*Ernani*,1101; *Ernania*,1105; *Ernani*, 1186-1189; *Ernani*,1197), 14 gizaldiaz geroztik tradizio idatzian normalki *Hernani* baliatu den arren. Hori horrela izanik, HERNANIren kasuan, 12. gizaldiko *h* hasierakoa aspirazioarekin lotua dagoenik ezin da esan.

H duen gure esparruko beste toponimoa URUMEA da. Hiru agerralditan du grafema hori, baina bi lekune ezberdinetan dago, elkargunean (*Urhumea*,1101) eta hitz hasieran (*Hurumea*,1141; *Hurumea*,1178 [1141-1142]). Aurreneko kasuan balio etimologikoa izatea zaila da, Lergako *ummesahar*-ek eta Akitaniako *ombe*-k *h* ikustearen kontra hitz egiten baitute[1183]. Azentuarekin lotua egon daiteke (cf. néke / nekhátu), *Urúmeà* esaten bazen. Haiserako *h*-ak ere, izateagatik, aspirazioarekin izan lezake zerikusia, hots, jatorrizkoa (< **hur*) izan daiteke[1184], baina ez dugu uste horrela denik, testu berean *Urtarzando* eta *Arriestarieta* azaltzen direlako, konparaziora. Guztiarekin, jatorriz aspirazio bikoitza egotearean hipotesia ere ezin da baztertu, eta gero dismilazioa garatzea[1185], bestela esan, bilakabidea **hur-humea* > *urhumea* izatea.

Gure esparrutik gertu *h*-rekin izkiriaturiko beste bi toponimo daude. Aurrenekoa IGELDO da eta estreinako aipamenean aztergai dugun grafema bokal artean dago (*Iheldo Bizcaya*,1141), hurrengoan hitz hasieran ageri bada ere (*Hieldo*,1178). Gure iritziz,

---

[1183] Ikus Mitxelena (1959: 3) eta Gorrotxategi Txurruka (1984: 245).

[1184] *FHV*, 216. Igartuaren (2006: 528) iritziz, Erdi Aroan toponimian aspirazio markak azaltzeak (*Hurumea*, 1379) eta Nafarroako Behereko ebakerak (*hur*) silaba bakarreko hitzetan aspirazioa ugariagoa zela iradokitzen dute.

[1185] Cf. Igartua (2006: 528).

aurreneko etsenplukoa litzateke jatorrizkoa, ez bigarrengoa, *H-* hori *I-eldo* irakur dadin paratu bide zutelako, eta ez **Yeldo* (cf. Iruñea ondoko *Huarte*). Aukera hori egiaztatuko balitz, bokal arteko belarra (*Igeldo*), segur aski, hiatoari eusteko litzateke, aspirazioa desagertu ostean.

IGELDOtik nahiko hurbil LOIZTA saroia zegoen (*Loizta*,1178), LOIZTARANekin lotura duena (*Loiçtaran*,1178). Behin azaltzen da *h*-rekin (*Lohiçta*, 1197) eta testu bereko beste aipamenean ez dago hizki horren zantzurik (*Loizta*,1197). Kasu honetan jatorrizkoa izan liteke, beti batekoa dela ezin esan bada ere. Bidenabar, *Lordibeguia* (1178) ere aipatu nahi dugu, *begi* osagaia ez delako beste inoiz azaltzen gure esparruan eta, dakigula, gainerakoan ere aski gutxi erabili delako Gipuzkoako ipar-sortaldeko toponimian. Hain zuzen, datu hori eta testua 13. gizaldian egindako kopia dela aintzat hartuz, hauxe esango dugu, garbia baitirudi: **Lordi heguia* (**Elordi hegia*?) jatorrizkoaren itxuratxartzea dateke *Lordibeguia*.

Aralarko *Gorostica Zaharra* (1141) toponimoaren kasuan bistakoa da *h*-a jatorrizkoa dela, nahiz eta, handik urte gutxira, *Gorostiaga zaarra* (1178) forma topatu dugun, zati espezifikoaren aldetik zuzenagoa dirudiena, egungo GOROSTIAGA kontuan hartuz gero bederen; alabaina, ikusten den bezala, bigarren etsenplu hori *-h-* gabe dago idatzirik eta, ondoan dauden bi bokal irekiak ikusirik, irudi du aspirazioaren galera ez zela oso aspaldi gertatu.

Laburbilduz, ematen du 12. gizaldiko dokumentazioan ageri diren hitz hasierako *h* gehienak ez direla etimologikoak, bai, ordea hitz barruko aleren batzuk. Horrek ez du esan nahi garai hartan Gipuzkoako sortaldean (lekune horretan) aspirazioa bizirik zegoela, baina, gure esparruko tradizio idatzia ikusita, pentsa liteke erabateko desagerpena ez zela 12. gizaldia baino askoz lehenago agitu. Ildo horretan, azpimarratu nahi dugu Gipuzkoako toponimia duen 11. gizaldiko agiri bakarrean (1025. urtean) *h*-a 12. gizaldian baino gehiagotan ageri dela[1186], hiru izenetatik batean ia (*Gaharraga*, *Haralarre*, *Heziza zaval*, *Hezi caray*, *Zuhaz nabar*, *Haya*). Uste izatekoa da, beraz,

[1186] Ildo beretik, Aralarren bertan, baina Nafarroako alderdian oraingoan, *Lehessoç* dugu 1074. urtean.

aspirazioa ez zatekeela bat-batean galdu, pixkanaka baizik eta, agian, hitz barruan hitz hasmentan baino zertxobait beranduago. Zentzu horretan, 12. gizaldiko testuetan kausitu hitz barruko *h* batzuek, bakanak izanagatik, aspirazioak ia ordu arte iraun zuela adieraz lezakete, baina, nolanahi ere, garbi dago hitz barruan ere biziro indar gutxi zuela aldi hartan, espero izatekoa zen etsenplu askotan haren zantzurik ez dagoelako, *Eierala* saroi-izena kasu[1187] (< *eiher* 'seco').

12. gizaldian gure esparruko toponimoetan ikusten diren sudurkariei bagagozkie, *m*-z bukatzen den alerik ez dago, eta *n*-z hasten denik ere ez[1188]. Hitz barruan badago *m / n* aurkakotasuna eta bada *n*-z amaitzen den toponimo bat ere. Deigarriena, segur aski, dagoeneko aipatua dugun *Ammunola* toponimoaren sudurkari anizkuna da, *[mb]* fonemaren edo haren oinordekoaren adierazpena izan litekeelako[1189], euskara zaharra eta Erdi Arokoa gauza ezberdinak direla ahaztu gabe betiere; izan ere, 1178ko testuan *Hurumea* forma ageri da, ezpainbiko sudurkaria adierazteko *-m-* grafema duena, eta ez *-mm-*. Bestetik, *-nn-* grafiaren adibiderik ez dago.

Albokariei lotuko gatzaizkie orain. Hitz hasieran *l-* duten *Lastaola* eta *Legarralde* ditugu gure esparruan, eta hitz barruan *-l-* duten *Zuloeta*[1190], *Ammunola*[1191], *Gierala*, *Macurssola*, *Izarrlegui* eta *Eualibia.* Hitz amaieran behin azaltzen da Gipuzkoako 12. gizaldiko dokumentazioan, hain zuzen Orio-Igeldoetako *Errarzaual* (1178) / *Erratcabal* (1177) saroi-izenean.

Dardarkariei doakienez, hitz barruan kontsonante errepikatua duten toponimoak (*Apparren*) eta bakuna dutenak daude (*Hurumea*). Hitz amaierari begiratuz gero, dardarkari indartsuaren grafema opatu dugu *Arainiuarr*-en[1192], garai hartako euskararen

---

[1187] Cf. *FHV*, 220-221.

[1188] Cf. *Op. cit.*, 310.

[1189] Ikus Mitxelena (1957: 152-156; 1985 [1961]: 274-275, 374) eta Gorrotxategi & Lakarra (1995: 108-109; 2001: 428-431). Bidenabar, gogora dezagun Lergan *ume mm* digramarekin dagoela idatzia (*VM.ME .SA.HAR*); Mitxelenak (*FHV*, 538) *[mb]* multzoaren asimilazioaren erakuskaritzat daukala.

[1190] Gogora dezagun hizkuntzaren ondare zaharreko hitz askok *r* bihurtu ez den bokal arteko *l* dutela, *zul(h)o* lekuko (*FHV*, 320).

[1191] *Amunolla* (1467, HUA5).

[1192] Ikus Mitxelena (1957: 141). Lakarra de Miguelek (1949: 425) *Anainiuarr* formaz transkribatzen du.

adierazpide datekeena, nolabait esan[1193]. Hondarreko dardarkarien karietara, Mitxelenak (*FHV*, 333) dio *r / R* aurkakotasuna kontsonante aurrean (*h* aurrean izan ezik) eta hitz amaieran indargabetu egiten zela, artxifonema bortitz moduan gauzatuz, dardar bat baino gehiagorekin. Ondoren eransten du Nafarroako Erdi Aroko idazkietan *-rr* grafiak ez direla arraroak (*Nauarr Olatze*, *Landerr erreca*, *Aynaçcarr*, *Lazcaiuarr*).

Kontsonanteekin bukatzeko, txistukariez mintzatuko gara. Urumeako zilegimendietan *Z-* grafema baizik ez dugu aurkitu hitz hasieran (*Zuloeta*) eta orobat hitz amaieran (*Anziz*, *Muez*), nahiz eta handik gertu, Usurbilen *S*-z hasten den *Saria* dugun, eta zertxobait urrutiago, Aralar ondoan, *Ariatz*. Hor daude fidagarriak ez diren *Çurçaiate* 1197 (1014) eta *Anayçoç* 1197 (1014) saroi-izenak ere. 12. gizaldiko iturrietan *Ch-* grafiarik ez dago hitz hasmentan.

Hitz barruan *-z-*, *-s-* eta *-ss-* grafiak daude gure eremuan 1178ko agirian (*Izarrlegui*, *Guaragarze*, *Urtarzando*, *Lastaola*, *Macurssola*) eta idazkun hartan bertan zein 12. gizaldiko beste testu batzuetan *-tz-*, *-ç-*, *-tc-* eta *-ch-* aurkitu ditugu gainerakoan: *Anetzia* (1178), *Badotzu* (1178), *Berarratza* (1178), *Saueriolatze* (1178), *Alça* (1141); *Lohiçta* / *Loizta* (1178), *Erratcabal*[1194] (1177), *Iuchita* (1178). Pentsa daiteke zenbait aldiz *z*-k sudurkari eta dardarkari ondoko afrikaria adierazten duela, gaurko oinordekoei begiratuz batez ere (ANTXISTA, GARAGARTZA, UZTARTZA), eta orobat hitz amaieran (MUGATZ). *Macurssola*-ren *-rss-* multzoa ere nabarmendu nahi dugu, denboraren buruan dardarkaria galdu duelako, beste etsenplu batzuetan gertatu moduan[1195]. Azkenik, 12. gizaldiko Gipuzkoako toponimian ikusten den kontsonante-koadroa dakargu:

[1193] Cf. *FHV*, 310, 333.

[1194] *Errarzaual* 1178.

[1195] LATXA toponimoaren lehenbiziko erakusgarria *Larsa de Avillas* da (*-rts-* > *-rs-*). USOKO toponimoaren kasuan ere, 18. mende arte *-rs-* grafiaz adierazitako multzoak *-s-* eman du (*-rs-* > *-s-*).

	Hitz hasieran	Hitz barruan	Hitz amaieran
Ezpainkariak	*B-*[1196] */ M-*	*-b-*, ***-u-***	
		-pp-	
Horzkariak	*D-*?	***-d-***	
		-t-	
Belarrak	***G-***	***-g-***	
		-c-	
Sudurkariak	***M-***	***-m-, -mm-***	
		-n-	***-n***
Albokariak	***L-***	***-l-***	*-l*
Dardarkariak		***-rr-***	***-rr***
		-r-	
Txistukariak	***Z-, Ç-***	***-z-***	***-z***
		-tz-, ***-z-***[1197]*-ç-*, *-tc-*	*-tz*, *-ç*
	S-	***-s-***	
		-ss-	
		-ch-	

[1196] Gure esparrutik at dauden toponimoei dagozkien kontsonanteak letra argiagoz adierazi ditugu.

[1197] Sudurkari zein dardarkari ondoko txistukari igurzkaria ordezkatzen du, gaurko oinordekoetan afrikaria dena (ANTXISTA eta GARAGARTZA).

9.3. Begira diezaiogun orain morfologiaren alorrari. Hasteko, toponimoen laurdenak mugatzailea duela agerian jarri nahi dugu, munta handiko multzoa osatzen dutela, alegia. Xehetasunetan sartuz gero, talde horretako lau toponimok, guztiak 1178koak direnak, (*Ataria Barrunecoa*, *Iuargoiena*, *Zalburcaicoa*, *Argoiena*) kokapena zehazten duen bigarren zatia dute (*-barruneko*, *-goien*, *-caico-* [< *garaiko*?]). Haatik, artikulua ez da ageri espero zitekeen adibide frankotan, bigarren elementutzat izen ez konkretuak dituzten toponimoetan kasu (*Badotzularraburu*, 1178 / *Bagoçu Larraburu*, 1197; *Dagandiburu*, 1178; *Legarralde*, 1178). Bigarren tokian *-arue / -arbe*, *-iuar*, *-zaual*, *-uide* eta *-larre* osagaiak dituztenetan ere ez da azaltzen (*Irarue*, 1178; *Arainiuarr*, 1178; *Errarzaual*, 1178; *Vrdauide*, 1178; *Aralarre*, 1141) eta orobat *-egi*-ri dagokionean: berrekailu hori duten bi toponimoetan ez dago artikuluaren zantzurik (*Orozteg[u]i*, 1101; *Izairlegui*,1178). Laburbilduz, mugatzailearen erabilpenak indarra zuen toponimian 12. gizaldian, nahiz eta, ikusi dugun bezala, sarritan, espero zitekeen tokian ez azaldu. Alde horretatik, joerak antzematen dira batzuetan[1198], eta diogunaren erakuskari dira, adibidez, *-buru* izena (ez du hartzen; cf. *-alde*) eta *-goien* superlatiboa (bai).

Gutxi dira zati generikoak dituzten toponimoak aztertu dugun dokumentazioan. Lehenbizi azaltzen direnak Donostiako *Iheldo* ***Bizcaya*** (‘Igeldo aldea’) eta Aralarko *Saueria* ***Olatze***[1199] dira, 1141. urtekoak biak; bi generiko horiek iharturik daude, horratik, egun gure esparruan. Bada kasu berezia ere, hots, erromantzeko *agua* generikoa bide duen etsenplua. *Iturrioz**agua*** formaz ari gara (1178) eta, ikusten den moduan, hidronimo bati dago itsatsia. Beste aukera *-ago* (‘ahoa’) egotea da, toponimia arloan ongi ezaguna dena. *Çurçaiate* (1197) toponimoak ere zati generikoa izan dezake, hau da, *ate* izen geografikoa egon liteke, baina iturria ez da fidagarria (*Çurçai-ate*?); hain zuzen, litekeena da *-eta* atzizkiaren itxuratxartze baten aurrean egotea. Argitu dugu lehenago *Lordibeguia*-ren (1178) iturburua **Elordi heguia* datekeela eta, azkenik, derragun osagai bereizgarria duten bi toponimo daudela, *Gorostica Zaharra*, (1141) / *Gorostiaga zaarra* (1178) eta *Ataria Barrunecoa* (1178).

[1198] Cf. Manterola (2006: 656-657).
[1199] *Saueriolatze* 1178; ‘Saberi(a) ola dagoen lekua’. Cf *Saria*.

Amaierei doakienez, *-aran* duten bi lekuko daude 1178ko izkribuan bertan (*Amossorara*, *Loiçtaran*), aurrerago *-arain* formarekin kausitu ditugunak (AMASORARRAIN, LOIZTARAIN; cf. *Lohiçta*, *Loizta* 1197). Azpimarra dezagun, era berean, *Apparren* toponimoaren *-en* bukaera salbuespena dela, gainerakoan (15. gizalditik aurrera) *-ain* azaltzen delako beti (cf. ALKATXURAIN). Aukera bat egiazko forma **Apparraen* edo zela pentsatzea da, eta eskribauak oker kopiatu zuela. Salbuespenez ari garenez, gogora dezagun ANTXISTA saroi-izenaren erakuskariak ez duela *-ta* osagaia bukaeran (*Anziz*), beste testigantza guztietan agertzen bada ere.

9.4. Joskeraz ari delarik, Mitxelenak (*FHV*, 415) ohartarazten du euskara historikoaren ezaugarrietariko bat konposatu asko egotea dela. Ildo beretik, espresuki toponimia arloari dagokionean oraingoan, Gorrotxategi Txurrukak (1995b: 754) nabarmentzen du *izena* + *izenondoa* egitura emankorra dela oso. Ikus dezagun, bada, 12. gizaldiko dokumentazioak zentzu horretan zer adierazten digun.

Egituraren aldetik, *Orio*-k (1178; *Ori-o*) eta *Saria*-k (1178; *Sarria*, 1177) bakunak dirudite, nahiz eta iturburua zein den zehatz-mehatz ez jakin. Izen elkartuen sailera etorriz gero, *izena* + *izena* azpisailekoak daude lehenbizi, eta horien artean ez dira gutxi bigarren tokian izen geografikoa dutenak: *Eualiuia* (1178; *Eual-iui-a* [*Amil-**ibi**-a*]), *Irarue* (1178 ; *Ir-**arue***), *Lussarbe* (1178 ; *Luss-**arbe***; *Laysorbe*,1177), *Mentauio* (1178; *Menta-**ui**-o*), *Vrdauide* (1178; *Vrda-**uide***; *Urdarbe*,1177); aintzat har beza irakurleak bi toponimok *-arbe / -arue* (*harpe*, 'cubil') osagaia dutela[1200]. Ildo beretik, *Çurçaiate* (1197; *Çur-çai-ate*?) zein *Atelecotia* (1178; *Ate-le-cotia*?) toponimoak ere elkartuak izan daitezke (*-ate*; *-goitia*?), baina hori ustekizuna besterik ez da.

Beste multzo garrantzitsua *izen konkretua* + *bereizgarria* aspisalekoek osatzen dute. Hiru dira guztira: *Legarralde* (1178; *Legarr-**alde***), *Argoiena* (1178; *Ar-**goiena***), *Iuargoiena* (1178; *Iuar-**goiena***) eta *Iringuren* (1178; *Irin-**guren***). *-Goien* superlatiboa bi etsenplutan ageri denez gero, eta *-guren* beste behin, pentsatzekoa da, zehatz-mehatz, ez zuketela adiera bera.

[1200] Ikus GOROSTARBE.

Arainiuarr (1178; *Arain-iuarr*) toponimoari doakionez, hauxe da gure iritzia: lehen osagaia *(h)arain* / *(h)aran* ('valle') dela uste dugu, 'haraneko ibarra' adiera arrunta ez bada ere (cf. Gallipentzuko *Ibarreko harana*, *EAEATB*, 408 or.). *Izena* + *izenondoa* egitura duten toponimo gutxi daude, *Hurumea* (1141; *Hur-umea*; *Hurumea*,1178), *Iturriozagua* (1178; *Iturri-oz*-[*agua*]) eta *Errarzaual* (1178; *Errar-zaual*; *Erratcabal*,1177) besterik ez. Litekeena da *Anayçoç* (1197; *An-ayç-oç*) ere sail horretakoa izatea, baina iturria ez da fidagarria. Ñabardura moduan, esan dezagun ez dagoela kromotoponimorik aztertzen ari garen izen multzoan.

Izena + *paratzizkia* egitura duten toponimoei bagagozkie, talde garrantzitsuena *-ola* dutenena da, eta ez da harritzeko, saroiak direlako mintzagai nagusia (cf. *Vaga Olha*, Orreaga, 1284); bost dira guztira, lau gure esparrukoak eta bosgarrena Aralarkoa: *Ammunola* (1178; *Ammun-ola*), *Eierala* (1178; *Eier-ala*), *Lastaola* (1178; *Lasta-ola*), *Macurssola* (1178; *Macurss-ola*) eta *Zamilola* (1141; *Zamil-ola*; *Zamilola*,1178). Hirugarren adibidearen karietara, ohar bedi irakurlea elkarketaren arloan aurrerago arrunta den soinu-aldatzea dugula, alegia, lehen osagaiaren azken bokala ireki delako adibide dugula *Lastaola*, osaketa *lasta-* (*lasto*) + *ola* delako.

Badira, horratik, zalantzazko osaketa duten zenbait toki-izen. *-(G)un(e)* paratzizkia, konparaziora, bi adibidetan egon liteke, biak dudazkoak diren arren: *Içurun* (1197; *Içur-un*) eta *Goizeta Jaznue* (1178; *Goizeta Jaznue* < **Jazune*?).). *Hernani* (1186-1193, *Hern-ani*; *Ernani*,1197) makrotoponimoaren etorki zehatza ere ezezaguna da[1201], eta orobat Aralarko *Atelecotia*-rena (1178; *Ate-le-cotia* < *Ate* + *ola* + *goitia*?). Besterik da *Apparren* (1178; *A-pparr-en*) toponimoaren kasua, *-en* dugulako[1202], **-aen* edo *-ain* espero zen tokian (*Aparrain*). Amaierez ari garenez, diogun *-aran* amaiera[1203], denboraren buruan *-arain* eman duena, *Loiçtaran* (1178; *Loi-ç-ta-ran*) eta *Amossorara* (1178; *Amo-ssor-ara*) saroi-izenetan ageri dela, azkenak *-n* falta badu ere.

[1201] Cf., konparaziora, **Ern**io, Altz**ania** eta Bid**ania**.

[1202] Gure esparruko ALKATXURAIN saroi-izenaren kasuan *-en* irakur daiteke, *-ain*-en tokian, 1467. urteko lekukotasunetan (*Alcaycuren de yuso, Alcayçuren de suso,* HUA5); 18. mendeko kopian *Alcaizuren de iuso* (HUA6) eta *Alcaizuren de suso* (HUA6) baliatzen dira.

[1203] Cf. *Aralarre*.

Izena + *atzizkia* osaketa duten toponimoen sailera etorriz gero, 12. gizaldiko dokumentazioan beranduago aurkitu ditugun atzizki gehienak ageri dira, guztiak ez esateagatik; zehazkiro, *-aga*, *-eta*, *-egi*, *-di*, *-tza* / *-tze* zein *-zu* berrekailuak dituzten toponimoak irakur daitezke. Aniztasunaz gainera, atzizkiek duten pisua ez da edozein eratakoa, gutxienera jota, toponimoen herenak aipatu osagaia baitu.

Xehetasunei erreparatuz gero, *-aga* duen ale bakarra dago, *Gorostiaga zaarra* (1178; *Gorosti-aga*; *Gorostica Zaharra*, 1141). Aldiz, *-eta* atzizkia duten sei toponimo daude gutxienez, eta agian zazpi. Aurreneko lauren osaketa gardena da: *Loizta*[1204] (1178, *Loi-z-ta*; *Lohi-ç-ta*,1197), *Bunieta* (1178, *Buni-eta*; *Muni-eta*,1197), *Soroeta* (1141, *Soro-eta*) eta *Zuloeta* (1178, *Zulo-eta*). Besterik da *Iuchita* (1178; *Iuchi-ta*; *Irur-di-ta*,1197?) eta *Goizeta Jaznue* (1178; *Goiz-eta*?) formen auzia, horien etorkia ez baita aurrekoena bezain argia; halaber, *Çopite*-ren (1197, *Ço-pi-te*) kasuan ez da gauza segurua *-eta* dagoela. Azkenik, *Arriestarieta* (1178; *Arri-estari-eta*; *Ariastreta*,1177) dugu, *izena* + *izenondoa* + *-eta* egitura duen adibide bakarra; azken horren karietara, aintzat har dardarkaria duela, albokariaren ordez[1205] (*[H]arri* + *estali* + *-eta*?; *Ahari* + *estali* + *-eta*?).

-Di duten bi forma daude (*Lordibeguia*, 1178; *Lor-di-beguia*; *Dagandiburu*, 1178; *Dagan-di-buru*), eta ez dago *-do.i* jatorrizkoaren zantzurik. Badago, ordea, *-do* atzizkia dukeen toponimoa (*Iheldo Bizcaya*, 1141; *Ihel-do*; 1178, *Hieldo*). Aurreko horiekin batera, eta *-egi*-ri gagozkiolarik, *Izair-legui* (1178; *Izair-[l]egui*) dugu gure esparruko saroi-izenen artean, baina ez dirudi elkarguneko *-l-* jatorrizkoa denik, *Lizarregui* azaltzen baita gainerako lekukotasunetan.

Txistukaria duten atzizkien multzoa hartuko dugu ahotan orain. Hemen, lehen-lehenik, *Ezquiaso* (1178; *Ezqui-a-so*) azpimarratu behar dugu, *-zu* atzizkiarekin dagokeelako lotua, bestela esan, etsenplu horretan *-so* forma *-zu*-ren aurrekaria dela irudi duelako[1206] (*Ezquizu*, 1452; Aierbe, 2005: 14). Zernahi gisaz, testu berean *-(t)zu* duen *Badotzu* (1178; *Bado-tzu*; *Bagoçu*,1197) daukagu, baita Pasaia-Errenterietako *Albiçungo*

[1204] Cf. *Anziz* (1178), *Ançista* (1607, HUA23).
[1205] *L*, disimilazioz, *r*-tik ateratakoa izan liteke (*FHV*, 361).
[1206] Etorkia *Ezki* + *baso* ere izan liteke.

ere, azken horren kasuan gauzak hain garbi ez dauden arren (1197; *Albi-çu-n-go* / *Albiç-un-go*?). Sail berean, *-t(z)a* duten bi toponimo daude *Berarratza* (1178; *Berarr-a-tza*) eta *Urtarzando* (1178; *Urtar-za-ndo*) baita *Alça* (1141; *Alça*) herri-izena ere, baina honen egiazko sorburua zein den ezezaguna da. Badaude *-tze* duten bi ale. Aurrenekoari datxekionez, agerian ipini nahi genuke *Garagarze* (1178) salbuespena dela tradizio idatzian, usaian *Garagartza* kausitu dugulako. *Saueria Olatze*-ri dagokionean (1141; *Saueriolatze*, 1178) ez dago aurreragoko mostrarik eta ezin ziurtatu egiazki *-tza* edo *-tze* dagoen[1207].

Txistukari bizkar-hobietakoarekin amaitzen diren toponimoak hiru dira, baina horietako batek *-ta* atzizkia du beste aipamen guztietan[1208] (*Anziz*, 1178; *An-zi-z*). Bidenabar, argi dezagun arras litekeena dela *Ançieta* (1197) aipamena azken toponimo horrekin lotua egotea; zehazkiro esanda, **Ançiçta* formaren okerreko aldaera izan liteke (cf. *Loizta*, *Loiçtaran*). *Ariatz* (1178; *Aria-tz*; *Ariaz*,1141) eta *Muez* (1178; *Mu-e-z*) toponimoen kasuan ez dago aldaketa larririk ondorengo erreferentzietan, bukaerari dagokionean behintzat (*Araitz*, MUGATZ). Txistukaria duten atzizkiekin amaitzeko, *-tzi* / *-ci* osagaia duten bi toponimo daude, *Aenetzia* (1178; *Aene-tzi-a*; *Anayçoç*, 1197) eta *Lapascia* (1177; *Lapas-ci-a*). Aurrenekoak bizirik dirau, baina bigarrenak ez, zoritxarrez, galdua dagoelako. Bien nondik norakoa ezkutukoa da.

Atzizkiekin amaitzeko, *-ndo* txikigarria dukeen etsenplu bakarra dago[1209], *Urtarzando* hain zuzen[1210] (1178; *Urtarza-ndo*) eta kontuan har saroi-izena dela, esan nahi baita saroi txikiak eta handiak egon direla (‘Uztartzako saroi txikia’?). *Albiçungo* (1197) dela eta, *-ngo* segidaren atzean egiazki zer dagoen jakitea ez da aise eta, damurik, ondorengo lekukotzek ez dutela argibiderik ematen (*Albiçungo*[1211], 1409).

[1207] Cf. *Olatzagutia* herri-izena.

[1208] Manterolaren iritziz (2006: 674), *-eta* atzizkia ez da laitnetik mailegatua eta *-ta* bakartu daiteke, leku-kasuekin harremanduz. Berebat, erakusleetatiko hasperenketaz mintzo da (*-heta*).

[1209] Ikus Gorrotxategi Txurruka (1995b: 750) eta Salaberri (2005: 115).

[1210] Bi atzizki dituzke, hortaz, *-tza* eta *-ndo*.

[1211] Crespo & Cruz & Gómez (1991 144).

9.5. Errepikatzen diren osagai gutxi daude aztergai ditugun 12. gizaldiko toponimoen artean, *goien* izenondoa eta *ibar* izen geografikoa baizik ez. Deigarria da, bide batez, *saroe* hitza behin ere ez azaltzea, testuetan izendatzen diren elementu gehienak saroiak izan arren. Ildo beretik, izenondoak bakanak dira, *otz* (*Iturriozagua*,1178), *goien* (*Argoiena*; *Iuargoiena*, 1178) eta *estari* (*estali*?) besterik ez. Hain zuzen, lehenago esan moduan, *izena + izenondoa* egitura bide duen oinarri bakarra dago (*Arriestarieta*, 1178). Hain zuzen, azpimarratzekoa da estenplu horretan izenondoak partizipio batean duela jatorria.

Honatx aztertu dugun 12. gizaldiko toponimian dagoen hiztegia: abaro? (1178), alde (1178), amil-? (*Eual*-, 1178), amona (*Amun*-, 1178), harpe (-*arue*, 1178), atari? (1178; *Ata Iria*, 1074), ate? (1197), pago (*bago*-, 1197; *bado*-, 1178), barru (1178), belar? (*Berarr*-, 1178), bizkai (1141), buru (1178), estali? (-*estari*-, 1178), garagar (1178), garaiko? (-*caico*-, 1178), goiti? (-*coti*-, 1178), ezki- (1178), goien (2) (1178), gorosti (1141), guren (1178), harri-? (1178), haran (1178), hegi (-*begui*, 1178), hotz (1178), ihar (*Eier*-, 1178), iturri (1178), ibar (2) (1178), ibi (1178), lizar (*Izair*-, 1178), larre (1141; *Larra*-, 1178), lasto (*Lasta*-, 1178), legar (1178), lohi (1178), elorri? (*Lor*-, 1178), eluts? (*Luss*-, 1178), makur (1178), muino (*Muni*-, 1177; *Buni*-, 1178), ola (1141), sarri? (1177; *sari*-, 1178), soro (1141), bide (1178), ume (1141), ur (1141), urde (*vrda*-, 1178), zahar (1141), zabal (1178), zulo (1178).

Hiztegi horren argitan paisaia menditsua marraz daiteke, espazio erreferentzia ugarirekin. Landaretza argibide garrantzitsua da eta abeltzaintzaren pisua ere sumatzen da, animalien aipamenak gutxi diren arren. Haatik, giza-urratsa agerikoa da.

12. gizaldiko toponimian kausitu izen eta izenondo askok bizirik diraute gaur egun eta iharturikoen artean badaude etorki ezaguna duten batzuk. -*Bi*- (-*ui*-, 1178) da etsenplu bat[1212] ('bide'). Gainera, gardenak ez diren toponimoen sailean, badira beste toki-izenen batzuetakoekin erka litezkeen osagai bat baino gehiago: *Ern*- (*Ernani*; 1101; cf. *Ernio*), *Menta*- (1178; cf. *Mendabia*), *Ori*- (1178; cf. *Orio*).

[1212] Ikus *FHV*, 412.

Aztergai ditugun toponimoen zatiez ari garelarik, toponimoen sorburutako hartzen diren zenbait hitz nahiz elementu hizkuntzaren ondare zaharraren parte dira, eta etorki ezaguna dute. *Garagar* da aurrenekoa, erreduplikazioaren emaitza dena[1213] (*gar-a-gar*; cf. *gari*). Ildo beretik, *Eiher*-ek (*ei-[h]er*; 'lehorra'), esate baterako, **(g)er* osagaia du[1214] ('txarra'). *Buru* (*bu-ru*) da beste etsenplua, *bV* aurrizkia baitu honek. *Makur*-i doakionez ('inclinado, arqueado, torcido'), diogun aurrizkia dutenen taldekoa datekeela[1215] (*ma-kur*). *Larre*-k ere ibilbide luze samarra du euskaraz[1216] (< *laR-e*). Berebat, *ibar* (**i-b-ar*), *ibi* (**ur-bi*) eta *zulo*-ri erreparatzen badiegu (*zul-o*), horiek ere egitura ezaguna dutelako[1217]. Hor daude, bestetik, *-i*, partizipio atzizki zaharra[1218], duten *iturri* (*i-turr-i*) eta *estali* (*estal-i*). Berrekailuez diharduguneZ, gogora dezagun gaurko zenbait ikertzaileren ustez *-zu* atzizkiaren osaketa *z-u* datekeela[1219] (*plurala* + *tokia*).

Mailegu zaharren sailean *belar*- dugu[1220], konparaziora. Horren karietara, Mitxelenak (*FHV*, 315) dio *L* eta *r* (*d*) arteko txandakatzearen adibide batzuk disimilazioari zor zaizkiola, hitz berean *r* eta *R* saihesteko joera indartsua egon delako (*berar* > *bedar*). Gurean *Berarratza* saroi-izena dago 1178an, lehen osagaiari (*Berarr*-i) itsatsirik, eta atzizkiaren aurretik (*-tza*), bokal irekia duena[1221] (*-a-*).

Baina gatozen harira, etsenplu horiek garbiro azaltzen digute 12. gizaldiko toponimian azaltzen diren hitz asko euskararen ondare zaharrekoak direla, bestela esan, kronologiaren aldetik ez dagoela oztopo gaindiezinik osagai horiek dituzten toki-izen batzuk Erdi Aro Goiztiarreko garai ilunetan ere bazirela uste izateko, eta, menturaz,

---

[1213] Op. cit., 424

[1214] Gorrotxategi & Lakarra (1995: 129).

[1215] Ikus *FHV* (272 or.) eta Gorrotxategi & Lakarra (2001: 412, 417-418). Martínez Artetaren (2006: 710-711) ustez **ba-gur* dugu zehazkiro hemen (<**gur*, 'makur').

[1216] Cf. *Larrahe* akitaniarra; Gorrotxategi (1995: 228). Lakarra Andrinuaren (2006: 570) irudiko **daR* dateke *laR*-en iturburua.

[1217] Lakarra Andrinua (2008**).**

[1218] Gorrotxategi & Lakarra (2001: 412). Lakarra Andrinuaren (2006: 576) iritziz, *lohi* ere sail berekoa dateke. Cf. Martínez Arteta (2006: 688, 710).

[1219] Op. cit., 432.

[1220] Lakarra Andrinua, 2008. *Mando* eta *mendi* ere kanpoko eraginak izan daitezke, latinaren aurrekoak (Mitxelena, 1964b: 144); Gure esparruko, *Mentauio* (*Mendabio*) toponimoaren lehen osagaiak, hain justu, biekin izan lezake zerikusia.

[1221] Manterolak (2006: 674) dioenaren ildotik, aukera bat *-a-* hori behinolako mugatzailearen hondakina dela pentsatzea da. Cf ILLARRASUAIN (*ilar* + *a* +- *zu* + *-ain*).

Antzinatean ere bai, Gipuzkoako ipar-sortaldean *Oiasso* toponimoa (eta euskara) lehen aldiz lekukotzen den sasoian, alegia.

9.6. Eskuartean balia ditzakegun datuen arabera, aztertu dugun 12. gizaldiko toponimia, Antzinatetik baino, gaurko euskaratik dago hurbilago. Hain zuzen, hustu dugun dokumentazioan garbi ikusten da aldaketa franko burututa zeudela toponimoak lekukotzen direnerako, bestela esan, idatzizko lehen lekukotzak hasi aurretik agitu zirela; *-l-* > *-r-* da urrats horietako bat eta latinezko *solum* maileguan jatorri duen *Soroeta* (1141) toponimoa dagokion adibidea.

Zernahi gisaz, arkaismoak ikusten dira, nolabait esan, zenbait toponimotan, fonetika arloan bereziki; zehazkiro esanda, euskara zaharreko zenbait murrizpenen zantzua dago, hitz hasierako herskarien atalean bereziki nabarmenak direnak; datu hau gogoratu nahi dugu, diogunaren frogatzat: *P-*, *T-* edo *K-*z hasten den toponimorik ez dago, eta *D-* duenik ere ez agian. Horrenbestez, mami-mamiraino joz gero, uste izatekoa da Erdi Aroko gizaldi ilunetan zehar pisuzko berrikuntzak egon zirela hizkuntzaren esparru gehienetan, eta, noski, sitema fonetikoa ez zela salbuespena izan, baina, hori horrela izanik ere, ikusi dugun bezala, irudi du azken arlo horretan euskara zaharreko zenbait ezaugarrik Erdi Aro Berantiarraren hasmenta arte iraun zutela, toponimian oinarri harturik horrelako baieztapenak egiten direnean gogoan izan beharreko baldintzapen guztiak ahantzi gabe betiere.

10. ONDORIOAK

10.1. Urumeako zilegimendiak eta hango toponimia azken hamarkadotan

10.1.1. Urumeako zilegimendietako toponimia aberatsa da. Joritasun hori erliebea menditsua izatearekin eta antzinatik gizakia han egotearekin dago lotua. Adibidea jarriko dugu, diogunaren lekuko: Nafarroako mendialdean dagoen toponimo kopuru bertsua dago, hau da, kilometro koadroko hemezortzi toponimo oinarrizko edo izenburu nagusi daude[1222], gutxienera jota, Urumeako zilegimendietan (676 guztira). Are gehiago: izenburu nagusien eratorriak, forma berak elementu ezberdinak izendatzen dituen kasuak eta iharturik dauden izenak aintzat hartuz gero, orotara, berrogeita bederatzi toponimo aurkitu ditugu batez beste kilometro koadroko aztergai izan dugun lurraldean[1223] (1.855 guztira).

10.1.2. Urumeako zilegimendiak, eta ondoko lurraldea oro har, asko aldatu dira aurreko bi gizaldietan, joan deneko bost hamarkadotan bereziki. Espero izatekoa zenez, alor gehienetan (biztanlerian, ekonomian, paisaian) larria izan den aldakuntzak eragin sakona izan du toponimian, izenen erabileran eta transmisioan batez ere. Izan ere, gauza ezaguna da toponimoek errealitate bati lotuta irauten dutela eta hura birmoldatzen edo desagertzen denean toki-izenak galdu edo ihartu egiten direla usuenik.

Urumeako zilegimendiek ez dute izaera bereziturik gaur egun. Zilegi ezaugarria nahiz lurralde batasuna galdu zuten behinola eta hiru udalerrirenak diren lau zatitan daude banatuak. Esan bezala, biztanleria, ekonomia eta paisaia ez dira garai batekoak eta, erreka ondoko guneak alde batera utziz gero, iraganean bizitzaz gainezka egiten zuen ingurua hustuta dago ia erabat.

1222 Oinarrizko forma bakoitzeko 8,7 aipamen kausitu ditugu batez beste.

1223 Toponimo edo izenburu bakoitzeko 3,8 lekukotasun jaso ditugu.

Donostialdean oro har, eta Urumeako zilegimendietan bereziki, egondako mudantzen ondorioetako bat ahozko tradizioaren gainbehera izan da. Administrazio-izaera, biztanleria, ekonomia eta paisaia alorrean duela bi gizaldi hasitako aldaketa nabarmenki areagotzen joan da azken bost hamarkadotan. 1959. urtea erreferentzia garrantzitsua da hori guztia ulertzeko, antzinako Urumeako zilegitik zirauen azken hondarra (Urnietakoa) orduan desegin eta saldu baitzen. Hain justu, Donostialdeko industriaren eta biztanleriaren azken garapen-aldia ere orduan hasi zen. Horrenbestez, 20. mendeko hirurogeiko hamarkadaren hasiera har daiteke ahozko tradizioaren gainbeheraren zedarritzat.

Egun, aztertu ditugun mendietan dabiltzan pertsona gehienak ez dira bertakoak, Donostialdeko hiriguneetakoak baizik. Bisitariek, eta dauden biztanle gehienek, ez dute iraganean bertakoek eta ingurukoek zilegimendiekin zuten lotura estua, kanpoan bizi edo lan egiten dutelako, eta ez dutelako zilegimendien premiarik aurrera ateratzeko. Laburki esan, bide eta gailur ezagun batzuz landara, gaurko bisitariek ez dute lurraldea garai bateko biztanleek bezain sakonki ezagutzen eta, jakina, horrek eragina du toponimiaren erabileran eta transmisioan: Urumeako zilegimendietan ibiltzen direnek, oro har, ez dute hango toponimia ezagutzen, gailur eta jatetxe gutxi batzuen izenak izan ezik. Elkarrizketaturiko 73 berriemaileei, berriz, 3.000 aipamen baino gehiago jaso dizkiegu, hau da, bakoitzak, batez beste, 42 lekukotasun ekarri ditu. Gainera, 50 toponimo baino gehiago ahotan hartzen dituzten informatzaileak ez dira gutxi, eta badira 100 edo 200 ezagutzen dituzen lekukoak.

Urumeako zilegimendietako gaurko bisitariek toki-izenak ez dituzte, garai batean bezala, hitzetik hortzera baliatzen, baliatzekotan, kasuan-kasuan, idatzizko iturrietatik eta, batez ere, mapetatik eta mendian dauden seinaleetatik hartzen dituztelako. Horrez gainera, ibiltariek (euskaldunak direnean) euskara hirikoa eta toponimia arautua darabilte. Hori dela medio, neurri batean, toponimia gehiena ihartua dagoela esan daiteke; toponimoak ez dira sortu ziren tokiko hizkeran erabiltzen eta, hala, ahozko tradiziotik kanpo, nekez biziberri daitezke.

Izen askoren erabilpena ez ezen, toponimiaren transmisioa ere nabarmen ahuldu da azken hamarkadotan, esan moduan, ahozko erabilpenik ez dagoelako ia. Izenak ez dira belarriz ikasten, begiz baizik, ahozko tradizioa etenda dagoelako (leku-izen gehienak idazkietan baizik ez daude gordeta). Bizirik dirauten ahozko tradizioaren gordailuek toponimiaren zatia bakarrik ezagutzen dute, eta horrela aitortu ohi dute; gaurko iturrien erabiltzaileek, ordea, hala nahi izanez gero, edozein toponimo erabil dezakete, izen asko daudelako bilduak mapetan eta erraz eskura ditzaketelako.

Laburbilduz, ahozko tradizioa etenda dago eta toponimia gero eta gutxiago baliatzen da. Berriemaileak ere pixkanaka-pixkanaka joan zaizkigu. Zorionez, laurogeiko hamarkadan bizirik zirauen ahozko toponimia gehiena bildua dago, eta mapetan egoki kokatua. Horrez gainera, toponimo asko liburu eta mapetan argitaratuta daude. Hori guztia horrela delarik, Urumeako zilegimendietako toponimiaren iraupena bermatuta dagoela esan daiteke. Besterik da etorkizunean egingo duen ibilbidea, hau da, ondarea berreskuratuko den ala ez, gizarteratuko den ala ez. Izan ere, ez da ahaztu behar toponimoak gizakien arteko adostasunak direla, izaki geografiko jakin batzuei laburzki men egiteko, eta, ondorioz, gizartea aldatu edo desagertzen denean toki-izenak galdu egiten direla, sortu zituen taldeari lotuta irauten dutelako. Toponimo nagusiak, mendi eta erreka garrantzitsuen izenak (ADARRAMENDI, URUMEA...) giza-talde batek baino gehiagok ezagutzen eta erabiltzen dituzte eta, horregatik, etorkizun hurbilean, oro har, izen (nagusi) horien iraupen eta normalizazioan ez da aparteko zailtasunik aurreikusten. Besterik da, adibidez, “izen zientifikoen” (megalitoen izenen) auzia. Esparru horretan zailago ikusten ditugu gauzak, nahiz eta, gure iritziz, multzo horren normalizazioa hain nekeza ez izan. Azkenik, toponimia txikia dago. Sail horretako izenak talde xumeek erabilitzen dituzte eta, esan dugunez, aztergai izan ditugun mendi eta lurrak hutsik daude egun, han bizi edo lan egiten duen jende gutxi dagoelako, hitz bitan, hango gizartea desegituratua dagoelako. Hori dela eta, bildu ditugun izen txikiek irautea (eta beste batzuk sortzea) zaila izango da, eta egungo egoerari erreparatzea baino ez dago horretaz jabetzeko: dagoeneko iharturik ez daudenak ihartzeko zorian daude.

10.1.3. Urumeako zilegimendietako toponimiaren ikerketan bi aldi bereiz daitezke: ahozko tradizioaren bilketa eta toponimiaren arautzea eta argitalpena. Bakoitza noiz hasten eta noiz bukatzen den zehatz finkatzea erraza izan ez arren, badaude denbora-erreferentzia adierazgarriak.

Ahozko toponimiaren bilketa laurogeiko hamarkadan burutu zen batez ere. Lehenbiziko urratsa Donostiako Aranzadi Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat 1982. urtean hasitako toponimia inbentarioa izan zen. Elkarte berak 1989. urtean Donostia, Urnieta eta Hernaniko Udalentzat egindako lanak dira bigarren erreferentzia. Ildo beretik, laurogeita hamarreko hamarkadan argitaratutako beste ikerketa batzuk ere aurreko hamarkadan egindakoak dira, Oiartzungo OBIE elkartearena kasu. Azterketon bi tasun garrantzitsuenak fonologia alorreko lanak izatea eta izenek kokapen kartografiko egokia izatea dira.

Toponimiaren arautzea eta argitalpena ezaugarritzat duen aldiaren hasiera 1992. urtea da. Urumeako zilegimendien zati bateko toponimia arautua dakarren aurreneko mapa (Urnietakoa) urte horretan plazaratu zen, normalizazio-irizpideak behin baino gehiagotan egokiak ez badira ere. Harrezkero, Urumeako zilegimendietako eta gure esparruko toponimia biltzen duten lan gehiago argitaratu dira, mapak gehienetan. Lan horien ezaugarri nagusiak arautze-irizpide bateratuak ez jarraitzea eta izenek kokapen kartografiko zuzena izatea dira.

Informatzaileen desagerpena, ahozko tradizioaren transmisioan etena eta toponimiaren bilketa (eta argitalpena) ezaugarritzat dituen sasoi honetan idatzizko toponimia aztertzen jarraitzeak berebiziko garrantzia du. Ahozko tradizioa jasota dago neurri batean, eta, gainera, alor horretan bilketa berriak egitea gero eta zailagoa da, ezinezkoa ez esateagatik. Alde horretatik, aztertu dugun esparruko, eta oro har inguruko herrietako, toponimiaren ikerketan aurrera egiteko aukerak asko murriztu dira; hori horrela izanik, idatzizko iturriak husten segitzea besterik ez dago. Hain zuzen, idatzizko iturriek gaurko onomastikan duten pisua azpimarratu nahi dugu. Garrantzi hori tesi honetan argi ikusi da, lautatik hiru aipamen idatzizko tradiziotik ekarriak izateaz gainera, toponimo frankoren forma arautua hautatzerakoan gakoa idazkietan egon

delako. Zenbat eta atzerago joan orduan eta idatzizko aipamen gutxiago daude, baina, gutxi izanagatik, aurkitzen direnean, Erdi Aroaren amaierako nahiz Aro Modernoaren hastapenetako lekukotasunen balioa handia izaten da eta, esan gabe doa idatzizko iturri guztien hustuketa erabatekoa bukaezina dela, bai bertakoena bai kanpokoena.

10.2. Urumeako zilegimendietako euskara toponimiaren argitan

10.2.1. Toponimia eta euskara

Idatzizko iturriek toponimiaren ibilbidean sakontzeko aukera eskaintzen dute, ahozko tradizioan aurkitutakoaren etorkia eta izaera finkatzen laguntzeaz gainera. Badaude kontuan hartu beharreko zenbait baldintzapen halere, edozein azterketa egiten hasi aurretik ongi barneratu behar direnak. Hizkuntza bizia idatzizko iturrietan zenbateraino gordea dagoen jakiteko zailtasuna da garrantzitsuenetako bat, esan nahi baita, toponimian egondako aldaketak ez direla beti gertatu ahala dokumentuetan gorde. Gainera, jakina da idatzizko toponimia kontserbatzailea dela. Hain zuzen, toponimoek sortu ziren hizkuntza desagertutakoan ere irauteko gaitasuna dute; izendatzen duten egiazko izakiarekin lotura behar moduan ezarriz gero, beste hizkuntzetan erabil daitezke, ulertzeko arazorik gabe. Honenbestez, garai jakin bateko idazkietan tasun bat aurkitzeak ez du ezinbestean garai horretakoa denik esan nahi eta, halaber, toponimo bat domumentazioan agertzeak ez du baitezpada agiria idatzi zen garaian bizirik zegoela adierazten. Zernahi gisaz, ukaezina da idatzizko iturriek toponimiaren bilakabidea jorratzeko aukera eskaintzen dutela eta, neurri horretan, toponimia kokatzen den lurraldeko hizkuntza egoeraren bilakaera ezagutzen ere laguntzen dutela, hots, lekuan lekuko elementuak izendatu zirenenan zein hizkuntza zegoen eta nolakoa zen jakiteko balio dutela.

Urumeako zilegimendiak Gipuzkoako gune erromatar garrantzitsuena izan zen *Oiasso*-tik gertu daude, kilometro gutxira. Hirigunea Irunen zegoen eta Estrabon, Plinio eta Ptolomeok behin baino gehiagotan aipatzen dute gure Aroko lehen gizaldietan. Ñabarduretan sartuz gero, derragun azken egile horrentzat *Oiasso* gune baskoia zela.

Gipuzkoan, Nafarroan ez bezala, Inperioaren garaiko onomastika duen epigrafia gutxi dago[1224], baina onartua dago iturri klasikoek ahotan hartzen duten *Oiasso* (*Oihan*, *Oihar-* + *-sso*) eta egungo *Oiartzun* toponimo bera direla (*Oihan*, *Oihar-* + *-zu* + *-un* lokatiboa). *Oiasso* izena da, hain justu, euskararen lehen lekukotasuna Gipuzkoan eta, datu horren argitan, pentsa daiteke Urumeako mendietan ere, aldi hartan, duela bi mila bat urte, euskara ez zela hizkuntza arrotza. Hain garbi ez dagoena da *Oiasso* hiriaren ondoko eremua zenbateraino erromatartua zegoen, hots, hiriaren eraginak nolako garrantzia izan zuen. Guztiarekin, ondoan dagoen *Oiasso / Oiartzun* toponimoak bi mila urteko ibilbidea egin duela ikusirik, tesian aztertu ditugun zenbait toponimo nagusi ere, hau da, zenbait mendi eta erreka ezagunenen izenak ere, antzinakoak izan daitezkeelakoan gaude; ez dugu hipotesi horren aurka mintzatzen den daturik kausitu[1225].

Urumeako zilegimendietako euskararen lehen erreferentziak 12. gizaldiko toponimoak dira. Antso Jakitunak lehenago Gartzia Erramirezek Iruñeko elizari emandako guztia berresten duen 1178ko sasioriginala da iturbururik aberatsena, inguru guztiari izena ematen dion hidronimoaz gainera (*Hurumea*), hamabost saroiren aipamenak dakartzalako. Bederatzi gizaldi igaro dira, baina testuan biltzen diren izen asko erraz identifika daitezke egungo aldaeren oinatzetan. Nolanahi ere den, idazkian aipatutako toponimoek sasoi hartan, 12. gizaldian, eta aurrerago, esate baterako 16.-18. mendeetan, zuten forma erkatuz gero, zenbait aldaketa ikusten dira. AMUNOLA toponimoari bagagozkio, adibidez, *-n-* > *-r-* aldaketa dugu 17. mendean (*Amurola*) eta gizaldi horretan bertan, ZULOETA toponimoaren *Zulueta* aldaera irakurtzen da aurrenekoz dokumentazioan (*-oe-* > *-ue-*). ANTXISTA toponimoari dagokionez, 12.

[1224] Cf. Oiartzungo Andrearriagako idazkuna (*Val[erius] Beltesonis*).

[1225] Gure esparruan euskal jatorriko toponimia da nagusi eremu semantiko guztietan. Bestalde, heteronimorik ez dugu aurkitu, hau da, tradizio bikoitzeko toponimorik ez dago (Cf. *San Sebastián* / *Donostia*).

gizaldian ez bezala (*Anziz*), *-ta* dute amaieran 16.-18. mendeetako lekukotasun guztiek (*Ançista*, *Ancista*, *Anzista*, *Anchista*).

20. mendean aldaketa gehiago sumatzen dira idatzizko iturrietan, eta zenbait adibide jarriko ditugu, diogunaren lekuko. Hasteko, AMUNOLA toponimoaren aipamenen artean *-uno-* / *-uro-* > **-uo-* > *-ue-* bilakaeraren erakusgarriak daude (*Amunola* / *Amurola* > *Amuela*). Berebat, ANTXISTA toponimoaren oinordekoetan *-n-* / *-l-* txandakatzearen berri ematen duten formak aurkitu ditugu eta LEGARRALDE nahiz LIZARREGI toponimoen belarrik gabeko aldaerak ere 20. gizaldian azaltzen dira estreinakoz idatzizko iturrietan.

Ahozko tradizioari datxekionez, GARAGARTZA[1226], LEGARRALDE, LIZARREGI eta MUGATZ toponimoetan ez da bokal arteko belarra ebakitzen usaian. Ildo beretik, IEROLA eta MENDABIO saroi-izenetan sabaiko herskaria txertatzen da [ŷ] hiatoari eusteko (*Iyola*, *Mendabiyo*) eta ZULOETAren lekukotasunen artean goranzko diptongoa duten formak dauzkagu, hiatoaren murriztapena erakusten dutenenekin batera (*Zulota* [zúlotà], *Zuluta* [zúlutà], *Zuluetako bordak* [zúlwetakò bórdàk]).

Idatzizko lekukotasunak daudenetik gaur arte toponimia aldatzen joan dela agerikoa da, eta, ondorioz, informaziorik ez dagoen urte ilunetan berrikuntza gutxiago egon zirela pentsatzeko arrazoirik ez dago, hau da, 12. gizalditik gaur arte gauzak aldatu badira, Inperioaren sasoitik, *Oiasso*-ren garaitik, 12. mendera arte bere horretan iraun zutela uste izateko argudiorik ez dugu aurkitzen. Nolanahi ere den, nabarmendu beharra dago, Erdi Aroko gizaldi ilunetan zehar pisuzko berrikuntzak egonagatik, euskara zaharraren fonetika arloko zenbait ezaugarrik Erdi Aro Berantiarraren hasmenta arte iraun zutela.

[1226] Bokal arteko dardarkari ahula ez da ahoskatzen toponimo horretan.

10.2.2. Toponimia eta hizkera

Tesiaren sarreran, helburuen artean, inguru bateko hizkeraren hedadura edota bilakaera toponimiaren bidez zenbateraino ezagut daitekeen ikustea aipatzen genuen. Izan ere, Urumeako zilegimendien zati bat hizkeraren aldetik Gipuzkoan nortasun berezikotzat hartu izan den lurraldearen (Errenteria-Oiartzunen) ondoan dago, eta beste zati bat Nafarroarekiko mugan (Aranorekikoan).

Historiari erreparatzen badiogu, lehenengo eta behin, 16. mendera arte, Iruñekoari lotu zitzaizkion arte, Errenteria-Irun bitarteko herriak Baionako Elizbarrutikoak izan zirela ohartuko gara. Zentzu horretan, sarri esan izan da elizbarrutiak ez direla halabeharrez sortuak eta izango zirela, beraz, herri horiek Baionakoari eransteko arrazoiak. Are gehiago, zenbaiten ustez banaketa edo antolaketa horrekin izan dezakete zerikusia Errenteria-Irun bitartean behinola aurkitu zenbait ezaugarrik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garai gehienean kausitu direnek, eta ez bizitasun berarekin Gipuzkoako gainerako hizkeretan. Urbano II. aita santuak 1096. urtean egindako banaketan Urumeako zilegimendiak Baionako Elizbarrutiaren lurraldearen barruan zeuden eta gauza bera gertatu zen 1105. urtean egindako antolaketan ere. Hitz bitan, mugan egon den eta dagoen lurraldea dira Urumeako zilegimendiak eta, ondorioz, hizkera alorreko ezberdintasunak ikertzeko eremu egokia ere bai.

Aurreko datuetan oinarri hartuz ondorioren batera iristen saiatu aurretik, honezkero behin baino gehiagotan aipatu ditugun toponimiaren berezko mugak gogoratu behar dira, dialektologia egiterakoan leuntzen ez direnak. Hor dago, gainera, hizkera-ezaugarrien ahultzearen arazoa ere, azken hamarkadotan bereziki areagotu dena: berriemaile gazteenek erabilitako euskara helduena baino urriagoa da ezaugarri bereizleetan. Alde horretatik, gauza ezaguna da, esate baterako, gero eta ezberdintasun gutxiago sumatzen direla azentuaren arloan Aranoko eta Gipuzkoako informatzaileen artean. Laburbilduz, hustu ditugun idatzizko iturrien ekarpena apala da hizkera-ezaugarrien arloan eta inon muga ezartzeko edo nonbaitetik ezabatzeko adina ez dira. Zorionez, badaude adierazgarriak diren datu batzuk, bertako hizkera banatzen baino hura sakonago ezagutzen laguntzen dutenak.

Artamugarri izenarekin hasiko gara. Gure esparruko sartaldean (17.) nahiz sortaldean (19.) azaltzen da, Hernani-Urnietan generiko gisa eta Errenteria aldean espezifiko moduan (ARTAMUGARRI). Ez dugu beste inon entzun. Era berean, lehen bi herri horietan *ira* forman jatorri duen *inestor* / *inostor* (< **iraztor*, 'iratze saila') jaso dugu, gure esparruko hego-sortaldean ere aurkitu duguna (cf. gip. *garo*). *Aieka* terminoa Aranon zein Hernanin entzun dugu eta, berebat, *burkaitz* eta *urataka* bildu ditugu Nafarroako mugan. *Padera* (zartagina, danbolina) ere aipatu nahi dugu, *Paderazikin* oikonimoan (Hernaniko ANDOLA baserriaren ezizenean) azaltzen dena, eta, dakigula, (Gipuzkoan) Beterrin eta Urola aldean baizik ezagutzen ez dena.

Ahozko tradizioarekin jarraituz, badaude aferesiaren lekukotasunak informatzaile giputzek emandako formen artean, baina gutxi dira (*Txolaberriko erreka* [txólaberrikò érrekà]). Hitzak hizpidea ekarrita, nabarmen dezagun galzorian dagoen *etxola* terminoa gure esparru osoan bildu dugula eta informatzaile nafar batzuek, giputzek ez bezala, bi aldaera darabiltzatela, *etxola* [étxólà] eta *itxola* [ítxolà]. Zernahi gisaz, berriemailearen jaioterriarekin lotuta dauden ezberdintasun gutxi daude. *Galbario* da informatzaile nafarrei baizik entzun ez diegun forma bat. Ildo beretik, Arano aldean *jentilbaratza* erabili da Burdin Aroko egitura biribilak adierazteko eta Urnietan-Hernanietan, berriz, *jentilen kanposantua*. Megalitoen izenez ari garenez gero, derragun forma berezia kausitu dugula Urnietan: Brontze Aroko hilobiak izendatzeko baliatu *judumahaia*.

Ikusten den bezala, bi aldeak, Nafarroa eta Gipuzkoa, zilegimendiak eta Arano (Errenteriarekin), banatzen dituzten hizkera-ezaugarri gutxi aurkitu ditugu toponimia alorrean. Ez da harritzeko, aztertu dugun eremu osoan egun *erdialdekoa* deitzen den euskalkia erabiltzen delako, eta, gainera, Aranoko herritarrek eta gure esparruko biztanleek gero eta antz gehiago duen euskara hitz egiten dutelako. Hitz bitan, egun, Zilegimendien eta Aranoren artean, Gipuzkoa eta Nafarroa artean, ez dago mugarik toponimiaren arloan, eta behinola bazelako zantzurik ez dugu kausitu hustu ditugun iturrietan.

10.3. Urumeako zilegimendietako toponimiaren ezaugarri nagusiak[1227]

10.3.1. Fonetika-fonologia

10.3.1.1. Bokalak

IRAKURRI oronimoarekin hasiko gara. Honen kasuan irekitzea dugu hitz hasieran[1228], atzeranzko asimilazioa dela medio segur aski (*Yracurri*, 1773 > *Eakurri* [eákurrì] / *Erakurri* [erákurrì] / *Irakurri* [irákúrrì]). Era berean, ETZELAren hasieran bokal-irekiera egon da (*Yçela*, 1597 > *Ezela*, 1683 / *Etzala* [étzalà] / *Etzela* [étzelà]).

ASOLAMAKIO saroi-izenean bokal-itxiera dugu hitz hasmentan (*Asulamaquio*, 1683 > *Esolamaqui*, 1863 / *Esolamaki* [ésolamakì]) eta, jatorria *isats* landare-izenean duela ziurra balitz, USASKUE ere bokal atzeratzearen erakuskari litzateke (*Unsacue*, 1554; *Usascua*, 1898; *Usaskue* [usáskwe]). Halaber, *Iñatzularre* (1989) eta *Iñotzu* ([íñotzù]) aldaerek EREÑOTZUren hitz hasierako bokalaren inflexioaren berri ematen digute, ondoko sabaiko sudurkariaren eraginez gertatu dena[1229]. Ildo beretik, Zilegimendietan badira *etxola* bigarren osagaitzat duten toponimoak eta haien artean txistukari aurreko bokalaren hersketa erakusten duen bat dago, Aranoko bi berriemailek darabiltena (*Beltsoko itxola*, [béltsokò ítxolà]); nolanahi ere, ez dirudi beti bateko araua denik, beste aranoar batek itxi gabe ebakitzen baitu izen bera (*Beltxoko etxola* [béltxokò étxólà]).

Hitz barruari datxekionez, dardarkari azkarrak aurreko bokala ireki du (*-e- + -rr- > -arr-*); aldaketa horren lehen erakusgarriak 16. gizaldikoak dira (*Huerratua*, 1550 > *Uarratua*, 1610 > *Ubarreto* [úbarretò] / *Ubarroto* [úbarrotò]; *Olasagarre*, 1855-1857, UTR8, 46 au. < **Olazagirre*). Berebat, bigarren silabako bokal erdikoa ireki egin da MANTELE eta ETZELA oronimoetan[1230] (*Mantele*, 1538, HUA9 > *Mantale* [mántalè]; *Ezela*, 1683 > *Etzala*, 1797-1833 / *Etzala* [étzalà] / *Etzela* [étzelà]). Izan ere, bokal-asimilazioaren adibide ugari daude hitz barruan (*Ammunola*, 1178 >

[1227] Azpiatal honen orripeko oharretan biltzen diren ezaugarriak Urumeako zilegimendiak inguratzen dituen lurraldean azaldu dira. Kokapena zehazten ez denean, iruzkinaren amaieran *Z.K.* (Zilegimendietatik kanpo) laburdura erantsi da.

[1228] Cf. ARIZIRAKURRIETA (*Ariziracurrieta*, 1702 / *Arizerracurrieta*, 1739).

[1229] Cf. ENBUTODI (*Embotodi*, 1864 > *Inbutei* [ínbutèi̯]). *Z.K.*

[1230] TUNELETA oronimoa bokal irekiarekin ere jaso dugu (*Tunaleta* [túnaletà] / *Tuneleta* [túneletà]) eta MIKELABIL oikonimoaren ahozko zenbait lekukotasunetan ere irekitzea ikusten da (*Mikalai* [míkalài̯n] *in.*). Badaude asimilazio-disimilazio prozesuei zor zaizkien bokal inflexioen testigantza gehiago, ELORRIBI (*-ibi* > *-abi*) toponimoa kasu (*Elorrábia*, 1857; *Elorrabi* [elórrabì], K.). *Z.K.*

Amonola, 1780; *Ubarrato*, 1843 > *Ubarroto*, 1931 / *Ubarroto* [úbarrotò]; *Macurssola*, 1178 > *Makutsolo* [makútsolò] / *Makutsulo* [makútsulò]). *Inestor* generikoa da beste etsenplu bat (*Martindeiko iñostorlekua* [mártindei̯kò iñóstorlekuà]) eta URRUZUNO oikonimoan ere (< *hurritz*?) bokal asimilizioa gertatu bide da (*Hurruçuno*, 1516). Azkenik, diogun *Unamene* aldaera (< UNAMUNO) loturazko bokalaren erabilpenaren (**Unamuneko*) eta asimilazioaren ondorioa dela, eta gauza bera esan daiteke SAGASTIMUÑO toponimoaren *Saastimenia* ([saástimenià], Ai.) aldakiaz.

Hitz barruko hersketei lotuko gatzaizkie orain. *-Ñ-* aurreko bokala itxi egin da SOÑEGI oronimoan (*Soñei* [sóñèi̯], *Suñei* [suñéi̯] / [súñèi̯]) eta *mintegi* generikoaren hiru lekukotasunetan ere sudurkari arteko bokal itxia atzeratu egin da, baina, azken kasu horretan ez dago argi ezpainbikariagatik edo arrazoi etimologikoengatik (*muin* + *-tegi*) izan den (*Aerreko zabaleko muntteiya* [áerrekò zábalekò múntte̯yà]; *Untzoko munttei* ([úntzokomúnttèi̯] / [úntzokò múnttéi̯]; *Arloteiko munttei* / *Arlotegiko muntteiya* (1989, HUTB). Bada bokal irekiaren hersketa erakusten duen ahozko toponimoa; *haltzadi* generikoaz ari gara, txistukariaren ondoren, bokal irekiaren tokian, *-u-* duena (*Agoñoko altzudiya* [agóñokò áltzudiyà]). *-E- + -a- > -ia-* hertsitzearen hitz barruko lekukotasunak ere aurkitu ditugu (*Elurzuloziarra* [elúrzulozíarrà]).

Hitz amaierari erreparatuz gero, *-o- + -a- > -ua* hersketaren idatzizko aurreneko erreferentzia 19. mendekoa da[1231] (*Lastola goicua*, 1857) eta, badira etsenplu gehiago idatzizko iturrietan (*Lizarrei basua*, 1920; *Igoingo-lepua*, 1942). Esan beharra dago, halere, idazki zaharretan ez dela hersketa agertzen (*Hernanibasoa*, 1712; *Ursaltoa*, 1768; *Arteguieta Colepoa*, 1780; *Losetaco zocoa*, 1794-1831; *Chocoa*, 1794-1831; *Oerangopagoac*, 1833-1835). Ahozko tradizioan automatikoa da (*Gurutzelepua* ([gurútzelepuá]) eta maileguetan ere indarrean dirau (*Gaztañamunttua* ([gáztañamúnttuá]; *Portilloko osinzulua* [pórtillokò osínzuluà] / *Portilluko osinzulua* [pórtillukò osínzuluà]; *Txerrendako pasaizua* [txérrendakò pásai̯zuà]).

[1231] Cf. *Añoa* (1773) > *Añua* (1936, 1953); *Z.K.*

Hiatoez ari garenez, *-e-* + *-a-* > *-ia* hersketa 19. gizaldian dokumentatzen da lehenbizikoz (*Ercatz-arripia*, 1840; *Chimistania*, 1843; *Arguruz-pia*, 1863; *Iturregui aldia*, 1855-1857), baina hortik aurrera, itxitako forma ugari egonagatik (*Ercaitz-arripia*, 1857, HINGR2, 5097 zenb.; *Ercaiz-arripi*, 1863, HRU, 50 bin.), ez da erabateko legea, eta hor ditugu, esate baterako, *Vaso-aundi-larrea* (1850-1852, HTR5, 14 au.) eta *Ibarluce partea* (1854-1855, HTR7, 18 au.). Esan gabe doa bukaeran *-ea* daukatenak *-ia* amaiera dutenak baino zaharragoak direla (*Ercatzarripea*, 1799, HUA42, 171 bin.). Ahozko tradizioan aldi oro betetzen den legea da[1232].

10.3.1.2. Diptongoak eta hiatoak

Urumeako zilegimendietan *au̯*, *eu̯*, *ai̯*, *ei̯* eta *oi̯* diptongoak dituzten toponimoak opatu ditugu. *ai̯* diptongoa, esaterako, 15. mendean irakurri dugu aurrenekoz idatzizko iturrietan (*Alcaycuren*, 1467). Hain zuzen, ALKATXURAIN toponimoak *ai̯* diptongoak behinola txistukari aurrean izandako jokaeraren berri (*-ai̯-* + *-tz-*> *-atx-*) ematen digu[1233] (*Alcachurain*, 1736 > *Alkatxuin* [álkatxùi̯n]). Ahozko tradizioan ugari azaltzen da *-ai̯-* (*Aparrain* [áparrài̯n]; *Bastolako arkaitzak* [bástolakò árkai̯tzàk]; *Biesaiko ereñotza* [biésai̯kò eréñotzà]), batzuetan *ei̯* diptongoaren oinordeko (*Liztorrei* [líztorrèi̯] / *Listorrai* [lístorrài̯] < LISTORREGI; *Patxikulai*, 1989 < PATXIKULEGI).

ei̯ diptongoa ere 15. menderako lekukotu dugu[1234] (*Ereinoçu*, 1467). Xehetasunetan sartuz gero, agiri berean *Ereñoçu* forma erabiltzen da eta horrek *-ei̯-* + *n* > *-eñ-* aldaketa zahar samarra dela gogorarazten digu (ik. EREÑOTZU). Bide batez, derragun beste inguramendu batzuetan *-ei̯-* > *-i-* urratsa egin dela denboraren buruan (*Esteiça*, 1538 > *Estiza*, 1797 / *Eztiza* [éztizà] / *Ezteiza* [éztei̯zà]). Behin baino gehiagotan *ei̯* bokal arteko kontsonantearen erorketaren emaitza da, *-egi* duten toponimoak kasu (*-egi* > *-ei̯*) eta gauza bera dakusagu erromantzeko *-eria* atzizkia duten formetan (*Telleiko borda* [télle i̯kò bórdà] < *Telleriko borda*; *Errenteisorua* [érrente i̯soruà] < *Errenterisoroa*).

[1232] *-Ea* bukaera duten ahozko formak gordetzaileak dira; hizkera arruntetik kanpo erabiltzen dira (LEGARRETANEA, LEITZANEA, MARTINBELTZANEA, TXIMISTANEA).

[1233] *-A*□-ren murriztapena egon da ZUAIZTI (*Zuaizti* [zúai̯ztí] / *Zuazti* [zúaztì]) eta BENTURAITURRI toponimoetan (*Venta-iturri*, 1951; *Bentitturri* [béntitturrì]). *-ai̯-* diptongoaz ari garela, ez bedi ahantz behin baino gehiagotan bigarrenkaria dela (*Maizulo* [mái̯zulò]; *Mikelai* [míkelài̯n]), eta artikulua eranstean bokal erdia sabaikaritu egiten dela (*Tantaizelaya*, 1989). *Z.K.*

[1234] Sabaiko sudurkaria adierazteko grafia ere izan daiteke.

oi̯ idazkietan eta ahozko tradizioan azaltzen da, baina izen gutxi batzuen (*goi*, *lohi*) eskutik aldi oro (*Pardiola goicoa*, 1864; [lóiu̯putzutà]). Amaieran *-oi̯* diptongoa duten formei artikulua eranstean bokalerdia kontsonante sabaikari bihurtzen da[1235] (*-oi̯* + *-a* > *-oya*; *Silleguico Loya*, 1773).

au̯ diptongoa *-aundi* izenondoa duten toponimoetan topatu dugu maizenik (*Egiaundi* [égiáu̯ndi] / [égiau̯ndì].; *Errekaundi*, 1989, HUTB; *Urdaburu aundiko arkaitza* [úrdaburù áu̯ndikò árkai̯tzà]; *Aitzolako pago aundiya* [ái̯tzolakò pago áu̯ndiyà]). Ildo horretan, ez da ahaztu behar 18. mendean, artean, aldaera diptongogabea (*-andi*) zela nagusi idatzizko tradizioan (*Eguiandia*, 1797, *loma*, HUA41; *Errecandia*, 1773, VEK1; *Yturriandi*, 1702, *paraje*, HUA29). Gainerakoan, maileguen diptongoek hiatoetan (*-au-* > *-au̯-*) dute sorburua (*Arpausua* [arpáu̯suà]; *Paosarde* [páosardè] / *Pausarte* [pau̯sárte] < PAGOSARDE). INTXAUSTI toponimoan, bestetik, *-au̯-* > *-u-* murriztapena egon da (*Insausti*, 1951, UUA18; *Intxusti* [íntxustì]).

Aurrekoa baino gutxiago azaltzen da *eu̯* diptongoa (*Leuneta* [léu̯netà]), idatzizko adibide zaharrenak 17. mendekoak izan arren (*Euncin*, 1683). Ahozko tradizioan *Eu̯-* > *E-* murrizketa burutzen da batzuetan hitz hasieran (*Entzin* [éntzìn] / *Euntzin* [éu̯ntzin]).

Urumeako zilegimendietako toponimian beste hiru diptongo kausitu ditugu, bigarrenkariak hirurak. *We* diptongoak *-oe-* hiatoan du jatorria (*Pikuetxeberri* [píkwetxebérri] < PIKOAGAETXEBERRI; *Antxueta* [ántxwetà] < ARANTXOETA; *Azkonazulueta* [azkónazulwéta] < AZKONARZULOETA), *wi* diptongoa bokal arteko kontsonantearen erorketaren emaitza da eskuarki (*Ostozuita* [óstozwità] / *Ostatxuita* [óstatxwità] < OSTAZURIETA; *Buutxuita* [buútxwità] < BURUTXURIETA, *Arritxuita* [árritxwità] ARRITXURIETA), baina ez beti (*Katilluitturri* [katíllwitturrì]) eta, azkenik, *-je-* diptongoa oinarria bokal itxiarekin amaitzeagatik (*-i* + *-eta*) edota *ee* hiatoaren disimilazioagatik (*-e* + *-eta* > **-eeta* > *-ieta*) sortu da (*Elorrieta* [elorrrjéta], *Erlietako lepua* [érljetakò lépuà]; *Pagoluxieta* [págoluxjetà]).

[1235] *-On* > *-oi* aldaketa izan duten maileguetan ere betetzen da (*Pikuako frontoya* [píkuakò fróntoyà]; cf. AZKETAKO BALKOIA).

Hiatoez mintzatuko gara orain. Hitz hasieran ez dugu *Ia* aurkitu, amaieran nahiko ugaria izan arren. Zentzu horretan, azpimarra dezagun *-i* bokalaz bukaturiko generiko eta bereizgarriak mugatu singularrean deklinatzean sabaiko herskaria eransten dela (*-i + -a > -iya*). Epentesiaren lehen erakusgarriak 19. mendearen erdialdekoak dira, baina, sarritan azalduagatik, ezin da esan, ordutik, amaieran *-i + -a* segida duten generikoen artean aldaketa beti batekoa denik tradizio idatzian (*Picoagaecheverria*, 1937; *Ezurrico-Eguia*, 1960; *Zabuco-arriya*, 1889; *Monte Etziogarriya*, 1898; *Monte Eusquigarriya*, 1898; *Abillats-azpiya*, 1920; *Jerolimo-sagastiya* (1936); *Unzueco-eguiya*, 1942). Are gehiago, 16. gizaldira joanez gero, *-ia* hiatoarekin bukatzen diren formen artean ez dago sabaiko afrikatuaren zantzurik ("... *mojón del medio que llaman artamugarria* [...]", 1607; "... *un mojon viejo que llaman Vazter muga arria* [...]", 1607; "... *trimojon*, *llamado vulgarmente Yrumugarria* [...]", 1797, HUA41). Haatik, ahozko tradiziotik jasotako formetan *-i + -a > -iya* eransketa automatikoa da[1236]. Honatx jaso ditugun testigantza batzuk, hori agertzeko aski eta sobera direnak: *Buztanarriya* ([búztanarriyá]; *Geeziyako malkorra* [géeziyakò málkorrá]; *Aerreko zabaleko muntteiya* ([áerrekò zábalekò múntteiyà]; *Agoñoko altzudiya* [agóñokò áltzudiyà]; *Aitzolako pagariya* [áitzolakò págariyá]; *Entzingo arriya* [éuntzingò árriyà]; *Etzioko arriya* ([etzíokò árriyà]; *Merkuko arriya* [mérkukò árriyà]; *Presako sagastiya* [présakò ságastiyà]; *Unamunoko mugarriya* [únamunokò múgarriyà]; *Sanmielmendiya* [sánmielméndiyà]; *Zuluetako arrobiya* [zúluetakò árrobiyà]; *Zilleiya* [zílleiyà]; *Zillei ttikiya* [zíllèi ttíkiyà] *Angeluittirriko aiztiya*, 1989; *Antxistako mugako urkiya*, 1989, HUTB; *Arlotegiko muntteiya*, 1989; *Paaleiko mugarriya*, 1989).

IEROLA toponimoa hitz hasierako *Ie-* hiatoaren ibilbidearen eredutzat har daiteke. Bokal artean igurzkari belarra duten formak nagusitzen dira idazkietan, *Igarrola* (1467) eta *Iguerola* (1797) kasu[1237], baina *Yerola* (1683) ere, kontsonante epentetikorik ez duen aldaera, topatu dugu. Ahozko tradizioari doakionez, hiatoari eusteko ezarri kontsonantea sabaiko herskaria da (*Iyola* [íyolà]). *Ie*-rekin amaitzeko, diogun badaudela

[1236] Toponimiatik at ere erabateko araua da gurean. Bartolome Urangak (Amu.), konparaziora, *Arkiriya* ([arkíriyà]) eta *Artamuarriya* ([artámuarriyà]) ebakitzen ditu.

[1237] Cf. *Gierala*, 1178.

elkarguneko *-ie-* > *-i-* murriztapenaren etsenpluak gurean (*Olaberrieta*, 1899 > *Olaberritako erreka* [ólaberritakò érrekà]).

Io gutxi agertzen da Urumeako zilegimendietako toponimian. IGORIN oronimoaren kasuan, itxura batean, igurzkari belarra da hitz hasierako hiatoa segurtatzeko erabilitako soinua, baina *-g-* hori etimologikoa ere izan daiteke (*Ygorin*, 1467 / *Yorin* 1595 / *Igoain* [igoái̯n]. Hitz amaieran dagoenean, sabaiko herskariz hornituta ebakitzen dute informatzaileek (*Mendabiyo* [méndabíyo] / *Mendaiyo* [méndaiyò] / *Mentauio*, 1178).

Ua hiatoa, hitz hasieran, 17. mendean topatu dugu estreinakoz, eta ezpainbiko epentetikoa ere badu orduko (*Uarratua*, 1610, HUA25 / *Ubarratua*, 1610, HUA25; *Uaran*, 1683 / *Ubaran*, 1797). Hitz barruan ere badaude kontsonante ahostunaren eransketa izan delako aztarnak (*Zubalquizu*, 1628), egun ez aurkituagatik (*Zuelkazu* [zuélkazú] / *Zuarkazu* [zuárkazù]). Berebat, igurzkari ezpainbiko ahostuna txertatzen da *-u* bokalaz amaitzen diren generikoei artikulua eranstearen ondorioz sortutako hiatoan. Txertaketa horren estreinako erakusgarria 18. mendeko mapa batean dago (*Erreñazu Puzuba*, 1773, VEK1A; cf. *Ereñozu buruba*, 1797-1833), hurrengo mendean izen bera kontsonanterik gabe idatzi bazuten ere (*Ezelacopuzua*, 1833-1835, DUA3). Ahozko tradizioan epentesiak badu indarra oraindik (*Kurpittuba* [kúrpittúba]; *Besabiko murruba* [bésabikò múrrubá] / [bésabikò múrrubà]; *Intxustiko murruba* [íntxustiko múrrubà]; *Antsokotxolako murruba*, 1989; *Aerreko arkaitz faltsuba*, 1989), baina araua ez da erabatekoa, aurrekoekin batera, *Akurrikako murrua* ([ákurrikakò múrruà]), *Martindeiko iñostorlekua* ([mártindei̯kò iñóstorlekuà]) nahiz *Aerreko arkaitz faltsua* ([áerrekò árkái̯tz fáltsuà]) formak entzun dizkiegulako berriemaileei.

Ue hiatoa hitz barruan baizik ez dugu kausitu. 16. menderako azaltzen da idazkietan, baina ez da ugaria (*Çuelqueço*, 1554; *Huerratua*, 1550). Batzuetan bigarrenkaria izan daiteke (*Mueta* [múetà] < MUGETA).

Tradizio idatzian badago *ea* hiatoaren lekukotasun bat (*Eceago*, 1797), nahiz eta ahozkoan aurkitu ez, disimilatu egin baita[1238] (*Etzio*, 1942 / *Etzio* [étzíò] < **Etziago* <

[1238] Bigarrenkaria denean ez dago disimilaziorik (*Altzea* [áltzeà] < ALTZEGA). *Z.K.*

**Etzeago*; *Astiasun txabala* [ástiasùn txábalà] < ASTEASUREN TXABALA). Hala berean, *ee* hiatoaren erakuskaririk ez dugu jaso, disimilaturiko zenbait aldaerak bazela adierazten badute ere[1239] (*Irubidieta*, 1942 < **Irubideeta*; *Erlietaco-malda*, 1951 < **Erleeta*; *Tolarieta*, 1857 < **Tolareeta*).

Oa hiatoa hitz hasieran eta amaieran azaltzen da begiratu ditugun idazkietan[1240] (*Oaran*, 1569; *Hernanibasoa*, 1712), nahiz eta ahozko tradizioan agertu ez, hersketa automatikoa delako (*Ernanibasua* [érnanibásuà]; *Aitzolako pagua* [ái̯tzolakò páguà]). Zentzu horretan, oroit dezagun mugatu singularrean deklinatzen direnean amaieran *-o* eta *-u* duten toponimoen bukaerak nahastu egiten direla behin baino gehiagotan (*baso*, *murru* > *basua*, *murrua*).

Oe hiatoa, hitz hasieran, 16. mendean dokumentatzen da lehenbizikoz (*Oeranna*, 1554); ezpainbikoaren epentesiarekin (*-oe* > *-obe*), berriz, 17. mendean ageri da (*Oberaun*, 1683). Hitz amaierari dagokionez, *-obe* segidaren aurreneko erreferentziak 1683. urtekoak dira (*Anzisarobe*, *Anzusarobe*, HUA28) eta bi gizaldi geroago ere opatu dugu (*Anchisarobe* / *Anchistasarove*, 1833-1835; *Aparrain-sarobe*, 1840; cf. *saroi*). Atzerago begiratuz, ordea, ez da azaltzen, (*Epelaco Saroecayçavera*, *Saroecayz*, 1467). Ahozko tradizioan beti burutzen da epentesia (*Antsusarobe* ([ántsusaròbe] / [ántsusarobè] / *Antsosarobe* ([ántsosarobè] / *Antzusarobe* ([ántzusaróbe]; *Agerreko sarobia* [ágerrekò sárobià]; *Mendaiyosarobia* [méndaiyosárobià]). Kontuan har *sarobe*-mugatzailez hornituta erabiltzen denean *-e* + *-a-* > *-ia* hertsitzea automatikoa dela.

Hiatoekin amaitzeko, diogun elkarguneko *-o-* + *-e-* > *-ue-* disimilazioaren idatzizko aurreneko lekukotasunak 17. mendekoak direla (*Zuloeta*, 1178 > *Zulueta*, 1683) eta ahozko tradizioan ere indarrean dirauela (*Zuluetako bordak* [zúlwetakò bórdàk], *Zuluta* [zúlutà]).

[1239] 1689. urtean *Larburu beingoa* forma kausitu dugu. *Z.K.*
[1240] Hitz barruan *Basoategui* (1794-1831) toponimoan azaltzen da. *Z.K.*

10.3.1.3. Bokal-batze, erortze eta garatzea[1241]

Lehen-lehenik, esan dezagun berriemaile batek (Amu.) *etxola*-ren hasierako bokalaren aferesia erakusten duten formak darabiltzala, *Txolaberrikua* [txólaberrikuá], *Txolaberriko minak* [txólaberrikò mínàk], *Txolaberriko erreka* [txólaberrikò érrekà] (< *Etxolaberri*) eta *Aarreko txola* [áarrekò txolá] (< *Adarreko etxola*) konparaziorako.

Erreka eta *errota* bezalako izenetan protesia izan dela garbi dago (*Epele-erreca*, 1842; *Epele-errota*, 1843), baina bada aldaketa hori erakusten ez duen idatzizko aipamena (1467, *reca*; 'ur-ibilgua'), Ahozko tradizioan *Errepilleneko munttua* ([errépillenekò múnttùa]) dugu konparaziora, baina gero eta indar gutxiago duen eransketa da[1242].

Sinkopa 16. menderako agertzen da dokumentazioan[1243] (*Bastola la nueba*, 1573 / *Basterrola*, 1610 / *Bastola* [bástolà]) eta badaude idatzizko adibide gehiago (*Eliztaco-malda*, 1951; *Oceriagoca*, 1797 > *Orzaica*, 1920 / *Ortzeika* [órtzei̯kà] / *Ortzaika* [órtzai̯kà]). Ahozko etsenplu gutxi batzuk ere bildu ditugu[1244] (*Urruzunaiko* [úrruzunái̯ko] / *Urruzunagoiko* [úrruzunàgói̯kò]).

Apokopearen lekukotasunik ez dugu kausitu[1245] Urumeako zilegimendietako toponimian eta haplologiarenik ere ez[1246]. Bestalde, kontsonantez amaitzen diren toponimo gutxi batzuei loturazko bokal erdikoa itsatsita gelditu zaiela azpimarratu nahi dugu, leku kasuetako hondarkia erabiltzearen eraginez (*Olazarre*, 1843 / *Olazarrekua* [ólazarrekuá] / *Olazarkua* [ólazárkua] / *Olazarreko portillua* [ólazarrekò pórtilluà] / *Olazarko zubiya* 1989; *Ostakutse* [óstakutsè] / *Ostakutz* [ostákutz] < OSTAKUTZ).

[1241] INGLATERRA toponimoaren kasuan anaptisia dugu (*Inglaterra*, 1847-1848 > *Inglatierra* [ínglatjerrà] / *Igelatierra* [ígelatjerrà]). Izan ere, maileguetan *herskaria* + *likidoa* multzoa saihestu egin da, bi kontsonanteen artean bokala txertatuz. *Z.K.*

[1242] Cf. *Errollaburuko rekta* (1989) eta *Mantaleko refujiyua* [mántalekò réfujiyuà]. *Z.K.*

[1243] Cf. BORDATXIKI (*Bortxiki* [bórtxikì]) eta ARRILIMURI (*Arrilimuri* (1831-1845 > *Alimoi* ([álimòi̯]). *Z.K.*

[1244] Errenteriako KATILLUXARRETA toponimoan ere sinkopa egon da (*Katilluxarta iturri*, 1989).

[1245] Cf. OIARBIDE oikonimoa (*Oyarbi* [óyarbì], K.). Berebat, amaierako bokal atonoa erori egin da ARIZTILUZE eta PAGALUZE oronimoetan (*Astilux* [ástilùx]; *Paalux* [páalùx]). *Z.K.*

[1246] Cf. ESKALANABERRI < **Eskalelanberri* (*Escalamberri*, 1936, HUA57, 796 or.; *Eskalanberri* [éskalanberrì] / *Eskallanberri* [éskallanberrì], Etxol.). *Z.K.*

Bokal bat-egiteari dagokionez, EPELERREKA hidrotoponimoa da adibide garbia (*Epela*, 1467 / *Epelerreca*, 1797-1833 / *Epele-erreca*, 1842 / *Epelerreka* [epélerrekà]; cf. *Urume-erreca*, 1870) > *Urumerreka* [úrumerrekà]). Elkarketa auziez ari garenez, lehen osagaiaren azken bokalaren irekitzea adierazten duen aurreneko erreferentzia 1595. urteko agiri batean dago, non *etxe*- bokal irekiaz azaltzen baita[1247] (*etxa*-), bi aldiz azaldu ere (*Ereñoçu echabi* eta *herrerias de Ereñoçuchavi*, 1595). Horrelako kasu bakarra ez da, beste izen batzuek ere (*pago*, *hosto*) amaieran bokal irekiak dauzkaten aldaerak erakusten dituztelako elkarketan (*Pagolucea*, 1794-1831 / *Pagaluceco-chocoa*, 1794-1831 > [páalùx]; *Ostazurieta*, 1868 / *Ostozuita*, 1989 / *Ostatxuita* [óstatxwità] / *Ostozuita* [óstozwità]). Azkenik, derragun elkartuaren lehen osagaiaren azken bokala galdu delako erreferentziak ere badirela Urumeako zilegimendietako toponimian (*Atxurmalda* [átxurmaldá] / *Atxurrumalda* [atxúrrumaldà]).

10.3.1.4. Kontsonanteak

Herskariak

BORROTOLA toponimoan *G*- > *B*- aldaketa egon da (*Gorrotola*, 1538 > *Borrotola*, 1797 / *Borrotola* [borrotóla]), baina ez dakigu zehatz-mehatz zergatik izan den (< *gorroto*?). Era berean, PURGATORIOren ahozko bi lekukotasunetan *P*- > *B*- dugu[1248] (*Purgotoyo* [purgótoyò], *Purgatorio* [púrgatór̥io] / *Burgatei* [búrgatè̥i]; *Purgatoyoerreka* [púrgatoyoérreká] / *Burgatoyoerreka* [burgátoyoérrekà]; *Burgatoyoko erreka* [burgátoyokò érrekà]). Informatzaile nafarrek, bestalde, hitz hasieran herskari ahostunarekin (*K*- / -*b*- > *G*- / -*b*-) ebakitzen dute *kalbario* generikoa (*Unamuneko galbayua* [únamunekò gálbayuà] / *Entzingo galbayua* [éntzingò gálbayuà]). Hasieran herskari ahoskabea duten leku-izenekin jarraituz, badago, disimilazioaren ondorioz, jatorrizko ezpainbikoaren ordez, belarra ebaki delako lekukotasuna ere (*P*- / -*p*- > *K*- / -*p*-); metaforan jatorri duen *Pulpitu* maileguaz ari gara, berriemaileak artikulurik gabe eta artikuluarekin darabilena (*Kurpitto* [kúrpittó], *Kurpittu* [kúrpittú], *Kurpittuba*

[1247] Cf. *Anso echaondo*, 1951.

[1248] Cf. *Butrone* [bútronè] / *Putroenia* (1843), *Putrone* [pútronè]; *Papurruta* [pápurrutà] / *Bapurruta* [bápurrutà]. *Z.K.*

[kúrpittúba]). TTANGOETA toponimoa ere azpimarratu nahi dugu, gutxi baitira gurean hitz hasieran *Tt-* duten formak[1249] (*Ttangota* [ttángotà] / *Ttanguta* [ttángutà]).

BEZKITA toponimoan *B- / M-* aldizkapena egon da (*Mezquite*, 1538 / *Mezquita*, 1780 / *Vezquite*, 1784 / [bézkità]) eta, bestetik, BURUTXURIETA toponimoa beloko ahoskabearekin jaso diogu behin (*B- / G-*) berrimelaile bati (*Buutxuita* [buútxwità] / *Guutxuita* [guútxwitá]). Hitzak hizpidea ekarrita, sudurkari protetikoa duten bi toponimo daude[1250], MOZPELANGO ZOKOA (*Mozpelango zokua* [mózpelangò zókuà] < *ospel*) eta BELUTSETA (*Belutxeta* [bélutxetà] < *eluts*). Aferesiaren etsenpluak ere gutxi dira (*Guilicharmeaca*, 1683 / *Guillincharmeaca*, 1773 / *Guilicharve*, 1833-1835 > *Ylincharbe*, 1889 / *Ilintxarbe* [ilíntxarbè]).

Hitz barruan, artikulazio modua neutralizatzeko joera egon da txistukari ahoskabe[1251] (*Arriuztuna*, 1583) eta dardarkari ondoren (*Arpiztei* [árpiztèi̯]). Bukatzeko, erants dezagun *-d-* eta *-b-* txandatzen direla batzuetan dardarkari ondoan (*Urdaneta*, 1944 > *Urdaneta* [úrdanetà] / *Urbaneta* [úrbanetà]).

Igurzkariak

Igurzkarien sailean aldaketa garrantzitsuenetariko bat bokal arteko ahostunaren galera da[1252] (*-VbV- > -V∅V-*), *Urdau* ([úrdaú] < URDABURU), *Usaelartza* ([úsaelartzà] < USABELARTZA), *Zulotako zaala* ([zúlotakò záalá] < ZULOETAKO ZABALA) edota *Ipiñar* ([ípíñàr] / [ipíñar] / *Ipiñabar* [ipiñábar] < IPIÑABAR) lekuko.

*-B- > -r-*ren aztarna aurkitu dugu dokumentazioan (*Mendabio* / *Mendauio*, 1516 > *Mendario*, 1780) eta ahozko tradizioan badira *-b- > -g-*ren erakusgarriak[1253] (*Zabu*, 1889

[1249] Cf. *Choncoanea* (1739) > *Txonkuania* [txónkuanià] / *Ttonkoaneko* [ttónkoanekò] *l.g. Z.K.*

[1250] Cf. *Argarateko ospela* [árgaratekò óspelá]. *Z.K.*

[1251] Cf. *Aitz-barren* (1845-1846) > *Aizparrenia* [ái̯zparrenià] *Z.K.*

[1252] Cf. *Pardakiko zaala* ([párdakikò záalá]). ETZABAL toponimoaren kasua berezia da, *Etzaal* ([étzaàl]) aldaerarekin batera, dardarkari ahula duen *Etzaral* ([étzaràl]) baitarabil informatzaileak. LARREBIRIBIL, ALTZIBAR, ERREKABELTZ eta MIKELABIL toki-izenen ahozko lekukotasunen artean ere igurzkaria galdu duten ale bat baino gehiago daude (*Paotxaal* [páotxaàl]; *Larrail* [lárrài̯l] / *Larrabi* [lárrabì]; *Altzibar* ([áltzibàr] / *Altziar* [áltziarrá]; *Errekaeltz* [érrekaèltz] / *Errekabeltz* [érrekabèltz]; *Mikelabi* [míkelabì] / *Mikelai* [míkelài̯n]). *Z.K.*

[1253] Cf. *Agoñoko zentrala* [agóñokò zéntralà] / *Abañoko zentrala* [abáñokò zéntralà]. *Z.K.*

> *Zabu* [zábu] / *Zagu* [zágu] < ZABURU). Ezpainbikoekin amaitze aldera, diogun MALMAZAR oronimoan aurreranzko asimilazioa egon dela itxura batean (*Malvazar*, 1628, > *Malmazar*, 1833-1835) eta BENTATXURI oikonimoan, aldiz, atzeranzko asimilazioak hastapeneko ezpainbikoa sudurkaritzea ekarri duela (*Bentatxui* [béntátxuì] / *Mentatxui* [méntatxuì]).

Begira diezaiogun orain bokal arteko hozkari ahostunari. Kontsonante horren erorketa (*-VdV- > -V∅V-*) arrunta da ahozko tradizioan (*Tartakai* [tártakài̯]; *Erlian para*, 1989; *Gorrin para*, 1989), baina ez da automatikoa, *Itturrieer* ([ítturieèr]; ITURRIEDER) eta *Izener*-ekin batera ([izénèr]; IZENEDER), *Itturrieder* eta ([ítturiéder]), *Izeneder* ([izénedèr]) jaso baititugu.

-D- > -r- aldaketak ere hedadura handia du[1254] eta, horren lekuko, ahozko adibide franko daude (*Birekutzeta* [birékutzetà]; *Aitzolako pagariya* [ái̯tzolakò págariyá]; *Ernanibasoko biria*, 1989; *Borrotola biria*, 1989; *Karlixtabiria* [kárlixtà bírià] / [karlíxtabirià]).

Igurzkari belarrari bagagozkio, ezpainbikoarekin eta horzkariarekin gertatu moduan, *-VgV- > -V∅V-* ezabaketa joera indartsua da Urumeako zilegimendietan (*Arteguieta*, 1780) > *Arteita* [ártei̯tà]; *Errekaleor* [érrekaleòr]; *Saarrako paraa* [saárrakò páraà]; *Paotxalko borda* [paótxalkò bórdà]; *Zilleiko aundiya* [zíllèi̯ áu̯ndiyà]; *Onyiko eutera* [ónyikò éu̯terá]); haatik, ez da erabateko legea (*Jibaltarko muarriya* / *Jibraltarko muarriya*, 1989; *Paaleiko mugarriya*, 1989; *Unamunoko mugarriya* [únamunokò múgarriyà]; *Aitzolako pagariya* [ái̯tzolakò págariyá]; *Santodomingoko pagadiya* [sántodomingokò págadiyà], *Exteixarko pagadiya*, 1989). Badago, berebat, *-g-> -b-* aldaketaren idatzizko erreferentzia bat (*Ubaldecho*, 1937 < UGALDETXO).

[1254] Cf. *Inchuzadi* (1797-1833) > *Ynsusari* (1843) / *Intxusabi* [íntxusabì] / *Intxusai* [íntxusài̯]. Halaber: *Zumadi* (1797-1833) > *Zumai* (1989, HUTB), *Zumari* (1989, HUTB); IDOIA (*Iroya*, 1928; [íroyà] / *Iroyabea*, 1928).*Z.K.*

Igurzkari ezpain-horzkari ahoskabea

Hitz hasierako *F-* herskari bihurtzeko joera egon dela ikusten da (*Fagoaga*, 1550 / *Fagoaga*, 1773 > *Pagoaga*, 1773 / *Bagoaga*, 1773 / *Pagua* [páguà]; *Fagollaga*, 1573 > *Paolla* [páóllà]; *Itturpiñ*, 1989 / *Iturripiña* [itúrripíñà] / *Itturripin* [ittúrripìn]), baina, nolanahi ere den, iraganean baino indar gutxiago du egun (*Prantziputzuta*, 1989 / *Frantziputzuta* [frántziputzutà]; *Aerreko arkaitz faltsuba*, 1989 / *Aerreko arkaitz faltsua* [áerrekò árká□tz fáltsuà]; *Leongo fabrika*, 1989, HUTB).

Txistukariak

Hitz hasierako *ts* eta *tz* ez gainerako txistukari guztiak lekukotu ditugu[1255]. Bizkar-hobietako igurzkariarentzat, adibidez, *Ç*, *C*, *S* eta *Z* grafiak erabiltzen dira tradizio idatzian (*Çaminola*, 1516, HUA7 / *Zamiola*, 1607, HUA23 / *Caminola*, 1683, HUA28 / *Samiola* 1773, VEK1 / *Zamiela* [zámielà]; *Silleguico Loya*, 1773 / *Cilleguicoloia*, 1833-1835 / *Zillegui*, 1934 / *Zilleiya* [zílle̪yà]). Hortz-hobietako apikaria *S-* grafiaz ageri da eskuarki eta sabaiko afrikaria, berriz, *Ch*-rekin idatzirik (*Sagarminaga*, 1516; *Chabalotegui*, 1595).

Hitz barruan *z* eta *s* grafemak erabiltzen dira bizkar-hobietako igurzkaria adierazteko (*Estiza*, 1797; *Illarrain-soco*, 1920) eta afrikariarentzat *ç*, *c, z*, *ss* nahiz *tz* bildu ditugu (*Ançumeciarça*, 1573; *Unçue*, 1516, HUA7 / *Uncue*, 1538, HUA9 / *Unzue*, 1683 / *Unssue*, 1833; *Arantza-zabal*, 1921). Mihi-punta hobietako txistukari igurzkariarentzat *s* grafia aurkitu dugu maizenik eta afrikarientzat *ss* nahiz *s* (*Epelsaessa*, 1595; *Ynsustizaval*, 1732); *c* ere erabiltzen da noizean behin (*Saraceta*, 1769). Hitz amaieran, azkenik, *z* hizkia da arruntena bizkar-hobietako afrikariarentzat (*Esteizacaiz*, 1683; *Pagadimoz*, 1794-1831).

Eskuarki bereizten dira, baina badaude hitz barruko *-s- / -z-* neutralizazioaren etsenpluak ahozko tradizioan (*Azketa* [ázketà] / *Asketa* [ásketà]; *Eguzkiza*, 1983 / *Euskitza* [éu̪skitzà]). Ildo beretik, hitz amaierako txistukarien artikulazio puntua eta modua alda daitezke kasu batzuetan (*Larraz* [lárràz] / *Larrats* [lárráts]; *Ostakutz*

[1255] Badaude hasieran sabaiaurreko igurzkaria duten formak gurean (*Xeotegi*, 1989; *Xauxar* ([xáu̪xàr]).

[óstakùtz] / *Ostakus* [ostákus]). Leku genitiboaren hondarkiaren aurreko txistukariaren artikulazio modua ere neutralizatu egiten da (*-tz*, *-ts* + *-ko* > *-zko*, *-sko*), baina ez beti (*Abillasko zentrala* [abíllaskò zéntralà] / *Abillatxko zentrala* [abíllatxkò zéntralà]). Artikulazio moduarekin jarraituz, *l*, *n* eta, gutxiago, *r* ondoren, *frikari* / *afrikari* aurkakotasuna indargabetu egin daiteke. Diogunaren lekuko, afrikaria aurkitu dugu sudurkari eta albokari ondoan zenbait adibidetan (*Santsonarri*[1256] [sántsonarrì]; *Altzusta* [áltzustà] / *Altsusta* [áltsustà]), baina beste batzuetan inguramendu berean dauden txistukariak frikari egiteko joera dago[1257] (*Aranzabal* [aránzabàl]; *Bustinzulo* [bustínzulò]). Ikusten den bezala, badira txistukari arteko asimilazioaren adibideak ere (*Altzusta* [áltzustà] / *Altsusta* [áltsustà]).

Sudurkariak

Sudurkariak dituzten toponimoen aldaketei erreparatzen badiegu, 16. gizaldian *-VnV-* > *-VØV-* ikusten da ZAMIOLA toponimoan (*Çaminola*, 1516 > *Zamiola*, 1607). *-M-* — *-n-* > *-m-* — *-r-* disimilazioaren erakuskariak ere nahiko goiz azaltzen dira (*Ammunola*, 1178 > *Amurola*, 1616). Bukatzeko, diogun *-M-* — *-n-* > *-m-* — *-l-* ere opatu dugula idatzizko iturrietan (*Munisco*, 1889 > *Mulisco*, 1920 / *Munixko* [múnixkò] / *Mulixko* [mulíxko]; cf. *Anchista*, 1773 > *Altxista*, 1923).

Albokariak[1258]

ASOLAMAKIO toponimoaren kasuan, jatorrizkoa ez den kontsonantea garatu da amaieran, herri-etimologiaren ondorioz segur aski[1259] (*Esolamaki* [ésolamakì] / *Esolamakill* [ésolamákill] / *Etsolamakil* [étsolamakìl]). ZILLEGIKO LOHIA toponimoan, bestetik, *-ll-* — *-g-* > **-ll-* — *-r-* > *Ø* — *-r-* bilakaera dakusagu (*Zillegiko loya* [zíllegikò lóyà] / *Zirikoloi* [zírikolòi̯]).

[1256] Cf. *Antso* (1989) eta *Dontzellaitturri* ([dontzellai̯ttúrri] / [dóntzellai̯tturrì]). Aldizkapena informatzaile beraren ahotan gertatzen da sarritan (*Urzulo* [úrzulò] / *Okertzulo* [okértzuló], Mari. 2; *Akertzulo* [akértzulò] / *Akerzulo* [ákerzúlo], Mari. 2). *Z.K.*

[1257] Tartean morfema (hitz) muga dago bi hauetan, baina ez aurreko besteetan. Cf. *Bustinzulo* [bustínzulò] eta *Usonzulo* [úsonzulò]. *Z.K.*

[1258] ATXURRO toponimoan bokal irekiaren eta sabaiko afrikariaren arteko albokaria erori da (*Alchurro*, 1864 > [átxurrò]). *Z.K.*

[1259] Amaierako *-l* ezabatu egiten da ahoz LARREBIRIBIL eta MIKELABIL oikonimoetan (*Larrabi* [lárrabì]; *Mikelabi* [míkelabì]). *Z.K.*

Dardarkariak

Dardarkari azkarrak bere horretan iraun du eskuarki (*Arrola*, 1794-1831 > *Arrola* [árrolá]), baina bokal arteko dardarkari ahula erori egin da maizenik[1260] (*-VrV- > -V∅V-*). Badaude galera horren idatzizko erreferentziak (*Ubaran*, 1797 > *Ubaan*, 1951) eta, esan moduan, ahozko tradizioan ere joera indartsua da (*Argarate* [árgaraté] / [árgaratè] / *Argaate* [árgaatè]; *Argurutz* > *Arguutz* [árguùtz]; *Gorostarbe* > *Goostarbe* [góostarbè]; *Garagartzako galbarioa* > *Gaartzako galbayua* [gaártzakò gálbayuà]; *Gerezietako malkorra* > *Geezitako malkorra* [géezitakò málkorrà]; *Angeluiturriko hariztia Angeluitturriko aiztiya* / *Angilitturriko aiztia*,1989). Zernahi gisaz, ez da automatikoa. *Urataka* terminoaren testigantzak topatu ditugu esaterako, eta batzuetan bokal arteko dardarkaria ezabatu egiten da, baina beste batzuetan ez ([úratakà] / [úratakà]; [úatakà]; [úatakakò érrekà]). Berebat, *soro* generikoa duten bi toponimo daude, *Argorriko sorua* ([árgorrikò sóruà]) eta *Errenteisorua* ([érrenteị̈soruà]) hain zuzen, eta, ikusten den bezala, dardarkaria ahoskatu egiten da bietan.

-R- — -R- > -l- — -R- disimilazioaren erakuskari bat aurkitu dugu[1261] (*Argorri* [árgorrì] / *Algorri* [álgorrì]) eta, era berean, *-r- > -l-* aldaketaren aztarna ere badago *Artamugarri* oikonimoan (*Artamugarri*, 1864 > *Altamo-bea*, 1942 / *Altamurri* [áltamurrì]), generikotzat darabilten berriemaileek bere horretan ebaki arren (*Artamugarriya* [artámugarriyà] / *Artamuarriya* [artámuarriyà]).

Bustidura

Asimilazio bustidurarekin hasiko gara, testuinguruak eragindakoarekin alegia. *i̯* duen diptongoaren ondorengo *n*-ren sabaikaritzea aski zabaldua dago eta, diogunaren lekuko, *gaina* generikoa hartu duten toponimoen idatzizko aurreneko agerraldietan esate baterako, *ai̯nV > añV* ikusten da (*Alcazurcogaña*, 1683). Ahozko tradizioan automatikoa

---

[1260] Bidenabar, gogora dezagun *txara* eta *txaga* aldakiak erabiltzen direla gure esparruan (*Andolachaga*, 1864, *Barkixteiko txaga* [bárkixteị̈kò txágà] / *Akolatxara* [ákolatxarà]. *Z.K.*

[1261] *-R- — -R- > -R- — -l-* dugu ARNABARRETAn (*Arnabarreta*, 1923 > [árnabaletá]), eta BELOKI oikonimoan ere *-r- > -l-* egon da (*Beroqui*, 1739 > *Beloqui*, 1843). Halaber, disimilazioa gertatu da URRIOLONDOn (*-R- > -rb-*): *Urriolondo* (1615) > *Urrillondo* (1818) > *Urbillondo* (1848), *Urbillondo* [úrbillondò]. GARALORREGI oronimoan asimilazioa ala disimilazioa dagoen ez dakigu, *Galolei* [gálolèi] baita aldaera arrunta, eta *Garolei* [gárolèi] salbuespena. Bidenabar, derragun metatesiaren erakusgarri bakarra topatu dugula (*Errollaburu*, 1935 > *Errollaburuko rekta*, 1989 / *Illorraburuko rekta*, 1989). *Z.K.*

da hitz amaieran (*Arteitako gaña* [árteị̇takò gáñà]), baina, idatzizko iturrietan *Larregaiñ* (1937) aurkituagatik, *-aị̇n* besterik ez dugu jaso ahoz hitz bukaeran (*Larrain* [lárràị̇n] / *Larragain* [lárragàị̇n]).

InV > *iñV* sabaikaritzearen erakusgarri ugari daude, bai idatzizkoak (*Liñapuzueta*, 1797-1833; *Arri-urdiñeta*, 1843; *Laspegui-osiña*, 1933), bai ahozkoak (ZERRENDAKO OSINA, *Xerrendako osiña* [xérrendakò ósiñà]; SANTIAGOKO OSINA, *Santiyoko osiña*; HONDORIK GABEKO OSINA, *Ondorik gabeko osiña* / *Ondoigabeko osiña*). *ilV* > *illV* aldaketari doakionez, 15. menderako *ill* segida irakurtzen da idazkietan (*Yllarrasuayn*, 1516) eta harrezkero badaude idatzizko erreferentzia gehiago (*Pillotazoro*, 1797-1833); ahoz ere *-ill-* besterik ez dugu aurkitu (*Otxakillen urbittartia*, 1989). *-aị̇-* + *-l-* duten maileguetan bustidura nagusitzen da ahozko tradizioan, *ll* nahiz *ill* eman duena (*Praillian osiña* [práị̇llián ósiñà] / *Prallian osiña* [prálliàn ósiñà]). Hitz amaierari datxekionez *-ill* kausitu dugu (*Esolamakill* [ésolamákill]).

ItV > *ittV* egiteko joera dago ahoz, tradizio idatzian sabaikaritze horren lekukotasunik topatu ez badugu ere. *Iturri* izenaren kasuan, adibidez, bustidura automatikoa da (*Sasitturrita* [sásitturrità]; *Itturritxoko* [ítturritxokò] / [ittúrritxokò]), baina beste batzuetan hautazkoa dirudi (*Patxikuleiko urbitartia*, 1989; *Otxakillen urbittartia*, 1989; *Arbitarte* [árbitartè] / *Arbittarte* [árbittartè]; *Bezkita* [bézkitá] / *Bezkitta-* [bézkittakuá]). Modu berean, ugari dira *aị̇zC* > *atx*, *aị̇zC* > *aị̇xC*, *C IzC* > *ixC*, *IsC* > *ixC* eta *usC* > *uxC* asimilazio bustiduren erreferentziak[1262] (*Alcaycuren*, 1467 > *Alcachurain*, 1736; *Aixtitako munttua* ([áị̇xtitakò múnttuà]; *Astabixkar* [ástabixkár]; *Mulisco*, 1920 > *Mulisko* [múliskò] / *Mulixko* [mulíxko]; *Uzcalcue*, 1476 > *Uxkalkoko borda* / *Uskalkoko borda*, 1989; *Errekagaixto* [érrekagaị̇xtò]).

Zenbait toponimotan sabaikaritzea asimilazioari zor ote zaion ez dago aurreko estenpluetan bezain garbi. *NdV* segida (< *ị̇nd V*), konparaziora, busti egin da OINDI (*Oindi*, 1625 > *Ondi*, 1850 / *Onyi*, 1942 / *Onyi* [ónyì]) eta OINDO toponimoetan (*Oindo*, 1773 > *Ondo*, 1889 / *Onyo*, 1944 / *Onyo* [ónyò]). Ildo beretik, *ntV* > *nttV* egon da *munto*

[1262] BARKAIZTEGI toponimoan *aị̇zC* > *izC* > *ixC* egon da hitz barruan (*Barcaíztegui*, 1864 > *Barkixtei* [bárkixtèị̇]). *Z.K.*

eta *muin* izenak osagaitzat dituzten toki-izenetan (*Gaztainmunttua* [gáztaɨnmunttuà]; *Munttoko etxola* [múnttokò étxolà]; *Aixtitako munttua* [áɨxtitakò múnttuà]; *Muntteita* [múntteɨtà]; *Untzoko munttei* [úntzokò múnttéɨ]) eta ANTXISTA saroi-izenaren bizkar-hobietako txistukari afrikaria ere, sudurkariaren eta bokal itxiaren artean dagoena, busti egin da (*Ançista*, 1607 / *Anzista de yusso*, 1607 > *Anchista*, 1833 / *Antxista* [ántxistà]). Gauza bera esan daiteke *Intsausti*-ri doakionez (*Insausti*, 1951 > *Intxusti* [íntxustì]). Elkartuaren bigarren osagaiaren hasierako txistukariaren sabaikaritzea ere lekukotu dugu; lekukotasun zaharrenak 18. mendekoak dira (*Urtechabal*, 1797) eta ahozko tradizioan bizirik dirau (*Gaztainxarko arkaitza* [gaztáɨnxarkò árkaɨtza]; *Paotxalko borda* [paótxalkò bórdà]). *Ttangota* [ttángotà] / *Ttanguta* [ttángutà] oronimoan ere ingurunez landako bustidura dugu (< *tango*; cf. DANTZALEKU). Berebat, esan dezagun hitz hasierako bizkar-hobietakoaren sabaikaritzea ikusten dela ahozko forma batzuetan (*Txerrendako pasaizua*, [txérrendakò pásaɨzuà]).

Bustidura adierazgarria pertsona izenak osagaitako dituzten toponimoetan garbi ikusten da (*Mañuelen jirabuelta* [máñuelèn jírabueltá]), izen ttipi edo hipokoristikoetan alegia. Kasu batean agerikoa da izendatutako izaki geografikoaren txikitasuna adierazteko baliatu dela (*Xerrendako osiña* [xérrendakò ósiñà] / *Txerrendako pasaizua*, [txérrendakò pásaɨzuà] < *zerrenda*).

Kontsonante-multzoak[1263]

Tr- multzoa hitz hasieran baizik ez da azaltzen (*Trenchalecueta*, 1794; *Trintxaleku* [tríntxalekù]; *Trikulantei* [tríkulantèɨ]). Bestalde, *F(r)- > P(r)*-ren erakuskariak daude ahozko tradizioan, beti bateko legea izan ez arren (*Frantziputzuta* [frántziputzutà] / *Prantziputzuta* (1989).

Hitz barruan egondako aldaketen sailean, aipatzekoak dira LATXA eta USOKO toponimoak[1264]. Aurrenekoan **rtz* > *rts* > *ts* > *tx* izan da bilakabidea (*Larsa de Avillas*, 1467, HUA5; *Lassa / Laza*, 1595; *Latze*, 1843; *Latse*, 1864; *Latxe* [látxè], K.) eta

[1263] Elkarketan *-n* + *R*- suertatzen denean *-n* + *-dr*- exkrezenzia ikusten da batzuetan (*Sandroke* [sándrokeá] *adl.s.* / [sándrokèn] *in.*, *Sanrroke* [sánrrokè]). *Z.K.*

[1264] *-Rl-* > *-l-* murrizketa opatu dugu ARRILIMURI (*Arrilimuri*, 1831-1845 > *Arrilimoi*, 1948 > **Arlimoi* > *Alimoi* [álimòɨ]) eta ARLEGOR toponimoetan (*Arleor* [árleòr] / *Aleor* [áleor]). *Z.K.*

bigarrenean, berriz, **rz* > *rs* > *s* (*Ursuco*, *Ursoco*, 1780; *Usoco*, 1769; 1773; *Usoco*, 1847; *Usoko* [úsokò], K.); MAKUTSOLA saroi-izena ere aurreko bien buru berean sartu behar da segur aski (*Macurssola*, 1141-1142 / *Macurssola*, 1178 > *Makutsulo* [makútsulò]).

10.3.2. Morfologia eta joskera

10.3.2.1. Deklinabidea

Absolutiboa

Badira pluralean deklinaturik baliatzen diren izen generiko gutxi batzuk Urumeako zilegimendietako toponimian. Idatzizko lehen lekukotasuna 19. mendekoa da (*Oerangopagoac*, 1833-1835, DUA3) eta berriemaile batek ere horrela deklinatzen du *pago* generikoa; ñabardurei erreparaztuz gero, azken adibide horretan *-u- + -ak* > *-uk* murriztapena burutzen da hiatoan (*Martinbeltzeneko pauk* ([mártinbéltzenekò páùk]; cf. *Murrutako zuluak* [múrrutakò zúluàk]).

Leku genitiboa

Sudurkari ondoren *-go* aurkitu dugu idazkietan, eta gainerako inguramenduetan *-ko*[1265] (*Ygoringo gaña*, 1683 / *Alcazurcogaña*, 1683). Aipatzekoa da hondarkia bi aldiz duten toponimo gutxi batzuk ere opatu ditugula (*Esteguietaco atacaco chabala*, 1831-1845 / *Aranoco-Etzelaco-gaña*, 1889). Ahoz *-ko* erabiltzen da albokari ondoren (*Paotxalko borda* [paótxalkò bórdà]), *-go*-ren ordez eta, izen batzuetan, jabego eta leku genitiboaren hondarkiak segidan doaz (*Markesango egiya* [márkesangò égiyà] / *Markesan egiya*, 1989; *Larratxuingo borda*, 1989 / *Larratxuin borda*, 1989; *Otzozulongo zuloa*, 1989).

Ahozko tradizioarekin jarraituz, dardarkari ondoan loturazko *-e-* bokala baliatu da zenbait kasutan (*Olazarreko portillua* [ólazarrekò pórtilluà] / *Olazarko zubiya* [ólazarkò zúbiyà]) eta, ildo horretan, amaieran jatorrizkoa ez den albokaria duten formek loturazko *-e-* hartzen dutela zehaztu nahi dugu (ASOLAMAKIO > *Esolamakilleko borda*

[1265] Pluraleko aipamen bakarra aurkitu dugu Zilegimendietatik kanpo (*Tabako baratzetako txokua* [tábakò barátzetakò txókuà]).

[ésolamákillekò bórdà]). Lotura auziez ari garenez, diogun oinarriaren azken bokala aldatu egin dela zenbait toponimotan; EPELAren kasua adierazgarria da, aipamen zaharrenetako *Epela*-ren ordez (1467) *Epele* azaltzen delako 18. mendean (1739) eta, hain zuzen, hori dugulako 19. eta 20. mendeetako agirietan nagusitzen den forma (1773, 1850-1852, 1920); ahozko tradizioan ere *Epele* ([épelè]) bildu dugu. Hitz bitan, *Epele* aldaera amaieran bokal erdikoa duten *Epeleco Echeverri* (1937) bezalako formen eraginaren ondorioa da. Badira horrelako gehiago ahozko tradizioan (*Saatse* [saátsè], SARATSA; *Urteko txabale* [úrtekò txábalè] URTEAGAKO ZABALA).

Jabego genitiboa[1266]

Berriemaileek jabego genitiboaren singularreko hondarkia murriztu (*-ren* > *-n*) egiten dute (*Joxinixion txabola* [joxínixiòn txábolà]; *Kaskasoillan txabola* [kaskásoi̯llàn txábolà]; *Motzanerlietako erreka* [mótzanerljetakò érrekà]). Bestetik, kasu gutxi batzuetan, leku eta jabego genitiboaren hondarkiak aldizkatzen dira (*Santodomingoko pagadiya* [sántodomingokò págadiyà] / *Santodomingon pagadiya* [sántodomingòn págadiyà]). Azkenik, derragun gutxi direla pluraleko hondarkia hartu duten toponimoak (*Makarrayen egiya* [mákarrayèn égiyà]).

Beste batzuk[1267]

Berriemaileek inesiboan deklinaturik ebaki dizkigute zenbait toponimo (*Egiaundi* [égiáu̯ndi] / *Egiaundin* [égiau̯ndìn]) eta, modu berean, hainbat izen ablatiboan entzun dizkiegu, *Antxistaazpitik* [ántxistaazpitìk] kasu; ildo horretan, deigarria da bertako hizkeran aski zabaldua dagoen *-tikan* forma duen adibiderik ez biltzea. Adlatiboko kasu marka ere aipatu nahi dugu, dardarkaria ez delako ahoskatzen ahozko tradizioan; ondorioz, mugatzailearekin nahas daiteke (**Ereñotzura* > *Eeñazua* [eéñazuà] / *Iñotzua* [íñotzuà]; cf. *Lecaiopera*, 1683).

[1266] Zilegimendiak inguratzen dituen lurraldean ere pluraleko erakusgarri gutxi daude (*Txoriyenbasoa*, 1989). *Z.K.*

[1267] Tradizio idatzian inesiboko hondarkiz hornituta dauden adibide gutxi opatu ditugu (*Tolaritacoburun,* 1920 / *Tolarietacoburu*, 1924). Bidenabar, badira instrumentalaren marka duten toponimoak gure esparruan (*Itxutuskanpua*, 1989; *Itxutus-barrena*, 1989; *Luakizkanpo*, 1989; *Luakizbarrena,* 1989). Inesiboko zatiketa faltsuaren lekukoak ere ahotan hartu nahi ditugu, ARTOLEA eta AIZPARRENEA esaterako. Hain justu, azken baserri-izenak jatorriz ez du *-(e)nea* (*-[r]ena*) berrekailua, hala iruditagatik: idatzizko lehen erreferentzia 19. mende erdialdekoa da eta *-ea* gabe azaltzen da (*Aitz-barren*, 1845-1846; *Aitz-barrena,* 1846; cf. *Aizparrenea*, 1983; *Aizparrenia* [á̯izparrenià]); *Z.K.*

10.3.2.2. Hitzen forma[1268]

Egun gailentzen den *txiki* aldaera 1743. urtean azaltzen da aurreneko aldiz dokumentazioan (*Cillegui chiquia*); ordu arte, 16. gizalditik, *txipi* opatu dugu (*Urdalvinchipi*, 1554 / *Urdaburu chipi*, 1628; *Aischipiondo*, 1628; *Ynchaurchipieta*, 1739). *TTiki* aldaerari doakionez, informatzaile batek bakarrik darabil (*Zillei ttikiya* [zíllèi̯ ttíkiyà]). *Handi* izenondoarekin antzeko zerbait gertatzen da. Egun *haundi* nagusitzen da (*Aitzolako pago aundiya* ([ái̯tzolakò págo áu̯ndiyà]), baina, espero izatekoa zenez, tradizio idatzian diptongorik gabeko aldaeraren arrastoak daude (*Eguiandia*, 1797). Orobat, 18. mende arte *garaiko* ageri da idazkietan, egun *goiko* baliatuagatik. Izenen sailari bagagozkio, idazkietan bi forma aurkitu ditugu artzainek mendian pilotan egiten zuten tokia izendatzeko, *Pelotasoro* (1797-1833) eta *Pillotazoro* (1797-1833), baina ahozko tradizioan aurrenekoak baizik ez dirau (*Pelotasoro* [pélotasoró]).

10.3.2.3. Joskera

Izen espezifiko bakunei buruz mintzatuz hasiko dugu aztertu ditugun toponimoen joskerari eskainitako azpiatala. Erabilitako termino gehienak geografia arlokoak dira, eta gutxi batzuek, bostek hain zuzen, persona izenetan (*Antso*, *Bakero*, *Herkules*) edota izen arrunt ez konkretuetan dute sorburua (*Purgatorio*, *Deskarga*). Datei eta kopuruei dagokienez, lehenbiziko etsenpluak 16. gizaldian kausitu ditugu (*Ynsusadi*, 1588) eta izen espezifiko bakuntzat zein generikotzat kausitu ditugunak (**PORTILLU**KO OSINZULOA / OLAZARKO **PORTILUA**) ez dira laurdenera iristen (*ermita*, *lats*, *ospel*, *portilu*, *txabola*, *ursalto*, *zoko*).

Espezifiko elkartuen osagaien sailera etorriz, izenak nagusitzen dira, izenondoak dituzten toponimoak gutxi direlako, hots, *izena* + *izena* egitura delako emankorrena. Multzo horretan daudenen artean *izen arrunta* + *izen arrunta* osaketa dute gehienek; diogunaren lekuko *mugakizuna* + *mugatzailea* (LEGARR**ALDE**) zein *mugatzailea* + *mugakizuna* (**ERREKA**MUNTO) azpi sailetan aurki daitezke horrelakoak. Aurreratu bezala, badaude *izena* + *izenondoa* egitura duten toponimoak ere, *izena* + *izena*

[1268] Cf. *Choncoanea,*1739; *Txonkuania* [txónkuanià] / *Ttonkoane* [ttónkoane]; *Z.K.*

multzokoak baino gutxiago izan arren. Datu bat: bestelako izenondoak dituzten espezifiko elkartuak (LARRE**BIRIBIL**), kromotoponimoak dituztenak baino gehiago dira (LARRAIN**TXURI**).

Izen espezifiko eratorriei lotuko gatzaizkie orain. Atzizki, paratzizki eta bukaerek aztertu dugun toponimian duten pisuari dagokionez, hiru izenburu nagusitatik batek horietako osagairen bat du. Gehien aurkitu duguna, nabarmen gainera, *-eta* berrekailua da eta ondoren *-(r)ena* (*-[e]nea*) eta *-egi* datoz. *-Aga* eta *-zu* atzizkiak azken bien erdira ez dira iristen eta, ildo beretik, *-di* duten toponimoen kopurua txikia da. Paratzizkiak eta bukaerak (*-ola*, *-arain*, ...) dauzkaten toponimoak, azkenik, *-(r)ena* (*-[e]nea*) edota *-egi* elementuak dituztenen kopurura ez dira iristen.

Paratzizkiei begiratzen badiegu, *-ola*-ren erreferentzia zaharrenak 12. mendekoak dira (*Ammunola*, *Gierala*, *Lastaola*, *Macurssola*, 1178) eta *-(k)ue*-renak 15. mendekoak (*Uzcalcue*, 1467). Bukaerei datxekienez, lehenbizi azaltzen dena *-en* da (> *-ain*), 12. mendean azaldu ere (*Apparren*, 1178), baina ihartuta dago, *-arain* (15.-16.) eta *-eraun* / *-araun* bezalaxe (17.-18.). Hain zuzen, ahoz bildu ditugun aldakiak *-a̱i̱n*, *-ra̱i̱n / -re̱i̱n*, *-(a)(r)an*, *-(a)u̱n* eta *-in* dira.

Atzizkiak dituzten toponimoez arduratuko gara orain. *-Eta*-ren lehen erakuskariak 12. gizaldikoak dira (*Zuloeta*, 1178) eta harrezkero askotan ageri da begiratu ditugun iturrietan. Aipamenen artean, badaude *-eta / -Ø* txandaketaren adibideak (MUGARRIETA, 1628; ARRIURDIÑETA, 1843). Berrekailua hartu duten oinarri gehienak izen elkartuak dira, hau da, osaketa arrunta *izena* + *izena* + *-eta* edota *izena* + *izenondoa* + *-eta* da[1269]. Aurrenekoen sailean, badaude *zenbakia* + *izen geografikoa* egitura dutenak (BOSTAITZETA); ez dira asko, halere.

-Aga berrekailuaren aurreneko erreferentziak 15. gizaldikoak dira (*Aguinaga*, 1467) eta oinarriei begiratuz gero, *izena* + *-aga* eta *izena* + *izena / izenondoa* + *-aga* osaketa dutenen artean ez dago alderik kopuruari dagokionean (*-eta* berrekailuaren kasuan ez bezala). *-Aga* > *-∅* gertatu delako lehen erreferentzia 1868. urtekoa da eta badirudi

[1269] Bakunak direnen halako bi dira horrelakoak.

generikoa eransteak zerikusia izan duela horretan. Orobat, *-aga* / *-eta* txandaketaren aurreneko testigutza 1889koa da (*Olaberriaga*, 1516 / *Olaberrieta*, 1899).

Gainerako atzizkien karietara, esan dezagun *-egi* atzizkia 12. menderako lekukotzen dela (*Izarrlegi*, 1178). *-Di* 15. gizaldirako dokumentatu dugu (*Yraçurdi*, 1427) eta *-do*, berriz, 18. menderako (*Oindo*, 1773), nahiz eta bi toponimoren osagaitako baino ez erabili. *-Tz(a*, *e)* berrekailua goiz azaltzen da (*Guaragarze*, 1178) eta, azkenik, *-(e)nea* (*-[r]ena*) gutxi eta berandu (1702, *Ozoanea*) aurkitu dugu idazkietan. Bi atzizki dituen toponimo baten lehen erreferentzia (*-tegi* + *-eta*) 19. mende erdialdekoa da (ESTEGIETAKO ATAKAKO TXABALA, 1831-1845) eta osaketa hori dutenen artean oinarri gehienak izen generikoak dira (*hariztegi* / *harizti*, *haztegi*, *mintegi*, *txerritegi*...); alabaina, badaude *-eta*-ren aurretik *-txo* txikigarria daukatenak.

Bereizgarriak dituzten toponimoak (izenburuak) ere aurkitu ditugu; zati generikoz hornituta dudenak baino gutxiago azaldu zaizkigu[1270]. Idatziz estreina ageri direnak *azpi*, *ondo*, *saihets* eta *txipi* dira, aurrenekoa hamabostgarren mendean eta gainerako hirurak hamaseigarrenean.

Idatziz lehenik opatu ditugun generikoak *erreka* eta *idoi* dira, hamaseigarren gizaldian opatu ere. *Erreka* da, hain justu, agerraldi gehien dituen euskal generikoa. Zernahi gisaz, berriemaileek ez dizkigute forma generikodun asko eman: osagai hori duten toki-izenak lautatik bat izatera ez dira iristen. Idatzizko tradizioan are urriagoak dira. Generikoa izen espezifikoarekin uztartzerakoan leku genitiboaren hondarkia nagusitzen da argi eta garbi, zuzeneko edo hondarkirik gabeko eransketaren gainetik (kasu marka dutenak ez dutenak halako bi dira). Aurretik leku genitiboa duten izen generiko gehienak artikuluz hornituta daude (gutxi dira mugatzailegabeak) eta izen espezifikoari zuzenean erantsitako generikoen artean, berriz, artikuludun eta artikulugabe kopuru bertsua dago; ez da alde nabarmenik ikusten.

[1270] Besterik da izen espezifikoen zati banaezintzat erabili izenek duten emankortasuna.

Azpiatal honekin amaitzeko, derragun Satznamen edo erlatibo-toponimo bat dagoela gurean[1271]: HAURRA GALDU ZAN HARRIA (*Aurra galduzan arriya* [áu̯rrà galdúzan árriyà] / *Aurra galdutako arriya* [áu̯rrà gáldutakò árriyà] / *Aurra jandako arriya* ([áu̯rrà jándakò árriyà]).

10.3.3. Semantika

10.3.3.1. Toponimoak izen arruntetan jatorri duten izen bereziak dira: tokiei emandako izenak beren garaian arruntak ziren osagaiez daude eginak, sortu zirenean, toki-izenak orduko hiztunentzat semantikoki gardenak zirelako.

Toponimoak osatzerakoan giza-talde bakoitzak bizi den inguruaren berezitasun geografiko eta historikoetara hobeki moldatzen diren terminoak hartu ditu lexiko arruntetik, eta bere corpus berezia sortuz. Alde horretatik, toponimiak gizakiaren bizimoduaren berri ematen du, hark lexikoak (bere osotasunean) eskaintzen dizkion izendapen-aukeretatik batzuk besterik ez dituelako baliatzen. Horri esker, hiztun erkidegoak egindako ingurune fisikoaren interpretazioa ezagut genezake toponimiaren bitartez. Adibidez, beste lurralde batzuekin alderatuz gero, *-bide* osagaitzat duten toponimo gutxi daude Gipuzkoan, eta Urumeako zilegimendiak ez dira salbuespena. Hori, besteak beste, bertako orografiarekin (eta lurraldearen kokapenarekin) dago lotua: Urumeako zilegimendietan bideak erreferentzia geografiko eskasak dira, entitate gutxikoak izateaz gainera, ez direlako begi-bistan ikusten.

Urumeako zilegimendietako toponimian ingurune fisikoaren eta giza-jardueraren berri ematen duten leku-izenek pisu handia dute; orografia menditsua eta urtsua duen paisaia gizakitua marrazten dute. Hain zuzen, hidrografia arloko izen mordoa dago, hau da, errekek eta iturriek aparteko garrantzia dute. Landaretzarekin lotutako izenek duten hedadura ezin da gutxietsi, baina orografiarekin, hidrografiarekin edota gizakiaren ekintzekin zerikusia duten toponimoak gehiago dira.

[1271] *Soldaduak gordetzeko harria* eta *Hondorik gabeko osina* toki-izenak ere jaso ditugu Urumeako zilegimendietan.

Izen elkartuen arloan garbi ikusten da esaten ari garena: espezifiko elkartuen aurreneko nahiz bigarren osagaitako (ANGELU**ITURRI** / **ITURRI**EDER) opatu ditugun hogeita bost terminoek inguru gizakitua, menditsua, urez ongi hornitua eta landaretza joria duena adierazten dute (*baso*, *bide*, *elorri*, *erreka*, *etxe*, *gurutze*, *haitz*, *harri*, *ibar*, *iturri*, *larre*, *lepo*, *lur*, *mendi*, *muino*, *munto*, *osin*, *sagasti*, *saroi*, *soro*, *zabal*, *zelai*, *zoko*, *zubi*, *zulo*).

Esan bezala, giza-urratsarekin zerikusia duten osagaiak ez dira gutxi. Asko eta asko ekonomiarekin daude lotuak (abeltzaintza, nekazaritza...), baina badira bestelakoak ere. Familia- edota gizarte-harremanak islatzen dituzten izenen sailean, adibidez, AMUNOLA saroi-izena dugu Urumeako zilegimendietan (< *amun[a]*, *amon[a]*), eta ANDOLA ere (< *andere*, *andre*?; cf. lat. *domina*) talde berean sar daiteke, apika. Zernahi gisaz, zehaztu beharra dago gutxi direla horrelakoak. Eremu zabalak izendatzen dituzten tokiak ere urri dira, administrazio alorreko banaketei men egiten dietenak bezala.

Toponimoen osagaitako erabili diren izen eta izenondoen esanahi, jatorri eta pisua zehaztea axolazkoa bada, esanahi-esparru ezberdinen antolaketa linguistikoa ezagutzea ez da garrantzia gutxiagoko auzia. Koloreak, esaterako, antolamendu linguistikoaren ondorioa dira, errealitatearen klasifikazio zehatzaren emaitza baino gehiago. Urumeako zilegimendietako toponimian *beltz*, *gorri*, *txuri / zuri* eta *urdin* koloreak aurkitu ditugu[1272]. Alabaina, ez dago kolore horiek guztiak hartu dituen erro edo oinarririk; alde horretatik emankorrena *har(ri)* da (ARRITXURI[ETA], ARGORRI, ARRIURDIN[ETA]) eta kolore bat baino gehiago hartu duen beste izena *erreka* (ERREKABELTZ / ERREKAGORRI).

Erreka-rekin jarraituz, derragun, erakuskari gehien dituen izena izateaz gainera, bost izenondorekin uztartuta aurkitu dugula (ERREKAGAIXTO, ERREKALEGOR, ERREKAUNDI, ERREKATXIKI eta ERREKAZAR). Hitzak hizpidea ekarrita, izenondo gehien hartu dituena beste hidronimo bat da, *iturri* hain justu (ITURGOXO, ITURRIGOXO, ITURPIÑA, ITURRIANDI, ITURRIEDER, ITURRIOTZ, ITURRIPOTXOLO, ITURRIZAR). *Pagadi*

[1272] *Ilun* izenondoa ere topatu dugu.

multzokaria oinarritako duena ere izen-multzo garrantzitsua da (PAGADIAUNDI, PAGADIMOTZ, PAGADITXIKI, PAGADIZAR, PAGALUZE[1273]).

Urumeako zilegimendien ondoan (Hernanin) dagoen Zikuñaga auzoko ezizen multzoa aipatu nahi dugu orain, berezia delako. Bi biko deigarri daude, nolabait esan, errima egiten dutenak[1274]: (ALTZEGA) OTRO / (BELOKI) POTRO; (ZIKUÑAGA) BIRJIN / (EZIAGOKO ERROTA) IRIN (edo TRIN). Etxalde hartan dauden gainerako oikonimoak (ezizenak) BALKOI, PADERAZIKIN, KAKALUSTRE, LANGA, PATRIKABERO, SALDAME, TXIGILLAMAZU, ZAPILANGA eta ZERRIBURU dira.

PULPITU oronimoa ere kausitu dugu, ikuspegi oneko tontortxoa izendatzen duena. Ildo beretik, *lepo*, *bizkar* eta *kasko* zati generikotzat dituztenek zenbateko polita erdiesten dute oronimoen sailean. Alabaina, gutxi dira metaforan oinarri duten bereizgarriak, *buru* eta, agian, *saihets* besterik ez.

10.3.3.2. Urrutiko izenak bertakoratzea prozedura arrunta da toponimiaren alorrean. Hain zuzen, urrun dauden tokietan errepikatzen diren toponimo frankoren jatorriak inguruko izenekin inolako antzik ez duen forma erabili nahi izatearekin du zerikusia.

Toponimoen errepikapena nahita gertatzen denean arrazoi bat baino egon daitezke. Lehenik eta behin, toki berriak eta jatorrizkoak antzeko ezaugarriak izan ditzakete. Gurean, adibidez, GIBRALTAR mendia dugu[1275]. Hor dago, halaber, leku-aldatze toponimikoa, gurean ARANATX(ENEA) toponimoan gauzatu dena: *Arantza* herrikoa izateagatik ezizen hori zuen familiak (*Aranatz*) eman dio izena baserriari[1276].

[1273] Cf. ARIZTILUZE.

[1274] Berriemileaileek bata bestearen atzetik eman zizkiguten, intentzio horrekin (errima egiteko).

[1275] Bada BENETZI izena duen aurkintza bat. Natonomasiaren erakusgarri da, ur-ibilgu ugari daudelako han. Bide batez, oroit dezagun izen exotikoak bertakotzea dela beste jokabide emankorra. Gurean BUENOSAIRES leku-izena da horren adierazgarri. Txertaketaren arrazoien artean kolonizazioa edota kanpotarren egonaldia ere egon daitezke. Adibide garbirik ez dago, baina daitekeena da MONTEFRIO toponimoak horrelako gertakizunetan izatea jatorria. *Z.K.*

[1276] Baserriaren izena, berez, ARITZOLABORDA da.

Toponimoen errepikapena nahi gabe edo halabeharrez ere gerta daieke, hots, poligenesia egon daiteke. Gurean ERREKABELTZ(A) hidrotoponimoa da horren adibide bat, baina, edonola ere, bi tokitan azaltzen diren toponimoak ez dira asko, izen errepikatu gutxi dago. Zehazkiro esanda, zilegimendien barruan bitan agertzen den toponimo bakarra BIDEGURUTZETA da eta gainerako errepikapenetan ale bat zilegimendietan dago eta bestea, inguramendu lurraldean[1277] (APARRAIN, ARGARATE, ARRIURDIÑETA, ARRIZABAL, AZKONA(R)ZULOETA, BORDAZARRETA, DESKARGA, EGURROLA, ELORRIETA, LARRAGAIN, LATSA, LIZARRAGA, OLABERRIETA, ORMAZARRETA, URRITZAGA).

Besterik da Urumeako zilegimendietako toponimia euskal eremuan errepikatzen den jakiten ahalegintzea, bestela esan, aztertu dugun izen-corpusa apartekoa den (esklusiboa) zehazten saiatzea. Zentzu horretan nabarmendu beharra dago bildu dugun toponimia gehiena ez dela originala eta, diogunaren lekuko, hona hemen gure esparrutik kanpo ere (euskal eremuan) aurkitu ditugun zenbait izenburu-nagusi[1278]: AGINAGA, AGIÑETA, AIZPARRENEA, ALDAPETA, ALKAI, ALTZEGA, ALTZITURRIETA, ALTZUETA, ALTZUSTA, ANDOLA, AÑOA, ARANBEGI, ARNABARRETA, ARRITXURIETA, ARTESKIÑETA, ARTIKUTZA, AZAROLA, AZKETA, BARKAIZTEGI, BELABIETA, BELASTEGI, BELOKI, BOSTAITZETA, BRANKETA, ERLEETA, EZIAGO, GARAGARTZA, IARTZA, IPENARRIETA, IRUMUGARRIETA, ITURRITX, KARTOLA, LASTAOLA, LIZARRAGA, LOSETA, MAINGUANEA, MENDABIO, MIKELENEKO BORDA, MOTXAENEA, MUGITZA, OLLAKIÑETA, OLLOKI, ORMAKIO, ORTZAIKA, PARDIOLA, SOLDADUARENA, TARTATZU, TRONKOETA, TXIMISTANEA, UBARAN, UNTZUE eta ZULOETA.

10.3.3.3. Begira diezaiogun, amaitzeko, Zilegimendietako toponimian aurkitutako hiztegiari. Esan gabe doa altxorra ez dela jarraian dakargun zerrendan bukatzen, finkatu edo argitu gabeko zenbait forma daudelako oraindik eta horietako bat baino gehiago hemen biltzen ez ditugun terminoen gordailu izan daitezkeelako[1279]. Gainera, argitu

[1277] Badira horrelakoak Urumeako zilegimendietatik at, alegia, bi aleak inguramendu-lurraldean dauden kasuak (AÑOA, ARROLA, ARTZAIANEA).

[1278] Euskal eremuaz landa ABAÑO besterik ez dugu aurkitu, Kantabrian aurkitu ere.

[1279] Honako osagai hauek, esate baterako, emankorrak izan daitezke alde horretatik: ***Altzu-*** (1668; 1516?), ***Arteskin-***, ***Astin(k)-*** (1794-1831), *Enaz-*, *Enbuto-* (1831-1845), *Erbis-* / *Erbiz-* (1988), ***Etzaiz-*** (1605), ***Ezte(g)i-*** / ***Este(g)i-*** (1538/1797), *(G)uili(n)tx-* (1683), ***Ior- / Igor-*** (1467), ***Iras-*** / *Iran-*? (1831-

beharra dago hiztegi horren zati garrantzitsua ihartuta edo ihartzeko zorian dagoela. Esate baterako, idatzizko iturrietan lehenbizi kausitu ditugun generikoen erdia ez da erabiltzen egun. Bereizgarri multzoaren murrizketa ere nabarmena da, postposizioen arloan bereziki. Haatik, ezin da esan izen elkartuak osatzeko baliaturiko osagai multzoaren lepatzea larria denik, generikoekin alderatuz gero bederen[1280].

A

abaro-leku (1732), **adar**? (1625), agirre (1855-1857), ***aieka*, aiher** (1467; 1178?), ainar (1625), **aino** (1960), **aitona** (1989), aker (1848-1850), aldapa (1831-1845), **alde** (1178), **alkai***?* (*alka*-, 1476), **altu**, **altzairu**?, **amil** (1178), **amildu**, **amona** (1178), andre (1797-1833), angelu, **antxume** (1573), **antzu**? (1683), **apaiz**, **apo**, **arbola**, ardi*?* (1555), **arlo**? (1683), **arlote**? (1683), arrano (1566), ***artamugarri*** (1607), **arte**? (1555, 1780), **artegi**? (1780), artzain (1942), **asto**, **atabalari** (1870), **ataka** (1831-1845), ***atxero*** (1855), **atze** (1989), **aurre** (1845-1846, 1920), **auzo** (1898), **azeri**? (1989, 1538?), **azkonar** (1794-1831), **azpi** (1461), **azpiko** (1625).

B

bailara (1976), **bakoitz**? (1683), balkoi (1989), **barra** (1554), **barren** (1864), ***barrio*** (1930), **barruti**, **baso** (1712), **bazter** (1573), ***baztermugarri*** (1607), **begi**? (1951), ***begiraleku*** (1989), **behe** (*-be*, 1625 */ -pe* 1574), beheiti (1928), **beheko** (1843), *behengo* (1632), **behi**?, belai*?* (*belabi*-, 1831-1845), belar (1928), belatz (1983, 1467?), **bele** (1989, 1831-1845?), **beltz** (1794-1831), **benta** (1870), bero (1989), beroki (*beloki*, 1739), **berri** (1427), *beterinario*, **bide** (1427), **bidegurutze, bigarren**, biribil (1794-1831), birjin (1989), **bista**, **bitarte** (1833-1835), **bizkar** (1989, 1864?), bolaleku (1574), **borda** (1797-1833), **bost, branka**?, **buelta, burkaitz,** burrunba (*burrunda*-), **buru** (1548), butroi?, **buztan**, **buztin** (1569).

1835/1561), ***Izan***- / ***Izen***- (1467/1595), *Karkulo*-, *Lindo*- (1894), *Morgin*- (1989), ***Oa***-/***Obe***- (1554), *Ollakin* (1707), ***Or(r)(e)***- (1538, 1561), ***Otxakil***- (1989), *Ozis*- (1574), *Pikal*- (1569), *Uztar*- (1178).

[1280] Hizki xehez idatzitakoak arauturiko terminoak dira eta etzandako idazkeraz ageri direnak, berriz, arautu gabeak. Letrakera ilunagoz adierazten direnak Urumeako zilegimendietako toponimian bildu ditugu.

D

dantza, **deskarga** (1982), dolare (*tolare*-, 1861), **dontzeila** (1988).

E

eder (1467), **egur** (1516), **egutera** (1993), eguzki? (1983), eihera? (*igara*-), **elge**? (***elke***-, 1554), ***eliz***- (1951), **elorri** (1573), **elurzulo** (1797-1833), **eluts** (1989), **epel**? (1467), erdi (1857), **erdiko** (1799), **ereinotz** (1467), **erle** (1951), **ermita** (1843), **erramu**, **erreka** (1467), **erreten**? (1683), erribera (1927), errio (1988), **errota** (1427), **eskale**? (1936), **eskola**, ***espalda***, estrata (1989), ***etxabi*** (1595), *etxaondo* (1920), **etxe** (1467), **etxeberri** (1797-1833), **etxola** (1951), **euntze** (1683), **ezker** (1855), **ezki**? (1538).

F

fabrika (1864), faltsu, ferra? (1988), **fin** (1989), **fraide**, **frontoi**.

G

gabirai (*gabiroi*-, 1989), **gain** (1683), **gaitz**? (*-kaitz*, 1780), **gaizto** (1983), **galtzada** (1843), **garagar** (1178), garai (1768-1797), **garaiko** (1625), **garate** (1566), garo?, **gaztaina**, **gaztainadi** (1794-1831), gazte?, gaztelu (1937), **gerezi**, **gesal**? (1794-1831), gobada (*gobara*-, 1989), goi (1625), goialdeko (1951), **goien** (1932), **goiko** (1855-1857), goroldio? (1863), **gorosti** (1516), **gorotz**? (***oroz***-) (1101), **gorri** (1739), **gorroto**? (***borroto***-, 1538), gozo (1794-1831), guardia (1933), guren (1794-1831), **gurutze** (1797).

H

habaila (1923), **habi**, **hagin** (1467), **haitz** (1833-1835, 1554), haize, **haltz** (1461), haltzadi, **hamahiru** (1920), **handi** (1702), ***har(r)(i)bitarte*** (1575), haran (1794-1831), **arantza**? (1797-1833), hargin (1585), **haritz** (1566), hariztegi, harizti (1989), **harkadi**, **harkaitz** (1898), ***harpauso***, **harpe** (*-arbe*) / **harripe** (1516, 1799), ***harrataka***, **harri** (1547), ***harriurdin*** (1843), **harrizabal** (1702), harro (1898), harrobi (1845-1846), **haurra**, **hazitegi**? (1831-1845), **haztegi**? (1831-1845), hegazti? (1989), **hegi** (1898,

1780?), ***herrero*** (1989), herri (1989), **hiru** (1942), **hirumugarri** (1797), **hondar** (1989), **hondo**, horma (1712), **hosto** (1868), **hotz**?, **huntz** (1516?), **hurritz** (1409).

I

ibar (1178), **ibi** (1178), **idisko**, **idoi** (1467), **ihar** (1569; 1178?), ihi?, **ilar** (1516), ilun? (1794-1831), **inestor** (1739), ***inestorlekua*** / ***inestorlurra***, **intxausti** (1951), intsusadi (1588), **intxaur** (1739), *intxisu* (1989), inurri (*txingurri*) (1920), ipar (1843), ***ipen***- (1683), ***ipinabar***, ***irazurdi*** (1427), irin (1989), istinga (1989), **isuri**? (1944), **iturri** (1702), **itxi**? (1928), itxitura (1989).

J

jainko (1989), jaun (1923), **jentil** (1989), **jentilbaratz** (1926), **jentilen kanposantu** (1989), **jentilzulo** (1989), joko, ***judumahai*** (1989).

K

kable (1989), **kalbario** (1797), **kanal**, *kanalzubi*, kanpanduja (1794-1831), kanpo? (1989), **kanposantu** (1979), karabela? (1636), ***karlistabide***, **karobi** (1794-1831), ***karretero*** (1989), **kaskasoil** (1989), **kaskazuri**, **kasko**, **katamotz** (1889), **kate** (1989), katilu (1989), kintal, **koba** (1683), kojo, kuku (1855), **kurba** (1989).

L

labe (1989), lahar (1548), lanberri (1794-1831), **lander** (1467), **langa** (1857), lapur (1989), **larrain** (1794-1831), ***larrats*** (1554), **larre** (1702), **lasto**? (1178), **lats** (1467, 1178?), **legar** (1178), **lehenbiziko**, **lehor** (***-legor***) (1797), leize (1989), **lekaio** (1683), **leku** (1794-1831), **lepo** (1780), lertsun (1925), leun? (1863), limuri (1847-1848), liho-putzu (1797-1833), linterna (1850-1852), **lintzura**, **lizar** (1516), **liztor**, **lohi** (1773), ***losa***? (1794-1831), ***lote***, lubaki (1989), luberri (1848-1850), **lur** (1920), **luze** (1702).

M

mahai (*judumahai*), maingu (1794-1831), **maizter** (1900), **makur** (1730), **malda** (1860-1862), malkar (1797-1833), *malkarpe* (1920), **mando**, mantal? (1538), mantso

(1897), markes, maskor (1989), meatze, **mehaka** (1683), **mendi** (1611), **mintegi**, mizpira, **mizpiradi** (1833-1845), ***mo(n)ja*** (1920), **motz** (1794-1831), mozolo? (1794-1831), **muga** (1178?; 1683), **mugarri** (1628), **muino** (1683), ***munto*** (1794-183), **murru**, **mutilzahar** (1989), muxikadi (1932).

N

nabar (1923), **nafar** (*napar*), nagi (1794-1831), nagusi (1848), **notizia**? (*notizi-*, 1989).

O

oihan (*oiar-*) (1429), ***oin*** (1625), **okela**?, **oker**, okoilu? (*okolo-*, 1611), **ola** (1516), **olajaun** (1863), **ondo** (1569, 1178?), **osin** (1566), **oskol**? (*orkol-*), **ospel** (1942), ote (1956), **otso** (1702), otxar (1611), ozar (1561).

P

pago (1550; ***fago-***, 1427), ***palankaleku***, **parada** (1989), *pardina*? (1794-1831), **pareta**, **parte** (1854-1855), **pasadizo**, pasai (1920), patrika (1898), pika (1569), **piku** (1585), ***pilotasoro*** (1797-1833), **pixa**, **polit** (1843), portale, **portilu**, portu (1920), **pototxo** (1730), potro (1989), **potzolo** (*potxolo*, 1989), **presa** (1936), **pulpitu**, **punta**, **purgatorio** (1797), **puska**, putre? (1848-1850), **putzu** (1773).

R

refujio, *rekta* (1989).

S

sagar?, **sagarmin** (1516), **sagasti** (1833-1845), **saihets** (1550), **santsonarri** (1989), santu (*santi-*, 1868), sahats (***sarats-***, 1467), **sarde** (1989), **saroi** (1683), **sasi** (1569), **sepultura** (1951), **seroretxe** (1989), soldadu, **sorgin** (1835-1837), **soro** (1797-1833), **su-egur** (1708), **sutegi**? (1628).

T

tabako-baratza, **taberna** (1989), talaia (1889), **tango**?, **tantai** (1989), **tarte** (1547), **tartiku**? (***tartaka***-, 1920), **teila** (1951), teileria (1628), **toki** (1989), **tontor**, traba (1843), tranpa (1989), **trintxa** (1794-1831), **tronko**, tunel.

Tx

txabola (1870; 1833-1845?), txakur (1989), **txar**? (1797), **txara** (1797-1833), txatxu (1920), **txerritegi** (1797-1833), *txertadi* (1797-1833), **txerta**(**tu**) (1628), txilardi (1794-1831), tximini? (1989), **tximista** (1843), **txintxo**, **txipi** / **txiki** (1554 / 1743), **txokolate** (1931), txongo? (*txonko*-, 1739), txori.

Tz

-tzar? (1797-1833).

U

ugalde (1937), **ume** (1178), **unai**? (1683, 1554?), **ur** (1178), ***urataka***, ***urbitarte*** (1989), **urde** (1855-1857), **urdin** (1843), urka? (1584), urkamendi, **urki**, (1728), **urkidi** (1799), urre, ***ursalto*** (1768), usa-belar? (1625), usategi (1569).

X

xanpain (***txanpain***-) (1989).

Z

zabal (1732 / 1857), **zabaldegi**?, zabor? (1854), **zahar** (***zar***, 1554), zapi (1989), **zelai** (1739), *zentral*, **zepa** (1989), **zerrenda**, **zerri** (1989), zezen (1989), *zigin*- / *zigun*- ? (1529), **zilegi** (1743), **zilegimendi** (1989), **zingira**, **zoko** (1794-1831), zorbide (1797-1833), zorrotz? (1942), zorroztarri (1976), zubi? (1794-1831), zuhaizti (1906), zuhur (*xur*-, 1988), **zulo** (1178), zumadi (1797-1833), zumardi (1831-1845), zumizti (1794-1831), **zuri** / **txuri** (1868, 1427? / 1794-1831), zut(ik)? (1566), **zuzun**? (1932).

Aurreko izen arruntekin batera, pertsona-izen hauek aurkitu ditugu gurean:

Agustin, Andres (1989), **Anton**, **Antoni-**, Antselmo (1989), **Antso** (1794-1831), *Aper*?(*Aparr-*, 1178), Bartolo(me) (1843), *Bentura* (1831-1845), ***Dolore*** (1989), (*Don*) Fermin (1843), **Eloi** (1989), ***Errosario***, **Eugenio** (1989), ***Felipe*** (1989), **Felix** (1989), *Francesillo* (1569), **Jeronimo** (1936), ***Jose Ignazio*** (1983), Josepe?, Justo, Karlos, Klaudio (1989), **Lorentzo** (1989), Luis (1989), ***Manuel***, ***Manuelatxo***?, Maria (1776-1794), Mari(a)mikel(e)- (1928), **Martin** (1989), **Matias** (1989) Ma(r)ti(tx)-? (1942), Mikela (1739), **Modesto** (1989), ***Pantxika*** (1989), ***Patxiku***, *Pepe* (1920), (Poli)karpo, ***Santiago*** (1797), Teresa, *Txoaniko*, ***Xalbador*** (1989), Zakarias.

Hona hemen, amaitzeko, aztertu dugun toponimian agertzen diren deiturak:

Agirre (1857), **Aizpuru** (1739), **Arbelaitz**, Atxukarro, Belamendia, Egaña (1833-1845), **Eguzkitza** (1983), Elizalde (1843), Elola (1937), Etxabe (1932), **Gisasola**, Goñi (1989), **Idiakez** (1740), Igerategi (1900), Lasarte (1900), Lazkano (1691), **Legarreta**, Lertxundi, Lopez (1776-1794), Maiz (1847-1848), Matxinbarrena (1945) Mendikoa? (1962), Okendo (1797-1833), **Olaizola** (1773), Orkolaga (1857), Peururena (1983), Sein (1988), **Zabalo** (1595), Zabala? (1920), **Zelaieta** (1857), **Zendoia** (1989).

11. BIBLIOGRAFIA

11.1. Erabilitako bibliografia

Onomastikaren ingurukoa

AGIRRE, J. J., 1996, *Toponimia de la anteiglesia de Arrigorriaga*, egileak argitaratua, Bilbo.

AGUD, M., 1962 (1973), "Áreas toponímicas en el País Vasco", *ASJU* 7, 41-75. Lehenbiziko aldiz 1962an plazaratu zen, *VII International Congress of Onomastic Sciences*, Firenze, 53-63.

ALBAIGÉS, J. M., 1998, *Enciclopedia de los topónimos españoles*, Planeta, Bartzelona.

ÁLVAREZ, E., 2005, "La toponimia de Liébana", in *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica (Pamplona 2003)*, J. L. Ramírez Sádaba arg., Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 317-336.

ANDERSSON, L., 1963, "Le suffixe *-ain* (*-ein*) dans la toponymie pyrénéenne", *BRSVAP* 19, IV, 315-336.

— 1975, "Comentarios al artículo "Una clave para la Hidronimia Pirenica", *FLV* 19, 87-88.

APEZETXEA, P., 2007, "Etxalarko etxeak", *FLV* 104, 67-140.

APEZETXEA, P. & SALABERRI, P., 2009, *Etxalarko etxeen izenak*, Caja de Ahorros de Navarra - Etxalarko Udala, Iruñea.

ARANA, S., 1980 (1930), *Tratado Etimológico de los Apellidos Euskéricos*, in *Obras Completas de Sabino Arana*, Sendoa, Donostia, bigarren argitaraldia, lehen liburukia, 702-809. Aurrenekoz *Pizkundiak* karrikaratu zuen 1930. urtean, Bilbon.

ARANBERRI, F., 2002, *Ermua-Eitzaga leku-izenak: geure izanaren barrena*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 22, Bilbo.

ARANTZADI, T., 1905, *La flora forestal en la toponimia euskara*, Imprenta de la Provincia (Gipuzkoako Foru Aldundia), Donostia.

ARBIZU GABIRONDO, N., 1990, “Toponimia de Iturmendi”, *FLV* 56, 261-275.

ARIN DORRONSORO, J., 1928, “Toponimia del pueblo de Ataun”, *AEFOLK* 8, 55-153.

— 1929, “Ataun. Toponimia de carácter religioso”, *AEFOLK* 9, 27-60.

— 1970, “Contribución al estudio de la toponimia (Ataun)”, *BRSVAP* 26, II-III, 163-204.

ARRAITZA, E., 1986, “≪Ain≫-ez bukatzen diren euskal toponimoak”, *FLV* 48, 225-250.

ARTIAGOITIA, X., 2006, “Basque adjectives and the functional structure of the noun phrase”, in *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, J. A. Lakarra Andrinua & J. I. Hualde arg., *“Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegiaren Urtekaria* 40, I-II, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Bilbo, 107-131.

ARZAMENDI, J., 1985, *Términos Vascos en Documentos Medievales de los ss. XI-XVI*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

AZKUE, R.M., 1928, “El artículo y la epéntesis en la toponimia”, *Euskera* 9, III, 212-217.

BÄHR, G., 1931, “De toponimia vasca”, *RIEV* 22, 143-145.

BAÑALES, G. & GORROTXATEGI, M., 2007, *Toponimia Histórica de Barakaldo*, Ediciones de Librería San Antonio, Barakaldo.

BARANDIARAN, J. M., 1974 (1958), “Toponymes inspirés par la mythologie basque”, in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedi Vasca, seigarren liburukia, Bilbo, 221-227. Lehenbizikoz 1958an ikusi zuen argia, *V^e Congrés international de toponymie et d’antroponymie*, bigarren liburukia, 65-70.

— 1978d (1951), "Raports entre la toponymie et l'archéologie au Pays Basque", in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, hamairugarren liburukia, Bilbo. Estreinako argitalpena 1951koa da, *III Congrés International de Toponymie*, Louvania.

BARRENENGOA, F., 1988, *Onomástica de la Tierra de Ayala*, hiru liburuki, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

BARRIO, L. Del & TELLABIDE, J. & ZALDUA, L. M., 1989, *Urnieta Udalerriko Toponimia Bilketa*, Aranzadi Zientzia Elkartea & Urnietako Udala, lan argitarabea.

— 1989b, *Hernani Udalerriko Toponimia Bilketa*, Aranzadi Zientzia Elkartea & Hernaniko Udala, lan argitarabea.

— 1989c, *Lasarte-Oria Udalerriko Toponimia Bilketa*, Aranzadi Zientzia Elkartea & Lasarteko Udala, lan argitarabea.

BELASKO, M., 1996, *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*. *Apellidos Navarros*, Pamiela, Iruñea.

— 2000, *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*, Pamiela, Iruñea.

— 2004, "Una visión de la Ribera Navarra a través de su toponimia", in *Vascuence y Romance: Ebro-garona, un espacio de comunicación*, R. Jimeno Aranguren & J. K. López-Mugartza arg., Nafarroako Gobernua, Iruñea, 55-78.

BRIGHT, W., 2003, "What is a name? Reflections on Onomastics", *Language and linguistic* 4, IV, 669-681.

CAMPIÓN, A. eta beste, 1974 (1915), "Patronimia y toponimia vasca. A los vascos de buena voluntad", in *Euskalerriaren Alde*, La Gran Enciclopedia Vasca, bosgarren liburukia, Bilbo, 242-247. Lehenbizikoz 1915ean karrikaratua, *Euskalerriaren Alde* 14.

CARO BAROJA, J., 1990 (1945), *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Txertoa, Donostia. 1945ean ikusi zuen argia; Salamanca, Salamancako Unibertsitatea.

— 1981, *Sobre la toponimia del Pirineo aragonés*, Diputación Provincial, Institución «Fernando el Católico», Zaragoza.

— 1991, "Toponimia y ecología", in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia*. *Gasteiz, 1986ko apirila*. Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 4, Bilbo, 49-60.

COMMISSION DE TOPONYMIE DE QUÉBEC, 1986, *Methodologie des Inventaires Toponimiques*, Gouvernement du Québec, Québec.

CONCEPCIÓN, J., 1992, *Toponimia Lenense. Origen de algunos nombres en torno al Valle de Huerma*, Real Instituto de Estudios Asturianos, Oviedo. 1987an Oviedoko Unibetsitateko Filologia Fakultatean aurkezturiko doktorego tesia.

COROMINES, J., 1965, *Estudis de Toponimia Catalana*, Barcino, lehen liburukia, Bartzelona.

— 1970, *Estudis de Toponimia Catalana*, Barcino, bigarren liburukia, Bartzelona.

— 1972, "De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos", *FLV* 12, 299-319.

— 1972b, *Tópica Hispérica*, lehen liburukia, Madril.

— 1973, "Du nouveau sur la toponymie occitane", *Beiträge zur Namenforschung* 8, 193-308.

EIBARKO UDALA & EGO IBARRA BATZORDEA:, 1995, *Eibarko Hiri Toponimia*, Euskaltzaindia, "Onomasticon vasconiae" bilduma 13, Bilbo.

ELEIZALDE, L., 1916, *Indicaciones elementales sobre la formación y los usuales componentes de las voces toponímicas vascas*, Eusko Ikaskuntza, Bilbo.

— 1922, "Notas de toponomástica. La caída de vocales iniciales en las voces toponímicas vascas", *RIEV* 13, 439-444.

— 1922b, "Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas", *RIEV* 13-26 (1922.-1936. urteen artean) eta *BRSVAP* 19, 20 (1963. eta 1964. urteak).

ELORTEGI, A., 1992, *Pasaiako Toponimia*, Euskaltzaindia, "Onomasticon vasconiae" bilduma 8, Donostia.

ELOSEGI, J., 1972, "Aralar-mendi ta Aralar inguruko leku-izenak", *AEFOLK* 24, 103-215.

— 1974, "Lista Topo-Onomástica. Extraida y compuesta de la «Condaira de Iztueta»", *ASJU* 8, 81-113.

ELOSEGI ALDASORO, J. I. & GOIKOETXEA GAZPIO, I., 2006, *Tolosako leku izenak*, Tolosako Udala, Tolosa.

ENBEITA, K., 1974, "Urkabustaizko toki-izenak", *Euskera* 19, 230-233.

ERRAZTI IGARTUA, A., 2004, *Zaldutik Zaldibarrera Toponimian barrena*, Eusko Jaurlaritza & Bizkaiko Foru Aldundia & Zaldibarko Udala & BBK & Euskaltzaindia, "Onomasticon vasconiae" bilduma 24, Bilbo.

ERRIONDO, M., 1988, "Artikutza. Toponimia actual y antecedentes históricos", *FLV* 51, 119-141.

ETXEBERRIAL, F., 1988, "Goizuetako toponimia, Artikutzakoa ezik", *FLV* 51, 77-117

EUSKALTZAINDIA, 1979, *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.

— 1990, *Nafarroako Herri Izendegia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

— 1997, “Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak”, *Euskera* 42, 653-656.

— 2008, *III. Onomastika Jardunaldien agiriak: Lizarra, 1990ko iraila Actas III Jornadas de Onomástica: Estella, septiembre de 1990*, Euskaltzaindia, “Onomasticon Vasconiae” bilduma 7, Bilbo.

FÉNIÉ, B. & FÉNIÉ, J. J., 1992, *Toponymie gasconne*, Luçon, Editions Sud Ouest.

FURUNDARENA, J. J., 2002, *Hondarribiko Toponimia*, Euskaltzaindia, “Onomasticon vasconiae” bilduma 23, Bilbo.

GALÉ, P., 2004, "<<Lezamako toponimia>> lanaren gaineko ekarpen kritikoa”, *Euskera* 49, 709-724.

— 2007, “Toponimia ikerketak”, *FLV* 104, 161-172.

— 2008, “Toponimia ikerketen oinarri teorikoak”, *Euskera* 53, III, 601-612.

— 2008b, “*Bermeoko toponimia* lanaren azterketa kritikoa”, *Euskera* 53, III, 727-807.

GARATE, J., 1930, “Sufijos locativos”, *RIEV* 21, 442-448.

— 1930b, “Toponimia (Índice toponímico de Bilbao y proximidades)”, *AEFOLK* 10, 1-30.

— 1931, “Interpretación de la toponimia vasca”, *RIEV* 22, 588-601.

— 1974, “Una clave para la Hidronimia Pirenaica”, *FLV* 17, 211-240.

GARRO, B. M. “Otxolua”, 1956, “Nombres genéricos de río en la toponimia vasca”, *Euskera* 1, 89-98.

GAVEL, H. & LACOMBE, G., 1934, *Chronique de Toponymie: XII: Pays Basque*, Feret et Fils, Bordel. *Revue des Études Anciennes*-en separata (36, IV, Urria-Abendua).

GENDRON, S., 2006, *La toponymie de voies romaines et médiévales. Les mots des routes anciennes*, Editions Errance, Paris.

GOIKOETXEA, I. & LEKUONA, I., 2007, *Oiartzungo toponimia – Toponimia de Oiartzun*, Oiartzungo Udala, “Mugarri” bilduma 14, Oiartzun.

GONZÁLEZ DE DURANA, J., 1981, “Toponimia pre-latina y latina en la provincia de Vizcaya”, *AEFOLK* 30, 99-109.

GONZÁLEZ SALAZAR, J.A., 1972, “Vida de relación y toponimia. Bajauri-Obécuri-Urturi”, *AEFOLK* 24, 9-24.

— 1985, *Toponimia menor de Treviño*, Arabako Foru Aldundia, "Cuadernos de Toponimia" bilduma 1, Gasteiz.

— 1986, *Toponimia menor de la Montaña Alavesa*, Arabako Foru Aldundia, "Cuadernos de Toponimia" bilduma 2, Gasteiz.

— 1986, *Toponimia menor de la Rioja Alavesa*, Arabako Foru Aldundia, "Cuadernos de Toponimia" bilduma 3, Gasteiz.

— 1987, *Toponimia menor de Salvatierra*, Arabako Foru Aldundia, "Cuadernos de Toponimia" bilduma 4, Gasteiz.

— 1988, *Toponimia menor de Vitoria-Gasteiz*, Arabako Foru Aldundia, "Cuadernos de Toponimia" bilduma 5, Gasteiz.

— 1989, *Toponimia menor de Añana*, Arabako Foru Aldundia, "Cuadernos de Toponimia" bilduma 6, Gasteiz.

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, R., 2007, "El entorno de la Puebla de Arganzón: notas históricas y lingüísticas", *Euskera* 52, III, 1143-1156.

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, R. & URIBARRENA, P., 2005, "Toponimia histórica de Sáseta (Condado de Treviño) I", *FLV* 98, 145-191.

— 2005b, "Toponimia histórica de Sáseta (Condado de Treviño) II", *FLV* 99, 365-410.

GORROTXATEGI NIETO, M., 2003, "Normativización, oficialización y normalización de la toponimia en Euskal Herria", *Euskera* 48, 627-631.

— 2007, "Camino 'bide' en la toponimia vasca", *FLV* 104, 141-160.

— 2008, "Toponimia ikerketak: prozedura eta urratsak", *Euskera* 53, III, 663-693.

GORROTXATEGI NIETO, M. & SALABERRI, P., 1999, "Hiri izendegia: irizpideak eta erabiltzeko arauak (I)", *Euskera* 44, 583-588.

— 2000, "Toponimia txikia arautzeko irizpideak", *Euskera* 45, 273-314.

— 2001, *Euskal Izendegia (Ponte Izendegia)*. Eusko Jaurlaritza & Euskaltzaindia, Bilbo.

GORROTXATEGI NIETO, M. & SUSO OTXOA DE ERIBE, S., 2004, *Getxoko leku izenak*, Getxoko Udala, Getxo.

GORROTXATEGI TXURRUKA, J., 1984, *Onomástica Indígena de Aquitania*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

— 1995b, "Basque names", in *Namenforschung. Name Studies. Les noms propres. Ein internationales Handbuch zur Onomastik. An International Handbook of*

Onomastics. Manuel international d'onomastique, E. Eichler & G. Hilty & H. Löffler & H. Steger & L. Zgustak paratu argitaraldia, Berlin - New York, Walter de Gruyter, lehen liburukia, 747-756.

— 2006, "Onomástica vascónica y aquitana: elementos para el conocimiento de la historia antigua de navarra", in *Navarra en la Antigüedad. Propuesta de Actualización*, J. Andreu, arg., Nafarroako Gobernua, Iruñea, 111-134.

GROSCLAUDE, M., 1991, *Dictionnaire Toponymique des Comunes du Bearn*, Escóla Gaston Febus, Paue.

HUBSCHMID, J., 1960, "Toponimia prerromana", in *Enciclopedia Lingüística Hispánica*, M. Alvar et al. zuzendari, lehen liburukia, 447-493.

HUDON, H., 1986, *Metodología de Inventarios Toponímicos*, Commission de Toponymie, Quebec.

IGLESIAS, H., 1997, "Le toponyme Chiberta", *Bulletin du Musée Basque* 147, 43-64.

— 1998, "Sur quelques similitudes toponymiques galaïco-basques et le problème que posent certaines d'entre elles", *Lapurdum* 3, 1-28.

— 2000, *Noms de lieux et de personnes à Bayonne, Anglet et Biarritz au XVIII^e siècle*, Elkarlanean, Donostia.

— 2000b, "Miscellanées basco-ibériques", *Lapurdum* 5, 167-177.

IÑIGO, A., 1996, *Toponomástica del Valle de Santesteban de Lerín*, Nafarroako Gobernua, Lizarra.

— 2008, "Bera izenaz txosten osagarria", *Euskera* 53, I, 75-80.

— 2008b, "Euskaltzaindia eta onomastika", *Euskera* 53, III, 613-632.

IÑIGO, A. & GALÉ, P., 2005, "Euskal corpus onomastikoa", *Euskera* 50, I, 49-105.

IRIGARAI, J., 1975-1982, "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra", *FLV* 21-32, 35-36 eta 39.

IRIGOIEN, A., 1975, *La Colegiata de Cenarruza y sus seles*, RSVAP & Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo. *II Simposio sobre Historia del Señorio de Vizcaya*, separata.

— 1984, *La lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones medievales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz. 1983. urtean aurkezturiko doktorego tesiaren laburpena.

— 1986, *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

— 1987, *De Re Philologica Linguae Uasconicae II*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

— 1990, *De Re Philologica Linguae Uasconicae III*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

— 1990b, *Sobre Toponimia del País Vasco Norpirenaico (observaciones en torno a la obra* Topnymie basque *de Jean-Baptiste Orpustan)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

— 1992, *De Re Philologica Linguae Uasconicae IV*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

— 1994, *Studia Anthroponymica et Toponymica*, autoreak argitaratua, Bilbo.

— 1995, *De Re Philologica Linguae Uasconicae V*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

IZAGIRRE, R., 1951, "Historia y toponimia donostiarras. El primer grupo de documentos referentes a San Sebastián de Hernani", in *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra. Estudios Relativos al País Vasco*, *BRSVAP* aldizkariaren zenbaki berezia, hirugarren liburukia, Donostia, 335-406.

JAURGAIN, J., 1912, “Toponymie basque”, *RIEV* 6, 161-171.

— 1913, “Toponymie basque”, *RIEV* 7, 261-273 eta 398-418

— 1914-1917, “Toponymie basque”, *RIEV* 8, 51-52 eta 267-281.

JIMENO ARANGUREN, R., 2005, “La organización crisitiana del espacio a la luz de la hagiotoponimia : el valle de Larraun”, in *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica (Pamplona 2003)*, J. L. Ramírez Sádaba arg., Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 53-367.

JIMENO ARANGUREN R. & LÓPEZ-MUGARTZA, J. K. (arg.), 2004, *Vascuence y Romance: Ebro-garona, un espacio de comunicación*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

JIMENO JURIO, J. M., 1969, “El euskera en la toponimia de Artajona”, *FLV* 3, 371-385.

— 1981, “Cendea de Olza. Toponimia. I, Asiain, Lizasoain, Olza”, *FLV* 38, 175-219.

— 1986, “Topónimos navarros con sufijo -ain”, *FLV* 48, 251-281.

— 1986b, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Euskaltzaindia, “Onomasticon Vasconiae” bilduma 1, Iruñea.

— 1987, “Presentación del borrador de ≪Guía para la recogida toponímica del País Vasco≫”, *Euskera* 32, II, 429-442.

— 1987b, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 2, Iruñea.

— 1989, "Arrizabalaga (Campanas) eta Artederreta (Carrascal)", *FLV* 53, 75-78.

— 1989b, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 3, Iruñea.

— 1990, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 6, Iruñea.

— 1991, "Recogida de toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra", in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 4, Bilbo.

— 1992, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoain*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 9, Iruñea.

— 2004, *Estudios de toponimia navarra*, Iruñea, Pamiela & Noticias de Navarra.

— 2006 (1987), *Toponimia navarra IX. Tafalla*, Pamiela, "Obras completas" bilduma 48, Iruñea.

JIMENO JURIO, J. M. (zuzendari), 1991, *Nafarroa: Toponimia eta Mapagintza*, Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoak. Bigarren argitaraldia, Iruñea.

JIMENO JURIO, J. M. (zuzendari), 1992, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*, Berrogeita hemeretzi liburuki, Nafarroako Gobernua, Iruñea. 1992az geroztik.

JIMENO JURIO, J. M. & SALABERRI, P., 1992, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, Iruñea, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 12. *Toponimia navarra VIII. Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, "Obras Completas" bilduma 47, Udalbide & Pamiela & Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea, 2006.

— 1998, *Artaxoa. Euskal Toponimia*, Altaffaylla Kultur Taldea & Nafarroako Gobernua & Sociedad de Corralizas y Electra de Artajona, Tafalla.

KNÖRR, E., 1991, "Sobre la recogida y el estudio de la toponimia en Álava: pasado y presente", in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 4, Bilbo, 65- 92.

KNÖRR, E. & GORROTXATEGI, M. (arg.), 2000, *II. Onomastika Jardunaldien agiriak: Urduña, 1987ko iraila - Actas de las II Jornadas de Onomástica:*

Orduña, septiembre de 1987, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 17, Bilbo.

KNÖRR, E. & MARTÍNEZ DE MADINA, E., 2009, *Toponimia de Vitoria - Gasteizko toponimia*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 27-28, Bilbo.

LAKARRA DE MIGEL, J. M., 1930, "Onomástica vasca del siglo XIII. ", *RIEV* 21, 247-254.

— 1949, "Tres documentos del siglo XII referentes a Guipúzcoa", *BRSVAP* 5, I, 421-425.

LAPUENTE, L., 1975, "Toponimia Amescoana", *FLV* 21, 393-410.

LEGARDA, A., 1976, "Uterga, en su catastro de 1854", *FLV* 24, 419-438.

LETONA ARRIETA, J., 1979, "Etnografía de Garagarza", *AEFOLK* 28, 9-64.

— 1980, "Catálogo con situación, de fuentes del término municipal de Mondargón", *AEFOLK* 29, 5-35.

LIBANO, A., 1995, *Toponimia Medieval en el País Vasco*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 14. *A* hizkia, Bilbo.

— 1996, *Toponimia Medieval en el País Vasco*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 16, Bilbo. *B-G* hizkiak.

— 1999, *Toponimia Medieval en el País Vasco*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 20, Bilbo. *P-Z* hizkiak.

LIZUNDIA, J. L., 1989, "Elduain-Elduayen ", *Euskera* 34, 325-326.

— 1991, "Euskal Komunitate Autónomo eta Nafarroan toponimoen ofizialtasun eta seinaleztapenaz legeria eta beronen aplikazioa", in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 4, Bilbo, 223-334.

— 2008, "Legedia, eskumen eta administrazio prozedurak", *Euskera* 53, III, 655-662.

LIZUNDIA, J. L. & KNÖRR, E., 1976, "Herri eta herritarren izendegia", *Euskera* 21, 287-315.

LOPEZ DE GEREÑU, G, 1989, *Toponimia alavesa seguido de mortuorios y pueblos alaveses*, Euskaltzaindia, "Onomasticon vasconiae" bilduma 5, Bilbo.

LOPEZ-MUGARTZA, J. C., 2007, "Erronkari era Ansoko toponimiaz zenbait ohar", *FLV* 105, 219-270.

— 2008, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Nafarroako Gobernua – Euskaltzaindia, "Mendaur" bilduma 5, Iruñea.

LUCHAIRE, A, 1881, "Sur les noms propes basques contenus dans quelques documents pyrénéens des XI^{e}, XII^{e} et XIII^{e} siècles", *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée* 14, 150-171.

— 1973 (1879), *Études sur les idiomes pyrénéens de la région française*, Paris. Facsimile erako argitalpena, Slatkine reprints, Geneva.

MELERO, M. & MUXIKA, M., 1994, "Propuesta para un análisis morfológico y léxico de la toponimia vasca", *FLV* 67, 439-449.

MENÉNDEZ PIDAL, R., 1952, *Toponimia Prerrománica Hispánica*, Gredos, "Biblioteca Románica Hispánica (Estudios y Ensayos)" bilduma 9, Madril.

MITXELENA, K.:, 1953, *Apellidos Vascos*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia. Txertoak 1989an Donostian egindako laugarren argitalpena ere erabili dugu.

— 1954, "De onomástica aquitana", *Pirineos* 10, 409-455.

— 1971, "Toponimia, léxico y gramática", *FLV* 3, 241-267.

— 1991, "Hitz eta izenen jatorriaz", in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 4, Bilbo, 25-34.

MORVAN, M., 1996, "Le racine toponymique pré-celtique *BAR", *Lapurdum* 1, 11-20

— 2004, *Noms de lieux du Pays Basque et de Gascogne*, Paris, Editions Bonneton.

MUGURUZA, F., 2008, "Toponimia gizarteratzeko bideak. Erabilera administrazioetan", *Euskera* 53, III, 633-654.

MUÑAGORRI, M. A., 1991, "Euskal Autonomia-Elkarteko 1:25.000 eskalako maparen toponimia-antolaketa", in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 4, Bilbo, 335-341.

MUXIKA FRANCO DE MEDINACELI, M., 1996, "Notas de fonética histórica y toponimia.1. Sobre cronología de los cambios fonéticos", *ASJU* 30, I, 219-238.

MUXIKA URDANGARIN, L.M., 1987, "Errenteriako toponimoak (Materiale zenbait eta oharrak)", *Bilduma* 1, 145-191.

— 1988, "Longida-ko toponimoak", *CEEN* 51, 115-164.

MUXIKA ULAZIA, N., 1989, "Toponimiaren erabilera praktikoaz", *Jakin* 55, 133-144.

ORMAETXEA, J. L., 1996, *Arrasateko toponimia*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 15, Bilbo.

ORPUSTAN, J. B., 1987, "Lexique et suffixes dans la toponymie basque d'habitat (Domaines ruraux et maisons) du moyen age en labourd Basse-Navarre et Soule", *Euskera* 32: II, 443

— 1990, *Toponymie Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele.

— 1991, "Arteko kontsonante bat", in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 4, Bilbo, 307-318.

— 1996, "La toponymie basque de Bayone, *Lapurdum* 1, 25-36.

— 2000, "Anthroponomastique médiévale en Pays basque: Prénoms et surnoms en Basse-Navarre et Soule au début du XIV^{e} siècle (1305-1350)", *Lapurdum* 5, 183-222.

PASTOR, V., 1989, "Toponimia menor de Los Arcos", *FLV* 54, 193-241.

PAVO, K., 2005, *Antzuolako Toponimia*, Antzuolako Udala & Euskaltzaindia, "Onomasticon vasconiae" bilduma 25, Bilbo.

PEILLEN, TX., 1991, "Andoze ibarreko leku izen nagusiak eta xeheak", *FLV* 57, 89-105.

PETERSON, D., 2005, "La onomástica personal en el valle de San Vicente (Burgos) en la Alta Edad Media", in *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica (Pamplona 2003)*, J. L. Ramírez Sádaba arg., Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 219-228.

PLONÉIS, J.M., 1989, *La Toponymie Celtique*, Édition du Félin, Paris.

RAMÍREZ, J. L. (arg.), 2005, *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica (Pamplona 2003)*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.

RAVIER, X., 1963, "Le suffixe toponymique pyréneen: *-un*", *Via Domitia*, (1963), 57-63.

— 1991, "Sur la phénoménologie du nom de lieu", in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia*. *Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia. "Onomasticon Vasconiae" bilduma 4, Bilbo, 281-289.

ROHLFS, G., 1952, “Le suffixe préroman -UE, -UY dans la toponimie aragonaise et catalane”, Zaragoza, Institución "Fernando el Católico", 129-152.

— 1952b, “Sur une couche preromane dans la toponymie de Gascogne et de l’Espagne du Nord”, *Revista de Filología Española* 36, 209-256.

SAGARDOY, P., 2005, “Revisión y nuevo inventario de la toponimia de Bizkaia (2001-2003)”, in *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica (Pamplona 2003)*, J. L. Ramírez Sádaba arg., Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 229-244.

SAINZ ALBERO, M. I. & SAINZ PEZONAGA, J., 2002, *Toponomástica histórica en Tierraestella y Valdizarbe*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea.

SALABERRI, P., 1989, “Nafarroan erabiltzen diren zenbait toki-izenez”, *FLV* 53, 55-59.

— 1990, “Izen geografikoen inguruan”, *FLV* 55, 65-71.

— 1991, “Do.i atzizkiaren ondorengoak Nafarroan”, *FLV* 57, 33-53.

— 1992, “Toponimia, dialektologiaren ikerbide”, in *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*, Euskaltzaindia, “Iker” bilduma 7, Bilbo.

— 1993, “Nafarroako zenbait ibar, herri eta auzoren euskarazko izenak”, *Euskera* 38, 329-346.

— 1994, *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez*, Euskaltzaindia, "Onomasticon Vasconiae" bilduma 11, Bilbo.

— 1997b, “Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)”, *FLV* 74, 7-39.

— 1999, “*Santu*, *San*, *Done* eta ingurukoak”, *Euskera* 44, 1169-1175.

— 1999b, “Toponimia nagusia normalizatzeko irizpideak mintzagai”, *Huarte de San Juan. Filologia eta hizkuntzaren didaktika*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.

— 1999c, “Toponimia nagusia normalizatzeko irizpideak mintzagai”, Bilbo, 1999-IV-04”, *Euskera* 44, II, 921-930.

— 2000, “Acerca del sufijo toponímico -*ain*”, *FLV* 83, 113-137.

— 2003, *Euskal Deiturategia: Patronimia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

— 2003b, “On hypocoristic formation in Basque”, *FLV* 93, 329-336.

— 2004b, *Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

— 2004c, “Toponimia, Estellerriko euskararen argigarri”, *Euskera* 49, 1127-1136.

— 2005,“Origen y significado de la toponimia de Navarra”, in *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica (Pamplona 2003)*, J. L. Ramírez Sádaba arg., Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 91-128.

— 2005b, “Los trabajos de onomástica en *Fontes Linguae Vasconum*”, *FLV* 100, 607-632.

— 2005c, “Garaziko herri baten izenaz: *Ainhize* vs. *Ainhiza*”, *Euskera* 50, 847-849.

— 2005d, “Ohar batzuk *Deio* izenaren gainean”, *Euskera* 50, 851-855.

— 2006, “Nafarroako euskal oikonimiaz”, in *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, J. A. Lakarra Andrinua & J. I. Hualde arg., *“Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegiaren Urtekaria* 40, I-II, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Bilbo, 871-893.

— 2007, “Sobre algunas etimologías vascas en la obra de Coromines”, in *Studia in Honorem Joan Coromines*, Pagés, Lleida.

— 2007b, “Hondarribia / Fuenterrabía. Toponimo(ar)en gainean”, *Euskera* 52, I, 387-390.

— 2007c, “Nafarroako herri izenen bukaerako txistukaria eta toponimoen arautzea”, *Euskera* 52, I, 391-394.

— 2007d, “En torno a la forma vasca del topónimo mayor Larraona, (Ameskoa)”, *Euskera* 52, I, 395- 401.

— 2007e, “Acerca del nombre eusquérico de Lumbier”, *Euskera* 52, III, 1167-1172.

— 2007f, “Ohar batzuk <<Urgull, Urkullu, Urkulu, Urkillo, Urkilla>> leku izenen inguruan”, *FLV* 106, 475-482.

— 2008, “*Satznamen* direlakoen inguruan. Erlatibozko perpausetan jatorri duten toponimoak aztergai”, ”, in *Gramática jaietan. Patxi Goenagaren omenez*, Artiagaoitia, X. & Lakarra Andrinua, J. A. arg., *“Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegiaren Urtekaria* 40, I-II, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Bilbo, 725-742.

— 2008b, “Sobre el topónimo mayor *Zúñiga*”, *Euskera* 53, III, 715-720.

— 2008c, “En torno al origen y denominación vasca de *Juslapeña*”, *Euskera* 53, III, 721-726.

— 2009, *Izen ttipiak euskaraz*, Euskaltzaindia, “Onomasticon Vasconiae” bilduma 26, Bilbo.

SALABERRI, P. & EUSKALTZAINDIA, 1997, “Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak”, *Euskera* 42, III, 653-666.

SAN MARTIN, J., 1974, “*Usa* leku-izena eta beronen esanahia”, *Euskera* 19, 267-275.

— 1991, “Introducción a la toponomástica guipuzcoana. Gipuzkoar toponomastikarako sarrera”, in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia*. *Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, “Onomasticon Vasconiae” bilduma 4, Bilbo, 249-277.

— 2000, *Eibar eta Elgetako toponomastika - Toponomástica de Eibar y Elgeta*, Euskaltzaindia, “Onomasticon Vasconiae” bilduma 21, Bilbo.

SÁNCHEZ, M. N., 1985, *El Habla y la Toponimia de La Puebla de Arganzón y el Condado de Treviño*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

SATRUSTEGI, J. M., 1966, “Las casas de Valcarlos”, *AEFOLK* 21, 13-34.

— 1970, “Notas al libro de cuentas de Valcarlos”, *FLV* 4, 95-134.

— 1970b, “Toponimia de Valcarlos”, *AEFOLK* 23, 129-158.

— 1996, “Goizuetako udal ordenantzak”, *FLV* 72, 297-315.

— 1990, “Planteamiento general de la etnografía de Urbasa”, in *Los grupos humanos en la prehistoria de Encía-Urbasa*, ZZ. AA., Eusko Ikaskuntza, Donostia, 55-70.

SÉGUY, J., 1949, “Le suffixe toponymique *-os* en Aquitaine”, in *Mémoires du Troisième Congrès International de Toponymie*, bigarren liburukia, Brusela, 218-222.

— 1950, “Toponymes du versant nord des Pyrénées d'origine botanique”, in *I Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos*, Zaragoza.

SEGUROLA, I., 1987, “Notas de toponimia Amescoana”, *ASJU* 21, I, 265-275.

TELLABIDE, J., 1995, *Donostiako Toponimi Erregistroa*, Donostiako Udala. 1989. urtean Aranzadi Zientzia Elkarteko L. del Barriorekin egindako *Donostia udalerriko toponimia bilketa* lanaren argitalpen osatua.

TERRADO, J, 1999, *Metodología de la Investigación en Toponimia*, autoreak karrikaratua, Zaragoza.

— 2005, “Interpretaciones de la historia de Cataluña a la luz de la ciencia onomástica”, in *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica (Pamplona 2003)*, J. L. Ramírez Sádaba arg., Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 129-148.

TRAPERO, M., 1995, *Para una Teoría Lingüística de la Toponimia. Estudios de Toponimia Canaria*, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Las Palmas de Gran Canaria, “Monografías” bilduma, *Lingüística y Filología* saila 3.

UGARTE, J. L., 1998, *Urretxu eta Zumarragako Toponimia*, Euskaltzaindia, “Onomasticon Vasconiae” bilduma 18, Bilbo.

— 2004, “Monumentu megalitikoak eta toponimia”, *Munibe* 56, 105-111.

UHLENBECK, C. C.:, 1909, “Suffixes de Basque servant à la Derivation des Mots”, *RIEV* 3, 1-16.

URANGA, J. J., 1983, “Notas sobre topónimos navarros medievales”, *CEEN* 41-42, 39-96.

URTASUN, B., 1971, “Toponimia de Oroz-Betelu”, *FLV* 9, 333-347.

USABIAGA, A., 1990, “Andoaingo Toponimiaz”, *Leizaur* 1, 175-215.

— 1993, *Andoaingo Toponimia*, Euskaltzaindia. “Onomasticon Vasconiae” bilduma 10, Bilbo.

VIEJO, X., 1992, *Entamos D’Onomástica Asturiana*, Serviciu de Publicaciones del Principáu d’Asturies, “Documentos” bilduma 8, Oviedo.

VINSON, J.:, 1909, “Importance des noms topographiques, lieux-dits, etc., pour l'étude de la langue basque”, *RIEV* 3, 349-356.

— 1912, “Toponymie basque”, *RIEV* 6, 405-411.

WHYNNE-HAMMOND, C., 1992, *Tracing the History of Place Names*, Berkshire Countryside books.

ZIERBIDE, R., 1976, “Toponimia del Becerro antiguo de Leire (siglos XII-XIII)”, *FLV* 23, 237-283.

— 1977, “Índice completo de los topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leire-II”, *FLV* 25, 117-152.

— 1977b, “Índice completo de los topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leire-III”, *FLV* 26, 281-310.

— 1980, “Toponimia navarra: historia y lengua”, *FLV* 34, 87-105.

— 1981, “Consideraciones en torno a la toponimia de Roncesvalles”, *ASJU* 15, 273-287.

— 1991, “Notas de toponimia comparada”, in *Actas de las I jornadas de onomástica, toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, “Onomasticon Vasconiae” bilduma 4, Bilbo, 109-148.

— 1996, “Leire: onomástica del becerro antiguo. Consideraciones”, *FLV* 71, 119-133.

ZIERBIDE, R. & HERRERO, GR., 1985, “Toponimia de la comarca de la Oliva (I)”, *CEEN* 46, 5-86.

— 1986, “Toponimia de la comarca de la Oliva (II)”, *CEEN* 47, 91-164.

ZZ. AA., 1990, *Los grupos humanos en la prehistoria de Encía-Urbasa*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Euskararen ingurukoa

AGUD, M. & TOVAR, A., 1989, *Diccionario Etimológico Vasco*. “Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegiaren Urtekariaren gehigarriak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. 1989az geroztik.

AZKARATE, M., 1990, *Hitz Elkartuak Euskaraz*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

AZKUE, R.M., 1923, *Morfología Vasca*, in *Euskera* 4, I-IV. 1982 urteko facsimile erako berrargitalpena erabili dugu lanerako; Euskaltzaindia & Sendoa, Bilbo.

— 1984 (1905), *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Euskaltzaindia, Bilbo. Lehenengoz 1905. urtean atera zen.

BOZAS URRUTIA, R. C., 1963-64, "Contribución al diccionario vasco (Palabras de Arano)", *Euskera* 8-9, 213-221.

CAMINO, I., 1997, *Aezkoako Euskararen Azterketa Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Iruñea.

— 2000, “Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko”, in Zuazo, K. (arg.), *Dialektologia gaiak*, Euskal Herriko Unibertsitatea & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 53-82.

— 2003, “Hego-nafarrerararen egituraz”, *FLV* 94, 427-468.

— 2004, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

— 2004b, “Nafarroa behereko euskara”, *FLV* 97, 445-486.

— 2005, “Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna”, *FLV* 99, 265-286.

— 2006, “Irañeta eta Arakilgo mintzoaren gurpilean”, *FLV* 2006, 55-68.

CARRIÓN, I., 1985, "Una carta de 1726 escrita en euskera procedente del Archivo Municipal de Hernani", *BRSVAP* 41, I-II, 372-374.

COROMINES, J., 1976 (1954), *Diccionario Crítico Etimológico de la Lengua Castellana*, lau liburuki, Gredos, Madril.

ELHUYAR, 1994, *Euskal Hiztegi Modernoa*, Elkar, Donostia.

ETXAIDE, A., 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, Bilbo, Euskaltzaindia, “Iker” bilduma 3.

ETXEBARRIA, J. M., 1995, *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*, Labayru Ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo.

EUSKALTZAINDIA, 1993, *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.

GAMINDE, I., 1996, “Azentu bariazioa Gipuzkoan”, *FLV* 73, 361-385.

GORROTXATEGI, J., 1995, “Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas”, *Veleia* 12, 181-234.

— 2002, “Las lenguas de los Pirineos en la antigüedad”, in *Els substrats de la llengua catlana: una visió actual*, Societat Catalana de Llengua i Literatura, “Treballs de la Societat Catalana de Llengua i Literatura” bilduma 1, Bartzelona, 75-102.

— 2004, “Las raices lingüísticas de Navarra”, in *Vascuence y Romance: Ebro-garona, un espacio de comunicación*, R. Jimeno Aranguren & J. K. López-Mugartza arg., Nafarroako Gobernua, Iruñea, 105-122.

GORROTXATEGI, J. & LAKARRA, J. A., 1995, “Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco”, in *La Hispania Prerromana*, F. Villar & J. d’Encarnaçaok prestatu argitalpena, Salamancako Unibertsitatea, 101-145.

— 2001, “Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco”, in *Religión, Lengua y Cultura prerromanas de Hispania*, Salamancako Unibertsitatea, 407-438.

IGARTUA, I., 2006, “Del origen de la aspiración como elemento morfofonológico en vasco”, in *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, J. A. Lakarra Andrinua & J. I. Hualde arg., *“Julio Urkixo” Euskal*

Filologia Mintegiaren Urtekaria 40, I-II, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Bilbo, 519-529.

IRIZAR, P., 1984, *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*, bi liburuki, Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia.

KAMINO, P. & SALABERRI, P., 2007, *Luzaideko Euskararen Hiztegia*, Nafarroako Gobernua – Euskaltzaindia, "Mendaur" bilduma 3, Iruñea.

LAKARRA DE MIGEL, J. M., 1957, *Vasconia medieval. Historia y filología*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

— 1965, *Colección diplomática de Irache*, Instituto de Estudios Pirenaicos, lehenbiziko liburukia (958-1222), Zaragoza.

LAKARRA ANDRINUA J. A., 2006, "Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco", in *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, J. A. Lakarra Andrinua & J. I. Hualde arg., *"Julio Urkixo" Euskal Filologia Mintegiaren Urtekaria* 40, I-II, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Bilbo, 561-621.

— 2008, "Aitzin euskara", Euskaltzaindiaren 16. Biltzarrean (*Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*) irakurritako txostena, Iruñea.

LAKARRA ANDRINUA, J. A. & HUALDE, J. I. (arg.), 2006, *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, "Julio Urkixo" Euskal Filologia Mintegiaren Urtekaria 40, I-II, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Bilbo.

LAKOIZKETA, J. M., 1994 (1888), *Diccionario de los Nombres Eúskaros de las Plantas*, Nafarroako Gobernua, facsimile erako argitalpena, Iruñea.

LHANDE, P., 1926, *Dictionaire Basque-Français*, Gabriel Beauchense, Paris.

MANTEROLA, J., 2006, "-a euskal artikulu definituaren gainean zenbait ohar", in *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, J. A. Lakarra Andrinua & J. I. Hualde arg., *"Julio Urkixo" Euskal Filologia Mintegiaren Urtekaria* 40, I-II, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Bilbo, 651-675.

MARTÍNEZ, M., 2006, “Adjektiboa aitzin-euskaraz”, in *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, J. A. Lakarra Andrinua & J. I. Hualde arg., “Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegiaren Urtekaria 40, I-II, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Bilbo, 687-721.

MITXELENA, K., 1950) “En torno a algunos aspectos del habla de Rentería (Guipúzcoa)”, *BRSVAP* 6, 89-94.

— 1957, “Las antiguas consonantes vascas”, in *Miscelanea Homenaje a André Martinet*, Catalán D., lehen liburukia, La laguna, 113-157.

— 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madril.

— 1964b, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, “Auñamendi” bilduma, Donostia.

— 1969, “Notas lingüísticas a ≪Colección Diplomática de Irache≫”, *FLV* 1, 1-59.

— 1977, *La lengua vasca*, Leopoldo Zugaza, Durango.

— 1981, “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* 15, 291-313.

— 1985 (1961), *Fonética Histórica Vasca*, “Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, hirugarren argitaraldia, Donostia. 1960ean ikusi zuen argia aurreneko aldiz.

— 1985c, *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madril.

— 1987, *Palabras y Textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

— 1987b, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Desclée De Brouwer & Mensajero, Bilbo, 1987-2005.

MOLINER, M., 1994, *Diccionario de Uso del Español*, Gredos, Madril.

MURUGARREN, L., 1972, "Un testimonio en Euskera (Hernani 1777)", *BRSVAP* 28, II-III, 378-380.

MUXIKA BERRONDO, P., 1907, “Observaciones sobre la ley de afinidad de las vocales en los sub-dialectos septentrional y meridional de Guipúzcoa”, *RIEV* 1, 56-58.

— 1981, *Diccionario Vasco-Castellano*, Mensajero, Bilbo.

MUXIKA URDANGARIN, L. M., 1982, *Latina eta Erromanikoaren Eragina Euskaran. Euskal lexikoaren azterketa bideetan*, Sendoa, Donostia.

OLANO, M., 1998, *Areso eta Leitzako hizkerak*, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, Iruñea.

OÑEDERRA, M. L., 1990, *Euskal Fonologia: Palatalizazioa*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Leioa.

— 2004, *Fonetika fonologia hitzez hitz*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Leioa.

ORMAETXEA, J. L., 2006, *Aramaioko Euskara (Azterketa Dialektologikoa)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

— 2006b, "Aramaioko hizkera", *FLV* 101, 5-42.

PERURENA, P., 1995, *Zurian Zurika*, Elkar, Donostia.

— 1996, "Bordariak ez dira hain aspaldikoak", apirilaren hamabiko *El Diario Vasco* egunkarian argitaratua.

— 2007, *Dakiguna ikasten*, Alberdania, Irun.

RIJK, R. de, 1981, "Euskal morfologiaren zenbait gorabehera", in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko argitalpenak, Bilbo, 83-101.

RUIZ DE URRESTARAZU, M. M., 2008, "*Acer* espezieen euskal izenak", *Euskera* 53, II, 397-404.

— 2008b, "*Quercus* espezieen euskal izenak", *Euskera* 53, II, 405-410.

SAINZ, J., 2004, "Léxico euskérico residual en el habla de Navarra", in *Vascuence y Romance: Ebro-garona, un espacio de comunicación*, R. Jimeno Aranguren & J. K. López-Mugartza arg., Nafarroako Gobernua, Iruñea.

SALABERRI, P., 1998, "Arabako mugako nafar euskaraz", in *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, I. Camino arg., Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

— 2004) "Sobre la frontera lingüística vasco-romance en la zona de Ujué", in *Vascuence y Romance: Ebro-garona, un espacio de comunicación*, R. Jimeno Aranguren & J. K. Lopez-Mugartza arg., Nafarroako Gobernua, Iruñea, 95-104.

SARASOLA, I., 1996, *Euskal Hiztegia*, Kutxa Fundazioa, Donostia.

ZIERBIDE, R., 2005, "El nombre de los navarros", in *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica (Pamplona 2003)*, J. L. Ramírez Sádaba arg., Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 15-33.

ZUAZO, K., 1997, “Oiartzungo hizkeraren kokagunea”, *FLV* 76, 397-425.

— 1998, “Nafarroako euskal hizkerak”, in *Nafarroako hizkerak*, I. Camino arg., Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo. Iruñean, 1997an ospatutako Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako agiriak biltzen ditu.

— 1998b, “Euskalkiak gaur”, *FL V* 78, 191-233.

— 2003, *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

— 2008, *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*, Elkar, Donostia.

ZUBIRI, J. J., & PERURENA, P., 1998, *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Iruñea.

Historiaren eta etnografiaren ingurukoa (batez ere)

AGIRRE, A., 1988, *Tratado de Molinología*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

— 1992) "Ermitas de Hernani", *Hernani* 1, 12-14.

AIERBE, M. R., 1982, "Ordenanzas Municipales de Hernani", *BRSVAP* 38, 257-282.

— 1986-87, "Sobre el hábitat pastoril y la pasturación de ganado en el valle del Urumea (Guipúzcoa)", *Acta historica et archaeologica mediaevalia* 7-8, 311-320.

— 1995, *Documentación medieval del Archivo Municipal de Legazpia (1290-1495)*, Eusko Ikaskuntza, “Fuentes documentales medievales del País Vasco” bilduma 60, Donostia.

ALBERDI, M. A., 1978, “Etnografía de Gorocica”, *AEFOLK* 27, 11-97.

ALKAIN, I. & ZABALA, A., 1970, *Alkain aita-semeak*, Auspoa, Tolosa.

ALTUNA, J., 1992, "Dataciones de radiocarbono para el Perigordiense superior del País Vasco", *Munibe* 44, 31-32.

— 1993, "Informe de la sección de Arqueología Prehistórica", *Aranzadiana* 114, 31-43.

ALTUNA, J. et al., 1982, “Carta Arqueológica de Guipúzcoa”, in *Munibe* 34, I-III liburukiak. 1: 25.000 eskalako mapaz.

— 1990, *Gipuzkoako Karta Arkeologikoa*, Donostia, Aranzadi Zientzi Elkartea, *Munibe* aldizkariaren zazpigarren gehigarria. 1: 10.000 eskalako mapaz.

AMUATEGUI, T., 1976, *Urnieta*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia.

— 1998, *Urnietako etxe eta baserriak*, Urnietako Udala, Urnieta.

ANDREU, J. (arg.), 2006, *Navarra en la Antigüedad. Propuesta de Actualización*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

ARAGON, A., 2001, *El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: Aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad*, Aranzadi Zientzi Elkartea, Donostia.

ARANTZADI, T., 1915, "Cromlechs en Guipúzcoa. Mairu-baratzak en Oyarzun", *Euskalerriaren Alde* 5, 707-714.

ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA, 1986, *Estudio de la recuperación biológica del Río Urumea*, lan argitaragabea, Donostia.

— 1989, *Artikutzako gidaliburu ekologikoa*, Donostiako Udala, Donostia.

— 1990, *Astigarragako gidaliburua*, Astigarragako Udala, Astigarraga.

ARIN DORRONSORO, J., 1958, "Notas acerca del pastoreo tradicional de Ataun", *AEFOLK* 16, 77-124.

ARRIBAS, J. L., 1990, "El Magdaleniense Superior / Final en el País Vasco", *Munibe* 42, 55-63.

ATAURI et al., 1951, "Exploración de tres dólmenes de la estación dolménica de Igoin-Akola (Guipúzcoa)", *Munibe* 3, 1-56.

BARANDIARAN, J. M., 1928, "Barrios de Sasiola, Astigarribia, Olaz, Mixoa y Galdua (Deva-Motrico)", *AEFOLK* 8, 7-33.

— 1961, "Bosquejo etnográfico de Sara", *AEFOLK* 18, 107-180.

— 1962, "Bosquejo etnográfico de Sara, III (continuación)", *AEFOLK* 19, 47-124.

— 1972, *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, lehen liburukia, Bilbo.

— 1973, "Eusko Folklore", in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, bigarren liburukia, Bilbo. *Anuario de Eusko Folklore* aldizkarian, 1921-1946, 1947-1953 eta 1954-1972 urteetan argitaratutako orriak.

— 1975 (1921), "Exploración de ocho dólmenes de Altzania", in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, zortzigarren liburukia, Bilbo, Estreinakoz 1921. urtean plazaratua; J. M. Barandiaran et al., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

— 1975b (1924), "Exploración de ocho dólmenes de la sierra de Aralar", in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, zortzigarren liburukia, Bilbo. 1924. urtean karrikaratua.

— 1975c (1920),"Exploración de siete dólmenes en la sierra de Ataun-Burunda", in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, zazpigarren liburukia, Bilbo. 1920an argitaratua.

— 1975d (1923), "Exploración de cuatro dólmenes de Belabieta", in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, zortzigarren liburukia, Bilbo. Lehen argitaraldia 1923koa da; J. M. Barandiaran et al., Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.

— 1976 (1926), "Estaciones megalíticas de Navarra", in *Obras Completas*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, hamargarren liburukia, Bilbo. Lehenbizko aldiz 1926. urtean argitaratua; *Revista Internacional de Estudios Vascos* 17, 358-368.

— 1976b (1928), "Nueva estación prehistórica en Guipúzcoa. Los dólmenes de Landarbaso", in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, hamargarren liburukia, Bilbo. Aurrenekoz 1928an plazaratua; *Anuario de Eusko Folklore* 8 (1. aldia), 153-156.

— 1978 (1949), "Contribución al estudio de los cromlechs pirenaicos", in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, hamabigarren liburukia, Bilbo. 1949an ikusi zuen argia; *Homenaje a D. Julio Urquijo*, *BRSVAP* 1, I.

— 1978b (1952), "Crónica de prehistoria. Prospecciones en las regiones de Baigorri, de Mendive, de Lecumberri y de Alzay. Cromlechs y dólmenes de Iraty y de Bagargi. Dolmen de *Xuberaxainharri*. Cueva de *Mikelauen-zilo*", in *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, hamahirugarren liburukia, Bilbo. Lehenegoz 1952an atera zen; *Eusko Jakintza* 6, 154-161.

— 1978c (1953), "El hombre prehistórico en el País Vasco", in *Obras Completas*. La Gran Enciclopedia Vasca, hamahirugarren liburukia, Bilbo. Editorial Vasca Ekin-ek Buenos Airesen argitaratu zuen lehenbizko aldiz 1953. urtean.

— 1982, “Guía de iniciación a las investigaciones etnográficas” in *Euskaldunak*, Etor, laugarren liburukia, Donostia.

BARRENA, E., 1989, *La Formación Histórica de Guipuzcoa*. *Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*, Deustuko Unibertsitatea, “Cuadernos Universitarios (E.U.T.G- Mundaiz)” bilduma, Donostia.

CAMINO, J. A., 1963, *Historia de San Sebastián*, Donostiako Udala, Donostia.

CAMPIÓN, A., 1985 (1892), *Datos Históricos de Navarra*, in *Obras Completas de Arturo Campión*, Mintzoa, hamalaugarren liburukia, Iruñea. 1892. urtean *Euskal-Erria* 27-n karrikaratua.

CARO BAROJA, J. (zuzendari), 1980, *Historia General del País Vasco*, La Gran Enciclopedia Vasca & Luis Haranburu, hirugarren liburukia, Bilbo.

CAVA, A., 1990, "El Neolítico en el País Vasco", *Munibe* 42, 97-106.

CRESPO, M. A. & CRUZ, J. R. & GÓMEZ, J. M., 1991, *Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería I*, Eusko Ikaskuntza, "Fuentes Documentales Medievales del País Vasco" bilduma 32, Donostia.

— 1997, *Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería II (1470-1500)*, Eusko Ikaskuntza, "Fuentes Documentales Medievales del País Vasco" bilduma 72, Donostia.

DEL BARRIO, L. del, 1979, "Nuevos monumentos megalíticos en Guipúzcoa", *Munibe* 31, 260.

DIARIO VASCO, EL, 1992, "1882", urtarrilaren bosteko *El Diario Vasco* egunkarian berrargitaratua. Lehenbizikoz 1882ko urtarrileko *El Urumea*-n plazaratua. Izenik gabea.

DÍEZ, L. M., 1983, *Ferrerías de en Hernani en el siglo XVI*, lan argitaragabea. Guk Hernaniko Udal Artxiboan dagoen alea erabili dugu.

— 1983b, *Ferrerías en Guipúzcoa (Siglos XIV-XVI)*, bi liburuki, Haranburu-Editor, Donostia. Aurreneko liburukiak *Historia* izenburua du eta bigarrenak *Fuentes e Instituciones*. Bartzelonako Unibertsitatean 1981ean aurkezturiko doktorego tesia.

— 1997, *Ferrerías en Guipúzcoa. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (Siglos XIV-XVI)*, M. R. Aierbek paratu argitaraldia, Instituto Dr. Camino de Historia Donostiarra & Kutxa Fundazioa, Donostia.

ESTEBAN, M., 1990, *El País Vasco Atlántico en Época Romana*, Deustuko Unibertsitatea, "Cuadernos Universitarios (E.U.T.G- Mundaiz)" bilduma, Donostia.

EUSKO IKASKUNTZA (arg.), 1982, *El Fuero de San Sebastián y su época*. Eusko Ikaskuntza, Donostia. 1981. urteko urtarrilaren 19tik-23ra burututako kongresuaren aktak biltzen ditu.

GARIBAI, E., 1628, *Compendio Historial de los Cuarenta Libros*, Bartzelona. bigarren argitaraldia. 1559-1566 bitartean idatzia, 1571. urtean ikusi zuen argia lehenengoz. Guk Gerardo Unak, Leioan, 1988an moldaturiko edizioaren erreprodukzioa erabili dugu. Deustuko Unibertsitatearen Donostiako Egoitzako Liburutegia.

GARMENDIA, J., 1976, *De Etnografía Vasca (cuatro ensayos)*, Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, "Documento" bilduma, Donostia.

— 1989, *El pensamiento Mágico Vasco*, Baroja, Donostia.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA, 1991, *Gipuzkoako Geomorfologia eta Edafologia*, Donostia.

GÓMEZ MUÑOZ, J. M., 1993, "Hernani (1900-1991). Estudio Demográfico", *Hernani* 2, 85-89.

GÓMEZ PIÑEIRO et al., 1994, *Documentos Cartográficos Históricos de Gipuzkoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

GONZÁLEZ, I. & APARICIO, C., 1989, "Inventario de los fondos pertenecientes a las Contadurías de Hipotecas", *Bilduma* 3, 99-119.

GOÑI GAZTANBIDE, J., 1963, "Catálogo del Becerro antiguo y del Becerro menor de Leire", *PV*, 92-93.

— 1997, *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona*, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Saila, Iruñea.

GUY STARUS, L., 1990, "Human occupation of Euskalerria during the last Glacial Maximun: the Basque Solutrean", *Munibe* 42, 33-40.

HARTSUAGA, J. I., 1987, *Euskal Mitologia Konparatua*, Kriseilu, Donostia.

— 1987b, *Jentilen akabaera*, Luis Haranburu, Donostia.

INDUBAN, 1973, *Mitos y Leyendas del Pais Vasco*, Induban, Donostia.

ISASTI, L. M., 1972 (1625), *Compendio Historial de la muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*, La Gran Enciclopedia Vasca, bosgarren liburukia, Bilbo. Hau 1625. urte aldera idatzia da.

IZTUETA, J. I., 1975 (1847), *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo. 1847. urtean karrikaratu zen aurrenekoz.

KEREXETA, J.,1992, *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Labayru Institutua & Bilbo Bizkaia Kutxa, Bilbo.

LAKARRA, J. M., 1965, *Colección diplomática de Irache*, Instituto de Estudios Pirenaicos, lehen liburukia (958-1222), Zaragoza.

LARRAMENDI, M., 1985 (1756), *Corografía o Descripción de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, Amigos del Libro Vasco, Bilbo. 1784. urtean idatzia da.

LARRAÑAGA, M. & LEMA, J. A., 1995, *Colección de Documentos Medievales del Covento de San Bartolomé (San Sebastián) (1250-1515)*, Eusko Ikaskuntza, "Fuentes Documentales Medievales del País Vasco" bilduma 58, Donostia.

LERTXUNDI, A., 1996, *Letrak Kalekantoitik*, Alberdania, Donostia.

MADOZ, P., 1991 (1845-150), *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar. Guipúzcoa*, Gipuzkoako Batzar Nagusiek egindako facsimile erako berrargitalpena, Donostia. Lehenbizikoz Madrilen ikusi zuen argia 1845. eta 1850. urteen artean.

MARTÍN DUQUE, A. J., 1983, *Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea.

MARTÍNEZ DÍEZ, G., 1975, *Guipúzcoa en los albores de su Historia (Siglos X - XII)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

MURUGARREN, L., 1970, *Hernani*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia.

— 1974, *Urnieta*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian, Donostia.

MUXIKA, S., 1916, *Geografía General del Pais Vasco-Navarro*, Establecimiento editorial de Albero Martín, Bartzelona.

— 1935, "Donación a Leire. Orígenes de San Sebastián. Iglesias de Santa María, San Sebastián y San Vicente", *RIEV* 26, 393-422.

OLAETXEA, C., 1991, "Tres nuevos poblados de la Edad del Hierro en la Protohistoria de Gipuzkoa", *Munibe* 43, 175-180.

OTAEGI, A., 1981, *La desintegración de una propiedad comunal: los montes francos de Urnieta*, Bartzelonako Unibertistaean, 1981. urtean, irakurritako lizentziatura-txostena. Lan argitaragabea.

PEÑA BASURTO, L., 1960, *Reconstitución y catalogación de los "cromlechs" existentes en Guipúzcoa y sus zonas fronterizas con Navarra*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

— 1963, *Montañas Guipuzcoanas*, Itxaropena, Zarautz.

PEÑA SANTIAGO, L.P., 1995, *Ermitas de Gipuzkoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

PEÑALVER, J, 1987, "Mulisko Gainako aztarnategiaren indusketa", *Munibe* 39, 93-120.

REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA, 1802, *Diccionario Geográfico-Histórico de España*, Imprenta de la Viuda de D. Joaquín Ibarra, lehenengo atala, bigarren liburukia, "San Sebastián" artikulua, Madril.

REZOLA, M., 1980, "La casa Alcega", *El Diario Vasco* egunkarian ekainaren 20an argitaratua.

SCHULTEN, A., 1927, "Las referencias sobre los Vascones hasta el año 810 después de J. C.", *RIEV* 18, 225- 240.

SORIA, M. L., 1982, *Los Hombres y los Bienes de la Villa de Hernani entre 1.585 y 1650*, Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia. Deustuko Unibertsitatean 1980an aurkezturiko doktorego tesia.

TOLOSAKO UDALA, 1956, *Libro-Homenaje a Tolosa el VII centenario (1256-1956)*, Tolosako Udala, Tolosa.

URTEAGA, M., 1989, "El puente de Etxola-erreka", *Munibe* 41, 153-160.

UTRILLA, P., 1990, "La llamada *Facies del Pais Vasco* del Magdaleniense Inferior Cantábrico. Apuntes estadísticos", *Munibe* 42, 41-54.

YANGUAS Y MIRANDA, J., 2000 (1840), *Diccionario de Antigüedades del reino de Navarra*, hiru liburuki, Nafarroako Gobernua, hirugarren argitalpena, Iruñea. José Imaz Gaderaren moldiztegiak 1840. urtean Iruñean karrikaratu zuen estreinakoz.

ZABALA, A., 1992, *Txirrita*, Auspoa, Tolosa.

ZALDUA, L. M., 1996, *Saroeak Urnietan*, Kulturnieta, Urnieta.

— 1996b, "Argurutz", *Hernani* 3, 20-28.

— 2006, *Saroiak eta kortak*, autoreak argitaratua, Urnieta.

— 2010, "Saroiak eta kortak: abeltzaintza-sareko lotuneak", in *Gipuzkoa mendiz-mendi, mendez-mende*, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa, Donostia.

ZULETA, L. B., 1936, *Hernani*, Donostia.

— 1985, *Hernani entre dos guerras. 1.872-1.936*, Hernaniko Udala, Hernani.

11.2. Erabilitako kartografia

AGIRRE, J. & IDIGORAS, J. A. & IÑURRITEGI, A, 1993, *Oñati. E. 1: 25.000*, s.l., Oñatiko Udala.

BONAPARTE L. L., 1863, *Carte des Sept Provinces Basques*, London.

DEL BARRIO, L. & ZALDUA, L. M., 1991, *Urnietako Mapa. E. 1: 10.000*, Urnietako Udala & Aranzadi Zientzi Elkartea, Donostia.

— 1992, *Astigarragako Mapa. E. 1: 10.000*, Astigarragako Udala & Aranzadi Zientzi Elkartea, Donostia.

— 1992, *Hernaniko Mapa. E. 1: 15.000*, Hernaniko Udala & Aranzadi Zientzi Elkartea, Donostia.

DEL BARRIO, L. & ETXABE, M. K. & FURUNDARENA, J. J. & ZALDUA, L. M., 1992, *Usurbilgo Mapa. E. 1: 10.000*, Usurbilgo Udala & Aranzadi Zientzi Elkartea, Donostia.

DEL BARRIO, L., 1997, *Abaltzisketako Mapa. E. 1:7.500*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Abaltzisketako Udala, Donostia. Toponimia: J. J. Furundarena.

— 1997, *Anoetako Mapa. E. 1:5.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Anoetako Udala, Donostia. Toponimia: J. J. Furundarena.

— 1998, *Alegiako Mapa. 1:7.500*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Alegiako Udala, Donostia.

— 1998, *Getariako Mapa. E. 1:7.500*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Orioko Udala, Donostia.

— 1998, *Orexako Mapa. E. 1:7500*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugira Saila & Orexako Udala, Donostia.

— 1998, *Gazteluko Mapa. E. 1:7500*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Irurako Udala, Donostia.

— 1998, *Irungo Mapa Toponimikoa. E. 1:25.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Irungo Udala, Donostia. Toponimia: M. Berruet Arbelaitz.

— 1999, *Debako Mapa. E. 1:15.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamnedu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Debako Udala, Donostia.

— 1999, *Mutriku. E. 1:10.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Mutrikuko Udala, Donostia.

— 1999, *Lezoko Mapa. E. 1:7.500*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Lezoko Udala, Donostia. Toponimia: J. J. Furundarena.

— 1999, *Ataun. E. 1:15.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Ataungo Udala, Donostia, Toponimia: J. Aizpurua Barandiaran.

ECAR S. L., s. d., *Urkabustaizko Mapa. E. 1:20.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Urkabustaizko Udala, Gasteiz.

ELOSEGI, J. M., 1997, *Leitza. Mapa Toponimikoa. E. 1: 15.000*, Leitzako Udala, Donostia.

ETNOGINTZA, 1993, *Ibarrako Mapa. E. 7:500*, Ibarrako Udala, Ibarra. Toponimia: L. M. Zaldua.

— 1994, *Antzuolako Mapa. E. 1: 10.000*, Antzuolako Udala, Antzuola. Toponimia: I. Ramirez Okariz & L. M. Zaldua.

— 1994, *Villabona-Amasako Mapa. E. 1: 10.000*, Villabonako Udala, Villabona. Toponimia: J. J. Furundarena & L. M. Zaldua.

— 1994, *Adarramendi-Mandoegiko Mapa. E. 1: 25.000*, Etnogintza, Donostia. Toponimia: L. M. Zaldua.

— 1994, *Hondarribiko Mapa. E. 10:000*, Hondarribiko Udala, Hondarribia. Toponimia: J. J. Furundarena.

— 1995, *Donostiako mapa. E. 1: 25.000*, Donostiako Udala, Donostia. Toponimia: J. J. Furundarena & L. M. Zaldua.

— 1995, *Zarautz. Toponimoen Mapa. E. 1:10.000*, Zarauzko Udala, Zarautz. Toponimia: J. J. Furundarena & L. M. Zaldua.

— 1997, *Olaberriko Mapa E. 1:5000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Olaberriko Udala, Donostia. Toponimia: J. J. Furundarena & L. M. Zaldua.

— 1997, *Segurako Mapa E. 1:7.500*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Segurako Udala, Donostia. Toponimia: J. J. Furundarena & L. M. Zaldua.

— 1997, *Zegamako Mapa E. 1:10.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Zegamako Udala, Donostia. Toponimia: J. J. Furundarena & L. M. Zaldua.

— 1997, *Aralar. Parke Naturala. E. 1:25.000*, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila & Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua, Donostia. Toponimia: J. J. Furundarena & L. M. Zaldua.

EUSKO JAURLARITZA, 1990, *Euskal Autonomi Elkarteko Landarediaren Mapa*, Madril, 64-II eta IV-orriak.

GEOGRAMA, 2006, *Errenteria. Mapa toponimikoa eta kale izendegia E. 1: 15.000*, Errenteriako Udala, Errenteria.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA, 1986, *Gipuzkoako Errepideak. E. 1: 100.000*, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide eta Garraioetako Zuzendaritza Nagusia, Donostia.

GOIKOETXEA, I., 1994, *Mandoegi Leitzaran. E. 1: 25.000*, Aranzadi Zientzi Elkartea, Donostia.

— 1995, *Asteasu. E. 1:10.000*, Asteasuko Udala, Asteasu.

GOIKOETXEA, I. & LEIBAR, L. C., 1989, *Oiartzun. E. 1: 10.000*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia.

GOIKOETXEA, I. & LEKUONA, I., 2007, *Oiartzungo toponimia – Toponimia de Oiartzun*, "Mugarri" bilduma 14, Oiartzun, Oiartzungo Udala.

IKERMAP, 1998, *Orio. Herriko Mapa. E. 1:7.500*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Orioko Udala, Donostia.

— 1999) *Ikaztegieta. Herriko Mapa. E. 1:5000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Ikaztegietako Udala, Donostia. Toponimia: A. Lete eta I. Goikoetxea.

— 1999) *Irura. Herriko Mapa. E. 1:5000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Irurako Udala, Donostia. Toponimia: A. Lete eta I. Goikoetxea.

— 1999) *Lizartza. Herriko Mapa. E. 1:10000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Lizartzako Udala, Donostia. Toponimia: A. Lete eta I. Goikoetxea.

— 1999) *Arama. Herriko Mapa E. 1:5.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Aramako Udala, Donostia.

— 1999) *Elduain. Herriko Mapa E. 1:12.500*, , Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Elduaingo Udala, Donostia. Toponimia: A. Lete eta I. Goikoetxea.

— 1999) *Lazkao. Herriko Mapa. E. 1: 7.500*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Elduaingo Udala, Donostia. Toponimia: J. M. Aramburu, A. Lete eta I. Goikoetxea.

IKT S. A., 1992, *Beizama. Heziketa, Aisia, Paisaia*, s.l., Gipuzkoako Foru Aldundia & Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila & Beizamako Udala. 1:10.000 mapaz hornitua

ININFOR, 1999, *Idiazabal. E. 1:10.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Idiazabalgo Udala, Bilbo. Toponimia: A. Berasategi Lardizabal.

NEURRI Ingenieros, 1998, *Orendaingo Mapa. E. 1:5000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Orendaingo Udala, Donostia.

OBIE, 1988, *Oiartzun Bailarako Mapa E. 1:20:000. Oiartzun udal mugapearen ondare eta toponimiazko kartografia*, Oiartzungo Udala, Donostia.

— 1989, *Bera lurraldeko mapa E. 1:10:000. Bera udal mugapearen ondare eta leku izenak*, Berako Udala, Donostia.

TELLABIDE, J., 1995, *Larraul Udalbarrutiko Mapa*. *E. 1:7.500*, Larraulgo Udala, Donostia.

— 1996, *Altzo Udalbarrutiko Mapa*, *E. 1:7.500*, Altzoko Udala, Donostia.

TRACSA, 1998, *Arrasateko Udala E. 1:10.000*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila & Arrasateko Udala, Gasteiz.

MUXIKA ULAZIA, N. (zuzendari), 1996, *1.10.000 Eskalako Kartografia*, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Informazio, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Gasteiz. Toponimia Deustuko Unibertsitateko DEIKER institutuak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politika Sailarentzat 1991. urtetik aurrera landutakoa da.

ZZ. AA., 1996, *Goizueta-Arano Mapa E. 1: 15.000*, Goizueta eta Aranoko Udalak.

12. LABURDURAK

AAM: *Adarramendi-Mandoegiko mapa*, Etnogintza.

AAM: *Arama. Herriko mapa*, Ikermap.

Abl.: ablatiboa.

ABM: *Abaltzisketako mapa*, L. del Barrio.

Adl. s.: adlatibo soila.

AEFOLK: *Anuario de Eusko-Folklore*.

ALM: *Alegiako mapa*, L. del Barrio.

AM (1992): *Astigarragako mapa*, L. del Barrio eta L. M. Zaldua.

Arg.: argitaratzaile.

ARM: *Aralar. Parke naturala*, Etnogintza.

ASJU: Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo".

ASM: *Arrasateko Udala*, TRACSA.

AT: *Andoaingo Toponimia*, A. Usabiaga.

ATM: *Ataun*, L. del Barrio.

Au.: aurkia.

AV: *Apellidos Vascos*, K. Mitxelena.

AZM: *Antzuolako mapa*, Etnogintza.

BEM: *Beizama. Heziketa, Aisia, Paisaia*, IKT.

Bin.: binperra.

BM: *Bera lurraldeko mapa*, OBIE.

BRSVAP: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*.

C: kontsonantea.

CAG: *Carta arqueológica de Guipúzcoa*, J. Altuna et al.

CDLV: *Contribución a la Dialectología de la lengua vasca*, P. Irizar.

CDV: "Contribución al diccionario vasco (Palabras de Arano)", R. C. Bozas Urrutia.

CEEN: *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*.

CH: *Compendio Historial de los Cuarenta Libros...*, E. Garibai.

CHG: *Compendio historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, L. M. Isasti.

DBM: *Debako mapa*, L. del Barrio.

DEV: *Diccionario Etimológico Vasco*, M. Agud eta A. Tovar.

DJE: Donostiako Jabego Erregistroa.

DM: *Donostiako mapa*, Etnogintza.

Dok.: dokumentazioa.

DRPLV: *De re philologica linguae uasconicae*, A. Irigoien.

DTE: *Donostiako toponimi erregistroa*, J. Tellabide.

DUA: Donostiako Udal Artxiboa.

DUE: *Diccionario de uso del español*, M. Moliner.

DVEF: *Diccionario Vasco-Español-Francés*, R. M. Azkue.

EAEATB: *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, P. Salaberri.

Ed.: edizioa.

Ed. g.: edutezko genitiboa.

EHA: Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa.

EHM: *Euskal hiztegi modernoa*, Elhuyar.

EI: *Erizkizundi Irukoitza*, A. M. Etxaide.

EJ: Eusko Jaurlaritza.

EJ1: *1.10.000 eskalako kartografia*, Lurralde Antolaketa Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

ET: "Errenteriako toponimoak", L. M. Muxika.

ETC: *Estudis de toponimia catalana*, J. Coromines.

ETTVC: *En torno a la toponimia vasca y circunpirenaica*, A. Irigoien.

EUA: Errenteriako Udal Artxiboa.

FG: *Ferrerías en Guipúzcoa (Siglos XIV-XVI)*, L. M. Díez.

FH: *Las Ferrerías de Hernani en el siglo XVI*, L. M. Díez.

FHG: *La formación histórica de Guipuzcoa*, E. Barrena.

FHV: *Fonética histórica vasca*, K. Mitxelena.

FLV: *Fontes Linguae Vasconum*.

GAH: *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, J. J. Zubiri eta P. Perurena.

GAM:: *Goizueta-Arano mapa*, zenbaiten artean.

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia.

GFA3: *Gipuzkoako errepideak. E. 1: 100.000*. Gipuzkoako Foru Aldundia.

GKA: *Gipuzkoako Karta Arkeologikoa*, J. Altuna.

GM: *Getariko mapa*, L. del Barrio.

GPAH: Gipuzkoako Protokolo Artxibo Historikoa.

GPC: *Guipuzcoaco provinciaren condaira*, J. I. Iztueta.

GZM: *Gazteluko mapa*, L. del Barrio.

HBVH: *Los hombres y los bienes de la villa de Hernani entre 1.585 y 1650*, M. L. Soria.

HGPV: *Historia General del País Vasco*, J. Caro Baroja.

Hist.: historikoa.

HM: *Hernaniko mapa*, L. del Barrio eta L. M. Zaldua.

HTD: "Historia y toponimia donostiarras", R. Izagirre.

HUA: Hernaniko Udal Artxiboa.

HUTB: *Hernani udalerriko toponimia bilketa*, L. del Barrio, J. Tellabide eta L. M. Zaldua.

I.e.: izen espezifikoa.

I.g.: izen generikoa.

IDM: *Idiazabal*, Ininfor.

IGC: Instituto Geográfico Catastral.

IGN: Instituto Geográfico Nacional.

IKA: Iruñeko Katedraleko Artxiboa.

IKM: *Ikaztegieta. Herriko mapa*, Ikermap.

IM: *Ibarrako mapa*, Etnogintza.

In.: inesiboa.

IRM: *Irungo mapa toponimikoa*, L. del Barrio.

IRUM: *Irura. Herriko mapa*, Ikermap.

Kart.: kartografia.

Koord.: koordinatzailea.

L. g.: leku genitiboa.

LIM: *Lizartza. Herriko mapa*, Ikermap.

LOUTB: *Lasarte-Oria udalerriko toponimia bilketa*, L. del Barrio, J. Tellabide eta L. M. Zaldua.

LRM*: Larraul udalbarrutiko mapa*, J. Tellabide.

LZM: *Lezoko mapa*, L. del Barrio.

MHLV: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, J. Caro Baroja.

MLM: *Mandoegi-Leitzaran*, I. Goikoetxea.

MUM: *Mutriku*, L. del Barrio.

NAO: Nafarroako Artxibo Orokorra.

NTEM: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, J. M. Jimeno Jurio et al.

OBIE: Oiartzun Bailarako Izadi Elkartea.

OC: *Obras Completas*, J. M. Barandiaran.

ODM: *Orendaingo mapa*, Neurri.

OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia*, K. Mitxelena.

OM: *Oiartzungo mapa*, I. Goikoetxea eta A. Leibar.

OLM: *Olaberriko Mapa E. 1:5000*. Etnogintza.

Or.: Orrialdea.

ORM: *Orio. Herriko mapa*, Ikermap.

OXM: *Orexako mapa*, L. del Barrio.

PATO: *Pasaiako Toponimia*, A. Elortegi.

PV: *Príncipe de Viana*.

RAH: Real Academia de la Historia.

RIEV: *Revista Internacional de Estudios Vascos*.

S.d.: argitalpen-data ezezaguna.

SGE: Servicio Geográfico del Ejercito.

S.l.: argitalpen-toki ezezaguna.

SM: *Segurako Mapa*, Etnogintza.

TVSL: *Toponomástica del Valle de Santesteban de Lerín*, A. Iñigo.

UKM: *Urkabustaizko mapa*, Ecar.

UM: *Urnietako mapa*, L. del Barrio eta L. M. Zaldua.

UNED: Universidad Nacional de Educación a Distancia.

UPA: Urnietako Parrokiako Artxiboa.

USM: *Usurbilgo mapa*, L. del Barrio, M. K. Etxabe, J. J. Furundarena eta L. M. Zaldua.

UTC: U.S. Army Topographic Command.

UUA: Urnietako Udal Artxiboa.

UUTB: *Urnieta Udalerriko toponimia bilketa*, L. del Barrio, J. Tellabide eta L. M. Zaldua.

UZA: Urnietako Zilegiaren Artxiboa.

V: bokala.

VEK: Valladolideko Errege Kantzileriako Artxiboa.

VM: *Villabona-Amasako mapa*, Etnogintza.

ZZ. AA.: zenbait autore, zenbaiten artean.

ZGM: *Zegamako Mapa*, Etnogintza.

Zki.: zenbakia.

ZM: *Zarautz. Toponimoen mapa*, Etnogintza.

Zuzend.: zuzendaria.